

A XD LAR

G U E R O C I
G U E R O


ATV

814

1864







A.T.V.
1814



M - 9886
R - 4336

*Mathieu Aguerre
V.F.*

GUEROCO GUERO

EDO



ARIMAREN EGUITECOEN GUEROCO UTZTEAC
CENBAT CALTE ETA ÇORIGAITZ DAKHARQUEN.

GIGOMENAC, ESKRITURA SAINDUTIC, ELIGACO DOTORRETARIC
ETA ÇUHURREN LIBURUETARIC

AXULAR,

Sarao Erretorae bilduac.

EDICIONE BERRIA,

Garlotua, chuchendua eta bere baitzako ordenan emana.



BAYONAN.

LAMAIGNÈRE, ALHARGUNAREN MOLDEQUITCAN.

1864.

M. HARAMBOURE , VICARIO YENERALAREN

BAIMENA .

Huna non berriz argitarat aguerices caucun AXULAR , Saraco erretor ohiaren liburu guez ospatua. Aspaldion ahantzin beçala cen , arras gutiac cirelacotz obra hura bere escuetan caucaten presuna berheriac. Damuric ordea ce- goen ilhumbean, hobian ehortzien pare. Vaincoari esquer ediren da Bayonaco Eliça-guiçonen artean aphez bat , molde guez gai dena euscararen adisquide gucien guti- ciari ihardesteko. Atseguinequin iracurtu ditut imprimatce hecri batentçat eguin dituen preparuac ; eta bihotz onez ematen diogu siphaitu aphezari gure baimena. Ordu da ecen Euscal-herri gucian heda eta iracur dadin arimen onetan Axular iaquinxunaren escuetaric athera den liburu ecin asqui landatuzcoa.

Emana Bayonan , otsailaren 2º 1864.

HARAMBOURE ,

Vicario Yenerala.

YAUN APHEZPICUAREN

BAIMENA.

GEL FRANÇOIS LACROIX, Yaincoaren Misericordiaz eta Alkhi Saindu Apostolicoaren autoritatez, Bayonaco Aphezpicuare;

Gogotic onhesten dugu berriz imprimatua içan dadin *Guero o Guero* deritçan, Axolaren liburna; salbamenduaren eguitoco handia guerorat uzten dutenen iratgar arazteco, eta guristino onen hiztegi chuchenean atchiquitceco eta azcartceco hain gai eta indartsu dena. Desirateen dugu etchadia gucieta bat bedere içan dadin; eta maiz, etcheco guciæ bilduac direnean, capitulo cebait iracur deçaten; probetchu handi baicen horren iracurtcetik expaititaque athera.

Bayouan emana, gure etcharmen cigilioaren, eta gure segretarioaren sinaduraren azpian.

Otsailaren 4^a, 1864.



+ FRANÇOIS LACROIX.

Ene Jaungréen manuz:

FRANCHISTÈGUY,
Col. Soye.

AITCINSOLHASA.

Eusealdun maitea, huna non duçun AXULAR çaharra, omen handitaco guicou hura, euscal-dun esquiribaçailen artean lehena eta buru-çagui ; huna non duçun berriz phiztua, berriz arguirat aguertua, anhitzen nahiaren arabera.

Berre hun eta hogoi urthe badu içan cela le-henic haren liburu ederra imprimatua ; aspaldi cuen etcela edireiten phuzeaturic eta çathar-caturic baicen ; eta aspaldian eçagutcen çute-nec galdeguiten çuten othian etçutenz AXULAR berriz imprimaturen. Anhitz luçatu du, baina guerocotz heldu da ; ezpaita sobera sarri, ceren holaco liburuec behar Inquete guztien escua-ran içan ; eta ophatceco liteque, Jaun Aphez-piuac dioen beçala, bat bedere licen etche eta familia guzietan.

Uste içateco da lehen ekhoiztea edo edicionea etçuela Axularec guidatu eta arthatu aha. Liburuaren baimenduetan ikuhusten dngu or-ducotz etcela Saraco erretor : *Nuper Rector de Sara...*, *Olim Rector de Sara* : Saraco erretor ohia, deithua da. (1)

Horrec nabarbenteen du nola ediciona har-

(1) Saraco orhoitcarriez eracusten dute 1644 garren ur-thearen hastean Axular hil içan cela.

tan hainbertce huts eta narrio aurkhitzen den ; urhatsca trabatzen baitute iracurçaillea , eta ecin comprenituz gueldi arazten .

Liburuaren cathi guztien batundetcean ere bada cerbait nahasteca , eztira behar litezquen seguidan ibeniac .

Badirudi Axularen guthun edo paperac emanac içan cirela imprimacailleari ondozcatu gahe , ordenan ecarri gabe ; eta hunec imprimatu dituela albeçala , escuen artean guerthatseen citçaizean ereduraz , lehena azqnen , azquena lehen ; et-çuelacotz guidariric eta ez chuchençaileric .

Ekhoizte berri hunetan gauçac ondozcatu ditugu eta liburuaren cathi guztier iarraiquite eman derauegu . Hutsac ahalaz khendu edo chuchendu ditugu ; cenbait nasqui guri ere itenri caiquegu , ezpaititaque berteela ; baina hequiee , uste dugu , iracurçailleac aise chuchen-duren dituen .

Guti toquitan behar içan dugu Axularen minteaia ere estali , aphaindu edo aldatu , orai-ko ienden delicatutasunagatik . Axularen dem-boran , bai erdaraz bai euscaraz , orai baino libroquiago eta nasaiquiago mintço ciren ; gau-cen bere icenaz deitceaz nehor etcen asaldaten . Oraiko azturac nahiz eztiren orducoae baino hobeago ez garbiago , bai ordea minberago dira beharriac ; eta benturaz gogoa ere

gaizquiaren phensatcera çalhuago eta lasterago. Minberatasun horren ariaz, eta amoreacatic arima garbienee probetchuequin iraeur ahal deçaten Axularen liburu ederra, garbitu, leunto eta aphaindu ditugu lekhu harro, cakhar eta gordinegui cirenac; alabaina osoric uzten dugularic Axularen laneguina.

Esquiribateeco araz ere bi hitz erran behar dugu, ceren batec guisa batera, bertceec berterea nahi baitçuten Axularena alda gueneçan.

Oraico demboretan euscaraz esquiribaçaille guehienee hautatu dute esquiribateeco molde bat eusearari hobequi eta chuchenquiago dohacona. Baino esquiribateeco ara hura ezta oraino asco hedatu; ezta ere populuaz ongi hartua, ceren eman behar baitçaicte letrey erdaran emaiten eztioten soinu eta balio bat; eta are catechimaco eta Elixa-libornetaco euscarra ezpaita hala esquiribatua. Bertçalde batbedera libro bada bere obraren nahi duen molderan esquiribatcera, ezta hain errazqui atrebitu behar bertceren, eta guez Axularen, esquiribateeco araren uqnitcera etu aldatcera. Beguiratu dugu beraz Axularen esquiribaquida, eta hori gaitzesten duteney erranen derauengu Axularequin: «Ceren comunzqui hala esquiribatcea nola mintçateea, nori berea iduritcen * baitçaica hobenic eta ederrenic; gure baur ez-

- * padaçurea beçala, ez othoi hargatic arbuya eta
- * gaitz erran. Hunetçaz content ezpaçara eguiçu
- * queçure moldera ; eznaiz ni hargatic bekhaiz-
- * tuco , ez muthurturie gaitzez iarrico .

Baditaque guztiarequin euscarra esquiriba di-tequeyela Axularrec esquiribatu duen baino ar-thezquiago ; baina nore erranen du mintçea di-tequeyela hobequi ? Hunetan guztiien, bai lehenecoen bai oraicoen , nabusi eta buruçagui da Axular. Nehorci eztu hain ederqui, hain garbi-qui , hain lañoqui eta hain ugariqui euscarra mintçatu. Guztiec behar diegu gure burua bli-zi, agur eguiñ eta nabusi eçagutu. Euscaldun ongi euscarra erran nahi dutenec , eta euscarra eçagutu nahi duten atee jaquintsuec , Axular behar dute iracurtu eta auteman.

Eztu Axularrec bere antçoraco euscarra bat eguiñ ; eztu bere mintçaiia makhurtu, bihurtecatu, escarniatu eta escaçatu, erdaren adere-tara edo erregueletara plegatu nahiz , bertee cenbaitec eguiñ eta eguiten duten beçala. Hare euscarra euscaraz mintçatu du eta esquirabatu ; euscarra garbia mintçatzen den toquietan , Zu-garramordin bere sor lekhuan , eta Sarau bere erretorian, erraiten den beçala.

Baina hec guztiac , bai esquiribatceco bai mintçatceco moldeac , Axularen obraren cam-poa eta açala dira ? Eta eztago hequietan haren

liburuaren balioric handiena. Barrenean du barrenean bere eguiazco precioa; mamia du arraroena eta baliosena. Han ikhusten da Axularen iaquitate hedatua, haren asmu chuchena eta segura, haren izpirituarren goratasuna eta chotiltasuna; eta ere arimen salba araciteco quen sugar borthitza. Escritura saindua, Eliçaco Aiten erranae, Filosofo çaharren çuhurthitzac, istoria saindua eta bertee istorioac, comparantçac, gogomenac, etsortuac, hain ederqui eta arthez aldicateen ditu, iracurçaiileari escainteen eta ekharteen, non charmaturic beçala edukiteen baito. Iduri du haren liburuac baratee handi eta eder bat ceinetan aurkhitcen baitira laquetgarri guztiac; lore, fruitu, çuhaitz, ithurri, itçalpe, hegaztin, harmolde, eta lurrac ekharteen edo guïçonaren antceac berreteen dituen gauça eder orotarie.

Euscaldun maitea, sar çaité baratce hartan eta cerorrec frogaturen duen erraiten dugunz egua. Hareçañu Axularen liburua, has çaité iracurteen, dasta eçacu; eta çaren anhitz ala guti iaquintsu, goçaturen duen, ederetsiren duen, maithaturen duen, bethi escuetaric nequez utziren duen; eta guero on eguinien derañu: haur baita hunen berriz imprimia araztean guehienic guticia teen duguna.

APPROBATIONES

Prima Editionis.

Ego infrascriptus, jussu Illustrissimi ac Reverendissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis, attentè legi Librum de Pœnitentia non differenda cantabrico Idiomate à Domino Petro de Axular meritissimo olim Rector de Sara compositum, in quo omnia orthodoxæ fidei et bonis moribus consona reperi, atque uberem Auctoris facundiam, magna cum eruditione ac singulari pietate conjunctam, non sene admiratus sum. Idèò in lucem perotiliter prodire posse censeo ac judico. Datum apud Sanctum Joannem de Luz, die 5 Decembris, anno millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo.

PETRUS D'URTHUBIE,
Doctor Theologus.

HUNC Librum de non procrastinanda pœnitentia, Authore Domino Petro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper Rectori de Sara, mandato Illustrissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis accuratè evolvi, et in eo nihil adversum fidei pietatiqne, sed recta omnia, ornata et ab bonos mores multum conduceantia, judicasse ego infra scriptus testor. Datum apud Sanctum Joannem de Luz, die quarto Decembris, anno Domini millesimo sexcentesimo quadragesimo secunde.

SALVATUS DE DISSANECHÉ.

VISIS per nos Vicarium Generalem Illustrissimi ac Reverendissimi Domini Domini Francisci Fouquet Episcopi Bayonensis, attestacionibus de mandato ejusdem Domini factis et supra insertis, dictum de non procrastinanda pœnitentia Librum imprimi permisisimus. Datum Bayonæ, anno Domini 1642, die vigesima secunda Decembris.

PERRIQUET,
Vicar. General.

GOMENDIOZCO CARTA

ENE IAUN

BERTRAND DE ECHAUS

BAIONACO APEZPICE ORIARI,

Tarsen Arzipizpien, Franciako lehenbikico Erremusunari, Ordenaco Aitoren-seme, eta Erregeueren Conseillari, famatuari,

CERUCO LORIA.

NEURE iaun maitea, Ioan çatçazquit lurretic, baina ez gogotie, eta ez bihotzetic. Heldu nintcen, ezterantañi iguriqui. Ordea eneac dira saltac, enea da hobena. Guerotic guerora ibili naiz, eta hala dabilianari gnerthatzen ohi çaicana eguin çait niri ere.

Baina guztiarequin ere, neure obligacino handiec, ontasun errecibituec, eta bethiere ene alderacotear, obrequin batean, erautsi dnçun borondate borondaletsuac, ezterautate utzten, ondotic bedere, çutçaz orhoitçapen eguin gabe, liburutto hunen camporat atheralceco, ansartziaren hartzera.

Ceren iduritzen çait ecen oraino bici çarela, beguien aitcinean çitudala : eta halatan, hala baitzinitut becala, mintçatu nahi natçaitzu.

Aita prestu ohorezco bat hiltzen denean, ondotic guelditzen den seme emaçurtza, anhitz lekhutan da bere aitaren amoreacgatik, ongi ethorria eta arraiqui errecibitna. Liburutto hau da emaçurtça (*Posthumus*), aita hillez guero sorthua. Baino cu beçalaco aitaren semea, emaçurtz içanagatik ere, ecin dateque gaizqui. Ceren ondotic ere, çure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuco baitçaitço.

Eta çure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitcineco eta ondoko fama on famatuaz, norc cer erranen du ?

Nor da Escal-herrian aldez edo moldez, çordun eta obligatu etçaitçunic ? behartu eta emplegatu etçaitue-nic ? eta baliatu etçaitçanic ? Çure etchea, egon eta ibili çaren lekhu guztietan, bethiere içatu da Euscal-dunen etchea, paua lekhua eta portua. Guztiec çure-gana laster ; curi bere arrencurac, eguitocoac, coitae, eta ondicoac conta ; eta cu guztiac arraiqui eta ale-gueraqui errecibi ; çuhurqui conseilla, quida, goberna eta burutan athera.

Cu içan çara, eta içanen çara Euscaldunen ohorea, habea, jabea, sostengua ; cantabres fina, naturala eta eguiiazcoa.

Cu içan çara, Echaus, mendi Pyrinioetan, Aldui-deco hegaletan, bethiere centinela eta beguiraille beçala, iratçarriric dagoen Iauregui eta Gaztelu handi, eder, noble hartaco seme. Hango Bizecondeac eta seme guztiac içatu dira bethiere, egundaino gueroz, Erreguez

emplegaluac, estimatuac, fin eta leyal frogatuac. Eta hai eguiázco fedearen eta leguearen duffendatçaille, eta aitcinatçaille huruçaguiac ere.

Nafarroa behereko parte hetan, bertce anhitz lekutan beçala, legue Catolico saindua, iduriz flacatcera, cordocatcera eta erortcera cihounean, badaqui mundusec, nola çure aita Iauna, bere etcheaz, oncz eta biciaz ere contu guti egoinic, ioan cen Donapalaiora, non baitcen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausartea handi batequin, bere bihotz guristino noblearequin, hasi cen, ezpata bilucia escuan harturic, oihuz, Mathatias bat bere demboran beçala, erraiten çuela : *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum, exeat post me.* (1) Ea guristinoac, guristino icenarequin, içana duçuenac, bertce eguiteco guztiac utziric, hurbil çaquizquidate, iarrai qui çaquizquidate eta eguiázco leguearen eta fedearen mantenatcen eta sostengatcen, lagun çaquizquidate. Eta hanbat egun çuen, non bere herria eta inguruneacoac ere, betan sartcera cihohan eritasunetic beguiratu baitcituen. Eta guero handic hartaco herraz eta mendecuz bere Iau-regui ederra erre cioten. Hunelacoac ciren çure aita Iauna eta hai bertce çure aitcinecoac ere.

Bada ezluçu çuc ere ceure arraçaz ukhatu, elçara ceure leiñutic eta ethorquitic bastandu, bereci eta ez

(1) 1. Machab. cap. 2.

aldaratu. Ceren çuc ere Baionaco Apizpieu cinenean, eta bisitan cenenhiltçanean, ikuhsiric ecen, Eliçatic campoan cebiltçan iende batçuee, nahi cituztela, bere azquen finean, gorputzac Eliçan sarthu eta ehortzi : ceure bisita hautsirie, Nafarroaco hirur estatuac bilduric, ioan cinen Gorthera. Eta han, anhitz trabaillu iraganie, contra-carra içanic, ekharri cenduen guero behor cen erremedioa, eta handie harat halaco desordenuen debecatceco ordenantza eta manamendua. Beraz etxara cu ere, ceure aitcineoen guiristinotasunaren guibeldatçaille içatu. Badaz ez eta ohorearen iraunguiçaille ere. Aititic badirudi ecen çuc chedea aitcinatu duçula, marra iragan duçula ; eta Echausco etchearen arropa gorriaz bestitceco hidetan içan çarela. Ceren ezta eztaquienie, ecen Erreguec harlaracotçat hantatu eta icendatu cintuela. Eta colpea huts eguin bada ere, eztela çure faltaz edo cu hartaco ez gai içanez huts eguin. Ceren utziric alde batetara çure merecimendu handiac, eta Eliçari, Erregueri eta comun guztiari, anhitz okhasinton egun derautzetçun cerbitçuac eta endreçuac ; naturaleçac herac ere anhitz donu, dohain eta abantail suertez dotatu, hornitu eta complitu baitçaitu. Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat, isuri bat, eta einan bat eman baiteralçu.

Baina certaco sartean naiz ni itsas hondar gabe hu-

netan? Ecin athera naitequeyen oihanean: çure laudorioen aiphamenean? Çure bicitcea eta çure eguintza ederrac eta handiac berac dira bere buruz asco gora minteo; berac dira bere baithan ascoclar eta ozen. Utz ditçadan beraz nic hec, hutsic eztaguidan. Eta iragaiten naicela aitcina, derradan hutsic eguin gahe: cer ere esquiribatuco baita euscaraz, hura guztia, Euscaldunen ohorea çaren begala, çuri dagotçula, çuri çor çaitçula, eta arraçoinez orai ere, çuri presentatu behar çaitçula. Eta guztiz ere çure cerbitçari ttipi hunnen trabaillu aphur haur, GUEROTIC GUERRORA eguitateoen luçatceac, cenbat calte dakharqueyen, çuc hain ongi daquicun pontu haur, nori egonen çaina, çuri ezpadagotçu? Norc quidatuco, norc ostateuo du, çuc ezpadecaçu?

Cure gueriçan doha; çure itçalaren azpian benturatzen da. Errecibi eçaçu bada, defenda eçaçu, alde çapquitza, eguiçoñ beguitarte. Edireiten delaric liburutto hunetan, Echaus eta Echausen omena eta icena, halatan eta harequin batean, ibilico den lekhu guztietañ, burua gora ekharrico du, burupe içanen du; eta nehorni guti beldurric, iendartera bere beguitartea austqui atheraco du.

Bai ordea ioan çara, lekhuz aldatu çara, hemengo aldia eguin duçu. Eguia da, haña da. Eta aldez damudut, eta aldez atseguin. Damu, ceren ezpaitçaina nehorni ere handic niri beçanbat calte ethorri. Atseguin,

ceren nola ezpaicara bi mendetaco eta que ceurea, hain ongi, hain ohorezqui eta dohatsuqui iragan baitu, esperan̄a baitut, ceruco lorian, Iaincoaren compainian, credit handiarequin çaudela : eta hortic helduo çatçazquidela, escua emanen derautaçula : eta arranoac, airean dohanean, bere umetara beçala, que ere enegana beguia eduquico duçula. Eta guero nic ere (heinengo aldia egun hurran baitut), Iaincoaren garaciarequin eta que arartecotasunarequin batean, que corthe ona erdietsico dudala : eta ordnan goztiez esquerrac errendatuco derauzquitçndala. Iaincoae bala nahi duela !

Que cerbitçari ttipiena eta obligatuena.

P. DE AXULAR.

IRACURTCAILLEARI.

Egun batez, compaiña on batean, Euscaldunic bai-
cen etcen lekhuan nengoela, ekharri çuen solhasae,
içan cen perpausa : etçuela deusec ere hanbat calte
eguiten arimaco, eta ez gorputzeco ere, nola eguite-
coen gueroco ulzteac, egunetic egunera, biharretic
biharrera luçatceac ; eta on çatequeyela, gauça hunet-
çaz liburu baten, euscaraz, guztiz ere euscaratic bai-
cen etciaquitenençat, eguitea; eta hartan, guero dioe-
nac, bego dioela eracustea. Compaiña berean galde-
guin cen berehala, ea nori emanen ceican liburuaren
eguiteco cargua. Eta bertce guztien artetic, hasi ceiz-
quidan niri neroni aditcera emaiten, lehenbician khei-
nutz eta ayeruz, eta guero azquenean clarqui eta aguer-
riz, nic behar nituela eguiteco hartan escuac sartu.
Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desen-
satu nintzen ahal beçanbat. Baiña alferric ceren hain
cinez, eta batetan lothu ceizquidan, non ezetz errai-
teco bide guztiac hertsi baiteerauzquidaten. Eta hala
deliberatu nuen, buru eragotzcarri beçala, obratto
baten, bi liburutan partituric, GUERO hunen gainean
egnitera.

Eta nahi nituzqueyen bi liburuac elkarrequin eta
batetan athera, baina ikhusiric cein gauça goti edi-
reiten den euscaraz esquiribaturic, gogor behartu naiz

eta beldurtu, eztiren bideac asco segur eta garbi; baden bitartean cenbait trabu edo behaztopa harri. Eta halatan hartu dut gogo, lehenbicico liburu hunen, lehenic benturatceco, eta berri iaquitera beçala aitcinera igortzecco. Hunec cer iragsiten den, cer beguitarte icaiten duen, eta nor nola mintxo den, abisu eman diaçadan. Guero abisu haren arauaz, ethorquiçuneral gobernatceco; eta bigarren liburuaren camporat atheratceco, edo barrenean guelditceco eta estaltceco.

Badaquit anhitzec miretsico duela eta ediren arrotz eta estraiñio, ni lan huni lotcea. Ceren anhitz içan baita orainocoan, eta baita orai ere, ni ez heçalacoric, ni baiño hunetaco gaiagoric eta ançatsuagoric, ezpaitute guztiarequin ere, orainocoan, hunelsco materiatan, hunela ausartciaric eta escudantciaric haratu. Baitirudi ecen asco behar liçatequeyela arraçoin haur ene guibelatceco eta gueldi aracitceco ere. Bainan ene contra dela dirudien arraçoin hunec beronec, ni esportçatcen eta aitcinatcen nau, hunec bilotz emaiten deraut, haur edireiten dut nic neure alde eta fabore, ceren enseiucarrean beçala eguiten diren lehenbicico obrec eta enseiucc, cenbait huts eta falta içanagatic ere, badirudi ecen, ceren lehenac diren, barkhaquiçun direla; eta bat bederac disimulatceco, ez ikerusi idurri eguiteco, eta are desencusatceco dituela.

Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarako minçatce molde guztieta. Ceren anhitz moldez eta

differentqui minçateen baitira euscal herrian : Naffar-
roa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Laphur-
din, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian , eta bertce
anhitz lekhutan. Batac erraiten du *behatcea*, eta bert-
ceac *soeguitea*; batac *haseretcea*, eta bertceac *samurt-
cea*; batac *ilquitcea*, bertceac, *jalguitea* ; batac *athea* ,
bertceac *bortha* ; batac *erraitea*, bertceac *esatea* ; ba-
tac *iracuritcea*, bertceac *leitcea* ; batac *liscartcea*, bert-
ceac *ahacartcea* ; batac *hauçoa*, bertceac *barridgea* ; ba-
tac *aitonen semea*, bertceac *calduna*. Finean batbede-
rac bere guisara, ancora eta moldera. Eztituzte Eus-
caldun guztiak legueac eta azturac bat, eta ez Eusca-
razco minçatcea ere.

Bada esquiribatceaz denaz beçan batean ere ez naiz
eguiteco gabe ; ceren bada hunetan ere differentzia.
Batac esquiribatcen du *chhero*, bertceac *gehero* ; batac
chedea, bertceac *gedea* ; batac *ichilic*, bertceac *igilic* ;
batac *tachoa*, bertceac *tajoa* ; batac *choil*, bertceac
joil ; batac *quecho* , bertceac *quejo* ; batac *chuchen*,
bertceac *juden*. Eta hunela bada bertceric ere cenbait
hitz, batac eta bertceac, norc bere herriko edo erresu-
mako arauaz differentqui esquiribatcen baitituzte.

Finean esquiribatce hunen gainean, diot ecen, nola
latinac bi I, eta bi V, eguiten baititu bat, eta harteen
batençat : *Adjicio*, *Conjicio*, *Vultus*, *Vulnus* ; eta Espai-
ñolac ere bi L, eguiten baititn bat, *llamo*, *lloro* : hala
Euscarac ere bi T, eguiten dituela bat, *tipia*, *tipittoa*,

guiçomttoa, haurttoa. Ceren esquiribatcera, *chipia, chipichoa, guic̄onchoa, haurehoa*, ezta ongi heldu, euscaraz ongi minçateen direnen artean.

Baina ceren comunzqui, hala esquiribatcea nola minçateea, nori berca iduriteen baitçaica hoberenic eta ederrenic; eta ene haur ezpada çurea beçala, ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran. Hunetçaz content ezpaçara, eguiç çuc çeure moldera, eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala. Ceren ez naiz ni hargatic bekhaitztuco, eta ez muthurturic gaitzez iarrico. Aiteitic haur da nic nahi nuqueyen gaucetaric bat, eue enseiu aphur hunec quilica cinitçan eta guticia, bertce enseiu hobcago baten eguitera eta ene hemengo falten ere erremediatcera. Ceren halatan, ezliçateque euscarra hain labur, escas eta ez herti, nola munduac uste haitu eta baitaduca dela.

Orai badirudi euscarac ahalque dela, arrotz dela, eztela iend'artean ausart, erregu, bithore eta ez trebe. Ceren are bere herricoen artean ere, ezpaitaquite bat-çuec nola esquiriba eta ez nola iracur.

Baldin eguiñ baliz euscaraz hanbat liburu, nola eguiñ baita latinez, franceses edo bertce erdaraz eta hitzcuntçaz, hec beçain aberats eta complitu içanen cen euscarra ere, eta baldin hala ezpada, Euscaldunec berec dute falta eta ez euscarac.

Eztut liburutto haur, letratu handientçat eguiten; eta ez choil, deus eztaquitenentçat ere.

Ez eta eztitut bethiere Escritura Saindua eta doctoren erranac ere, hitzez hitz euscarara bihurtzen; ceren euscarra eta bertze hitzuntzak different baitira. Ordea ezta ez handic seguiteen gaichtoago dela euscarra. Aititic badirudi ecen bertze hitzuntza eta lengoaya comun guztiak, bata bertcearequin nahasiac diera, baiña euscarra bere lehenbicico hastean eta garbitasunean dagoela.

Baiña euscarra eta euscararen minçatececo eta esquribatceco moldeac eta differentiac utziric, ceren hec açala eta lorea beçala baitira, har eçaçu, liburutto huenen fruitua, barreneco miamia; haur dasta eçaçu, haur escuzta eçaçu; iracurten duçula, ez lehiaz, ez gaingiroqui eta ez arbuiatceco kontuan ere. Bainaz intencione on batequin, ceurea, ceure eguna baitcendu beçala. Eta baldin halatan eta orduan, batere goçoric edo çaphoreric edireiten badioçu, ceren hura guztia laincoaganic heldu baitateque, eta ez eneganic faltaric baicea, hari esquerrac errenda iatçotzu. Eta nitçaz ere othoitz eguiteaz, arren othoi, orhoit çaiteci.

卷之三

清江先生集

**GUERO HASTEN DA
GUEROTIC GUERORA
DABILLANAZ EGUITEN DEN LIBURUAREN
LEHEN PARTEA.**

GUEROTIARRAC.

L.

ALFERRA.

LEHENBICICO CAPITULUA.

Nola bertzeac bertze direla , alferqueriari ihes eguiteagotic ere, behar den trabaillatu.

Gure Iaungoicoac , munduko bertze gauça guztien ondoan guiçona bera, bere gainqui, bere imaginara eta idurira, batere behkaturic eta behkhatuaren cutsuric ere gabe, anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturic egun çuenean : ibeni çnen berehala lurrac çuen parteric eta aurquientçaric hoberenean, lurreco parabisuan, lekhu placerez belhean. Eta manatu çuen lant ceçala, labora ceçala, cta beguira ongi parabisu hura :

Posuit eum in Paradiso voluptatis, ut operaretur et custodiret illum. (1)

Ordea nola lur lantcea, aphaintcea, laboratcea, eta beguiratceco beharrean eta premian ere iartcea, behatutic sortcen eta heldu diren chertçac, landareac, frniuac, eta ondoreac baitira : eta oraino orduan ez-paitcen bekhaturic, eta ez bekhatuaren ayeruric, omenic eta ez aiphamenic ere : badirudi ecen etcela halaber, oraino orduan, parabisu haren lantceco eta beguiratceco premiaric. Certaco beraz, eman cioen orduan, Iaincoac guionari, manamendu hura ? Ihardesten du San Thomasec erraiten duela : *Nec tamen illa operatio esset laboriosa sicut post percalum, sed fuisset jucunda propter experientiam virtutis naturæ. Custodia etiam illa non fuisset contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret, ne ipsum amitteret peccando.* (2) Etcen ez orduco trabaillatce hura, penagarri içanen, orai bekhatu eguinez gueroz beçala. Bainha hura içanen cen atseguin hartce bat, eta bere placerera, eta aisiara cegoela, bere indarraren eta an- cearen frogatce bat. Eta beguiratcea ere, ez etsaietaric baina bereganic, eta beretçat bekhatuz galtctic beguiratcea, içanen cen. Hunela dio San Thomasec. Bainha San Crisostomoc etwaiten du bertce arraçoin bat, ni narraican pontuari hobequi hurbiltceh çaicana, erraiten duela : *Propterea, præcepit Deus ut operaretur*

(1) Genes. 2.

(2) S. Th. 1, p. q. 102, art. 3.

illum, si enim laboris omnis fuisset expers, ex nimio otio, in ignaviam fuisset prolapsus. (1) Eguia da etcen oraino orduan, lur-parabisu hartan eguitecoric, etcen trabaillatceco premiaric. Ordea halaric ere, etcuen nahi Iaincoac, han cegoena cegoen gueldiric : Ez trabaillatcelic alfercera eta nagpitcera ethor etcedin, eta cein gauça gaichtoa cen eta den alferqueria, aditcera emaiteagatic.

Contatcen du Casianoc, Paulo abade çahar hura, palma adar batçuc barturic, hetçaz çare, saski eta otharre eguiten haritcen cela : eta guero azkenean, eguin ondoan, astearen buruan, guztiac urratcen eta deseguiten cituela. (2) Ceren, bataz, nola herriataric urrun baitcegoen, guehiago baitcecarqueyen garrayoaren gastuac, obraren balioac baino; eta berriz bertceaz, ceren trabaillu hura guzia, oracinton eta othoitzetan unhatu ondoan, alferqueriatric ihes eguiteagatic harten baitçuen; eta ez ondoco irabaciagatic.

Gure Iaungoicoac eman cituen legue çabarrean setean ehun eta guchiago manamendu eta cirimonia suerte, eta hequin batean hambat eguiteco, non erraiten baitu Iondone Petric, ez berac, eta ez haren aicincoec ere, ecin çutela iasan hain carga handia : *Quod neque patres nostri, neque nos portore potuimus.* (3) Eta nahi baduçue iaquin, ea cergatic cargatu cituen Iain-

(1) Chr. in c. 2, Genes.

(2) Cassian., lib. 18, cap. 14.

(3) Acto., 5.

coac hambat manamenduz, ihardesten du doctor batet : *Ut per operationes variorum sacrificiorum otiositas tolleretur quoꝝ multis malis initium tribuit et somnatum*; (1) cargatu cituen hambat manamenduz, sacrificioz, eta cirimonia suertez, hequin batean, khen cedin, hambat calteren eta damuren hasta eta pitzgarri den alfertasuna.

Nota gure Iaungoicoac beztitu baitcituen lurreco animaliac, aireco hegaztinac, itsasoco arrainac, eta oihaneco çuhaitzac ere, bere beztimenda suerte batçuez : animaliac larruz eta illez, hegaztinac lumaz, arrainac ezcataz eta çuhaitzac açalez. Eta nola çuhaitzac bere dauden lekhuetaric higuitu gabe, eta trabaillatu ere gabe, bere azpico luraren goçoa eta gnicentasuna, beregana, bere erroezi thiratuz eta edosquiz, hazten, handitzen eta mantenatzentz baitira : animaliec ere bere bazcac eta iatecoac, berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe, iaten baitituzte : eta hai bere etcheac eta etçauntçac ere, non nahiden arrasten eta ilhunitzen çayen lekhuan hartzen : eta guehienac berehala bore ameen ondotic baitoaci, cein baitira abantail handiac. Hala Iaincoac, nahi içan balu, eman ceranzcayon guionari ere abantail suerte hauc guztioc, eta guehiago ere. Beztitu çuqueyen, etchedun eguin çuqueyen, eta deus gusta gabe, behar çuen guztiarequin ibeni çuqueyen. Ordea etçuen hala ibeni nahi içatu. Eta cergatic ez : Alfer etcegoen amoreacatic. Eta san Ambrosioc, dioen he-

(1) Abulen., in præfatio., in Levit.

çala, errecibitu duen adimendua emplega deçangatic : *Soli autem homini, ut rationale quod accepit exerceat, vitæ cursus in labore præscribitur.* (1) Ceren baldin orai gauça guztiac, hain nequez eta hambat gostaric, erdiesten ditugularic, hain nagui eta alfer bagara ; cer gueneidique, nahi dugun guztia, nahi beçala escuen artean baguendu ? Deus falta ezpalitzaicu, erran gueñeaque Ebangelioco aberats harc beçala : *Anima, habes multa bona posita in annos plurimos; requiesce, connede, bibe, epulare :* (2) deçagun ian eta edan : deçagun pausa eta atseguin har : ceren berdin eztugu deusen escasic, eztugu egun hautan esquean ibiltceco perilic.

§ 1.

Erraiten du Aristotelec (3) on dels, alferqueriaren herritic khentceco eta desterratceco; eta herrian ere bere erregueren edo bertceren contra iaikitcetic beguiratceco, cembait obra handiren hastea, cembait dorreren edo gazteluren eguitea, eta hetan iendearen emplegatcea. Nola agueri baita Egiptoco piramidetan, cein eraguin baitcituen erregue Pharaonec, iendeac alfer etcendecin amoreacatic. Idurituric erregue hari, ecen baldin Israeleco seme gathibu beçala bere azpian cedutçan hec (iragaiten baitciren, guiçonac berac, seyeten ehun milla presunetan), ntzten bacituen bere placerera

(1) Ambr. in prof., in Lev.

(2) Luc. 12.

(3) Aristoteles, lib. 5, cap. 2.

eta aisiara bicicera, urguillutceco eta nabusitececo bidean iarrico cirela, eta handie behar etcena sorthuko cela; egun cuen Piramide batzen eguiteco gogoeta asmuta eta pensua. Eta Piramide hetzaz mintzo dela, erraiten du San Isidoroc : *Pyramides est genus sepulchrorum quadratum, fastigiatum ultra omnem celsitudinem, ut à lato incipient et in angusto finiantur* (1). Piramidea edo Piramideac ciren sepultura suerte batuec, pilare, harroin, edo thomba laur cantoñetaco gora ailtchatu batuec, egun ahal citezqueyen gorenac, ondoan çabal eta puntan mehar. Eta hetan trabailla aracitcen cituen Pharaonec bere azpico iende hec, seinalaturic bat bederari bere eguneceko lana eta sailla. Eta escuaren ibentcea bera asco baçuqueten ere: ordea lanhabesac, tresnac, eta obraren eguiteco gai guztiac ere, berec bilhatu eta hornitu behar cituzten. Eta halaric ere, ecin ausarta citezqueyen arrancuratcera: halako moldez ecen hartaco lehenbicico hitxa ahotic itxuri ceyenean, erran baitcerauen berehala Pharaonec : *Vacatis otio* : (2) Asti duque, cuen onguieguiac, alferqueriac, aisetasunac iratxequitzen deratçue, haren horrela quilicatzan eta mintza aracitzen çaituzte. Eta halatan aitcinerat cargatuago cituen, lana berretu cerauen. Eta hora guztia eguiten cuen, baldin batere astiric baçuten, edo alfer baceuden, handie cerbait calte ethor cequion gogan beharrez eta beldurrez.

(1) Isidor., lib. 5, Ethim., cap. 2.

(2) Exod. 5.

Pysitrato Atenosco tirano gaichto harc ikuhi cunean, plaça guztia iende alferrez bethea, eta hetaric anhitz malicia eta pensu gaichto sor citequeyela, deitu cituen guztiac bere gana, eta sicutinerat alfer egoiteco desencusaric etçutentçat, eman cerauen, mando, çamari, idi, haci, diru, finean trabaillatceco behar çuten guztia; eta guero igorri cituen lanera eta trabaillura; idurituric ecen halatan etçutela calteric egunen, maliaric pensatuco eta ez herriric nahasico. (1)

Munduko berri daquitenec erran dute eta erraiten dute, on dela herriencat eta erresumentçat, cenbait eguiteco eta guerla, bere herritic eta erresumatic campoan içaitea. Ceren nola bat bedera baquearequin lohacartcen, ez-ansiatcen eta gorphutzaren place-retara emaiten baita. Hala guerlequin, etsaiequin eta contrastequin ernatcen, iratçartcen, eta acholduritcen da.

Plutarco egun du liburu bat (2), etsaietaric atheratcen den probetchuaz; eta guztietaco handiena eta principalena dio dela, alferren trabailla aracitcea, lotien iratçartcea, eta antsicaben antsiatsu eta arduratsu eguitea. Adisquiden artean garenean lacho gara, ezta-ducagu deusez ere conturic: eztugu gaizqui mintçatugatic eta milla erhoqueria eguinagatic ere antsiaric. Cerren baitaquigu ecen adisquide direnaz gueroz, hec guz-

(1) *Ælianuſ, lib. 5, variis histor.*

(2) *Plutar. lib. de utilitate ex inimicis capienda.*

tiac, estalico eta onera hartuco derauzquigutela. Baina etsaien artean garenean, behar dira, buru-beharriac ernatu, cer eguiten eta erraiten den behatu. Ceren nola etsaiac bethiere celatan baitaude, cer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatcen dute, eta are batçutan berreturie, airatcen eta campatcen dute. Hargatic erraiten du San Chrisostomoc : *Sæpè verò ab inimicis non minus lucramur quam ab amicis. Cùm enim nobis peccata expobaverint, etiam invitòs, in ipsorum correctionem excitant;* (1) anhitzetan eguiten deracute etsaiec, hambat ongi eta ontasun nola adisquideec eta bai batçutan guehiago ere. Ceren etsaiec gu-euro saltac erranez eta hetçaz erantçute eguiñez, emaiten daracute occasino ernalceco, iratçartceco, falta eguiñen emendatececo, erremediatceco baitare aitcinerat guehiago eguitetic ere beguiratceco.

Arraçoin hunengatic erran ahal diteque etçuela egundaino gure laungoicoac nahi içatu acaba cequizten Israeleco seme hey bere etsai guziac; baina ordenatu quen, edo permititu gueldi cequien bethiere cembait ba-coitz eta hondar iratçartceco, ernalceco eta alfertcetic beguiratceco.

§ 2.

Irabaci çutenean Lacedemoniacoeç bere fronteraco hiri etsai bat, muga-quide çuten bat, erran çuten Lacedemonia hartaco bereco gobernarieec : *Sublata est pubis*

(1) Crysest. serm. ad popul. Antio.

nostra palestra, non habebunt posthac quibuscum luctentur adversarios. (1) Eguin da gure iende gazteaz, eztute hemendic aiteina iharduquitceco paradaric içanen eta ez borrocatececo etsairic.

Lacedemoniaco hec berec etçuten deseguin nahi içatu hiri contrast bat, bethiere bere contra eta etsai içan çuten bat, erraiten çutela, ecen hiri hora cela *Juventutis cōtem* (2), Gaztetasunaren çorrots-harria; ceren gaztec han bere indarra eta antcea frogatzen, çorrotzen eta herdoiltcetic beguiratzen baitçuten.

Hunen arauaz ihardetsi çuen Cleomenes Sparciaco harc ere, galdeguin ceraucatenean ea cergatic, hala bere meneraz guero, etcituen bere etsai Argiboac deseguin : *Ut habeamus qui juventutem nostram exerceant :* (3) Eztitut deseguin, dugun amoreacgatie norc gure iende gaztea certaco den froga deçan.

Entçun çuenean Publio Nasicae, egotci çutela Erromacoec herritic Anibal bere etsai handi hora, Cartago ere hartu çutela; eta hain bertcez, bere ustez, aitcinerat segurean iarri cirela, erran çuen : *Atqui nunc in lubrico sumus* (4), Aitcitie orai gaude egundaino baino limburitceco eta errortceco peril handiagoan. Ceren epaitugu orai, lehen beçala, iratçartçaileric eta gueure eguinbidearen eraguilleric.

(1) Plutar. in Aph.

(2) Plutar., *ibidem*.

(3) Plutar. in Lac.

(4) Plutar. in Aphoten.

İçan çutenean Erromatarrec desiratcen çuten abantaila eta garaitia, Cartagotarren gainean, (1) sarthu ciren conseilluan Erromatarrac, ea cer eguiñen çuten Cartagoco hiri hartçaz ; eta Catonec (principalenetarie bat baitcen) erran çuen, guztiac deseguin, plaundu eta lurraquin berdindu behar çuela, ceren bere guerla guztiac eta eguitocoac hiri hartaric sorteën ceitzela, eta hura deseguinez guero, baquean eta soseguan iarrico cirela. Bainha Scipion Capitain famatu harc, ethorquiñari hobequi behatniric, erran çuen : etçutela neholatan ere hiria deseguin behar. Ceren baldin deseguiten bacuten, guerla bat iraungui ustean, bertce handiago bat pitztuco çutela. Ceren berehala iendea alferqueriari, ian edenari, erran merraney, eta aisiac decazqueyen gaichtaqueria suerte guztiey emanen ceyela. Eta handic na-hasteriac, diserentciac, guduac, hauciac, etsaigoac, eta Cartagotarrequieoa baino guerla perilosagoa, bere arthean sorthuco ceyela; eta halâ guerthatu cen. Ceren Scipionen conseillua urteiric, hartu çuten Catonena, deseguin çuten Cartagoco hiria, iarri ciren bere ustez baquean ; baina Scipionec erran cerauen beçala, sitze berac eta Erromaco hiria ore beheititu eta erori ciren.

Eguia haur eçaguturic Pericles (2) famatu harc mantentzen çuen bethiere, bere herritic campoan, cembait guerla. Eta urthe oro igortzen cituen untciac iendez beheric, guerla hartara ; eta hetan bidalteen

(1) Vide August. lib. de civitate Dei cap. 30.

(2) Plutar. in Pericle.

cituen ediren ahal citcan alfer guztiac; eta guero bicitcen cen baque handi batetan. Ceren nola herri guztietan, ohi baita comunzqui cembait alfer eta iende galdu, eta hec anhitz calte eta nahasteria eguiten baitute, ontasun handia heldu caica herriari hialaco hequen khentceaz. Nola lurraldi ere heldu baitcaica probetchu iorratceaz eta belhar gaichtoen atheratceaz.

Gorintioac hain ceizten ayher alferrey (1), ecen ikhusten cutenean guiçon bat bicitcen cela, errintaric gabe, officiorie gabe, eta trabaillatu ere gabe, bere-hala bertce frogantçaric gabe, bicia edequitcen baitcioten, ceren erraiten çuten ecen, presuna alfer officiorie eta errentaric etçuenac, ohoinqueriaz, enganamenduz edo cembait arte gaichtoz usatu behar çuela eta halacoac bicia çor çuela, eta hala edequitcen cioten. Eta on liçate orai ere, halacoequin, hala eguin baledi.

Solon handiac ordenatu çuen (2), ecen aita batec bere semeari officioric eracusten etcioenean, etcela seme hura bere aitaren faboratcera, beharrean ikuhsia-gatic ere, obligatu içanen. Ceren officioric ez eracustez, alfer, eta gaichto içaiteco bidean eta perilean utei baitzen bere aitac.

Gimnosofista cerizten iende batuec hain gaitzes-ten çuten alferqueria (3), ecen bethiere, asal aitcinean deitzen baitxituzten presuna gazteac bere gana, iaquite-

(1) Laert. lib. 6.

(2) Plutar. in Solone.

(3) Patricius lib. de republica.

co ea certan iragan çuten eguna, eta baldin frogatcen baceyen alferqueriaric, etcerauen afariae gaitzic eguiten.

Caton Censori (1) hartçaz iracurteen da (ceinec bait-
çuen alferren gainean escu eta bothere) ekhartcen ce-
raucatenean guion bat bere aitcinera, acusaturic, erra-
itien cela ecen alferra cela; berehala lehenbicico
gauça escuetaco larrua hazcatzen, eta ferecatcen cioe-
la: eta baldin latz, lodi, eta gogor edireiten bacioen,
ahalic eta arrinquienan utzten quela; baina baldin me-
he, leun eta bera baçuen, alferçat condenaturic, falta
gutigatic ere bortitzqui gaztigateen quela.

Caton harc berac erraiten çuen, hirur gançataric,
bere mendean, ahal beçamhat, beguiratu cela: emaz-
teari bere sequcretuen fidatcetic; leihorrez ahal cihoa-
queyala, itsasoz ioaitetic; eta egun guztian alfer egoi-
tic.

Lucanoec edireiten çutenean nehorc iende alferrey
deus prestatcen cerauela, emaiten çuten berehala sen-
tencia prestatçailaren contra: cerere prestatu bait-
çuen, hura guztia gal ceçala. (2) Baina nic uste dut
ecen etcela halaco sentenciaren emaiteco premiaric,
bera baitago emana; ceren ezpaitu halacoey prestat-
çailaeac, coberatceco perilie.

Indietaco herri batçuetan (3), etcen batere bere gor-
phutzaz balia ahal citequeyenic eskean ibiltcen, itsuec

(1) Plutar. *in vita Cato.*, censor.

(2) Nicolaus de morib. gent.

(3) Osor. lib. 11.

ere tornuan edo arrodan bedere hari behar çuten :
Apud Synas Indiae populos, cæci molas trusatiles versando, sibi victimum parant.

§ 3.

Lehenagoco filosofo batçuec erran çuten , mundu haur, Iaincoa bera beçala, eterno cela eta haste gabe ; ceren bertcela mundua eguin arterainoco bitartean , alfer egon beharco quela Iaincoac. Bainaz ez , mundua ez da eterno ez eta haste gabe ; eta ez hargatic egotu Iaincoa egundaino alferric. Ceren badu , eta baçuen lehen ere Iaincoac, munduaren eguitea eta gobernatea baino ohra handiagoric : nola baitzen , eta baita , bere perfetcionen contemplatea eta onhestea. Ordea filosofo hec eman çuten hartan aditcera gauça gaichtoa eta perilosa cela alferqueria, Iaincoa baithan edireiten cela ez aithortceagatic , erran baitçuten erhoqueria handi bat : Iaincoa bera beçala , mundua ere eterno cela eta haste gabe. Eta pontu batean , mundua haste gabe cela erraitean , huts eguin baçuten ere , ordea bertcean , alfertasuna gauça gaichtoa , perilosa eta norc bere ganic egotzlecoa cela eracustean , etçuten hutsic eguin. Ceren hain da gauça galdua eta galgarria alferqueria , non naturaleçaren beraren ere contra baita . *Homo nascitur ad laborem, et apis ad volatum* (dijo Jobec) ; (1) guiçona sorteen da trabailluco , eta hegaztina

(1) Job. 5.

aireco. Nola hegaztinari emaiten baitçaitça hegalac aíratceco eta hegaldatececo : hala guiçonari ere emaiten çaitça escuac trabaillatceco.

Munduko gaúça guztiak condonatzen dute alfserra ; ceren hartçaz berlak guztiak emplegatzen baitute bere dembora, certako eguzinak baitira harten. Iguzquiac arraçoinequin erran ahal diaçayo berandaraino ohean datçanari : cer aratça hor alfer-naguia ? Nic atço, hic baino lide guehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hic baino goizago iaiquii nauc. Çuhaitzec ere erran ahal deçaquete : eziacusaçus nola gu ezcauden behin ere gueldiric eta ez alferric ? Nola hazten, handitzen, loratzen eta gueure demboretan, sasoinetan, fruituz bethatzen garen ?

Bada animalia adimenduric eztuteneak ere, behintzat erleek eta chinhaurriek, arroçoinequin erranen deraute, beha diacegula ; hequen nequeak, trabailluak eta ioan-ethorriak considera ditçagula ; eta halatan aguiak, ahalqueturic bedere, gueure eguna bidearen eguitera, eta trabailatcera, ernatuco eta erdutuko garela.

Erleak, hain gaúça ttipiac eta flacoak, bethatzen du mundua, eztiz eztitceko, eta ezcoz arguitceko. Eta gaitz liçateque contatcea, nola gobernatzen diren erleak el-kharren artean : nola duten bere erreguea, eta obeditzen duten : nola çaharrak cofauean barrena ; etcheko lanen eguiten egoiten diren : eta gazteak bere manteñuaren eta bicicayen garrayon, campotic hari diren : nola duten bere athal-çaina, eta behar ere bai ; ceren eztia, nola baita gogo eta icena duen beçala eztia, anhitz baitarraica, eta baitçaina ayher. Nola trabaillatzen

direnec, trabaillatcen eztiren alferrac eta naguiac, ezten colpez egotzten dituzten bere compainiatic : *Expellunt ab alvearibus pigras* (1); eta nola berteeric ere anhitz gauça eguiten duten, eta guztiac hain ordenantza handiarequin, non baitirudi ecen eztela erregueric, bere erresuma hain ongi gobernatzen duen, nola erleec bere erreguearequin batean trabaillatuz, gobernatzen baitute berea.

Bada chinhaurriaren gobernuaz, çuhurteiaz, trabailuaz, ethorquiçuneco eguiten duen probisioneaz, horniçoinaz, eta biltzen duen mantenuaz, norc cer erranendu? Norc eztu miretsico, eta gogoeta eguineng? Spiritu Sainduac berac igortzen gaitu animalia ttipitto hunengana, cer egun behar dugun ikhasterat, erraiten dueña : *Vade ad formicam o piger, et considera vias ejus et disce sapientiam; qua cum non habeat ducem, nec preceptorem parat in aestate cibum sibi;* (2) çoañ nagua chinhaurriagana, eta considera itçatçu haren bideac eta bidescac, joan-ethorriac eta itçul-inguruac, haren nequeac eta lanac, eta ikerasico duçu çuc ere nola behar duçun aitcinerat eta bethiere bici, ibili eta gobernatu. Harc eracusleric eta quidariric gabe, berac bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteco behar duen mantenua, bazca eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berac eguinicaco gambaretan, eta bihi-teguitan. Eta hain da çuhur eta goi-

(1) Plin.

(2) Prover. 6.

thatu, ecen campoan deus ecin içanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenic hozitu behar dugun burutie hasten baitçaica bihiari : ceren hertcela sorliteque bihi hora, buztan liteque, belhar bihur liteque; eta guero handic harat alfer-lan guertha lequidicayetere leheneco çuhurteia guztia.

Are guehiago, hozidura ianez guero ere, lurraren humidurac eta hecetasunac gaineracoa ustel eztiaçon, atheratcen du noizic behin camporat, airatcera eta iguzquiztatzera, eta orduan dembora onaren seinal dateque. Eta halatan eta hala iragaiten du chinhaurria bere negua : cta eracusten dio bat bederari, nola etcer moldez behar duen mantenatu, gobernatu eta alferqueria guztiac utziric, bere demboran trabaillatu.

II CAPITULUA.

Cembañ calte eguiten duen alferqueriac eta nola handu sortzen den guerotic guerora ibiltcea.

Escritura Sainduac, Eliçaco Doctorec, lehenagoko Ientilec, eta are ceruco, aireco eta lurreco gauça guztiac ere condenatren dute alferra, eta emaiten aditzena behar dela trabaillatu, eta nor bere aldetic bere eguinbidearen eguitera enseyatu. Ceren nola arduracon trabailluac, lan guztiac aitcinatzen baititu, hala alferqueriac guibelatzen tu.

Galdeguiten du San Chrisostomoe : *Quis equus uti-*

thatu, ecen campoan deus ecin içanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenic hozitu behar dugun burutie hasten baitçaica bihiari : ceren hertcela sorliteque bihi hora, buztan liteque, belhar bihur liteque; eta guero handic harat alfer-lan guertha lequidicayetere leheneco çuhurteia guztia.

Are guehiago, hozidura ianez guero ere, lurraren humidurac eta hecetasunac gaineracoa ustel eztiaçon, atheratcen du noizic behin camporat, airatcera eta iguzquiztatzera, eta orduan dembora onaren seinal dateque. Eta halatan eta hala iragaiten du chinhaurria bere negua : cta eracusten dio bat bederari, nola etcer moldez behar duen mantenatu, gobernatu eta alferqueria guztiac utziric, bere demboran trabaillatu.

II CAPITULUA.

Cembañ calte eguiten duen alferqueriac eta nola handu sortzen den guerotic guerora ibiltcea.

Escritura Sainduac, Eliçaco Doctorec, lehenagoko Ientilec, eta are ceruco, aireco eta lurreco gauça guztiac ere condenatren dute alferra, eta emaiten aditzena behar dela trabaillatu, eta nor bere aldetic bere eguinbidearen eguitera enseyatu. Ceren nola arduracon trabailluac, lan guztiac aitcinatzen baititu, hala alferqueriac guibelatzen tu.

Galdeguiten du San Chrisostomoe : *Quis equus uti-*

*lis est, is qui in deliciis, vel qui exercetur? Quae
navis, quæ navigat, vel quæ in littore est? Quæ aqua,
ea ne quæ fluit vel quæ stat? Quod ferrum, an quod
movetur, an quo nemo utitur? Nunc quidem illud
splendet ac argento simile est. hoc autem rubigine
consumitur. Tale quidem fit etiam in otiosa anima:* (1)
Cein çaldi da on edo hobeago, gueldiric eta alferric
bere placerera dagoena, ala ibiltcen eta manayalcen
dena? Cein untci, costan dagoena, ala itsasoan dabil-
lana? Cein ur, gueldia, ala lasterra? Cein burdina,
cocoan datçana, ala erabiltcen dena? Segur da, guziac
erabiltceaz, manayalceaz eta escuztatzceaz ontzen, ar-
guitcen eta fintzen direla; eta bai alfer eta gueldi egoi-
teaz ere, galtzen, deseguiten, eta herdoiltzen. Bada
haur beror guerthatzen da, alfer dagoena baithan ere.

Dabillan harriari etçaina goroldioric lotzen; ur ira-
quinean eztu uliac pausatzen; ardurako arropari etçaina
cerrenic eguiten; çuhaitz bethacorra eztu nehorc eba-
quitzen. Bainax alferra, fauna, hutsa, bere sasoinean ia-
saiten eztuena, certaco da? *Ut quid etiam terram oc-
cupat?* (2) Halacoae certaco trabatuco da lurra?

Nos numeri sumus fruges consumere nati, (3) dio
Horacioe, alferrez mintzo dela; gu kontu gara, gure-
quin contuz guehiago, baina gaineracoan ezcarra den-
setako, lurreco fruituen eta onen iateko baicen. Cer-

(1) Chrisost. Serm. in acta Apost.

(2) Luc. 13.

(3) Horat. lib. 5, cap. 2.

bitçariac alfer egoiteaz beraz, gaizquiric ez eguinagatice ere, mereci du gaztigua. Ceren San Chrisostomoc dioen beçala : *Nihil boni facere, hoc ipsum est malum facere;* (1) ongquiric ez eguitea bera, da gaizqui eguitea. Eta Catonen errana da : *Homines nihil agendo, male agere discunt;* ez dens eguiteaz beraz ikhasten da gaizqui eguiten. *Otiositas est mater nugarum, noverca virtutum :* (2) alsertasuna da erguelquerien ama, eta berthuten amatuzuna. Eta halaten erguelquerie, erhogerierie eta bicio suerte guztiec eguiten dute laster alsertasunera, ceren ama baitute : baina berthutec eta obra onec ihes ; ceren nola baitute amaizun, baitaquite eztuquetela harenganic beguitareric eta ez ongi ethor-riric.

§ 4.

Erraiten du Job Sainduac, deabruaz mintço dela : *Sub umbra dormit in secreto calami :* (3) itçalpean, canaberaren estalgunean eta gueriçan eguiten du bere loa, han pausatcen du. Canaberac, nola baita çuhaitz alferra, fruituric iasaiten eztuena eta barrenean ere hutsa, significatcen du presuna alferra. Eta hartan, nor bere ostalu iakinean beçala, ostattatecen da deabrua. Hargatic erraiten cioen San Geronimoc bere adisquide bat : *Facito aliquid boni operis, ut diabolus semper te*

(4) Chris. Serm.

(5) Bernard, lib. de Considera., cap. 12.

(1) Job, 40.

inveniat occupatum : (1) Etçandecila behinere alferric, eguiñu bethiere cenbait obra on, halatan bethiere deabruac emplegatua ediren çaitçan.

Multam malitiam docuit otiositas, (2) dio Spiritu Sainduac : anhitz malicia eracutsi içatu du alferqueriac. Ezta maliciaric eta ez pensu gaichtoric, presuna alferrean ediren eztitequeyenic. Asco da erraitea, alferra dela, hartçaz edo cein gaichtaqueriaren sinhesteco.

Per agrum hominis pigri transivi et per vineam viri stulti, et ecce totum repleverant urticae et operuerunt superficiem ejus spinæ, et materia lapidum destructa est. Quod cum vidisem, posui in corde meo et exemplo didici disciplinam : (3) iragan nintcen guiqon naguiaren landatic, eta erho gobernu gabearen mahastitic (dio Spiritu Sainduac), eta guztiac ciren hasuinez, elhorriz eta belhar gaichtoz betheac ; eta hesiac, hersteguiac eta harmorac ere, eroriac eta desequinac. Eta hec hala ikhusi nituenean, eguin nuen gogoeta, hartu nuen exemplo, ikhasi nuen cer eguin behar nuen, eta centçatu nintcen bertceren gainean. Eta cer den naguiaren landatic eta erho gobernu gabearen mahastitic edo ardantcetic iragaitea, declaratzten du Glosac, erraiten duela : *Per agrum hominis pigri atque per vineam viri stulti transire, est ritam cuiuslibet negligentis inspicere, quam urticæ vel*

(1) Hier. ad. Rusticum.

(2) Eccli. 33.

(3) Prov. 24.

spine repellit; (1) naguiaren landatik eta gobernu gabearen mahastitik iragaitea, da, presuna alsferraren eta antsicabearen bicitearen eta ioan-ethorrien consideratcea; eta hetan, landa iorratu gabean beçala, anhitz hasuin eta belhar gaichto, anhitz salta, malicia eta behatua edireitea. Hasuina edireiten da alfer naguiaren landan eta alhorrean, ceren, *urtica figurat acediam, si molliter tangis urit: si fortiter astringis non pungit*; hasuinac sinificateen du naguitasuna: baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui balacuz beçala hazcatcen, ferecatcen eta eratbiltcen baduça, erreco çaitu: baina ez, nabasiqui eta ausartqui hersten eta marruscatcen baduça. *Fertilis assiduo si non renocetur aratro, nihil nisi cum spinis, gramen habebit ager*, (2) dio Ovidioe; den lorric hoherenae ere behar du aphaindu, garbitu eta iorratu; ceren bertcela belhar gaichtoa içanen da bethiere iaun eta nabusi. *Pestis est mortalibus ignavia*; (3) ezta içurriric eta ez poçoinic naguitasunac edo alferqueriac beçanbat calte egiten duenic.

Badirudi ecen eztuela nahi içatu Iaincoaet dagoen behinere itsasoa gueldiric: baina nahi du ibil dadin, higui dadin, marea dadin. Ceren bertcela usain liteque, quirats liteque; eta are aphoz, snguez, ièlez eta liqui-

(1) Glossa, ordi. super 24. Prover.

(2) Ovid. lib. de trist.

(3) Plaut. de Rep.

tsqueriaz bethe liteque : lakhuac, aintciraç eta bertce
ur gueldiac bethetcen diren beçala.

§ 2.

Presuna alferra edueaçun galduçat eta hilteat. Eta handic erraiten du Senecac : *Otiūm sine litteris, civi hominis sepultura;* (1) letra gabearen aisia, jaquintsu ezte-naren alferqueria, guicon biciaren hobia da, eta chortz-tokia. Ceren deus eztaquienetar, eta eguiten ere eztuena, presuna hilaren eta chortzirie datçansaren pare baita. *Omniam vitiorum quasi magistra quedam atque origo, otiositas,* (2) dio San Chrisostomoe: bicio guztiak eta pensu gaichto guztiak cimendu, ithur-buru eta maestru beçala da alfertasuna. Ceren ithurritik ura beçala, alferqueriak ere sorteen haitira gaichtaqueriac.

Handic heldu da probetasuna, errumeskeria, esquean ibiltea, eta bai ohoin iquitea ere ; *pigritia est nutrix egestatis,* (3) dio Senecac ; naguitasuna da gabeciaren eta pobreciaren unlidea eta haz-ama. Eta errailen du Spiritu Sainduac ere : *Omnis piger in egestate est,* (4) naguia bethi da behar, escas, eta errumes. *Qui furabatur, jam non furetur, magis autem laboret, ut habeat unde tribunal necessitatem patienti,* (5) dio Iondone Pau-

(1) Seneca., epis. 28.

(2) Chris. serm. 36.

(3) Seneca., liber. de benef.

(4) Prov. 2.

(5) Eph. 4.

loc; ebatsten çuenac, ezteçala ebats, baina trabailla bedi, manaya bedi, eta halatan içanen du bere eta berteren. Erran nahi du, baldin trabaillatcen bada, ex-tuela ebatsico, eta ez erumesqueriarie ikuusico. *Egestatem operata est manus remissa, manus autem fortis dixitias parat.* (1), dio Spiritu Sainduac: escu lachoac eta alferrac probetasun dacarque, baina bortitzac eta trabaillariac aberatstasun biltzen du.

Otiosus Esau amisit primatus benedictionem, quia maluit accipere quam querere, (2) dio San Ambrosioe; Esau alferrac galdu çuen bere lehentasuna, ceren nahiago içatu çuen hartu, ecen ez bilhatu. Hala eguiten dute bertce*iende alferrec ere, nahiago dituzte bertceren onac çucen edo makhur hartu, eta bereac ere bahitu eta saldu, trabaillatu baino.* Eta guero ecin har daça-quetenean eta ez ebats: eta bahitcecoric eta saltcecoric ere eztutenean; abiatcen dira esquean, bataren eta bertcearen forogu, anhitz beltçuri eta bekhaitzcoa içaiten dñtela, eta atheac ere maiz, ez icusi iduri eginie, hersten çaztela. Badirudi ecen haur eman nahi çuela aditcera Spiritu Sainduac, erran çuencan: *Subtrah pedem de domo proximi tui, ne quando satiatus oderit te,* (3) guibela eçaçu ceure oina adisquidearen etchetic, ez han maiz ibil, ase ezteçaçun, higuin jetçaquitçan eta gaitzets etçaitçan. Ceren San Ambrosioc dioen beça-

(1) Prov. 40.

(2) Ambros. epist. ad Vercel.

(3) Prover. 25.

la : Qui frequenter ad alienam mensam convenit, otio deditus est : (1) Bertceren mahaira maiz biltzen denac, badirudi alferqueriari emana dela.

Eta halacoa eta halacoac, baina eta haisiac, maiz dira gaizqui eta onbehar. Baina aldez eztira urricalquien, ceren bere faltaz, trabaillatu nahi gabez, eta ethorquiçunera ez behatuz halacatu baitira. Paga beçate beraz iragan duten aisia eta alferqueria, presenteco penaz eta trabailluaz : leheneco asea eta soberania, oraico goseaz eta escasiaz. *In omni opere bono erit abundantia, ubi autem verba sunt plurima, ibi frequenter egestas :* (2) Trabaillu onean içanen da franco eta franquia, baina hitz anhitz den lekhuan, maiz da probetasuna eta escasia. Alferrac, choil dira fitztun eder, solhasturi handi; hequen compainian çarenean, ezta çure aldiric, çu baino hec hobequi entçunae dira, hequentçatda audientzia guztia; heydagote mundua, ahoa çabalduric eta beharriac ernaturic, beha. Ordea gero azquenean hec escale, eta çu emaille. Haor da alferqueriatic edo naguitasunetic heldu den irabacia, probecia, errumesqueria : bataren eta bertcearen carga eta forogu içaitoa : ondore gaichtoa, calte handia.

Baina calte guztien gaineco caltea, alferqueriastic heldu den handiena, ceini darraicola erran baitut, nie orainocoan erran dudan guztia, da luçamendua, guerotic guerora ibiltcea. Ceren nagui-alferrac eztu behi-

(1) Ambro. in epist. ad The. cap. 2.

(2) Prover. 14.

nere erraiten egun; bethi bihar, bethi GUERO, bethi luçamendo. Alfertasuna da GUERO horren ithur-burua, cimendua eta ama: eguiteco guztiac egunetic biharera, presentetic ethorquiçunera, eta GUEROTIC GUE-NORA luçateen ditaena. Eta ama hunen alaba haur, nagiitasunetic eta alferqueriatric sortean den GUERO haur, da gure galgarria, gure içurria eta egundainotic gure etsai deabruac, gure enganatceco ediren ahal duen bideric eta arteric hoherena, finena eta segurena.

Beraz gue ere, GUERO huni eduqui behar diogo beguia. Hunen gueure ganic khenteera, urruntcera eta etchetic atherateera, behar dugu guenre indar guztiaz eta antceaz enseyatu, permatu, deliberatu; eta egun eguin behar dugun gançaric, eta ahal daidiquegunie, ez biharco luçatu; ez alfer ela nagui egon.

III CAPITULUA.

Nola alferrari nahicunde hutsetan, eta desircunde choiletan iragaiten çayon dembora.

§ I.

Erraiten du Salomonec, edo Salomonen ahotic Spíritu Sainduac: *Sicut ostium vertitur in cardine suo, sic piger in lectulo suo;* (1) athea bere erroetan beçala, itçulteen da naguia ere bere ohean edo camastran.

(1) Prover. 26.

nere erraiten egun; bethi bihar, bethi GUERO, bethi luçamendo. Alfertasuna da GUERO horren ithur-burua, cimendua eta ama: eguiteco guztiac egunetic biharera, presentetic ethorquiçunera, eta GUEROTIC GUE-NORA luçateen ditaena. Eta ama hunen alaba haur, nagiutasunetic eta alferqueriatric sortean den GUERO haur, da gure galgarria, gure içurria eta egundainotic gure etsai deabruac, gure enganatceco ediren ahal duen bideric eta arteric hoherena, finena eta segurena.

Beraz gue ere, GUERO huni eduqui behar diogo beguia. Hunen gueure ganic khenteera, urruntcera eta etchetic atherateera, behar dugu guenre indar guztiaz eta antceaz enseyatu, permatu, deliberatu; eta egun eguin behar dugun gançaric, eta ahal daidiquegunie, ez biharco luçatu; ez alfer ela nagui egon.

III CAPITULUA.

Nola alferrari nahicunde hutsetan, eta desircunde choiletan iragaiten çayon dembora.

§ I.

Erraiten du Salomonec, edo Salomonen ahotic Spíritu Sainduac: *Sicut ostium vertitur in cardine suo, sic piger in lectulo suo;* (1) athea bere erroetan beçala, itçulteen da naguia ere bere ohean edo camastran.

(1) Prover. 26.

Athea bere erroetan eta uhaletan ongi iarrria eta pausatua dagoenean, errazki hersten eta idekitzen da, aise alde batera eta bertcera erabiltezen da. Ordea erabiltze-hec guztiagatik ere, erabili ondoan bere lekuan eta toquian guelditzen da. Naguia ere negu hotzean, atheac atheari darauntsanean, ohean higuitzen da, bertee aldera itxultzen da, burua goititurik iartzen da. Ordea hargatik itxul-inguru hequen buruan, lotara bere ohe berora bihurtzen da. Bada haur beror spiritualqui, bekhatore naguia baithan ere guerthatzen da; bekhatoresek egonaren buruan, eçagutzen du, bide makhurra daramala, errebelatua dohala. Eta hartzen du cerbait gogo, hartzen du nahicunde bat, bide onera bihurtzeo, bicitee berri bati lotzeeo; eta anarterainoko aztura gaichto guztien utzleco. Ordea guero ere, iranltee eta ibiltze hequen guztien finean, athea bere erroetan, eta naguia berea ohean beçala, bere bekhatuen chisteran eta elçauntzan baratezen eta guelditzen da.

Aztorea escuan daducaçunean, higuitzen da, iharresten da, hegaldatcera apoderatzen eta oldartean da. Ordea oldartze hec egun eta, lehen cegoen escura bihurteen da. Hala bihuricen da bada bekhatore naguia ere, bere gogoeta on guztien buruan, bere Icheneco tornuetara eta maina gaichtoetara. Enseyatzen da, baina flacoqui; hurbiltzen da, baina ez asqui. Halakoagatik erraiten du Isaias prophetak: *Venerunt usque ad partum et virtus non est pariendi;* (1) Ethorri ciren er-

(1) Isai. 37.

ditceco pontura, ordea etciren erdi, etcen hartara-
 cotçat indarric asqui. Hartcen dugu gogo, hartcen dugu
 borondate, obra onac eguin behar ditugula, eta ethor-
 cen gara eguin behar ditugun orenera, ordea han isti-
 cen eta guibelatcen gara, han anu eta ukho eguiten du-
 gu, beharrenean saltateen dugu. Geren hartcen dugu
 gogo eta borondate hora ezpaita fina, ezpaita cinezcoa
 eta ez deliberatuqui deliberatua; nahicunda baita eta
 ez nahia. *Voluntas nova quæ mihi esse cœperat, non
 erat idonea, ad superandam priorem, vetustate robo-
 ratum,* (1) dio San Agustinec; ene borondate berriae
 etçen indarric asco, borondate çaharraren garaitceco.
 Lo datçanac, erdi iratçartcen denean, eguiten du cen-
 bait muguida, iaiki nahi iduri bat, baina nola ezpaita
 asco cinez permatcen, berriz lotara bihurteen da, los
 nabusi guelditeen da. Hala, dio San Agustinec, guer-
 thateen ceicala aldia batcz, berari ere: *Cogitationes
 quibus meditabar in me similes erant conatibus exper-
 gisci volentium, qui tamen superati soporis altitudine
 remerguntur;* (2) munduco atseguinec eta placerec,
 lo goço batec beçala, azpian nenducaten, eta noizic be-
 hin ethorteen ceizquidan placer hetarie ilqnitceco eta
 laincoaganat itçultceco desircunde batçue; baino
 hec guztiac, lotarie iratçarri nahi çuenaren enseyn
 eta permadura flaco batçuc beçala ciren, probetchu
 gabecoac, loaren garaitceco, munduco eguitecoetarie

(1) Augus. lib. 8. confes. cap. 5.

(2) Augus. ubi supra.

atheratceco, indarric asco elçutenac. Eta halatan neure desircunde on guztien buruan ere, neure leheneco usantetan eta bekhatuetan guelditzen nintzen.

Vult et non vult piger, (1) dio Salomonec; nahi du, eta eztu nahi naguiac. Eztu nahi osoa, eta ez complitua. *Pigri vocabulo denotatur, quod vult regnare cum Deo, et non laborare pro Deo: delectant præmia cum pollicentur, deterrent certamina cum jubentur;* (2) nahi du naguiac laincoaren erresuman parte, ez ordea erresuma haren erdiesteko iragan behar diren trabailluetan. Pagamenduac alegueratzen du, nequeac tristetzen du eta icitzen. Ongui eguitetic heldu den irabacia, ongniric eguin gabe nahi luque goçatu. Nahi du ioan parabisura, ordea nekhatu gabe; atsegunic ez nahi du utzi, eta ez penaric hartu. Herabe du bideari lotcera; *piger, quasi æger pedibus;* (3) maingu da, oinac ditu eri, gogoa erbal eta flaco. Nahicundea badu, nahiaren obratcea çayo falta, hura guerocotz egotzten du: deus ere obratu gabe, deus ere beure gogoac eta borondateac dioscun gauçaric baicen eguin gabe, desira hutsen botherez, borondateaz beraz, nahi luque salbatu eta ceruco lorian sarthu. Eta desira hautan, gueroco gogoan eta borondatean, dembora guztia iragaiten çayo.

Erran comuna da ifernua desira onez bethea da-

(1) Prover. 13.

(2) Beda lib. 2. super Prov.

(3) Isidor. lib. 2. Ethim.

goela. Ceren han direnec obratu ezpañten ere, cenbait desira on bedere içan çuten. Ezta nehor ere hain gaichtoric, eenhait aldiz bere gaiptaquerien utztec gogoa ethortcen etçaicanic, eta cenbait desircunde on ere içaiten eztuenie. Ordea desircunde on hec berac eztira asco; ceren hec lorea beçala dira. Eta nola har-teen ezten loreaz, atchequitcen eztenaz, botean ede ninicoan galcen denaz, ezpaita probetchuric: hala borondateaz beraz, desira hutsaz, choillaz eta bakharaz, obra ahal ditequeyela, obratu gabe guelditcen denaz, ecin dateque probetchuric eta ez fruituric.

Alferrari erran behar çaiça daguiela; eta naguiari, higni dadilla: eta ordea, hala bata nola bertcea, biac orobatsu baitira, biac dira borondate huts: eztira nahicunderic, desircunderic, gogoric eta guticiarie baicen. Eta guticia hec berac dira penagarriric asco: *Desideria occidunt pigrum*; nahicundec hilteen dute aferra, dio, Spiritu Sainduac. (1) Erraiten obi da: *Ignavis semper sunt feriae*; (2) naguiençat eta alferrentçat egun guztia dira besta. Baiña hobequi erran liteque, halacoençat, bestac ere astelegun direla. Ceren nekhaçailac bere lancan baino, anhitzetan ere alferrac bere alferquerian, nekhe guehiago edireiten baitu. Agueri da erregue David baithan: Erregue hari etceraucaten egundaino guerlec eta guerletaco trabailluec hanbat eguiteco eta atsecabe eman nola alferqueriac, eta alfer cegoela eguin

(1) Prover. 21.

(2) Adagim.

cituen bekhatuec. *Non sunt otiosi quorum voluptates multum negotium habent.* (1) dio Senecae : Eztaude ez alferric, placeretan dahiltzanac ; ceren placer hetan bada desplacer eta atsecabe, trabaillu eta eguiteco. *Dum otio vacant in rem negotiosissimam incident;* (2) Álfer egoiteaz erortzen dira eguiteco handitan. *Sicut enim cum quis non comedit, dentibus nocet; ita qui comedit non accomoda stupescere facit;* (3) nola ez jateac galtean baititu hortz-hagninae : hala behar eztenetik jateac ere, hortzquitzen ditu.

§ 2.

Gauça segura da eta eguiazcoa, fedeac eracusten duena, salbatceco, cervo lorian sartceco, eztirela desira onac berac asco, baiña behar direla Iaincoaren manamendu Sainduac, desiraz beçala obraz ere complitu. Haur da egua, eta egua haur guristino garen guztiak sinhesten dugu. Ordea guziarequin ere edireita du gure maliciac eta bogondate gaichtoac cenbait itçulpide, cenbait deseneusa, eta escapatceco bide ; obratcea utziric, desiratai deimboraren iragaiteco, luçamendutan ibilceco. *Propter frigus piger arare noluit;* (4) trabaillatu nahi etçuenac, hotzaren atcha-

(1) Seneca, de brevitate vitæ.

(2) Laert. lib. 2.

(3) Chris. hom. 36.

(4) Prover. 20.

quia eguin çuen : barurtcera herabe çuenac, buruan min çuela erran çuen. *Dicit piger, leo est in via :* (1) naguiac, bere lekhutic higuitu nahi eztuenac, traba handiac edireiten ditu, bidean ere lehoina dagoela erraiten du. *Occasiones, querit qui vult recedere a amico :* (2) adisquideaz deseguin nahi denac, adisqui-detasuna hautsi nahi duenac, occasinoac bilhateen ditu, anhitz desencusa eta estacuru edireiten du. Hala edireiten ditu bada alferrac desencusac, estacuruac, atchaquiac eta itçulpideac, bekhatutan egoiteco, desircundetan eta nahicundetan demboraren iragai-teco.

Nehorc ontasunera hersten çaituenean, eta guibela çaudenean, ihardesten dioçu, hala hersten çaituenari: Othoi orai presentean barkhatu behar derautaü, ecin dadiquet oraiño çuc dioçuna. Ceren buruan sartru baitçait fantasia bat, complitu behar dut fantasia hura: gegora baitçait guticia bat, iragan behar dut guticia hura: appur bat ase behar dut, aspertu bahar dut, dichiritu behar dut; eta guero orduan ase, asper, dichiri eta nekha nadinean, bianda higuinteen has daquidanean, orduan guztiac utzio ditut; orduan bide on batean jartcera eta fintcatcera deliberatuqui deliberatuco dut. Baiña bitartean, anarteraino, ezta cer mintçaturic. Ceren nic orai ahal duquedan guzia da, desira ona, gueroco gogoa eta intencionea, eta ez bertceric. Ezta

(1) Prover. 26.

(2) Prover. 8.

bide gaichtoa haur, ezta hunela orai eguitca guero fin
gaitz eguiteco. — Ordea Spiritu Sainduac derratzen
hori bide gaichtoa eta galgarria dela, eta enganatzen
carela.

§ 3.

San Agustinec, frogatuac beçala, anhitz gauça erraiten du luçamendutan ibiltceco pontu hunen gaiñean. Contatzen du, nola bere bicitee gaichtoaren utzeco ingurunera cenean, ibili cen ecin ethenduz, ecin partituz, eta bere baithan ecin deliberatuz. Contatzen du halaber, cenbat trabu edireiten çuen, cenbat guerla eguiten cioten bere lagunec, occasioneec, eta aztura gaichtoec. Alde batetic desiratzen çuen bide onean iartcea : hartara bulcatzen çuten bere ama sainduaren nigarrec, concienciaren ausiqniec, eta Iaincoaren manamenduec. Eta hertetic, trabatzen eta guibelatzen çuten leheneco usantcec, eta guztiz ere lagunen balacuec, hitz ederrec eta placerec : *Tenaciter colligabar à famina* ; (1) Pasionec cedocatan borthizqui lothua. *Dixeram da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo. Tinebam enim, ne me cito exaudires et sanares à morbo concupiscentiae, malebam expleri quam extingui.* (2) Munduco atseguinetaric apartatcea, hain ceitcan gaitz eta gaitzi, ecen bere othoitzac ere, helçaz gueroco, elborquiçuneco eguiten baitcituen. Ceren bel-

(1) Aug. lib. 8, confes. cap. 1.

(2) August. lib. 2, confes. cap. 7.

dur cen, entzen eceau berehala Iaincoac, eta bere plazcerac, goçatu nahizco desira handi batequin ben gogoan cerabiltzanac, guibela ciatçon. Eguiteco hundan cebillanean, erraiten cioen Iaincoari : *Modo, ex modo, sine paululum*; (1) Ha Iauna, utz azen aphur bat iguricazu bertee aphur bat, ez lehia, ez khecha, ez berantets, sarri naiz curequin. Hunela erraiten quez hunela luçatzen quen. Eta luçamendu hautan cebillan, dembora aphur bat iragan ceican. Ordea guero hunhalere asco goiz bihurtu cen, etcen azquen ponturain egotu. Aiteitic, aldebatefic eta bertctic bere contus eguinic, erran cioen, deliberamendu handi batequin bere adisquide bat : *Ego jam me abrui ab illa nostra spe, et ideo servire statui ex hac hora, in loco non aggredior*; (2) Nitçaz denaz beçan batean, ni campoan naiz mundoco eguitocoetarie, banalerietarie e esperantça guztiatarie : nic hautsi dut munduarequin egnin dut harequicoaz, eta deliberatu dut Iaincoaren cerbitzatecera. Eta orai berean, presentean hasten naiz ezta ia guehiago, gueroco gueroric, luçamenduric, eez ephetan ibilteeric. Eta hala, erran beçala, egnin en quen. Anhitz luçamendu erabili quen, baiña azquen guztiac, eta asco goiz utzi cituen. Baiña çuc eritu hala eguiten, egunetic egunera çabiltza, bedi prometa, bethi gogo har; eta behin ere ez ethen, behin ere ez delibera, eta ez compli : bethi nahi, bethi nahi.

(1) Aug., lib. 8, conf. cap.

(2) Id., lib. 8, conf. cap. 6.

gui; nahicunde hutsetan, desircundetan, dembora guztia gal, eta hala çaudecilla, heriotceac atrapa, atceman eta har.

Ikhussico duçu iende handi batçen etchetan, Hercules sendo famatu hora moldatua, maquilla borra bat edo maillu handi bat escuan duela; baitirudi ecen hartçaz, etchean sartcen diren guztiey buruac hautsi behar derautzela. Ordea nola Hercules hora, harriz, çurez edo cobrez eguna baita, edo pintura bat baicen ez-paita, gueldi dago, kheinatcea eguiten du eta ez bertceric. Hala dira bada, guerotic guerora dabiltçanac ere: kheinatcen dira, eta eztute aurthiquiteen; destatcen dira, eta eztute desarratcen. Erraiten dute: egunen dut, eta eztute behin ere eguiten: Hala daudela dembora guztia iragaiten çaye, eta berac ere iragaiten, higatzen eta akhatzen dira.

II.

GAZTEA.

IV CAPITULUA.

Gaztetik çahartcera penitentzia luçatzen duenaz.

§ I.

Erraiten du Spiritu Sainduac : *Memento Creatoris tui in diebus juventutis tuæ, antequam veniat tempus afflictionis tuæ et appropinquent anni de*

gui; nahicunde hutsetan, desircundetan, dembora guztia gal, eta hala çaudecilla, heriotceac atrapa, atceman eta har.

Ikhussico duçu iende handi batçen etchetan, Hercules sendo famatu hora moldatua, maquilla borra bat edo maillu handi bat escuan duela; baitirudi ecen hartçaz, etchean sartcen diren guztiey buruac hautsi behar derautzela. Ordea nola Hercules hora, harriz, çurez edo cobrez eguna baita, edo pintura bat baicen ez-paita, gueldi dago, kheinatcea eguiten du eta ez bertceric. Hala dira bada, guerotic guerora dabiltçanac ere: kheinatcen dira, eta eztute aurthiquiteen; destatcen dira, eta eztute desarratcen. Erraiten dute: egunen dut, eta eztute behin ere eguiten: Hala daudela dembora guztia iragaiten çaye, eta berac ere iragaiten, higatzen eta akhatzen dira.

II.

GAZTEA.

IV CAPITULUA.

Gaztetik çahartcera penitentzia luçatzen duenaz.

§ I.

Erraiten du Spiritu Sainduac : *Memento Creatoris tui in diebus juventutis tuæ, antequam veniat tempus afflictionis tuæ et appropinquent anni de*

quibus dicas, non mihi placent: (1) Orhoit çaiteci ceure laungoicoaz ceure gazte demboran, çahartceco pentera baino lehen, eta hurbildu gabe urthe hec, ceinengatic datocinean, erranen baituçu : eztira ene gogaraco. Gazte çareino, ahala eta indarra duçuino, trailla çaitie, orduan escuey eraguię. Ceren çahartur guero, çahartceac berac emanen deratçu eguitecorie asco.

Hanbatic hanbatean, ederrago çaitça Iaincoari gaztetasuneco obra onac; çahartasunecoac baino. Ceren gaztetasunecoac bere egitez hobeago, eta ederrago baitira. Manatcen çuen Iaincoac legue çaharrean, fruitu guztiitaric primicia eman çiaçotela, guztiitaric partebat, eta parteric hoherena, principalena eta estimatuena, nola comunzqui ohi baita lehenbicicoa, offrenda ciaçotela. Manatcen çuen halaber Iaincoac berac, usoetaric, ez uso handiac, baiña uso cumeac ekhar ciaçotela. Gazteac nahi cituen, eta ez çaharrac : ceren usoac cenbatenaz gazteago, hanbatenaz dira hobeago, goçoago eta çaporetstuago. Hala dira bada halaber gaztetasuneco obra onac ere, çahartasunecoac baino gaiago eta baliosago. Eta halatan da gure Iaincoa ere hetaric guticiosago, desirosago eta çaleago : Hala erraiten du Miqueas Prophetaren çazpigarren capitulu : *Præcocas ficus desideravit anima mea :* (2) Goiz ontcen diren sicoac, gutiatacen cituen ene arimac ;

(1) Eccles. 12.

(2) Micheæ, cap. 7.

presuna gazteen lehenbicico obra on hec nahi nituzque, hetaric naiz çale, eta gura, hec çaiquit on, goço, eta ezti.

Hargatic da Theologoen errana, guiçona adimendura heltcen den beçain sarri, pontu berean, obligatua dela bihotzaren laincoagana ailtchatcera, haren manamen- duen complitceco gogo hartcera, eta arraçoin natura- laren arauaz bedere biciteera.

Pintatçaille batec egun baleça imagina eder bat, alde guztiz complitua eta abantaillatua; imagina haren, baldin eçagutçaric balu, nori lehenic behatu behar othe leraucayo? Segur da pintatçailleari berari, bere eguilleari. Beraz huneletan guiçonac ere, Iaincoac berac bere imaginara eta idurira, hain ederqui egnina denaz gueroz, adimendura heltcen den beçain fite, bere eguilleari berari, bere iduria eman dioenari behar dio behatu, haren cerbitçuan behar du bere ahala emplega- tu. Hunen arauaz erraiten du londone Pauloc : *Laborantem agricolam oportet primum de fructibus accipere* : (1) arraçoin da trabaillatcen den laborariac, berac lehenic bere fruituetaric dasta deçan. Eta londone Pauloc berac dioen beçala : *Dei agricultura estis* : (2) cuec çarete, eta gu gara, Iaincoaren laborantza; gu gara, Iaincoaren lur-landua, aphaindua eta tra- baillatua. Arraçoin içanen da beraz halaber, Iaincoac berac, laborari onac beçala, bere trabaillua lehenic

(1) Paul. 2, ad. Thimo. 2.

(2) Paul. 1, Cor. 3.

goça deçan : eta adimendura edo endelegamendur beltzen garen pontu beretic, gure obren primicia eta lehena dasta deçan.

Baina, aī, aī, aī, eta millatan aī !! Non da bere lehen fruitutic, bere obren hastetic, Iaincoari dasta araciteen deraucanic ? Non da guristino goiztiarrie ? Goiontcen denic : gaztedanic Iaincoa cerbitçatcen dueanic ? *Vae mihi quia factus sum sicut qui colligit in automno racemos vindemiae, non est botrus ad comedendum :* (1) ai ene urricalquiçuna (dio Miqueas Propheta), ceren ni egun naiz udaren finean, bertceren bilondoan, mahats hondar-mondarren bilha dabillana beçala. Hoberenac bertceec eraman dituzte. Ezterauta morcokhta bat erc, eta ez bikhor bat ahoan eman ahal ditequenic utzi. Bada hausr beror erran ahal deçaque gure laungoicoac ere. Ceren gure gaztetasuna bertceec ioaiten du, lehenbicico obrac bertceec biltzen ditu. Deus guelditcen baçaica ere, bil ondocoac, ondarrac, çahartcecoac, guelditcen çaitça. Eta gaichtoeneco contuan, ailequitça hec ere, edo hec bedere gueldi !

§ 2.

Badirudi ecen desohore eta laidó çayela oraico guicon gaztey prestuqui hicitcea, eta behkaturic egun gabe egoitea. Bere egun bidea, Iaincoari çor dioten cerbitçua, gueroco, çahartceco ordenatcen dute, errai-

(1) Micheas, 7.

ten dotela : berdin oraño ezta hiltceco perilie, sendo naiz, gazte naiz, eta gazteac gazte anteu, gazte beçala behar du bici eta gobernatu. Cer lerraue munduac berac ere, baldin oraidanic parti banenquio? Hor heldu da çahartasuna, dembora pausatua, umoa, erhoquerien uztecoa. Orduan bai, orduan onduco naiz : orduan munduari guibela emanen diot, eta debocinoan sarthuco naiz. Baiña anarterainocoan deçadan atseguin har, deçadan mundua cerbitça : naquion goça ; naquion behin, berriz bihurtceco desiraric eztuquedan beçala, ase eta asper. Haur da oraico presuna gazten deliberamendua, haur da hequen gogoa : eta haur da adinean beçala, gaineracoan ere gazte içaitea, eta azquen finean, fin gaitz eguiteco perilean iartcea

Baldin bacina esperantetan, hemendic urthe baten buruan, erdiesteco iaun handi batenganic cebait cargu edo errenta; ezliçateque erhoqueria handia, bitartean anarterainoco demboran, iaun haren contra ibiltcea? Bada are da handiagoa çuc eguiten duçun erhoqueria. Ceren çuc nahi duçu hemendic urthe baten buruan, edo guehiagoren, ceure çahartcean ondu, çuc nahi duçu orduan Iaincoarequin adisquidetu, eta haren ganic anhitz favore eta garacia ardietsi; ala baiña bitartean, anarteraiñoco dembora guztian, ceure gaztetasunean, Iaincoaren contra çabiltça, harequin etsai cara; eta etsai beçala, anhitz bidegabe eguiten dioçula, bicitzen cara. Ha cer bidea eta moldea, cer lausengua eta balacua, harenganic çahartcean endreçu içaileco, nahi duçunaren erdiesteco!

Cahartcean anhitz balioco duenac, gaztetic behar du

ecagun eta agueri. Fruituric içanen duen cuhaitçae, aitcinetic behar du loratu. Doctor handi içanen denac haurretic behar du escolatu. Gaztean harmeric uquito eztuena, çahartcean nola capitainduco da ? *Quæ in juventute non congregasti, quomodo in senectute invenies?* (1) Gaztean bildu eztuena, nola edrenen duen çahartcean ? Gaztean luçaro gaichto içan dena, nola colpe batez, eta laburzqui onduco da çahartean ? Ceren bertceac bertce direla (lehen erran den beçala), gazteco usantçac iarraiuitcen ohi çaitça ne-hori çahartcean ere : eta are orduan cargatcenago, jauntcenago eta lehiatcenago çaitça. Bada badirudi ecen deabrua ere orduan permatcenago dela. Hal emaiten du aditeera londone Ioannes Evangelistac, erraiten duenean, aditu quela cerutie minteo bat, cioela : *Vox terræ et mari, quia descendit ad vos diabolus, habens iram magnam, sciens quia modicum tempus habet :* (2) Beguirautçue lurra, eta itsasoa, gaizqui doha çuetçaz : ceren iautsi da deabrua çuetara colera han-dian, iaquinic ecen dembora guti duela. Guztiac tentatzen tu deabruac, baiña cinquienic eta finquienic çaharrac. Ceren nola hec, lucenaz ere, ecin anhitz irsun baiteçaquete, dembora guti baitute, akhabatnurras baitçiae : eta acabatce hartan baitago seculacotz ongi edo gaizqui içaiteco pontua eta gora behera : halaten deabruac ere akhabatce hartan, escuey eraguiten de-

(1) Eccles. 25.

(2) Apocal. 12.

raue : orduan bere artea, antcea, maiña, eta ahal guztia emplegatzen du : orduan çacuacoac atheratzen tu, daquizquien iocoac iocatzen tu : eta ikhussiric dem-bora guti duela tentatceco, guti hari ahal daguien guz-tia balia aratciten derauca. Beraz hunelatan, peril bandian iarri nahi du çahartceraiño bekhatutan egon gogo duenac. Ceren arraçoiñ haur ere eman deçadan : cer içanen da, anhitzi guertatzen çaicana, çahartu us-tea, çahartu gabe bere adinic hoberenean, hil badadi? Eta hala hil ezpadadi ere, cer ahal daidique çahart-cean, adin flaco hartan? Eta orduco ongui eguitea, cer balia ahal daquidicayo? Icigarri da San Basilioc pontu hunen gaiñean erraiten dnena : *Temperantia in se-necta non est temperantia, sed potius incontinentia quædam impotencia* : (1) Cahartasuneco pairua eta pairatcea, ecina da, eta ez pairua eta ez pairatcea : indar-raren escastea da, ahalaren faltatcea, ecin eginez ego-tea ; borchaz guelditcea ; adinac ukho eguitea ; eguin nahiaren ecin equina ; bekhatuac berac aitcintcea : ez gue bekhatuen, baiña bekhatuac gure utztea. Eritasunean guti jatea, ezta guti jate : orduco barurtcea ezta barurtce, ceren baliz appetituric, bada borondate. Ha-la da bada comunzqui çahartceco pairamendua, begui-ramendua, bekhatuetaric barurtcea ere : ecinezcoa da, eta ez borondatezcoa. Hunen arauaz erraiten du San Crisostomoc : *Qui modestus est in senectute, cum ætate plurimum jubetur, non magnam suæ modestiae merce.*

(1) Basil. oratio. 4. de pœnit.

dem arbitrōr habiturūm : (1) Eztut uste presuna çaharrac, probetchu anhitz içanen duela, bere çahartcean onhest, modest, pausatu, eta sosegatu içaiteaz : ceren adina bera hartara laguntcen baitzaica, adinac berac hartaratcen baitu, nahiago badu ere ecin baitaidique bertcela. Cer esquer uste duçu içanen duela, edo irabaei eginden duela çahar ecindusac etsaiari bidera haramaturic ez ilquiltceaz? Arratsean etcherat goiz biltceaz, eta bihurtceaz? Amorantiara gaztean beçala ez ioaiteaz? Dantçan eta iaucian ez ibilceaz? pontu hunen gaiñean ere, bertce guztietañ beçala ederqui erraiten du San Agustinec : *Sed quidam sunt fratres mei, qui in juventute sua luxuriose vitere volunt, et si ad senectutem pervenerint gloriantur dicentes se continentes esse : tunc enim eligunt servire castitati, quando libido eos servos habere contemnit. Nunquid tales continentis dicendi sunt ? Absit. Tales enim præmium non habebunt, quia laboris certamen non habuerunt :* (2) Batçuee nahi dute, bere gazte demboran bici bere gogara, anhitz bekhatu eta desordenu, guztiz ere emazteequin eguiten dutela. Eta guero baldin çaharteen badira, lorriateen dira, erraiten dutela : Gu iende castoac, onhestac, garbiae, pausatuac, eta beguiratuac gara : eztugu, Iaincoari esquer, desonhesqueriarie acometatzen eta ez emazteetaco bekhaturic eguiten. Ordea nolatan eztuęe eguiten? Ecin baitaidiqueęe. Beraz eciñari esquer, eta ez çuen borondateari.

(1) Chrys. Hom. 50 in cap. 24. Mat.

(1) August. ad fratres sermo 6.

Oraiuste duçue quec ecen iende garbiac, onhestac eta castoac çaretela, eta castitate horrengatic laincoaren aitcinean pagamendu handia içanen duçuela. Baiña enganatcen çarete. Ceren pagamendua içanen duenac, utci behar du bekhatua, bekhatu ahal daidiqueyen demboran, eta hartu berthutea orduan berean. Ceren San Crisostomoc dioen beçala : *Neque enim omnis prorsus etas omnibus vitiis est opportuna* : (1) Eztira ez adin guztiac bekhañu suerte guztietaco on eta ez gai. Eztagoca çahartasunari amurusia, eta ez comunzqui gaztasunari abaricia.

Baditzte gauça guztiec berc sasoiñac, trempeac eta demborac. Bada ereiteco dembora, eta bai biltzeceoa ere. Eta erho handia da, bildu behar den demboran eta mugan, ereitera dohana. Gaztean behar da erein eta trabaillatu, eta çahartcean bildu, goçatu eta pausatutu. *Fin gaitz egunnen duc choria, baldin gaztedanic ezpadaguic casia*, dio erretranac. Que nahi baduçu gaztean alfer egon, eta guero çahartcean trabaillatu eta obra onen eguiten hasi, hori da ordenantçaren haustea, sasoiñic ez beguiratcea, bildu behar denean ereitea, eta pausatutu behar denean lanari lotcea. Ordenantça hobea beguiratcen dute erleec bere artean. Erle gazteac gazte direñio campoan dabiltçä, trabaillatcen dira. Baiña çahartuz guero etchean daude, cofauean daude, eztira bere placerera baicen handic ilquiteen, han pausatcen dute. Ceren çahartcea hartsao, pausatceco, ordenatua da.

(1) Chrys. Hom. 10 in cap. 3. Math.

§. 3.

Eguia da, Iaincoac aguintcen dio, bere bekhatuen barkhamendua noiz nahiden, çahartcean ere, penitencia eguiten duenari. Ez ordea eztio nehorri, penitencia eguiteco biharamunie aguintcen, eta ez hartaco segurantçaric emaiten. Hala erraiten du San Agustinec:
Indulgentiam peccatorum promisit Deus, sed crastinum diem quo pæniteas non promisit: (1) Çahartcem penitencia eguiten baduçu on da; ordea pontua da, eti çahartuco çarenz; eta çahartcen bacara ere, ea çahartce hartan penitenciaric eguienen duçunz. Ea leheneco adin sendoan hasi eztuçuna, gueroco adin flacoan, akhabatuco duçunz. Ea egundaiño baiño ongi nahiago, adinaren arauaz hobequi beharrago, eta soseguari ere emanagoa çarenean, ceure burua penatuco duçunz. Eti orduan leheneco aztura çahar gaichtoac uteiric, aztura berri on batçuc hartuco dituçunz. Eztaquit, nic duda eguiten dut. Eta norc eztu duda eguienen? Ceren sendoac iasaiten eztuena, flacoac nola manaiatuco du? Baldin bacinitu bi abre, eta bi carga, ezliçateque erhoqueria, cargaric pisuena abretic flacoenari emaitea? Hala eguiten du bada, penitenciaren carga çahartcerat egozten duenac. Gaztetasuna sendo da, indartsu da ongi eguiteco; lanean arteeco, eta Iaincoaren cerbitçuan emplegatceco gai da. Baiña çahartcea flaco da, on behar da, berac du bere buruarequin, eta bere buruaren

(1) August. de verbo Domini sermon. 110.

sostengatzen eguitecoric asco. Çaharra ecin barur ditteke, belhaurico oracintonan ecin dagoque : erromerian ecin dabilque. Finean çaharrac, bere çahartasuneko eritasunequin eta arraçadurequin, penitenciazco obra ric ecin daidique. Nola içanen da bada orduan, bere eguinbidearen eguiteco on eta gai?

Guti da çahartcean, gaztean baiño çalhuiago, arinago, eta iauzcalari handiago. Elefantac (animalia handi bat baita) bere gazte demboran belhaunac, eta gaiñeraco bertce iunturac çalhu ditu, errazqui doblatzen eta plegatzen tu : baiña çahartcean gogortzen eta osatzen çaitça, halaco moldez, non baldin orduan eror edo etçan badadi, ecin iaiqui baititeque. Eta halatan hartaraz guero, bere naturaleçac berac hala eracutsiric, çuhaitzen contra, hec sostengu harturic, çutic dagoela, bere loa ere egiten du. Bada Elefant çaharraren eta gaztearen artean edireiten den differencia, edireiten da presuna çaharraren eta gaztearen artean ere, gaztea çalhui eta manaiucor beçain, da çaharra gogor eta currut.

§ 4.

Baiña hunelaco differentiaric ezpaliz ere ezta çahartceco beguira egon behar. Ceren çahar arteraiñoco dembora hartan ere, gazte çarenean ere beçala, anhitz ongi eta ontasun egiten deratçu ceure laungoicoac : hazten, mantenatzen, eta biciric eduquitzen çaitu. Ezlikateque bada arraçoin, çuc ere bitarte hartan, ceure gazte demboran, ontasunac errecibitzen ditutçunean ;

esquerrac errenda ciniatçon, cerbitça ceneçan, lauds eta ohora ceneçan. Çuri Iaincoae bethi eguiten deratu ongi, cergatic bada çuc ere eztioen bethiere eçagutx eguinien eta esquer emanen ? Cure alderacotçat franco da eta liberal Iaincoa, nolatan bada çara çu, hain escas eta herti, ceure gaztetasuna, adinic hoherena sobera etsiric, gaichtoena, hondarra, çahartcea emana nahi baitioen ? Gaiñac, picaiñac eta hautuac bertceren, hondarrac eta arbuyoac Iaincoaren. *Non enim tantum minimum in fundo, sed pessimum,* (1) dio Senecae : Gauça hondartuz guero, gutitzen da, eta gaichtatzen. Hondarra guti da, eta guti hora ere gaichto. Florea, irina, hoherena, gaztetasuna, eramaiten du etsai gaichtoac, eta guero nahi duçu contenta dadin Iaincoa çahiaz, eta çahartceco hondarraz. (2) Arrencuratzen Iaincoa, ceren animalia itsuac, mainguac, eriac, eta hebaiñac offerendatzen erautçaten : beraz arraçoin equin errencuratuko da çutçaz ere, ceren çahartcea baita itsu, cri, maingu, hebain, eta çuc hora offerendatu nahi baitioen.

Çahartcean beguietaco bista laburten da, beharieitan gorreria eguiten da : bethaunetan heçueria jartzen da, indarra gutitzen, da apetitua galtzen da, loa ioziten da, ikhara ethortzen da, larrua cimurtzen da, illea urdintzen da, burua carsoiltzen da, hatsa khiratsten da. Finean presuna çabarra, hotzberatzen, minberatzen,

(1) Senec. Ep. 2.

(2) Malach. 2.

iduricortcen, haserrecortcen, eta alde guziz on behartcen eta urricalquiçun eguiten da: hain urricalquiçun non baldin nehon ere gorputçac narrioric, arraçaduraric, edo falta estaliric baldin badu, orduan guztiac aguertuko baitira.

Certatuko du beraz Iaincoac halacoa? Munduac eta munducoeç beretçat on eztaducatena, bere artean ikhussi nahi eztutena, eta compaiñietan ere narda çayena, nahi duçu çuc har deçan Iaincoac bere bestale, maita deçan, besarea deçan? bere compaiñian eta lorian errecibi deçan? Hoberena behar duenari, eta onic bai-cenharteen eztuenari, nahi ceneraucayo çuc gaichtoena bulcatu?

Eta gaichto hura, çahar, itsu, maingu, hebain, eri hura har baleça ere Iainco misericordiosac, ez liçateque ez guztiarequin ere halacoa eguiteco gabe. Ceren non da bekhatuagatic egoin behar den descargua eta pagamendua? Nolatan çahartcean, hain dembora laburrean eta adin flacoan eta erbalean pagatuco eta satisfatuco du, hanbat bekhaturen çorra eta obligacinoa? Hargatik erraiten du San Agustinec: *Qui sero pœnit non evadet ignem purgatorii:* (1) Beranduraiño penitenciaric eguiten eztuenac, çahartceraiño Iaincoagana itçulicen eztenac peril du hoberenaz ere, Purgatorioetan luçaro egon beharco duen.

Climaco sainduac dioen beçala balentia handia da egunean eguneco descarguaren eguitea. (2) Eta badio San

(1) August. de vera et falsa pœnit. cap. 18, tom. 4.

(2) Clima. scala 8, in fine.

Matheoc ere : *Sufficit diei malitia sua :* (1) Egunac hera du bere buruarequin eguitecoric asco. Nola nahi tuijua bada çuc, hanbat eguneraco eta demborataco, gaztetasun guztico bekhatuac, corrac eta eguitecoac elkhargana bildu, eta guztiac çahar demboraco beguiratu eta eduqui? Eztausaçu çahartceco manaiua, manaiaphurra dela? Eta adin harc bere demboran eguite dituen falten ere erremediatcez eguitecoric asco içanen duela?

Beraz huneletan, gaztedanic behar da Iaincoa cerbitçatu, penitenciatan emplegatu, bekhatuetaric aparatatu, eta ez *guerotic querora*, gaztetic çahartcera luçatu.

III.

ÇAHARRA.

V CAPITULUA.

Cahartcean ere penitenciaric eguiten eztuenaz.

ERRAITEN du Escritura Sainduac : *Filius unius anni erat Saul, cum regnare copisset; duobus autem annis regnavit super Hierusalem :* (2) Urthe batetaco haurraren Saul, erreguctu cenean, eta bi urthez içan cen erregue Jerusalemeren gaiñean. Ordea nolatan ahal da-

(1) Math. 1.

(2) Reg. 13.

Matheoc ere : *Sufficit diei malitia sua :* (1) Egunac hera du bere buruarequin eguitecoric asco. Nola nahi tuijua bada çuc, hanbat eguneraco eta demborataco, gaztetasun guztico bekhatuac, corrac eta eguitecoac elkhargana bildu, eta guztiac çahar demboraco beguiratu eta eduqui? Eztausaçu çahartceco manaiua, manaiaphurra dela? Eta adin harc bere demboran eguite dituen falten ere erremediatcez eguitecoric asco içanen duela?

Beraz huneletan, gaztedanic behar da Iaincoa cerbitçatu, penitenciatan emplegatu, bekhatuetaric aparatatu, eta ez *guerotic querora*, gaztetic çahartcera luçatu.

III.

ÇAHARRA.

V CAPITULUA.

Cahartcean ere penitenciaric eguiten eztuenaz.

ERRAITEN du Escritura Sainduac : *Filius unius anni erat Saul, cum regnare copisset; duobus autem annis regnavit super Hierusalem :* (2) Urthe batetaco haurraren Saul, erreguctu cenean, eta bi urthez içan cen erregue Jerusalemeren gaiñean. Ordea nolatan ahal da-

(1) Math. 1.

(2) Reg. 13.

teque haur hunela? Ceren segur da urthe bat baiño guehiago çuela Saulec erreguetu cenean, eta halaber bi urthe baiño guehiago egon cela here erreguetasunean. Eguia da, hala da. Ordea nola hastean baitcen malicia gabe, urthe batetako haurraren pare, eta egoitea hartan iraun baitçuen bi urthez, eta ez guehiago; eta laincoaren alderacotçat ezpaitira contutan harteen ontasunean emplegatcen diren urtheac baicen; balatan erraiten da urthe batetako haurra cela Saul erreguesartru cenean, eta bi urthez egon cela barren hartan, eta ez guehiago; ceren ezpaitcen, bi urthez baicen laincoaren gracian egotu.

Erraiten du Senecac : *Quidam tunc vivere incipiunt cum desinendum est; si hoc judicas mirum, adjiciam quod magis admireris: quidam ante vivere desierunt quam inciperent*: (1) Iende batçuc hasten dira bicitcen, bicitecic guelditu behar denean; eta baldin hunetçaz miretssten baduçu, erranen deratçut are miresiscoago duçuna: bertce batçuc hicitcen hasi baiño lehen guelditcen dira bicitecic. Ceren obra onen eguiten hasi baiño lehen akhabatcen baitçaye here bicia. *Quid est autem turpius quam Senex vivere incipiens?* (2) dio halaber Senecac : Cer da gauça itsusiagoric, bicitcen hasten den çaharra baiño. Lehen behar da lehen hasi, lehen behar da ikhassi. Eta nola çaharra ecin has baiittleque bicitcen, segur da obrez mintço dela Seneca leku hunetan eta ez adinaz.

(1) Senec. epis. 23.

(2) Senec. epis. 43.

Itsusi da çahartceraiño Iaincoaren cerbitçatzen ez hastea, itsusiago orduan ere ez hastea, eta guztietako itsusiena eta gaichtoena orduan gaichtaqueriari berritzen lotcea, eta malician barrenago sartcea. Batzuc çahartcean hasten dira prestutzen, eta berthuteari iarrainquitzenten : eta hobeda orduan ere, ez nehoiz baiño : ordetura da, bidea iraganic etchean egon behar luqueyean, abiatcea ; handitueguiric aprehendizgoan iartcea ; urdinduric escolara ioaitza. Eta hauek guztioc dim itsusi sasoiñetic campoan, eta muga gaitzean.

Gazte demboran ibili cinen gazte antzu, arinqui, debocino gutirequin, bethi prometatzentz cenduela eta gogoan erabilzen çahartcean miracuillu egunen cenduela, orduan saindutuco cinela. Bada orai çahartza, ceure promesen eta hitz handien ephecan eta mugan çara. Baiña çuc orai ere itçurpideac bilhatzen ditutzu, luçamenduac edireiten ditutzu, eta azquen adinean çarela guti consideraturic, lehenbicicoan baicim beçala gobernatzen çara. Etçuen hala eguiten Senec*Ientil bacen ere, erraiten çuenean: Ante Senectudem curavi ut bene viverem, in Senectute ut bene morrer:* (1) Çahartceco aitcinean enseiatu nintzen ongi biciteera eta çahartcean ongi hiltceera. Gaztean bicitceaz eduqui nuen contu, eta çahartcean hiltceaz; çahartuz guero, utci behar da bicitcea, eta bicitceco gozoa, heriotcearequin behar da ibarduqui, eta hartzear bere ahal guziac prestatu.

(1) Senec. Epist. 6.

§ I.

Çahartcea, sentontcea, urthe anhitcez bicitcea, bere egitez on da, laincoaren donua eta dohaiña da. Cerren Iondone Pauloc dioen beçala : *Licet is qui foris est, noster homo corrompatur, is autem qui intus est renovabitur de die in diem* : (1) Gure gorphutz haur, ari-maren campoco eta gaineco estalqui haur, çahartceaz higatcen eta deseguiten bada ere, ordea barrena, ari-ma hobetcen eta erraberritcen da. Presuna çaharrac nola ia berac frogatz, eta esperientciaz ere baitaqui munduko erhoquerien eta ioan ethorrieu berri, ordu du gaztetasuneko maiñen eta thronuen utzleco, eta bere buruari akhordatceco eta ohartceco. Baiña gaztea perilos da, eta halatan erregeue Davitec erraitan cioen Iain-coari : *Ne revokes me in dimidio dierum meorum* : (2) Eznaçaçula dei neure egunen erdian; utz naçaçu çahartcera, umotcera, urdintcera eta azquen adinera heltcera. Çahartazuna, bertce anhitz gauçataco ere bai, baiña guztien gaiñetic emaiten da gaztetasuneko falten erre-mediatico. Eta hartaracotzat, hartaraz guero leheneco odol beroa hotzten da, sosegua ethortcen da, eta batere adimenduric duena ethorquiçunaz pensatcen jarleen da. Den presunaric laçoenac eta ansicabenac ere arratsean etcheco atheac hersten tu; portaleen mugan, hirietan, munduac laster eguiten du : ardiac ilhuntee-

(1) Paulus, 1 ad Cor. 4.

(2) Psalm. 101.

racoan fitetzago iaten du : cisneac hiltceracoan bera cantua erredoblatcen du. Hala dagnitela conseillatzen tu Iondone Pauloc presuna çaharrac : *Tanto magis quanto rideritis appropinquantem diem* : (1) Cembatenaz eta ikhusten baituçue ceuen azquen eguna lurbiñeanago çaitçuela, hanbalenaz lasterago abia, hanbatenaz perinago eta lehiago çaitsezte. Beguiraulçue orduan çabartcetic, naguitcetic, eta ez ansiatectic ; ceren orduan da mena, orduan da mina, orduan da azquen adifia, eta peril guztiengaiñeco perila. Eta nola hanbatic hanbatean, ederago baitçaitça laincoari gaztetaseco cerbitçuac eta obra onae, çahartasunecoac baiño; hala bertce aldera, çaitça halaber itsusiago eta gaitciago, çahartasuneco faliac eta huts equinac, gaztetase-necoac baiño. Ceren çahartasunecoac ezpaitira jaquin gabez, ignorantiaz edo esperientzia faltaz equinac, baiña bai maliciaz, gaichtaqueriaz eta gogoan deliberturic, beguiac itsuturie beçala acometatuac eta ohrtuac.

Ezta pontu hunetara gaizqui heldu Spiritu Saindu dioena : *Tres species odirit anima mea et aggravor valde animæ illorum : pauperem superbum, et divitem mendacem, et senem fatuum et insensatum* : (2) Hiruketxekoa edo bekhatore suerte gaitzesten tut, eta çauquit bertce guztiengaiñetic itsusi, probe urguilloa, aberats gueçurtia, eta çahar erho, centçu gabea, edo

(1) Hebr. 10.

(2) Eccles. 25.

çahar amurusa. Consideratcecoac dira hitz haue, iaquin deagun ea cergatic darizten Iaincoac hain gaitz hirur bekhatu suerte hauei : probearen urguillutasunari, aberatsaren gueurrari, eta çaharraren erhotasunari. Baldinba bada hauc baiño bekhatu handiagoric. Lehenbicoric, probea urguillu içaitea badirudi eztela bekhatu handia; lehen dirudi erhoqueria eta adimendu falta. Ceren prohea cerc urguillutzen du ? Halaber aberatsa ere gueçurti içaitea, badirudi bekhatu arina dela, behintçat anhitz da handiagoric. Bada guicon çaharra ere banaloriatcea, eta gazte demboraco cebait erhoqueriatara bilurteea, guiconari guertha daquidicaiona da, anhitz da bekhatu handiagoric. Cergatic bada, hauc huna direlaric, erraiten du guztiarequin ere Spiritu Sainduac hirur bekhatu hauc çaitçala gaitcienic, eta itsusienic? Ezta gaitz ihardesten. Baldin hirur bekhatu suerte hauc considera baitçagu gainguiroqui, acaletic eta campotic, hada hanc baiño handiagoric, eta Iaincoaz ere gaitzetsiagoric. Ordea baldin har baileçagu barrena, mamia, Spicitu Sainduac hunetan erran nahi duena, edireneng dugu, maliciaz, premia gabe, golotoniaz, bere sosegura, causarie, occasionoric eta tentamenduric gabe eguiten diren bekhatuac, direla gaichtoenac, eta halacoac dira hirur bekhatu suerte hauc ceinetçaz mintço baicara prensenteon.

Probea gneçurti içaitea, ezta hain miretsteco, ceren beharrac anhitz gauça ereguin deçaque ; aberatsa ere urguillu guerthatcea, comun da, arduraco gauça da, ceren nola nehoren men gabe, berac baitu bere dina eta behar duena, harc urguillutzen du, harc handitzen

eta hantcen du. Bada presuna gazte hat bere obretan eta ioan ethorrietañ arin eta erho içaitea, ezta ongi baiña badirudi aphur bat bedere adinac desencusatcer duela. Baiña probeac cer occasino du urguilletceo, aberatsac gueçurti içaiteco eta presuna çaharrac gazte demboraco tornuetara eta erhoquerietara bihurtceca! Bekhatu hauc eta guztiz ere çahartasunecoec eztute desencusaric, eztute estacururic eta ez ederztatceco bide ric, eta halatan çaitça hain gaitci eta itsusi Iaincoan.

§ 2.

Egun batez permititu çuen Iaincoac deseguin ceçalen bere etsaiec Ierusalemeko hiri eder famanu hora, nizceranen, hartçaz nahi çuten guztia ceguitela. Eta oñi Iaincoac ezpaitu behinere nehor bidegabequi gaztigal cen, emaiten du arraçoiña Ieremias prophetac, ea cer gatic Iaincoac hiri hora hala deseguitera eta bilhaccer a utei çuen, erraiten duela : *Sordes ejus in pedibus ejus, nec recordata est finis sui :* (1) Bere liquitsqueriz eta liçuntasunac cituen oiñetan, eta bere finaz eten orhoitu. Erran baillu beçala : oiñac cituen lohiaztatua eta liquitsac, haur da causa eta arraçoiña ceren hira hala galdu cen. Bada gauça comuna da eta arderacoa, oiñac liquits içaitea, ceren lurrean baitabilita. Ger antsia cen beraz hargatic? Baldin beguitartea, bisai a içan balu liquits, badirudi arraçoiña içan çuque

(1) Ierem. 4.

yela eguin çuenaren eguiteaz, baiña oïnaegatic cer an-sia cen? Eta alabaiña hargatic, oïnetaco liquitsqueriac-gatic erraiten da galdu cela, ceren nola çahartcea baita azquen adina eta bicitcearen bazterra eta hondarra, hala dira oïnac ere gorputzaren fina, akhabantxa. Eta halatan oïnetan liquits içaiteac erran nahi çuen, çahartcean cela liquits eta gaichto, eta etcela bere finaz ere orhoitu, eta halatan galdu cela. Ceren çahartcean gaichto dena, eta orduan bere salbamenduaz orhoitcen eztena, gaitz da galdu gabe, escapatea. Erraiten du San Cipriano: *Sicut in lignis ipsa reproba arbor comparet quæ post flores, fructus optimos cultori suo non exibet: sic et in hominibus ipse reprobus est quem flos juventutis deserit, et tamen in sui corporis senectute, bonorum operum fructus proferre parvipendit.*: (1) Nola çuhaitxa baita, çuhaitz alferra, fauna, idorra eta agorra, hostoaren eta lorearen ondoan fruituric iasaiten eztuena, hala da guiçona ere guiçon alferra eta guti balioa, bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganer guero, obra onen fruituric gabe dagoena. Guiçonac neboiz ere içaitecotz, behar luque hogoi eta hamarretan indar eta sendo, berrogietan centzu eta adimendu; berrogoi eta hamarretan diru eta hacienda; eta hirur hogietan debocino eta concientzia. Adin hartan, hirur hogoi urthetaraz guero concienciarie eztuenaz, bere apetitu desordenatuetarie guibelatzen eztenaz eztaguçula conturic. Eta are gutiago, orduan berriro

(2) Ciprian de abusio. 12.

gaielitaqueria pensalcen eta eguiten hasten dena hartçaz etsi eçaçu, hura emaçu galduțeat.

Haiñac, eta halacoac mehatchatcen tu Ieremias Prophetac, hitz estali batçuen azpian, erraiten duela : *Vt nobis, quia declinavit dies, quia longiores factae sunt umbræ vesperi :* (1) Ai gure urricalquiçunac, galdu gara, eguin du gureac, ceren akhabatu hurran da eguna, beheititu da iguzquia, eta itçala ere luçatuago di arratsaldean. Cer erran nahi du mintçatce molde hunc? Baldinba iguzquiac, bethiere agueri den beçala, luceago eguin behar du itçala arratsaldean eguerdian baiño. Ceren eguerdian gaindiec behera, artez, eta arratsaldean saihetsetic, soslai emaiten baitu. Ordo guztiarequin ere, ceren haur hunela guertatcen des, erraiten çaicu beguira dugula, galduac goacilla. Noh aditcen da bada haur? Aditcen da, galduac goacilla, oceren ikhusten dugun iguzqui hunec eguiten dues, arratsaldean, itçala handiago eta luceago, baiña ceren gure arratsaldean, çahartcean, adina iraulinz, eta beheitiuaz dohanean eta dihoacunean, mendecatceco, eaganatceco, eta are biciteco nahia eta desira ere berretzenago eta luçatcenago çaicun, ceren çaharago, eta gaichtoago eguiten garen, hargatic erraiten du galduac goacilla.

Badaquigu parabisuraco denac, ezuela behar behatuteric, eta ez behaturen notharic, eta ez cimurdureric : *Non habentem maculam aut rugam.* (2) Bada-

(1) Jerem. 6.

(2) Paulus ad Ephe. 9.

quign utzi behar direla aztura gaichtoac aitecinetic. Eta cuc gazte cinenean erraiten cenduen, etcela orduan ahalic, baiña çahartcean guztiac falta gabe utcico cintuela. Bada orai han cara, bazterrean cara, çahartu cara, eta ala baiña egundaiño baiño barrenago sartcen cara, lehen beçain gaichto edo gaichtoago cara. Cer egun gogo duen bada? Certan pensatzen duçu? Ceren beguira caude? Çahartcearen? han cara; ephearen? complitu da. Compli eçaçu bada cuc ere, ceure hitza eta promesa, çahar cindeciñeco eman cenduena.

Erranen duçu, badut oraiño bertee ephe bat ere: ez-tira oraiño dembora guztiac iragan. Eguia da, erran nuen çahartcean onduco nintela, orduco een lehen ephe. Baiña har deçaqnet bigarren bat ere. Ceren oraiño, çahar naicenagatic, bici naiteque guehiago ere. Bada azquen urthean, hiltceraco aitcinean falta gabe, huts guztiac erremediatuco ditut. Orduan neure hitzac edukiko ditut, promes guztiac complituco ditut. Anarteraiño ezta lekhuric, ezta cer mintçaturic.

Haur da presuna galduen contua, eta hurran, hurran, hunen ondoko eta hurraneco capituluan aguerico den beçala, fin gaitz eguiteco seiñale guerthua.

IV.

HILTCERA DOHANA.

VI CAPITULUA.

Heriotceco oreneraiño bekhatutan egon gogo duenaz.

ERRAITEN du Senecac : *Moriantur ante te vitia :* (1) Hil biteci çu baiño lehen çure faltac eta bekhatuac : hec lehenic, çu guero. Eztitçatçula heriotceraiño ceurrequin eduqui. Ceren hartaraz guero, periletan iar cindezque, cerori hilagatic, hec biciric gueldi litecin. Cahartceraiño bekhatutan dabaillana ezta peril gabe ; cer içanen da bada are aitcinago, heriotceco oreneraiño, bethi barrenago sartcen dela, bethi hala dabillanaz, eti ibili gogo duenaz ?

Eznuque erran nahi cein peril handiac diren heriotceco oren harten ; ceren ezpaneraucayo nehorí, icitececo eta esperantçaren galtceco, occasinoric eman nahi. Ordea ecin nagoque erran ere gabe, ceren orduco esperantçac anhitz galteen baitu. Eta baitacusat echen, nic orai, hemen eman ahal deçaquedan icialdurac eta beldurtasunac baiño, orduco perilaren berriric iaquis gabeac calte guehiago eguin deçaqueyela.

Baiña eguiteco hunetan sarthu baiño lehen, nahi nu-

(1) Senec. Ep. 27.

que iaquin ceneçan gauça bat, eta da : nola eguiazco penitencia baita Iaincoaren donua, dohaina, eta emaitza, Iaincoac berac placer duñean eman deçaqueyena : hala eguiazco penitencia hura, noiz nahi, heriotceco azquen orenean bada ere, salbatceco asco sendo eta botheretsu dela. Eta halatan salbatu cen ohoiña bere azquen orenean, anarteraiño bekhatutan egona eta ibilia. Oraiño bideazcoac gara, eta hunela gareiño iragan gaitezque aitcinat, eta bai guibelat ere bihur, badaidi-quegu ongui, eta bai gaizqui ere ; ceren borondatea libre eta gueure escuco baitugu. Halatan erraiten du San Agustinec : *De nullo desperandum est, quandiu patientia Dei ad paenitentiam adducit, nec de hac vita rapit impium* : (1) Ezta nehortçaz ere etsitu behar, ezta nehor ere galduçat eduqui behar Iaincoaren pacienciac penitencia eguitera iguriquitcen dioeiño, mundu huentan utzten dueiño. Halaber erraiten du San Agustinec berac : *Paenitentia aboleri peccata indubitanter creditus, etiam si in ultimo vita spiritu admissorum paenitent* : (2) Segur daducagu, duda gabe sinhesten dugu, azquen hatsaren aurthiquitcean ere, penitenciac bar-khatcen ditnela bekhatuac. Eta Iaincoac berac errana da Ezechiel Propheta baithan : *Impietas impii non nocabit ei, in quacunque die concursus fuerit ab impietate sua* : (3) Eztio bekhatoreari, bekhatutic ilquitcen den egunetic harat, bere bekhatuac calteric eguineng.

(1) Aug. Serm. 11. De Verbis Domini.

(2) Aug. De Ecclesiæ, dogmatibus, cap. 80, tom. 3.

(3) Eze. 13.

Conberti bedi, onera bihur bedi, nahiz dela arima eguitaracoan, biz hats bakhotchean dagoenean, eta orduan ere entzuna içanen da. Biciac diraueño, hatsa sablean deíño, arima gorputcetic ilqui arteño, baldin oraiño adimendua on badu, memorian eta akhorduan badago, nahasten ezpada, baduque bere behatua behar den urriquimendua, damua eta dolorea. Eta hambatenarequin eztu bitartean, cer etsituric, eztu cer esperantza galdurie, ceren ezpaita oraiño orduan erremedioan campoan.

Bekhatuez barkhamendu ardiesteco, egun behar da penitencia; eta penitencia eguitoco asco da pentu bat, buru-itxelce bat, begui herts-idequi baten bitartea. Ceren eguiazco penitencia, eta bertceric ecin daidiqueyenean, salbatceco asco dena, bihotzezko urriquimendua da, falta eguinez barrenean, Iaincoagatic, damu eta dolu içaitea.

Erraiten denean egun behar dela penitencia, eta bertcela ecin salba ditequeyela, ezta ez aditzen, bada eta ezpada behar dela cofesatu, barkhamendu escatu, barrutu, oracintonan egon, erromerian ibili, eta hunelako bertce obra penatuetan penatu. Ceren egua da, gaue hauc guztioc penitenciac dira, eta penitenciazco obrak: ordea dira campocoac, eta egun ahal ditezqueyenean, cenbait bedere egun behar direnac. Baiña baldin ecin egun baditezque, ecin cofesa badadi, ez mintza, eta ez deusetan ere manaia, asco da orduan barren ona, borondatea, bihotzezko damua, dolua eta dolorea: cein baita eguiazco penitencia; eta casu hartan, bertceric ecin daidiqueyenean, salbatceco asco dena.

Erremedio haur dute itsasoan edo handic campoan cofesatu gabe hiltcen direnec; barreneco penitencia, bihotzezco damua eta dolorea, contritionea. Eztute hertcerie, baiña haur dute asco, baldin behar den bidean icaiten badute. Eta barreneco penitencia haur, bihotzezco damu eta dolore haur (cein latinez deitzen baita *contritio, à verbo contero*, erran nahi baitu, chehatcea, çathitcea, porroscatcea; ceren bekhatuz gogortu cen bihotza damuaz, doloreaz eta urriquiazez, chehatzen, berateen eta çathitzen baita); baduque nehore laburzqui, dembora gutiz, pontu batez. Ceren San Basilioe dioen beçala : *Non enim temporis quantitate, sed animi proposito pénitentia judicatur.* (1) Penitenciaren indarra eta balioa, borondatearen deliberamenduan dago, eta ez demboraren lucetasunean. Hala dio San Agustinec ere : *In actione autem pénitentiae, non tam consideranda est mensura temporis quam doloris :* (2) Penitencia eguitean, ezta hain consideratu behar demboraren neurria, nola dolorearena. Urriquimendu eguiazcoac, bihotcez conbertitceac, dolore finac eta beroac, guehiago daidique dembora gutiz, dolore lachoac eta hotçac anhitez baiño. Dolorea behar da neurtu eta consideratu, eta ez dembora; haur beror emaiten du oraiño aditcera San Agustinec, erraiten duenean : *Pénitentia vero non annorum numero censetur sed amaritudine animi :* (3) Penitencia ezta ez urtheen contuaz eguiazco

(1) Basil. orat. 4. De pœnit.

(2) August. in Enchyrid. cap. 6.

(3) Aug. serm. 67. De temp.

eta balios eguiten, baiña bai bihotçaren barreneco doloreaz, urriquiaz eta atsecabeaz.

Nola bekhatuaren arimatic quentceco, eta atheratceco, bi gauça behar baitira : (1) bata Iaincoaren aldetic, haren garacia eta faborea, eta bertcea guretic, gure nahia eta borondatea : eta gauça hauc gustioc, are gure aldetic behar direnac ere, principalqui Iaincoac eguiten baititu; halatan Iaincoac bere garaciaren emaitea, eta gure garacia haren errecibitceco, eta barequin batean bekhatuaren quentceco, prestatcea ere, eguin ditzque laburzqui, heriotceco azquen articuluan. Ceren bekhatuaren eguiteco asco da pontu bat, gogoaren egotzte bat, borondatearen deliberatce bat, eta consentitce bat : asco içanen da beraz halaber bekhatu haren beraren erremediatceco ere, pontu bat, gogoaren bertee aldera itçultee bat, borondateac cinqui eta finqui Iaincoagatic, bekhatuaren utzte bat eta gaitceste bat. Ceren are misericordiosago da Iaincoa justiciati baiño, barkhatcera prestago gaztigateera baiño. Beraz hunelatan heriotceco pontuan ere, azquen orenean ere, eguin di teque Iaincoaren favorearequin batean, eguiazco penitencia, eta erdiets bekhatuen barkhamendua. Haur da egquia, eta egquia hunetan ezta dudaric.

§ I.

Bai ordea bada duda, eta duda ere handia, ea azquen oren hartan eguiazco penitenciaric, behar den

(1) Vide S. Tom. 1, 2. q. 113, art. 7, in corp.

urriquimenduric içanen duenz bekhatoreac. Aithorteen deratçut, bedaitequela orduan ere : ordea pontua da, ea içanen duen. Eta ezta munduan, heriotceco orenearaiño bekhatutan dagoenaren salbamenduaz duda eztuenic, segurantçaric emaiten duenic. Aitcitic Escritura saindua, eta Eliçaco doctor guztiac hain herstuqui eta icigarriqui mintxo dira orduco penitenciaz, non baitirudi ecen hequen erranen arauaz, hartaraz guero eztelabatere salbatcen.

Erraiten du San Matheo Evangelistac : *Orate ut non fiat fuga vestra in hyeme vel sabbato* : (1) Eguique othoiz, eztadilla çuen ihesa guertha neguan edo larumbatean, cein baitcen orduan besta. Ceren nola negua baita limburi, leun, istilsn eta lohitsu, ezta bidean ibilceco on. Eta besta egunean ere debecu cen, etcen sori eta ez cilbegui bide luceric iragaitea, urrun joaitea. Bada heriotceco orena da negu eta besta. Negu, ceren guztia baita trabuz, trabailluz eta egnitecoz bethea; besta, ceren ordusun behar baita pausatu, eta astelegunetaco trabailluez, añarteraiñoco obra enez goçatu. Beraz hunelatan lchen behar da etsai gaistoaren escuetric ihes egun eta escapatu, eta ez anarteraiño egon eta luçatu.

Arropa berriiac bazcocolçat eraguin nahiz dituenae, aitcinetic behar du prestateen hasi, aitcinetic behar du oihala ekharri, neurria hartu eta jostera eman. Erhoqueria handia liçate goiz bezperaiño, dendaria deitu

(1) Mat. 14.

gabe eta bertce gauçac chuchendu gabe egoitea. Bada are da erhoqueria handiagoa heriotceco oreneraiño, arimaren beztitceaz conturic ez eguitea, eta nste içatea ecen herstura hartan, hain dembora laburrean pres-tatuco, eta aphainduco dela. Halatan Alexandro handiac egori çuen soldadu bat bere compaiñiatic, ceren etsiarequin batceracoan, gudu emaiteracoan hasi baitcen harmen garbitcen eta prestalcen.

Dembora hertsia eta eguitecotsua da heriotceo dembora : gaitz da orduan eguiazco penitenciaren eguitatea eta içaitea, guztiz ere lehen debocinoan usatu eztenarentçat, edo anarteraiño bethi gaisto içatu denarentçat.

Eta nola den gaitz, anhitz arakoinez froga ahal diteneque. Lehenbicicos : orduan munduko eguiticoec, çorharticecoec, hartu-emanec, seme alabec, sehiéc, ondo-coec, eta guztien gaiñelic eritasunac berac, orduen oihace min hec, trabu handia ibenico deratçute, nahassico, desmordituco ; ceri lot eztaquiciula, ceure buruaz eta eguinbideaz ahantciri, ibenico çaituzte.

Sukhar handi batequin, saihetseco punta batequin, edo bertce eritasun bortitz batequin dolorez çarenean, dolore harc berac, are escapatceu çarenean ere, emaiten deratçu eguitecorie asco, ezteratçu bertcetan pe-satceco ere astiric utzten. Cer içanen da bada, dolore guztien gaiñeco doloreac, arimaren gorputzetic atheritceco asco denac, heriotcecoac har çaitçanean ? Cer halentia eguin nste duen çuc orduan ? Eguiazco penitencia, cein baita gauça handia, eguitecotsua, eta osasuna duenari ere lanic eta ekhairic asco emaiten dioena, nahia-

duen çue, den demboraric herstueneco, gaitzeneco, eri çareneco, eta are herriotcearen azqnen oreneco luçatu? Horretan emaiten duçu aditeera, eztuçula nehoiz ere penitenciaric egnin nahi. Ceren osasunarequin çaudenean, ahala duçunean, ezpaituñu eguiten.

Hala erraiten du doctor batec : *Si non facis dum potes, manifeste ostendis, quod non vis* : (1) Ahala duçunean ezpaduñu egüien, eracusten duçu eztuçula eguiñ nahi. Hargatic erraiten du San Augustinere : *Festinare debet ad Deum convertendo dum potest unusquisque, ne si dum potest noluerit, omnino cum voluerit non possit*: (2) Bat bederac behar du conbertitu eta eguiñ laster Iaincoagana, ahala duenean. Ceren ahala duenean, nahia eztuenae, benturaz guero, nshia dueñean, eztu ahala içanen : behintçat jarteen bedere bada ez içaitedo perilean. Beraz honelatan lehen behar da prestatu. Ceren gaitz içanen da, heriotceco orenean, eritasunez eta oinhacez cargatua çaudenean, penitencia eguitea, behar den fintasunarequin eta berotasunarequin Iaincoari gomendatcea. Ceren orduan, bertceac bertce direla, eritasunac herac, emanen baiteratçu eguitecoric asco?

§ 2.

Are guehiago, gaitz içanen da heriotceco orenean, behar den bidean, penitencia eguitea. Ceren penitenciak, eta edo cein bertce obra on batec ere, eguiazco,

(1) Hugo de sacram. p. 4. c. 5.

(2) August. ser. 17, ad fratres in eremo.

eta balios içaitecotz, behar du, gogotic, amorioz, borondate onez eta librequi eguna içan; eta ez bortchaz, ez ecin bertcez, edo beldurrez. Eta azquen oreueco penitencia harc, badirudi, bortchazcoa, ecin bertcezcoa, edo beldurrezcoa dela, eta ez behar beçalacoa, eta ez behar beçain librea eta borondatezcoa.

Halatan erraiten du San Agustinec : *Pœnitentia quæ ab infirmo petitur, infirma est, pœnitentia quæ à merriente tantum petitur, timeo ne ipsa moriatur :* (1) Eriaren penitencia, penitencia eria da; beldur naiz bi dadin, hiltceracoan baicen eguiten eztena. Lehen behar da lehen eguin.

Ceren Propheta Davitec cioen beçala : *Quoniam non est in morte qui memor sit tui :* (2) Ezta nehor heriotcean Iaincoaz orhoitzen. Ordea cer erran nahi du mintatze molde hunec, eztela nehor heriotcean Iaincoaz orhoitzen? Ceren çu orduco esperantçac bici çaitu eta esperantça harequin eztu en arateraiñocoan gajistu queriarie baicen eguiten : etçare ephe hartaraiño Iaincoaz nahi orhoitu. Baiña orduan diren gaistoenaen embasten dira, bere conciencien iratiotzen eta iraultzen batari eta berteari barkhamendu escatzen, eta berteko eguiteco guziac utciric, ahalez Iaincoa bera baitan pasatzen.

Nolatan ahal dateque beraz eguna, erregue Davitec dioena, eztela nehor heriotcean Iaincoaz orhoitzen?

(1) August. serm. 57. De tem.

(2) Psal. 6.

Eta gaitz ihardesten ; ceren bataz, lehen erran den beçala, orduan, eritasunac berac, bere gorputceco gaitçac, emaiten baitio bat bederari eguitecoric asco ; eta herriz bertcea, ceren peril baita, orduco orhoitcea, orhoitcen bada ere, ez orhoitcea beçala, beldurezcoa edo bortchazcoa içanen den, eta ez behar beçalacoa. Ceren San Agustinec dioen beçala : *Quia etiam hac animadversione percutitur peccator, ut moriens oblitiscatur sui, qui dum viveret oblitus est Dei* : (1) Bici deiño Iaincoa ahantcirie egon denac, mereci du, berari ere hiltceracoan ahantz daquion bere burua, eta orhoitcen bada ere, orhoitce hora eztaquion deus balia. Eta iduri ere badu etçaicala deus baliatcen, ceren comunzqui halacoa, eritasunetic escapatcen denean leheneco bekhatuetara bihurteen ohi da.

Halacoaz eta halacoez mintço dela, erraiten du Errege Davitec : *In multitudine virtutis tuæ mentientur tibi inimici tui* : (2) Ceure berthutearen multutasunean, gueçur egunen deratçute ceure etsaiec. Cer erran nahi du mintçatce molde hunec ? comparacino batetx edo biaz adituco duçue. Bi aitonen Semec, edo çaldunec elkharen artean etsaigoa dutenean, eta elkharr dichidaturic, desafiaturic, combatera eta gudura deiaturic, colpeca hasten direnean, comunzqui sendoenac edo antcasuenac garaitcen du bertcea, bere meneratcen du, azpiratcen du, lurrera egozten du, ezpataz ira-

(1) Augus. Serm. 10. De sanctis.

(2) Psal. 65.

gaitegi darama. Orduan lurrean datçanac, herstur handian baitago, erraiten dio bere etsaiari : Ha ! iaune othoi barkha iaçadaçu, bicia indaçu. Eçatgutcen da orainokoan, çure alderacotçat, faltatu dudala, gaizqui eguin dudala, baiña prometacen deratçut ecen hemendie aitcina çure cerbitçari içanen naicela. Hunela mintçateen çaina, hunela othoitz eguiten dio. Eta othoitz hauc gogoan harturie, bihotça hautsten çaina, urrictalceen çaina, barkhateen dio, utzten du iaiquicera. Ordea iaiqui den beçain site bere eman duen promesaz, eta eguin çaicán garaciaz contu guti eguinie, bere leheneco tornura eta etsaigoara bihurtzen da. Halacoari bere etsaiaren indarrac, bothereac, eta graitiac gueçugra erran araci derauca eta prometa araci complitzen eztuena. *In multitudine virtutis tuae manifestantur tibi inimici tui.*

Hala eriec ere bere eritasunetan, eta marinel tormentatuec bere tormentetan, anhitz promes eder eguiten dute, saindutceco gogo hartzen dute, debocino bat eracusten dute. Ordea nola hura guztia beldurrez eguiten baitute, eritasuna eta torinenta iragan direnean, iragan dateque hequen debocinoa, eta ere handic harat lehen beçain gaisto, edo gaistoago eguiten dira. Halacoey eritasunaren eta tormentaren indarrac gueçurra erran araci deraue, eta prometa araci complitzen eztutena.

Garcelean dagoenac eguiten duen ordenuac eta testamentac eztuela deus balió, dio legue çaharrac. Ez eta beraz eztu deus balioco, eritasunaren eta herioteearen garcelean cta hersturan dagoenac eguiten duen prome-

sac eta penitenciac ere. Ceren hec guztiec dirudite di-rela borchaz eguinac, eta ez amorioz, eta ez boronda-tez.

§ 3.

Erraiten du Escritura sainduac, Antioco erregue gais-to harc, heriotceco orenera cenean, urriquimendu handi bat eracutsi çuela anhitz promes eder eguiñ çuela, hanbat ecen baitcirudien bere hitzetan saindu bat cela, eta saindu bat beçala mintço cela, erraiten çuela bertce anhitz gauçaren artean : *Justum est subditum esse Deo, et mortalem non paria Deo sentire :* (1) Justu da eta aracioin Iaincoari errrendaturic egoitea, eta guïçonac Iaincoaren berdin bere burnaren ez eduquit-cea. Eta guztiarequin ere, hunela mintço bacen ere, erraiten du Escritura sainduac berac, lekhu berean : *Orabat autem hic scelestus Dominum à quo non esset misericordiam consecuturus :* Gaisto hura othoitcez ce-gocan Iaincoari, baiña alferric, etçuen barkhamendu erdiesteco perilic. Ceren othoitz hec, eta Iaincoaz orhoitce hec bortchac, heriotcearen beldurrac eragui-ten baitcerantçan. Pontu hunen gaiñean erraiten du Soto doctor handi harc : *Antiochus propterea non est veniam consecutus, quod penitentiam non habuit; sed ob id nobis exemplo propositus est, ut admoneamur dolorem peccatorum qui ex cruciatibus mortis enascitur fallacem esse saepissime :* (2) Etçnen erregue Antiocoe

(1) 2 Machab. ch. 9.

(2) Soto in 4. sent. dist. 15, q. 3, ar. 6.

barkhamenduric erdietsi, ceren ezpaitçuen behar cen bidean penitenciaric egun. Ordea harc bere azquen finean egun çuen enseyua, eta penitencia itchurapena, ibentzen çaicu gueure beguion aitcinean exemplotçat eta miraill beçala : iaquin deçagun, critasunaren eta heriotcearen ojñhacetaryc eta hersturetaric sortcen den penitencia, maiz dela alfer, faun, falso, gueçurti eta guti balio. Ikhusten duçunean, bere mende guztian gaisto içatu den bat, eritu denean, eta ia hiltcera el-situ duenean, hasten dela batari eta bertceari barkhamendu escatcen, beharrei bere haciendaren partitcen, eta hats-beherapen handi batçuequin, beguiac cerrura irauliric, Iaincoari gomendatcen, ezteçaçula ez hargatic pensa, segur duela halacoac bere salbamendua. Aitcinetic, aitcinetic critu baiño lehen eta heriotceco hersturan iarri baiño lehen, behar da bekhatua utzi, eta debocinoa hartu. Ceren bertcela erituz gerozco debocinoan ezta cer fidaturic, ezta segurantçaric. Eritasuneco debocinoa, comunzqui, heriotcearen beldurtasunetic heldu da, eta ez Iaincoaganaco amoriotic. Eritu ezpacina, lehen beçala, ceure leheneco bekhatuen chisteran, etçauntçan eta toquian egonen ci-nen.

Baldin aitcinetic, eritu baiño lehen, bekhatua utzen baduçu, intencione ona hartcen baduçu, eta ahaler ceure leheneco falten erremediatcen hari çarela, ceure azquen eritasunac atrapatcen baçaitu; iaquiçu ecen orduan, munduko bekhatoreric handiena içan baçarı ere, salbatceco bidean çarela, eta salbatceco esperant-

ça handi bat ahal duqueçula. Baiña hertcela, Iaincoac beguira çaitçala, bekhatutan eta bekhatu eguiteco go-goan eta borondatean çaudela, ceure azquen eritasunac edireitetic. Ceren baldin hala edireiten baçaitu, peril da, ceure eritasun hartaco cofesatceac, urriquimenduac, debocinoac, eta eguiten ditutçun bertce enseyu guztiac ere, deus guti balioco duten, indar guti içanen duten.

Eznaiz neure burutic mintço, hala erraiten du San Agustinec: *Agens pœnitentiam et reconciliatus cum sanus est, et posteā bene vivens securus hinc exit. Agens pœnitentiam ad ultimum et reconciliatus, si securus hinc exit, ego non sum securus. Unde sum securus dico, et do securitatem. Unde non sum securus, pœnitentiam dare possum, securitatem dare non possum. Nunquid dico damnabitur? Non dico. Sed dico etiam liberabitur? Non. Sed quid dicis mihi? Nescio, non præsumo, non promitto, nescio:* (1) Osasuna duela, bere bekhatauen cofesa eta penitencia eguiten duena, eta guero handic harat ongui bicitcen dena, ongui eta segur ilquitcen da hemendic. Baiña bere azquen fineraño, eta azquen eritasuneraño gauça hauquen eguitera iguri-quiteen duena, eznaiz segur, ongui eta segur ilquitcen denz. Segur naicenean erraiten dut segur naicela, eta eznaicenean, ez naicela. Ahal derraquet orduan ere badaidiqueyela penitencia, ez ordea eman segurantçeric. Eztut erraiten condenatuco dela, eta ez salbatuçe

(1) August. De vera et falsa pœnit. Hom. 41.

dela ere. Eznaiz fida, ezuaiz segur, eztaquit. Hunelio San Agustinec; eta erraiten du oraiño guehiago ere : *Vis te dubio liberare ? Vis quod incertum est evadere ? Age paenitentiam cum sanus es. Si sic agis securus es. Quia egisti paenitentiam eo tempore quo peccare potuisti. Si autem vis agere paenitentiam tunc, quando peccare non potes, peccata te dimiserunt non tu illa.* Nahi duçu dudataric ilqui ? Nahi duçu segurean iocatu ? Eguiçu penitencia sendo çareino, bekhatu ahal dadiquiño. Ceren bercela, baldin çuc eguiñ nabi baduçu penitencia eri çarenean, hiltceracoan, bekhatu ric ecin dadiqueçun demboran : eztitutu orduan çutzen bekhatuac, baiña bekhatuac çu utzten çaituzte.

Cer esquer edo merecimendu uste duçu içanen duçula, ia ecin guehiago dadiçunean, eta hiltcera etsitu duçunean, tratu gaistoen utzteaz, eta batari eta bercleari ceure onen utzteaz, eta partitceaz? ceren berdin ecin eraman cinitçaqueyen ceurequin. Baldin obra onhoriec eguiñ bacinitu osasuna cenduenean, eta ceure burna, hala oneco nola gaistoco, ceure escuco cenduenean, badirudi indar guehiago içanen çutela, baliosago içanen cirela, segurantça handi bat emanen ceraçuela, eta çutçaz ongui ioanen cela. Baiña ceure afquen finean, ia ecin guehiago iraun deçaqueçula ikhsisric, eta etsituric eguiten duçun obra oncan eta penitencian, ezta cer sobera fidaturic. Ceren peril baits, ezten orduco obra on hora, eta penitencia behar beçain fin eta eguiazco içanen.

Eztagoela beraz nehor penitenciaric eguiñ gabe, eta

bekhatuac utzi gabe bekhaturic ecin daidiqueyen demboraraiño, eztagoela bortcharen beguira ; begui bere eguinbidea librequi eta borondatez ; begui mugaz eta goiz, Ceren San Agustinec dioen beçala : *Multos solet serotina penitentia decipere* : (1) Anhitz enganateen ohi du arratsaldeco urriquimenduac, penitencia berantcorrac.

Badira çuhaitz batçuc, udaren finean, sasoiñetic campoan, hasten baitira loratcen edo bir-loratcen. Baiña lore hetaric guti lotcen eta eratchequiteen ohi da : hequen fruitutic guti umotcen eta ontcen da : iharteen eta iraunguiteen ohi dira. Hala dira bada, bere adinaren finean, eritasunean, eta hiltceracoan, desira onez bethateen hasten direnac ere. Orduco desira on hec, nahicunde hec, neguko loreac dira, dembora gailzeacoac, sasoiñetic campocoacoac, eratchequi gabe, fruituric ekharri gabe, desircundetan iharteen, eta iraunguiteen direnac.

§ 4.

Erregue Pharaonec Israeleco semen ondotic, hequen hil nahiz, cihoanean, ikhussiric ecen urae hartera ceramala, erran çuen : *Fugiamus Israël, Dominus enim pugnat pro eis contra nos* : (2) Daguigun ihes, bihur gaitecin guibelat, eztaidiquegu nahi dugunic, ceren Jaincoa bere alde dute iende hauc. Abiatu cen

(1) August. De vera et falsa penit.

(2) Exod. 14.

bada guibelat, eman cioen ihesari, baiña alferric, probetchu gutitan, berant orhoitu cen : hora laster, baiña ura lasterago, han bere lagun guztiequin itho eta hondatu cen. Hala guerthatcen çaye bada comunzqui, beriotceco orenean, bere gaistaquerietaric guibelat bi-hurtu eta ihes egun nahi duteney ere. Abiatcen dira, eguiten dute cenbait enseyu, baiña ez asco, flaco dira eta halatan atcemaisten eta atrapatcen dira.

Ioab eta Abner, bi capitain hec, guerla handia erabili çuten elkarren artean. Eta azquenean, ikhussiric Abnerrec, gaizqui ciohacola, bençetu hurran cela, erran cioen Ioab bere contrastari : *Num usque ad internacionem mucro tuus deserviet?* (1) Cer da haur Ioab capitan famatua? Cer egun gogo duçu? Akhabain nahi othe gaituçu? Asco egun duçu, garaitia baduçu utzcuçu bicia. Orduan ihardetsi cioen Ioabec : *Vixi Dominus, si locutus fuisses mane recessisset populus:* Hitza emaiten deratçut ecen, baldin goizean mintçatu bacina, iendea barrayatuco cela, eta ençuna içanen cínela. Erran baillio beçala: Eta nola! egun guztian, orai arteño ene contra ibili cara, hartin ceure abal guztiaz permatu, eta emplegatu cara, eta guero orai, arratsean, atrapatu çaranean, guehiago ecin daidínean, nahi duçu baquetu, eta adisquidetu? Bada ez, ez, berandu duçu, alfer mintço cara, orai ene aldia da, lehen çurea cen beçala. Huna non duçun clarqui pianturic, bekhatore bat, bere mende guztian bekhatu-

(1) 2 Reg. 2.

tan, Iaincoaren contra guerlan ibiliric, heriotceco orenean, ia atchikia denean, Iaincoarequin guerthatcen caicana. Halacoari eta halacoey erranen deraue Iainconac, Abimelec erregueari eta harequin ciren laguney Isaac Patriarcac erran cerauena : *Quid venistis ad me hominem, quem odistis et expulstis a vobis?* (1) Certara ethorri çarete orai enegana, lehen gaitzetsia, alfer-etsia, eta ceuen ganic egotzia erabili duçuen guicon baten gana ? Erranen deraue halaber halacoey, Ebangelioco bertz virgina erguel hey erran cerauena : *Amen dico vobis nescio vos :* (2) Coazte hortic, etçaituztet eçagutzen ; *clausa est janua* ; hertsi da athea, ezta idequitceric, berandu duçue. Erranen deraue halacoey : quec ahala cendutenean, etcenduten ontasunic egun nahi, cergatic bada orai, ahalic eztuquenean, egun behar deratçuet nic quey ? Finean erranen deraue : non dira oraiñocoan cerbitçatu dituçuen iaunac, eta nabusiak ? Erabili ditutçuen bekhatuac eta gaistaqueriac ? *Surgant et opitulentur vobis;* (3) coazte betara, eta hec lagun bequizquitque, eta utz naçaçue si orai ere, oraiñocoan utzi nauçuen beçala. Quec lehen eguiten cenduten nitçaz irri eta escarnio, hala bada aldiiz, nic ere orai eguiñen dut çuetçaz : *Ego quoque in interitu vestro ridebo.*

Hunela erranen deraue, heriotceco oreneraiño be-

(1) Genes. 26.

(2) Math. 25.

(3) Deut. 32.

khatutan ibiliric, oren harten bere bekhatuac erremiatu nahi dituzteney. Eta arraçoidequin erranen derraue hmeila. Ceren orduan bortchaz, eta ecin beret hartaratzen baitira, eta bortchazeo ongi eguiteac demutti balio baitu.

Halacoec nahi dute bici direño, deabruaren cerbitçuan egon, eta guero hiltceracoan Iaincoagana aldatu. Ordea hura da, leguearen contra. Ceren erraiten di legueac : Çuhaitz bat, bere dembora guztian, ondo eta erroz, çure baratcean, edo lurrean egon dena, aseqnean bertceren baratcera edo lurrera makhurtuagatic, eta ebaquitzen dutenean bertceren lur harten eroriagatic, çure içanen dela, eta ez eroriric datzuneco lurraren iabearen. Hala comunzqui içanen dibada halaber bici deiño deabruaren cerbitçuan erroz eguinic egon dena ere, hiltzen denean, deabruaren; eta ez orduan Iaincoagana makhurtuagatic, Iaincoaren.

Eta nola çuhaitza çutic dagoenean, makhurtua dagoen alderia erorteen ohi baita comunzqui ebaquitzen denean : hala cu ere bici çareño, norat haitçaudemakhurtua, harat erorico çara hiltzen çarenean. Eztegçula pensa, eztaquicula iduri, baldin bici çareño, sendo eta osasunarequin çabiltçaiño, czquererrat makhurtua eta alderditua baçaude, eritasunean eta heriotcean, escuiñerat iarrico eta chuchenduco çarela. Bicicari darraica heriotcea, nola bici hala hil.

Ur guztiac ilquitzen dira itsosatic. Ordea guztiarequin ere ur hetaric batçuc dira gaci, eta bertzeac gue-

ea; halçue gogor, bertceac bera. Eta arraçoina : ceren nolaco baita Iurra ceinetaric iragaiten baita ura, halaco guerthatcen baita ura ere. Uraç luraren goçoa eta çaporea harteen du. Ura, lurrac onteen edo gaistateen du. Hala bada heriotcea ere, nola biciteetic iragaiten baita, biciteac ontcen edo gaichtatcen du. Nolaco baita eheiten den ehuna eta oihala, halaco içanen da oihalarren albenia, eta bazterra ere. Beraz hunelatan, nolaco baita bicitea, halaco içanen da halaber bicitcearen bazterra eta akhabatcea ere, cein baita heriotcea. Ongui bici, ongуй hil, gaizqui bici, gaizqui hil.

S. 5.

Guertha diteque Iaincoaren cebait sequeretuz, eta ordenamendu estaliz, ongui eta prestuqui bici içatu dena gaizqui hiltcera, azquenean behaztopateera, eta galteera; untei anarteraiño ongui ibiliric, portuan sartcean galteen dena beçala. Nola halaber bere mendean gaizqui bici içatu dena, azquen finean erremedia bailiteque, ohoin ona egun cen beçala; baiña hunelaric guti guerthatu da, eta benturaz ez seculan guebiago guerthaturen. Comunzqui ongui bicitcen dena, ongui hiltcen da: eta gaizqui bicitcen dena, gaizqui hiltcen da. Hauek da bide çabala, erreala, plauna, eta segura. Bertce guziac dira bidechcac, bide chidorrac, hertsiac, meharrac, malkhorrac, eta perilez betheac. *Male mori times, et male vivere non times. Non potest male mori qui bene vixerit:* (1) Gaizqui hiltcearen cara

(1) August. De disciplina Christiana, libro unico.

beldur, eta ez gaizqui bicitcearen. Bada ecin hil dite que gaizqui, ongui bici içatn dena. Eta iaquiteco du guti dela eguiteco hunetan, bada seiñale bat handia. Ceren bat bederac sendo ceiño certan baitceducan go-goa, hartan ohi daduca, ete hartçaz mintçatcen ohi da eritasunean eta hiltceracoan ere : hartan edireiten di ametsetan, eta eldarnioetan ere : asco baita aditzen emaiteco, bicitzen beçala hiltzen ere dela. *Quæ semina verit homo, hac et metit,* (1) dio Iondone Pauloc: Guiçonac cer ere ereiten baitu, hora biltzen ere du. Eta galdeguiten du S. Matheo Evangelistac, ezetza contuan beçala : *Nunquid colligunt de spinis uvas, aut de tribulis ficus?* (2) Othe da nehor, elhorri arantxataric mahats, edo saphar laharetaric fico biltzen duen? Bici deiño gaistaqueria banatzen eta ereiten ibili denac, eta guero bere azquen finean saindu batec beçala hil uste duenac, elhorri arantxetaric mahats, saphar laharetaric fico, gaistaquerietaric ontasun ibili nahi du : ecin datequeyen gauça desiratzen du.

Bere mende guztian errebelatua ibiliric, heriotceo orenean, ilhunteen hasteracoan, bide onera eta arthercera bihurtuco dela uste duenac huts eguiten du. Lehen behar da lehen, ceren heriotceco oren hora, ora ilhuna, nahasia eta tormentatsua da. Ezta tormentu capitainic hanbat eguiteco emaiten duen. Ordussa, lehen erraz cena ere gaitz bihurtzen da. Untzia itsas-

(1) Paul. Ad Gal. 6.

(2) Mat. 7.

cabalean, dembora ederrarequin aise erabiltzen da, alde batera, eta bertzera errazqui lemasitzen eta gobernatzen da. Baiña bazterrera guero, costa joz guero, ezta gobernatceric, eta ez nahi beçala manaiatceric. Dembora clar deiño, adin onean eta osasuna-requin, untcia itsas cabalean dembora ederrarequin beçala, ceure gogara çahiltçaiño, escuey eraguietzu, orduan perma çaiteci. Ceren dembora gaitzac, eritasunaren oinhaceac, eta heriotcearen tormentac hartuz guero, costaraz guero, bicitearen bazterrera heriotceac uquituz guero, egun da, miracuillu içanen da salbatcea.

Utzaçu beraz burutic, buruan darabillaçun erhoqueria hori, egunetic egunera, heriotceraïño luçatuz eta ephé hartuz, orduan erremediatuco çarelaco esparantçarequin, anarteraiño bekhatutan egoite hori. Ceren badaquici tormenta handiarequin, costan ioitera dohan untei cargatua cztela peril gabe, aitcitie galduçat daduçañ halaco untcia. Hala educañ bada halaber, que ere galduçat ceure burua, bekhatuz betheric eta cargaturic, heriotcearen costa ioiten duçunean; bethi ere guero onduco çarela erraiten duçula, eta bekhatu eguiteco gogoan eta borondatean çaudela, ceure azquen eritasunac ediren çaitçan artean. Ceren hartaraz guero, cein dira ongui libratzen direnac, galdu gabe escapatzcen direnac?

Beraz hunelatan, orai baituçi osasuna, indar, antze, adimendu, eta ceure burua ceure escuco: orai ezpaitçara oraiño eri, eta ez heriotceco hersturan jarri:

orai haitzara libre ; orai, nahi baduçu ongi eta gauqui ere daidiqueçun demboran : orai bada orai, mes menean iarri gabe, sukharrae nahasi gahe, eta eritasa na iaundu gahe, eguitatzen guero eguin gogo ditutem onguiac eta descarguac. Eta orai diot, ceren nola eri eguiten duçun guztia, eritu gabe, heriotceco herstutaz iarri gabe, eta nehorre bortzhatu gabe, librequi, eta berondatez eguiten baituçu : hora içanen da gauça haurdia, estimatua, indartsua, boheretsua, baliosa, laimo coari eder içanen çaicana, eta merecient azquen suena ceruco loriaren erdiesteco.

V.

ARNEGARIA.

VII CAPITULUA.

Iuramentuaz eta Iuramentu eguiteco usantçaz, eta nola behar den lehen baino lehen usantza hora utzi.

NOLA gure lehenbicico aita harriz gure naturalez haur bere bekhatuz narriatu, erraçatu eta eritoquin baitzen, handic gara hain arrenuratsu, insiriatu eta onbehar. Handic gara, ontasunera baino gaichtatzunera eroriagoac, isuriagoac, eta emanagoac. Handic dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malicia eta memorian flacotasuna. Handic heldu da halahet gueçur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantezia

orai haitzara libre ; orai, nahi baduçu ongi eta gauqui ere daidiqueçun demboran : orai bada orai, mes menean iarri gabe, sukharrae nahasi gahe, eta eritasa na iaundu gahe, eguitatzen guero eguin gogo ditutem onguiac eta descarguac. Eta orai diot, ceren nola eri eguiten duçun guztia, eritu gabe, heriotceco herstutaz iarri gabe, eta nehorre bortzhatu gabe, librequi, eta berondatez eguiten baituçu : hora içanen da gauça haurdia, estimatua, indartsua, boheretsua, baliosa, laimo coari eder içanen çaicana, eta merecient azquen suena ceruco loriaren erdiesteco.

V.

ARNEGARIA.

VII CAPITULUA.

Iuramentuaz eta Iuramentu eguiteco usantçaz, eta nola behar den lehen baino lehen usantza hora utzi.

NOLA gure lehenbicico aita harriz gure naturalez haur bere bekhatuz narriatu, erraçatu eta eritoquin baitzen, handic gara hain arrenuratsu, insiriatu eta onbehar. Handic gara, ontasunera baino gaichtatzunera eroriagoac, isuriagoac, eta emanagoac. Handic dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malicia eta memorian flacotasuna. Handic heldu da halahet gueçur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantezia

gabe, bethi gogan behartsu ibiltcea. Cein baita calte handia, elkarren artean bici behar dutenentçat : hain handia, non gogan behartsu, iduricortsu, eta fidantzia gabe bicitcea, ezpaita bicitee. Bada calte handi huen erremediatceco, hartu quen Iaincoac bide bat, lego-çaharrean, cein baita inramentua. Ikhusten badu-^çu etçaituztela sinhetsi nahi eta premia dela sinhets çaitçaten, daguiçun orduan iuramentu, daguiçun cin, ekbar deçaçun ceure erranaren lekhuco Iaincoa, guecurric ecin derraqueyena, eta gauça guztien berri daquien. Eta halatan lekhuco harequin batean, eman diaçaçuten ceure erranean sede, eta sinhesto. Hunela erran quen Iaincoac : *Dominum Deum tuum timebis, et per nomen ejus jurabis* : (1) Içanen cara ceure Iaincoaren beldur, eta cin egunen duçu haren icenaz. Eztu egunen cinic Iainco falsez, ceren hartan bide gabo eguin ciniaçao eguiazco Iaincoari, hari dagocan ohorearen bertceri emaiteaz. Ceren nola iuramentu eguiten duçunean, ekhartcen baituçi Iaincoa ceure erranaren lekhuco, ecen bura da iuramentu eguitea : *Jurare est Deum in testem adducere*; (2) eta hartan emai-ten baituçi aditcera, Iainco hura dela eguiatia, eta gauça guztien berri daquien, cein baita ohore handia Iaincoarentçat, ezta haiçu emandaquion halaco oho-teric bertceri. Eta hala cinic eguitecotz, eguiazco Iaincoaz eguin behar da, eta ez bertcela eta ez bertcez.

(1) Deut. 6.

(2) Vide S. T. 2. 2. q. 89. ar. 6. ad. 1.

Eguia da eguin diteque iuramentu, Ceruaz, lurra, Sainduez, eta bertce creaturez ere : ez ordea hey Iaincoari dagocan ohoreric emaiten çaiela, halaco agurri eguiten çaiela, baiña Iaincoaren creatura beçala, et Iaincoac hetan pharte duen beçala : halatan eguin diteque hetçaz cin, eta ez bertcela.

Ordea badirudi ecen orai legue berrian, ecin eguin ditequeyela neholatan ere, eta nehortçaz ere iuramenturic ; ecen Iaincoac berac erraiten du : *Ego autem dico vobis non jurare omnino* : (1) cer nahi bertan erran diezazuten, nic diotsuet çuey eztguiçuen neholatan ere iuramenturic. Hunen arauaz erraiten du Iondone Iacobe Apostoluac ere : *Ante omnia autem fratres mei, nolite jurare, neque per calumnam neque per terram nec aliud quodcumque iuramentum. Sit autem sermo vester, est, est, non, non* : (2) Guztien gaiñetic gomendatcen deratçuet, neure anaia maiteaz eztguiçuen batere iuramenturic, ez ceruaz, ez lurraz eta ez bertcez : baiña biz çuen hitzcuntça, solhasa, et mintçaia : ez, ez, bai, bai. Beraz hunelatan, badirud eztela batere eta neholatan ere iuramenturic eguin behar. Eguia da, hala dirudi, eta hala da. Ezta bater iuramenturic eguin behar, premiaric eztenean, et eguiabertcela frogatceco bertce bideric eztenean, eguin diteque, eta eguin behar da iuramentu.

(1) Mat. 7.

(2) Iacob 7.

Ceren iuramentua bere ethorquitz, naturaz, eta içanez laincoaren ohoratceco; eta bere finez, eta intencionez, eguiaren balia aracitececo, eta haucien eta differentien iraunguitceco, eta erabaquitceco ordenatua da. Halatan erraiten du erregue Davitec : *Laudabuntur omnes qui jurant in eo* : (1) Laudatuac içanen dira laincoaz iuramentu eguiten dutenac. Eta badio Londone Pauloc ere : *Homines per majorem sui jurant, et omnis controversiae eorum finis, ad confirmationem, est iuramentum* : (2) Guiçonec, berac baiño handiagoaz eguiten dute iuramentu, eta hequen differentia guztien fina eta akhabatcea, iuramentua da. Ceren iuramentura emanez guero, cin eraguinez guero, ecin dateque guehiago hauciric.

Eta hala gauça ona, saindua eta laincoac berac ordenatua da iuramentua. Ordea hargatic, eguin diteque hai iuramentuan bekhatu. Ceren gauça ona eta saindua da gorputz sainduaren errecibitcea ere, ordea aditzen da, ongi eta sainduqui errecibitzen denean, eta ez bertcela. Hala da bada gauça saindua eta ona, iuramentua ere, ongi eguiten denean.

§ 1.

Iuramentuac ongi, çuentqui eta behar den bidean eguna içaiteco, behar ditu hirur gauça, hirur lagun eta sostengu: egua, premia, eta çucena. Hala erraiten

(1) Psal. 62.

(2) Paul ad Hebreos, 6.

du Ieremias Profetac : *Jurabis vicit Dominus, in u
ritate, et in judicio, et justitia.* (1) Lehenbicicori,
iuramentua behar da egun, eguiaz, eta seguru
eguiaz, eta ez dudan. Ceren bertcela eguiten den iuri
mentua, den gauçaric eztusenaren gainean içanagau
ere, bekhatu içanen da.

Gueçurrez iuramentu baten eguitea, munduac h
ezpadaduca ere, bekhatu handiagoa da, lagunaren os
ren ebastea baiño, eta bai edo cein bidegabe hari ego
tea baiño ; ceren iuramentuac Iaincoa bera bero pre
sunan uquitcen du, baiña bertce bekhatu hauc, eztio
hain arras emaiten, etçaitça hala hurbiltzen. Iben bi
leça Erregue batec leguea, eztioela nehorre ere biciaro
penan, nehori beharondocoric emanen ; guziarego
cre, guertha balequio cenbaiti emaitea, halacoac bide
gabe egun liaçao Erregueri ceren haren legue eta os
namendua hautsi baitu. Baino areago egun liaçao
baldin Erregue berari, bere presunan eman baliat. Hala
da bada gueçurrez iuramentu eguitea . hartsi
Iaincoa bera bere presunan uquitcen da. Ceren Iain
coa icendatuqui, gueçurraren aithor eta Iekhuco elhi
arteen baita : cein baita bekhatu handia eta itsusi.

Beraz hunelatan iuramentu eguiten duçuncan, le
henbicico gauça, behar duçu egun, ez gueçurrez, os
ez dudan ere, baiña ustez bedere eguiaz, eta eguiar
gaiñean.

Bi garrena, eguiaz eta eguiaren gaiñean ere ezta a

(1) Ierem. 4.

berehala, banoan, premia gabe, eta aitein-guibel behatu gabe, egun behar iuramentua. Usatu behar da iuramentuaz, purgaz beçala. Purga ecinbertcez, eri çarenean, premia duçunean, hartzen duçu; eta orduan ere shalic eta gutiena, eta berantena: eta baldin gabe iragan ahal cindeci, eztuque harc bere pareric, are hura hobeago. Hala egun behar da bada iuramentua ere, ecin bertcez, premiaz; ceurre ohoreaz dihoatçunean, eta justiciaz hartara çuentqui behartzen eta errequeritzen çaituenean. Ceren bertcela, baldin, *ez eta bai asco* den lekhuan, eguiten baduñ iuramentu, eguiaren gainean içanagatic ere, bekhatu benial bedere eguien duçu. Ezta edireiten egun çuela egundaiño Londone Panloc iuramenturic esquiribuz baicen. (1) Geren esquiribateen den gauça hobequi pensatzen eta consideratzen baita, berehala solhasean erraiten dena baiño: eta bai halaber, halatan huts ere gutiago eguiten. Ustez bedere, eguiaz, eta premiaz behar duçu egun iuramentua.

Hirurgarrena: ezla *ez asco*, eguiaz, eta premiaz ere iuramentuaren eguitea; baiña egun behar da gauça onaren eta instuaren gaiñean, eta ez gaizqui eguiteco contuan. Eguiten duçunean iuramentu hautsi behar dioçula presuna bat burua, edo bertee gaizqui bat egun behar dioçula, bekhatu eguiten duçu halaco iuramentuaren eguiteaz, eta are bekhatuago haren complitceaz. Eta baldin uste baduñ edo sinhesten baduñ,

(1) Ita S. Tho. 2. 2. quest. 89, art. ad. 4.

obligatu carela complitcera, hirur garren batez carguen cara, pensatcez, Iaincoac galdegniten duela gain baten eguitea.

Halaber eguiten duçunean iuramentu cebait ongiuren ez eguiteco, probeari ez deus emaiteco, nehor ez deus prestatceco, edo Eliçaz obligatu carenean hauen ez barurteeco: bekhatu eguiten duçu, halaco iuramentuen eguiteaz, benial bedere, eta etçara obligatu hequen complitcera, eta hobe da ez complitcea.

Halaber eguiten baditutçu hertce iuramentu batçot, deus balio eztuten gauça batquen gaiñean, ezpaita bequen hansteaz calteric eta ez complitceaz probetchuri; nola baita, mahaian iartcean, etçarela lehenic iarrico, etchean sartcean, etçarela aitcinean sarthuco; edtean, eztuçula lehenic edanen. Hunelaco iuramentu hauquen eguiteaz ezta bekhaturic belfintçat mortalik, ez eta, ez complitceaz ere. Londone Petric erran baitzion cin cinez, iuramentu eguinic beçala, bere nabi siari : *Non lavabis mihi pedes in aeternum* : (1) Eztrauzquidatçu seculan çuc niri oinac garbituco; ulácerautçan guztiarequin ere garbitcera, eta etçuen burtan bekhaturic egun. Ceren hunelaco iuramentu hau tan, emaiten da aditcera gueure aldetic denaz beçan batean cortesiaz, hala nahi guenduqueyela. Ordea uláditçaquegu gueure buruac, bekhaturic egun gabe beçutcera, Londone Petric utzi çuen beçala.

Eta ceren iuramentu batçuc baitira presenteco ga

(1) Joan. 13.

cez, bertce batçuc ethorquiçunecoez : guztietan behar da eguaia. Eta ethorquiçunecoac, behar dira eguin, gauça onaz, maliciaric gabe, enganamenduric gabe; eta complitceco borondatearequin, baldin complitceaz cenbait calte, nehorc lehen uste etquenic, sortzen eta aguertzen ezpada : nola aguertu baitzen Herodesec eguin çuen iuramentuan. Herodesec, benturaz gogoan gaitzic etceducala, prometatu cioen iuramentu eguinic nescatcha dantçari bat i emanen cioela, esca cedion guztia. Eta oraiño orduan, cin cen iuramentua. Ordea guero escatu ceicanean londone Ioannes Baptisten burua, galdu çuen iuramentuac indarra, etcen complitu behar.

Halaber badira bertce iuramentu batçuc mehatchuzzoac, eta bai maradicinozcoac ere : aita amec bere umei eta nabusiec ere bere sehiei, eguiten derauzteçatenac. Ilec guztiac dira bekhatu. Eta anhitzetan ere mehatchuzcoac complitceco borondateric gabe eguiten baditzte ere, eta maradicioneac ere ez hitcez baicen, ceren expailuquete nahi halacoric guztiz ere hequen umei guertha lequien : ordea guztiarequin ere guztiac dira bekhatu. Ceren bataz, bertceac bertce direla ; han-die ikhasten dute umec ere maradicino egozten eta burho eguiten : eta berriż bertcea, ceren burhasoen maradicioneac anhitzetan heltzen çaitze umey, eta guelditeen dira maradicatuac, Noeren ilhoba, Chanaan, maradicatua guelditu cen beçala.

§ 2.

Iuramentuan den gauçaric gaichtoena, galgarriena

eta perilosena da usantxa; premia gabe, eguiaz ala gueçurrez mintxo den behatu gabe, maquillaren permalceco eta pordoincitatceco urrats guziaz escuan beçala, iuramentuaren ere ahoan hitz guziaz mintçatceco, erabiltcea. Ez eta bai asco den lekhuan, erraiteaz eta entçuteaz : bai Iaincoaren pasionea : ez Iaincoaren odola; ez ene Iaincoa, bai ene Iaincoa: nor ezta ikharatuco? Nori etçaitxa buruko illeac laztuco. Behintxat badio Spiritu Sainduac : *Loquela multum jurans horripilationem capiti statuet et irreverentia ipsius obdutio aurium* : (1) Iuramentu anhitz eguiteac, bethi burhoz mintçatceac, laztzen ditu buruko illeac; eta iende prestuec, halacoric ez ençuteagatic, beharriac herten dituzte, burua bertze aldera itçultcen dute.

Iuramentu anhitz eguitea, bethi burhoz arneguz eta maradicinoz egoitea eta mintçatcea ifernuco usantxa da, eta hitzcuntxa ifernuan usatcen dena.

Eta nola bat bedera bere hitzcuntzan baita eçagun nongo dan : francesez mintxo dena Franciaco dela : eta espaiñolez mintxo dena Spainiaco : hala da bada halaber bat bedera bere arneguetan eta iuramentuetan eçagun nongo den, ifernuoa dela ! ! Eta nola Londone Petriri, bere nabusiaz ukhatu çuenean, erran bajtioiten : *Tu ex illis es, nam loquela tua te manifestum facit* : (2) Eztuçu, cer ukhaturic, çu hetaric cara, lesu Christoren dicipoluctuaric cara, çure mintçaijan eçagun

(1) Eccles. 27.

(2) Mat. 16.

çara : Hala erran ahal daquidicaio arnegariari eta iuramentu eguiteco usantxa duenari ere : *Tu ex illis es;* çu ifernucoetaric cara ; çeure mintxatcean, arneguetan, burhoetan eta maradicionetan eçagun cara. Ceren hori da ifernuco erdara, lengoaia eta hitzcuntxa, han eta hangoen artean usatcen dena. Ifernuan daudenac, hango dolore handiac direla causa, hec ecin pairatuz, be-thi daude arneguz, iuramentuz, burhoz eta maradicinoz. Hala erraiten du Iondone Ioannes Evangelistac : *Blasphamaverunt Deum cœli præ doloribus et vulneribus.* (1)

Eta nola parabisurateen direnac, usatcen baitira eta hasten oraidanic, hemen lurrean guero ceruan eguienen duten officioaren eguiten eta ikhasten, Iaincoaren laudateen : hala ifernuraco direnac ere hasten dira, orai beretic, ifernuco officioaren eguiten , arnegatcen eta maradicino egozten.

Ikhusico duçu, burhasoec eta nabusi etchecoandrec, bere seme alaba sehiac eta etcheco familia guztia, nahi duten iuramentu guztien eguitera utzten dituztela, hargatic beltçuri bat ere eguin gabe, eta hartan batere damuric hartzen dutela iduriric eguin gabe. Hec eta halacoac dira Escriba, Phariseoac beçala , ceiñec consentitzen baitçuten eguin ciaçoten Iesu Christo gure Salbaçaileari eta haren icen sainduari, hequen etchecoec eta bertce guzliec hanbat irri eta escarnio.

Fin gaitz eguin çuten hec, eta hala eguienen dute,

(1) Apoc. 8.

hala diren bertce guztiec ere. Ceren ifernura joaiteco seiñale handietaric bat da, iuramentu eguiteco usanña içaitea. Usantxa hura dutenec, aguiian badute cenbait ahalque bertce bekhatuen cofesatceco, baiña ez bat ere iuramentu eguin dutela erraiteco.

Halacoac cofesatcera ethortcen direnean eta galdeguiten çayenean, ea cer bekhatu eguin duten, berehala, sendagaillaz beçala, eta ohore bailliz beçala, iuramentuac ibenceintuzte branean, lehenbicico hastean. Ha Iaincoa! çuc uquitçatçu, çuc erremedia içäçu halacoac, ceren bertcela eguin du hequenac!

§ 3.

Iaincoaren beraren ohorea, eta haren icen saindurena hain dabiltxa elkharganic hurbil, ecen baldin Iaincoaren ohoreaz ibentzen bada lehen bicico manemandua, halaber haren icen sainduari dagocanaz mintxatzen baita bi garrena.

Handia da Iaincoaren icen sainduari ekharri behar çaicán agurra, eta eman behar çaicán ohorea, egün behar çaicán agurra eta eman behar çaicán laudoria. Beraz hunelatan, handia içanen da halaber eta itsusia icen saindu haren, banoqui, premia gabe eta eguiaz ala gueçurrez mintxo den conturic egün gabe, erabiltzeaz eguiten den bekhatua eta descortesia. Baldin ikhns baneña ecen guiçon batec, meça erraiteco Caliça hartaric, hartan nori nahi den, agueri diren arlotte, errumes eta bertce iende suerte guztiey emaiten deraüela, can-

toin guztieta edatera, cer othe cenerraque ? Gutienean bacenerraque hura dela luthertasun handia, gauça itsusia, ikharagarria ; eta eztaquicula cer gaztigu ordena halacoari.

Bada baldinba gauça handiagoa eta ohore guehiago mereci duena da, Iaincoaren icen saindua, Calica baiño.

Eta guztiarequin ere ezpadakiçu, erran den moldean Calica erabiltzen duenari, cer gaztigu ordena ; cer ordenatuco dioçu bada Iaincoaren icen saindua, hain deblauqui, antsicabequi eta contu guti eguinic, erabilceco usantza duenari ?

Iuramentu eguitea da, erraiten dugun gauçaren sinhetz araciteco, Iaincoaren lekhuco deitcea, ekhartcea, eta ibentcea.

Eta baldin erraiten ditutçun hitz erguel guztieta, dey baceneça Erregue bat edo iaun handi bat lekhuco, mereci bacendeque eman liaçaçuten edo cein gaztigu, ceren hura bailiçateque halaco presunez contu guti eguitea eta hequien gutiestea.

Ordea cer mercocio duçu, eta cer gaztigu içanen da arraçoin eman daquicun aiphamen guztietaeo Iaincoa bera, Erregne guztiien Erreguea, eta laun guztiien launa, lekhuco deitzen duçunean, nola deitzen baituzu iuramentu eguiten duçunean ?

Ecin erran diteque, cein handia den harten Iaincoari eguiten çaicen bide gabea : eta bekhatoreac berac ere, bere buruari garraiaticen dioen damua eta caltea.

Hargatic erraiten du Spiritu Sainduac : *Jurationi*

non assuescat os tuum, multi enim casus in illa : (1) Beguirautçu, eztadilla çure ahoa iuramentura usal eren anhitz casu, behatztopa eta peril da hartan.

Baldin anhitz mintço denac peril badu, batean et pada bertcean, bere hitzetan huts eguiteco, eta embelatceco; iuramentu auhitz eguiten duenac cenbat eztu peril iuramentu gaizqui eguiteco. Hain peril ecen iuramentu eguiteco usantça duena, behatu gabe eta conturic eduqui gabe, noiz mintço den eguiaz eta non gueçurrez, bethi dago deliberatua, eta prestic, eguitren gaiñean beçala, orobat gueçurraren gaiñean em iuramentu eguiteco. Halacoac, hala iuramentu eguiten duen guziaz, bekhatu eguiten duela eta ifernuco bidean bere burua ibentzen duela ezta dudaric.

Handic Salomonec, ciaquienac beçala cenbat colla cekharqueyen iuramentu eguiteco usantçac, erru çuen : *Vir multum jurans replebitur iniquitate, et non discedet à domo ejus plaga :* (2) Iuramentu anhitz eguiten duena, betheco da bekhatuz eta gaistaqueriaz, eta ezta haren etchetic apartatuco plaga, han içanen da incontru gaitça, edirenен da behar eztena.

Eta hala baldin contu ongui eduquitzen badugu, ederenen dugu ecen presuna arnegariac, are mundu hustan ere, anhitz incontru gaitz içaiten duela; eta arnegi hec direla causa, anhitz hertce bekhatutuan ere erortz dela, eta azquenean alde guztiz fin gaitz eguiten duela.

(1) Eccli. 23.

(2) Eccli. 23.

§ 4.

Bekhatu handia da, eta probetchu gabecoa iuramentua eta iuramentu eguiteco usanča.

Oraiňo ebastea edo horditcea, ezta hain miresteco, ceren hetan bada cenbait probetchu edo placer. Baiňa iuramentuan ezta probetchuric, eta ez placeric.

Halaber gauča desohorezcoa eta laidogarria da iuramentua. Ceren hitz guztiaz iuramentu eguiten duenac emaiten du aditcera, gueçurtia dela eta haren erraney, lekhucoric gabe, sinhesteric ecin eman daquidiqueyela. Nola baldin guiçon bati, erraiten dituen hitz guztietan nehor contra balequio, eta erran baliacole : etçaitugu sinhesten, ekhartçu cenbait lekhuco, desohore eman bailliaçaiote. Hala hitz guztiaz, iuramentu eguiten dueñac, eta iuramentuez bere erranac frogatu nahi ditueñac ere, emaiten dio bere buruari desohore. Ceren ikuhsiric eztela bera sinhesteco, ekhartcen baititu lekhucoac, cein baitira iuramentuac, hequin batean sinhests deçaten amoreacgatic.

Iende prestuec damu hartcen dute, hequen hitz simpleari sinheste emaiten etçaicanean, eta iuramentu eguitera nehorc behartcen dituenean. Eta baldin çu hala behartcen baçaituzte ceure duču falta, cerori çara causa. Hala erraiten du San Crisostomoc : *Tu horum causa es, qui tam prompte et facile juras* : (1) Ceren hain prestuqui eta errazqui eguiten baitnču iuramentu,

(1) Chrys. hom. 9. in Acta Apost.

halatan hain maiz hartara beharteen caituzte. *Quod si
hoc non esset, sed omnibus esset manifestum quod non
jures, crede mihi dicenti, quod vel solo nutu plus crede-
retur tibi quam iis qui multa juramenta dejerant :* (1) Munduac balecusa eztuçula batere iuramenturic egui-
ten eta ez gueçorric erraiten, baiña bethi eguiaz minio
çarela, eta fama hartan baceneunde, sinhets naçau-
dio San Crisostomoc, ecen orduan çure hitz simpleari
eta bakhunari, eta ere kheinuari eta ayeruari ere sin-
heste guehiago eman lequidicaiola, anhitz arnegu eta
iuramentu eguiten duteney baiño. Baiña nola baitçara
gueçurti eta fama hartan baitçauda, halatan etçaituz
sinhesten : eta halatan cerorrec ere, ceure gueçurtze
sinhets araci nahiz, hanbat arnegu eta iuramento egui-
ten duçu.

Baiña cenbatenaz eta çue iuramentu guehiazo, han-
batenaz nic gotiago sinhets. Ceren gueçurraren errai-
tera herabe ezluenac, eztu gueçurraren gainean iura-
mendu eguitera ere herabe içanen. Eta behin gueçurrean
frogatz guero, nola iende iuramentusuac maiz frogatzen
baitira, etçaiie handic harat halacoey sinhesteric emai-
ten. Ceren haur da gueçurtiaren gazligua, eguiia erraiten
duenean eztadin sinhets. Eta eztu mereci ere sinhets
dadin, ceren erran comuna den beçala, otharre bat
eguiten duenac eguin ditçaque elun ere, gueçur bat
erraiten duenac baderraque guehiago ere.

Iondone Paulo Apostolua, munduac daquien beçain

(1) Chrys. ubi supra.

sintqui conbertitu bacen ere, eta saindutasun handi batequin hasi predicatcen, guztiarequin ere Ierusalemera ioan cen lehenbicico aldian, ihasi cihoazcon bere lagun Apostoloac, etceitçan fidatcen, ceren uste baitutten ecen lehencoa cela, eta lehen beçala, hequen contra cebillala. Hala da bada gueçurtia, behin gueçur-ean frogatu dena; eta bai edo cein bertce faltatan erori dena ere. Etçaiça handic harat halacoari beranduraiño, aphur bat frogat Arteiño, sinhesteric emaiten eta ez eman behar ere. Ez eta etçaiica absolbacinoic, eta barkhamenduric eman behar, behin baitan eta guehiagotan here iuramentnen eguiteco usantxa gaistoa utcico duela cofessorari prometatuz guero, batere utci gabe bere leheneco usantçarequin berriz cofessatcera bihurtcen denean.

Nola amorantearequin dagoena, edo bertcerena ebatsiric daducana ecin absolba baititeque, amorantea utz arteiño edo bertcerena ahal hadeça, bihur arteiño: hala iuramentu eguiteco usantxa duena ere, ecin absolba diteque usantxa barequin dägocieño, haren utz-terra enseya ditequeyen arteiño. *Quia tunc est in statu peccati:* Ceren orduan bekhatuaren egoitçan, estatuon eta toquian baitago.

Eta hala pensa beçate cofessorec cer hari diren, halacoac belhaunetara ethortcen çaitzenean, ceren eztira eguiteco gabe.

Eta badirudi hoherena liçatequeyela, behin eracus-tea etsa aditeera emaitea cein peril handian dauden: eta guero aphurbat absolbacinoaren luçatcea, eta er-

raitea dohacilla eta bihur ditecilla handic amotz egunen buruan, eta bitartean enseya ditecilla bere usantza gaistoaren utzteria. Eta guero bihurteen direnean edreiten bada batere utzi dutela eta utzteria enseyalde direla, orduan absolba, eta ez bertcela.

§ 5.

Ha Iainco handia, helas! cer içanen da bada niçan! Ene mihi guztia da iuramentu eguiteco usantza barrera sartua, guzia da hartara emana, eztaquit bertcela mintxatzen. Cer egunen dut bada? Nola erremediatuco naiz? Adi eçaçu cer erraiten duen pontu huan gaiñean San Crisostomoc : *Malam jurandi consuetudinem ab ore nostro auferamus, frœnum imponamus lingua. Nullo hic sumptu opus est, nullus labor exigitur, non indiget magna temporis mora exercitatio, sufficiet velle et totum factum est, res enim haec à consuetudine pendet*: Iuramentu eguiteco usantza ahotic khen depgun, mihi brida deçagun : eta nahi badugu, badiadugu. Ceren ezta hartaracotçat, batere gasturic egun behar ez trabailloric hartz, eta ez dembora anhitz emplagatu. Asco da nahia, egun da hain bertzez, ceren eguiteco haur usantzatic heldu da. Usatu çara anhitz mintxatzen, hitz guztiaz iuramentu eguiten, usat çaiten bada orai aldiz iuramentuen utzten. Nahi baduçu, badiadiqueçu, eta baldin eguiten, ezpaduçu, ceiñale da, ertuçula nahi. Erranen duçu, nahi nuque bada, eta irdaçu cebait erremedio. Lehenbicico erremedio da,

hartcea goicean gogo eta borondate fin bat, deliberamendu deliberatu bat, egun hartan iuramenturic ez eguiteco, mihiatz contu eduquitceco; eta baldin halarie ere guerthatcen baçaitzen, buts eguitera, eman ceure buruari cebait pena, bulharrac io, erran Jesus, edo eguin cebait obra on. Eta orduan hala enseyatcen çarencean, ceure nahi gaberic, usantçac errequerituric, cebait iuramenturen eguitera mihi limburtcen baçaitzen, eztu hartan bekhaturic. Ceren hora guztia dateque usantçarena eta ez borondatearena.

Bigarren erremedioa, iuramentu eguiteco usantçaren uzteco, da erraitea iuramentuaren orde, iuramentuaren lekhuan: Bai, segur, ez, segur hala da, ezta hala: egua erraiten deratçut, sinhets naçaçu: eznaçaçula guehiagotara behar. Hunela minçatcen cen gure Satbatçaillea: *Amen amen dico vobis*: Eguiaz, eguiaz erraiten deratçuet. Hunela mintça çaitetada zu ere, eta çaudet iuramenturic eguin gabe. Eta bace-neundeque, baldin iuramenturic eguiten eztuun egunean, hamar eznturen irahazteco segurança bacendu. Bada baldinba, çure arimac, hamar ezcutu baiño guehiago balio du.

Bihoa beraz urrun, iuramentua eta iuramentu eguiteco usantça, ifernuco hitzuntza, bekhatu idorra, goço gabea, arimaren galteco baicen deus balio eztuena. Eta bethore egun beretic, gueroco luçatu gabe, eguiaz minçatceco, eta iuramentu guztiaec utciric, ez eta hai, ez segur, bai segur, erraiteco usantça eta aztura. Ceren, bertcela minçatcen çaren bitartean, iaquiçu ecen

peril handian bici carela ifernuco bide çabala damaçula, eta azquen finean egiteco handitan içanen carela.

VI.

ASERRECORRA ETA HERRATSUA.

VIII CAPITULUA.

Cemba! calte eguiten duten colerac eta etsaigoat; eta nola behar den lehen baino lehen etsaigoatic elqui.

BETHI ere, lehenbicitic hartu dugun chedeari, ahal beçanbat, aurthiquitzen dioguela, hari iarraiquitzen gatçaicala, hartara destalcen eta encaratzen garela: edireneng dugu gure guero hunec presuna herratsuen erriertatsuen, eta haserrecorren artean ere baduela bere ostatua eta iarlecua; hetan ere calte handiseguiten dituela. Ceren adisquide hantequin hautsten duçunean, baldin berehala, osatcera eta bat eguiten enseyatzen ezpaçara iaquiçu ecen, guero eta guengaitciago içanen çaiçula, guibelatucoago, urrundu-coago eta ez ansiatucoago carela; halaco moldez ezen San Agustinec dioen beçala: *Sicut festuca crescit in trabem sic ira inveterata fit odium*: (1) Landarea çuhaitz beçala, haserretasuna ere eguiten da gaitzerizco-

(1) August, homil.

Hunen arauaz erraiten du Senecac ere : *Optimum est primum irritamentum iræ protinus sfernere, ipsisque repugnare hominibus* : (1) Gauça ona da coleraren lehenbicico narritamenduari, muguidari eta abiadurari beguiaren eduquitcea, haci haren hocitcetic, sorcetic eta bihitceric beguiratcea. Hargatic erraiten du Iondone Pauloc : *Sol non occidat super iracundiam vestram* : (2) Eztagilla iguzquia eror çuen haserretasunaren gaiñean. Erran nahi du : *Non duret usque ad occasum solis* : (3) Ezteçala iraun iguzquia sar arteinio, etçoaztela oherat, mendecateeco desirarequin, akhaba differentiac igozquiz iguzqui. Ceren bercela su tipia handitcen den beçala, differentiac ere aphurbana handituco dira, eta behin handituz guero nequez tipituco eta iraunguico dira.

Nola gueure gogaraco gaucéquin naturalqui botzten eta alegueratcen baicara, hala desgogaracoequin eta contracoequin tristetcen eta haserretcen gara. Hain haseretcen ecen ecin baicarateque, orduan behintçat haraguiaren arauaz, coleratu gabe, senticortu gabe eta mendecatceco desira gabe. Nola ardia otsoaren ikhus-teaz latzten, larritcen, asaldatcen, iciteen eta ikharatcen baita : hala egniten gara gu ere etsaiarequin batceaz eta incontratceaz. Orduan haraguiaren arauaz ecin garateque haserretu gabe, min hartu gabe, eta

(1) Senec. lib. 1. de ira cap. 8.

(2) Ephes. 4.

(3) Glos. inter.

barrenean iraquitu gabe. Hunen arauaz erraiten du San Crisostomoc: *Caro quidem diligere inimicum non potest quia dilectio vel odium carnis in sensu est, anima vero in intellectu. Propterea anima quidem secundum rationem vertitur, caro autem invertibilis in passione tenetur*: (1) Haraguiae eein onhets deçaque etsaia, eta ez sentitu gabe utz eguiten çajcan bidegabea eta desarragoiña. Bai ordea arimac onhets deçaque; ceren arimac libertatea du, bere burua bere eskuco du. Baiña haraguiae eztu libertateric eta ez bere burua bere escuko.

§. 4.

Nola baitira bi gaitcerizco, bata naturala haraguiarena, eta bericea librea horondatearena, hala dira halaber, bi onherizte eta amorio, bata naturala haragiarena, eta bericea librea horondatearena. Gure salbatçailleac içan çuen heriotcearen alderacotet gaitcerizco naturala, naturalqui gaitzesten çuen heriotcea, haragiaren arauaz etçuen hil nahi. Eta halatan egun cioen othoitx bere Aitari, erraiten ciocia: *Pater si possibile est transeat à me calix iste*: (2) Aitz baldin posible bada, iragan bedi eneganic Caliea heri: ezteçadala nic heriotceric errecibi. Ordea gaitzerizco natural hunequin içan çuen amorio librea; ceren librequi, bere nshiz, eta borondatez hil cen. Eta hunetan da agueri badiratqueyela elkarrequin gaitzerizco

(1) S. Chrys. Hom. 13.

(2) Matth. 26.

naturala, eta amorio librea. Baduquegu etsaiaren alderacotçat gaitzerizcoa, onherizcoarequin. Eta gaitzerizco librea, cein baita borondatearena, da comunzqui bekhatu, eta ez naturala, cein baita haraguiarena. Gaichto hateg hil deratçu eure aita, cerorri ere egun deratçu nulla pensu, asmu guchto, eta malicia : hequen aranaz ecin careteque gaitzerizco naturala gabe. Oriea gaitzerizco natural harre eztiratçu amorio librea elequitzen, eztu horondatea gaitzestera bortbatzen, eta ez gaizqui eguiile harri barkhatcetic, eta ongi egutetic debecatzen, hargatic libre da çure borondatea.

Eta halatan anhitzetan ere, eguiten diogu gueure gaizqui eguiileari ongi. Eta halatan halaber etsaiaren onhesteko manamendua eman cioen laincoac arimari, eta arimaren bothere libreari, borondateari, eta ez haraguiari, eta ez haraguiaren apetituar. Eta hala bidegabe bat eguiten deratçutenean, ethortzen baitcaïtu alje batetic, mendecatceco eta ordainaren bihurtceco mugnida bat guticia bat, eta desircunde handi bat. Eta herriz bertce aldetic, gauça ongi consideraturic, eta aitcin guibel behaturic, guibelatzen baitara mendecatce hartaric : orduan haraguia haserretzen da, eta ez arima. Hala erraiten du San Chrysostomoc : *Quando ergo homo irascitur, et non vult facere quod ira compellit, caro ejus irata est, animus autem non est iratus.* (1)

Eta haur da arimaren eta gorputzaren, spirituaren

(1) Chrys. Hom. 13.

eta haraguiaren arteko guerla perilosa, eta bictoria lorirosa : batac gaitzesten duena, bertceac onhesten bait.

Haraguiaren gaitzerizco naturala, haraguiaren lehenbicico mugida, *Primus motus*, etsaiaren baserretcea eta mendecatcera, laborzqui eta consideracione gahe oldarice eta abiatce hora, bera soilqui eta bakharric, ezta bekhatu. Bekhatu içaitecotz arraçoian behar du lekhu eta parte, horondateac behar du delberatu, eta baitetsi.

Are guehiago erran nahi deratçut, borondateares deliberamenduarequin eta consentimenduarequin on haserretcea, eztela bethi ere bekhatu. Aitcitic haserretceaz beçala, ez haserretceaz ere egun diteque bekhatu. Nola arraçoianaren contra, eta hidegahequi haserretcea, eta mendecu hilha ibiltcea, baita bekhatu hala halaber, haserretu behar denean, eta haserretceo okhasinoa denean, ez haserreicea, da bekhatu. Hap erraiten du San Chrisostomoc : *Itaque non solum non peccant, qui cum causa irascuntur, sed et contra ipsam irascantur peccant* (1). *Quoniam patientia irrationalis vicia seminat, negligentiam nutrit, et non solum malos, sed etiam bonos invitat ad malum*. Ez haserretceac, sobera pacient içaiteac, falten dissimulatceac, ez ikhusi iduri eguiteac, eta ez gaztigatceas, emaiten du okhasino falta guehiago eguiteco, egunetan laquetceco, eta gaichtoen beçala, onen ere gaichtaqueriara conbidatceco.

(1) Chris. Hom 12. t. 2.

Haserretu behar denean ez haserretcea, senticortu behar denean ez senticortcea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba, eta bare içaitea, eztheustasuna da, eta ez guicontasuna. *Sicut excessus irae est malus et viciosus, ita moderatae irae defectus à justa reprehensione et peccati labe non est immunis* dio San Thomasec : (1) Nola sobera haserretcea baita bekhatu, hala halaber gutiegui eguitea ezta hoben gabe. Arraçoinearequin intencione onez, eta iusticiaren arauaz haserretcea, eta hala haserreturie gaztigatceco desira içaitea, gauza ona da eta saindua. Hain saindua, ecen erraiten haitu San Basilioc : *Neque enim si contra nequitiam desit indignatio et ira, satis eam odio, quo decet, persequi poteris* : (2) Haserretu gabe, aphur bat hedere coleran iarri gabe, eta bere baithan pitztu gabe, eztira gaichtaqueriac asco finqui gaztigatcen, eta ez obra onac ere asco einqui eguiten. *Neque damus aliter disciplinam filiis, nisi aliquantum irascendo*, dio San Agustinec : (3) Eztu aitac bere semea, bere soseguan dagoela gaztigatecen, eztio beguia bihurritu gabe, cer eguin behar duen, eracusten. Behar da behar, behar denean khar aphur bat ailchatu, behar da pitztu eta haserretu. Halatan du aitac escu eta bothere, semeari gogorqui minçateeco ; eta bai cargudunsc ere, bere carguocoen contra, huts eguinac dohacinean, iaiquitce-

(1) S. Thom. 2. 2. q. 158 ar. 8

(2) Basil. Hom. 9. de ira.

(3) August. de verb. Dom. Hom. 16.

co eta haserretceco. Hala haserretu ciren Moïses eta Matatias, Idoloac adorateen citu tñen contra. (1) Hala gure Salbatçaillea ere hiletaric pitztu cenean mintzatu ceyen zogorqui bere discipulu batxney, deitzen cituen atimendu gabeac, eta sinhets gogorrak : *O stulti et tardi corde ad credendum.* (2) Hala Iondone Pauloc ermebatchatu cituen Galaciaco iendeac, erraiten errauela : *O insensati Galatoe, quis vos fascinavit non obedire veritati?* (3) Ha Galatar centu gabeac, nore erhotu eta filuratu çaituzte, ezpaituque orai, lehen beçala, egua obeditzen, eta sinhesten ? Hitz hanc deshorezkoak ciren Galatarrençat. Ordea ceren bihotz onetz, eta intencione sainduz erranak baitciren, eten bitartean bekhaturic. Haur da San Agustinec ere erraiten duena : *Non irascitur fratri, qui peccato fratris irascitur* : (4) Ezta anaiaaren contra haserretzen, anaiaek duen bekhatuaren contra haserrentzen deitza. Halakoak bekhatu gaitzesten du eta ez bekhatores. Eta hartan eguiten du midieu batec edo barber batec eriarequin eguiten duena. Barberak penatzen du eriz, ebaquitzen du, odol husten du, etsai bat beçala erubiltzen du. Ordea ceren hura guztia critasunaren contra eguiten baitu, eta ez eriaren : ez intencion gaichtoz, baina amorioz eta sendatceco kontuan, baino

(1) Exod. 31. 1. Mach. 2.

(2) Luc. Ultimo.

(3) Paulus ad Galat. 3.

(4) August. lib. rhetor. cap. 49.

tan hanc eguiten duen guztia onetsten da, eta hartzen parte onera. Hala behar dira bata halaber arraçoinaren arauaz, intencione onarequin, falten erremediatceco, eta bekhatuen eritasunetic sendatceco borondatearequin, eguiten diren liscarrac, ahacarrac, mehat-chuac, eta erançuteac ere, onetsi eta parte onera hartz.

§ 2.

Ordea begoira beça batbederac, bekhatuen contra haserretcen denean, sobera haserretcetic, amorioz eta horrendate onez eguin behar duena, coleraz eta mendecuz eguitetic. Ceren aita-amec, predicariec, nabusiak, eta hertceren escolateco eta gobernatceco cargu dutenec, eztute cargu hartzan halako moldez quechatu eta iraquitu behar, non gainez eguin deçaten, eta amorioz desamorio eta gaitecerizeo bihur daquien. Hargatic erraiten du Prophetac : *Irascimini et nolite peccare;* (1) Haserre çaitetzte, eta eztaguiñuela bekhaturic. Haserre hai, ordea neurriiz, pacientziaren chedea eta marra iragan gabe : saltari bai, baiña saltaren iabeari herraric eta aibercunderic eduqui gabe.

Cenre umea edo cerbitçaria corrigitu, emendatu, eta cençatun nahi duçunean, anhitzetan ere, cerori iartzen cara cençá beharreanago. Ceren cençatze hartzan, cenre umeari eracustean, hain aserretcen coleratzen, eta ceure cençutic eta patientziatic ilquitzen

(3) Psal. 4.

çara, non anhitz arnegit eta iuramento egunie, azquenean çure umearen eta cerbitçariaren salta baino, çurea handiago guerthatzen baita, eta cerori erremediaquicunhago eta centea beharago iartean baitçara.

Bada ez bertelis, baina arraçoinaren eta iusticiaren arauaz, eta moren contra haserretzen baitçara, haren ontasunagatik, eta salten erremediateagatik, neurri haserretcea, gauça ona da eta saindua. Eta moldetan haserretcea deitzen da : *Ira per zelum* : Zelo onezco hira, amoriozco haserrea, ongi nahiz os. Bainha bada bertze bat, borondate gaichtozcoa, mende-cuzcoa, ez bekhatuaren erremediateeco, baina bekhatoreari berari gaitz eman nahizcoa : eein deitzen baita : *Ira per vitium* : Biciozco hira, bekhatuzco haserrea, arraçoiñaren contracoa, intencione gaichtolakoa, soberaniazcoa, gainez eguna.

Hunetaric, hunela gainez eguitetic, sobera haserre-teetic, eta coloratectic, sortzen dira calte handiac, lis-carrac, hitz gaichtoac, iuramentuac, differentiac, hauriac, gaicerizcoac, heriotzeac, eta bere buruen elabertceren galteeac, eta eguitecotan ibenteeac.

Anhitz gauçac eguiten derauca guiristinoari gaitz, eta calte; eta hetaric bat da, eta are buruçaguietario, hira, colera, hasterretasuna; mendecateeco desira desordenatua. Hunec arima eta gorputza çaurtzen ditu, hunec biac eritzen ditu, egunac laburten ditu, eta muga baino lehen, illeac ere urdintzen tu. Hala emaitzen du aditcera Spiritu Sainduac : *Zelus et iracundia minuit dies, et ante tempus senectam adducet cogitu-*

tus. (1) Hunen arauaz, eta ereduz erraiten du Sene-
cac ere : *Vitanda est ira, non solum moderationis
causa, sed sanitatis :* (2) Beguiratu behar da sobera
hasterretctic, aldo egun behar izaica hirari, beguia
eduqui behar izaica tolerari : eta ez, prestuqui, eta on-
hesqui bicitzeagatic beragatic, baina bai gorputzeco
osasunagatic ere. Ceren haserretasunac, mendecatu
nahiac, barrinaco heguigoac, iraquidurac, budigoac,
gorrofua, corromioae, eta herraie, arimari eta gor-
putzari eguiten derane calte, hiez senti uraciteen de-
raue, biac eriteen ditu.

Eta halatan presuna hirosac, erreac, eta baserre-
corrak, ez ohi du begui-orile anhitz higatzen, eta ez
comunazkibere umen umeric ere, bere ingurunean
ikhusten. Ceren bere harreneko toleraren soac, eta
iraquinac, errai guztiac erratzen, elkhortzen eta
idortzen baiterantza. Eta hala ikuusico duzu, bere
eguitez iauzeor, eta mendecos diren presunak, baldin
berehala bere desiren arauaz mendecatzen ezipadira,
egosten eta deseguiten direla. Eta baldin halaber men-
decatcera, eta eszenen odolstatecera gnertha balaquie,
guero ondotic dolantuac, eta atsecabeztatuac dabiltsa-
la. Halako suertez ecen, nola nahiden dela, nahiz men-
decaturic eta nahiz mendecatu gabe: nahiz bere gogoa
histuri, eta nahiz histu gabe, ezta halacoentçat da-
muri, atsecaberic eta asalduric baicen.

(1) Eccl. 30.

(2) Senec. ep. 18.

Eta ezpere beha iaçoçu haserretua dabillan bai, nola mintxo den, nola ahotic habuina darioz, begutaric iharrac iauzten çaitçan, lurra ostico ioiten duen, ethortzen çaitçan arartecoez eztuen konturie egutzen eztioen nehori ere ohoreric ekhartzen. Aitcitie erbi batet bezala, aitcin guibel behatu gabe : ethorquicun konturie egutzen gabe, guztiac gueçurztatzen dituen, desohoratzentzen dituen, bulkhatzen dituen, hil nahi dituen. Beha iaçoçu bada halao batia, eta centea çai haren baithan. Geren iaquię ecen cerori ere haserri carenean, hala carela, erho carela, itsu carela ; hori bat bezala irrigarri cinatequela, ezpacina gueñigatzgarri eta icigarri.

§ 2.

Presunac, haserre denean, badirudi eztirudiela lehena. Hargatic abisateen cituen Platonec bere disipuluae, (1) har ceçatela, haserre cirenean mirail bera aitcinean, eta hartan ikhus citatela bere buruen. Eta erraiten du Senecac ere : *Quibusdam profuit ut perisse speculum, perturbavit eos tanta mutatio nisi* (2) Batçuey on egutien içan deraue, haserre cirenean, bere buruen miraillean ikuusteac. Ceren han da egun nola colerac batbedera muthateen, era lehen eztirudiela ibentzen duen. Eta badio San Chrisostomoz ere : *Quod si iratus seipsum intueri posset, nullus*

(1) Fulgent. l. 7. cap. 2.

(2) Sen. l. 2. de ira cap. 36.

alterius indigeret admonitione, nihil enim irato turpis: (1) Baldin presuna haserreac, haserre denean, ikhos ahal baleça bere burua, ez luque, ez berriz haserretceco, bertce abisuren beharric: ceren orduan hain da itsusi, non itsustasun harc berac beguira bai-leaque aitcinerat guehiago haserretetic. Coleran da-guenae hanbat erhoqueria eguiten du eta erraiten, non hari beha dagocana ahalqueteen baita erhoqueria he-queu ikhusteaaz eta ençuteaz.

Eta halacoac berac ere, bere baithara dadinean, (ceren coleran dagoena eztago here baithan), norc erranen du, cenbat daimu eta atsecabe içanen duen? Cein ondore gaichtoa edirenен duen? Cein onbeharr eta triste gueldituco den? Orduan gogoratcen çäica, ikhusi dutela bere adisquidec, eta bai etsaiec ere, guztiac beha egotu çaitçala: eta harc bere coleran egun dituen desordénez eta erhoquieriez, adisquidec hartu dutela damu eta atsecabe, eta etsaiec atseguin eta placer. Orduan erreco da bere baithan barrena, despítituco da, tristetuco da, goibeltuco da. Eta guziz ere, baldin bere haserre hartan, colperic egun badu, barber beharrean nehor eçarri badu, edo bere bizelan nehore bahiric hartu badio; han dira cinac, eta minac, han dira quechadurac, icercleac, batsbeharenpenac, intcirinac eta maradicinoac. Orduan iartzen da bere buruarequin gogoetan, erraiten duela San Chrisostomoc dioen beçala: *Et quid mihi pugna opus*

(1) Chrys. Hom. 25. in cap. 3. Joan.

*erat? Quid in iniuriis? Quid contentionibus? Hac & illa pereant: et his omnibus terrenis maledicunt quae ipsis discordiae materiam præbuerunt: (1) Cer men-
goa nuen nic eguiteco hautan sartceco? Differentiata
ibiltceco? Hitz gaichtoric erraiteco? Colperic emait-
eco? Fin gaitz daguitela hunelaco eguitecoec, ni hun-
la eguitecotan ibeni nautenec. Baldin eznagoenean
banengo, beguira bide nindeque berriz hunela itsu-
cetic, erhotcetic, mintçatcetic, eta eguin naicen beçala
iauztetic eta coleratecetic. Hunela mintçatceu da hotz-
denean: hunela bere buruaz arrencuratzan da, haser-
redura ematu denean.*

Haur da coleraren ondorea, iharduquitcearen frui-
tua: arimaren galtea, gorputzaren deseguitea, eta
tristura handi baten azpian, damuztaturic ibentcea eta
utztea.

Guion coleratua, sukharra duenaren polsua beçala
da: quecho da, eztu soseguric. Halaber gau ilhunean
beçala da. Ceren nola gau ilhunean dabillanac ezpait-
eçagulcen, cerc cer colore duen: cein den berde eta
cein more; hala guion coleratuac ere eztu eçagulcen.
noiz mintço den ongui eta noiz gaizqui; noiz dohan
artezi, eta noiz makhr. Nahasia, isutua, haztamua
dabilla; ilhonbean dohana beçala, urrats guztiaz be-
haztopatzen da, errebelateen da.

Halatan Deabruac ere orduan eguiten tu bere col-
peac, orduan bethacen tu bere çacuac. Ceren nola

(1) Chrys. Hom. 4.

ohoinac desiratcen baitu gau ilhuna eta haicetsua, ebasteco; otsoac demhora gaitça, uritsua eta igorci-ritsua, artaldeari oldartceco, eta arrançaleac ur uher-rra arrainaren atcemaiteco : hala deabruac ere, ohoin finac, etso goseac, eta arrantçale iaquitsunac beçala, bilhacen tu, eta bere gaichtaquerien eguitaco celata-turic eduquiteen tu, coleraren, haserreduraren, eta differentien ilhunbeac, tormentac, uherdurac eta okhasinoac.

Presuna haserretuen artean, bere gogara da dea-brua; han edireiten da ongi demonio gaichtoa; han bide batez eguiten tu bi mandatu. Ceren aserretçail-lea eta aserretua, biac atcemaiten baititu.

Eta baur ezta miresteco : ceren ezta bekhaturic, coleran itsutua dagoen batec eztaidiqueyenic. Eta hala ezta çuhurtcia, halacoac, eta halacoec diharducate-nean, hequen artean ibiltcea, eta sartcea, eta hequinen partitcera enseyatcea. Guztiz ere baldin diharducaten hetan hordiriç edo çure etsairic baldin bada; orduan urruilitic egon, ez hurbil, utzteru, beude, diharduca-te, biz hequen gaiñean ethorrico den okhasinoa, eta caltea. Ceren bertcela peril içanen da, çure gainera ethor dadin. Hordiac eztaqui cer hari den, eta etsaiac ere alea harc bertceri eman nahi, çuri emanen de-rateu.

Bada baldin colerac, eta mendecatceco desira desor-denatuac, arraçoinaz campocoac, hanbat calte eguiten badu : hala nehor itsutcen, çoratcen, liluratcen, eta adimendutic erauzten badu; eta deabruac ere orduan,

coleratuen artean denean, bere iocoac iocatzen baditu: eduqui behar çaiça colerari beguia, egun behar çaiñ guardia : bilhatu behar çaiça sendagarria, egun behar da laster medicu, midicinetara, ahal diratequeyen orremedioetara. Eta noiz? Lehen baiño lehen, gureso luçalu gabe; ceren suaren paro da colera, eta badiquien, sua tipi deino, dela errazenic iraunguitceco oihiltzeceo.

IX CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco lehenbicico erremedioa da bat bederac, bere condicino haserrecoorra eçaguturia, anhik beguiaren eduquitcea?

Nola gorputzeco medicuec, anhitz midicina, eto erremedio bilhatu baitute eta ediren, gorputzoko eritasunen sendatceco : hala arimaco medicueç era, cer den colera eta coleraren ondorea daquitenet, cein haita arimaco critasun bat, bilhatu dute, eto eman anhitz abisu, eta erremedio, arimaco critasun hunen sendatceco, colerae pitzen duen suaren hiltzeceo, eta bai pitztetic eta iratchequitcetic ere beguiratceco.

Lehenbicico erremedioa da, bat bederac bere horuaren, eta condicionaren eçagutcea : bere buruarequin gogoeta eguitea, ea haserrecor denz, hiros denz, iauzcor denz. Eta baldin hala bada, perilos bada,

coleratuen artean denean, bere iocoac iocatzen baditu: eduqui behar çaiça colerari beguia, egun behar çaiñ guardia : bilhatu behar çaiça sendagarria, egun behar da laster medicu, midicinetara, ahal diratequeyen orremedioetara. Eta noiz? Lehen baiño lehen, gurea luçatu gabe; ceren suaren paro da colera, eta badiquien, sua tipi deino, dela errazenic iraunguitceco oihiltzeceo.

IX CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco lehenbicico erremedioa da bat bederac, bere condicino haserrecoorra eçaguturia, anhik beguiaren eduquitcea?

Nola gorputzeco medicuec, anhitz midicina, eto erremedio bilhatu baitute eta ediren, gorputzoko eritasunen sendatceco : hala arimaco medicueç era, cer den colera eta coleraren ondorea daquitenet, cein haita arimaco critasun bat, bilhatu dute, eto eman anhitz abisu, eta erremedio, arimaco critasun hunen sendatceco, colerae pitzen duen suaren hiltzeceo, eta bai pitztetic eta iratchequitcetic ere beguiratceco.

Lehenbicico erremedioa da, bat bederac bere horuaren, eta condicionaren eçagutcea : bere buruarequin gogoeta eguitea, ea haserrecor denz, hiros denz, iauzcor denz. Eta baldin hala bada, perilos bada,

guilicabera bada, pairu gutitaco bada; ihes eguin, eta beguira diferentiaric ahal datequeyen okhasino guztiataric, presentatzen diren periletaric, iendartera sobera ilquitetic, eta bai eguitecotan eta eargutan ere sartetik.

Batquey den okhasinoric ttipienean, sua lotzen çaye: ceren sukhoi baitira, ihar baitira. Puntu hinen gainean ederqui erraiteu du Senecac : *Non interest, hic affectus, ex qua magna causa nascatur, sed in qualem pereniat animum. Sicut ignis non refert quam magnus, sed quo incidat : nam etiam maximum solida non reperunt, rursum arida et corripi facilia, scintillam quoque fovent usque in incendium :* (1) Egur heceari, eta iunt denari, su handiac ere nequez eraguiten dio, bainha iharari, eta harroari, inharbatec ere iratchequitten dio; ceren hartaco eguna, eta prestatura edireiten baitu. Hala da bada coleran, eta haserretasunean ere. Ikhnsico duçu comunzqui gauça charragatic, okhasino ttipiagatik, iendeac haserretzen direla, eta hai herrietzeak ere eguiten, eta guerthatzen. Ceren haserretza leztago ez hanbat eguitecoaren balioan, nola presunaren condicinoan. Batac antsiaric eztuenaz, bertcea iauzten eta encomiateen da.

Antioeo sophista deitzen cen hare, bere condicinoa egaguturic, etzuen behinere, compaiñiatan ibili nahi; eta ez, hartako bacen ere, herrico eargutan ere sarthu nahi. (2) Guiçon gaizquin bat-heçala, ici cen, heldur

(1) Senec. ep. 18.

(2) Theatrum humanæ vitæ fol. 39.

cen, ihicia beçala, basatua, eta ihes eguna cebilin. Eta galdeguin ceraucatenean, ea ceren cen beldur,edo cergatik ihes eguiten çuen? ihardetsi çuen: egutten dut ihes, ceren eçagutzen baitut neure condicionez, ez naicela iendarteko gai, eztudala okhasinotan sruhz guero, neure burua neure escuko: ez naicela neure buruaren iaun, eta ez iabe, berehala limbuzten eta quilitatzen naicela, erreña naicela, inazor naicela, den okhasinoric ttipiena, ayeruric gutiem gorrotatceco eta muthurtua iartceco asco dudak. Eznaduca ez hertceren beldurrac ihes eguna, neur beldurrac, neure buruaz fida içan gabeac naduak, harc earguac eta compañiac ere utz aracitzen ditzauzquit. Hunela ihardetsi çuen Antioco harc. Halau erraiten du Platonec, presuna haserrecorrac eta olilerac adimendutsu direla, eta anhitz ikhasteko on, ordea herrien gobernatceco, eta ez ezcola eduquiteco ere. Cerent hartaracotçat pacientzia behar da, sosepa behar da, eta anhitestan ere, ikuusia ez ikuusi, aditua ere ez aditu, iduri eguin behar da.

Hala Cotys Traciaco Erregue harc ere, (1) ikuusira, gauçá hunetan flaco cela, berehala lehenbicico okhsinoan, colera burura igaiten, eta nabusiteen ceicolapatoriak batere etxuela, senticoregui cela: eta berbaithan aitcinetic, pacientzia içaitera deliberatuaztir ere, berehala lehenbicico incontruan, behaztopalez cela eta erortzen; enseyatu cen, ahal beçanbat, cole

(1) Carolus Stephanus verbo Cotys.

raren okhasino guztiataric ihes eguitera. Eta hala contateen du Plutareoc, (1) ekharri ceraucatela egun batez Erregue Cotys hari present handi bat, bacherá eder bat; ordea hautscorra, lurrezcoa, eta beiraquiz-coa; eta ekharri ceraucatenean, erreccibitu çuela pre-senta ongui, eta bai esquerrac ere eman ekharley eta igorley; baiña berehala ekharle hequen beren aitci-nean, berac bere escuz, guztiac çathitn eta porroscatu citueta, erraiten çuela : Badaquit berdin, present eder haur, egun hautaric batez, ene cerbitçariec hauts leçaquetela : eta ni naicenarequin eta neure condicino errearequin, orduan sobera haserre nindequeyela : eta uenri gabe, eta behar baino guehiago cerbitçari hec gaztiga nitçaqueyela. Bada deçadan aitcinetic er-remedio iben, deçadan okhasinoa aparta, ditçadan orai neure escuz diren guztiac, coleratu gabe, guero ez coleratceagatic, çathi eta deseguin. Eta hala erran beçala egin ere çuen; irriz cegoela guztiac bere escuz deseguin cituen. Anhitzec laudateen du Erregue haren colpe hura, baina gutic seguitcen. Hura da cer guertha ahal daquidicayon aitcinetic pensateea bere burnuaren eçagutcea, ethorquiçuneco perilar begniaren eduqui-tea, eta coleraren contraco eta iraunguitceco lehenbi-cio erremedioa.

(1) Plutar. in aphotechnata.

X^o. CAPITULUA.

*Coleraren iraunguitceco bigarren erremedioa : dira-
quien eltceari eguiten gaicana, colerari ere eguit-*

GUIÇON haserretua diraquierien eltcea beçala da; eta iraquin hartaric ilquitcen da, khe bat, lambo bi ceinec, poetac dioen beçala, itsuteen baitu adimendua : *Ira impedit animum ne possit cernere verum.* Bada elceari sobera diraquienean, gaiñez dohanean, hirur moldez emaiten ohi çaina erremedio. Lehenbicicoa sutic aldaratceaz eta urrunteceaz. Bi garren egurren edequitceaz eta gutitceaz. Hirurgarrena, mhotz gaiñetic emaitceaz eta egotzteaz. Hala bada coleraz eta gaitzerizcoaz bere etsaiaren contra diraquienean ere, hirur erremedio hauc, bat bailira beçala, eta hautçaz bat eguinic, eman behar çaitça; eta hauek behar ditu hartu eta bere coleraren iraunguitceco begiratu.

§ 4.

Lehenbicicoa, sutic hastan : erran nahidu bere etsaiaganic aldara, aparta eta ihes egun; ceren nola ez erratceco erremedioric hoherena baita, sutic urrunteca : hala da ez iharduquitceco eta ez haserrelceco ere, guiçon haserrecoretaric eta etsaietaric apartatzen eta beguiratcea. Presuna haserreccorrac çuhaitz arantsuac beçala dira, eztira pherecatceco on, nehortz uqui badaitça çaurtzen dute. Harri muguerraren pare

dira, barrenean dute sua, asco dute uquitea. Halatan erran cioen Rebecac bere seme Iacobi; ene seme, haserre da çure anaia Esaü, çure contra coleran dago, aldara çaquitça beraz bidetic, etçaitçala cebait egunez ikhns, eta aguian bitartean hotztuco da eta ematuco. Ceren erran comuna den beçala: ikhusten eztuen beguiac eztu minic. Hala Jesus haurrac ere eguin çuen ihes Herodes ganic. Eta badio Iondone Pauloc ere: *Date locum iroe,* (1) Demogula leku, demogula amore hirari. Erran nahi du beguira gaitecilla presuna haserrecoretaric eta haserretceco okhasionetaric, haucitan sarteetic, liscarteetic, eta behaztopa guztiataric. Ceren behin behaztopatuz guero, çaldia beçala laurainca, aldapa behera coleran abiatuz guero, gaitz da baratcea, gaitz da aitcina iragan gabe, gaitzerizcoan sarthu gabe guelditcea. Beraz hunelatan, diraquiens eltceari bere iraquinaren guelditceco emaiten çaicán erremedioa,emoçú çuc ere ceure buruari, ceure mendekatceco desira desordenatuaren eta haserretasuneco iraquinaren hotzteco. Sutic guibela, okhasionetarie aparta, etsaietaric ihes eguin.

§ 2.

Bigarren erremedioa eltceari bere iraquinaren gueldi aracitceco, da egurren edequitea, suaren gutitcea. Hala da bada coleraren eta haserreduraren iraquinaren hotzteco eta ematceco erremedioa, hitz gaichtoey

(1) Paulus ad Rom. cap. 12.

ez behatcea, gogorqui eta torpequi dagotçunari emequi egoitea, ichilic utztea. Ceren nola sua egurren berretceaz, berretcen eta handitcen baita, eta edequitceaz gutitcen eta ttipitcen : hala colera eta haserredura en alde batetic eta bercetic, hitz gaichtoen eta gogores erraiteaz handitcen eta pitzen da, eta ez ihardesteaz ttipitcen eta iraunguitcen. Çuri ceure etsaiac bere coloran anhitz gauça erraiten deratçu : ohoin bat çarela, enganatçaire bat çarela. Finean San Basilio dioen beçala, *sic durant convitia, sicut sagitta donec deficiant:* (1) Tragaça colpeca hari dena beçala, buiracean edo buruan direnec dirauteño, pensa ahalac, edo daquizqienac aurthiqui arteino, ezta ichiltcen.

Eta orduan hura gaizqui mintço da, eta çuri ere gaizqui mintço dela iduritcen çaiten : eta ala boina çuc ere hari hain bertce, edo guehiago eta gaizquingo erraiten hadioçu, hertceren gaizqui mintçatcea, ceur gaizquiago ihardesteaz nahi duçu erremediatu : hain enganatcen çara: Ceren hori da harriac barriaren ioitea, bietaric suaren pitzea, çauriaren gaizcoatcea, eta etsaigoan barrenago sartcea; çuri beguis atheratcen deratçunari çuc ere atherateaz, ezta handic çurea sendatcen eta ez bere lekhura bihurtcen. Colpe bat emaiten deratçunari, bertce baten bihurtceaz, eztioçu halatan ceure buruari eman deratçuna edequitcen. Ohoin bat çarela erraiten deratçunari, hordi bat dela ihardesteaz, eztacusat irabaci handiric eguiten dela.

(1) Basil. hom 9. de ira.

Baldin bethi ere azquenarequin guelditu nahi baçara, eta ez behin ere amoreric eman eta ez amainatu, ezta guerlaren akhabatceric. Aitcitie nola hordiac anhitz edanez egarritcenago baitira, ceren arnoac erratcen baititu : hala etsaiac ere, iharduquiz etsaitcenago dira.

Nahi baduçu gueldi dadin etsaiac, gueldi çaiteci ; nahi baduçu ichil dadin, ichil çaiteci ; nahi baduçu sua iraungui dadin, egurrac edequi iatçotzen. Ceren haur da bigarren erremedioa diraquier eltcearen iraquitcetic gueldi aracitceco, coleraren iraunguitceco, egurren edequitcea, okhasinoric ez emaitea, ichilic utztea.

§ 3.

Hirur garren erremedioa, diraquier eltcearen, gainez eguinic dohanean, guelditceco eta beheititceco, da ur hotza. Hala bada coleraren iraunguiteco eta sosegatceco ere, da hitz ona, erreuesta emea eta eztia. Hala erraiten du Spiritu sainduac : *Responsio mollis frangit iram, sermo durus suscitat furorem* : (1) Erreuesta emeac, eztiac eta berac, ematcen, eztitcen, beratcen eta hausien du mendecatceco desira desordenatua, baina solhaz gogorrac pitzten du colera.

Haur da gauea mirestecoa, berac beratcen baitu gogorra, emequi eta mantsoqui minçatceac ematcen, eta sosegatcen baitu colera.

Mors ei vita in manibus lingue. Mihiaren escuan daude heriotcea eta hicitea, guerla eta baquea. (2)

(1) Prov. 15.

(2) Prov. 16.

Nahi baduę adisquide deçaqueę ceure etsaia, eta bai etsaiago ere. Emoču ur, mintça çaquitça emequi eta eztiqui, sua iraunguico da, gaitzerizcoa iabaldo da. *Mansuetus sibi ipsi dulcis, et aliis est utilis, iracundus vero et sibi insuavis et aliis damnosus,* (1) dio San Chrisostomoc : Guiçon baquezcoa, mansoa, sosegatua eta hitz onetacoa, goço da beretçat, eta bertcerentçat atseguin eta placent : halacoarequin guztiec dute lacquet, guztiec nahidute ibili eta egon. Baiña haserreorra, iauzcorra, bere eta bertceren galgarri da : halacoa ganic guztiac alderatcen dira, guztiec ihez egutien dute.

Nic ustedut ecen munduko ararteko guztiec eztegauquetela çure etsaia hala balaca, eta ez sosegan, pola cerorrec. Ordea nola, edo certçaz? Hitz onaz, errepuesta emeaz, beguitarte alegueraz, salutantzia arraiat, ongi mintçatceaz, eta guztiengainetic okhasinoa presentatzen denean ongi egypteaz. Hala erraiten du Iondone Pauloc : *Si esurierit inimicus tuus, ciba illum si sitil potum da illi ; hoc enim faciens carbones ignis congeres super caput ejus :* (2) Emoču ceure etsaiari gose denean iatera, eta egarri denean edatera. Ceren halatan bilduko ditutçu ikhatz biciac haren buruaren gaiñean. Erran nahi du : nola ikhatz biciec, elkharganatzen ditutçunean, sua pitzen eta eguiten baitute : hala etsaia baithan ere, eguiten derautçun ongiuec.

(1) Chrys. Hom. 7.

(2) Rom. 13.

eta cerbituec pitzen dute eta eguiten amoriaren sua, baquea, adisquidetasuna. Eta guztiz ere baldin cerori salutatcera, minçatcera eta present igortcera, aitcintcen bacara, harc etsaiari bihotça hautsten, eta arrobatcen dio; harc beguia arraitcen dio, harc impren-tuaz beçala bere mendecateeco gogoa bertee aldera igultcen dio.

Eta baldin faltac çureac badira, hobendun cerori bacara, orduan eñ cara obligatu aitcintcera, eta hitz esque iarraiquitcera. Eta faltac bertcerenac badira ere ongi eguinendu, eta iende prestuen eta iaincotiarren artean ongi aiphatua içanen cara, hequen alderacotçat ohore içanen duçu, eta ceure arimacotçat mericimendu, aiteintceáz cerbait desencusa bilhaturic, edo ahantz iduri eguinie, gaitz ondoric eracutsi gabe lehen beçala mintçatceaz, eta etsaiagana ioaiteaz. Handic guibelatcen eta iraunguitcen dira etsaitasunac. Bainha hi handi, ni handi, hisicaturic egoiteac, handitasunetan ibiltceac, amoreric ez emaiteac, guibelatcen du nehorc egui nahi duen ontasuna, besten eta trabatcen adisquidetecoo bidea.

§ 4.

Orai hunen gaiñan erranen duçu: baldin ihardetsi gabe utzten badut, ordainaren bihurteera enseyatcen ezpanaiz, edo neror agur eguitera aitcintcen banaiz, erranen dute eztheus bat naicela, beldur naicela, eguiac erran çaiqidala, eta halatan neure burnaz

tida içan gabez, hitz esque nabillala. Baiña baldin baten bia bilur badiatçot, eguin çaitan baino gogorquiango mintça hanaquio, erranen dute, guiçona naicela, ohoreaz preçatcen naicela, eta balentqui eguin dudala, sinhesten dut cenbaitec hala erranen duela ; baiña halacoa eta halacoac içanen dira guiristino gaichtoac, Iaincoaz baiño munduaz contu guehiago hari direnac.

Eta mundoeo contua ere eztote halacoec ongi atheratcen. Ceren munducotçat ere, guzia ongi pensatceria, ohoreago da etsaiari ongi eguitea gaizqui eguitea baino, ez ihardestea ihardestea baino. Ceren ez ihardesteaz, casuric ez eguiteaz, emaiten duçu aditcera eztuçula hobenic, baina etsaia mintço dela gaizqui, eta gaichtoqui. Hala dio San Chrisostomoc : *Quare enim dives, si pauper appetetur, ridet? Quia id falsum novit. Item si nos de injuria ridebimus, magnum erit argumentum quod falso reprehendimur :* (1) Cergatic este duçu ecen aberatsac eguiten duela irri, probe eta errumez deitcen dutenean ? Geren clar baita eztela hala, eztela errumez. Hala bada çuc ere etsaiaren erraej irri eguiteaz, edo ez deus ihardesteaz, emaiten duçu aditcera, eztaquicla cer mintço den, eguiatic athean dabillala.

Eta are guehiago, San Chrisostomoc berac dioen beçala : *Nihil sic confusionem facit gerenti mala, sicut fortis tolerantia patientis, neque in verbis neque in opere reddere vindictam :* (2) Deusez ere eztuçu hala

(1) Chrys. Hom. 48.

(2) Christ. super episto.

ahalquetuco ceure etsai gaizqui eguilea, nola pairatceaz, sentimenduric ez eguiteaz, erastera utzteaz. Nola harri bati, edo sentimenduric eztuen bertce gauça bati, colpeca derauntsanac, eguiten baitio bere buruari calte guehiago, eta hartan probetchu gabe unhatcen eta çathitzen baita: hala antsiaric eztuen bati, edo conturic eguiten eztuenari, bere maliciaz darauntsanac ere, emaiten dio bere buruari gaitz guehiago.

Egun batez galdeguin ceraucaten Dionisio Filosofoari ea certçaz eguin ahal ciçaion guicon batec bere etsaiari damuric eta atsecaberic guehiena? Eta ihardetsi quen hitz gutiz eta laburzqui: Prestu içaiteaz. Etsaiac nahi luqne bethi ere ediren çure baithan cebait falta; eta edireiten duenean, atsegui hartzen du; eta edireiten eztuenean, damu. Eta handic erraiten ohi da, gaizqui gobernatzen denac, faltatan erortzen denac atsegui eguiten dioela bere etsaiari.

Beraz goberna ongui, bici prestuqui, ez ceure burua abantailletan hartcera utz, ez ihardets, ez conturic eguin.

Ceren nola ur hotza baita eltcearen iraquinaren guelditceco erremedioa, eta bai sutic apartatcea, eta egurren edequitcea ere: hala da coleraren hotzeco eta iraunguitceco bigarren erremedioa, eltceari diraquie-nean eguiten dioçuna, ceure colerari ere eguitea.

XII. CAPITULUA.

*Coleraren iraunguitceco hirurgarren erremedioa: ez
orduan lehiatcea, colera iragan arteino pausatcea.*

HIRURGARREN erremedioa ez haserretceco, eta cole-
raren iraunguitceco edireiten dena da, Libio Philoso-
phoac bere discipulu Theodosio Emperadoreari eman
cioena, erraiten cioela : (1) Badaquit Emperadore
handia, cebait aldiz, haserretuco eta coleran iarrico
çarela; bada orducotçat eman nahi deratçut conseillu
on bat: Hala çarenean, ez quecha, ez lehia, ez bere-
hala abia, iguriqui aphurbat: ez, albaitceneça, deus
eguin ez erran; eta ez aitcina, A B C, eta hey darraiz-
ten bertce letrac erran arteño, edo hartaco bitartea eta
dembora iragan arteño; har, albaitceneça, hain bertce
asti eta pacientzia.

Hunetara dio Spiritu sainduac : *Ne proferas in jur-
gio cito* : (1) Ezteçaçula liscarrean ahotic hitza sit-
athera. Conseillu haur beror eman ceraucan bere na-
busi Atenedoro Filosofoac ere, etchetic partitceracoan,
Octavio Augusto Emperadoreari. Eta conseillua, hain
parte onera, hartu çuen Emperadoreac, non urthe bat
guehiago eduqui baitçuen etchean bere conseillariteçat.
Anhitz bertcec ere eguin du pensu haur, ediren du

(1) Aurel. Victor in vita Theod.

(1) Proverb. 25.

coleraren contraco erremedio haur: eracutsi du hitcez, eta obraz ere, on dela colerac diotsanaren aphur bat luçatcea, balantçan beçala eduquitcea, ez berehala deliberatcea. Ceren colera eta lehia eztira conseillari onac. Eta badio Senecac ere : *Magnum remedium iræ est mora* : (1) Hiraren mendecatceco desira desordenatuaren erremedio handia da, luçatcea, pausatcea, ez lehiatcea. Ceren Ciceronec dioen beçala : *Nunquam iratus mediocritatem illam tenebit quæ est inter nimium et parum* : (2) Eztu behinere guïçon haserretuac behar den neurria beguiratuko, peril da gutiz edo soberaz huts eguin deçan. Eta hala haserre çarenean, çaren beldur, çaudé guibela, eztoguiçula orduan gogoac diotsun gauçaric. Ceren orduan itsu cara, erho cara, nahaba cara, desarraçoiña ere arraçoiñ iduritcen çaitçu. Marinela dembora eder denean, bela eguiten du, baita tormentan gueldi dago. Hala bada cu ere, nola haserre çarenean dembora gaichtoa baita, tormenta baita, çaudé gueldiric, çaudé portuan, çaudé etchean, pauza eçaçu, ez deus eguin eta ez erran, dembora eder arteraiño, coleraren tormentac deraueiño. Ceren Menandroc doen beçala : *Omnia quæ iratus agis, post modum errata invenies* : Haserreturic eguiten duçun guztia, edireneng duçu, ondoan, gaizqui eguna dela. Eta badio Senecac ere : *Finis iræ initium*

(1) Senec lib. 2 de ira cap. 34.

(2) Cicero lib. 1. Officio.

est penitentia: (1) Hiraren eta coleraren fina, eta akhabatcea da, urriquimenduaren hastea.

Herodes icen hunetaco lehenbicico Erregue Ientil harc, (2) hil çuen Mariamnes bere emaztea coleran, ielosiaz, gogan behar batez; eta hain arinqui, laburqui eta lehiatuqui, non munduac iaquin çueneco, egun baitcen colpea. Bainu guero colera hotzturic eta hobequi arguiduturic, iaquin çuenean egua, eta içan segurantça hoben gabe hil çuela, hain dololu eta atsecabertzatzen cen, eta ethorri corrataceo pontura, non guero bere etcheco çokho guztietan, bere icenaz deitzen çuela, bere emaztearen bilha, oihuz baitcebillan: hartan bere leheneco erhoqneriaren gainera, bertze bat eguiten çuelaric.

Coleran çarenean eguiten duçu anhitz erhoqueria, eta guero colera hora ioan çaitçunean, ethorteen çaitçu, erhoqueria hequen urriquia eta egun ezpacinitu nahia. Eta are, lehen bertceren contra haserretcen cinen, orduan (Senecae diocn beçala) ceure buruaren contra haserreteen cara : *Iratus, cum irasci desierit, tunc irascitur sibi.* (3) Haserrearen obrac eztira behin ere complituac, bethi dira cerbaiten escas, hartçaren eta oraren umeac diren beçala. Ceren amac diren coleratsu, halatan dira umeac ere faltatsu : hartçarenac tronço bat beçala eta orarenac itsu sortzen baitira.

(1) Seneca, lib. 2 de ira. c. 34.

(2) Joseph lib. antiquit. Judaearum, cap. 9.

(3) Senec. prover.

Laudatcen da Archita Tarentino hura, ceren bere burua coleratua eçaguturic, erran baitcioen bere lagun bati : *Cederem te nisi irascerer* : (1) Ceha intçaquet, baldin haserre ezpanintz. Erran balio beçala : Esquer emoc ene coleran egonari, ceren bertcela hartuco ituen egun heureac. Laudatcen da halaber Platon famatu hura, ceren bere adisquide bati, ceha araci baiteraucan bere muthila, beldurrez berac bere coleran barrenegui sar citçan escuac. Ikhusaçu nola Filosofo hec, guiçon çultur, adimentutsu hec beguiratcen ciren bere haserreduretan ; nola beldurtasun handi batequin gobernatcen ciren bere coleretan. Ceren baitciaquitzen ecen guiçon coleratua, erho baten pare cela, etcegoela bere baithau. Halatan dio San Basilioc : *Momentanea quædam insania est ira* : (2) Erhoqueria labur bat dela hira, edo colera. Eta uste çuen Platonec ere ecen guiçon haserrearen, eta adimendutic iauciaren erhoqueriac, etçuela bertce differentiaric, batagutiago eta berceac guehiago irautea baicen. Ceren aserretuari, fitetzago iragaiten baitçaica bere haserretasuna, erhoari bere erhotasuna baino. Bainaz gainera-coan, bata haserre eta bercea erho diren bitartean, hain ongui lot, uzcal eta amarra ahal deçaquete bata nola bertcea. Ceren orduan biac baitira berdin, biac baitira erho.

Eta nola baita erhoqueria handia, erhoari, adimen-

(1) Lact. de ira cap. 18.

(2) Basil. hom. de ira.

dutic iaucia dagoenari predicatcea, conseillu emaitea, eta چuhurcieaz mintçatcea : hala da halaber, erhoqueria ez tipia, colera handi batean itsutua eta iraquitua dagoenari, hala dagoencan, abenicoaz mintçatcea, bere etsaiari barkha diaçola erraitea. Ceren bere hero har-tan, coleraren lehenbicico apoderan, abiaduran eta in-darrean, ezta bere buruaren iaun eta ez iabe. *Nec ira consilii est repletus capax :* (1) Coleraz betheric dagoen, ezta conseillu hartceco gai. Aitcitic baldin or-duan, nehorc halaco gauçaric, abenicoazcoric aiphabadiaço, aiphatceaz beraz ere errabiatcen da, erratcen da, arneguz eta iuramentuz hasten da. Eta hala baldin haserre direnen, eta haucitan dabilçanen artean, on-gunderic eta abenicoaric eguiñ nahi baduçu, ez bere-hala lehenbicico egunean eguiñ, utzquitçu, baldin nahi baduçu colpea seguratu, aphur bat hotztera, unhatcera eta elkharen biphiltcera. Ceren midicuac ere eztio eritasunari, goren pontuan denean, ecin berteez baicen purgaric emaiten.

Beraz hunelatan on da, Libio Philosophoac eman çuen conseilluaren hartcea, haserre denean aphur bat iguriquitcea, cebait demboraren, deus eguiñ gabe, iragaitera utztea. Ceren Stacio Poetac dioen beçala : *Da spatium tenuemque moram, male cuncta ministrat impetus :* Lehiac, colerac eztu gauçaric ongi eguiten, guztiac hasten tu gaizqui, eta akhabatcen gaizquiago. Utzi behar da beraz aphur bat hotztera, eta iragaitera.

(1) August. ad fratres in Eremo.

Ceren haur da coleraren iraunguitceco hirurgarren erremedioia, harc diraueino ez deus eguitea, pausatceratutztea.

XII CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco laur garren erremedioia : consideralcea, etsaiac eguiten derauzquiguten bidegabec Iaincoaren gaztiguac direla.

Laur garren erremedioia coleraren iraunguitceco eta etsaiac eguiten derauzquigun bidegaben ere pairatceco, da Iaincoaren ordenamenduaren consideratcea, eta pensatcea, etsaiac eguiten derauzquiguten atsecabeac Iaincoaren escutic heldu direla, harc permittitzen dituela, haren gaztiguac direla. Hunen arauaz erran cioen gure Salbatçailleac berac, heriotce erreccibitceracoan, londone Petriri : *Calicem quem mihi dedit Pater, non vis ut bibam illum?* (1) Eztu nahi neyre Aitac eman derautan caliza edan deçadan? Heriotce erreccibi deçadan? Harc ordenaturic dadutçan penac eta nequeac, paira ditçadan? Iaincoaren ordenamendu huni behatzen cioen, Erregue David sainduac, Semey ceritçan batec maradicinoac egozten cerautçanean, eta hala erran cioen Abisairi, maradicino hequen egotzlea gaztigatu nahi çuenari : *Dimitte illum ut maledicat*

(1) Ioan 18.

Ceren haur da coleraren iraunguitceco hirurgarren erremedioia, harc diraueino ez deus eguitea, pausatceratutztea.

XII CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco laur garren erremedioia : consideralcea, etsaiac eguiten derauzquiguten bidegabec Iaincoaren gaztiguac direla.

Laur garren erremedioia coleraren iraunguitceco eta etsaiac eguiten derauzquigun bidegaben ere pairatceco, da Iaincoaren ordenamenduaren consideratcea, eta pensatcea, etsaiac eguiten derauzquiguten atsecabeac Iaincoaren escutic heldu direla, harc permittitzen dituela, haren gaztiguac direla. Hunen arauaz erran cioen gure Salbatçailleac berac, heriotce erreccibitceracoan, londone Petriri : *Calicem quem mihi dedit Pater, non vis ut bibam illum?* (1) Eztu nahi neyre Aitac eman derautan caliça edan deçadan? Heriotce erreccibi deçadan? Harc ordenaturic dadutçan penac eta nequeac, paira ditçadan? Iaincoaren ordenamendu huni behatzen cioen, Erregue David sainduac, Semey ceritçan batec maradicinoac egozten cerautçanean, eta hala erran cioen Abisairi, maradicino hequen egotzlea gaztigatu nahi çuenari: *Dimitte illum ut maledicat*

(1) Ioan 18.

juxta praeceptum Domini: (1) Utzaçu maradica naçan launaren manuaren arauaz. Ceren ez leçaque ez guïçon horrec, horrelaco ausartciaric har, baldin Iaincoac permititzen eta escu emaiten ezpalio, utzaçu beraz berra nahi duen guztia; compli beça Iaincoaren manua eta ordenamendua.

Etsaiac Iaincoaren açoteac eta cigorra dira. Etsaiac Iaincoaren iusticiaren muthilac, eta borreroac dira. Beraz ezcara hequen contra haserretu behar. Ceren cer hoben du açoteac? Cer culpa du borreroac? Baldin presuna batec, hautsten baderatçu harri batez burua, cer falta du harri harc? cergatic eman behar dioen harri hari colperic? Orac eguiten du hori, presuna utciric, lotcen baitçaina harriari.

Erran ciotenean Job sainduari haren ardiac, camelliac eta bertce onac ere ioan cituztela ohoinec, etcen batere haserretu eta ez arrencuratu ohoinen contra. Ceren baitciaquien ecen ohoin hec Iaincoaren iusticiaren muthilac cirela, eta ceren laincoac permittitu baitcerauen, bere ardiac eta gaiñeraco onac ere ioan cerrautçatela. Eta halatan ohoinez contu guti eguinic, erran quen: *Dominus dedit, Dominus abstulit, sicut Domino placuit ita factum est, sit nomen Domini benedictum*: (2) Iaunac eman, Iaunac edequi, Iaunac placer quen beçala eguin da, biz bâda launaren icena beneditatu.

(1) 2 Reg. 16.

(2) Job. 1.

Ikhusten duenean haurac bere amaren escuan cigerria eta hartçaz eman nahi dioela, behatzenago dio amari, cigorrari baiño. Ceren baitaqui ecen, baldin amar nahi ezpadu, eztioela cigorrac minic egunen. Hala bada gure ere etsaiac ditugunean, eta hec calteac eta bidegabear eguiten, edo egun nahi derauzquigutenean, behatuago behar diogu Iaincoari, eta haren misericordiari, etsaiey baiño.

Ceren etsaieec, baldin Iaincoac permittitzen ezpaderaue, eta guibelatu nahi baditu, ezpaiteracute calteric egunen. Eta halatan erran cioen gure Salbatçailleac ere Pilatosi : *Non haberes in me potestatem, nisi datum esset tibi desuper :* (1) Etcenduen ene gaiñean escuric eta ez bothereric içanen, baldin eman ezpalitzaitz han goititic.

Ceure etsaieec anhitz bidegabear eguiten deratçute, eta ikhusten tu Iaincoac bidegabear hec, badaquizqui, eta nahi balu ezliaçaiçute halacoric egun, debeca litçaque : ordea eztu debecatzen. Ceren San Agustinec dinen beçala : *Cum Deus adversis rebus exagit, aut merita examinat, aut peccata castigat, aut mercedem mihi aeternam pro malis toleratis servat :* Ceure etsaieec eguiten darauzquitzen bidegabear hetçaz, edo nahi ditu Iaincoac çure obrac eta merecimenduac, ea finac eta eguiazcoac direnz frogatu, eta examinatu ; edo çure bekhatuac hemen, bertcetan ez gaztigatceagotic, gaztigatu ; edo finean hequen pairamenduaz, eta

(1) Ioan 19.

sofrimenduaz, hec pacientqui pairatcen eta sofritcen ditutçula, pagamendu handi bat, ceruco loria eman.

Etsaiac eta fortuna gaichtoac ditutçunean, bidegabec eguiten derauzquitçutenean, orduan behar dio-
eu laincoari behatu, hartçaz orhoitu, harequin conso-
latu, eta ceure baithan pensatu, hec guztiac Iaincoac
igortcen derauzquitçula; eta noiz eta mundu huneta-
cotçat baitihoaçtu gaizquienic, orduan dihoaçula bert-
ce munducotçat hobequienic: Eta Iaincoac uste balu
etçarela harentçat içanen, halaco penaric, eta atseca-
beric ez liaçaiçula eman, baina utz cinitçaqueyela,
nahi duçun guztiaren eguitera, eta ceure placerara bi-
citcera.

Midicuac etsituz guero, esperantça galduz guero,
uzten dio eriari nahi duenaren eguitera, nahi duen
beçanbat, nahi duenetaric iatera eta edatera, eztio
deus debecatcen, ceren etsitu baitu. Baiña duenean es-
perantça sendatuco dela, debecatcen derautça erdi-
gauçac, aphetu guti utzten dio complitcera. Halabada-
gure Iaungoicoac ere, bekhatore eriari, esperantçatan-
denean sendatuco eta salbatuco dela, debecatcen dio
anhitz gauça, ezterautça bere placer guztiac complit-
cera utzten, emaiten dio anhitz purga, eta malenconia;
nahi du, dituen etsaiac, eta eguin diatçoten bidega-
becac. Eta hora guzia da, seinale ona: ceren hartan da
agueri, eztuela oraiño Iaincoac hartçaz etsitu, eztuela
gogatu, eta ez esperantça galdu.

Eta hau da consolamendu handia, etsaiac dituena-
ren, eta bidegabec errecibitcen ditu enarentçat: ia-

quitea eta consideratea, hec guztiac Iaincoaren purgac eta açoteac direla, eta guztiac haren probetchutan direla; eta hala ez etsaiaganic baina Iaincoaganic, adisquide guztien gaineco adisquideaganic, heldu direnac beçala, erreccibitu behar dituela.

Eta baldin hala erreccibi balitça, eta baguinitxa, ez quindezque, eguiten garen beçala, etsaiaren contra colera, eta ez gueure baithan barren ere egos eta malenconia.

Erranen duçu menturaz, etçarela ez haserretcen etsaiaren contra, eguiten edo erraiten derauzquitçun gaizquiacgatic, eztuçula bargatic gaitzesten, ceren badaquicula hec guztiac Iaincoac permittitzen dituela. Baiña gaitzesten duçula bere intencione gaichtoagatic, borondate uherragatic. Ceren çuc hari okhasinoric eman gabe, eta bidegaberic ere eguin gabe, guztiarequin ere hala darraitçun, eta gaitz nahi deratçun. Hunela erraiten duçu, ez ordea ongui. Ceren çuc eztuçun behatu behar, ceure etsaiaren borondate gaichtora, baina behatu behar duçu ceure Iaincoaren borondate borondatetsura. Ceren haren borondatea, eta chedea da etsaiac eguiten derauzquitçun gaizqui hetçaz çuri ongui eguitea: hetçaz nahi çaitu orai hemen penatu, guero bertcetan ez penatceagatic.

Cauri gaichto bat, burdin gorriaz io gabe ecin senda ditequeyena, duçunean, baldinba etçara burdin gorriaren contra haserretuco, ceren erratzen çaituen, eta min eguiten deratçun? Baldinba etçara hain erhoicanen? Bainan patientqui pairatzen duçu, ceren baita-

quiçu ecen burdina hura erabiltzen duen barberaren chedea eta borondatea ona dela, cein baita principala. Hala da bada çure Iaincoaren borondatea ere, ona eta onera emana, çure etsaiarena gaichtoa eta nola ahalezcoa içanagatic ere. Beraz Iaincoaren borondateari behatu beharçaica, eta ez etsaiarenari.

Eta baldin haur hunela estimatzen, eta pensatzen badugu, (nola egun behar baitugu, ceren hala baita egui), gueure baithan sosegatceco, eta etsaiac eguiten derauzquin calteacgatic ez aserretceco, eta coleraren iraunguitceco, erremedio handi bat edireneng dugu.

XIII CAPITULUA.

*Coleraren iraunguitceco bortzgarren erremedioa:
consideratcea cer moldez dagoen çure etsaia, haserre denean.*

COLERAREN iraunguitceco, etsaiaren contra ez haserrelececo, eta mendecatetic ere guibelatceco, erremedio ona da, consideratcea nola, cer moldez, eta cer estatutan dagoen çure etsai hura, haserre denean, mendecatu nahiz coleratua, çutçaz gaizqui erraiten duela dabillaneau. Eta edireneng duçu (lehen ere adit-cera eman den beçala) orduan çure etsai hura, itsu dela, erho dela, cençutic eta adimendutic campoan dela. Beraz nola, baldin bacendu anaia bat erhoa, adimendutic iaucia, eta harc anhitz gaizqui egun eta

quiçu ecen burdina hura erabiltzen duen barberaren chedea eta borondatea ona dela, cein baita principala. Hala da bada çure Iaincoaren borondatea ere, ona eta onera emana, çure etsaiarena gaichtoa eta nola ahalezcoa içanagatic ere. Beraz Iaincoaren borondateari behatu beharçaica, eta ez etsaiarenari.

Eta baldin haur hunela estimatzen, eta pensatzen badugu, (nola egun behar baitugu, ceren hala baita egui), gueure baithan sosegatceco, eta etsaiac eguiten derauzquin calteacgatic ez aserretceco, eta coleraren iraunguitceco, erremedio handi bat edireneng dugu.

XIII CAPITULUA.

*Coleraren iraunguitceco bortzgarren erremedioa:
consideratcea cer moldez dagoen çure etsaia, haserre denean.*

COLERAREN iraunguitceco, etsaiaren contra ez haserrelececo, eta mendecatetic ere guibelatceco, erremedio ona da, consideratcea nola, cer moldez, eta cer estatutan dagoen çure etsai hura, haserre denean, mendecatu nahiz coleratua, çutçaz gaizqui erraiten duela dabillanean. Eta edireneng duçu (lehen ere adit-cera eman den beçala) orduan çure etsai hura, itsu dela, erho dela, cençutic eta adimendutic campoan dela. Beraz nola, baldin bacendu anaia bat erhoa, adimendutic iaucia, eta harc anhitz gaizqui egun eta

erran baliaçaçu, eta bere buruari ere cenbait colpe gaichto eman baliaço, damuago haitcenduque, ceure anaia haren calteaz, eta haren hala içaiteaz, eguiten eta erraiten derauzquitçun bidegabe guztiez baiño : hala halaber behar duçu içan damuago çure etsai, colerac erauciric dagoen harc, bere buruari eguiten derautçan caltez, çuri eguiten derauzquitçunez baino.

Haur hatec, edo sukharrarequin naħasiric dagoen batec, edo cein gauça erranagatic, etçara batere assaldatcen, eta ez ceure sosegutic cantitcen. Ceren baitaquiçu ēcen hec eztaquitela cer mintço diren, eta ez cer hari diren. Hala bada coleran dagoenac ere, eztaqui cer mintço den, eta ez cer hari den. Eta halatan halacoagatic, eta halacoacgatic, egnin cioen othoitz gure Salbatçailleac bere Aitari, erraiten cioela : *Pater, ignosce illis quia nesciunt quid faciunt* : (1) Aita, barkha iaceçu, eztaquite cer hari diren ; ceren coleran baitaude. *Cogita quod non est in se qui vituperat, sed insanit; et non moleste feres contumelias ipsius*, (2) dio San Chrisostomoc, pensa eçacu eztagoela bere baitan gaizqui erraiten hari dena, baina adimendutic campoan dela, eta baldin hala pensateen baduçu, errazqui pairatuco ituçu eguiten derauzquitçun bidega-beac. Presuna haserretuac eztu bere burua eçagutcen eta ez nehor ikhusten, itsu da. Eta itsuac incontru ioitea, eta iragaitean aurizquitcea ezta miretsteco ;

(1) Luc. 23.

(2) Chrys. hom. 79.

oñara hargatic haserretu behar ; eta haserretcecotz ere, ceure buruaren contra hasterretu behar cara eta ez itsuaren contra, eta ez coleran dagoenaren ere ; ceren cu baitcara argui eta hura itsu ; cu چuhur eta hura erho ; cu ceure tentuan eta centquan , eta hura handic athean, eta campoan. Beraz paira beça چuhur-rac erhoa, arguiac itsua, eta coleraric eztuenac cole-ran dagoena. Haur da erremedio ona, etsaiari bar-khatceco, eta pairatceco, haren egun erranez contu-ric ez eguiteco : nola, eta cer moldez dagoen, coleran dagoenean, consideratcea.

XIV CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco seigarren erremedioia ; ez bilhatcea cer dioten gutxiz iendec.

BERE soseguan egoiteco, assaldatu gabe eta haser-retu gabe bicitceco, ezta bide gaichtoa, gutxaz iendec cer erraiten duten ez bilhatcea eta ez galdeguitea. Hala erraiten du Senecac : *Non expedit omnia vi-dere, omnia audire ; multae injuriae nos transeant, ex quibus plerasque non accipit, qui nescit :* (1) Ezta compli, ezta on gauça guztien iaquitea, ikhustea eta ez ençutea : iragan bedi anhitz gauça, gue iaquin gaberic, cer-en eztaquienae eztu damuric hartzen.

Nahi baduçu sosegu onean , eta haserretu gabe

(1) Seneca, lib. 3. de ira, cap. 11.

oñara hargatic haserretu behar ; eta haserretcecotz ere, ceure buruaren contra hasterretu behar cara eta ez itsuaren contra, eta ez coleran dagoenaren ere ; ceren cu baitcara argui eta hura itsu ; cu چuhur eta hura erho ; cu ceure tentuan eta centquan , eta hura handic athean, eta campoan. Beraz paira beça چuhur-rac erhoa, arguiac itsua, eta coleraric eztuenac cole-ran dagoena. Haur da erremedio ona, etsaiari bar-khatceco, eta pairatceco, haren egun erranez contu-ric ez eguiteco : nola, eta cer moldez dagoen, coleran dagoenean, consideratcea.

XIV CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco seigarren erremedioia ; ez bilhatcea cer dioten gutxiz iendec.

BERE soseguan egoiteco, assaldatu gabe eta haserretu gabe bicitceco, ezta bide gaichtoa, gutxaz iendec cer erraiten duten ez bilhatcea eta ez galdeguitea. Hala erraiten du Senecac : *Non expedit omnia vi-dere, omnia audire ; multae injuriae nos transeant, ex quibus plerasque non accipit, qui nescit :* (1) Ezta compli, ezta on gauça guztien iaquitea, ikhustea eta ez ençutea : iragan bedi anhitz gauça, gue iaquin gaberic, ceren eztaquienae eztu damuric hartzen.

Nahi baduçu sosegu onean , eta haserretu gabe

(1) Seneca, lib. 3. de ira, cap. 11.

egon, ez sobera galde, ez sobera bilha. Bilha dabillanac ediren du, eta batean ezpada bertcean, bere burua eguitecotan ibenico du. Ezta on barrendari içai-tea, ezta on celatan egoitea, eta ez iragaiten diren gauça guztien iaquitea. Anhitzetan ere ekhartcen de-rauzquigute elha-berriac, erran-merranac, ençuten dugu cer dioten urliac eta sandiac, hunelacoc eta halacoc, eta gueroc ere desiros gara iaquitera. Baiña guero iaquin dugunean, edireiten dugu nahi eztuguna: eta guero handic iauzten, eta coleratzen gara. Eta are orduan anhitz gauça egun nahi dugu, gueure ohoreagatic, baldin iaquin ezpaguendu, ezpaiquinen halaco eguitecotan içanen. Eta hala hobe da anhitz gauçaren ez iaquitea.

Eta are guehiago iaquinagatic ere, on da disimulatcea, ez iaquin iduri eguitesa, ez iabetcea, ez bere gainera hartcea, edo desencusatcea. Erregue Saulez, erreguetu berrian, mintzo ciren iende batzu gaizqui, eta hain hurhil eta hagultz, non Erregue herac aditzen baitcitenen. Ordea burua bertee alderat itzuli, eta disimulatu quen, ez aditu iduri egun quen: *Dissimulabat se audire.* (1) Eta halatan, handic pitx abal citequeyen su guztia iraungui quen.

Egun batez Arquelao erregueari, (2) carrican iragaiten cela, aurthiqui cioten cenbait ur burutic behera; eta eztaquigu ala uste gabean, ala berariaz. Baiña com-

(1) Reguin, cap. 40.

(2) Plutarchus in Aphoten.

painiacoac hasi ciren erraiten, hora cela ausartcia handia, eta baldin gaztigatzen ezpacen, hurrenecoan guehiago egunen çutela. Ordea berehala Erreguec berac sosega araci cituen, erraiten çuela : *Non me respersit* : Euçue baquea, ezta bidegaberic egun : ur haur aurthiqui duenac eznau ni busti, ceren etciaquien ni nintzela. Eçuen bere gaiñera hartu, eta halatan hobequia go eta errazquiago erremediatu çuen, eta iraungui pitztera cihoan sua.

Vespasiano Emperadoreac hain çuen condicione ona, eta onera emana, ecen nahi etçuen beçala, edo haren presunari etcegocan beçala, nehor mintçatcen ceicanean, edo disimulatecen çuen, edo cenbait hitz iocolariz eta dostailuz, cenbait irri eguiteco solhasez edertateen çuen ; eta guero bere cegocan ohorearequin, deus galdu gabe, guelditcen cen. (1)

Hala Erregue Antigonoe ere, ediren baitcen egun hantez, eçagutua eteclaric, hartçaz gaizqui mintçö ciren compaiñia batetan, erran cerauen : *Longius discedite, ne nos Rex audiat* : (2) Çoazte urrunago, Erreguec adi etçaiçaten. Beraren contra mintçö ciren, eta berac aparta citecilla erran cerauen ; eta handic, bera laudoriorequin, eta berteeac ahalquetuac, guelditu ciren. Ia quinez guero, ençunez guero, eta entçunari iabeturic, bere gaiñera hartuz guero, gaitz da coleratu gabe, mendecatcerarenseyatu gabe, colperic egun gabe, edo

(1) Aurel. Victor de *vitis Imperatorum*.

(2) Senec. lib. 2, de ira cap.. 22.

haucitan eta eguitecotan sartu gabe guelditcea. Cer erremedio bada, hautaric guztiotaric escapatceco? Ez deus galde, ez bilha, ez iaquin; eta iaquinez guero ere, eguin ez iaquin iduri, disimula, ez eguitecoari iabe, ez bere gainera har, eguin bere burna itsu, mutu, eta gor. Haur da erremedio ona coleraren iraunguitceco, bere burnari eguitecoric ez emaiteco, differenciatan nehorequin ez sartceco, eta baquean, eta soseguan, coleratu gabe egoiteco.

XV CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco, gainerako bertee erremedioac, laburzqui ecarriac.

§ 1.

PAIRU, eta pacientzia içaiteeo, bata bertcearequin ez haserretceco, considera deçagun, ecen Adamen seme guztiac, eta guztiz ere guristinoac, bat garela, eta gorputz bat eguiten dugula, eta gorputz hunen buru, Iesu-Christo gure Salbatçaillea dela. Hala, erraiten du Iondone Pauloc: *Unum corpus sumus in Christo Jesu, singuli autem alter alterius membra:* Gorputz bat gara Iesu Christo baithan, eta bata bertcearen miembro, eta parte. Beraz hunelatan elkar onhetsi behar dugu, gorputzeco miembroec, eta partec elkar onhesten duten beçala.

Gorputzeco miembroetan ezta bekhaizteriaric, eta ez mendecurie. Oinac cerbitçatzen du escua, eta escuac

haucitan eta eguitecotan sartu gabe guelditcea. Cer erremedio bada, hautaric guztiotaric escapatceco? Ez deus galde, ez bilha, ez iaquin; eta iaquinez guero ere, eguin ez iaquin iduri, disimula, ez eguitecoari iabe, ez bere gainera har, eguin bere burna itsu, mutu, eta gor. Haur da erremedio ona coleraren iraunguitceco, bere burnari eguitecoric ez emaiteco, differenciatan nehorequin ez sartceco, eta baquean, eta soseguan, coleratu gabe egoiteco.

XV CAPITULUA.

Coleraren iraunguitceco, gainerako bertee erremedioac, laburzqui ecarriac.

§ 1.

PAIRU, eta pacientzia içaiteeo, bata bertcearequin ez haserretceco, considera deçagun, ecen Adamen seme guztiac, eta guztiz ere guristinoac, bat garela, eta gorputz bat eguiten dugula, eta gorputz hunen buru, Iesu-Christo gure Salbatçaillea dela. Hala, erraiten du Iondone Pauloc: *Unum corpus sumus in Christo Jesu, singuli autem alter alterius membra:* Gorputz bat gara Iesu Christo baithan, eta bata bertcearen miembro, eta parte. Beraz hunelatan elkar onhetsi behar dugu, gorputzeco miembroec, eta partec elkar onhesten duten beçala.

Gorputzeco miembroetan ezta bekhaizteriaric, eta ez mendecurie. Oinac cerbitçatzen du escua, eta escuac

oina. Oinari, behaztopatuagatic, eztio escuac colperic emaiten. Hortzec mihiac autsiquitcen dutenean, nore hargatic atheratecen tu hortzac? Beguiac leku goragoan daude oinac baino, ordea hargatic, beguiec ecertan dadutçate oinac, eztimatcen tuzte, eztuzte arbuiatcen. Aititic ahal daguiten guztia elkarri laguntcen çaitça, eta baldin eguiten ezpaçaitça, bere caltetan falteteen dute. Ceren baldin beguiec arguitcen ezpaderautca oiney, oinac behaztopatuco dira, eta beguiac iracico. Sabelac iaten ezpadu, çangoac flacatuco dira, eta bai sabela bera ere ihartuko. Ez laguntcea, bat bederac bere caltetan eguiten du. Eta halatan haur ikhusiric guziec elkar daducate, elkarri laguntcen çaitça elkar onhesten dute. Eta batac bertceari cerbaitetan huts eguinagatic, elkarri pairatcen eta barkhatcen diote. Hala bada gue ere elkarri pairatu eta barkhatu behar diogu, eta amorio eduqui, ceren gorputz bat, eta gorputz batetaco miembroac, eta parteac baicara.

§ 2.

Halaber coleraren iraunguitceco on da, cerbait lani lotcea, bertcetan pensatcea, gogoaren aldatcea. Hala erraiten dute eguiten çuela Climas ceritçan batec, coleraren eritasunaz uquitua sentitcen cenean, aldatcen cela, bertce eguitecotara, soinuz, eta cantuz hasten cela, eta halatan bere gaitza eta colera ahantzten ceiteala, eta sosegatua guelditcen cela. (1)

(1) *Elianus.*

Halaber erremedio ona da coleraren guibelatceco, consideratcea, ceure ere anhitz huts eta falta eguiten duçula, baina hargatic eztuçula ceure burua cehatcen, eta ez penatcen. Erremedio haur uquitu çuen Senecac, erran çueanean : *Poterit non irasci, statim utique si sibi tacitus ad singula quibus offenditur, dixerit : hac et ipse commisi :* (1) Badagoque haserretu gabe bidegabean errecibitcen dituena, baldin orduan berean, erraiten badio icibilic bere baithan bere buruari : Nic neronec ere egun nuen noizbait hunein bertce. Eta badio San Gregorioc ere : *Quasi aqua ignis extinguitur, cum surgente furore animi, sua cuique ad mentem culpa revocatur. Quia erubescit peccatis non parcere, qui Deo vel proximo, saepè se recolit parcenda peccasse :* (2) Ura suaz iraunguitcen den beçala, iraunguitcen da colera ere, bat bederac bere falten gogorateceaz. Ceren ahalquetcen da, edo ahalquetu behar luque, bertceri ez barkha-teez, berac barkhaquiçun guehiago, edo hain bertce duenean. Ezta çuhurtzia, faltetan erortcen denac, faltetan erortcen denaren gaitzestea, eta gaztigatecea. Ceren hafiatan berac ere bere burua, gaitcetsi eta gaztigatu behar bailuque.

§ 3.

Halaber coleraren iraunguitceco on da, adisquide baten, Mecenas baten aldacan içaitea ; bare limburtcera

(1) Senee. lib. de ira cap. 28.

(2) Grego. in Mor. lib. 5.

çohacinean, colerac itsuturic erhoqueria baten eguitera çaramatcinean, capatic thira çaitçan, abisa çaitçan, eta erortcetic beguirea çaitçan. Gniçon bat cihoan behin bere gogoz bertce baten hiltcera, eta ikuhsiric bere adisquide batec, nola cihoan, galdeguin ceraucan : Norat çoaaz horrela harmaturie ? ihardetsi cioen : Hunelacoren, urlaren hiltcera noha. Eta cer içanen da, baldin hare çu hiltcen baçaitu ? Ez nintcen horretçaz orhoitzen. Adisquideac orhoit araci çuen, eta orhoituric guibelat bihur araci çuen.

Anhitzetan eguin cioen officio haur Mecenas bere adisqnideac Augusto Cesar Emperadoreari; eta guztiz ere egun batez, Emperadore harc, colerac itsuturic eman baitçuen sentencia gaichto bat, eta haren aranaz iende bandia baitceramaten galtcera, esquiribatu cioen Mecenas bere adisquideac, etaigorri escutic escura, hera iend'arteau urrun egonez, guthun labur bat, erraiten cioela. *Surge carnifex* : (1) Iaiqui adi carnacera, ikuhsac cer hari aicen borreroa. Emperadoreac buthun hura hain laburra, eta cinezcoa errrecibitu çuenean, norc eguna cen icenic ezpaçuen ere, eçagatu çuen bere adisquidearen letra eta escua; hartu çuen parte onera, eta berehala, bere falta eçaguturic, colerac eraquin ceraucala ikuhsiric, barkhatu cerauen guztiey. Anhitz balio du adisquide leyal baten here compainian içaiteac, harc eguiac erran diatçon, eta deus erran gabe ere, ukhondoaz utqui deçan edo beguiaz kheinu eguin

(1) Donat. 2. Annal.

diacon. Ceren batçutan guehiago eguiten du kheinuae, mihiac baiño. Gauça baten eguitera çohacinean, eta ceure adisquideac eztoguiçula, erraiten deratçunean, ez albaitcinegui, guibela albaitcindeci. Ceren comunzqui orduan hobeqni dacusa çure adisquide harc çuc baiño. Ceren çu nola baitçauda deliberatua, eta bai batçutan pasionatua eta itsutua ere, eztu den guztia ikhusten. Baiña çure adisquideac eztu pasioneric, argui ditu beguiac; harc den beçala eta behar beçala ikhusten du.

Etçait egundaiño neure adisquidearen abisuaren contra, eguin dudan gauçaric, ongi guerthatu. Midecuac ere, munduko hoherena bada ere, eritcen deñean, bertce midicuen escuetan utzten du bere burua, bertceren abisuz eta ordenantçaz midicinatcen, eta erreçaitatcen da. Bada coleran dagoena eri da: beraz nahi bado sendatu, beha bequio bere adisquideari, goberna bedi haren conseilluz eta abisuz, ceren halatan ediren da ongi, eta ez bertcela.

Finean ez coleratceco, eta colerac dioscun gauçaric ez eguiteco, oraicotz azquen erremedioa da, consideratcea, eta gueure baithan barrena pensatcea, cein gauça ona, placenta eta ondore onetacoa den, ez ihar-duqnitcea, mendecu bilha ez ibiltcea, baquean egoitea. *Quis enim labor est fratri indulgere conturbanti? Labor quidem in remittendo nullus, in retinendo autem inimicitias maximus; siquidem iracundia liberari, maximam reddit menti quietem, et valde hoc est facile volenti. Neque enim necesse est maria transfretare, nec*

longi itineris peregrinationem subire, nec montium excelsa ascendere, nec pecuniam impendere, nec corpus intendere, sed sufficit velle tantum modò. (1) Cer trabaillu da etsaiari barkhatcea? Ez batere, dio San Chrisostomoc. Ceren ezta hartacotçat itsasoric iragan behar, ez bidean ibili, ez mendian gora igan, ez diruric gastatu, ez gorputzic higatu, eta ez bertce trabailluric hartu; nahia behar da, eta ez bertceric. Baino eguteco handia da eta penagarria ez barkhatcea, ea nondic edo nola mendecatuco den bethiere gogoetan egoitea. Eta ezpere hecalde itçatçu, eta comunzta elkharrequin, etsaitasunean eta mendecatceco desiran ibili çaren dembora, eta etsaitasunic gabe, baquean egon çarena, edo çaudena: eta iklusico duçu cer differencia den bien artean, cenbat dohan batetic bertcera. Edirenene duçu ecen, lehen anhitzetan ere, compainia batçuetaric aldaratua behar cenducla, ceren han guerthatcen baitcen cenbait çure etsai. Ihalaber edirenene duçu, lehen cinela guerlan, eta orai çarela, bictoria erdietsiric, baquean. Ceren San Chrisostomoc dioen beçala: *Victoria contra iram est quidem maxima, non cum injurias ulciscimur sed cum eas aequo animo toleramus:* Etsaitasuneco bictoria, eta garaitia eztago ez mendecatcean, eta ez ordainaren bihurtcean edo doblearen; baina dago barkhatcean, eta bidegahen patientqui pairatcean. Ceren orduan ceure etsaia, ceure burua, eta deabrua ere garaitzen baitituçu; ere arima

(1) Chris. sem. 21.

eta gorputça ere baquean, soseguan eta segurean ibentzen. Cein baita gauça handia, laudatecoa, eta lehen baino lehen gueroco beguira egon gabe, etsaitasunaren utzteco, lehenen gainera erremedio ona, eta consideratcecoa.

XVI CAPITULUA.

Cergatic behar diogun gueure etsaiari baratu eta amorio eduqui. Lehenbicico arraçoina : Ceren Iain-coac manatcen bailtu.

ERRAN dugu cenbat calte eguiten duen mendecatceco desira desordenatuac, eta handic sortzen den gaitcerizcoac; ibeni dugu halaber cenbait erremedio eta consideratcino, ez haserretceco, mendecuen utzteco, eta coleraren iraunguitceco.

Bada orai behar da iaquin eta consideratu, materia hunetaco ponturic principalena, ea nola behar dugun gueure etsaiaren alderacotçat gobernatu : behar dugunz etsais onhetsi ala gaitzetsi.

Eta baldin onhetsi behar badugu, ea cergatic, cer causaz edo arraçoinez behar dugun onhetsi.

Lehenago, legue çaharrean, leguca gaizqui adituric, etceducaten bekhatu etsaiaren gaitzestea. Ceren nola legueac manatcen baitzen adisquideac onhets citçatela, eta etsaiez ezpaitzen deus erraiten, eta conturic eguiten, handic atheratzen çufen, beraz etsaiac gaitzets ahal citçaquetela.

eta gorputça ere baquean, soseguan eta segurean ibentzen. Cein baita gauça handia, laudatecoa, eta lehen baino lehen gueroco beguira egon gabe, etsaitasunaren utzteco, lehenen gainera erremedio ona, eta consideratcecoa.

XVI CAPITULUA.

Cergatic behar diogun gueure etsaiari baratu eta amorio eduqui. Lehenbicico arraçoina : Ceren Iain-coac manatcen bailtu.

ERRAN dugu cenbat calte eguiten duen mendecatceco desira desordenatuac, eta handic sortzen den gaitcerizcoac; ibeni dugu halaber cenbait erremedio eta consideratcino, ez haserretceco, mendecuen utzteco, eta coleraren iraunguitceco.

Bada orai behar da iaquin eta consideratu, materia hunetaco ponturic principalena, ea nola behar dugun gueure etsaiaren alderacotçat gobernatu : behar dugunz etsais onhetsi ala gaitzetsi.

Eta baldin onhetsi behar badugu, ea cergatic, cer causaz edo arraçoinez behar dugun onhetsi.

Lehenago, legue çaharrean, leguca gaizqui adituric, etceducaten bekhatu etsaiaren gaitzestea. Ceren nola legueac manatcen baitzen adisquideac onhets citçatela, eta etsaiez ezpaitzen deus erraiten, eta conturic eguiten, handic atheratzen çufen, beraz etsaiac gaitzets ahal citçaquetela.

Baiña cerutic lurrera iautsi cenac eracutsi çuen, cer eguin behar cen hunetan ere, erraiten çuela: *Si enim diligitis eos qui vos diligunt, quam mercedem habebitis? nonne et publicani hoc faciunt?* Adisquidearen onhetsteaz, cer irabaci, cer esquer eta merecimendu uste duçue içanen duçuela? Ientilec, Iaincoric eçagutseen eztutenez eta iende gaichtoec ere, eguiten dute hori, hec ere onhesten tuzte bere ongui eguiileac. *Diligite inimicos vestros:* Etsaiac, etsaiac onhetsi behar ditutçue; gaizqui eguiten deratçuecaney eguin behar de-raueçu ongui. Eta cenbatenaz eta hec çuey gaizquiago, hanbatenaz çuec hey onguiago. *Vince in bono malum:* Onguiaz gaizquia garaitu behar da.

Ordea cergatic onhetsi behar dugu gueure etsaiac? Eguiten deracunari gaizqui cergatic eguin behar diogu ongui? Dugun iaquin, dugun bilha cenbait arraçoin.

Lehenbicico arraçoina, alde guztiz lehenbicicoa, ezetz ecin derraquegun beçala; oin escuetan lotcen gaituena, da Iaincoaren manua eta borondatea: *Ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros:* Nahi duenac berra nahi duena, haina nic erraiten deratçuet çuey, onhets ditçatçuela ceuen etsaiac.

Pytagoras Philosopho handi haren discipuluec, etçuten bertce manuric behar, eta ez arraçoinie, iaquitea baicen, hequen nabusiak erran çuela. Nabusiak erran du, nabusiak manatu du, beraz hala da eta hala eguin behar da. Haur cen hequen hitzcuntça. Bada gureçat, guc gueure etsaiaren onhesteco, ezta asco içanen, onhets deçagula Iaincoac manatzen duela, iaquitea?

Presuna batec bidegabe bat eguiten deratçunean, guerthatcen da emplegatcen baitira bitartekoac eñ arartekoac, ongunden eguiteco; lehenbicicoric ethortcen çaitçu ceure lagun bat, ceure adisquide-quide bat, eta harc erraiten deratçu : badaquit urliac bidegabe eguin deratçula baina urriquitan dago, damu du, eçagutzen du bere falta, eta hala ene amoreacgatic barkhatu behar dioçu, adisquidetu behar çarete. Hunela erraiten deratçu ceure lagon adisquideac. Baiña çuc hari errazqui erraiten dioçu ezetz, eztuçula nahi, ceren ezpaçatçaitça ahalque, ezpaitaduçaçu ceure burua baino guehiagoren.

Çure lagun haren ondoan, harc deus ecin eguin duenean, ethortcen çaitçu bertce ararteko bat, handiagoa eta ahalquesunagoa. Eta ez hain errazqui nola lehenari, baina ceren colera handian baitçauda, hari ere emaiten dioçu eza ; erraiten dioçu, eztaquicula othoi gança hartçaz mintçä, ceren sobera çaudela erraea, çaurtua eta guiharran uquitua.

Azquenean emplegatcen da erregue bera, eta harc berehala hausten çaitu, beratcen çaitu, etçatçaitçea ezetz erraitera ausartcen.

Bada baldin lurreco parte baten Erregue batî, egun baldin bada bihar içanen eztenari, ausartcen ezpaçatçaitça ezetz erraitera, mundu guztico Erregucari, Iaincoari berari, nolatan ausartuço çatçaitçea czetz erraitera contratcera ; eta manatcen çailuenean onhets deçaçula ceure etsaia, eztuçula onhetsi nahi eta eztioçula barkhatu nahi, erraitera ?

§ 1.

Erranen duçu, comunzqui etsaigoan daudenec bere etsaigoaren ederztalceco eta estaltceco erraiten duteña : Nic barkhatzen diot, eztiot gaitzic desiratzen, eta ez ordenatzen. Aitcitic nic neuretçat nahi nuqueyen beçanbat ontasun, demola Iaincoac. Bainaz eznatçaica mintçatu nahi, eta eztut nahi mintça daquidan. Ezta bertze gauçaric, harequin deus eztudala nahi baicen... Hunela erraiten duçu baina eztaquit, ongi erraiten duçunz. Ceren badirudi ecen hunela elkarrequin mintçatzen eztirenaez eztirela borondate gaichto gabe.

Eçəgun dira bere hitzetan eta solhasetan. Ceren eztarraquete elkarrez onguiric itchurapenez edo baicen, obretan ere elkarren behartzen eta meneratzen direnean, elkarri ahalez heltzen çaitça ? Bada gogoaz eta borondateaz denaz beçan batean, berac ibencen tut lekhuco, ceren berec daquite cer borondate duten elkarren alderacotçat. Eta baldin ongi pensatzen eta consideratzen badute, ediren dute, badutela barren hartan, cenbait uherdura, cenbait herra eta gorrotu ; eta ez dioten beçain bere gogoa eta bihotza garbi etaclar.

Errementaldegnian, harotçaren sutegnian, hauscoaz haice emaitetic guelditzen direnean, badirudi eztela suric ; ceren berehala ikhatçac ilhaunez estalteen baitira. Ordea higuitçetu aphurbat hauscoaz, eta ikuusico duçu nola berehala berriz, sua aguertzen den. Hala aguertzen da bada elkarrequin mintçatzen

eztirenen arteco borondate gaichtoaren sua ere, den okhasinoric ttipienean elkarren behartzen direnean.

Ordea borondate gaichtoric eztenean, ez minçatcea bera, ez salutatcea, edo ez elhecatcea bekhatu othe da? — Baldin comunzqui, guristinoac guristinoequin, shaideac ahaidequin, eta herricoac herricoequin beçala, bidean, incontratcean, deus galdeguiten deratçunean, edo bertee casuric guerthatzen denean, ihardesten badioçu, salutatzen baduçu, eta borondate gaichtoric ez içan; berce gaineracoan laburzqui utziagatic, adisquide mani batequin beçala barequin ez ibiliagatic: badirudi eztela orduan bekhaturic: guztiz ere baldin uste baduçu, maiz mintçatcetic, eta elkarrequin seguitcetic, ethor ditequeyela calte, nola ethortzen baita batçutan. Ceren badira iende batçuc hain okhasinotsuac, arrunquide gaitzac, batcari ondizcoac, eta incontru gaichtotacoac, non hobe baita halacoej alde eguitea, eta hequen bidetaric eta incontruetaric ihes eguitea eta aldaratcea, iguriquitcea baño.

Ordea ceren apartaturic ibiltzeac, elkarren incontruetaric ihes eguiteac, eta edergailu baicen elkarrequin ez minçatceac, erran nahi baitu badela bitartean cebait etsaigoa eta borondate gaichto; erraite hura-gatic, etsai famagatic, eta hartan emaiten den escandaluagatic, baldin erraite hura, etsai fama hura eta esandalua iraunguitzen ezpaduçu, borondate gaichtoric ez içanagatic ere, etçara peril gabe ceure concientzian; ceren obligatu çara, eta obligatu gara, baldin

barrenean guiristino bagara, campoan ere guiristino garela eracustera eta aditcera emaitera. Ez cara obligatu adisquidequin beçala, etsaiequin gueure sequeretuez eta eguitecoez mintçatcera; hequin maiz ibilcerra, eta ez hequen gana, adisquidetara beçala ioaitera. Asco da salutatcea, munduac etsai eduqui ezcailçaqueyen beçala bicitcea, borondate gaichtoric ez eduquitcea, eta escandaluric ez emaitea. Gaineracoan norc bere eguitecoac eguin ditçala, eta behar duenaz behar dueñarequin solhasta dadilla.

Eguia da ordea, saindu içaiteco, guiristino comuney abantail eramaiteco, ezta asco salutatcea, borondate gaichtoric ez eduquitcea, eta ez ezcandaluric ere ez emaitea: baina guztiequin behar da içan orobat, guztiequin behar da içan solhasturi, amoltsu eta arronter. Eta are guehiago ezta asco gaizqui eguiten deracunari gaizquiric ez eguitea, baina ongi eguin behar diogu. Ceren hura da saindutasuna, perfeitasuna, debocinoan complitu içaitea, eta laincoac caritateaz eta amorioaz eman deracun manuaren complitcea?

§ 2.

Erran dugu barkhatu behar diogula gueure etsaiari eta amorio eduqui, ceren hala manatcen baitu laincoac. Ordea noiz manatu othe çuen? Orcegun saindu arratsean, hil behar çuen bezperan, bere azquen fiñean, candela escuan harturic beçala cegoenean. Emaztea orhoitzen da, bere senharrac hiltceracoan

erran cioen azquen hitzaz, eta bai semea ere orduco bere aitaren conseilluaz.

Bada gure laungeicoac bere azquen sinean, mundu hunetaric hérteera partitceracoan, erran cerauen bere discipuluay, eta hequin batean guri guztioy. Ene discipuluac, ene guristino maiteac; badacusaüe, nola nagoen, nola heriotcea hurbildu çaitan, sarri hil behar dudan, eta neure testamentaren eta azquen ordenuaren eguiteco ordua dudan. Bada ene azquen ordenua, ene azquen borondatea eta manua haur da : *Ut diligatis in meum* : (1) Elkhar onhets deçañuela, et-saiari barkha diaçoñuela. Hunetan içanen çarete señale, hunetan içanen çarete eçaguluac, eneac, eta ene escolan eta compainian haciac eta ikhasiac çaretela : *In hoc cognoscent omnes quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad meum*. (2)

Badaquiçue, cenbat bidegabe eguin cioten, Joseph Patriarcha handi hari bere anaiec: nola gaitzetsi çuten eta saldu çuten. Eta nola guero halaber demboraren buruan, guti usteric, bere anaia salduaren beharrera eta menera ethorri ciren, herstura handian iarri ciren; hain handian, ecen guero bere aita Jacob hil ceyenean, hasi baiteiren elkhargana bilduric, elkarri erraiten : Cer içanen da bada orai gutçaz? Hil da gure aita prestua, ona eta saindua : eta hura bici ceino ongi guinen, segur guinen, ceren haren amoreacgatic

(1) Joan 13.

(2) Joan 13.

gueure anaiae barkhatceen ceracun. Bain a orai, nor baliatuco çaicu? Nor gatic barkhatuco deraeu? Gogoeta handi çuten bere baithan. Eta gogoetac gogoeta era-guiten cerauela, erran cioten elkarri: lehen gueure aitaren amoreacgatic barkhatu ceracun gueure anaiac, bada orai ere, harengatic beragatic barkhatu behar deracu. Eta hartaracotçat ioan behar gaçaitça aitaren partez minçatcera, eta erran behar diogu barquetz molde hunetan: *Pater tuus præcepit nobis antequam moreretur, ut hæc tibi verbis illius diceremus: Obsecro ut obliviscaris sceleris fratrum tuorum, et peccati atque malitia quam exercuerunt in te; nos quoque oramus ut seruo Dei patri tuo dimittas iniquitatem hanc. Quibus auditis, flexit Joseph:* (1) launa, erraiten diote losophi bere anaiec, badaquicu çore eta gure aita pres-tua hil dela, eta hil ere ongi eta sainduqui hicci beçala. Hiltceracoan çure galdeguin çuen, eta hatsbehera-pen handi bat eguinie erran çuen: Non da Ioseph ene seme maite hora? Erroçue haren ikhus min handi batequin hiltcen naicela, eta neure benedicionea ha-dio dala. Erroçue halaber, orainocoan seme onac beçala bethi ene borondatea egoin duela eta orai ere eguin behar duela. Eta ene borondatea, ene azquen adioa eta othoitça dela, eztadin orhoit, çuec egoin ci-nioten bidegabearaz eta maliciaz, baina nabi deratçuen barkhatu, eta halacoric iragan ezpailliz beçala, anaia-tasun on bat eduqui, eta eracutsi: Haue gomendatzen

(1) Gen. ulti. cap.

diodala, eta ez bertceric ; haur dela ene azquen adioa, eta harc eue amoreacgatic eguin behar duena. Hunela bere aitaren partez bere anaia Iosephi minçatu ceitçanean, beguiac busti ceitçan, nigarra iauci ceican : eta nola mendecatuco cen ecen, besarca bere anaiey lo-thu ceyen, erraiten cerauela : Ez içan heldurric, ezta ene bi^t.otzean hiraric ; baina baldin ere ezpanintça ene gogoac berac ekhar çuey barkhateera, aitaren manua hiltceracoan emana, norc eztu complituco ? complitu çuen, guztiey barkhatu cerauen.

Hala bada guri ere gueure Iaincoac, bere azquen fi-nean, hiltceco dembora hurbildu eeicanean, erran ceracun : Iende onac, badacusaçue nola nagoen neure azquen pontuaren bezperan, nola bihar bil behar du-dan : bada baldin orainocoan batere ontasunic eguin baderatuet, baldin densem eren alderacotçat çordun edireiten baditutçue ceuen buruoc, gauça bat eguin behar duçue enegatic, eta hartçaz quitateen çaituztet. — Ha Iauna, erraçu cer ? Ceren bihotz gogorra eta eçagutça gulitacoa içanen da, çu beçalaco aitaren manua, eta pontu horretan emana complituco eztuena. Cer ? — Elkhar onhets deçaçuela, etsaiari ene amoreac gatic barkha diaçoçuela. Haur da ene azquen borondatea, eta guztien gaiñetic gomendatcen deratçuedana.

Beraz ezta ezetz erraiteric, barkhatu behar diogu gueure etsaiari, eguin ongui, eta eduqui amorio. Ceren hala manatu baicaitu gueure Iaungoicoac ; eta manatu ere, ez noiz nahiden, baiña bere azquen fi-

nean ; bat bederari, den hitzic ttipiena ere, bihotcean barrenia sarthu behar lit̄aicayon demboran.

XVII CAPITULUA.

Bigarren arraçoina, cer gatic behar diogun gueure etsaiari barkhatu : ceren mendecatcea beretçat beguiratcen baitu Iaincoac.

NEHORC hidegabek bat eguiten deratçunean eztu nahi Iaincoac çuc ordainic bihur diaçoçun, berac hartzen du bere gainera mendecatcea eta iusticia eguitea. (1) *Mea est ultius, et ego retribuam eis in tempore.* Etsaiak gaizqui bat eguiten deratçuncan, curi baiño guehiago eguiten dio Iaincoari, ceren hartzan, haren manus häusten baitu. Ordea eztu hargatic Iaincoac berehala gaztigatzen, iguriquitzen dio, eta iguriquiagatic eztu desohoreric. Beraz eztu çuc ere desohoreric içanen, berce munduraiño iguriquitceaz, hararaiño ez mendecatceaz. Baldin orai pacientzia badu, Iaincoari berari, herae daguiela utzten badioçu, çaren segur, berac berari egun çaicán hidegabea, eta curi ere egun deratçutena, colpe batez, escaz gabe, eta mereci beçala gaztigatuco dituela, eta behar den descarga etsaiari eraguinen deraucala.

Cerori ceure escuz mendecatu nahi bacara penatu behar çara, eta anhitzetan ere deus ecin eginez guel-

(1) Deut. 32. Roma. 42.

nean ; bat bederari, den hitzic ttipiena ere, bihotcean barrenia sarthu behar lit̄aicayon demboran.

XVII CAPITULUA.

Bigarren arraçoina, cer gatic behar diogun gueure etsaiari barkhatu : ceren mendecatcea beretçat beguiratcen baitu Iaincoac.

NEHORC hidegabek bat eguiten deratçunean eztu nahi Iaincoac çuc ordainic bihur diaçoçun, berac hartzen du bere gainera mendecatcea eta iusticia eguitea. (1) *Mea est ultius, et ego retribuam eis in tempore.* Etsaiak gaizqui bat eguiten deratçuncan, curi baiño guehiago eguiten dio Iaincoari, ceren hartzan, haren manus häusten baitu. Ordea eztu hargatic Iaincoac berehala gaztigatzen, iguriquitzen dio, eta iguriquiagatic eztu desohoreric. Beraz eztu çuc ere desohoreric içanen, berce munduraiño iguriquitceaz, hararaiño ez mendecatceaz. Baldin orai pacientzia badu, Iaincoari berari, herae daguiela utzten badioçu, çaren segur, berac berari egun çaicán hidegabea, eta curi ere egun deratçutena, colpe batez, escaz gabe, eta mereci beçala gaztigatuco dituela, eta behar den descarga etsaiari eraguinen deraucala.

Cerori ceure escuz mendecatu nahi bacara penatu behar çara, eta anhitzetan ere deus ecin eginez guel-

(1) Deut. 32. Roma. 42.

ditu behar cara. Ceren benturaz etsaia içanen baita cu baiño indarsuago, eta botheretsuago. Eta Libioe dioen beçala : *Vana sine viribus ira* : (1) Indar gabeco cōlera, haserrea, eta mendecatececo desira, parric ecin iragan deçaqueyenaarena, bano da, alfer eta guti balio. Eta erraiten du Senecac ere : *Ergo ab ira abstine-dum est, sive par est qui lacessendus est, sive superior, sive inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum et cum inferiori sordidum* : (2) Nola nahi den dela, beguiratu behar da ibarduquitcetic, eta etsaiaren acometatectic, nahiz dela etsai hura çure berdin, nahiz handiago, eta nahiz ttipiago. Ceren berdinarequin ibarduquiteea, dudos da eta perilos, handiagoarequin erhoqueria, eta ttipiagoarequin itsusi eta desohore. Eta guztiarequin ere haur huncia dela-ric, eta dela daquicularic ere, ibarduqui nahiz çabilt-ça, desira gaichtoz bethea çaudé, eztioeu etsaiari bar-khatu nahi. Eta hartan ceure burua galteen duçu. Ceren hartan ceure buruari, etsaiari baiño calte guehia-go eguiten baitioeu. Hala emaiten du aditeera Erregue Dabitec, erraiten duenean : *Circumdederunt me sicut apes* : (3) Inguratu nenduten etsaiee, erlec beçala. Erleac nehor autsiquitcen duenean, autsiquitcenago du bere burna ; ceren bere eztena eta bicia han utzten haititu. Hala guerthatcen çaitçu bada çuri ore, etsaiari

(1) Livius c. 1. 2. 4.

(2) Seneca l. 2. de ira c. 34.

(3) Psalmo 117.

autsiqui eguiten dioçunean, barkhatu nahi eztioçunean eta bidegaberic eguiten dioçunean, guehiago eguiten dioçu, ceure buruari.

Eta pontu hunen gaiñcan, gauça bat, erran nahi deratçut; iaquin behar duçu ecen, çuc ceure etsaiari ez barkhatuagatic, eztela handic seguitcen, baldin hare bere aldetic bere eguinbidea eguiten badu, eztioela hari Iaincoac barkhatuco: Orduan ez barkhatceaz, ceure burnari eguiten dioçu calte, eta ez ceure etsaiari.

Baina iaquiçu ecen bethi ere, baldin ceure etsaiac ezpaderaçu erreparacino eguiten, Iaincoa, ceure orde mendecatuco dela, eta harc eztuela utzten eta ez utzico ere saltarie gaztigatu gabe: eta çuc cerorrec eguiñen cinitnen baino cintquiago, eta fintquiago gaztigatuco dituela. Eta nola anhitzetan ere, aita batec bere semea cehatu duenean, çathiteen baitu cigorra, eta egotzten sura. Hala çure etsaia, çure cehatçaillea eta penatçaillea ere çathituco du Iaincoac, eta azquenean egotzico ifernuco sura, eguin deraçun gaizquia erreparatu gabe borondatez beren, hiltcen bada.

Beraz hunelatan presuna batec bidegabek bat eguiten deratçunean edo gaizqui bilhatzen çaituñean, erran behar dioçu Iaincoari: Iauna, çu iusto cara eta gu guztiac hobendun: ene etsaiac gaizqui narabilla; baina hartan ikhusten dut ceure cigorra; hura ezpadut ere, çu ordea ofensatu çaitut; eta hartçaz cerbitçalceen cara ene gaztigatceco; çarela arren benedicatu. Nic barkhatcen dut, eztut nahi haren gaitza ez mundu

hunetan ez berteean. Bainha hargatic badaquit ecen, çu iustoqui haren maliciaz cerbitçaturic ere ene gaztigatceco, harc bere gaizki eguinaz çu guehiago ni baino ofensatu çaituela, çuri çor duela niri baino guehiago. Çuri beraz mendecatcea eta iusticia eguitea. Ni bertceric eztut nahi eta ezteratçut galdeguiten, guztiey barkha dieçaguçun baicen ; guztiac, ni eta ene exaiac comberti gaitçatçun efa salba.

XVIII CAPITULUA.

Hirurgarren arraçoina, eta oraicolz azquena : barkhatu behar diogula gueure etsaiari Iaincoac guri barkha diaçagun amoreacgatic.

BEHAR diogu gueure etsaiari barkhatu, guri ere gueure Iaincoac barkha diaçagun gatic. Ceren Iaincoac berac errana da, ecen baldin barkhateen baderaucagu gue gueure etsaiari, barkhatuco deracula harc ere guri, baina ez bertcela. Eta ezcarra gaizqui, gue gueure etsaiari barkhatceaz, Iaincoac guri halatan barkhatcen deracunean : ecin erran diteque, cein irabaci handia eguiten dugun hunetan. Ceren nola gauça aphura baita guri eguiten çaicun bidegabea, baina handia, eta aldez infinituqui handia, gue Iaincoari eguiten dioguna, gure barkhamendua ezta deus Iaincoarenarequin comparaturie.

Badira gauça batçuc, berac bakharic, bere egitez gaitz baitira, baina bertice batequin iuntaturic eta el-

hunetan ez berteean. Bainha hargatic badaquit ecen, çu iustoqui haren maliciaz cerbitçaturic ere ene gaztigatceco, harc bere gaizki eguinaz çu guehiago ni baino ofensatu çaituela, çuri çor duela niri baino guehiago. Çuri beraz mendecatcea eta iusticia eguitea. Ni bertceric eztut nahi eta ezteratçut galdeguiten, guztiy barkha dieçaguçun baicen ; guztiac, ni eta ene exaiac comberti gaitçatçun efa salba.

XVIII CAPITULUA.

Hirurgarren arraçoina, eta oraicolz azquena : barkhatu behar diogula gueure etsaiari Iaincoac guri barkha diaçagun amoreacgatic.

BEHAR diogu gueure etsaiari barkhatu, guri ere gueure Iaincoac barkha diaçagun gatic. Ceren Iaincoac berac errana da, ecen baldin barkhateen baderaucagu gueure etsaiari, barkhatuco deracula harc ere guri, baina ez bertcela. Eta ezcarra gaizqui, gueure etsaiari barkhatceaz, Iaincoac guri halatan barkhatcen deracunean : ecin erran diteque, cein irabaci handia eguiten dugun hunetan. Ceren nola gauça aphonra baita guri eguiten çaicun bidegabea, baina handia, eta aldez infinituqui handia, gue Iaincoari eguiten dioguna, gure barkhamendua ezta deus Iaincoarenarequin comparaturie.

Badira gauça batçuc, berac bakharic, bere egitez gaitz baitira, baina bertice batequin iuntaturic eta el-

khar harturic, erraz dira. Odol atheratcea, copatcea, purga uher baten, edari min baten edatea gaitz da, penos da, baina osasunarequin iuntaturic erraz da. Sendatceagatic, gogotic erreccibitzen eta pairateen dira. Hala etsaiari ere eguiten derauzquitçun falten barkhatcea, bera bakharic bere eguitez, gaitz da; ordea iunta etçatçu hargatic, çuri Iaincoac eguiten derautçatçunac barkhatce harequin, eta erraz idurituco çaitçu. Errazqui barkhatuco dioçu ceure etsaiari, Iaincoac çuri barkha diaçaçun gatic. Eta hala iende galduac eta adimendu gabeac içanen gara, baldin gueure probelchuagatic bedere, gueure etsaiari barkhatcen ezpadiogn. Eguiçun contua, ea cenbat bekhatu eguin ditutçun orainocoan, eta cein handiac; eta nahi baduçi çuc, barkha diatçatçun hec çuri ceure Iaungoicoac, barkha iatçotçu çuc ere ceure etsaiari, eguiten derauzquicunac. Presuna batec bidegalbe bat eguiten deratçunean erraiten duçu, eztioçula barkhatu nahi, ez behintçat hain site; ceren desohore ere badela beretala barkhatcea. Hori da blasphémia, Iaincoaren contra mintçatcea; ceren hori da, Iaincoaren manuaren complitcea desohore dela, erraitea. Barkhatu behar dioçu beraz ceure etsaiari, eta barkhatu ere, ez edo cein moldez, ez hitsez, itchurapenez, campotic eta edergailluz; baina ein cinez eta gogotic, barrenetic eta bihotzetic, ceren iaquiçu ecen bertcela ezteratçula Iaincoac barkhatuco. Cofessa ahal çaitsezque, Gorputz Sajndua errecibi, barur, oracinotan egon, eta duçun guzti probey eman, baina hec guztiac elçaitzquitçu deus ba-

liatuco, baldin barrenean nehorí herraric, heguingoaric, gorroturic edo borondate gaichtoric badiaducoçu. Ez-
titeque çauria senda elhorria barrenean deino; ezte-
que bekhatna barkha, borondate gaichtoac diraueino.
Barberec buruco çaurietan, lehenic haraguia aldara-
teen dute, eta heçur croscoa aguertcen, bitartean odol
ustelic gueldi eztadin. Ceren baldin gueldi baledi,
harc midicinari eta eçarten den erremedioari, indarra
flaca liaçao, eta berthutea edequi. Hala arimaco çauri
hunetan ere, lehenic behar da barreneco odol ustela,
eta etsaigoaren uhertasuna, athera eta garbitu. Ceren
bercela ezta sendatceric, eta eztute emaiten diren mi-
dicinac, eta eguiten diren erremusinec, harurec, oraci-
noec eta bertee obra onec on eguiteric.

§ 2.

Bere etsaiari barkhatu nahi ezteraucanac, eztu edire-
nen bere behar orduan arartecoric eta ez othoitz egui-
leric. Ceren Spiritu Sainduac dioen beçala : *In homi-
nem sibi similem non habet misericordiam, quis exora-
bit pro peccatis illius :* (1) bere lagunaz, bera beçalacoaz
eztu misericordiaric, eta ez urricalmenduric, norc
eguinen du bada othoitz halacoaren bekhatuaegatic? Ez
sainduc, ez Ainguiruc eta ez are misericordiaren Amac
ere. Ceren iondone Iacuec dioen beçala : *Judicium sine
misericordia illi qui non facit misericordiam :* (2) Mise-

(1) Eccl. 29.

(2) Jacob 2.

ricordia gabeco iusticia eguin behar çäica , misericordiarie eguiten eztuenari. Etçaica barkhatu behar, barkhatu nahi eztuenari. Eta halacoac eztu berac ere nahi barkha diaçoten , ceren , *Pater noster*, erraiten duen guztian , eguiten dio Iaincoaric othoitz, erraiten duela : *Dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris* : (1) Iauna , barkha iatçagutu gueure corrac , gue guregana çordun direney barkhatcen derautzegun beçala. Erran nahi du : Iainco Iauna barkha iatçagutu çure alderatcotçat eguiten ditugun saltac eta bekhatuac, gue gueure etsaiey, gure alderateotçat eguiten dituzten hutsac eta gaizquiac , barkhatcen derautzegun beçala. Eta ala baina ezterauztatzen çuc barkhatu nahi ceure etsaiey, eguiten derautzquitçutenac ; beraz eztu nahi barkha diatçatçun çuri ere ceure Iaincoac, eguiten dereautçatçunac. Ceren nola eguiten baituñu çuc ceure etsaiarequin , hala eguiten dioçu Iaincoari othoitz, daguila çurequin.

Hoben bat nehorc eguiten daratçunean, erraiten duu ayhercunde handirequin : Nic haur hari barkha, lehen bicia gal neçaque. Eta eztu consideratcen, eta ez pensatcen , çuc Iaincoari falta handiagoac eguinagatic , nahi duçula guztiarequin ero, harc çuri guztiac barkha diatçatçun.

Considera eçaçu bada , çuc, ceure etsaiari barkhatu nahi ezterauçaçuna, nola Iainco Salbaçailleac barkhatu

(1) Matth. 6.

cerauen bere etsaiey ; entçun eçaçu cer dioen khuru-
icesaren gainetic ; eztu erraiten : Aita mendeca naçaçu ;
suntsi daitecela ene etsaiac, ceure iusticiac egotz de-
teala ifernuco su barrenera. Etçuen holacoric erran,
aiteitic barkhatu cerauen eta erran çuen : Aita barkha
ieecu, ecen eztaquite cer hari diren : *Pater dimittit
illis non enim sciunt quid faciunt.* (1) — Oraino ceure
etsaiac ezteratçu çuri egun halaco minic ez gaizquiric :
eta çuc eztuçu nahico barkhatu ?

Considera eçaçu halaber, cer erraiten duen Spiritu
sainduac : *Memento novissimorum et desine inimica-
ri* : (2) Orhoit çaiteci ceure azquen fineco eguitecoez,
heriotceco pontuaz, arimaren ilquitceco dembora peri-
los hartçaz, eta orduan eman beharco duçun contuaz,
eta hetçaz orhoituric, utzquitçu etsaigoac. Orhoit çai-
teci nola nahico duçun çuc orduan, azquen oren har-
tan, egun deçan laincoac çorequin : eguiçu bada çuc
ere orai hala ceure etsainarequin. Ceren haur da lain-
coaren manua; haur da haren nahi duena; haur da bê-
thi ere, ela guztiz ere bere azquen finean gomendatu
deracuna.

Bihoa beraz etsaigoa, aparta bedi egun beretic, gue-
roco luçatu gabe, mendecateeco desira desordenatua.
Ceren halatan içanen gara eçagun, eta seiñale, Iesu
Cristoreu escolan ikhasiac garela, haren discipuluac
garela. Eta bicico gara bihotz ukhaldiric, asalduric,

(1) Luc. 23.

(2) Eccles. 28.

eta ikhararic gabe; baquean dagoen bat, mendecurie gogoan eztuen bat, eta guziequin adisquide, arronter, eta solhasturi den bat, bicitzen den beçala; cein baita balimba ecertan hartceco eta ez guti ophatceco.

VII.

ATSEGALEA.

XIX CAPITULUA.

Cenbat calte eguiten duen haraguiaren bekhatuat.

BALDIN hertee bekhatuetañ calte eguiten badu luçamendutan ibilceac, erremedioaren gueroço utztesac, cer eguiñen du lohiqueriaco bekhatuau? Haraguiari hain arcarqui lotcen çaicanean? Eta baldin erroen eguitera utz badadi, atheralceco eta camporatececo hain guizdenean? Bicio haur da mundu hunetan guiconaren galgarriena, eta ifernurat guehienic arima egozten duena.

Baina ceren materia haur baita hain handia eta lucea, perilosa eta limburcorra; ditçagun lehenic eguiten dituen calteac, eta emaiten dituen eguitecoac considera eta conta: eta guero halaber eman behar çaitçan purgac, eta erremedioac bilha, eman eta ordena.

Itsas hondar gabe hunetan sartzen naicela, ezut este dela eztaquienic, gure arimaren etsaiac direla birur-

eta ikhararic gabe; baquean dagoen bat, mendecurie gogoan eztuen bat, eta guziequin adisquide, arronter, eta solhasturi den bat, bicitzen den beçala; cein baita balimba ecertan hartceco eta ez guti ophatceco.

VII.

ATSEGALEA.

XIX CAPITULUA.

Cenbat calte eguiten duen haraguiaren bekhatuat.

BALDIN hertee bekhatuetañ calte eguiten badu luçamendutan ibilceac, erremedioaren gueroço utztesac, cer eguiñen du lohiqueriaco bekhatuau? Haraguiari hain arcarqui lotcen çaicanean? Eta baldin erroen eguitera utz badadi, atheralceco eta camporatececo hain guizdenean? Bicio haur da mundu hunetan guiconaren galgarriena, eta ifernurat guehienic arima egozten duena.

Baina ceren materia haur baita hain handia eta lucea, perilosa eta limburcorra; ditçagun lehenic eguiten dituen calteac, eta emaiten dituen eguitecoac considera eta conta: eta guero halaber eman behar çaitçan purgac, eta erremedioac bilha, eman eta ordena.

Itsas hondar gabe hunetan sartzen naicela, ezut este dela eztaquienic, gure arimaren etsaiac direla birur-

mundua, deabrua, eta haraguia; eta hirur hautaric gaichtoena, perilosena, eta barrancorrena dela haraguia. Haur da etcheco ohoina, barreneco etsaia, bethiere gurequin dagoena; curari pipia, oihelari cerrena, urdaiari cedena, eta haraguiari harra beçala, gau eta egun alha çaicuna; tentatcen, eta narritatcen gaituena, gueureganic ecin egotz deçaqueguna. Halaco moldez ecen erraz baita hartçaz mintçatcea, eta beguiratu behar dela erraitea, beguiratcea ordea neque. Hala erraiten du Valerioc : *Luxuriam accusare facilius est quam vitare.* (1) Flaco da haraguia eta sendo : flaco defendatceco, sendo tentatceco, eta quillicatceco. Anhitz habe, laguntza eta sostengu behar du, on eduguitceco, erori gabe egoiteco, eta asco du deus guti, okhasino tiipi bat, limburtceco, behaztopatceco, eta erortceco. Hargatic erran çuen San Agustinec : *Inter omnia Christianorum certamina, sola duriora sunt praelia castitatis, ubi quotidiana est pugna et rara victoria :* (2) Guiristinoen arteco guerlaric handienac, eta gogorrenac, garbitasunaren guerlac dira. Ceren han haita gudua egunoro, eta garaitia bakhan. Halatan da San Agustinec berac errana : *Nullo tot Diabolus animas reti capit, quod taqueo pessimarum mulierum :* (3) Deabruac anhitz sare badu ere arimen atcemaiteco, eztu batez ere hanbat atrapatcen, nola emazte gaich-

(1) Valer. Max. I. 9. cap. 9.

(2) Aug. serm. 20 in Temp.

(3) Aug. Epist. 206.

toez, eta guicon atsegalez: hec hestateen eta paratzen dituzten artez, sarez, lachioez eta segadez.

§ 1.

Handiac dira haraguiac, eta haraguiaren amorio desordenatuac eguiten dituen calteac. Eta calte principalenetarie bat, principalena ezpada ere, da adimenduaren goibeltcea, ilhuntea, eta itsutcea. Presuna amurusac eztacusa, eztaqui cer hari den: bere gogo guztia haraguian daduca: iatean, edatean, ohean datçanean, hartan pensateen du: bere solhasac, eta ametsac ere, hartçaz eguiten tu: eztu conturic bertce gauçaz nehor mintça daquion: itsu da, erho da, centutic campoan da. Halatan lehenagoco poetec pintatzen cuten Cupido, amurusiaren Iaincoa, haur eta itsu: itsu, ceren ezpaitu ikhusten, haur, ceren ezpaitu adimenduric. Eta badio Plutarcoc ere: Gaitz dela, amurus içaita, eta centuan egoitea. (1)

Halacoa ez desohoreac, ez ienden erraiteac, ez onen gastatceac, ez fama gaitzoan iartceac, ez loaren galtceac; linean deusec ere eztu guibelatzen. *Onager assuetus in solitudine, in desiderio animæ suæ, affractum ventum amoris sui, nullus avertet eam:* (2) Basa-asto amurusa beçala, beguiac itsuturic, ilhiztarien artetic iragaiten da, edo cein periletan sartzen da; bere amo-

(1) Pluat. in Aphothe.

(2) Jerem. 2.

rio desordenatuaz bai, bere amurusiaz bai, baina gaineracoaz eztu conturic eguiten.

Usoa beçala da halacoa. Usoac eztu, bertce hegaztinec beçala edatean burua goiti ailtchateen. Edan gogo duena, abreac beçala, hatsic hartu gabe, burua goratu gabe, colpe batez edaten du. Bertce hegaztinec, edateco curca guztieta, ahartara bakhotchean, burua goiti ailtchateen dute. Eta badirudi ecen naturaleçac berac eratutsiric eguiten dutela hala. Ceren nola orduan baitute perilic guehiena, ceren orduan haitaude gueldienic urera beha: eta ordinan baitira ihiztariez ere celatatuac, barrendatuac eta guardiatuac, halatan daude hec ere iratçarriac orduan; eta edaten duten ur chorta guztieta inぐrunera behatzen dute; eta burua goiti, guardia eguiteco beçala, ailtchatzen dute. Baino usoac eztu halacoric eguiten, ahozpes dago ase arteino, ezta bitartean bururik ailtchatzen, eta ez inぐrunera behatzen. Eta hartan da agueri usoaren chorrotasuna eta erguelqueria; perilic guehien duenean, baita erhoenic eta antsicabenic. Hala da bada bere gogoa emaztetan ibenia daducana. Etsaia celatan dagocanean, perilic guehien duenean, da galduenic eta erhoenic. Ceren bere edate hartçaz, eta bihotzaren egarriaz baicen, ezpaitu deusez ere bertcez conturic eguiten.

Cyro Emperadore handi hura, hain itsu eta er-gueldu ȝuen Apama bere amoranteac, non hartçaz nahi ȝuen guzia eguiten baitzen. (3) Alde batetic,

(3) Joseph de Antiq. lib. 11. cap. 3.

eta bertcetic beharondoa hari ceican, batean biçarra, bertcean beharriac thiratcen cerantçan : haur batequin beçala, hareqnin destateen cen. Eta guztietan Emperadore erhoa, hortzac hirrituric, irriz, beha eegocan : miraillean beçala hartan miratcen cen, haren aleguerateaz aleguerateen cen, eta tristetceaz tristetcen. Eta emazte gaichto harc batçutan bere burua, berriaz haserre iduri eguiten çuen : eta orduan Emperadore çoroac, ahal ciren asmuac eta enseyuac halacalceco, eta baquetceco eguiten cituen. Amorantea cen nabusi : no cen tho : emaztea guïçon : oilloa oillar. Erran behar da escu handia harten duela emazteac amurus itsituaren gainean, halaco Emperadore bat, ema-eztheus batec hala errendatcen çueanean.

§ 2.

Guiçona delaric ordenatua, emaztearen iaun eta nabusi içaileco, guztiarequin ere amorio itsuac, haraguiaren aphetitu desordenatuac, hausten du ordenantxa haur : guiçona eguiten du emaztearen muthil, eta azpico. Ezta gauça preciatuagoric, libertatea eta nabusitasuna den baino. Bada hala bata nola bertcea gallcen tu amurus itsuac, emaztearen hitz ederrey, eta mainey behatzen çayenac. Hala galdu cituen bere libertatea, nabusitasuna, eta bai azquenean bicia ere Assirioen Erregue batec, Semiramis, icen hunetaco bigarren emazte eder famatu hora cela causa. (1) Eta

(1) *Alian. de vari. histor. lib. 7.*

ican cen casua, Eliano, Greciaco esquiribatçaille batec contateen duen beçala. Ençun çuenean Erregue harc Semiramis haren edertasunaren fama, quilicatu cen, guticiatu cen : erakharri çuen, ikuosi çuen, eta ikuusi çuen beçain fite, atceman cen, sua pitztu cen, eta amorio hero itsu batez onhetsi çuen Emazte gaichtoari idurituric ecen orduan cela okhasinoric, eta paradaric hoherena, nahi çuenaren eguitocco, eguin cioen othoitz Erregueri, arren dembora aphur batez, bortz egunez, emanciaçola bere çuen escua eta botherea ; bitartean utz ceçala erresuman manatcera. Erregueec aitcin-guibel guti behaturic, eta Salomonen conseilluaz ere con tu guti eguinic (ceinec erraiten baitu : *Non des mulieri potestatem animæ tue, ne ingrediatur in virtute tua et confundaris* : (1) Eztemoçula emazteari ceure duçun escua eta botherea, nahi ezpaduçu ceure burua ahalquetan ikuusi) ; batero maliciaric, edo enganamen duric abal gatequeyenz gogora ere gabe, erran cioen deblauqui Erregueec ; baiez, deusetan ere dudatu gabe. Eta are berac lehenic agur eguin cioen ; berac bere escuz coroa burusan ibeni cioen : eta manatu çuen, biciaren penan, hurreneco bortz egunetan Semiramis hare manatcen çuen guztia eguin cedilla. Eta hain aitcina iragan cen eguitecoa, non ikuusi çuencan emazte gaichtoac, nola cen obeditua, manatu baitçuen Erregue berari burua edequi ciaçotela. Eta berehala manua complitu cen, eta trufan, burlan, burua ede-

(1) Eccli. 9.

qui cioten. Guelditu cen Semiramis Erregue eta Erre-guina : eta Erregue itsua bere erresuma eta bicia gal-duric, desohorezqui finatua. Ikhusaçu cer eguiten duen emazteac, eta emaztetaco amorio desordenatuac, nola guionna itsutcen duen ; nola cer hari den eztaquielo, milla erhoqueria eguiten duela, bere buruaren iaun, eta iabe ezten beçala ibentzen den.

Zaleuco, (1) Greciaco parte batçuetaco Erregueac, ikhusiric ecen bekhatu hunec, bat bedera bere adimen-duan barrena itsutcen çuela, campoan ere itsutasun hu-ra aguer cedin amoreacgatic, ordenatu çuen eta eçarri leguea, nor ere erorico baitcen adulterioan, eta nore ere behar etcen emaztearequin huts eguiñen baitzen, halacoari eta halacoey, hainari eta hainey, hala guionari nola emazteari, iusticiac beguiac atheraco, eta irateico cerantzela : barrenean, gaizquigninaren bel-dur gabe, itsutu cirenaz guero, campoan ere penare-quin itsu citecingatic. Legue haur ibeni çuen Zaleuco Erregue harc. Eta hain herstuqui beguiratcen çuen, non ezpaitcen, laboreric, ahaideric, adisquideric, eta ez urheric, eta ez cilharric hauts araci ahal ciatçaionic. Huts eguiten çuenac, ihes ahal ceidiqueyen, albace-guien ; baina atrapatuz guero, etçuen barkhamendu-ric, beguiac galdu behar cituen. Erregue hunec legue haur hunein cinez beguitarcen çuen demboran, guer-thatu ceican Erregue hunen beraren semeari, leguearen haustera, eta bebar etcen emaztearequin huts egui-

(1) Alexander ab Alexandro lib. 4. cap. 1.

tera. Erreguec bere semearen falta haur iaquin çue-nean, Iaincoac daqui cenbat damu hartu çuen; eta nola alde batetic bere aitatasunac, semeagana ceducan amorio naturalac, guibelateen çuen, escuac lotcon ce-rautçan; eta etcela arraçoin aita batec bere semea condena cecan, erraiten cioen. Eta berriz bertee al-detic nola iusticiac alegateen cioen, legueac beguiratu behar cirela, eta batari barkhatceaz, bortceac ausartcia hartuco çuela. Eta iusticiaren arraçoin haur borti-zago idurituric, manatu çuen iusticia eguin cedilla, bere semea atceman ciaçotela, eta beguiac leguearen arauaz athera ciaçotela. Erresumac iaquin çuenean here Erregueren deliberamiendua, bildu cen popula eta ioan ceican guztia batetan othoitz eguitera, arrea nahir cioen bere semeari barkhatu. Ceren legue hurz comunagatic eguna celo, eta comunac, hain Erregue onaren eta iustuaren amoreacgatic, aldi hartscotiz bere çucena quitatcen çuela. Comunaren othoitçac, eta se-meaganaco amorioac anhitz gogoeta eraguin cerauca-ten, baiña guehiago leguearen hautsteac. Ceren idurit-ten ceican ecen etçuela bere coroa segur içanen, baldin ttipientçat beçala, handientçat ere iusticia egui-ten ezpaçuen. Eta hala anhitz itçulinguru, pensu eta gogoeta bere baithan eguinie, azquenean ediren çuen bide bat bere caltetacoa, baina semearen gaztiguaren-arintceco ona. Okher hobe, itsu baino. Ordenatu çuen, ecen halaz, eta leguearen arauaz, halaco hutsic egui-ten çuenari, bi beguiac iraci, eta athera behar ceitça-naz gueroztic, athera ciaçotela aitari berari bere be-

quietaric bata, eta semeari beretaric bertcea. Eta halatan, bien artean caltea iasanic, leguea begira cedilla. Eta hala ordenatu beçala complitu cen. Aitac, eta semeac bere beguietaric bana galdu çuten. Eta guero handic harat guelditu cen leguea confirmatua, semea gaztigatua, erresuma guztia ikharatua: eta halaco faltatan erortzen cena-rentçat, barkhamendu erdiesteco, esperantçaren athea hertsia.

Laudatcecoa cen Erregue hura, eta bai ibeni çuen leguea ere; ceren eritasunari cegocana baitzen: halatan itsutasunaz itsutasuna, gorputzecoaz arimacoa sendatececo, eta aitcinerat guehiago eritcetic, eta halacoric guerthatcetic beguiratceco. Ceren haur da haragiaren desira desordenatuac eguiten duen lehenbicio caltea eta colpea, adimenduaren itsutcea, liluracea, nahastea, eta çoraturic ibentcea.

Ordea guizona hunela itsuleen badu amorio desordenatuac, cer eguiten du emazte flacoan? Lillurateen du, çorotcen du, erguelcen du; nescatcha amurosac eztu deusei behatzen, eztu deusei ihardukitzen, eztu arrazoinie aditzen, ethorquiçunez eztu antsiaric ez conturie. Baldin behin behatua bada, galdetua izaten bada, comuzqui airatzen, quilicatzan eta gogoetan lurrrera beha iartzen da. Çorigaitz, çorigaitz! Hunelaco casuetan ihesi eguiten eztuenari, Iaincoari othoitzaz bere arima eta ohorea gomendatzan eztuenari! Berainez hain da flacoa emaztekia, non Poeta Paganoac eguiaz erraiten baitquen guiristino etciren emaztetaz:

Illa est casta quam nemo rogavit : (1) Nehorc orhoitu eta othoiztu eztuena da chahu, garbi eta prestu. Anitzetan hazten ditu osoqui oilloac bere chito guztiac, mirua oldartu gabez. Irraitunic içan eztuena, mandaturic edo salheric egun etçaicana, nehorc ernatu, orhitu eta behartu eztuena badaueque erori eta limburtu gabe. Baino oldartuz guero, bulcatuz guero, ederra dela, maithatua dela entçunez guero; baldin ihesiari berehala ezpadu emaiten eta laincoari oihu eguiten; gogoa eta beharria holaco hitcey pharatcen baditu, galdua da emaztea, galdua da nescatcha, deusec ere eztu baratuco; beguiac hetsiric emanen da bekhatuaren osinera eta hondatuco ditu bere ohorea, bere bakea, bere arima eta guiristinoaren esperantça guztiac.

XX CAPITULUA.

Haraguaren amorio desordenatuac eguiten duen bigarren eta hirur garren calteaz; eztuela den ahaincoari hurcoenaz ere conturic eguiten, eta ez hartaco iuramenturic complitzen.

HARAGUIAREN amorio desordenatua hain da gauça itsua eta itsugurria non halaco amorioa bere bibotzean nabusitcera utzten duenac ezpaitu batçutan ahaicoaz ere conturic eguiten. Hantz istorioac seinalatu darozkigu exemplu lazgarriac.

(1) Ovidius, Elegia 2.

Illa est casta quam nemo rogavit : (1) Nehorc orhoitu eta othoiztu eztuena da chahu, garbi eta prestu. Anitzetan hazten ditu osoqui oilloac bere chito guztiac, mirua oldartu gabez. Irraitunic içan eztuena, mandaturic edo salheric egun etçaicana, nehorc ernatu, orhitu eta behartu eztuena badaueque erori eta limburtu gabe. Baino oldartuz guero, bulcatuz guero, ederra dela, maithatua dela entçunez guero; baldin ihesiari berehala ezpadu emaiten eta laincoari oihu eguiten; gogoa eta beharria holaco hitcey pharatcen baditu, galdua da emaztea, galdua da nescatcha, deusec ere eztu baratuco; beguiac hetsiric emanen da bekhatuaren osinera eta hondatuco ditu bere ohorea, bere bakea, bere arima eta guiristinoaren esperantça guztiac.

XX CAPITULUA.

Haraguaren amorio desordenatuac eguiten duen bigarren eta hirur garren calteaz; eztuela den ahaincoari hurcoenaz ere conturic eguiten, eta ez hartaco iuramenturic complitzen.

HARAGUIAREN amorio desordenatua hain da gauça itsua eta itsugurria non halaco amorioa bere bibotzean nabusitcera utzten duenac ezpaitu batçutan ahaicoaz ere conturic eguiten. Hantz istorioac seinalatu darozkigu exemplu lazgarriac.

(1) Ovidius, Elegia 2.

Amnon, Daviden seine guehienac, itsutuki maithatu zuen bere arreba Thamar, eta galdetu zuen gaizqui. Ihardetsi cioen Thamarrec : ez, ene anaya, hori ezta cilhegui ; nie ezin iasan nezaque ene laidoa, eta cu erhotçat hartua cinteque Israelen. Etcituen Amnonec entçun nahi izan arrebaren hitzac, eta indarca nabusito cioen. Eta guero hastio izan zuen leheneco amodioa baino higuntza handiagoaz, eta gogorki camporat eçarri zuen. Bada Absalonec hartu zuen herracunde handia bere anaya Amnonen contra, bortchatu çuelacotz Thamar ; eta barazeari batetara deithuric hil çuen. (1)

Absalon horrec berac laidoztatu zuen guero bero Aita David. Mundu guztiac cecusala, sarthu cen bere aitaren etçateco gelan, eta haren ohaidecoac etcituen errespetatu. *Ingressus est Absalom ad concubinas patris sui coram universo Israel.* (2)

Guerthatu cen Apostoluen demboran itchuskeria handi bat guiristinoen artean : guiçon bat bere amazunarequin gaizqui bici cen. Londone Pauloc cinetz mehatchatn cituen Corintiocoac ceren bere artean jasaiten çuten, eta asserre handirequin escumucatu çuen, guiristinoen nombretic khendu. *Omnino auditur inter eos fornicatio, qualis nec inter gentes, ita ut uxorem patris sui aliquis habeat.* (3)

(1) 2. Reg. cap. 13.

(2) 2. Reg. cap. 16.

(3) 1. Ad cor. cap. 5.

Hala iracurtzen da, Neron Emperadore gaichto hare, guiristinoen perseguiçaire odolguiro hare, Erramaco Andre noblenac desohoratuz guero, eta nardagarri eta ecin aiphatuzco bidez bere pasione tzarari bazca emanet guero, azquenian lohiqueriaren azquen muga io çuela, bere ama bera, ceinen sabeletic ilqui baitzen, galdetuz eta hari lothuz. Guero hilaraci çuen; etaurrea abiatu baitzitzayon buruan iotcera, erran cioen ama hare: ez, etçacala io burua, baina io eçac sabela Neron ekharri duena.

Hala Henrico, icen hunetako çortcigarren Inglaterrako Erreguea ere, amuruztu cen bere alaba bastartaz, bertceren emazteaganic eguinaz; (1) eta bere emazte prestua eta leguezcoa hastandu eta utzi çuen eta hura hartu emazte. Eta Eliçac haren eguintza condenatu baitzen, Lutheren heregiari entrada eman cioen bere erresuman, higanotu cen; eta holatan bere burua eta bere erresumaco guiristinotasun guzlia galdu cituen.

Bada bertceric ere hunelaco casuric, eta etsemploric anhitz, gaitz bajiliçateque, laurdenen ere contattea. Asco da iaquitea, behin behar ezten amorioa iaunduz guero, eztela legueric beguiratzen, eta ez den ahaicoaric hurcoenaz ere conturic eguiten. Gein baita haraguiaren bekhatuac eguiten duen bigarren caltea.

Hirur garren caltea : Ezta arneguric, burhoric, cinic eta ez falseriaric, emaztetan itsutua dagoen batec eztaidiqueyenic, eta ez gneçurric ere erran ezteçaqueye-

(1) Petrus de Ribadeneira, lib. 1. hist. Angl. cap. 7.

nic. Handic harat hala itsutuz guero, lehen hitz one-taco eta eguiati cirenac eguiten dira gueçurti, arnegari eta iuramentutsu. Ceren bere desiren histeagatic aguincten dute anhitz, eguiten dute milla iuramentu: baiña guero nahi dutena iragan dutenean; eztute conturic eguiten, eztute deus complitzen, guziac hausten dituzte. Eta hala etcen lehenagoco ientilen artean, halsco eta bartaco iuramentuez conturic eguiten. Halako moldez ecen ethorri baitzen Platon erraitera, laincoec ere dissimulatezen cituztela amurusen iuramentuac, eta promesac. Eta egungo egunean ere, ezta halako iuramentuetan cer sobera fidatoric. Ceren amurus itsutuac bere placeren ondoan dabiltxa, eta ez bere aguincten edo iuramentuen complimentuaren. Cein baita haraguiaren bekhatuac eguiten duen hirur garren caltea.

XXI CAPITULUA.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen laur garren calteaz: amoltsu, eta baquezco cirenac, eguiten baititu cruel, eta guerlati.

AMORIO DESORDENATUAC hanbat calte egniten du, non behin harc itsutuz guero, amoltsu eta baquezco cirenac ere, eguiten baititu anhitzetan bere desiren compliteagatic, traidore, bihotz gogor, cruel, eta erhaile.

Erregue David, lehen hain saindu, bihotzbera eta misericordios cena, eta bere etsaiey ere bethi ongi

nic. Handic harat hala itsutuz guero, lehen hitz one-taco eta eguiati cirenac eguiten dira gueçurti, arnegari eta iuramentutsu. Ceren bere desiren histeagatic aguincten dute anhitz, eguiten dute milla iuramentu: baiña guero nahi dutena iragan dutenean; eztute conturic eguiten, eztute deus complitzen, guziac hausten dituzte. Eta hala etcen lehenagoco ientilen artean, halsco eta bartaco iuramentuez conturic eguiten. Halako moldez ecen ethorri baitzen Platon erraitera, laincoec ere dissimulatezen cituztela amurusen iuramentuac, eta promesac. Eta egungo egunean ere, ezta halako iuramentuetan cer sobera fidatoric. Ceren amurus itsutuac bere placeren ondoan dabiltxa, eta ez bere aguincten edo iuramentuen complimentuaren. Cein baita haraguiaren bekhatuac eguiten duen hirur garren caltea.

XXI CAPITULUA.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen laur garren calteaz: amoltsu, eta baquezco cirenac, eguiten baititu cruel, eta guerlati.

AMORIO DESORDENATUAC hanbat calte egniten du, non behin harc itsutuz guero, amoltsu eta baquezco cirenac ere, eguiten baititu anhitzetan bere desiren compliteagatic, traidore, bihotz gogor, cruel, eta erhaile.

Erregue David, lehen hain saindu, bihotzbera eta misericordios cena, eta bere etsaiey ere bethi ongi

eguiten, eta barkhatcen hari ceyena, eguin cen amuruzia
siaz hain different, non Urias bere adisquide maitea,
eta capitain leyela, haren emaztea beretceagatic, hil
araci baitzen.

Halaber frai Ioan Guerin, hain saindu handiaren
faman cegoen harc ere, Guirapelos Barcelonaco Con-
dearen alaba, gomendiotan eman ciotena, deshoratu
quen; eta guero bere bekhatuaren handiac burua erau-
cric, hil quen. (1) Hala guerthatu ceican lague Pe-
nitencialea deitzen queten hari ere: (2) hanbat
demboraz etsai gaichtoaren tentamenduac, ichilic eta
aguerriz garaituz guero, hanbat penitencia egninez
guero, azquenean hain itsusqui erori cen, sendatceco
ekharri ceraucaten nescato batequin, non guero bere
bekhatuaren estaltceagatic, ura behera egotci bait-
zen.

Hemen erran ahal diteque, gure Salbatçailleac bere
passioneo egunean, Jerusalemeco alabey erran ce-
rauena: *Si in viridi ligno haec fiunt, in arido quid
fiat?* (3) Baldin Erregue David eta erran ditugun bert-
ce presuna saindu hec, hanbat demboraz haraguiaren
aphetituen benutztzen, oracintonan, contemplaciontan
eta penitenciatan egon ciren hec, hain torpequi, ara-
guiac itsuturic, erori baciren; cer içanen da, Iaincoz,
munduz eta concientiaz conturic eguin gabe laçoqui

(1) Historia Montis-Serrati, cap. 2.

(2) Metap. in vita ejusdem die 28. Januar.

(3) Luc 23.

eta antsicabequi, batere grinaric gabe bicitcen direnez? Eta are bekhatu eguiteco okhasino bilha dabiltçanez? Aita batec bere semeari diaducon amorioa delaric handia eta naturala, guztiarequin ere, amorio desordenatuac hain flacatcen eta cordocatcen du amorio natural haur, non batuetan erroctaric erauzten eta atheratzen baitu.

Catilina Erromaco guicon gaichto harc, etquen seme bat baicen, eta hura ere ia adinetara heldua, obedienta, bere manuhoa, eta asco prestua. Eta guztiarequin ere, bere desira desordenatuac, Aurelia ceritçan andre batequin compliteagatic, hil araci quen bere seme hura. Ceren hura bici ceino, haren beldurrez, ezpaitceican Aurelia behatu nahi. (1) Hala esquiribatcen du Elianoc ere Lenilla ceritçan andre handi batec, bere placerac, bere placerera, bere cerbitçari batequin iragaiteagatic akhusatu cituela bere seme propioac Erre-gueren aitcinean, erraiten quela ecen traidore cirela. Eta handic egniaz, edo gueçurrez frogantçac eginic gal araci cerauvtela biciac. Eta guero nehoren beldur gabe, gnelditu cela bere cerbitçariarequin, bere amorio itsuan itsutua. (2) Halatan erraiten du Aristotelec, ongi eguin cutela lehenagoco Poetec, Mars eta Venus elkarrequin ezconteceaz. Mars guerla guicona, eta Venus amurusiaren patroïña: Guerla, eta amurusia ezcondu cituzten elkarrequin. (3)

(1) Salust. in vita Catilinæ.

(2) Elian. de histor. animal. lib. 1. cap. 6.

(3) Arist. l. 2. Polit. cap. 1.

Ceren comunzqui amurusiatic sortcen baitira guerlac eta differentiac, halatan halaber lehenagoco ientilec, eracusteco cer aztura eta condicino çuen emazte guizakoiac, pintatzen çuten lehoi bat emazte beguitartearequin. Ceren emazte guizacoiac lehenbician lausengatzen eta balacateen badu ere, ordea azquenean, lehoi gosscac beçala, larrutzen eta deseguiten baitu. Hargatic erraiten du Spiritu sainduac : *Farius enim distillans lubia meretricis et nitidius oleo guttur ejus, novissima autem illius amara quasi absynthium :* (1) Eztemoçula conturic emaztearen balacuari, eta engasenduari, ceren eztia darion berasca bezala dira haren ezpinae, eta olio baino leunago haren lephoa, ordea ondorea, azquen fina absintio belharra beçain min eta khirats. Lehenbician amorio handia, azquenean gaitzerizcoa errabiatura; lehenbicico egunean besarca, hurrenecoan colpeca. Adisquidetasuncie etsaitasuna, amoriotic desamorioa sortcen da.

Erran behar da handia dela Satan gaichtoaren artea, bi gauça hain differentiac, nola baitira amorioa eta desamorioa, adisquidetasuna eta etsaitasuna, elkarrequin imitatzen eta bata bertceaganic atheratzen dituean.

Haraguiaren axeguinetan ez ohi da dantçaric eta iriric baicen; iateric, edateric eta onerizcoric baicen; eta guztiarequin ere etsai gaichtoac gauça hauc guztioe imprentuaz beçala bertce aldera itçultzen tu: onhe-

(1) Prov. 5.

rizcoatic gaitzerizcoa, baquetic guerla, irritic nigarra, eta dantzatic (Herodes baithan egun cuen beçala), heriotcea atheratzen du. Hunelatan athera dadin eguian tan Salomonec dioena : *Extrema gaudii luctus occupat*; atsegundasunaren fina eta ondorea atsecabea da eta dolua: ezli-berascatic absintioa, placeretic desplacera sortzen da.

Amorio desordenatuac bereaz egun duenean, desamorio biburtecn da. Haur da, haci hunetaric sortzen den bibia, amorio desordenatuac eguiten duen laur garren caltea: baquezcoen guerlati, eta bihotzberen eta amoltsuen amorio gabe eta bihotz gogor eguita eta errendatea.

XXII CAPITULUA.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen bortzgarren calteaz: soseguric eta pausuric gabe ibentceaz.

HARAGUIAREN aphetitu desordenatuac eguiten dituen, desordeneuz eta caltez mintzo garenaz gueroztic, goacin aitcinago, eta edireneng dugu; ecen emazte gniçacoiac, eta guion emacoiac eztutela nehon ere, deusetan ere soseguric, eta ez pausuric.

Norc erranen du, cenbat atsecabe, cenbat gau eta egun gaichto iragaiten duen halacoac, hala guionac nola emazteac? Nola compainia prestuac utziric, bere eguitecoey guibela emanic, loa galduric, bera bakhar-

rizcoatic gaitzerizcoa, baquetic guerla, irritic nigarra, eta dantzatic (Herodes baithan egun cuen beçala), heriotcea atheratzen du. Hunelatan athera dadin eguian tan Salomonec dioena : *Extrema gaudii luctus occupat*; atsegundasunaren fina eta ondorea atsecabea da eta dolua: ezli-berascatic absintioa, placeretic desplacera sortzen da.

Amorio desordenatuac bereaz egun duenean, desamorio biburtecn da. Haur da, haci hunetaric sortzen den bibia, amorio desordenatuac eguiten duen laur garren caltea: baquezcoen guerlati, eta bihotzberen eta amoltsuen amorio gabe eta bihotz gogor eguita eta errendatea.

XXII CAPITULUA.

Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen bortzgarren calteaz: soseguric eta pausuric gabe ibentceaz.

HARAGUIAREN aphetitu desordenatuac eguiten dituen, desordeneuz eta caltez mintzo garenaz gueroztic, goacin aitcinago, eta edireneng dugu; ecen emazte gniçacoiac, eta guion emacoiac eztutela nehon ere, deusetan ere soseguric, eta ez pausuric.

Norc erranen du, cenbat atsecabe, cenbat gau eta egun gaichto iragaiten duen halacoac, hala guionac nola emazteac? Nola compainia prestuac utziric, bere eguitecoey guibela emanic, loa galduric, bera bakhar-

rie itxalgaizca, airatua, basatua eta iduricortua ibiltzen den? Eta erraiten duen bere baithan: Ikhusi othe naute? Cer othe diote nitçaz? Eta deus ençuten badu diotela, haserretcen da, gaitzerizcoan batarequin eta bertcearequin iartzen da. Ceren nahi luque, hura bera becala, bertceac ere itsu liren, eta nehorc ez lerran dents. Eta ala baina ezta hartazco solhasie baicen.

Guztiec, batac alde batetic eta bertceac bertcetic, saltza nahasten eta iratioteen dute, guztine hartçaz mintço dira. Bertceric ezpaliz ere, bere amoranteac berac ekhartzen dio berri franco: norc cer dioen, nor nola mintço den, direnac eta eztirenac garraiatzen derautza. Ceren halacoac, hartaco dira on eta ez bertceraco. Hian da munduko elha berri, erran-merran, eta nahasteca guztia.

Emaztetara emana den guijona, hala deino, ecin da-teque ongui, eta guztiz ere baldin ezcondua bada. Ezcondu gabe baten erortcea, emazte batequin seguitcea, gaizqui da, bekhatu da, guiristinoen artean auhengarri da. Baino aldez ezta hain miresteko mundoco arauaz. Ordea ezcondu batec, emazte ederra eta prestua duen batec, hura utziric, har deçala itsusi bat, begui ceihar bat, ezquel bat, betheriatsu bat, finean eztheus bat: eta harequin iosia beçala egon dadilla. Erran behar da adimendua itsntu çäicala, gogoa nahasi çäicala, eta borondatea behar ezten aldera itçula çäicala; eta hori ikhusten da; eta maizenic burupe eta aberatstasun dutenen artean. Halacoaren etchean ezta guerlaric, liscarric, eta bicitce gaichtoric baicen. Ceren

emazte ezcondua eztu deusec ere hala guiharran uquicen, crozcan erauzten, eta ez bere tentutic eta paientziatic atheratcen, nola bere senharra bertequin diabilcola iaquiteac.

Baina othian guiçon ezcondua bere emazte prestua utziric, cerc hola, behar eztenaren hartcera itsutcen du? cerc alda guratcen du? Hitz gutizi hardesten du San Geronimoc : *Quidquid non licet magis desideratur* : (1) Nehorc, debecu den gauça, sori eztena desiratcenago du, hartara lehiago du. *Aqua furtivæ dulciores sunt*, (2) dio Salomonec; ur ebatsiac eztiago, eta goçoago dira.

Haur da lehenbicico arraçoina, ceren guiçon ezconduac, berea baino bertceric nahiago duen. Ceren berea ezpaitu debecu eta hai bere eztuena, eta deabruac debecura baleatcen baitn. Halaber bigarren arraçoina emaiten du San Geronimoc berac lekhu berean : *Quod varietate dulce est assiduitate vilescit*; (3) bethierecoac higuintça emaiten du, alda nahia ekhartcen du. Halatan presuna ezcondua ezpada Iaincoaren beldurraz atchikia, bere emaztea utziric bertcerenara lehiatzen da, alda nahitzen da eta handic galtzen da eta galtzen ditu bereac.

Ceren amorantea eginez guero, haren gana egoizten du bere gogoa, harequin gastatzen tu bere onac : handic harat bere emazteari, eta haren ganic içan

(1) Hieron. in cap. 13. Oseæ.

(2) Proverb. 9.

(3) Hieron. ibidem.

dituen haurrey, guibela emaiten deraue. Eta baldin on handiac ezpaitu, ecin dateque errumestu gabe. Ceren amorantea, eta guztiz amorante miaña eta escalea, huntz adarra beçala da. Huntzac ingratzen du çuhaitça, besarcateen du, edosquitzen du, eta azquenean ihartzen du. Hala bada amoranteac biphiltzen du, larrutzen du, ariman eta gorputzean guiçona ihartzen du.

Urricalquiçun da halacoa: eta bai amorantea ganicaco haurra ere. Ceren nola ezpaita legitimo, nola baita bastart, bort, ezcontçaz campoan eguna, ecin mintça diteque ahalque gabe iendarlean, ecin bururic ailtcha deçaque; berehala lehenbicico liscarrean, p... seme deiteen dute. Hargatic erraiten du Salomonec, edo haren ahotic Spiritu sainduac: *De patre impio queruntur filii, quoniam propter ipsum sunt in opprobrio;* (1) aita gaichtoaz errencurateen dira semeac, ceren hura dela causa baitira desohorezco. Seme bastartae, berac eztu hobenic, baina bere aitarenagatic ekharri behor du burua behera.

Solon handiac, Atenascoen maestruac, umec bere aita-ametara duten obligacinoaz mintço dela, nola ohore ekharri behar derauen, eta bere behar orduetan, eta guztiz ere çahartcean, behar dituzten laboratu; atheratzen tu obligacino hunetaric bastartac, ezcontçaz landan eta campoan eguinac, legitimo eztirenac. Eta arraçoina, ceren aita ama hec elcarrequin batcean,

(1) Eccli. 41.

eta iuntatcean, intencione guehiago içan baitçnten bere placer desordenatuen compliteeco, seme eta alaba içai-teco baino; eta nola hequen horondatearen contra eta hec nahi gaberic eguinac baitira: hala dutela mereci gaztigu hora eta guehiago ere.

Ikhusaçu arren cein gaizqui den guiçon ezeondoa, bere emaztea utziric behar eztenarequin dabilana, eta bai hetarie içaiten den hausa ere. Guztiac dira urri-calqnizun, bai bekhatuan bici direnac, bai bekhatutic sortbuac, eta bai emazte eta haur legitimoac ere.

Beraz hunelatan, principalqui presuna ezconduac, baina guero beguiria biteci bertee guztiac ere, haraguiaren lohian sartcetic, eta hidioztatcetic. Cereu behin hidioztatz guero, iaquin abal decaqueta ecen ealtiar, eta sosegu gabe içanen direla: eztirela urriqui gabe guerthatuco. Eta guero eta guero, cenbatenaz eta guehiago egonen baitira, hanbatenaz barrenago sarthuço, eta nequezago ilquico, eta garbituço direla.

XXIII CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratcéo, eta handic heldu diren calten errémediatceco lehenbicico errémedioa eta bidea : Oracinoa.

HARAGUIAREN atseguiney, hirrits desordenatuey eta eguiten dituzten caltey errémedio enaiten hasi baino lehen, erran nahi dut gauça bat, eta ibeni eta pausatu eguiazco cimendu bat.

eta iuntatcean, intencione guehiago içan baitçnten bere placer desordenatuen compliteeco, seme eta alaba içai-teco baino; eta nola hequen horondatearen contra eta hec nahi gaberic eguinac baitira: hala dutela mereci gaztigu hora eta guehiago ere.

Ikhusaçu arren cein gaizqui den guiçon ezeondoa, bere emaztea utziric behar eztenarequin dabilana, eta bai hetarie içaiten den hausa ere. Guztiac dira urri-calqnizun, bai bekhatuan bici direnac, bai bekhatutic sortbuac, eta bai emazte eta haur legitimoac ere.

Beraz hunelatan, principalqui presuna ezconduac, baina guero beguiria biteci bertee guztiac ere, haraguiaren lohian sartcetic, eta hidioztatcetic. Cereu behin hidioztatz guero, iaquin abal decaqueta ecen ealtiar, eta sosegu gabe içanen direla: eztirela urriqui gabe guerthatuco. Eta guero eta guero, cenbatenaz eta guehiago egonen baitira, hanbatenaz barrenago sarthuço, eta nequezago ilquico, eta garbituço direla.

XXIII CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratcéo, eta handic heldu diren calten errémediatceco lehenbicico errémedioa eta bidea : Oracinoa.

HARAGUIAREN atseguiney, hirrits desordenatuey eta eguiten dituzten caltey errémedio enaiten hasi baino lehen, erran nahi dut gauça bat, eta ibeni eta pausatu eguiazco cimendu bat.

Limburtecie escapatcea, garbitasunaren beguiratcea, haraguiaren bakhatuan erori gabe eta cutsatu gabe egoitea, irautea eta perseberatcea, Iaincoaren donua, dohaina, emaitza, eta garacia dela; eta garacia hura gabe alfer direla, gure ahala, nahia, permatcea eta enseiu guztiac. *Non est Virginitas quae prætio emitur, non virtutis studio possidetur,* (1) dio San Ambrosioc; ezta ez Virginitatea dirloaren pisoz, eta gure indarrez eta berthutez erdiesten den gauza, ceren haraguiac haraguiaren bençutcea, naturaleçac naturaleçaren azpiratcea, gaitz da. Hartacotçat goicoaren faborea, naturaleçaren gainean escu duenarena, behar da. Eta hala iaquin behar du bat bederac, ezteçaqueyela haraguiaren contra bictoria ossoric erdiets, bere ahalean fidatzen deino; berac eztuela deffendanteco indarrie asco; etsitua, gogatua, eta errendatua azquenerat iarrico dela. Behar du eçagutu, bere etsai haur garai çaicala, eztirela indarrez berdin. Eta hala dela eçaguturie, behar du halaber lagun bilhatu eta fabore escatu, baldin nahi ezpadu caltiar guerthatu, eta bençutua guelditu. Haur da egquia; haur eçaguturic erran çuen Salomonec: *Ut scivi, quoniam aliter non possem esse continens nisi Deus det, et hoc ipsum erat summa sapientia, scire cuius esset hoc donum, adii Dominum et deprecatus sum illum;* (2) Iaquin nuenean, ecin ningoqueyela erori gabe, Iaincoac eduquiten ezpa-

(1) Ambr. lib. 5. ep. 31.

(2) Sapien. cap. 8.

ninduen, eta hunen iaquitea ere Iaincoaren donpa cela, ioan nintçaican berehala edireitera; eta egin nioen othoitz: bere escuaz eduqui nintçala, erortcetic beguira nintçala, eta garaitiarequin guelditceco indar eta antee einan ciaçadala. Halatan, egua hunen berri ciaquienac beçala, egun cioen othoitz San Augustinec ere Iaincoari, erraiten cioela: *Continentiam jubes, da quod jubes, et jube quod vis*: (1) Manatcen duçu, beguira deçagula garbitasuna; emaçn bada manatecu duçuna, eta guero mana eçaçu placér duçuna: manua beçala, emaçu manuaren complitceco eta beguiratceco indarra ere, ceren halatan bai, baina hertcela ezta complitceric eta ez beguiratceric.

Bada haraguiaren bekhatsuau, lehen edo guero, aldez edo moldez, obraz edo gogoz, cutsatu gabe, edo limburtu gabe egoitea eta irautea, Iaincoaren donua eta emailça denaz gueroztic, erna gaitecin, iratçar gaitecin, eta erortcetic beguiratceco, ahal diratequeyen habeac, sostenguac eta erremedioac bilha ditçagun.

Eta lehenbicico erremedioa eta sostengua da oraciona, othoitza: Gueureaz denaz beçan batean, errendatuac iarriric, garaitia emanic, erauqui erranic, eztugula indarrie asco eçaguturic; gueure Iaincoari hel daquigula, eta bere escuaz eduqui gaitçala othoitz eguitea; eta othoitz hunequin batean, Ama Birginaren, garbitasunaren patroin beçala, ararteko ibentcea. Ceren baldin Eliçaco doctor batçuec dioten beçala, Ama

(1) S. August. L. 10. conf. cap. 29.

Birginac, are mündu hunetan eanean, nori ere, eta norc ere behatzen baitcioen, hari, haraguiaren desira desordenatuac eta gogoeta liçunac irannguiric, hequen lekhuan gogoeta garbi batçue, eta garbiqui bicitceco nahieunde handi batçue, pitzen eta emaiten bacerautean: (1) Cenbatenaz orai han goititic, loriatic, hanbat credit eta escu duen lekhutic, bere debotey, eguiazqui gomendatzen çazconey erdietsico deraue, eta erdietsiric emanen deraue, haraguiaren tentamenduen haiçateceo eta bençtececo indar, bothere eta garacia?

Beraz daguiogun Iaincoari othoitz eta oracino, emaiten diogula ararteko bere Ama Birgina; beguira gaitzala, sabora gaiçala.

Arren lehenbicico erremedioia eta erremedioric hoherena, haraguiaren lohian ez sartzeceo, eta sartuz guero ere, fite ilquitceco, aratz eta garbi guelditeeco eta egoiteco, haur edirenengi dogu: Iaincoari gogoz eta bihotzez othoitz eguitea, eta Ama Birginaren ararteko ibentcea eta emplegatcea.

XXIV CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratzeceo, bigarren erremedioia : hartaco gogoetey lekhuric ez emaitea.

BIGARREN ERREMEDIOIA, eta erremedio ona eta hautua, eutsatu nahi eztuenarentzat da, hartaco gogoetey beguiaren eduquitcea; heldu direla ikhusten direnean

(1) Ambr. de institutione Virg. cap. 7. — S. Tho. 3. sent. q. 1. ar. 3. ad. 1.

Birginac, are mündu hunetan eanean, nori ere, eta norc ere behatzen baitcioen, hari, haraguiaren desira desordenatuac eta gogoeta liçunac irannguiric, hequen lekhuan gogoeta garbi batçue, eta garbiqui bicitceco nahieunde handi batçue, pitzen eta emaiten bacerautean: (1) Cenbatenaz orai han goititic, loriatic, hanbat credit eta escu duen lekhutic, bere debotey, eguiazqui gomendatzen çazconey erdietsico deraue, eta erdietsiric emanen deraue, haraguiaren tentamenduen haiçateceo eta bençtececo indar, bothere eta garacia?

Beraz daguiogun Iaincoari othoitz eta oracino, emaiten diogula ararteko bere Ama Birgina; beguira gaitzala, sabora gaiçala.

Arren lehenbicico erremedioia eta erremedioric hoherena, haraguiaren lohian ez sartzeceo, eta sartuz guero ere, fite ilquitceco, aratz eta garbi guelditeeco eta egoiteco, haur edirenengi dogu: Iaincoari gogoz eta bihotzez othoitz eguitea, eta Ama Birginaren ararteko ibentcea eta emplegatcea.

XXIV CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratzeceo, bigarren erremedioia : hartaco gogoetey lekhuric ez emaitea.

BIGARREN ERREMEDIOIA, eta erremedio ona eta hautua, eutsatu nahi eztuenarentzat da, hartaco gogoetey beguiaren eduquitcea; heldu direla ikhusten direnean

(1) Ambr. de institutione Virg. cap. 7. — S. Tho. 3. sent. q. 1. ar. 3. ad. 1.

athearea herstea. Sua pitzen denean da errazenie iraunguitceco ; eta bai landarea ere tipi denean bir landatceco eta atheratceco.

Gogoetetaric, pensatcen egoitetic heldu dira behain guzliac, eta guzliiz ere haraguiarenac : handic hasten dira, hec dira chertoac, hec dira landareac, eta erroac. Hec beraz behar dira handitcetic beguiratu. Soldaduac etchean barrena sartuz guero, nahi duena eguiten du : hala eguiten du bada halaber nahi duena gogoeta gaichtoac ere, gogoan ostatu hartuz guero, han behin pausatuz guero.

Suco inharrak, suo chinda, bera bere buruz fite iraunguitcen da ; eta gainera iauzten baçaitzu, ordeñue anarteraino iguriqui gabe, pausatcerak ere nici gabe berehala pontu berean, ceure ganic egotzten duçu. Itala bada emazteko gogoeta gaichtoa ere, berehala aguertcen den beçain fite haiçatu, urrundu, eta ceure ganic egotzi behar duçu.

Egun batez galdeguin ceraucaten frai Gil, San Franciscoen lagun saiudu hari, ea cer moldez, edo nola garaiten cituen haraguiaren tentamenduac, gutiac, quilicadurac eta hartaco gogoetac ? Eta ihardetsi çuentzak. Ene borondatearen atheac ioiten dituzten gogoeta gaichtoey erraiten derauet : Ea ! tentagarriac, iragan aiteinat : ezta hemen çuentçatostaturik eta ez pauza lekharik. Eztitut etchean barrena sartcera utzten, ezterauet beguitareric eguiten, ezterauet ostaturik emaiten, eta naiz hequin goçatcen, eta ez solhasean iartzen, berehala iauci eraguiten derauet : eta halatan, ez hec ni, baina nic hec garaitzen ditut.

Ethortcen çaitçu gogora behar ezten asmua; eta que, gogoeta hora ceureganic berehala egotzi behar bidean, nola egotzico duçun ecen, hartan çaphoratcen cara, goçatcen cara, eta ceure gogoan atseguin hart-en egoiten cara; hala egonez, bekhatu mortal handitan erortcen cara. Ceren ez obratuagatic, obratceco gogoa, eta are obratceco gogoric gabe ere, gogoeta hartan atseguin-haricea, bekhatu da. Hala erraiten dute Theologoec: *Non solum consensus in actum, sed etiam consensus in delectationem est peccatum.* Hunen arauaz erraiten du San Geronimoc ere: *Periit et mente virginitas:* (1) Galcen da gogoz ere Birginitatea. Eta badio Casianoc ere: *Mulierem ignoro, et virgo non sum;* (2) eztaquitz emazteren berriric, eta ala baina eznaiz birgina. Ceren Iesu-Christoe berac dioen beçala: *Qui viderit mulierem ad concupiscentiam eam, jam mæchatus est in corde suo;* (3) Emazteari, atseguin hartceco kontuan, behateen dioenac, equin-duque ia bere gogoan eta bihotcean bekhatu. Pontu haur consideraturic, eta huni erremedio eman nahiz, erraiten quen San Gregorioc: *Celer ergo et facilis victoria contra libidinem est circunspectio cogitationis, si quoties carnalia obviant, ad aliquid aliud recurramus, quod libidinis incitamentum non sit;* (4)

(1) Hieron. ad Faustum.

(2) Casian. lib. 6. cap. 19.

(3) Matt. 5.

(4) Greg. in cap. 1. Reg.

Haraguiari contra eguiteco, eta harenganic hictoris erdiesteco, bide ona da, eta lasterra, hartaco gogoetey begpiaren eduquitcea, eta hequen lekhuan bertce go-goetari lotcea.

Gure gogoa ecin dagoque gogoeta gabe; ecin gauteque cerbaitetan pensatu gabe. Pontua da ea certan pensatzen dugun, nolaco gogoetac ditugun; eta baldin gaichitoac baditugu, utz hec, eta har hequen lekhuan onac.

Beguirantzu, etçaudela guionta, emaztetan pensatzen; ez cu, emaztekia, guionetan. Ceren pensatze hartaric ethorrico çaitzu atseguin hartcea: atseguin harteetic, desiratcea: desiratcetic biden eguitea, eta obratcea; eta guero norc erran ditçaque ondoko gaitzæ? Eta guztiac heldu dira, gogoaren lehenbicico orhoitçapenetik, eta orhoitçapenari lekhu eta ostan emaitelic, erroen egitera eta handitcera utztetic. Beraz hartaric beguiratu behar da. Ceren hura da bekhatutu erortcetic beguiratceco bigarren erremedioia: hartaco gogoetey lekhuric ez emaitea; aguertzen direnean khentcea, baratcera ez utztea, eta ez sosegatcea: beltçuri bai, baina beguitarteric ez eguitea.

XXV CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco, hirurgarren erremedioia: borondatearen deliberanendua.

Ez erortceco, eta eroriz guero ere iaiquitceco, erremedio handia da, gogoa, nahia, borondatearen deliberamendua: hain handia, non bertce guztiac alfer

Haraguiari contra eguiteco, eta harenganic hictoris erdiesteco, bide ona da, eta lasterra, hartaco gogoetey begpiaren eduquitcea, eta hequen lekhuan bertce go-goetari lotcea.

Gure gogoa ecin dagoque gogoeta gabe; ecin gauteque cerbaitetan pensatu gabe. Pontua da ea certan pensatzen dugun, nolaco gogoetac ditugun; eta baldin gaichitoac baditugu, utz hec, eta har hequen lekhuan onac.

Beguirantzu, etçaudela guionta, emaztetan pensatzen; ez cu, emaztekia, guionetan. Ceren pensatze hartaric ethorrico çaitzu atseguin hartcea: atseguin harteetic, desiratcea: desiratcetic biden eguitea, eta obratcea; eta guero norc erran ditçaque ondoko gaitzæ? Eta guztiac heldu dira, gogoaren lehenbicico orhoitçapenetik, eta orhoitçapenari lekhu eta ostan emaitelic, erroen egitera eta handitcera utztetic. Beraz hartaric beguiratu behar da. Ceren hura da bekhatutu erortcetic beguiratceco bigarren erremedioia: hartaco gogoetey lekhuric ez emaitea; aguertzen direnean khentcea, baratcera ez utztea, eta ez sosegatcea: beltçuri bai, baina beguitarteric ez eguitea.

XXV CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco, hirurgarren erremedioia: borondatearen deliberanendua.

Ez erortceco, eta eroriz guero ere iaiquitceco, erremedio handia da, gogoa, nahia, borondatearen deliberamendua: hain handia, non bertce guztiac alfer

baitira, deliberamendu hura gabe. Iaincoaren aldetic behar da haren garacia eta faborea ; eta guretic gure gogoa, nahiia, eta borondatea.

Presunabatequin uzcaltua çaudenean ; eta peril han-dian, hala çaudela, ceure azquen egunac ediren çait-can : cer bide içanen da, peril handi hartarie escapat-ceco ? Ocasino haren utzeco ? Cer ? Gogoa, boronda-tea, apartatcera deliberatuqui deliberatcea.

Ethorcen da Jubilio bat, edo besta-buru bat, edo gariçuma : eta hetarie batetan, ikuhsiric ecen bert-cela galdua çoacilla, eguiten duçu urriquimendu handi batequin cofesione general bat, ceure mendean eguin ditutzen falta guztiez, harturic borondate fin bat ez guehiago presuna haren gana, eta ez bertce halacotara bihurtceco. Eta handic harat hala complitzen duçu, et-çara guehiago bihurtzen. Haur da erremedio ona, eta harru behar den bidea, itsutua, eta heretacotua çadut-can presunaren utzeco.

§ 1.

Ordea utzte haur, amoranteaganic apartatce haur, nola edo cer moldez, eguinen duçu ? Onez onetara, etsaitu gabe ala etsaituric ? Baldin etsaitzen baçara ; horra non duçun berehala amorante harenganic bu-rro, maradicino, erran merran, eta desohore : erasi-co du, oihu eguinen du. Bada etsaitu gabe, eta gaitcera ethorri gabe, onez onetara apartatcea ere, gaitz içanen da eta perilos. Ceren lehen trebatuac içan, eroriac içan : lehen beçala elkarrequin egoiten baçarete ,

ibiltseen, minçatcen : okhasinoac ere lehen beçala presentatcen eta gnerthatcen : gogoa urri, aldatcen erraz : bihotza flaco haraguia sento. Bada eguitoco, bada certan pensa. Badirudi hobe liçatequeyela, gaitceraturie eta haserreturie partitcea, eta elkhar utztea.

Pontu hunen gainean bi gauça nahi nituzque erran. Lehenbicioa : baldin etsaitu gabe, adisquidetasuna hautsi gabe, ecin aparta baçailezque, hauts eçäcu, et-sai çaiteci. Eta orduan ceure partida haserretseen dela, edo gaitcez iarteen dela ikhnsiagatic, eztaguiçula con-turic. Ceren haserretce hura, eta gaitcez iartee hura, haren gainean içanen da eta ez çure. Eta halaber orduan, çutçaz gaizqui erraiten badu ere, paira eçäcu, ceren ceure merecia duçu. Halaco ezleyetan halaco çopac : halaco eguitocoec halaco ondorea, placer iraganec atsecabea ohi dute. Halatan ere hobeduen atsecabé hori, ecen ez ifernuco sua eta bethico confusinoa eta thormentua.

Bigarrena erran nahi nuque : Baldin ceure amoranteari adisquidetasuna hautsi gabe, etsaitu gabe, eta liscartu gabe aparta ahal baçaquitxa, hala eguin çaquítxa. Ordea nola apartatueo natçaica, etsaitu gabe ? — Ezta guitz, baldin partida bioe, gaichtaquerian içan çareten beçala, oatasunean akhort baçarete, nola içaitoco baituçue. Ceure gogoan deliberatu duçunean debocinoan iartcera, bekhatu suerte guzti-**tarie**, eta guztiz ere, lohikeriatic camporatcera ; orduan emazte hari ceinequin behar ezten eçagutça icatu baituçu, erran behar dioçu onez onean : Ordea hil

behar da, eta nahi nuque nic ene arima salbatu. Bainha hunela içaitera baducusat ecen, cu eta ni ere galduac goacilla, fin gaitz eguiteco bidean garela. Eta hala gneure arteco oçagutxa gaichoari alde eguin behar diogu, apartatn behar gatçaitxa : eta hemendic aitcina garbi qui, prestu qui eta guiristino qui bici behar dogu. Nic hala nahi dut : hala deliberatu dut, gogo hortu dut, har eçaü bada çuc ere. Eta iaquiçu ecen eztela hemendic aitcina, halaco eguitecoz, enequin cer guehiago mintçatoric : eta oraidanic, nic hetçaz, adio erraiten deratxuniala. — Eta orduan bertceac ere, çuc beçala erraiteco luque eta eguiteco. Eta baldin ezpaditu ceure deliberamenluac onartcen, barequin hautsi eçaü ; harenganic parti çaita, aserreturic behar bada, aserreturic. Huna non duçun erremedio ona, hala arimaco nola gorputzceco, eternitateco eta bai mundu ere.

§ 2.

Ordea lehen bekhatutan egon direnec, eta bekhatuaz denaz beçan batean, elkhar utzi dutenec, eztute handic harat, lehen beçala elkharrquin ibili, ian, edan, eta sollastatu behar : eztute, premiazco gauzelan baicen elkhargana behar. Bataz okhasinoac su hila pitz ezteçangatic ; eta berriz bertcea scandaluric ezten gatic, eta munduari ere eztela ia hequen artean leheu beçalaco bekhaturic, ikhustera emaitegatic. Ceren obligatiçara exemplo onaren emaitera, eta munduari ere guiristino beçala bicicen çarela eracusfera; halatan, ez çure saindutasuna aguer dadin, baina laincoa lauda dadin amoreagatic. Eta halaber baldin bada

nehor, çu ceneunden beçala dagoenic, esportça dadin hura ere çuc hartu duçun gogoaren eta borondatearen hartcera, eta çuc beçala bekhatuaren utzteria.

Lohiqueriatric apartaturic egoiteco gogoa, hain ongui hartu behar da çahartcean, nola gaztean. Ceren gogoaren aldetic denaz beçan batean, bida hurran, hurran hanbat peril çahartcean nola gaztean. Presuna bat denean hordi, eta emakhoi, ian-edanera, eta emaztetara emana; erraiten ohi da comunzki halacogatik, utzico dituela deimborarequin emazleac, baina ez edatea. Ceren emaztetaco indarra flacatuco baitçaica, baina ez edatecoa hala. Bada iaquię ecen guicon lohia, gaztean bethi hala içatu dena, çahartcean ere comunzqui hala ohi dela: ez obraz, baina bai gogoz. Geren gogoa bethi da gazte; eta gaztetasuneco usantceec çahartcean ere gogoa errequeritzen dute. Caharrac bekhatu gutiago eguiten badu ere obraz, ordea guti harren equiteco, gogoa bethi hartan daduca. Eta haur da San Gregorioc dioen beçala, Deabruaren usantza, obraz ecin eraguin deçaqueyenean, gogoz bedere eraquitea: *Callidus aduersarius noster, cum ab effectu operis expellitur, secreta cogitatione polluere nititur.* (1) Çahar içanagatic, gogoa lohian badaduca, urrats guztiaz erorico da; edo hobequi minçatcera, bethi eroria egonen da. Eta hala bekhatu hunetaric beguiratcea, eztago ez guztia adinean eta ez indarrean; baina, bethi ere Iaincoaren lagunça aiteinean hartzen dela,

(1) Greg. in Math.

dago gogoan eta gogoaren deliberamenduan. Eta dohatsu da, bekhaturaco indarra ioaiten çaicanean, hartaco gogoa ere ioaiten çaicana.

Eguia da, çahartuz guero, adin batera helduz guero, odola hotzten da, naturaleça flacateen da. Eta hala çahartceco amurusia da gaichtoena eta itsusiena : *Senex amore captus ultimum malum.* (1) Ceren hura baita gogoarena, naturaleça bortchatu nahizcoarena, okhasino gabecoa, danatceco seinalea ; eta Spiritu sainduari, lehen erran den beçala, itsusi çazcon bekhatustaric bat. Halacoari erran ahal daquidicayo, Udo ceritçan batir erran ceicana : *Impone finem ludo. quia satis lusisti, Udo* ; Asco iocatu cara, çahartu cara, ez guehiago bihur ; akhaba iocoa, cerori akhabatu gabe : utz çuc hura, harc cu utzi gabe. Bainha Udo harc et-çuen utzi : eta hala fin gaitz eguin çuen ; eta eguiñen duçu çuc ere, baldin çahartcean bedere gogoa bekhatustic aldaratcen ezpaduçu.

Eta gogoa diot, ceren eguiçu milla erremusina eta obra on, eta çaren urthez cargatua, baina ezta probetchu, baldin bertce aldetic gogoa lohian badaduça. Sinhets eçaçu ecen Iaincoaren aitcinean guztia gogoan dagoela.

Haur da hirurgarren erremedioa, lohikeriatric beguiratceco, arimaren ez cutsatceco, eta cutsatuz guero ere garbitceco ; gogoaren deliberamendua, borondatearen bertce aldera deliberatuqui itçuliric iartcea eta egoitea.

(1) Menander.

XXVI CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco laurgarren erre-medioa : ez alfer egoitea.

§ 1.

TRABAILLA çaité; eguitecotan ibil çaité, cerbaitetan emplega çaité, alfer egoitetic beguiratçaité, eta halatan beguiratuco cara haraguiaren tentamentu gaichtoetarie ere. Ceren alferqueriatric heldu da amurusia, gaizquiraco gogoa, orhoitçapena, malicia pensatcea, eta nahastecamenduen egnitea ere. (1) Halatan erraiten du Aristotelec : Nekhaçaleric cta laborariric baicen esten herria, dela herriric hoherena. Ceren nekhaçaleac, bere nequeaz, eta trabailluz baidaduca contu, eta ez amurusiaz, eta ez nehoren nahastecatceaz. Trabaillatzen dena, edo eguitecotan dabillana, eztu haraguia tentateen-handi. Aitcitie trabailluec, atsecabec, eta eguitecoec, bertce eguitecoric emaiten diote.

Eguia hunen frogatceco contacten du San Geroni-moc : (2) Egiptoco monasterio batean cela fraide gazle bat, haraguia bortitzqui tentateen çuena, bero hutsen bethi ciraquien, hain iraquin ezen barortuagatic, disciplinatnagatic, eta bertce anhitz enseiu eguinagatic, ecin iraungui baitceçaquyen su hura, eta ez egotz,

(1) Arist. lib. 5. Politic.

(2) Hieron. ad Rusticum.

bereganic hartaco gogoa. Monasterio hartaco Abadeac, eguiteco haren berri iaquin çuenean, ikuhsiric ecen faide hora galtceco periletan cela, eguin çuen gogoeta cer moldez atheraco eta libratuco çuen peril hartaric. Eta iderituric ecen tentamendu hec guziac, alferqueriastic, eguiteco gabe, aisc, berc gogara, eta atsecaberrir gabe egoitetic heldu çeitçala, erautzaraci ceraucan falso testimonio gaipto bat. Akhusatu çuten bi lekhuccoc Abadearen atcinean, Abadearequin berarequin adituric. Eta baciharducaten elkharren artean: akhusatuac ukha, oihu: falso cela, gueçurra cela, etcela halacoric, etçuela hobenic; baiña lekhucoec, mantena, on eduqui, hala cela. Hunela cebiltçala, eta Abadea ere sentencia emaitetic berariaz guibelatcen cela, iragan cen urthe bat. Eta guero haren buruan, galdeguin ceraucan Abadeac fraide hari, ea nola ciboacon bere haraguiarequin? ea lehen beçala tentaceen çuenz? Eta ihardetsi cioen: *Papæ, vivere non licet, et fornicari libeat?* Cer tenta! Eztaçusaçu certan naicen? Eztaçusaçu biciaz etsitu hurran dudala? Loric ere ecin dai-diquedala? Ioan dira ioan leheneco gogoeta hec, orai bertcec deraut gogoeta eta eguiteco. Ikuhsaçu cein artez eman cioen Abade harc chedeari, eta nola atsecabearen emaitearaz, eta alferqueriaren eta aisiaren khentceaz, khendu cerautçan haraguiaren tentamenduac ere.

Amor est animi vacantis passio : (1) Amorio desor-

(1) Chris. hom. 14. in c. 1. Mat.

denatua, astia duena baithan, presuna alferrean edireiten eta ostattatzen da; hari dagocan arrotęa eta bianda da. Hargatic pintatzen çuten Venus iarririe; ceren amorioa edo amurusia, alferqueriaz, aise, eta gueldi egoiteaz hazten, eta mantenatzen baita. Eta badio Ovidioc ere : *Otia si tollas, periore Cupidinis arcus* : (1) Baldin khen baitçatçu alferqueriac galdu dirataque Cupidoren arcuae, eztu nehor bere tragacez çaurtuco ?

§ 2.

Comunzqui alferrac ian edanean, eta lohian ohi da duca gogoa. Hala erraiten du Casianoc : *Mens otiosa nihil aliud novit nisi de escis atque ventre* : (2) Alferren gogoetac eta solhasac, ian-edanaz eta sabelaz dira, eztu bertcetan pensateen ere. Halatan erraiten cioen San Geronomoc Rusticori : *Ama studia litterarum et vilia carnis non amabis* : (3) Onhets eçaçu estudioa, eta eztuñ haraguiaren bekhatuan atsegüninc hartuco, eta ez gogorie eduquico. Hartoen baduñ estudioa fintqui, utzico çaitu atsegaleac lachoqui. *Hoc fuit iniqitas Sodoma sororis tuæ, superbia, saturitas et otium* : (4) Ierusalem, çure ahizpa Sodomaren bekhatua eta galgarria içan cen urguillutasuna, asca, eta al-

(1) Ovid. lib. 2 de remed. amoris.

(2) Cassian. lib. 10, cap. 8.

(3) Hieron. ad Rusticum.

(4) Ezech. 10.

ferqueria. Alferqueriarequin batean eguin cituen Sodomaco hiri harc hain huts handiac, eta bekhatu khiratsac, non igorri baitceraucan Iaincoac, ez lur estaltceco, eta ez ur garbitceco, baina bai su eta khar erratceco, eta chispilteco.

Erregue Davitec, trabaillateen cenean, guerlan bere presunaz cebillanean, contu goti eguiten çuen emaztez. Bain a astiari eta aisiari iarriric mandatariz, eta bere ordainez eguitecoen eguiten hasi cenean, atxeman cen eta erori bekhatu handien eta itsusienetara. Salomon ere temploaren eguiten hari cen bitartean, eztugu edireiten enganatu çutela emaztec, bain a temploa akhabaturic alferqueriari eman ceicanean, limburtu cen, haraguia nabusitu cioen eta galdu çnen çuhurteca.

Bada Sanson ere guerlan cebillaino, ecin egundai no garaitu çuten bere etsaiec, baina eguitecoac, eta guerlac utziric, emazte batz bihotza eman ceicanean eta haren altçoan etçan cenean; emazte harc berac enganatu çuen, eta guero etsaiec hartçaz nahi çutena eguin çuten.

Vigilate ergo fratres mei, quia nec sanctiores Dacide, nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salamontos esse video : (1) Çaudete beraz iratçarriric enc anaia maiteac (dio San Agustinec), ceren eztacusat nic, çaretela quec, Dabid baiño sainduago, Sanson baino azcarago, eta ez Salomon baino çuhurrago.

(1) August. ad fratres in eremo. ser. 17.

Quaritur, Ægistus quare sit factus adulter? in promptu causa est, desidiosus erat : (1) Galdequiteña, cergicat erori cen Egisto adulterioan? Agueri da arraçoina : ceren alferra baiteen. Bada molde berean erran ahal diteque, Dabitez, Sansonez, eta Salamonez ere. Ceren hec guztiac, bertceric anhitz beçala, alferqueriac eror araci cituen eta galtceco perilean ibeni cituen.

Beraz hunelatan cerbaitetan emplega çaita, trabailla çaita, alferqueriatic beguira çaita. Ceren halatan garbi ere beguiratuko çara.

XXVII CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco bortzgarren erremedioa : consideratcea cein ttipia, eta laburra den hartaco placera.

§ 4.

HARAGUIAREN bekhatutic beguiratceco, hartara ez hain isuria, eroria, eta gogoa egotzia egoiteco; on liçateque, cenbait aldiz bedere, gogoeta eguitea, eta ceure baithan consideratcea, ea nolacoa, handia ala ttipia, lucea ala laburra den haraguiaren placer hura. Ceren baldin ttipia, eta laburra bada, erhoqueria handia da, hargatic presunac bere buruari, hanbat atsecabe eta eguiteco emaitea, nola anhitzetan ere emaiten baitio.

(1) Ovid. lib. 4. de remedio amoris.

Quaritur, Ægistus quare sit factus adulter? in promptu causa est, desidiosus erat : (1) Galdequiteña, cergicat erori cen Egisto adulterioan? Agueri da arraçoina : ceren alferra baitzen. Bada molde berean erran ahal diteque, Dabitez, Sansonez, eta Salamonez ere. Ceren hec guztiac, bertceric anhitz beçala, alferqueriac eror araci cituen eta galtceco perilean ibeni cituen.

Beraz hunelatan cerbaitetan emplega çaita, trabailla çaita, alferqueriatic beguira çaita. Ceren halatan garbi ere beguiratuko çara.

XXVII CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco bortzgarren erremedioa : consideratcea cein ttipia, eta laburra den hartaco placera.

§ 4.

HARAGUIAREN bekhatutic beguiratceco, hartara ez hain isuria, eroria, eta gogoa egotzia egoiteco; on liçateque, cenbait aldiz bedere, gogoeta eguitea, eta ceure baithan consideratcea, ea nolacoa, handia ala ttipia, lucea ala laburra den haraguiaren placer hura. Ceren baldin ttipia, eta laburra bada, erhoqueria handia da, hargatic presunac bere buruari, hanbat atsecabe eta eguiteco emaitza, nola anhitzetan ere emaiten baitio.

(1) Ovid. lib. 4. de remedio amoris.

Bada frogatu duten guztiec batetan, eta boz batez, aithortcen, erraiten, eta cofessatcen dute, placer hura, placer aphurra eta laburra dela, hasi deneco akhabatu dela: eta are batçutan hasi gabe ere, akhabatcen dela. Ceren placer hartan berean ere, comunzqui, placer baino, desplacer guehiago edireiten baita. Utzten ditut placer haren aitcin-guibelac, anarterainoco eta ondoreco eguitecoac eta atsecabeac, handiac baitira; baina hatzeman uste duçun placeraz mintço naiz: eta diot ecen hartceco orduan ere, cerbait escastasun, cerbait descontentamendu içaiten duçula, eta hura dela causa, orduan ere, guztiac ongui contatcera, placer baino desplacer guehiago içaiten duçula. Hala erraiten du San Basilioc: *Oblectatio corporeæ voluptatis, plus doloris habet quam voluptatis*: (1) Haraguiaren placer corporalac, dolore eta desplacer guehiago du atseguin eta placer baino. Arraçoiñequin galdeguiten du londone Pauloc ere: *Quem fructum habuistis in iis in quibus nunc erubescitis?* Cer fruitu, cer irabaci, eta placer içan cenduten orduan, orai ahalquez bururic ere ecin ailchatuz çaudeten bekhatu hetan? Are orduan ere etcenduten placer osoric hartu, etcineten aspertu, eta ez ase. Eta ezta miresteco ez asetcea, ceren sua beçala da haraguiaren bekhatua: eta suac eztu behinere erraiten asco duela: *Ignis numquam dicit, sufficit.* (2) Ceren Glosac dioen beçala: *Volup-*

(1) Basil. in. Psal. 33.

(2) Prov. 30.

tates semper habent famem sui: (1) Haraguiaren placeraç, bethi dira, placer gose. Eta iduritcen baçaiten ere, baldin behin ceure desira desordenatua compli baceneça, hain bertcez sosega cindezqueyela, enganacen cara. Ceren San Geronimoe dioen beçala : *Libido numquam satiatur, et cum videtur extincta reaccenditur, usus crescit et deficit :* (2) Haraguiaren placera, ezta behinere guztie asetcen, eta ez osoqui iraungiteen; eta batçutan asotcen eta iraunguiteen dela hadirudi ere, berriz berhala gosetcen, eta pitzen da; eta are dembora gutiren barrenean, lehen baino biciquiago iratçartcen da. Hala erraiten du Glosac : *Luxuria etsi ad horam satiatur, postmodum tamen ad appetendum arctius inflamatur.* (3) Hori dakhares lohquieriac: ase ustean huts guelditcea eta gosearen handitcea.

§ 2.

Erraiten du Alciatoc : *Heu miser in mediis sitiens stat Tantalus undis; et poma esuriens proxima habere nequit :* (4) Tantalo onbehar hora gose eta egarri cen, eta baçuen oinen azpian ur franco, eta buruaren gainean çuhaitz bat fruituz bethea; ordea edan nahi çuenean urac ilhes eguiten cioen, eta iateracoan çuhaitz

(1) Gl. ordin. in cap. 7. Luc.

(2) Hieron. ad matrem.

(3) Glos. Lyranan. in cap. 3. Prov.

(4) Alciatus. Emblem. 84.

adarrac goititcen eta goratcen ceitçan, ecin erdiets citoqueyen. Ianhari eta edariz inguratua cegoen, eta ala baina goseac eta egarriac utsaltua eta ahitua cedula. Hala da bada haraguiaren atseguiinetan eta placeretan dabillana ere. Gose da, egarri da; eta emoçu nahi duen beçanbat, sar bedi beguietaraino, baina ez titeque ase, ez titeque osoqui compli eta ez contenta. *Libido lassari potest, satiari non potest*: (1) Uha ahal diteque eta nekha, baina ez ase. Hala erraiten da Erramaco andre pagano batez, hanbat ibili cela guiçonequin non hetaric partitu baitzen nekhaturic, baina ez aseric: *Et lassata viris, sed non satiata recessit*. (2) Aiteitic edanago eta egarriago; usatuago eta nahiago. Haraguiaren desira desordenatua, abaricia beçala da: *Crescit amor nummi, quantum ipsa pecunia crescit*: (3) Cenbatenaz diru guehiago, hanbatenaz guticiosago. Hala da bada haraguiaren bekhatua ere: seguituago eta nahiago, usatuago eta barrenago, aseago eta goseago.

Baldin uste baduçu, atsegalea, usatceaz guticia gutituco çaitçula, enganatzen çara. Aiteitic nola bat bedera anhitz iateaz eta anhitz edateaz, ialeago eta edaleago eguiten baita: hala atsegalea usatceaz ere eguiten da atsegaleago.

Haraguiaren aphetitua hobequi hiltzen da ez usat-

(1) *Destructor vitiorum*.

(2) *Juvenalis satir. 6.*

(3) *Juvenalis*.

ceaz, usatceaz baino. Behar da bertze erremedioric ere, baina erremedio naturalic, haraguiaren tentamendu guti içaiteco, ezta halacoric, nola ez usatcea. Ceren ez usatceaz antçutcen da haraguia, ez ansiatua eta ahantzia iartcen da. Bainaz usatceaz bethi ernatua, iratçarria eta orhoitua egoiten da. Hala edireneng duçu, ecen guion bat alharguntcen denean, arduraqui, haraguiaren lehenbicio orhoitçapenean, ezcondu nahiaquin da-billala, iduri ecin dagoqueyela; ceren leheneco usantçac errequeritzen baitu. Eta halacoac, nola bera ecin baitagoque, uste du ecen bertze guztiac ere hura beçala direla, harc beçain iguriquitça eta pairu guti dutela. Bainaz bere buruaren baicen berriric eztaquienetan beçala mintço da. Ceren usatzen eztuenari, haraguia guerocoaz hildua, sosegatua, sortua eta ez-ansiatua dagoca.

Beraz ez usatceaz, etsitua eta gogatua egoiteaz; eta guztien buruan haraguiaren placera cein gauça aphurra eta laburra den consideratceaz, eguiçu. Ceren halatan ceure buruari sosegamendu handi bat emanen dioen eta haraguiaren bekhatutic beguiratceco ere bortzgarren erremedioa edireneng duçu.

XXVIII CAPITULUA.

Haragniaren behatutic beguiratceco seigarren erre-medioa : hartaco placerac cein ondore gaichtoa bere ondotic utzten duen consideratcea.

§ 1.

HARAGNIAREN behatutic beguiratceco, seigarren manamenduaren complitceco, erremedio handia bada ere, haragniaren placera cein gauça aphurra eta laburra den consideratcea : ordea ezta ttipiagoa, placer ttipi labor hare cein ondore gaichtoa bere ondotic utzten duen, halaber consideratcea, eta ongi gogoan eduquitcea. Ceren placera iragan den beçain fite, han da desplacera, han da berehala damua, urriquia, atsecabea, eta egun ezpalu nahia. Contateen du Aulo Gelioc : (1) Corintioco herrian cela Lais ceritçan emazte eder bat, samatua, amoltsua, placer eguilea, eta bere officioaren baliatcen ongi ciaquirena. Bada egun batez Demostenez Erasle-eder, eta Philosopho handi hura emazte haren aldetik iragaiten cela, galde, guin cioen berari, ea cenbana salteen cen, cer balio çuen mercatalgoac ? Eta alegueraric emazteac, ustez ecen ihicia sarean çuen, escatu ceican suma handi batzen, guehiago bortz ehun ezcuttu baino : handiari handiqui. Demostenec aditu çuenean ema muthiriaren galdea, ihardetsi cioen, ez uste beçala : *Ego pænitere*

(1) Aul. Gellius, lib. 1. cap. 3.

non tanti emo : (1) Eztut nic urriquitcea edo urriquia horren garastia erosten. Erran baillio beçala : Badaquit, andrea, ecen baldin nic orai iragan baneça çurequin haraguiaren hirritsa, urriqui lequidiquedala berrehala. Bada urriquitce hora, ondoko damu hora, eztut horren cario erosten, eta ez hargatic hanbat diru emaiten. Escarnio egun ustea, guelditn cen escarniatura. Eta Demostene eman çuen hartan aditcera, behatuari bethiere bere ondotic urriquia darraicala. Munduko placer desordenatu hautan ; apheticua hiliez guero, asez guero, goçatuz guero higuintzen da bienda, ethortzen da urriquia. Ecin erran diteque cein erhotua ibili cen Amnon Erregue Dabitzen lehenbicico semea, bere arreba Thamarren ondoan, cenbat pensu, gogoeta eta itxul inguru egun çuen, haren erdiesteko. Baiña guero erdietsi çuenean, hain gaitzetsi çuen, ecen berehalta, ikhusi ere nahi gabez, etchetic egotzi baitçuen.

Erregue Lysimacoc, egartsua iaunduric ; behin edateagatic, exaiari errrendatu cenean, erran çuen edan ondoan edanaz urriquituric, tristura handi batequin : *O dii quam parva voluptatis causa, meipsum ex Rego servum effeci :* (2) Ha laincoac, ala ni placer aphurragatic, behingo ur hotz edateagatic, Erregue eta libre nintzeena, muthil eta gathibú egun hainaiz ! Hala erran ahal deçaque bada, haraguiaren placer aphur baten-

(1) Plutarc. in Aphothe.

(2) Plutar. in Aph.

gatic, deabruaren azpico eta gathibu eguiten denac ere : Ala ni, deus gutigatic, hunetara bainaiz ! Iaincoarequin adisquide nintcena, etsaitu bainaiz !

§ 2.

Haraguiaren placerac cein guti irauten duen gogoeta egilera : placer haren erdiesteco , cenbat trabaillu, gau eta egun gaichto iragan behar den pensatcera : eta guztien gainetic, placer eztheus harc, hasi dene- co, edo hasi gabe akhabatcen den harc, cenbat pena eta atsecabe emaiten duen , eta cein ondore gaichtoa bere ondotic utzten duen consideratcera , eztut uste, liçatequeyela bat ere, eguitoco hartan sar litequeyenic ; ez behinçat adimenduan dagoenic , centua buruan duenic, çoro eta itsu eztenic. Eta hartan dabiltsanec nehorc baino hobequi eçagutzen dute, eçagutzen, huts eguiñac doacilla, anhitz calte handic errreibiteen dutela, bai concienteian, bai ohorean, bai osasunean eta hai haciendan ere.

Eta hala uste dut ecen, eztela bat ere, bere desira iragan duenean, tristetzen eztenic, urriquitzen etçainic, eta bere baithan, eztuela guehiago bihurtu behar, cerbait gogoeta eguiten eztuenic. Ceren orduan bere hirritsaren sua hotztu eta ematu denean, centua arguitzen baita eta gaizquia ikhusten. Ordea nola gue-ro berriz bere leheneco aphetitura bihurtzen baita : hala bihurteen da halaber, bere leheneco toquira, tornura, eta lohira. Eta nola uli-sarfilla, ezpaita,

hegalac erra arteino, candelaren igurunetic urrunten: hala amurus itsutua ere, ezta, arima, gorputza eta hacienda honda arteino cençatzen. Eta hunen arraçoinda, ceren hala dabillanac, ezpaitu abreac baino guehiago, ethorquiçunera behateen: eta ez placer harcein ondore hotza era atsecabetsua, bere ondotie utzten duen behar beçala considerateen.

XXIX CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatusic beguiratceco çazpigarren erremedioia: bortz censuez, eta lehenbicoloric begiez contu eduquitcea.

§ 1.

Norc ere nahi baitu, bere burnaz contu onic eman, behar ditu bortz censuac, cein baitira, ikhustea, dasstatces, entçutea, usnatcea eta ntquitcea, guardiatu eta beguiratu. Ceren hauc dira leihoad, eta portaleac ceñetatic bekhatus guztiac, eta guztiz ere haraguiarenac, ariman barrena sartzen baitira. Athe hauc behar ditugu hertsi, eta hautçaz eduqui contu, baldin etsaia gueure arimaco gazteluan sartetik nahi badugu beguiratu.

Lehenbicico athea eta portale principala da beguietakoista: *Visus*. Hunec bertze censu guztiey eramaien deraue abantail. Hunec dembora gutiz eguiten du anhitz. Urruititic ikhusten du, eta ikhusten duena gogean barrena sartzen du, eta gogoae ere erreccibitzen

hegalac erra arteino, candelaren igurunetic urrunten: hala amurus itsutua ere, ezta, arima, gorputza eta hacienda honda arteino cençatzen. Eta hunen arraçoinda, ceren hala dabillanac, ezpaitu abreac baino guehiago, ethorquiçunera behateen: eta ez placer harcein ondore hotza era atsecabetsua, bere ondotie utzten duen behar beçala considerateen.

XXIX CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatusic beguiratceco çazpigarren erremedioia: bortz censuez, eta lehenbicoloric begiez contu eduquitcea.

§ 1.

Norc ere nahi baitu, bere burnaz contu onic eman, behar ditu bortz censuac, cein baitira, ikhustea, dasstatces, entçutea, usnatcea eta ntquitcea, guardiatu eta beguiratu. Ceren hauc dira leihoad, eta portaleac ceñetatic bekhatus guztiac, eta guztiz ere haraguiarenac, ariman barrena sartzen baitira. Athe hauc behar ditugu hertsi, eta hautçaz eduqui contu, baldin etsaia gueure arimaco gazteluan sartetik nahi badugu beguiratu.

Lehenbicico athea eta portale principala da beguietakoista: *Visus*. Hunec bertze censu guztiey eramaien deraue abantail. Hunec dembora gutiz eguiten du anhitz. Urruititic ikhusten du, eta ikhusten duena gogean barrena sartzen du, eta gogoae ere erreccibitzen

du. Baldin beguiari eduquitcen ezpaçaica beguiac, calte handiac guerthatuoc dira.

Ebac ikhusi çuen sagarra, eta handiac bere burua gurequin batean penatan ibeni çuen. Davitec behatu ciohen behar etcen emazteari, eta handiac eguitaco handitan erori cen.

Comunzqui amorioa beguietaric sartcen da, handiac hasten eta sortcen da. Ihiztari handiac dira beguiac, eta bere gogaraco ihiciric eraquitcen dutenean, eztira erdiets arteino barateen.

Beguietaco so batec, behingo behatceac; eta are anhitctan ere, iragaitçaz eta uste cabean behatceac arrobatcen du bihotça; cer eguienen du bada behin eta berriz, berariaz eta luçaro beha egoite harc? Bi garren behatce harc, berriz bihurtce harc; gogoeta eguieten duela eta cer hari den daquiela, beguiac sincaturic eta landaturic, emaztearen beguiey, beguitarteari, gorputzari, edertasunari eta ibilguneari beha egoite harc, sua pitzen du, aitcinatcen du, eta azquenean errateen du. Hargatic erraiten du Spiritu sainduac: *Ne respicias mulierem multivolam, ne forte incidas in laqueos illius*: (1) Eztaçoçula beha emazle arin, ariatu, leihariari: behin ikhuisiz guero, *ne respicias*, ez bir-ikhius, ez berriz bihur. Ceren bihurtean bacara, baren saretan erortceco periletan iarrico çara. Ahalque gabequi, muthiriqui, cantoin guztietara beguiac darabiltçala, dabillan emaztea, peril da eroria den,

(1) Eccl. 9.

edo sarri erorico den. *Ne dicatis vos habere animos pudicos si habeatis oculos impudicos, quia impudicus oculus, animi impudici est nuntius*: (1) Ezterraçuela, dio San Agustinec, bihotz garbiac eta onhestac ditutxuela, baldin begui desonhestac eta ahalque gabeac baditutçue. Ceren begui desonhesta, ahalque gabea eta campoan soseguric eztuena, barren gaichtoaren, sosegu gabearen eta desonhestaren mandataria da eta senalea. Emaztetaric beguiratu nahi duenac, beguiratu behar du halaber emaztey behatecetic.

§ 2.

Gauça ederra da eta arimacotçat probetchu handitacoa onhetstasun batetan beguien beheitituric eduguitcea. (2) Contateen da Hugo ceritçan guiçon saindu batez, hain ceducala kontu handia bere beguien egui bideaz, non emazte batequin minçateen cenean be-thiere burua ahal beçanbat, bertce alderat itçultzen baitçuen. Eta erraiten çuen ongi cela hala eguitea, ceren bertcela gaitz cela bere gogoraco gauça ikuhsiz guero, haren ez desiratcea, edo hartçaz gogoetaric egui gabe egoitea.

Cyroren soldaduec, hartu cituztenean Assirioen iendeac eta onac, ediren çuten bertce presoen artean Pantea ederra, Erregue Abradaten emaztea. (3) Ela

(1) August. in regula. 3.

(2) Guidus Cartus. in vita Hugonis.

(3) Rhod. l. 13. c. 3.

eman cioten berehala aditcera Erregue Cyrori emazte haren edertasuna nolacoa eta cein abantaillatua cen. Baino ceren Erregueec ez aditu iduri eguiten bait-
quen, lehiatu ceican here adisquide mamietaric bat, trebeen ceicana, Arraspas ceritçan bat, erraitera Er-
regueri : ezta egundaiño luraren gainean hain emazte ederric sorthu, mereci du hain bertce ohore eman
djaçoqun, mereci du bebin ikuhs deçaqun : eta pro-
metatzen deratçut ecen baldin behin ikhusten baduçu,
eztuçula bi garrenean gonbidatçaileric beharco, cero-
ri egonen çarela errana. Orduan ihardetsi cioen Er-
regueec hala erraile hari : bada arraçoin borren bero-
rengatic, eztut ikuhsi nahi. Ceren baldin behin libre-
qui ikhusten badut, beldur naiz bi garreneco gathiba
nadin, eta neure desira desordenatuac behar eztena
eraguin diaçadan. Errepuesta eder haur eman çuen
Erregue ientil harc ; ceren baitciaquien, cenbat calte
eguiten çuen, gauça debecuaren ikuhssteac.

Hala iracurtcen dugu Alexandro handiac ere victoria famatu hura Erregue Darioren gainean içan çuenean,
eta haren alaba ederrac bertce presoen artean hartu
cincuean, etçuela nahi içatu ekhar ciaçoten hetaric
bat ere bere aitcinera, beldurrez ikuhsi eta guero
behar elcenic eraguin ciaçoten.

Edireiten da bertceric ere anhitz hunelaco exemplo-
ric, ceinetaric athera behar baituçu, baldin nahi ezpa-
duçu behar ezten amoria gogoan eta bihotcean barre-
na sar daquiçun ardura beguiac beheititu eta hertsí
behar dituçula : beguietaco bistaren portale hunez,

cein baita lehenbicico censua, contu eduqui behar duçula. Ceren haur da erremedioetaric bat haraguiaren bekhatutic beguiratceco hartu behar dena.

XXX CAPITULUA.

*Haraguiaren bekhatutic beguiratceco çortcigarren
erremedioia : mihiaz contu eduquitcea.*

§ 1.

BALDIN bistaren portaleari eduqui behar baçaien beguia eta egun guardia, segur da etçaicala gutingo egun behar gustuarenari. Hain ongi eduqui behar da contu bataz, nola bertceaz. Eta gustuaz mintxo nai-cenean, mintxo naiz ahoari uquiteen çaitçan gañca guztiez : hala mihiaz eta minçatceaz, nola ianaz, eta edanaz.

Lehenbicicoric behar da, erguelqui, arinqui, eta desonhesqui minçateetic beguiratu. Ceren londone Pauloc dioen beçala : *Corrumptum bonos mores colloquia mala* : (1) Solhas gaichtoec galtcen dituzte aztura onac. Eta erraiten dute Philosophoec ere : *Voces sunt signa conceptuum* : Mihiac declaratcen du, cer daducan batbederac bere gogoan eta bihotcean. Nor nola mintxo baita campoan, hala ohi da barrenean. Cer baitaduca gogoan, hura aipha nahi du iendartean ; mihi da bihotzaren mandataria, mihiian da eçagon,

(1) 1. Cor. 15.

cein baita lehenbicico censua, contu eduqui behar duçula. Ceren haur da erremedioetaric bat haraguiaren bekhatutic beguiratceco hartu behar dena.

XXX CAPITULUA.

*Haraguiaren bekhatutic beguiratceco çortcigarren
erremedioia : mihiaz contu eduquitcea.*

§ 1.

BALDIN bistaren portaleari eduqui behar baçaien beguia eta egun guardia, segur da etçaicala gutingo egun behar gustuarenari. Hain ongi eduqui behar da contu bataz, nola bertceaz. Eta gustuaz mintxo nai-cenean, mintxo naiz ahoari uquiteen çaitçan gañca guztiez : hala mihiaz eta minçatceaz, nola ianaz, eta edanaz.

Lehenbicicoric behar da, erguelqui, arinqui, eta desonhesqui minçateetic beguiratu. Ceren londone Pauloc dioen beçala : *Corrumpt bonos mores colloquia mala* : (1) Solhas gaichtoec galtcen dituzte aztura onac. Eta erraiten dute Philosophoec ere : *Voces sunt signa conceptuum* : Mihiac declaratcen du, cer daducan batbederac bere gogoan eta bihotcean. Nor nola mintxo baita campoan, hala ohi da barrenean. Cer baitaduca gogoan, hura aipha nahi du iendartean ; mihi da bihotzaren mandataria, mihiian da eçagon,

(1) 1. Cor. 15.

nor den batbedera ; eta bai nongo den ere, londone Petri eçagutu cen beçala Galileatarra cela.

Behar dira guibelatu hitz alferrac, arinac, iocolariac, dostailluac, eta guztien gainetic desonhestac, liçunac, eta erguelac. Ceren hec iratçartcen dute lo datçana, eraiquitcen dute ihicia, eta eraguiten behar eztena. Hec dira su pitzgarriac, eta elkarrequin trebatceco bideac. Halaco hitzeturie behar duçu beguiratu ceure mihia, baldin nahi baduçu garbi beguiratu ceure arima.

§ 2.

Holatan beguirira çaita, guiçona, emaztequin sobera solhastatcetic, eta cu bardin, emaztea, guiçonequin hitztun içaitetic. Ceren guiçonaren eta emaztearen arteco bakhartasunean hitzquetac eta solhasac berequin du eztia, berequin du balacua, linburtceco okhasinoa, eta bai elkarri lotceco cola, bisca eta lequedua ere.

Emazten artean dabillan guiçonac, eta guiçonen artean dabillan emazteac, hequin solhastatceaz atseguin hartzen duenac, eta guztiarequin ere eztela erortzearen beldur erraiten duenac, sinhets araci nahi du, eztela haraguiz eguna, eztela guiçona edo emaztea ; edo sua golkhoan gorderic, arropey lothu gabe erabil deçaqueyela ; edo ikhatz bicien gainean orthutsic, oincolac erre gabe ibil ditequeyela. (1) Ordea erraiten du

(1) Vide Basil. de constit. monast. cap. 4.

Spiritu sainduac, eztela posible hala eguitea: *Numquid potest homo abscondere ignem in sinu suo, ut vestimenta illius non ardeant? Aut ambulare super prunas ut non comburantur plantae ejus? Sic qui ingreditur ad mulierem:* (1) Emaztequin ibiltcea, eta calteric ez errecibitcea, suan erre gabe egoitea beçala da. Nor nahi den, eta nolacoa nahi den çarela; çaren handi edo ttipi; çaren debocinoz, eta intencione onez bathea; finean çaren ceure ustez harria baiño gogorago, eta urea baino finago: baina emazteac bere hitz leunaz, solhas garaciatsuaz, eztiaz eta emeaz, beretacotuco çaitu, centçutic atheraco, liluratuco eta bertee aldera itçulico çaitu; eta her guisan, nescato prudentciariet gabea, çuri eguiñen deraçu guiçonac, harenganal errazqui hurbiltcen bacara, eta hari beha egoiten bacaitça. Çabiltça errota hartara, irina lothuko çaitu: hurbil çaqitça, cutsatuco çaitu. Halatan erraiten du londone Pauboc: *Fugite fornicationem:* Ihes eguiñue lohiqueristic, haraguiaren bekhatutic; ibençue quen eta okhasinoaren artean murru bat, ez elkhargana hurbil. Eztu erraiten londone Pauloc, bertee bekhatuez beçala, lohiqueriaco bekhatuari deffenda gaquitçala; eztu erraiten harmetan mokhoz mokho iar gaquitçala; baina dio, *fugite*, ihes daquigula. (2) Erran bailleça beçala: Bertce bekhatu guztiey behar gatçazte, Iain-coaren laguntzarequin batean, contratua eta deffendatu

(1) Prov. 6.

(2) Vide Aug. de honest. mulie. cap. 1.

baina haraguiarenari, ihes egui : halatan dugu behar garaitu, eta bictoria erdietsi. Ceren bertcela, hurbilduz guero, elkharganaz guero, solhasean bakharic iarriz guero, gaitz da cutsatu gabe guelditcea, sarean sarthu gabe itçurteca.

Ezta çuhurcia, içurria den lekhura, erremedioetan fidaturic, ioaitea. Alde egui ; ihes egui, hora da ez içurriztatceco erremedioric hoberena eta segurena. Bada lohiqueriaco bekhatua içurriaren pare da : cutsuz doha, asco du uquitcea, asco du hurbiltcea. Har deçagun beraz Iondone Pauloren conseillua, daguigun ihes, ezcaitecilla okhasinotan sar, eta ez iar.

Lehenagoco Emperadore gaichto hequen demboran, hetaric ihes eguiten çuenac galtcen çuen martirioaren palma, eta coroa. Coroa hora erdietsico çuenac, martir içanen cenac, etçuen ihesic egui behar. Bainan different da, garbitasunaren ez galtcea gatic, ihes eguitean : ihes eguite hora okhasinotan çarenean, ceure buruaren beguiratce eta bortchatce hora, da martirio eta martir içaitea. Hala erraiten du San Agustinec : *Nemo dicat, fratres mei carissimi, quod temporibus nostris martyrum certamina esse non possunt; habet enim pax nostra martyres suos, nam libidinem fugere pars magna martyris est :* (1) Ezterra la nehorc, ecen orai gure dembora hunetan ecin datequeyela martiric, badira bai orai ere martirac. Ceren haraguiaren aphelitu desordenatuen bençutcea, lohiqueriatric ihes egui-

(1) August. sermon. 240 de temp.

tea, eta bere buruaren beguiratea, garhaite handia da eta martir içaitea.

§ 3.

Ordea cergatic erraiten da, bertce bekhatuac deffen-datuz, eta contra carrean iarriz behar ditugula garai-tu; baina haraguiarena ihes eginez? Lehenbicico arraçoina, ceren guiçona eta emaztea, sua eta istupa beçala, baitira: beraz eztira elcarrequico on, hurbiltcen badira, ezta segurantçarie, berheci egoitea da ho-berenic. Bi garren arraçoina, ceren ezpaita on, hurbiltceaz indar hartcen duen etsaiari alderatcea. Hala da bada haraguia eta haraguiaren bekhatua. Ceren gure haraguia lehen gueldi, eta sosegu onean cegoe-na, bertce haraguia gana hurbiltceaz, pitzten da, er-nateen da, indarrean sartcen da, etsai bihurtzen da. Eta nola Erregue batec herabe hailluque bere etsaien contra guduan eta combatean sartcera, liaquinean bere soldadu propioac bere traidore dituela, bere contra iaiquico çaitçala: hala behar dugu guc ere içan herabe, haraguiarequin iharduquitcera eta guerlan sartcera. Ceren gure haraguia, traidore bat beçala gure contra iaiquitzen baita.

Arraçoin haur emaiten du aditcera eta bai declarati-en ere San Thomasee, erraiten duenean: *Peccatum semper est fugiendum, sed impugnatio peccati, quandoque est vincenda fugiendo, quandoque vero resistendo. Fugiendo, quando continuata cogitatio perseverans auget incentivum peccati, sicut accidit in luxuria.*

*Resistendo autem, quando cogitatio perseverans tollit
incentivum peccati, sicut accidit in omnibus peccatis,
præter luxuriam :* (1) Bekhatutic bethi behar da ihes
eguin, baina bekhatuaren akhometamendua, narita-
mendua, eta tentamendua, batean behar da ihes egui-
nez eta apartatuz garaitu; eta bertcean deffendatuz,
contra eginez, eta borrocatz. Baldin defendantce hart-
çaz, eta harten pensatceaz, guticen bada bekhatuaren
tentamendua, nola eguiten baita, haraguiaren bekha-
tuaz bertce bekhatu guzietan, orduan hobe da deffen-
san iartcea, eta tentamenduaren contra horrocatcea.
Baina baldin deffendantce hartçaz, eta harten pensat-
ceaz pitzenago bada sua, eta handitzenago tentamen-
dua, nola eguiten baita haraguiaren bekhatuan : or-
duan behar da ihes eguin, eta ez nola deffendatuco
den, gogoetan iarri, ceren gogoeta hura bera da, su
pitzarri.

Beraz hemen garaiteco bidea ihes eguitea da, har-
taco okhasinoetaric, solhasetaric, incontruetaric, eta
gogoetataric beguiratcea. Ceren dirua ezta segur ohoi-
nac diren lekhuian; ez ardia otsoen artean; eta ez is-
tupa suaren aldean. Gauça perilosac dira hauc elkharr-
equico: eta bai guionna eta emaztea ere, berac ba-
kharric, bibian egoiteco.

§ 4.

Baina oraino bi-bian egoiteaz, halaco perilic ezpa-

(1) S. Th. 22. q. 35 art. 1. ad. 4.

liz ere, bada bertee arraçoin bat, emaztetaric apartatceco, hequen artean ez maiz ibiltceco, eta solbasean ez sobera egoiteco, cein baita exemplo onaren emaiteco, eta escandaluaren alderatceco dugun obligacinoa. Ezta asco ceure concientcian barrena casto, garbi, eta onhest içaitea; baina campoan ere, eta munduaren alderatcotçat ere, hala behar duen içan. *Providentes bona non tantum coram Deo, sed etiam coram omnibus hominibus:* (1) Bere arauaz, Iaincoaz beçala, munduaz erc, barrenecoaz beçala, campocoaz ere egun behar da contu. Ongui heldu da pontu hunetara, emazte prestuaz Spiritu sainduac dioena: *Quæsicit lanam et linum et operatu est consilio manuum suarum:* (2) Bilhatu cituen illea eta lihoa, eta biac bere escuz landu, eta obratu cituen: illes campoco, eta lihoa barreneco. Legue çaharreco arca famatu hura; urre finez campotic eta barrenetic urraztatua cen: *Deaurabis eam auro mundissimo intus et foris.* (3) Ceruco esposoac biatan deitcen du ederra bere espoza: *Quam pulchra es amica mea, quam pulchra;* aditeera emaiteagatic, guiristino on içanen denac, campoan eta barrenean, bietan, behar duela içan on eta eder: biez behar duela eduqui contu, eta ardura.

Guiçon bat, maiz bakharric, eta premia gabe emazte batequin egoiteac, emaiten du okhasino bekhatu

(1) Rom. 12.

(2) Prov. 31.

(3) Exod. 25.

eraguiteco, eta gogan behar aracitceco badela hequen artean behar ezten cenbait eçagutça, eta amorio desordenatu.

Nahi eztuenac erraiçunic, eztemela okhasinoric. Nahi eztuenac, dei deçaten otso, ezteçala iauntz otso larruric. Nahi eztuenac ilkhi dadin kheric, eztagliela suric. Legue çaharrean ordenatua dago, asco dela fregantçaric, emazte baten gaichtotçat emaiteco, guiçonarequin bakharric, ez orenean eta hartaco lekhuan, edireitea.

Ceren aieru hec, itçal gaizca ibiltce hec, baitira fregantçaric asco, gogan behar aracitceco. Beraz huelatan ezta asco intencione ona içaitea, baina behar da, bekhatu eraguitceco escandalua, eta okhasinoa ere alderatu, eta khendu.

Naturaleçaren aldetic denaz beçan batean, eztaude behin ere, elcarrequin segur, guiçona eta emaztea. (1) Asco da guiçon, eta emazte içaitea, periletan içaiteco, eta egoiteco. Eta tentatçaillea ere eztatça behin ere lo : harc eraiquitcen du erbia, pitzen du sua, goratzen du bekhatua, iratçartzen du haraguia : eta behin iratçarriz guero, gaitz da lohacartzen : gogoa airatuz guero, gaitz da sosegatzen eta bere lekhura bilhurteen.

Cuhurtcia handia da, emaztequin eçagutçatan ez sartcea, nor bere lekhuetan egoitea. Ceren behin elkhargana abiatuz guero, gaitz da handie pitzen den

(1) Vide Chrys. serm. contra concubi.

suaren iraunguitcea; eta bai halaber iendearen ichilic eduquitcea. Lehenbician erraz da, emaztequin adisquidetctic, eta trebatcetic beguiratcea, solhasean barrena ez sartcea, elkhargana ez ibiltcea: Bainabehin abiatuz guero, adisquidetuz guero, trebatuz guero, eta elkarrequin solhasean, hitzquetan, elhequetan, presentquetan, gosalquetan, eta bisitaquetan hasiz guero, peril handia da arimaco, eta exemplo gaichtoamunduco.

Beraz hunelatan lohquieriatric beguiratu nahi duenac, nola behar baitu bere mihia edo cein hitzen erraitetic guibelatu: hala behar du halaber, emazteac guiconarequin eta guiconac emaztearequin trebatcetic, ibiltcetic, eta hitzetan, eta eçagutçatan sobera barrena sartcetic alderatu.

XXXI CAPITULUA.

*Haragiaren bekhatutic beguiratceco bederatcigarren
erremedioa: sabelari ez sobera emaitza.*

GARBITASUNAREN eguiteco hunetan bere buruaz kontu ona eman nahi duenac, behar du sobera ian edanetic ere beguiratu. Behar du neurriz iatera, edatera cebatu; eta gustuaren eta çaphorearen portalearen, ordu denean, cerratzen iaquin eta trebatu. *Sine Cere-
re et Bacho friget Venus*, dio Therentcioc: Oguiric, eta arnoric ezten lekhuan, hotz da Venus: ezta han amurusiaric, eta ez emazte guticiaric. Errana da, ha-

suaren iraunguitcea; eta bai halaber iendearen ichilic eduquitcea. Lehenbician erraz da, emaztequin adisquidetctic, eta trebatcetic beguiratcea, solhasean barrena ez sartcea, elkhargana ez ibiltcea: Bainabehin abiatuz guero, adisquidetuz guero, trebatuz guero, eta elkarrequin solhasean, hitzquetan, elhequetan, presentquetan, gosalquetan, eta bisitaquetan hasiz guero, peril handia da arimaco, eta exemplo gaichtoamunduco.

Beraz hunelatan lohquieriatric beguiratu nahi duenac, nola behar baitu bere mihia edo cein hitzen erraitetic guibelatu: hala behar du halaber, emazteac guiconarequin eta guiconac emaztearequin trebatcetic, ibiltcetic, eta hitzetan, eta eçagutçatan sobera barrena sartcetic alderatu.

XXXI CAPITULUA.

*Haragiaren bekhatutic beguiratceco bederatcigarren
erremedioa: sabelari ez sobera emaitza.*

GARBITASUNAREN eguiteco hunetan bere buruaz kontu ona eman nahi duenac, behar du sobera ian edanetic ere beguiratu. Behar du neurriz iatera, edatera cebatu; eta gustuaren eta çaphorearen portalearen, ordu denean, cerratzen iaquin eta trebatu. *Sine Cere-
re et Bacho friget Venus*, dio Therentcioc: Oguiric, eta arnoric ezten lekhuan, hotz da Venus: ezta han amurusiaric, eta ez emazte guticiaric. Errana da, ha-

raguiaren placera, amorio desordenatua, sua beçala dela ; eta su haren egurrae ian edanac direla. Edequi iatçotu beraz egurrae, ian eçaçu guti, eta edan gu-tiago, eta halatan, edo ezta sua pitztuco, edo pitztua site iraunguico da.

Ordenatu çuen Solonec bere leguetan, baldin her-rico cargudun batí guertha bacequion, sobera edate-ra, eta handic mihiaren motheltcera edo çangoen cor-docatcera , edequi cequiola berehala bere cargsua. Eta arraçoinéquin ordenatu çuen hala, ceren bere burua ecin goberna deçaqueyenac , nola eguin en du bertce-reна ? *Qui sibi nequam est, cui alii bonus erit ?* (1) Bereitçat gaichto dena , nola içanen da bertcerençat on ?

Corinthiocoec bere Erregnearen icendatcean, eta co-roatcean, usatcen çuten cirimonietaric bat cen, ekhartcea, here aitcinera, beira bat ur, aditcera emaitea ga-tic, etçuela handic aitcina arnoric edan behar, edo edanen çuena, ongui ematuric eta urtçuturic edan beharco çuela. (2)

Lehenago Erromaco emaztec elçuten batere arnoric edaten. (3) Ceren guiçonentçat itsusi da sobera edatea, baiña emaztentçat are itsusiago, eta perilosago. Ilan-dic uste dut eiborri cela usantxa, arrotz calcen , cam-

(1) Eccl. 14.

(2) Eneas Silvi. de Europa. cap. 10.

(3) Alexan. ab Alexandre lib. 2. cap. 26.

potic ethortcean, guïçonec emaztey pot eguitea, mussu emaitea, iaquiteco ca arno usainic baçutenz.

Federico, icen hunetaco, hirur garren Emperadoreac, etçuen bere mendean arnoric edan, anhitz baitzen Aleman batentçat. (1) Eta nola berac ezpaiten edaten, begui gaitzez behatzen cerauen, arnora emanac ciren guztiey. Emperadore harc etçuen haurric içai-ten, ezcondua bacen ere. Eta midicuec elkhargana bilduric eta conseillu harturic, erran cioten Empastricari, arno aphur bat edan behar çuela, eta halatan benturaz içanen çuela. Emperadoreac midicuen abisu hunen berri isquin çuenean, desira handia baçuen ere bere ondotic cenbait umeren utzteco, guziarequin ere gaztigatu ceraucan bere emazteari, beguira çuela, etceçala halaco erremedioric har; etceçala haur içai-teagatic arnoric edan. Ceren nahiago çuela emazte haur gabea, agorra, defota, antçua; eta haltça oihanaren bista beçala, fruitu gabea, ecen ez arno edalea. Hitz notatcecoac ciren hauc, eta segur ongvi erranac. Ceren handiac baitira, arnoac, guztiz ere emaztetan egui-ten dituen calteac: hain handiac, ecen ezpaita emazte edalea baithan cer fidaturic; ez guïçon hordia baithan ere, baina orano gutiago emaztean.

Ohoiñ bat, iocari bat, arnegari bat, emacoi bat gaichto da: ordea guïçon da, bere adimenduan dago, cerbaitetaco gai da. Baina hordia, ardancoia, abre da; ezta guïçon. Ceren guïçon içaitea da, adimenduan

(1) Aeneas Silv. I. de dictis et factis Alph. Regis. num. 7.

egoitea, arraçoinaz usatcea. Beraz hordia, hordi-deino, ezta guizon; ceren orduan ezpaitago adimenduan; ezpaita orduan, abrea baino guehiago, arraçoinaz baliacen. Eta halaco guionac, bere guicontasunean, ecin duque falta handiagoric, eta ez desohore desohoragarriagoric (munduac hala ezpadaduca ere) horditcea, adimenduaren nahastea, eta fama hartan iartcea baino.

Noe Patriarca saindu hura horditu cen egun batez: eta harena etcen miresteco, ceren lehenbicico edan aldia baitcuen, eta ezpaitciaquien oraino orduan cerindar çuen arnoae; ceren iaquinez guero beguiratucen. Baino miresteco da, nola orai çuc daqniçularic, eta esperientzia duçularic, neurri batetara helduz guero arnoac iragaiten çaituen, gaitz eguiten deratçun, etçaren guztiarequin ere cençatcen, eta ez berriz halacatecic beguiratcen.

Licurgo Thraciaco Erregueari iduritu ceican ecen, etcela asco arnoac eguiten cituen calten erremediatceco, leguez eta ordenantçaz arnoaren debecatcea, ceren hura cela erroac utziric adarrey lotcea. Baino mahastiac behar cirela ebaqui, eta picatu. Eta hala bere erresumaco guztiac, batere utzi gabe, pica araci cituen: eta manatu çuen etcedilla nehor handic harat, biciaren penan ausart, mahastiren landateera. Eta hide hartçaz Erregue harc erremediatu cituen, arnoac, bere Erresuman, eguiten cerautçan calte guztiac.

Sabel bethea ianhariz, eta edariz gainez egnina, ezta deusetaco ere on, iocatceco, minçatceco, eraste-

co, eta erhoqueria eguiteco baicen. *Nolite imbriori vino in quo est luxuria*, (1) dio Iondone Pauloc: Etaçaitzeta hordi, etaçaitzeta arnoz betha, ceren arnou den lekhuan da haraguiaren desira desordenatua. Hunen arauaz erraiten du San Geronimoc: *Usus carnium et potus vini, ventrisque saturitas seminarium libidinis est*: (2) Haragui iatea, arno edatea, eta sabelaren bethatcea, guticia desordenatuen bazcaguia da, eta mindegua. Ceren nola mindeguiian bir landareceko landareac sorteen, eta hazten baitira: hala ian-edanean ere, haraguiaren placer hartceko guticiac, orhoitçapenac, eta quilicadurac pitzten, eta eguiten dira. Gaiz da, alfer, aise, eta ase egoitea, eta haraguiaren behatutic escapatcea.

§ 2.

Comunzqui iende aberatsac, ian-edanean ieri dabilçanac, erortcenago dira haraguiaren behatuas, probe gosez direnac baino. Hala frogatu quela Sesostris Egiptoco Erregueac dio istorioac; ezpada ere equia, ongida iauquitua, eta eracusten du nola pensa-teen çuten aberatsetaz paganoen artean, orai duela hirur milla urthe. (1) Erregue hora eritu cen, eta itsutu eritasun hartaric; eta berehala Erresumaco apez, midicu, eta gaineraco hartaco ciren guziec consulta

(1) Ephes. 5.

(2) Hieron. lib. 2. in Joan.

(1) Herodotes, lib. 2.

eguinic, erran cioten : bere senharrari fidel egon emazte batec isuri uraz garbitu behar cituela bere beguiac, eta halatan berehala arguituco eta sendatuco ceitçala. Erreguec haur aditu çuenean, sendatutçat cedocan bere burua; eta hasi cen berhala ordenatu ceican erremedioz usatzen. Eta lehenbicoric, segur baino segurago, hartu çuen Erreguinac bere emazteac isuri uretic; eta hartiçaz medicuec ordenatu cioten beçala, busti cituen beguiac, eta gantçulu. Baino alferrie, lehen beçain itsu guelditu cen. Erreguec choil miretsi çuen bunetcaz, ceren etçuen uste ecen Erreguinac fiteltasunari hutsic egun çnqueyela. Erreguinaz etsitu guenean, hasi cen berriż bertce emazte principal eta aberats batquetaric foroguaren eguiten, eta senda ahal citequeyenz enseiateen. Baino etcioten hec ere sendiaraciteen, eta ez onic eguiten. Ceren guztiac ciren berdin prestu, guztiac ciren cutsatnac. Orduan Erreguec burran, hurran etsitua cebillala, princesac eta aberatsac utzirie, aguian probetan hobequi khausituren cela, ekhar araci çuen baratce-çain probe baten emaztea, eta barec isuri uraz, beguiac uquitu cituen beçain fit, arguitu cen. Eta sendatu cenean hartu çuen emazte probe hura; egun çuen bere emazte, egun çuen Egiptoco Erreguina : eta guero hertce guztiac, gaichto frogatu cituenac, Erreguina bera lehenic, biciric errearaci cituen.

Aberatsac holatan aurquitu cituen probeac baino gaichtoago, eta araguiaren bekhatuan eroriago. Nahi bada hec guztiac paganoac ciren, guziarequin ere,

gauça eçagutua da, aberastasunetic, ian-edanetic, gu-latic, sabeldarraiotasunetic, sortcen da haraguiaren placer nahia, eta bekhatua. Eta abstinenecia, neurri bicitcetic, sabel-ederrerao içaitetic, eta pairatcetic heldu da garbitasuna eta saindutasuna. (1) Erraiten du Climaco sainduac : Nahi dena içan casto, eta ala baiña arnoan çopatua egon eta ussean ibili ; halsoa dela, suari iraunguitceco olio, eta orari bereganic hastantceco ogui puscaren emaitza beçala. Ceren nola ora bazcarcequin hurbiltcenago baita, eta bai sua ere olioarequin pitztenago : hala haraguiaren guticiamen-dua ere, ian-edan harequin berretcenago, eta handit-cenago da.

Beraz lohquieria, beguiratu nahi duenac, beguiratu behar du halaber, golos içaitetic, arnoan sobera sartcetic. Ceren halatan begiratuco du bigarren censua, eta portalea, cein baita ahoa, mihia, gustua, çaphorea, ceñuetarie sartcen baita, haraguiaren bekhatuaren hatsa, higuina, arimaren eta gorphutzaren gal-garia.

XXXII CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco, lehenen gain-raco erremedioae.

§ 1.

NOTA haraguiaren bekhatuan erori nahi eztuenac eduqui behar baitu contu, lehenbicico bi censuez bis-

(1) Clima. cap. 14.

gauça eçagutua da, aberastasunetic, ian-edanetic, gu-latic, sabeldarraiotasunetic, sortcen da haraguiaren placer nahia, eta bekhatua. Eta abstinenecia, neurri bicitcetic, sabel-ederreraeo içaitetic, eta pairatcetic heldu da garbitasuna eta saindutasuna. (1) Erraiten du Climaco sainduac : Nahi dena içan casto, eta ala baiña arnoan çopatua egon eta ussean ibili ; halsoa dela, suari iraunguitceco olio, eta orari bereganic hastantceco ogui puscaren emaitza beçala. Ceren nola ora bazcarcequin hurbiltcenago baita, eta bai sua ere olioarequin pitztenago : hala haraguiaren guticiamen-dua ere, ian-edan harequin berretcenago, eta handit-cenago da.

Beraz lohquieria, beguiratu nahi duenac, beguiratu behar du halaber, golos içaitetic, arnoan sobera sartcetic. Ceren halatan begiratuco du bigarren censua, eta portalea, cein baita ahoa, mihia, gustua, çaphorea, ceñuetarie sartcen baita, haraguiaren bekhatuaren hatsa, higuina, arimaren eta gorphutzaren gal-garia.

XXXII CAPITULUA.

Haraguiaren bekhatutic beguiratceco, lehenen gain-raco erremedioae.

§ 1.

NOTA haraguiaren bekhatuan erori nahi eztuenac eduqui behar baitu contu, lehenbicico bi censuez bis-

(1) Clima. cap. 14.

taz eta gustoaz, beguiez, eta ahoaz: hala eduqui behar du contu, gaiñeraco bertce censu guztiez ere. Eduqui behar du contu ençuteaz, beharriez. Ceren anhitz gauça ençuten da, hobe bailliçateque, ez ençutea. Nehor emaziez, edo emaztetaco gauçaz mintço denean, ez ernaturic egon, herts beharriac, itçul burua bertce alderat: ahalic eta gutierna halaco solhasic ençun, ez hetan atseguinic har. Ceren San Isidoroc dioen beçala: *Facile agitur, quod libenter auditur*: (1) Errazqui eguiten da, gogotic ençuten dena.

Bada garbitasuna beguiratu nahi duenac, eztu dantçatu behar, eta ez soinuac diren Icklura ioan. Lehenago Ientilen artean eta demboran, desohore cen dantçatcea: eta hala etçen iende ohorezcoric, eta constuzcoric dantcetan edireiten. Ciceronen errana da: *Nemo fere sobrius saltat*: (2) Nehor guti dantçatcen da edana eztenean, adimenduan dagoenean.

Iende gazte arinen, centçuz baino çangoz azcarago direnen, officioa da dantça. Dantçan ezta okhasino gaichtoric baicen. Han ahalquea galtsen da; eçagutçatan sartcen da; solhastatecen da, trebatcen da, escuztatcen da, mandatua eguiten da, eta azquenean behar eztieu sortcen da.

Erran behar da, gauça gaichtoa eta okhasinotsua dela dantça, hartçaz dioenean San Agustinec: *Melius est in diebus Dominicis arare, vel fodere quam choreas*

(1) Isidor. lib. Soliloq.

(2) Cicer. pro. Murena.

ducere : (1) Hobe da, bekhatu gutiago da, igande egnuetan, golde nabarretan, eta lur lanetan trabaillatcea, ecen ez dantçan haritcea. Eta haur erraiten du hunels, ez ceren dantçateca bera hain gança gaichtoa *den*, baina ceren dantçatic anhitz okhasino behar eztenic sortcen den.

§ 2.

Bada beguiratu behar da usnaren portalea ere, eduki behar da contu sudurraz ere. Ceren sar diteque handic ere behar eztena. Ezta musquetaz, balzamoz, eta halaco bertce usain onez usainztaturic ibili behar. Ceren hala ibiltceac eztu usain ona. Eta halatan manatu çuen Solonec, etceçala nehorc usain mercatalgoatan trata. Zenon Philosophoac etçuen ikhusi ere nahi halaco usainic çuenic. Eta hala egun batez bere companiaco bati, usaina adituric, eta bere baithan hasereturic, galdeguin çuen : *Quis hic mulierem olet?* (2) Norc du hemen emazte urrina? Bide gabe handia eguiten derauca bere buruari, emaztequi bat beçala, urrinztaturic, eta usain onez betheric dabillan guiçonac.

Ceren halacoac usain ona emaiteagatic, emaiten baitio bere buruari fama gaichtoa. Badiragauça bat-çue ikhussi gabe, sudurraz beraz, urrinaz usnatcen eta iaquiten baitira, non diren eta cer diren. Hala bethi usain onez betheric dabiltçanac ere, usnatcen

(1) August. de decem chordis.

(2) Diog. Laert. l. 7. in vita Zen.

dira, eta ikhussi gabe ikhusten, nolacoac, cer aztura-tacoac, eta certsu diren. Halatan Marcial Poetac erran ceraucan egun batez Postumo bere adisquideari : *Hoc mihi suspectum est quod oles bene, Postume, semper. Postume, non bene olet, qui semper bene olet :* (1) Gog-an behar gaichtoa emaiten deraut, Postumo, çure bethi usain onez betheric ibiltceac. Ceren eztu usain ona, bethi usain ona duenac. Usainic hoherena, batere usainic ez içaitea da. Hala erraiten du Ciceronec emaztez mintçö dela : *Ideo bene olen, quia nihil olen :* (2) Usainic eztutenean dute usain ona : eta ceren ez-paitute usainic, hargatic dute usain ona. Balsamo, ambar, musqueta, eta halaco bertee usain onac, ienden enganatceco, beregana eracartceco, bere buruez mintçä aracitceco ; eta haragniaren bekhatuan eroriac dauntçala usnatceco, eta gogan behartceco, bideac, eta seinaleac dira. Edo bai, ceren benturaz cenbait usain gaichto eta khirats baitute bere gorputzetan, baren estaltceco, eta ezeztatceco hartuac eta pensatuac.

§ 3.

Eztu deus onic usnarazten usain onez betheric ibiltceac, eta are gutiago, berari dagocan baino soineco arropa ederagoac erabiltceac : ceren hec guztiac dira banaloriac, desordenuac, eta desonhetsqueriaren seinaleac. *Amictus corporis et risus dentium et incessus*

(1) Martial l. 2. Epigr. 12.

(2) Cicero ad Atticum, lib. 2.

hominis enuntiant de illo : (1) Soineco arropetan, irrian, eta ibiltcean da eçagun, nolacoa, eta certaco den bat hedera. Nola khea den lekuan agueri baita budeia sua : hala soseguric gabe, hortzac hirrituric bethi irriz egoitean, eta banoqui beztituric ibiltcean, da halaber eçagun eta agueri, han dela erguelqueria franco, eta adimendua escaz.

Habentes alimenta, et quibus tegamur, his contenti sumus, (2) dio londone Pauloc : duguneau certaz gosea hil, eta larrua estal, ascoesten dogu. Ezinzu ian edanean, eta beztimendetan soberaniarie galdeguiten : doiak elicaten, iragaiten eta contentatzen gara. Gembait granoz arin delaco seinalea da, bertzeac ez beçala, edo dagocan baino ederquiago beztituric ibiltcea : eta beztidura hec soinean dituenean, bere buruari contentez beha egoitea. Halaco bati erran cioen egun hantez sequeretuan beharrira Demonacte ceritçan Philosopho batec : *Heus tu, hoc ante te, ovis ferebat :* (3) Hola, adisquidea, orai çuc soinean darabiltçatçun arrropa horiec, çuc baino lehen, erabili cituen bere bizcarrean ardiac : ceren haren illeaz eguinac baitciren. Eztuçu beraz horietçaz cer loriaturic. Eta hertcela ere, ceren beztidurac, bekhatuaren estalgarriac beçala, eta bekhatu eguin dugulaco seinaleac baitira, ederqui erraiten du San Thomasec pontu hunen gainean : *Qui*

(1) Eccli. 9.

(2) 1. Thim.

(3) Lucan in vita Demon.

gloriatur de veste, similis est furi glorianti de cautero,
quia propter peccatum Adae usus vestium introductus
est: (1) Nahi duę̄ iaquin, bere soineco arropez, pre-
çatcen, eta loriatcen dena, nola den? Açotatu ondoan,
insticiae sorbaldan burdin goriaz emaiten dioen mar-
caz eta ciguilluaz, preçatcen den ohoiña heçalacoa.
Marca hura, bere gaichtaqueriagatic emaiten çaiça
ohoñari, eta bai guri ere beztimenda, gure eta Adan
gure lehenbicico aitaren bekhatuagatik. Bekhaturic
içan ezpaliz, etcen beharco beztimendarik; eztugu be-
raz hetçaz cer banaloriaturic.

Bat bederac behar du, bere estatuaren arauaz, nola
 baitagoca, hala beztitu, eta ez guehiago. Ceren guchia-
 gocoaz, desohoratcenago du bere burua ohoratcen
 baino. Erregue behti bedi oihalic hoberenaz: aitonen
 semeac erdicoaz, eta nekhaçalea arronteraz. Ceren
 gaineraco guztiac dira banaloriac, desordenuac, be-
 khatu eguiteco, eta eraguiteco bideac eta garbitasuna-
 ren gal-garriac.

§ 4.

Baina guztien gainetic bortzgarren censu corporala-
 ri, cein baita, *Tactus*, Uquitcea, escuztatcea, eta haz-
 catcea, eduqui behar çaiça beguia. Ceren hura da
 ohoinen capitaina, itoen Condea, bertceren chatsietan
 ere parte duena. Ikhustea, minçatceaz, ençuteaz eta
 usnateceaz eguiten da bekhatu, ez ordea uquitceaz be-

(1) S. Tho. de regimine princip. lib. 5. cap. 59.

çala. Bertce censuec urruititic, baina utquitceac hurbilietic acometatzcen du. Beguiec, mihiac eta bertce censuec craiquitzen dute ihicia, baina uquitceac atzemaiten du. Gaichtoeneco pontuan, desonhesqui behatuagatic eta mintçatuagatic ere, aitcinago iragaiten ezpada, ezta obraric bedere: baina uquituz guero, ioan da guztia, estali behar da biguitartea eta nigarrey edequi beguiac. Desonhesqui behatcea, eritceco seiñalea da, baina uquitcea hiltcecoa. Oraino solhascateaz, eta behatceaz beraz ere, quilicateen da, orhoitzen da; cer içanen da bada, uquitcera, eta mussu bessarquetara dadinean? Urruititic ere berotzen du suac, cer eguinien da bada hurbil dadinean? Gaizqui doha iztupaz, suac ujni deçanean. Bertce ioco guztiac ametsetaocoac beçala dira, uquitcea da iratçarriricoa. Gatçac urez eguna delaric, eztu ura baino etsai handiogoric: ez eta haraguiac ere haraguiz delaric, haragnia baino galgarriagoric. Batac eta bertceac ere asco dute el-kharren uquitcea. Beraz aparta, ez hurhil, ez uqui. Ceren nola uquitceac pitzen baitu sua; hala ez uquitceac, hastanceac, eta aldaraturic egoiteac beguiratzen du garbitasuna.

Finean erremedio guztien gaineco, behar liçatequyen erremedioa da, consideratcea, Iaincoac ikhusten gaituela, beha dagocula. Eta baldin den presunaric etheusenaren behatceac, ikhusteac eta aitcinean guefthatceac, guibelatzen bagaitu, halaco bekhaturen egutetic; nola içanen da arraçoiñ guibela gaitçan, gueldi gaitçan, eta beguira gaitçan, Iaincoac ikhusten gaitue-

la, eta aldacan beha dagocula iaquiteac eta pensat-
ceac.

Hauc dira (eta Iaincoac ailliotsa liren asco!) hara-
guiaren bekhatuan ez erortceco eta eroriz guero ere,
iaquitceco, hartu behar diren erremedioric principa-
lenac. Cein baldin, egun beretic gueroco luçatu gabe,
haricen eta consideratzen baditu, iaquiçu ecen gor-
putzari aisia handi bat emanen dioçula; eta arimari
are handiagoa; eta halatan munduan duçun etsairic
handiona, eta perilosena, cein baita haraguia, azpira-
co, garaituco eta errendatua ibenico duçula.

BIGARREN PARTEA.

GUEROTIARREN PITZGARRIAC.

I.

GUEROA EZTA GUEUREA.

XXXIII CAPITULUA.

Nola eztagun gueroeo segurantçaric.

BADAQUIÇU orai darabillaçun bicitcea bicitce gaichtoa dela ; eta çutçaz ongvi içaitecotz, bicitce gaichto haur utzi behar duçula. Ordea pontua da , ea noiz utzico duçun. Eta çuc dioçu, GUERO ; baiña nic diot ecen ez GUERO, baiña ORAI. Dacusagan ea ceiniec dioen hobequi, ceiniec duen arraçoiña. Eta eracusteco ecen nic dudala, eta çu çoaçilla huts eguna, eta bide errealetic eta çabaletic aldaratua eta errebelatua ; erradaçu behin, eguiteco hunetan sarthu baiño lehen : Çuc baitioçu ecen, guero onduço çarela, guero behar diren descarguac , eta eguiñhideac egunen ditutçula. Non duçu GUERO horren segurantça ? Eztaquici, erran comuna den beçala, eztela heriotcea beçain gauça seguric , eta orena noiz içanen den beçain guti guerthuric ?

Gure bicitce hunec hain du cimendu flacoa eta eria, ecen ongvi minçatcera , ecin baiterraquegu :bihar

eguin en dugu bunelaco edo halaco gauça. Baiña erran behar dugu Iondone Iacuec dioen beçala : *Si Dominus voluerit, et si vixerimus, faciemus hoc aut illud :* (1) Baldin Iaincoac nahi badu, baldin bici bagara, eguin en dugu haur edo hora. Hargatic erraiten du San Matheo Evangelistac : *Vigilate itaque, quia nescitis diem neque horam :* (2) Çaudete prestic eta iratçarriric, ceren eztaquique eguna eta ez orena ; eta badio Spiritu Sainduac oraino, anhitz galdu dela, bere buruari ethorquicunaz sobera prometatz : *Repromissio nequissima multos perdidit.* (3)

Gure lehenbicico aitaren bekhatua dela causa, haren gatic, haren cariaz, guztioc gaude preso, guztioc gaude mundu hunetaco garcel hunetan, eriotcera condentuac. Baiña, iragaitçaz beçala, gure heriotcera condenturic egoiteco pontu haur uqui deçadan : Badirudi eceu gure lehenbicico aitaren bekhatuagatic, ez harc berac, eta ez guc ere, ezquenduqueyela hil behar. Ceren sagar bat, edo halaco bertce fruitu bat ian çuen. Bada sagar baten iateagatic, guiçon baten, are bere ondoko guziequin, heriotcera condenatea, badirudi iusticia berriaren soberania eta arraçoiñaren contra dela. Eguida, hala dirudi. Ordea ezta hala, iduria du, eta ez içana. Aitcitic sagar baten iateagatic, ceren hain gauça ttipian eta errazean manua hautsi çuen, aldez hargatic

(1) Iacobus, in sua epistola cap. 4.

(2) Math. 25.

(3) Eccli. 29.

quen gaztigu guehiago mereci.—Batquec bere laçotasunez, ceren ezpaitira guiristino finac, barur eguna mengoagabe hautsten dute; batarequin eta bertcearequin solhasean daudecilla, meña ençun gabe, besta egunean, utzten dute; hitz guztiaz, ez eta bai asco den lekhuan, arnegu eta iuramentu eguiten dute; eta guero erraiten dute: baldinba ez ahal naiz hunengatic, hunein gauça aphurragatic, eta hunein errazqui eguin dudanagatic ifernuraco? Bada erran nahi deratut ecen ceren horrein gauça errazean, aphurrean eta ttipian, ceure lachotasuna eta Iaincoaren manuaz contu guti eguitea eracutsi duçun, aldez are horigañic ifernuraco çarela.

Baldin Iaincoac manatu bacinitu, egun guztiaz barur cindecilla; çur baten edo harri baten gaiñean, ohetan sarbu gabe etçain cindecilla; cilicio bat, cerdazco guerrico bat, larru arras bethi ere erabil ceneçala; edo finean, hunelaco bertee manamendu gaitz bat, eman baleralçu, badirudi etçatequeyela miresteco ez complitcea; eta ez complituagatic ere içan cenduqueyela cerbait desencusa eta estacuru. Baiña gauça ttipian eta errazean, sagar baten debecuan, cer desen-cusa, cer estacuru ahal duqueçu?

Adanec anhitz fabore eta abantail erreccibitu quen Iaincoaganic, eta guero hequen guztien buruan, çuhaitz bat seiñalatu baitcioen erraiten cioela, bertee guztiataric bai, baiña haren fruitutic etceçala ian: manamendu erraza, debecu ttipia ibeni ceraucan; eta guztiarequin ere, etçuen beguiratu, etçuen complitu,

hautsi çuen, ian çuen; arraçoinez beraz, erraztasun huragatic beragatic ere, condenatu çuen bere ondoko guztiequin herioteera: ceren ondocoec ere, haren naturaleça cuiyatua hartu baitçuten. Gauça, debecua, ttipia da, haiña desobediencia handia. Eta hala iustuqui dago, gure contra sentencia emana; iustuqui gaude heriotcera condenatuac; eta estaquigu noizco. Beraz baldin gueure buruaz contu onic eman nahi badugu, condenaturic dagoen batec beçala, behar dugu egon, bici eta gobernatu.

Garcelean dagoenac iaquiten duenean condenatu dela biciaren galtcera, norc erranen du nola tristetean den? Cein gogoetatsu iartcen den? Hasten da batsberapen eguiten, alde batera eta bertcera itçultcen. Eta ikhussiriç eztuela erremedioric, eztuela escapateoric; hartcen tu lehenetz bertce gogoeta moldo batçue. Munduaz eta munducoezez etsitcen du, eztu betçaz conuric eguiten. Bere concienciac, bere arimac, derauca eguiteco. Bere bekhatuac pensatcen tu, ahalic eta ho-bequien cofesateen ditu; batari eta bertceari barkhamendu escatcen çaye. Finean ahal beçanbat bere conciencia descargaturic eta garbituric, heriotceari iguriquitcen dio.

Bada garcelean condenaturic dagoen harc beçala, hala prestaturic, harc ditnen gogoetequin, behar dugu guc ere egon, bici eta ibili; hura bihararamuneco beçala, gu ere, ez iaquin noizco, benturaz gaurco, Iaincoaz beraz, Iaincoac sentencia emanic, condenatuac gaudenaz gueroztic.

Sar balitea iusticiac hamar guiçon garcelean barrena, urkhabera condenaturic; eta handic athera balitea galteera egun bat, eta bihar edo bertzee egun batez bertce bat, edo bia: othe liçateque nehor ere hequen artean, bicitce lucearen esperantça luenic? Edo ceren eztutene lehena atheratcen, azquena içanen dela segur licenic? Eztut uste. Bada mundu haur ezta bertce gauçaric, gure heriotcera condenaturic gaudenen garcela bat baicen. Eta garcela hunetaric atheratcen gaitu laincoaren iusticiac, egun bat, bihar bertce bat: bata lehen, hertcea guero; eztaqui nehorc noiz, ezta segurantçaric. Beraz gauden erne, gauden prestic, segurantçaric eztenaz gueroztic.

§ 4.

Comunzqui ahotan dabillan solhasa da: eztugu gue-roco segurantçaric, bethi gara periletan. Eta hala da egua; ceren gutien uste dugunean, gueure gogarenic gaudenean eta aitcinera ere anhitz gauçaren eguiteco gogo hartzen dugunean, atrapatzen baicaitu heriotceac. *Nescit homo finem suum, sed sicut pisces capiuntur homo et aves laqueo comprehenduntur; sic capiuntur homines tempore malo:* (1) Eztaqui guiçonac bere finaren berriric, baiña nola amuac atcemaiten baititu arrainac, eta hegaztinac segadac; hala guiçonac ere atcemaiten tu bere heriotceac. Arraiña alha denean, bazcari datxecanean, eta bere ustez hobequienic da-

(1) Eccles. 9.

goenean, atrapatcen du arrantçaleac ; eta bai hegaztina ere ihiztariac. Hala atrapatcen du bada bekhatorea ere heriotceac bere bekhatuey bere gogarenic datchetenean, goçoquienic alha çayenean, eta gutien uste duenean.

Midicuen errana da, presuna batec, sendoen denean, duela critceco perilic guehiena. Eta hala noiz eta uste baituçu, heriotcea çure ganic dagoela urrunenic, orduan ohi dago comunzqui hurbillenic. Çorrac pagalu dituçunean, etche berria eguin duçunean, umeac ezcondu dituçunean; finean ceure eguitecoey garaitoric, baque on batean iartcera, eta cerbait sosegu eta placer ceure buruari emaitera prestatcen çarenean, han da berehala heriotcea.

Ezcara deus ere, beiraquiaren pare gara, eta are beiraquia baiño perilos eta hautscorrago. Eztugu beiraquiac beçan bat indar eta sophortu ere. *Quid fragilius vase vitreo ? et tamen servatur et durat persæcula. Etsi casus vitreo vasi timetur, senectus ei et febris non timetur,* dio San Agustinec : (1) Cer da beirazco untcia baiño gauça samurragoric eta hautscorragoric? Eta alabaiña ailtchatcen eta beguirateen denean, irauten du mendez mende. Ceren erortcearen peril badu ere, ez ordea eztu sukharraren edo çahartcearen perilic. Beraz beiraquia baiño perilosago gara eta ezteusago. Ceren behaztoparic, eroriric, edo eritasonic ez guerithatuagatic ere, eta gueure buruac ahalic

(1) Aug. sermo 1. de verbis Dom.

eta hobequiena errecaitatu eta beguiratua gatic ere, adinac berac eramaiten baicaitu.

Bethi goaci, ezcara behin ere barateen. *Quasi aquae dilabimur*: (1) Uraren pare gara; ura beçala limburtzen gara. *Corpora nostra rapiuntur, fluminum more*: (2) Gure gorputzac ur lasterra beçala dohaci. *In idem flumen bis non descendimus: manet idem fluminis non men aqua transmissa est*: (3) Ezcara behinere ur berean bietan sartcen (dio Senecac); uraren icena bethi da bat, ez ordea ura. Ceren nola bethi baitoha, eta bethi aldatuaz, ezta behinere lehena. Ez eta bada gu ere, nola bethiere baicoaci eta bethi aldatuaz eta mudhatuaz, ezcara behin ere lehenac. Eta ezpere beha eçaçu, nola presuna bat gaztetie çahartceera, eta are batçutan urthetic urthera ere, aldatcen eta ezeztatcen den idurian ere; lehena eztirudiela iartcen den, cein different eguiten den.

Vita nostra naviganti similis est; is namque qui navigat, stat, jacet, vadit quia impulsu navis ducitur: (4) Gure bicitcea itsasoz dohana beçala da, (dio San Gregorioe); itsasoz dohana, iatean, edatean, lo datçanean, eta are iarriric dagoenean ere, badoha, ezta orduan ere haratcen. Ceren untciac, nahi ezpadu ere berequin baitarama. Hala garamatça bada gu ere gueu-

(1) 2. Reg. c. 2.

(2) Seneca, epist. 58.

(3) Seneca, ibidem.

(4) Grego. epis. 26.

re adinac eta demborae berequín; ezta pausatceric, ezta guelditceric eta ez tricatceric.

Galdegniten deratçutenean, cenbat urthe ditutçun, eta ihardesten duçunean, hogoy edo hogoy eta hamar ditutçula, ceren ceure contuan hala baititutçu, badirudi eztuçula ongi ihardesten. Ceren San Agustinec dioen beçala : *Anni nostri veniunt, ut cant, non enim veniunt ut stent nobiscum* : (1) Gore urtheac ethortcen dira ioaiteco, eta ez gurequin egoiteco ; iragan dira, beraz ecin derraquegu baitugula. Eta hala baldin urthe hequen buruan, iar bagaiteci hetçaz cer egnin direa gogoetan, eztugu deus edirenен. Aitcitic ikhussico do-gu, sentitu gabe, ioan çaiquirigula; eta, nola eztaquirigula, çahartu garela. *Tempora labuntur, tacitisque senescimus annis* : (2) Demborae badohaci, eta urthe ichil batçuez, hotsic eta habarrotsic egun gabe çahartcen gara.

Erraiten da, hunelacoa bici içatu cen hirur hogoy urthez; baiña hobequi erran liteque, hil cela hirur hogoy urthez. (3) Ceren sortcen garenean, hasten gara hiltcen, orduan aliatcen gara, eta excara behinere baratcen. Lehenic hiltcen da haurtasuna; haurtasunaren ondoan hiltcen da morrointasuna; morrointasunaren ondoan hiltcen da çahartasuna; çahartasunaren ondoan hiltcen da sentontasuna. Adin guztiak elkarri

(1) August. in psal. 65.

(2) Ovid. lib. 6. Fastor.

(3) Vide August. in psal. 127.

darraitza: iragaitea eta hiltcea guztia da bat: bata bertzearen ondoan dohaci, halaco moldez ecen azquen adina dathorreneco, akhabatu baitirate leheneco guztia. Ceren San Gregorioc dioen beçala : *Ipse enim quotidianus defectus, quid aliud est, quam quedam prolixitas mortis?* (1) Egunetic egunera ahitce eta flacatce hura cera da, luçaro hiltce bat baicen ! Çucia iratchequiric dagoneam bici da; eta orduan hiltcen da, ceren orduan ahitcen baita. Erratceaz bicitcen da, eta errateceaz hiltcen da. Hala bada gu ere, bicitceaz hiltcen gara, eta hiltceaz bicitcen. Ceren bicitcen garenean hiltcen baicara. Eta cenbatenaz eta guehiago bicitcen baicara, hanbatenaz heriotecoco portura hurbiltcenago gara. Hala erraiten du Senecac : *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vitae :* (2) Egunoro hiltcen gara, ceren eguna oro gure bicitcari cebait pochin eta parte guzticen eta edequitcen baitçaica. Eta are hazten eta handicen garonean ere, gure bicia ttipitcen eta laburteen da. Bethi doha, eta behin ioanez guero, ezta ioan deñaren bihurteeric, eta ez ethorquiçunaren segurantçaric.

§ 2.

Erraiten ohi dugu : bentaraz egun hillen gara, bentaraz bihar ; eztugu oren baten segurantçaric ; beraz lehen baiño lehen, behar dugu bide onean iarri, en-

(1) Greg. sermo 27 super. Evang.

(2) Senec. epis. 2.

ganatuac guertha ezcaitecin. Hunela erraiten dugu, eta erraitea ongui eguiten dugu; ordea obratcea bethi ere gueroço utzten dugu: heriotcea eta aztura gachtoen utztea çahartceracotçat, egozten eta ordenatzen dugu. Ecin sinhets deçaquegu, adinac berac akhaba arteiño, akhabatuco garela. Erran bai nahi duçon beçanbat: benturaz bihar hillen, benturaz gaur, benturaz ez çahartuco. Ordea çahartuco baiquina beçala gueure gauça guztiac eguin. Gueure nahiarequin battean, gueure gogoac hanbat segurantça emaiten dera-cu, non çahartu hutsezco ponturaiño, ez carela hillen iduritzen baitçaicu.

Erran ceraunean deabruac gure lehenbicico aita amey: *Nequaquam morimini:* (1) Etçarete hillen, sinhetsi çuten berehala, eta sinhetsi ere colpe batez ossoqui, dudatu gabe. Eta dembora hartan etcen hain miresteko hala sinhestea. Ceren nola baitciren mundo-co lehenbicicoac, etciaquiten oraiño heriotcearen berriric, etcuten nehor hiltzen cela ikhusi, eta halatan errazqui enganatu cituen. Hala bada nahi guinitozque gu ere enganatu; molde berean nahi lerauquegu guri ere, ezcarela hillen, sinhets araci. Ordea nola gueorai bertceren baithan icussiz, eta gueure baithan ere çahartceaz eta flacateaz frogatz, baitaquigu segurqui eta guerthuqui, hil behar dugula, eztugula itçurteric, eta ez nehoizco segurantçarie; ecin engana gaitçaque gu, gure lehenbicico aita ama hec beçain errazqui.

(1) Genesis, c. 3.

Gurequicötat, guri ezcarela hillen sinhets aracitceco, edo sinhesten baiquendu beçala eraguiteco, bertce hide bat hartcen du, bertce ioco thaillu bat iocatcen du, bertce maiñaz eta traçaz usatcen du. Ez ossoqui, ez colpe batez, haiña aphurbana eta egunetic egunera loçatuz atrapatzen gaitu. Sinhets aracitzen deracu, ezcarela egun hillen, ezcarela bihar hillen. Eta bihar heçain ephe luceric ez, eta ez bihar arteño bicitceco esperantça eztuenic; eta halatan handic, nola ezpaittugu uste egun hillen garela era ez bihar ere, bicitzen gara, segur baiquiniaqui beçala; edo seculan hillen ezcarela baiquiniaqui beçala.

§ 3.

Eztaquigu noiz hillen garen, eztaquigu noiz içaneñ den gure azquen eguna: ezta beraz arraçoin, iaquin deçagun, noiz içanen ezten ere. Ordea badirudi ecen, noiz içanen den ezpadaquigu ere, badaqnigula noiz içanen ezten. Ceren erraiten dogu ecen guero bertce urthean onduco garela; orduan hunelaco eta halaco descargu eguin ditugula: beraz badaquign eztela anarteraiño içanen, bitartean iguriquico çaicula, edo behintzat erraiten eta eguiten bedere badugu, baiquiniaqui beçala.

Çuc nahi cenduque eguin ceure bicitceaz, eta bicitceco demboraz, oihal pusea batez eguiten duçuna. Oihalaren parte bat neurtecen eta ordenatzen duçu capataco, bertce parte bat jacataco, eta gaiñeracoa behar diren berice soñecoen eguiteco. Hala bada, oihala-

ren beçala, ceure bicitcearen ere iaun, iabe eta nabusi baitcina beçala, ordenatcen duçu bicitcearen parte bat, eta parteric hoberena eta gaiena, gazletasuna munduarentçat, eta guero gaiñeracoa gaichtoena, çahartasuna Iaincoarentçat. *Quod in manu fortunae positum est, disponis, quod in tua dimittis*, dio Senecac : (1) Ethorquiçuneco gançac, fortunaren escuan eta benturan daudecinac, nahi ditutçu oraidanic gobernalu, traçatu eta destatu : eta presentecoac ceure escuan dituçunac, utzten ditutçu galtcera : duçunaz eztuçon turic eguiten, eta eztuçonaz egun gogo duçu miracuillu. Orai Iaincoac emaiten derauzquitçun bicitcea, osasuna, indarra, antcea eta onthasunac nahi ditutçu, Iaincoaren beraren contra çabiltçala, higatu eta galdu ; eta guero, oraiño eman ezterauzquitçunac, eta benturaz emanen ere ezterauzquitçunac dioçuecen, haren cerbitçoan emplegatuco ditutçula. Ikhusaçu ceure itsutasuna, desgobernua eta galtceco hidea.

Ninibitec penitencia eguiteco berrogoy egunen ephea, espacioa eta segurantça çutelaric, hartara behatu gabe eta azquen egunaren beguirat gabe, berehalat, lehenbicico egunean, hasi ciren penitencia eguiten eta bere falten erremediatcen ; eta handic eta halatan salbatu ciren. Cergatic bada guc ere, eztugu hala eguin ? Cergatic utzi behar dugu gueroço, ez berrogoy egunen, baiña baten ere segurantçaric eztugunez gueroztic ?

(1) Seneca de brevitate vitæ, cap. 9.

Noeren demboran, iaten, edaten, iocatcen, dançatcen, ezcontcen, sal-erosi eguiten, eta ethorquiçunerat anhitz gauçaren ordenatcen, pensatcen eta traçatceu hari cirelaric, hartu eta hondatu cituen urac. Hala da bada peril guertha daqniçun çuri ere, guerotic guerora çabiltçanari. Ceren hec cein guti çuten, are çuc baituçu hec baiño segurantça gutiago ; eta aitcinerat hobequi behateen ezpaduçu, galteeco eta fin gaitz eguiteco iduri, arau eta molde guehiago.

XXXIV CAPITULUA.

*Nola gueroco benturaren benturan benturaturic ,
galtcen garen.*

NOLA gure laungoicoa baita hain on, bihotz-bera, misericordios, pacienciatsu eta ethorcor, erraiten duçun : Anhitzi iguriqui dio eta iguriquitçen dio çahartu hutsezco ponturaiño, naturaleçac berac bere abala eguin arteiño ; beraz eztut oraiño cer lehiaturic, ceren benturaz hala eguin enequin ere. Benturaz diócu ? Eta eztaquici benturac, benturaren iocoac eta tornuac dituela ?

Hirur bentura moldec, hirur bentura suertec gobernatcen du guicona. Lehenbicicoa da, bekhaturi eguitetic eta anhitz periletaric beguiratcen eta guibelatcen gaituena. Handic erraiten dugu : eztut bekhaturic eguin nahi, ceren benturaz hetan nengoela, neure azquen egunac atrapa nintçaque. Eztut ebatsi

Noeren demboran, iaten, edaten, iocatcen, dançatcen, ezcontcen, sal-erosi eguiten, eta ethorquiçunerat anhitz gauçaren ordenatcen, pensatcen eta traçatceu hari cirelaric, hartu eta hondatu cituen urac. Hala da bada peril guertha daqniçun çuri ere, guerotic guerora çabiltçanari. Ceren hec cein guti çuten, are çuc baituçu hec baiño segurantça gutiago ; eta aitcinerat hobequi behateen ezpaduçu, galteeco eta fin gaitz eguiteco iduri, arau eta molde guehiago.

XXXIV CAPITULUA.

*Nola gueroco benturaren benturan benturaturic ,
galtcen garen.*

NOLA gure laungoicoa baita hain on, bihotz-bera, misericordios, pacienciatsu eta ethorcor, erraiten duçun : Anhitzi iguriqui dio eta iguriquitçen dio çahartu hutsezco ponturaiño, naturaleçac berac bere abala eguin arteiño ; beraz eztut oraiño cer lehiaturic, ceren benturaz hala eguinene du enequin ere. Benturaz diócu ? Eta eztaquici benturac, benturaren iocoac eta tornuac dituela ?

Hirur bentura moldec, hirur bentura suertec gobernatcen du guicona. Lehenbicicoa da, bekhaturi eguitetic eta anhitz periletaric beguiratcen eta guibelatcen gaituena. Handic erraiten dugu : eztut bekhaturic eguin nahi, ceren benturaz hetan nengoela, neure azquen egunac atrapa nintçaque. Eztut ebatsi

nahi, ceren benturaz iusticiac atceman nintzaque, urkha edo açota. Ez tut iocatu nahi, ceren iocoas esti errenta, benturaz gal nezaque. Ez tut escuetan dudanaz gabetu nahi, ceren benturaz guero, nahi dudanean, eznuque. Hala erran ceran birgina çuhurrec, birgina erguel olio esque ethorri ceizteney : *Ne forte non sufficiat nobis et vobis* : (1) Ezteratzenegu eman nahi, ceren benturaz guero ezqnenduque guretçat asqui. Hala Dathan eta Abiron bere lagun batuequin lurrac iretsi cituenean ere, eginin quten inguru hartzan cirenece handic ihes, erraiten çutela : *Ne forte et nos deglutiat* : (2) Goacin hemendic, ceren baldin hemen bagueneunde, benturaz bertze hauec beçala, irets gunitzaque gu ere lurrac. Haur da bentura ona, ethorquiçuneco bentura gaichtotic eta periletic beguirateen gaituena.

Bigarrena da halaber bentura ona, bekhatu egun ondokoia, egunen erremediatu nahiz dabillanarena. Icussiric galdua çoailla, Iaincoaren manamenduaç hautsi dituçula, erraiten duçu : Eguinac egun, ez quehiago. Aiteinera hobequi nahi dot gobernatu : Iaincoari cin cinez, bihotzezko urriquimendu hatequim nahi natzaica barkhamendu escatu. Ceren benturaz halatan barkhatuero deraut, halatan içanen du nilçaz misericordia. Minçatce molde hunez usatu çoen Daniel Prophetac ere, erran cioenean Nabucodonosor erregueari :

(1) Mat. 25.

(2) Num. 16.

Erregue aparta çaité ceure leheneco bide gaichtoetaric, eta eguiçu erremusina, çaren beharren alderacolcat bihotzbera eta misericordioz: *Et forsitan Deus ignoscet delictis tuis:* (1) Eta benturaz halatan Iaincoac barkhatuco derauzquitçu ceure bekhatuac. Hala Ninive hiri handi hartaco erregueac ere, entçun queñean baserre cela haren eta harenen contra Iaincoa, manatu çuen hiri guzia iar cedilla othoitzetan eta penitenciatan, guziac barur citecilla; eta are abre mutuey ere elcequiela eman iatera eta ez edatera, erraiten çuela: *Quis scit si convertatur et ignoscat Deus, et revertatur à furore irae sue, et non peribimus?* (2) Norc daqui, mehatchatu bagaitu ere gueure Iaincoac, eta erran hadu ere haserre dela gure contra, ea gure urriquimendua eta penitencia ikhussiric, itçulico denz bertee aldera, ematuco çaicauz bere colera, eta utzico gaituenz gaztigatu gabe? Erran baillu beçala: Arraçoinquin da gure Iaincoa gure contra haserre, arraçoinquin mehatchatcen gaitu, eta erraiten deracu gaztigatu nahi gaitnela. Baiña guztiarequin ere othoitzetan ior gaitecin; lehen gaichtatasunean beçala, orai ontasunean emplega gaitecin, eta benturaz halatan bihotza hautsico çaida, urricalduco gatçaitça, eta barkhatuco deraçu. Hala erran cioen untei maestruac ere, tormentatua cebillanean, Ionas Prophetari: *Quid tu sopore deprimeris? Surge et invoca Deum tuum*

(1) Dan. 4.

(2) Ionæ 3.

si forte recognoscet de nobis, et non pereamus : (1) Ger hari iz guileona? Ger aratça lo? Eztacosac ithotcera goacilla? Haic hortic, iar adi oracinotan, eguioc heure Iaincoari othoitz; eta bentoraz halatan escapatuco gaituc. Hala Patriarca Iacobec ere, bere anayarequin gaizqui cenean, igorri cerantçan bere anaya hari aitcinetic presentac, erraiten çuela : *Forsitan propitiabitur mihi :* (2) Benturaz hunelatan present hauquin batean barkhatuco deraut, bentoraz hunelatan adisquidetuco gara. Haur da bigarren bentura ona, ontasunean emplegatcen dena, falta eguinac erremediatu nahi dituenarenca.

Baiña bada bertce bat, hirurgarren bat: bentura gaichtoa, luçamenduae bilhalcen dituena, guibela-mendutan dabillana, eta perilic baicen ezten lekuan ere, segurantçac ediren nahi dituena. Erraiten çaitçu çahartcen hasi çarela, bi illetan iarri çarela, beguiac lambotcen hasi çazquitçula, bidearen bi herenac iragan ditutçula, eta baldin horela çaudelaric, ceure azquen egunaç edireiten başaitu, ez benturaz baiña seguraz condenatuco çarela. Ordea çue eztuço hunelacoric sinhetsi nahi, eta ez ençun ere. Aiteitic ceure nahisrequin batean benturaz eztela halacoric içanen iduritcen çaitçu. Eta erran behar bidean : Benturaz hala içanen da; benturaz danatuco naiz, erraiten duçu : benturaz ez naiz danatuco, benturaz ezta halacoric içanen.

(1) Ionæ 2.

(2) Genes. 32.

§ 1.

Lehenbicico gueçurra, lehenbicico emazteac erran çuen, Galdeguin ceraucanean deabruac Ebari, ea cergicatik etçuen iaten parabisuaren erdian cegoen çuhaitz eder haren fruitu eder hartaric? Ihardetsi çuen : *Ne forte moriamur* : (1) Eztut iaten, ceren erran baiterant Iaincoac, baldin iaten badut, benturaz hillen naicela. Eta Alabaiña Iaincoac etcioen halacoric erran; etcioen benturasic aiphatu. Garbiqui eta segurqui erran cioen, iaten çuen egun berean hillen cela; erran nahi du, mortal equinen cela, hilquçun içanen cela : *In quocumque enim die comederis ex eo morte morieris*. (2) Venturaz hora Ebac berac berretu eta iratchequi ceraucan, eta berretura eta iratchetura har-teaz, bere burua eta guzlioc ere galdu guinituen.

Ohorea guehienic gal arazten duen bekhatuaren eguitera bulcatua denac, erraiten du : benturaz eztute iaquinan; benturaz eztute ikhusico; benturaz etzaut çorigaitzic guerthaturen. Ohoiñari ere ebastera dohanean gogoarteen çica, escuac iratchequi badiatçote, guitenean bereac emanen derantçatela, açotea içanen duela. Baiña harc ere site consolatzen du bere burua, erraiten duela : Benturaz eznaute atrapatuco, benturaz eznaute sentituco. Hala báda çuc ere, guerotic guerora çabiltçanac, consolateen duçu ceure burna, eta er-

(1) Genes. 3.

(2) Genes. 2.

raiten duçu : Benturaz huneraiño iguri qui derautanac, iguri quico deraut orai ere; benturaz orai ezpadut ere, içanen dut aitcinerat ongi eguitaco gogo; eztira oraiño dembora guztiac iragan.

Bada hemen *bentura* franco, eta ez esperantza escasic. — Cer da haur? Non da centqua? Non da akhordua? Cer eguiñ da adimendua? Ceure salbamendua, banbat dihoatçun gauça, seculacotçat ongi edo gaizqui içaitea, iben deçaçula *benturan?* Eztuçu pensatzen, bentura horrec, benturaz, bentura gaichtoa emanen deratçula? Eta norc bere duen guztiaren benturateea, erhoqueria handia dela?

Benturaz hunen gaiñean ederqui erraiten du San Chrisostomoc: *Sed multis, inquis, Deus dedit privilegium, ut in ultima senecta confiterentur. Quid igitur, numquid et tibi dabit? Fortasse dabit, inquis. Cur dicis fortasse? Contingit aliquoties. Cogita quod de anima tua deliberas; proinde etiam de contrario cogita? et dic: Quid autem si non det? — Quid autem, si det? Inquis. Dat quidem ipse, verum hoc illo certius et utilius:* (1) Erraiten duçu eta erranen duçu : laincoac anhitzi emaiten deraue privilegio haur, gaztean gaichto içanagatic, iguriquitcen baiteraue çahar ditiezqueyen arteiño, eta orduan behar den bidean, penitencia eguinie, salbatzen baitira. — Cer bada curi halaco privilegioric edo garaciariic emanen othe deratçu? — Erranen duçu, benturaz hai. — Cergatic

(1) Chrys. Hom. 12.

dioçu, benturaz bai? — Ceren batçutan guerthatcen baita. — Eguiçon gogoeta ceure arimaz dioatçula, eta pensa eçaçu contrara ere guertha ditequeyela; eta erraçu: Cer içanen da iguriquitcen ezpaderaut? Erranen duçu oraiño: Eta cer içanen da iguriquitcen baderaat? — Iguriqui ahal diaçaiçu; ordea hobeago, eta segurago da iguriquico ezpaileratzen beçala bicitcea eta gobernatcea. Hunen arauaz erraiten du San Agustinec ere: *Si enim fortasse Deus non perdet nec malos, sine dubio non perdet bonos: Cur ergo non eligimus, ubi dubitatio nulla est?* (1) Baldin Iaincoac benturaz galduco ezpaditu gaichtoac, segur da eta duda gabe da eztituela galduco onac. Cergatic bada eztugu batere dudarie eztuena hautatuco? Cergatic ezcarra, benturac utziric, segurean iocatueo? Nola erraiten baitugu, benturaz iguriquico deracula Iaincoac, derragun (guertha ditequeyen gaucha baita), benturaz ezleracula iguriquico; eta goberna gaitecin iguriquico ezpaileraeu beçala; eta halatan ez benturan baiña segurean içanen gara.

§ 2.

Segur beçala daducat, ifernurat ioaiten diren quehienac, guero baten benturan iarriric, hartan fidatric eta hartan engaturic ioaiten direla. Behintçat hala ioan cen Evangelioco aberats hora. Ceren nola, San Lucas Evangelistac erraiten duen beçala, aberats hari ur-

(1) Aug. in Psalm. 77.

the ona guerthatu baitceican, eta bildu baitzen anhitz, iarri cen bere buruarequin gogoetan, erraiten çuela: *Quid faciam quia non habeo quò congregem fructus meos?* (1) Cer egunen dut? Noraeo dut hunenbat ogui, arno, bihi, fruitu eta ontasun? Eztut eduquitceco lekhuric ere. Baiña badaquit cer egunen dudan, erraiten dio berriz bere buruari: Leheneco bihiteguiac, ardandeguiac, sotoac, salac, eta gambarac handituco ditut, eduquitceco lekhua franco egunen dut. Eta guero sosegatuco naiz, ardura guztiac utziric, pausatuqui, hatsaren gaiñean iarrico naiz, erraiten dudala neure buruari: Orai atsegün har eçac, ian eçac, edan eçac, ceren berdin eztuc deusen escasic, eztuc guero-coren perilic, baduc ethorquiçunecotçat ausarqui behar den errekeitu guztia. Bada contu hautan, contuac ongi egun gabe cebilla, aditu çuen cerutic minçoa: *Stulte hac nocte repetent animam tuam à te; quæ autem parasti cuius erunt?* (2) Ha! erhoa, centu gabea, cer mintço aiz? Cer gogoeta darabillac? Eguna ditchireac gaur escatuco çainzquic; heure arima, gaur gotputzetic athearic, eramanen deraue. Eta guero-ordan, bilduric daduzcan on horiec norentçat içanen dira? — Erhoa deitcen du aberats hura, eta arraçoi-nequin: Ceren cer da erhoqueria handiagoric, gueroço demboraz, bertceren escuan eta benturan dagoneaz,

(1) Luc. 12.

(2) Luc. 12.

bere escuan eta segurean baillu beçala, ordenatcea baino.

Gaitecin beraz bertceren gaiñean centça; deçagun bertceren periletic athera segurantça; hartzen dugula, Spiritu Sainduac emaiten deracun conseillua : *Non tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem, subito enim veniet ira illius, et in tempore vindictæ disperdet te* : (1) Converti çaiteci, bekhatutic iltqui çaiteci; eta ezteçaçula berant, ezteçaçula egunetic egunera luçat : Ceren gutien ustec duçunean, ahantcienic çaudenean, neurria betheco da, Iaincoa haserretuco da; eta guero mendecuzco egnenean, heriotceco demboran, galduco, eta deseguinien çaitu. Badirudi haur eman nahi çuela aditcera Spiritu Sainduac oraino, erran çuenecan : *Ne dicas amico tuo vade et revertere, et bras dabo tibi, cum statim possis dare* : (2) Ezterroçula ceure adisquideari, dohala eta dathorrela, bihar emanen dioçula. Baldin baduñu emaitecoric,emoçu berehala. Erran nahi du : eguinen duçun onguia eta ontasuna daguiçula fite, gueroco benturan utzi gabe, luçamendutan eta ioan ethorritan ibili gabe.

Egun hatz galdeguin ceraucaten Alexandro handiari, ea nolatan erdietsi eta irabaci çuen hanbat bictoria? hanbat on eta onthasun? hanbat hiri eta erresuma? Eta ihardetsi çuen laburzqui : *Nihil procras-*

(1) Eccli. 5.

(2) Prov. 3.

tinando : Ez deus luçatuz, ez deusbiharamuneco utziz : etçuela egundaiño egunean eguin ahal cecan gauçaric bibaramuneco utzi : etcela egundaiño gueroocoan fidatu, eta halatan hain irabaci handiac eguin ciuela.

Etçaitecilla beraz çu ère gueroocoan fida. Ceren guerooco harten, bentura bat ahal badateque ere, ez ordea segurantçaric ; eta erhoqueria handia da segur behar duen gauçaren, benturan ibentcea, egun behar eta ahal denaren biharamuneco esperantçan eta perilean utztea.

II.

GUEROAGO NEQUEZAGO.

XXXV CAPITULUA.

Nola den gueroago gaitzago bekhatutic ilquitcea.

§ 4.

ANHITZETAN ere, Escritura sainduan, comparatzen da bekhatoreoa ardi errebelatuarequin ; eta arraçoinequin : ceren anhitz gauçaran haitirudite elkar. Ardin bere laguney azquenteen çaienean, halaco moldez bide onetic eta bere ardi lagunen alhpapidetic aldaratzen eta hastantzen da, non gueroago urruntenago, galtzenago eta errebelatzenago baita. Diru bat edo erbaztun bat galtzen duçunean, han berean galdu cenduen

tinando : Ez deus luçatuz, ez deusbiharamuneco utziz : etçuela egundaiño egunean eguin ahal cecan gauçaric bibaramuneco utzi : etcela egundaiño gueroocoan fidatu, eta halatan hain irabaci handiac eguin ciuela.

Etçaitecilla beraz çu ère gueroocoan fida. Ceren guerooco harten, bentura bat ahal badateque ere, ez ordea segurantçaric ; eta erhoqueria handia da segur behar duen gauçaren, benturan ibentcea, egun behar eta ahal denaren biharamuneco esperantçan eta perilean utztea.

II.

GUEROAGO NEQUEZAGO.

XXXV CAPITULUA.

Nola den gueroago gaitzago bekhatutic ilquitcea.

§ 4.

ANHITZETAN ere, Escritura sainduan, comparatzen da bekhatoreoa ardi errebelatuarequin ; eta arraçoinequin : ceren anhitz gauçaran haitirudite elkar. Ardin bere laguney azquenteen çaienean, halaco moldez bide onetic eta bere ardi lagunen alhpapidetic aldaratzen eta hastantzen da, non gueroago urruntenago, galtzenago eta errebelatzenago baita. Diru bat edo erbaztun bat galtzen duçunean, han berean galdu cenduen

lekhuan guelditzen da, eta bai edireiten ere; ezta bera handic higuitzen. Baiña ardia orenetic orenera, lekhuz aldatzen da, oihanean barrenago sartzen da, bethi eta galtsenago eta errebelatzenago da. Hala bada bekhatorea ere guero eta guero galtzenago, errebelatzenago, eta bere aztura gaichtoetan barrena sartzenago da. Hargatic erran çuen erregue Davitec : *Erravi sicut ovis quæ periit* : (1) Errebelatu nintzen eta galdu, ardia beçala. Ceren bekhatu bat egun çuenean, beretxala bertze batetan bihaztopatu eta erori baitzen.

Ardia errebelatu berriau da errazenic edireiteco eta incontratececo; eta bai candela ere, iraungui berrian, oraino hoztu gabea denean, berriz lotceco eta iratchezquitaco. Hala da bada bekhatorea ere bekhatu egun berrian, gaienic eta prestenic bekhatutic ilquisceco.

Sagarroya, bere egitez ere, nequez erditzen da, baiña are bere faltaz nequezago. Ceren nola larruan baita latz, eta gaztaina carloa beçala puntaz, eta arantzez bethea; eta umeac ere bera beçala latzac, eta arancetsuac baititu; ume hec, erdi beharduenean, bere arantzeez eta carloez min egniten diote, eta halatan minari errrendaturic, erditceco meneratzen de- nean, barrenat sartzen tu eta han ahal beçanbat edu- quiteen tu. Eta nola hala dadutzen bitartean ere, han- ditzen eta gogortzen baitira ume hec; eta alabaiña erdi behar edo hil; handie azquenean, harri baten contra prematuric, lehen egninen cen baiño neque-

(1) Psalm. 118.

zago, eta penazago erditcen da. Bada haur beror obra onen eguiteco, luçamendutan dabillan bekhatorea bai than ere guerthatcen da. Ceren nola eonhertitcea eta obra onen eguitea erditce bat beçala haita, halatan, cenbatenaz eta guehiago haitago, hanbatenaz obra onetçaz nequezago erditcen da. Beraz hunelatan, lehen baiño lehen içanen da hoherenic, eta errazenic obra onen eguitea eta bekhatuetaric ilquiteea.

Ceure lurrean, çure baimendua, eta licencia gabe, etche bat hasten deratçutenean, ceren baldin obraren akhabatcera utz bacinitça, peril bailluque akhometa liaçaçuten çucen dutela lur haren gainean: hartasotçat, aitcinduric beçala, ordenatcen du legueac, egotz ahal deçaqueçula obra berria. Hala egun behar da bada bekhatuetan, eta bekhatuzco obretan ere; berri direino egotzi behar dira, ceren bertcela nahiko du deabruac akhometatu cta alegatu, obra çahartu dels, eta hartan çucen duela.

§ 2.

Errazago bada ere on bahituaren atheratcea eta coberatcea, salduaren baiño, edireiten da guztiarequin ere bere onac bahitcen beçala, saltcen ere dituenic. Eta haur beror guerthatcen da arimaco gaucetan ere. Beldur direla, bere concientiac alha çaztela, bekhat bat edo bia baicen eztutela egunen erraiten dotela, eta hequen ere utzeco gogorequin dabiltçala, bekhatuac eguiten-dituztenec, bahitcen dituzte bere arimat. Baiña beldurtasunic gabe, Iaincoaz, concientiaz eta

munduaren erraiteaz ere conturic eguin gabe, antsi cabequi dabiltsanec saltcen dituzte. Bahi bat tabernara arnoçun igortcen duçunean, gaztigatcen dioçu tabernariari eduqui deçala cenbait egunez bahi hura, eta guero bequen buruan atheraco duçula. Baiña çuc nola atheraco duçu ? ecen barrenago sarteen duçu : egunetic egunera bahiaren gaiñean, arno guehiago harten duçu, halaco moldez ecen azquenean ikhussiric bahiaren balioa edan duçula, bahi guztia tabernan utzten baituçu. Bada haur beror ceure arimaz ere eguiten duçu : erraiten duçu, bahi bai, baiña neholatan ere eztecaqueçula sal. Erraiten duçu bekhatu bat eguiñen duçula eta ez guehiago. Ordea bat eguin, eta bat hari hanbat iratchequitcen dioçu bere ondotic ; halaco moldez, arimaren gaiñean bekhatuaren corra berretcen eta cargatcen duçu, non azquenean bahi guztia, cein baita çure arima, tabernan, deabruaren escuan eta botherean gatheatua guelditcen baita, hartçaz norc bere gauçaz beçala, nahi duenaren eguiteco.

Bekhatutic ilquitceco, luçamendutan dabillanari, guerthatcen çrica, sensuco eta intereseco diruaren irabacia pagatcen eztuenari, guerthatcen çaicana. Halacoari urthetic urthera, corra handitcen, berretcen, eta are baldin dembora luceaz badago, doblatcen çrica; eta orduan ezta errazquiago pagatcen. Ez eta bekhatua ere ezta egonaren buruan aisequiago erremediatcen. Ceren bataz deabruac, egunetic egunera çure arimaren gaiñean escu guehiago harten du. Eta beriz bertcea, nola çu baitçoaz, bekhatu eguinaz, eta

bekhatutan egonaz, hala doha Iaincoa ere çure arimatic ihes eguinaz eta urrunduaz, ceren cerori lehenik urrunteen baitçara : eguiçu contu, eguiçu gogoeta, es cenbat urthe duen bekhatutan çaudela, eta bekhatu egniten hari çarela; eta edirenene duçu ecen urthe hetan guzlietan, Iaincoa ganic urrunteen eta apartaices bari içan çarela. Bada comunzqui ioaiteco heçanbat dembora behar ohi da bihurtceco ere. Beraz hunelatun çue ere ioan diren hamar urthecotan, edo guehiagotan, hari içan baitçara Iaincoaganic urrunteen, beharco duçu, hurbiltceco ere, hain bertce bide eguin. Nolatun duçu badauste, hambat demboraz iragan duçun bidetie, hain laburzqui, urthe batez, aste batez, ceure çahartcean, çahartcen baçara ere, bihurtuço çarela?

Eguia da ordea, halaco faborea, garacia, indara eta haicea eman ahal diaçao Spiritu Sainduac çure gogoari eta borondateari, non urruncea baiño filetzago, eta dembora gutizago, eguiñ baiteçaqueçu hurbiltcea. Ordea eztaquiciçure baithan hala guerthatuendenz : halaco faboreric, eta garaciariçeguin ençaiçunez.

Maria Birgina eta Joseph Mariaren espresa urrundu ciren Ierusalemetic egun baten bidea, han hez Jesus haurra ustecabean azquenduric. Eta guero bilha abiatu cirenean, ediren çuten hirurgarren egnuen. Dembora gueniago içatu çuten edireiteco, galceco baiño. Hala dirudi bada halaber dembora guehiago behar dela, bekhatuen erremediatceco, eguiteco baiño. Ceren bekhatu eguiten hari çarenean, laiu-

coaganic urrunten carencan, comunzqui gazte cara, sendo, eta indartsu; baiña guero Iaincoagana bihurtu eta hurbildu nahi duçunean, eri cara, flaco, eta çabar; eta hala içanen çarela gogoz gorputzez beçala orboit emaçu. Beraz orduan gaitzago içanen da hurbilcea, lehen urruncea baiño. Halatan erraiten du Propheta Davitec : *Qui elongant se à te peribunt* : (1) Cureganic urrunten direnec fin gaitz eguinen dute. Eta Iaincoac berac ere mehatchacen tu halacoac, erraiten duela : *Vae eis qui racesserunt à me* : (2) Beguirabeante, eneganic urrundu eta apartatu direnec, corigaitz hequençat!

§ 3.

Bekhatuac ilhunteen du adimendua, flacatcen du memoria, eta gaichtatcen du borondatea; cenbatenaz bekhatu guehiago, eta bekhatutan egonago, hanbatenaz adimendua, memoria eta borondatea ezteusago; hanbatenaz deabrua iaunago eta nabusiago, hanbatenaz Iaincoa ganic urrunago eta apartago; eta hanbatenaz çure indarra, eta ahala ere, etsaiari ihardesteco, ttipiago eta flagoago. Bada gauça hauc hunela direnaz gueroztic, nolatan duçu çuc uste, guero hobequi onduco çarela, eta guero errazquiago bekhatutic ilquico çarela, orai baiño? Ura ttipi deiño ecin iragan deçaqueçu, cer eguinen duçu bada handi dadinean?

(1) Psalm. 72.

(2) Osee 9.

Çuhaitz ttipiac, oraiño errorie eztutenac, ecin athern diañcaquetçu, cer equinen duçu bada errozta, eta handi ditecinean? Orai bekhatu guti duçunean eta guti horiee ere berri direnean, ecin delibera deçaqueçu horietaric ilquitcera, cer içanen da bada guero, bekhatuz betheric eta hetan dembora luceaz gogorturic çaudenean? Orai hamar bekhaturequin diharduça, guero ehunequin iharduqui beharco duçu; orai urthe baten edo bia-ren usantçgaichtoa duen, guero hogoyena edo berrogoyena içanen duçu. Bekhatu eguiteaz coropilloac doblatcen tuçu, gathesc berreteen tuçu, carga handitcen duçu. Cer erhoqueria da bada haur: uste baituçu, ecen guero carga handiarequin hobequi manaiatuco çarela, orai ttipiarequin baiño? Uste baituçu ecen guero hamar bekhaturen barkhamendua hobequi erdietsico duçula, orai bortzeua baiño? Uste baituçu, guero eritasuna handi dadinean, errazago içanen dela sendatcen eta erremediatcen, ttipi denean baiño? Eztaquiqui nola erraiten duen Spiritu Sainduac? *Languor prolixior gravat medicum, brevem langorem præcidit medicus*: (1) Eritasun luceac eta çaharrac nekhatcen du midicua; baiña laburrac eta berriac eguiteco guti emaiten dio, hura laburzqui sendatcen du.

Eguia baur eman ceraucan aditcera Ainguiru batec lehenago mendietan eta ermitetan bicitcen ciren saindu hetaric bat. (2) Hartu çuen Ainguiru härç guïçon baten

(1) Eccli. 40.

(2) In vita Arsenii apud Surium.

iduria, eta ioan cen mendietaco saindu hetaric baten gana, eta esentik harturic eraman çuen oihanean barrena, eta han eracutsi cerauan guicon bat hari cela egur eguiten. Eta çama bat eguinie, lothu çuenean, hasi cen enseiatcen, ea iasan ahal ceçaqueyenz. Baiña hain eguin çuen handi, ecen ecin iasanez utzi baitçuen. Utzi çuenean, hasi cen berriz bigarrenean, egur eguiten, eta bere leheneco çamaren handitzen. Handitu çuenean, hartu çuen, eta hasi cen lehen beçala en-seaitzen ca iasan ahal ceçaqueyenz; baiña are orduan gutiago, ceren lehendanic handituago baitçuen. Ordea guziarequin ere, hasi cen ~~birurgarren~~ ere lehiatzen, egur eguiten eta bere leheneco çamaren lehen beçala handitzen, ustez arauz halatan arinduko ceican, eta errazquiago iasanen eta eramanen çuen. Saindu huneec haur ikhussi çuenean, galdeguin cioen Ainguiruari: Ger erhoqueria da haur, uste baitu guicon huneec, berretuz, carga arinduko çaicala, eta handituz, errazquiago iasanen eta eramanen duela? Orduan ihardetsi cioen Ainguiruac: Horrela duc bada munduko erhoqueria ere, uste baitute bekhatorec bekhatu anhitz eginez, carga pisuarequin hobequi iaiquico dirala arinarequin baiño. — Erraiten dute: orai berabe dut; orai escuen artean darabiltçadan bekhatuac ecin utz ditçaquet: oraiño dembora aphur batez hautan egon behar dut, bertceric ere cenbait iratche-quitzen deraunedala. Baiña guero guziac utzico ditut, guztiataric ilquico naiz. Itsutasunaren itsua, ethor-queriaren erhoa. uste baitu ecen guero, hemendic

urthe haten edo biaren buruan, orai baiño bekhatu guehiago duqueçunean, hosinean barrenago çaudequenean; eta orai baiño flacoago çaretequenean, aisquia-gó eta errazquiago ilquico çarela! Ilqui bequieu er-horqueria hori burutic, egotz eçaçu ceure gogotic, eta sinhets eçaçu gueroago gaitzago içanen dela. Ovidioc dioen beçala : *Qui non est hodie, cras minus aptus erit* : (1) Egun gai eztena,bihar gutiago içanen da.

XXXVI CAPITULUA.

Nola guerotic guerora ibilaz coberatcen den usantxa gaichtoa.

ERRAITEN du Spiritu Sainduae : *Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* : (2) Nor nola gobernacien baita gaztean, hala comuzqui eguiten ohi da çahartcean ere. Orduan hartcen duen bidea, plegua, eta usantxa eduquitcen du guerorat ere; ezta handic hignitcen, ezta handic aldaratcen, hari itchetquitcen çaida. Dembora luceaz, bide bat eduqui duen urari, ezta erraz bercetarat irioitea, eta eraguita; ezta erraz bide haren, eta handic iragaiteaz harta duen usantçaren, abiaduraren eta lasterraren gal aracitcea. Halaber ezta erraz içanen, dembora luceaz coberatu den usantxa gaichtoaren ere utztea eta aldatcea.

(1) Ovid lib. 1. de remedio amoris.

(2) Prover. 22.

urthe haten edo biaren buruan, orai baiño bekhatu guehiago duqueçunean, hosinean barrenago çaudequenean; eta orai baiño flacoago çaretequenean, aisiquiago eta errazquiago ilquico çarela! Ilqui bequieu erhorqueria hori burutic, egotz eçaçu ceure gogotic, eta sinhets eçaçu gueroago gaitzago içanen dela. Ovidioc dioen beçala : *Qui non est hodie, cras minus aptus erit* : (1) Egun gai eztena,bihar gutiago içanen da.

XXXVI CAPITULUA.

Nola guerotic guerora ibilaz coberatcen den usantxa gaichtoa.

ERRAITEN du Spiritu Sainduae : *Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* : (2) Nor nola gobernacien baita gaztean, hala comuzqui eguiten ohi da çahartcean ere. Orduan hartcen duen bidea, plegua, eta usantxa eduquitcen du guerorat ere; ezta handic hignitcen, ezta handic aldaratcen, hari itchetquitcen çaida. Dembora luceaz, bide bat eduqui duen urari, ezta erraz bercetarat irioitea, eta eraguitea; ezta erraz bide haren, eta handic iragaiteaz harta duen usantçaren, abiaduraren eta lasterraren gal aracitcea. Halaber ezta erraz içanen, dembora luceaz coberatu den usantxa gaichtoaren ere utztea eta aldatcea.

(1) Ovid lib. 1. de remedio amoris.

(2) Prover. 22.

Camaria gazte deiño hezten da. Haraguia berri deiño, gaeitzen da. Cuhaitça ttipi deiño chuchentzen da edo birlandatzen da. Finean gauça guztiec lehenbician hartzent dute bere plegua eta ortkhoia, eta behin harutz guero nequez utzten dute. Gogortuz guero gaitz du bilhucatcea. *Quo semel est imbuta recens, seruabit odorem testa diu :* (1) Eltceac luçaro eduquitzen du berrian hartzent duen usaiña eta cutsua, dio Horacioc.

Licurgoc eraensteco Lacedemoniacoey, (2) cein indar handia çuen usantçac, hartu citnen bi chacur gázte, bi or cume ama batenac, eta sabel aldi batetacoac; eta heta-rie bata usatu çuen bethi ere etchean barrena, cucinaco eta sukhaldeco eltce-plateren artean; eta berriz bertcea haci çuen campoan ihicico, orequin hateau. Eta guero handitu cirenean eraman cituen biac treilla batetan plaçara, Lacedemoniaco iende hequen aitcinera, eta han lachatu eta largatu cituen; eta largatcearequin hateau, egotzi cerauzten bere aitcinera erbi bat eta haragui pusca bat. Eta ihician usatua abiatu cen bere-hala erbiaren ondotic; eta berriz bertcea, cucinan ha-cia, lothu caican haragni puscari. Eta guero erran cerauen: Ikhusaçue, iaunac, cer eguiten duen usançac, cein indar handia duen hazcuntçac, lehenbicico seguentçac, eta ohieundeac: Nola or hautaric bata, bere hazcuntçaren aranaz, lothu caican haragiari; eta berriz bertcea iarrrai qui caican ihiciari. Hortic ikhas

(1) Horatius ep. 2.

(2) Plutarchus.

eçaçue, cer ere nahi baitoçue içan diten quen semeac
guiçontu diratekenean, hartara haurretic cebatu behar
dituçuela. Hori hera erraiten du Spiritu Sainduac :
Fili tibi sunt, erudi illos, et curva illos à pueritia
eorum : (1) Semeac ditutçunean, escola itçatçu haur-
retic, uzeur itçatçu, eduquittipi direino escu-pean. Ce-
ren behin handituz guero, eztitutçu hobequiago ma-
nuortuko, escuperaco, eta ez plegatuco.

§ 1.

Dembora luceaz bekhatutan egoileaz eta usalceaz,
bertce calteric ethor ezpaledi ere, pleguaren eta aztura
gaichtoaren hartcea baicen ere, hora bera behar li-
teque asco bekhatutan pausatcetic beguiratecco, eta
lehen baiño lehen hide onean iben aracitecco. Geren
hain du indar handia usantçac ecen erraiten baitu San
Chrisostomec : *Cum manna caelesti cibo allarentur*
Iudoi, cepas et alia requirebant; adeo consuetudo valet,
tantumque habet roboris : (2) Induec Mana ceritçan
ianhari on, ehti, goço hartarie franco çutelarie, gu-
tiarequin ere, usantçac hain du indar handia, ecen
harc errequerituric, Egiptoco tipula eta baratçuriertara
bihurtu nahi baitçuten. Eta handic erraiten du San
Augustinec : *Peccata quamvis magna et horrenda,*
cum in consuetudinem venerint, aut parva aut nulla
esse creduntur; usque adeo, ut non solum non occul-

(1) Eccli. 7.

(2) Chrys. adversus vituperatores vitae Monasticæ, cap. 3.

tanda verum etiam jam prædicanda ac diffamanda videantur : (1) Bekhatuac handi eta icigarri içanagatic ere, ttipi eta ez deus iduritcen çaitça, hetan usatu duenari : hain ez deus ecen guero, handic harat nahiago baititu, estali baiño, aguertu, campatu eta famatu.

Erregue Daviti eman cerautçatenean Saulen harmac, baiciren ecin hobeagoac eta halacoac, guztiarequin ere probetchu baiño calte guchiago eguiten cioten, trabatcen çuten; ceren nola anarteraiñocoan bethi arçain ibili baitcen, expaitcen oraiño harmetan usatua. — Eta hala utzi cituen, erraiten çuela : *Non possum incedere quia usum non habeo* : (2) Harma hauquin ni ecin higui naiteque, ceren eznaiz usatua. Indaitçue habailla batçuc cenbait harrièrequin; eta belan usatua bainaiz, atseguin har eçaçue, ecen nic eguninen dut hetçaz neure eguinibidea. Eta hala egun ere çuen : ceren lehenbicico aurthiqui çuen harria fincatu ceraucan bere etsaiari belarraren erdian, lantatu ceraucan copetan, eta egotzi çuen bentçuturie lurrera. Ordea guero handic dembora gutiren barrenean, hain soldadutu cen eta harmetan usatu, trebatu eta ançatsatu, ecen egun batez harmaric gabe Saulen ihesi cihoala, hartu baitçuen Goliat handi haren ezpata, erraiten çuela ecen etcela munduan harentçat halacoric, eta ez harc nahiago çuenic. Cer

(1) August. in Enchirid. cap. 8.

(2) 2. Reg. 5.

erran nahi du hunec? Lehen Saulen harmae, ttipi eta arinac baitciren, handiz eta pisuz utzi cituen; eta orai Gigant handi batencen iduritzen çaitça ttipi eta ariu? Bai: ceren lehen etcen usatua, etcen harmetara eguna; baiña guero egun cen, usatu cen, enseiatu cen, trebatu cen, eta enseiatceac, usatceac eta trebatceac, lehen gaitz cena, erraztu ceraucan. Ceren usatnari trabailluac ere etçaitça hain trabaillu iduritzen, ezitu hain sentitzen: eta ez sentitceco, escuetaco larrua ere loditzen, gogortzen eta khaillutzen çaina. Halakoari, eta haiñari, etçaitça hain fite escuac mascurtzen, icecorcinirac eguiten, eta ez haraguiac ethentzen, eta ez minberatzen. Ceren San Chrisostomoc dioen beçala: *Consuetudinis enim vis, et in bonis et in malis magna*: (1) Gauça handia da usantza, hala oncan, nola gaichtoan. Eta badio San Geronimoc ere: *Asperam nobis et insuavem virtutum viam nimia facit consuetudo, que si in alteram partem transferatur invenitur semita justitiae levius*: (2) Bekhatuaren usantzae gaichten du berthutearen bidea. Ordea baldin usantza hora itxul badadi bertze aldera, gaichtatasunetic ontasunera: edirenen da, berthutearen bide hora bera, erraz, atsegün eta placent. Esquiribatzen hasten çarenean, ecen higui ditçatqueçu erhiac, Iothuac beçala daude; ceren ezpaitira usatuac. Baiña guero, eta guero usatzen eta trebatzen dira; hain trebatzen, ecen azquenean,

(1) Chrysost. Hom. 3 de pœnitentia.

(2) Hieroni. ad Celantiam.

bertce alderat beha çaudela ere, hitzen erdiac esquribatcen baititutę. Hala ikhusico duçu dendari baten etchean ere, officialeac abiadura handia daramala, pontuac husu eta laster emaiten tuela : Baiña aprenдиa bakhan, baratz, eta pontuac contatuz beçala hari dela. Ceren ezpaita aprenдиa, officialea beçala, usatua, ohitua eta trebatua. Halatan erraiten du Aristotelec : *Ex actu multoties iterato fit habitus* : (1) Ez behingoaz, baiña maiz, eta anhitzetan usatceaz eguiten da trebetasuna eta aztura. Eta behin aztura hartuz guero, trebatuz guero, anhitz gauça eguiten da, gogoa pensatcequetan, eta borondatea ere hautatcequetan ibili gabe. Hala erraiten du San Chrysostomoc : *Con-suetudo est, quæ postea, etiam absque electione fit*. (2) Anhitzetan, harten guti pensaturic, ceinatcen cara; anhitzetan, cer mintço çaren eztaquiciña, arneguac eta iuramentuac eguiten tuçu; anhitzetan, bertce alderat beha çaudela, erhiac soiňu eguiteco erabilteen luçu; eta hauc guztioc dira, usantçaren iocoac, trebetasunaren colpeac, eta azturaren tornuac.

Garcelean sartcen çaituztenean, sarthu berri harten, usna on duçu, quiratsa aditcen duçu, erraiac nahasten çazquitę, senticor cara. Baiña barren harten ohituz guero, sudurrac quirats hartiçaz cembait demboraz betheac erabiliz guero, sortcen cara, ez-ansiatcen cara, eder-esten duçu.

(1) Aristoteles, lib. 2. Ethicæ.

(2) Chrysost. Hom. 10.

Usat çaité goizean goiz isiquitcen, eta oren hartzan iratçarrico cara. Usat çaité anhitz iaten eta edaten, eta bethi hala nahiko duen. Are abre mutuec ere eztule, bere leheneko usatua, edo etsigarri bat bedere içan gabe, lehen içan diren ostattuetaric aitcinat iragan nahi. Hain du indar handia usantçae, ecen erraitean baitu San Augustinec : *Ipsa quoque mutatio consuetudinis, etiam quæ adjuvat utilitate, novitate perurbat* : (1) Anhitzetan ere, daquigularic hobeliçateque-yela darabilagun usantçaren uztea eta hautstea, eztugu guztiarequin ere utzten eta ez hautsten, ceren aldatce hura, hautsteco, eta utzteco berritasun hura, gaitzi baitçaicu. Cer nahiçu guehiago : (2) Bada erraitean duenic, eta egui : haurretic poçoien iaten usatzen dena, azquenean poçoinvez haz ditequcyela, eta mantena.

§ 2.

Bada baldin hunen gauça bortitza, eta indartsua hada usantça ; cer eguiñen du bethiere gaztetie çahartce-raino bekhatutuan usatu denac ? Nola utzico du çahartcean, gaztean coheratu duen usantça ? Beldur naiz utz eztecan ; ceren San Crisostomoc dioen beçala : *An-nosa passio medicamento momentaneo non curatur* : (3) Arraçadura urthatua, narrio çahartua, çauri gaizcostua, ezta pontu batetako midicuntçaz sendatcen, ezta

(1) August. 3. Fort. disp. 2.

(2) Comm. sup. 3. Phisic.

(3) Chrys. 32.

behingo hisitaz erremediatzen, eta ez hain fite leheneco estantera, estatura eta egoitçara bihurcen. Ceren nola eritasun handiac, sendatuz guero ohi baitu bere ondotic cembait herru gaichto, cembait cutsu, narrio eta arraçadura; hala ere, utzten du dembora luceaz bekhatutan egoiteac ere bere ondotic cenbait ondore gaichto. *Si mutare potest Ätiops pellum suam et perdus varietates suas, et vos poteritis benefacere cum didiceritis malum :* (1) Dio Ieremias Prophetac : Mahiru herrico mairu beltzac here larru beltza, eta Tigre-arrac ere berc nabardurac, alda, utz eta muda ditçanean; aldatuco, utzico eta mudatuco ditu presuna gaichtoac ere, bere usantçazco gaichtaqueriac eta bekhatuac.

Halatan ikhussico duçu, gazte demboran bekhatu batetan usatu duenari, çahartcean ere, eta deus ecin daidiqueyenean ere, gogoa bedere, eta bekhatu hartçaz minçatceaz atseguin hartcea bedere, badatchecala. Ceren San Agustinec dioen beçala : *Non quiescit turpe desiderium, quamvis frigiditas neget effectum :* (2) Çahar gaichtoac çahartnagatic badu gogoa, indarra caica falta. Ahoa doy idequitçen duçu, eta guztiarequin ere arnegu, eta iuramentu eguiten hari çara. Gorputza ecin iasan deçaqueçu, eta ala baiña amurusiaz mintço çara. Finean lehen certan seguitu baituçu, hartan guero ere ametsetan, eta ildarnioetan ere edireiten

(1) Ierem. 13.

(2) Aug. de vita eremítica, ad sororem cap. 28.

çara. Eta cerc eguiten du haur? Usantçac, azturac, gaztean hala, han, eta hetan seguitu, eta usatu baitoñu eta usantça hura heçurretan barrena sarthu bailçaiten. Eta nola çahartuagatic, heçurrac guelditu baitçaiquitę; hala guelditu çaiquitę usantça, aztura, eta handic sortzen diren muguidac, abiadurac, eta inclinacion gaichto guztiac ere. Halatan erraiten du lob guiçon saindu haren: *Ossa ejus implebuntur vitiis adolescentiae ejus, et cum eo in pulvere dormient*: (1) Gaichitoaren heçurrac betheco dira gazte demborao bekhatuez, eta harequin batean lurrean ere lohacartueo dira, eztute behin ere utzico. Ceren San Gregorioe dioen beçala: *Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt, atque quotidie duriores existant, et cum eo in pulvere dormient quia non nisi cum ejus vita finiuntur*: (2) Usantçazco bekhatuac iarraiquieten ohi çaitça nehorí heriotceraiño eta lurrean barrena sar arteiño, eztute hareraiño utzten, eta harequin daude han ere.

Iaincoac beguira çaitçala, usantça gaichitoac çurebaithan ostatu hartcetic; eta usantça hura hazcunça bihurteetic. Ceren nola baitira eritasun batçu datozenac, umore gaichitoac dembora luceaz eta aphurbana heçurretan barrena sartceaz; eta eritasun hec ezpaitute erremediorie, miracuilluz edo baicen, eta içaitecotz ere choil luçaro: hala da dembora luceaz

(1) Job. 40.

(2) Greg. lib. 15. Moral. cap. 15.

gogoan eta bihotzean barrena sarthuric dagoen aztura gaichtoaz ere. Hura da Hetica gaichto serthua, atherateen eta erremediatcen gaitza. Eta halacoagatic erraiten du San Augustinec usantxa gaichtoa dela, bekhatuaren thomban barrena sarthua eta ehortzia dagoenaren gaiñeco harri-estalquis, iaiquitera eta hats hartcera utzten eztuen : *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua præmitur anima, nec respirare nec resurgere permittitur.* (1)

Haor beror eman çuen aditcera gure Salbatçailleac berac, Lazaro, laur egunetako hil quirastua, anhitz hatsbeherapen eta sentimendu equinic, pitzu queñean. Bertee guztiac errazqui eta aise cegoela pitzu cituen, baiña Lazaro, iduriz nequez : aditcera emaitteagatic, cein gaitz den dembora luceaz bekhatutuan usatua, usteldua eta quirastua dagoen bekhatorearen sendatcea eta erremediatcea. Halacoa, hartara heltcen dena, Lazaro quirastua beçala da, Iaincoaren bothere handiaz baicen, ecin erremedia ditequeyena.

Arraçoin hauetçaz guztioz emaiten da aditcera, nola Inçamendutan guerotic guerora ibitceaz hartzet den usantxa gaichtoa ; eta usantxa hura, olioia oihalean beçala, sarteen den gogoan eta bihotzean barrena. Eta nola den enganamendu handia, eta gure galgaria, erraitea, guero onduco naiz, guero bide onean iarrico naiz : ceren guero haren ondoan desiratuko duçu hertze guero luceago bat. Eta halatan guerotic guerora

(1) August. Serm. 44 de verbis Domini.

cabiltçala, usantçarequin batean, comunzqui guerthatcen dena, heriotceac attrapaturie fin gaitz egunen duçu.

XXXVII CAPITULUA.

Nola usantçia gaichtoac gogortcen, eta ezantsiatcen duen bekhatorea.

§ 4.

GAUÇA gaichtoa eta periloza da, orainocoan erran den beçala, bekhatutuan egoiteaz eta seguitceaz coberratcen den usantça. Baiña are da gaichtoago eta perilosago, usantça haren ondoko ondores, haci hartaric sortcen den bihia, harc emaiten duen fruitua; cein baita bekhatutuan itsutcea, gogortcea, ez ansiatcea; eta ahalquea, ohorea, eta prestutasun guztia galduric, doil-lorqueriaz preçatcea, loriatcea eta sendagailla egitez.

In circuitu impii ambulant, (1) dio erregue Davi-tet : Inguruca, edo ingurunean dabiltçia gaichtoac. Badabiltçia, ordea inguruca, probetchu gabe, bethiere lekhu berera bihurtzen direla. Hala dabillanae, egiten duen irabaci guztia da, lurraren aurizquitcea, çapatcea eta gogortcea. Eta cenbatenaz eta guehiago bai-tabilla, hanbatenaz çapatzenago, eta gogortzenago du. Hala bada bekhatoreac ere bekhatutuan ibiltzeaz eta usatceaz gogortzen du bere concientzia, maillu colpeec ingudea gogortzen duten beçala.

(1) Psal. 11.

cabiltçala, usantçarequin batean, comunzqui guerthatcen dena, heriotceac attrapaturie fin gaitz egunen duçu.

XXXVII CAPITULUA.

Nola usantçia gaichtoac gogortcen, eta ezantsiatcen duen bekhatorea.

§ 4.

GAUÇA gaichtoa eta periloza da, orainocoan erran den beçala, bekhatutau egoiteaz eta seguitceaz coberratcen den usantça. Baiña are da gaichtoago eta perilosago, usantça haren ondoko ondores, haci hartaric sortcen den bihia, harc emaiten duen fruitua; cein baita bekhatutau itsutcea, gogortcea, ez ansiatcea; eta ahalquea, ohorea, eta prestutasun guztia galduric, doil-lorqueriaz preçatcea, loriatcea eta sendagailla egitez.

In circuitu impii ambulant, (1) dio erregue Davi-tet : Inguruca, edo ingurunean dabiltçia gaichtoac. Badabiltçia, ordea inguruca, probetchu gabe, bethiere lekhu berera bihurtzen direla. Hala dabillanae, egiten duen irabaci guztia da, lurraren aurizquitcea, çapatcea eta gogortcea. Eta cenbatenaz eta guehiago bai-tabilla, hanbatenaz çapatzenago, eta gogortzenago du. Hala bada bekhatoreac ere bekhatutau ibiltceaz eta usatceaz gogortzen du bere concientzia, maillu colpeec ingudea gogortzen duten beçala.

(1) Psal. 11.

Emaiten du aditcera Escritura sainduac, bitiñac beçala direla gaichtoac, eta azqueneco egunean, ezquerreco aldean ibenico dituela Iaincoac : *Statues hædos à sinistris.* (1) Bitiña, abuntz-umea, gazte deiño, on da iateco, samur da, uster da, sasoal da : ordea galtcen du adinac. Guero eta guero doha gaichtatuaz, cailduaz eta gogortuaz. *Ætas ex hædo asperum facit hircum.* (2)

Bekhatoreac lehenbician, bekhatu guti duenean, badirudi ecen oraiño cerbait balio duela; samur duen parteric, uster duen aurquientçaric, endrecera onic eta goçoric baduela. Eta hala orduan, predicariez, conseillu onez, eritasunez, bere lagunac hiltcen çaitçala ikhustez, igortciriez, eta hunelaco bertce peril mueta batçuez, ikharatcen da, minberatcen da, senticortcen da; eta bere burnari alhaturic, ethorquiçunaz gogoetan iartcen da. Baiña bekhatuz bethez guero, plegua hartuz guero, usatuz guero, eta usantza çahartuz guero, gaichtatcen da, ez ansiatcen da; eta aldez Ainguiru gaichtoen berdin, deabruen paretsu eguiten da. (3).

Nola Ainguiruac bere adimenduaz ardiets ahal ceçan guztia, ez gac beçala aphurbana eta pensatuz, baiña colpe batez eta osoqui erdietsi baitçuen; lehenbician hartu çuen bidea daduca eta eduquico du seculacotçat. Behin makhurtoz guero alde batera, ecin chuchen di-

(1) Matth. 23.

(2) Plaut. lib. 1. Epigr.

(3) Vide Sanct. Thom. 1. p. q. 4. art. 2.

teque bercera eta ez guibelat bihur. Eta hala guertha-teen çaien guri ere hiltzen garenean. Ceren San Damascenoc dioen beçala : *Hoc est hominibus mors, quod Angelis casus* : (1) Ainguiruean bekhatuac eguna-çue-
na, eguiten du gure baithan ere heriotzeac. Hec
bekhatu egunez guero, etçutzen erremediorie, ez eta
guc ere bekhatutan hillez guero. Bada ainguiru gaich-
toen egoitçara hurbiltzen gara gu ere, bekhatu egnin
hutsez, bekhatutan gogortcera, itsutcera eta ez antisat-
cera ethortzen garenean. Ainguiru gaichtoa behingoaz
galdu eta gogortu cen bethierecotz : Hala bada gu ere,
ez behingoaz baiña bai anhitzetan eta anhitz bekhatu
egunez eta hetan usatuz galtzen eta gogortzen gara. (2)

Eta halaco bekhatua, gogortuz guerozcoa, erraiten
da Spiritu Sainduaren contraco bekhatua dela : ceren
hartaraz guero maliciazcoa baita. Eta nola flacotasunex
eguiten den bekhatua, erraiten baita, Aitaren contra
dela; eta iaquin gabez eta ignoranciaz eguiten den
Semearen contra dela : hala maliciaz eguiten dena ere
erraiten da Spiritu Sainduaren contra dela. Cein baila
hain perlosa, non galdeguiten baitu San Thomaset :
An sit remissibile? (3) Ea barkhaquiçun denz? barkha
ahal ditequeyenz? eta ihardesten du lehenbiciorie:
behintçat merecitceaz denaz beçanbatean, eztuela bar-

(1) Damascen. lib. 2. orth. fidei et refert. a S. Th. ubi supra.

(2) S. Th. 4. lib. 2. q. 88. art. 6.

(3) Vide S. Thom. 22. q. 14. art. 3. et sequentibus eis.

khamenderic mereci, ceren maliciazcoa baita. Bi-garrena ihardesten du, maliciazcoa denaz gueroz, eztela bere egitez barkhateecoetaric. Ceren nola baitira eritasu*gi* batuc, hain handiac, gorputz guzia flacatua, bençtua eta ecindua ibentzen dutenac, eta eriari hain iaunteen çaitçanac, non bere içanez, eta egitez ezpaitute erremedioric, ezpaitira sendaquiçun : Hala ostinatnaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ezansiatuaren bekhatua eta eritasuna ere hain da handia, non berenez ezpaita sendaquiçun, eta ez barkhaquiçun. Ceren sendateco, eta barkhatceco behar diren erre-medioac, berac 'bere saltaz eta bere maliciaz, bere placerera eta iaquiara, utzten baititu probetchatu gabe iragaitera eta galteera. Eta halatan halaco bekhatuagatic, eein baita Spiritu Sainduaren contracoa, erraiten du San Matheoc : *Non remittetur in hoc seculo, neque in futuro* : (1) Eztela barkhatuco mundu hunetan eta ez bertcean ere.

Eguia da ordea nola Iaincoaren misericordia baita guztien gaiñecoa, guerthatzen da, halaco bekhatuetaric ere cenbaiten barkhatcera. Ordea San Thomasec dioen beçala, ez maiz, gutitan, eta miracuilluz beçala : *Per misericordiam Dei aliquando tales quasi miraculose sanantur*. (2) Eta erraiten denean, eztela halaco bekhatua barkhatuco : aditzen da, eztela barkhatnuco, ez ceren laineoac eein barkha deçaqueyen, edo eztuen

(1) Matth. c. 12.

(2) S. Tho. ubi supra.

cenbait barkhatcen : baiña ceren bataz, gutitan barkhatcen baitu; eta bertceaz, ceren gaitz baita; eta finean ceren nola maliciazcoa baita eta ez flacotasunezcoa, ezpaitu halacoac bere egitez barkhamenduric mereci.

§ 2.

Galdeguiten dute Theologoec ea cer arraçoinez, edo cergicat, deitcen diren bekhatore batçuc bertcen arteitic ostinatuac, gorgotnac, itsntuac eta Iaincoac herac ere utziac? Eta Iaincoaren aldetic denaz beçan batean, ezta erraz iaquiten, ezta erraz arraçoinaren eta differenciaren emaiten eta edireiten. Ceren Iaincoac hala bekhatutau gorgotney, nola gaiñeraco bertce bekhatore guztiey emaiten deraue, mundu hunetan direño salbatceco, eta bekhatuetaric ilquitceco, asco duten beçain bertce garacia, lagunica eta fabore. Haren aldetic bada behar dena; ezta handic deusen faltaric, eta ez escasic. Harc iguzquiak beçala egniten du, oney eta gaichtoey, guztiey arguitcen derane : *Solem suum oriri facit super bonos et malos.* (1) Eta Iondone Pauloc dioen beçala Iaincoac nahi du guztiac salba ditecin : *Qui vult omnes homines salvos fieri.* (2) Eta halaber guztien athey dagote, guztietan deitcen du, idequi bañaçote nahiz : *Ecce sto ad ostium et pulso.* (3)

Ordea guztiarequin ere nola anhitz lekhutan, erraiten

(1) Matth. 2. c. 5.

(2) Ad Tim. 4. c. 2.

(3) Apoc. 3.

baitu Escritura sainduac, bekhatore batçuc, bertceen artetic, direla gogortuac, itsutuac eta laincoac ere utziac, eta are laincoac berac itsuteen eta gogorteen dituela (1) : badirudi behar liçatequeyela laincoaren aldetic ere hilhatu eta eman cenbait causa, arraçoin, eta diferencia. Eta edireiteço, iaquin behar duçue ecen, ikhusten duenean gure laincoac nola gauden bekhatuton sarthuac; anhitz enseiu eta pensu eguiten duela, gure bekhatu hetaric atherateeco, anhitz mañaz eta traçaz usatcen duela, gure bide onean ibenceco. Nola gueure borondatea gueure escuco baitugu : nola nahi badugu haitz, eta nahi ezpadugu ezetz erraiteco libre baicara : gure borundate libre hunen arauaz, deusestan ere bortchatu gabe, deitcen eta thiratcen gaitu laincoac beregana. Eta comunzqui lehenbicico aldian, ezcaitu guztiz ocentzqui eta borthizqui deitcen, Iondone Paulo bat deitu çuen heçala. Baiña deitcen gaitu aphurhana, emequi, czliqui, maiñaz, concientzia alhatuz, eritasunac emanez, bere predicarien erranez, eta anhitz bertce moldez. Eta hunela lehenbicico deitcen eta thiratcen gaituenean, ihardesten badiogu, hurbiltcen bagatçaitza, guero bigarrenean biciquiago eta sendoquiago deitcen eta thiratcen gaitu ; eta halahala hirurgarrenean eta aitcinat ere. Halaco moldez, non azquenean ossoqui eta complituqui, campotic eta barreñetic deithuric eta faboraturic, bere garacion eta

(1) *Ego indurabo eor Pharonis. Exo. 4. Quem vult indurat. Rom. 9. Excea cor populi hujus. Isa. 6.*

adisquidetasunean, bekhatu guztia barkhaturie, ibentzen baicaitu. Ordea lehenbicico deitze, thiratze, eta fabore ezticomun hetçaz conturic eguiten eztugunean, hetçaz probetchateen ezcarenean, hec errecibitzen eztitugunean, bihurteen bada ere oraiño berriz leheneco fabore comun hetara beretara, eta oraiño orduan ere deitzen bagaitu asco den beçain bertee: eta aitcinerat ere prestic badago ere, molde berean, lehen beçala deitceco eta faborateco: *ez ordea orduan, ezta communzqui aitcinago iragaiten. Erran nahi dut, lehen beçala bada ere, ezcaituela orduan, lehen baiño bortizquiago eta sendoquiago deitzen eta faboratzen; eta ez arduran hainbertze ere.* Hala erraiten du ene escola nabusi batec: *Obstinati, excecati, ob suam culpam vir aut nunquam utuntur bene prioribus auxiliis; atque ita non accipiunt posteriora illa auxilia, quæ reliquis peccatoribus saepe donantur.* (1) Eztersuzquele emaitzen fabore gaiñezcoac eta emendailluzcoac, ceren ezpaituzte errecibitu comunac eta arduracoac. Edéquitzen derauzquele bigarrenac, ceren gaizqui usatu baitute lehenbicicoez. Ceren baldin gauça ttipian, eta aphurrean leyal dena, arraçoin bada handiagoan ere emplega dadin: *Quia in pauca fuisti fidelis supra multa te constituam;* (2) badirudi bertze aldera, leyal eztenari, emanan ciscana ere, edequi behar caicala. Ongui da, eta merecia da aitcineko fabore ttipiez conturic eguiten eztuenari,

(1) Cumel.

(2) Mat. 25.

eztaquitçan eman handiac. Goreac dira faltac ; ceren San Augustinec dioen beçala : *Nunquam prius Deus deserit hominem nisi prius ab homine deseratur* : (1) Eztu behinere Iaincoac utzten guiçona, baldin guiçonac lehenic utz ezpadeca Iaincoa. Fabore comunac, arduraçoac, eta asco diren beçainbertcecoac, emaiten derauzie gogortuey eta ostinatuey ere, ez ordea gaiñezcoac, eta abantaillezcoac. Eta agueri da ezetz. Ceren nola ashitx baitoha garaciatic garaciara, laguntçatik laguntçara, eta faboretic faborera ; fabore gaiñezcoac, arduraçoac haino handiagoac dituztenac, berehala lehenbicico utquitcean senticortean dira, bide onean iarteen dira : *Ad cuius tactum, commata sunt viscera ejus*. (2) Edo behinçat badute bere baithan barrena atsecabe bat, concienciaren ahaldura eta minheradura handi bat : hain handia, non ecin bere bekhatuetan ongi iar baititezque eta ez sosega. Haino fabore gaiñezcorie, comunac eta arduraçoac haino handiagoric icasiten eztutenee, eztute concientejaren halaco alhadura handiric eta beldurtasunic içaiten. Aitcitie sosegatuqui, presuna seguraluac beçala daude, eta hala egoitea da bequen loria. Hala erraiten du halacoez mintxo dela Spirite Sainduac : *Lætantur cum maleficerint et exultant in rebus pessimis* : (3) Gaizqui egüitean, eta eguin ondoan, guzietan atseguiñ hartean dute, hartan loriat-

(1) Aug. sermo. 88, de tempore.

(2) Cantic. 5.

(3) Prov. 2.

cen dira. *Impius cum in profundum malorum venerit, contemnit :* (1) Gaichtoac bekhatuen hosinean sartuz guero eta hetan luçaro usatuz guero, eztu antsiaric, ez-taduca conturic, gaiñeracoac sentitu gabe eguiten tu. Eta badio Iobec ere : *Bibunt iniquitatem sicut aquam :* (2) Presuna egarriac ur hotza beçala, edaten dituzte bekhatuac. Erran nahi du : errazqui eta hartan atseguin harten dutelaric. Halacoey, nola Iaincoarequin etsai baitira, eta etsaiere barrena, ezterauzte emaiten, bere adisquidey, edo gutiago etsai direney emaiten derauzen ernetasun, iratçarpentasun, barreneco berotasun eta bertee fabore handi ichil batçuc. Eta hec ez ukhanez, bere saltaz itsutzen, gogortzen, eta ez ansiatzen dira. Hala erraiten du San Agustinec Pharaonez mintzo dela : *Quid est quod dixit : ego indurabo cor Pharaonis, nisi cum abfuerit gratia mea, obduret illum nequitia sua?* (3) Iaincoac bekhatorearen utztea, itsutcea, eta gogortcea, ezta ez Iaincoac herac, itsutasun haren eta gogorthatasunaren emaitea eta ibentcea. Baiña hura da, Iaincoac ez arguitcea, ez beratcea, fabore bici, handi, gaiñezco hequen, bekhatoreac berac hala causaturic, ez emaitea : eta handic itsutceria eta gogortceria utztea. Hunela aditu behar da, eta haur da, Iaincoaren aldeitic eman ahal ditequeyen arraçoiña, cergatic erraiten den, bekhatore batçuc, bertzen artetic, direla itsutuac

(1) Prov. 18.

(2) Job. 15.

(3) August. sermone 88. de tempore.

eta gogortuac, eta Iaincoac itsutcen eta gogorteen dituela. Erran nahi du, bigarren fabore handiac bere saltaz ezterauztela emaiten eta itsu eta gogor ditecin permitcen duela.

§ 2.

Cergatic erraiten den bekhatore batçuc bertcen arretic direla itsutuac, gogortuac eta Iaincoac ere utciac, bada gure aldetic ere arraçoin bat, are claragoa eta aditceco errazagoa, cein baita usantça, seguentça, dembora luceaz bekhatutan egoitea. Handic, hala egoitetic, itsutcen eta gogorteen da bekhatorea. Handic ontasunera baiño, gaichtatasunera eroriagoa, isuriagoa, eta emanagoa guelditcen da. Handic erroç eguiten tu. Finean handic bekhatua beretacotcen, eta natural beçala errendatcen du, ian eta edan gabe baiño guehiago, bekhaturic egun gabe ecin daroquveyela, iduritcen baitçaina.

Eguiten duçu egun bekhatu bat eta bekhatu hartçaz orhoitcen cara arratsean; alhatcen çaitçu ceure conscientia. Eguiten duçu bihar bertce bat, eta orduan ere orhoitcen cara. Ordea egun baiño bihar gutiago orhoitcen cara. Lehenbician senticor, eta guero eta guero gutiago. Lehenbiciric bekhatu eguiten duçunean, beldur cara; bi garrenean ere bai, ordea lebenbicicoan baiño gutiago. Eta hanbat usatcen duçu bekhatu eguitea, hanbat seguitcen duçu, non aldi guztiz beldurra galtsen baituçu; usatuari beçala, hetan laquetcen baitçaitçu: eta handic harat batere ezpaitcendu baiño guehiago, ezpaituçu conturic eguiten. Bekhatu bat baicen

eztuena, minbera da, senticor da, beldur da, ecin so-sega diteque; baiña ehun dituenac, bekhatua bekhatuari iratchequiric, bekhatuz betheric dagoenac, ezin antsiarie, ezin sentitzen, eztaduca conturic. Ceren usan-carequin batean, itsoluta, gogortua, ezansialua, eta erroac egunie, bekhatutan barrena sarthua baitago.

Guicon batec, bere herritic campora Indietara edo bertze lekhu urrun batetara partitzen denean, eta oraiño bere herrico aguerian, comarquetan eta terminoetan denean, maiz behatzentz du guibelat, bere herrico menedietarat. Baiña aitcina iraganez guero, bere herria eta herrico lurrac bistatic galduz guero, itzultzen da bertze alderat; ioan behar duen, eta dohan lekhu hartarat: eta han aldiz, bere beguiac eta gogoa ere ibentzen zu. Bada haur beror guertatzen caica, lehen iustu icanic, cenbait demboraz bekhaturic gabe egonic, bekhatu eguitera abiatzen denari ere. Abiatu berri hartan, maiz behatzentz du guibelat, ulzi duen bicitee presturat: eta hartçaz orhoituric, eguiten du cenbait hats-beherapen, erreccibitzen du bere baitan cenbait tristura. Baiña bekhatutan aitcina iraganez guero, leheneco aztura ona eta berthuteac begui bistatic galduz guero, gogotic utziz guero, ibentzen du aldiz bere gogoa eta bihotz guztia, escuen artean darabiltzan bekhatuetan eta placeretan. Eta handic harat, eztu leheneco herriaz eta biciteaz conturic eguiten, urrundu da; presentekoac darama guzia.

§ 3.

Bekhatu bat eguiten duçunean eriteen da arima:

bia eguiten ditutçunean eritcenago da : eta anhitz egninez usantza coberateen duçunean, eta usantza coberaturie, usaturie bezala, hetan laquetcen çaiçumean, are eritcenago da, ordnan gal hurranteen da arima. Eta halacoac, ez conseillu onez, ez predicarien erramez, ez bere lagunac hilteen çaiçala ikhusteaz, eta ez hunelaco berice gañaz, eztu conturic eguiten, eta ez probetchurie atheratzen, calteric baicen.

Halacoari guerthatseen çaiça laincoarequin, eri bat midicuerequin eguiten çaicana. Midicuac emaiten dio eriari edari bat, purga bat, bere eguitez ona eta eritasunari dagocona. Ordea purga ona içanagatic, eritasuna hain da handia éta bortitza, eria hain dago ahitua eta usteldua, ecen ezpaitio purgac batere onic eguiten, gaitzic baicen. Midicuac eta midicinac eztute faltaric. Nore du bada falta ? Barreneco eritasunac, barreneco usteltasunac. Bada molde hunetan berean, gure Iaungoicoac ere, ceruco midicuac, emaiten derautza bekhatore eriari edariac, midicinac, abisuac, conseilluac, eta anhitz orremedio. Baiña guztiarequin ere ezta sendatzen. Aiteitic orduan eritcenago, orduan hurranteenago da. Eta nore du falta ? Ez midicuac, ez laincoac. Nore bada ? Eriac berae, bekhatoreac : alde guztiz galdua, narratua, arraçatua, eta erroac eguinie, bekhatuz eta aztura gaizloz bethea baitago. Iguzquiac beratzen du ezcoa, eta gogorteen lurra : eta certaric heldu da haur ? Ez iguzquia beraganic ; ceren harc biac orobat berotcen tu. Baiña heldu da ezcoaren eta lurraren arteco differentiatie eta naturaleçatic. Iondone Petrie

eta Iudasec, biec eguin çuten bekhatu, eta biac deitu cituen Iaincoae, biey eman cerauen asco midicina eta erremedio. Eta guztiarequin ere sendatu cen bat, eta ez bertcea. Sendatu cen Iondone Petri Iaincoaren garaciaz; eta guelditu cen sendatu gabe Iudas, bere fal-taz eta maliciaz.

Iaincoae beguira çaitçala, bekhatuaz ez sentitcera ethortcetic, ceren halacoey erraiten deraue Iaincoae berac : *In peccato vestro mori emini :* (1) Cenek bekhatuan hillen çarete, ceren hartan gogortuac eta ez an-siatuac baitçaudete. *Cor durum male habebit in novissimo :* (2) Bihotz gogorra gaizqui içanen da bere azquen finean.

Baldin utz baceneça harri handi bat escuetaric, norat othe lihoaque, goiti ala beheiti ? Segur da beheiti lihoaqueyela. Bada arima galdua hanbat urthez, harria beçals bekhatuan urthatua dagoena eta egon dena, noraco da bere azquen finean, Iaincoac bere es-cutic utz deçanean ? Ezta cer galdeguinic : erboqueria handia da, harria beheiti beçala, bekhatuan dagoena ere eztela ifernura erorico, uste içaitea. Ceren harria cein pisu den, are bekhatua haita pisuago.

Bada çuc, iragan diren urthe guztiotan, behinere ongi confesatu gabe, bekhatutan gogorturic eta ez ansiaturic çaudecin horrec, certan baratu este duen ? Nolatan duen esperantça salbatceco ? Ez lacusaçun mun-

(1) Joan. 8.

(2) Eccli. 5.

du hunetaco aldia daguiçunean, ifernua çuretçat da-guela? Cu beçalacoez erraiten da : *Descenderunt in profundum quasi lapis* : erori ciren harria beçala, hon-darrera.

Beraz hunelatan, ezta guerotic guerora ibili behar. Ezta dembora luceaz bekhatutuan egon behar; ceren egoite hura da gure galgarria. Handic sortezen da usan-tça; usantçatic ederestea; ederestetic ez ansiatcea; ez ansiatectic ez sentitcea; ez sentitcetic itsutcea, go-gortcea, eta azquenean ahalquea galdurie hartçaz pre-çatcea, loriatcea, eta sendagilla eriztea. Eta handic harat, hartaraz guero, eztaquicula hartçaz conturic: gaizqui da, hurran da, hillaren pare eduquiteco da.

III.

BEKHATUEN NEURRIA.**XXXVIII CAPITULUA.**

Nola guerotic guerora gabiltçala betha ditequeyen bekhatusen neurria, eta osa contua.

§ 1.

ERRAITEN du Salomonec, Iaincoarequin mintço dela : *Omnia in mensura et numero et pondere disposuisti*: (1) launa, çore gobernua eta ordenamendua, hain da-handia, eta hain aitcina heltcen eta hedateen da, non munduko gauça guztiac contuan, pisuan eta neurrian

(1) Sap. 11.

du hunetaco aldia daguiçunean, ifernua çuretçat da-guela? Cu beçalacoez erraiten da : *Descenderunt in profundum quasi lapis* : erori ciren harria beçala, hon-darrera.

Beraz hunelatan, ezta guerotic guerora ibili behar. Ezta dembora luceaz bekhatutuan egon behar; ceren egoite hura da gure galgarria. Handic sortezen da usan-tça; usantçatic ederestea; ederestetic ez ansiatcea; ez ansiatectic ez sentitcea; ez sentitcetic itsutcea, go-gortcea, eta azquenean ahalquea galdurie hartçaz pre-çatcea, loriatcea, eta sendagilla eriztea. Eta handic harat, hartaraz guero, eztaquicula hartçaz conturic: gaizqui da, hurran da, hillaren pare eduquiteco da.

III.

BEKHATUEN NEURRIA.**XXXVIII CAPITULUA.**

Nola guerotic guerora gabiltçala betha ditequeyen bekhatusen neurria, eta osa contua.

§ 1.

ERRAITEN du Salomonec, Iaincoarequin mintço dela : *Omnia in mensura et numero et pondere disposuisti*: (1) launa, çore gobernua eta ordenamendua, hain da-handia, eta hain aitcina heltcen eta hedateen da, non munduko gauça guztiac contuan, pisuan eta neurrian

(1) Sap. 11.

eguiten baititutę. *Pondus et statera iudicia Domini:* (1) Pisua eta balantza dira launaren iniemanduae eta sentenciac. Ezta gutitceric, eta ez berreteceric: ezta soberaniaric, eta ez escasiaric: ezta ignorantiaric eta ez nuen usteric. Guztiae dacusqui, guztiae daquizqui eta guztiec berac bere escuz, bere ordenamenduaren arauaz, behar beçala guidateen tu. (2) Hain chehero, bat banaca, bere gainqui, eta bereciqui, daqui Iaincoac, gauça guztien berri, non gure buruko illeac ere, contatuac baitadutę, eta ezpaitzaicu batere, haren iquin gabe galtecen eta ez erorteen. (3) Are badaqui cenbat ifernuraco diren ere; eta harc berac daqui eta ez bertcec. Badu guztien contua, eta contu segura eta guerthua. Hala erraiten du San Thomasec: *Numerus prædestinatorum in superna felicitate locandus, est certus et soli Deo cognitus.* (4)

Bekhatuac, eta bekhatuzeo obrac, baititugu gueure gueureac, eta gueroc eguinac: halaco moldez, ecen erraiten baitu Iaincoac berac Oseas propheta baithan: *Perditio tua ex te Israël, tantummodo in me auxilium tuum:* (5) Israël, guristinoa, çore galcea ceure ganic, erremediatcea duçu eneganic. Bekhatua çorea da, barkhamendua da enea.

(1) Eccli. 41.

(2) Genes.

(3) Luc 12 et 21.

(4) S. Th. t p. q. 2 art. 7.

(5) Oseae 13.

Ordea guztiarequin ere badaqui Iaincoac gure bekhatu guzlien berria eta contua; badaqui cenbat eguiuen ditugun, eta hai cenhateraiño iguriquico çaicun ere. Hala erraiten du San Augustinec: *Sed hoc magis sentire nos convenit tandiū unumquemque Dei patientia sustentari, quandiu nondum peccatorum suorum terminum finemque complecerit; quo completo eum illico perculi, nec illi ullam veniam jam reservari:* (1) Iaquin deçagun gauça bat, senticoa, iguriquitcen dioela bat bederari Iaincoaren pacjentiac, bere bekhatuen neurria bethe arteiño, contua compli arteiño: eta hura complituz guero, eztela guehiago iguriquitceric, eta ez barkhamendu erdiesteric. Mugatu du Iaincoac bekhatuen contua; eta ntzten du contu haren complitcera, neurriaren bethatcera eta mucurutcera. Deliberatus daduça anarteraiño iguriquitceco. Permititzen du hogoy, ehun edo berrehun bekhatu eguien ditçatzun, edo gutiago edo guehiago, berac daqni cenbat, chedea ibenia daduca; eta eztu nahi hartaric aitcinago iragan çaltecin. *Circumdedi illud terminis meis, et posui veciem et ostia; et dixi: usque huc venies, et hic confringes lumentes fluctus tuos:* (2) Inguratzen nuen itsasoa neure mugnez eta mugarriez, ibeni neraulçan athe-sarrailiac; eta erran nioen: huneraiño, erhorrico çara, eta ez aitcinago; hemen gueldituco çara, hemen hautsico dituñ ceure ubinac, eta hola hantu urguillua. Itsasoac

(1) August. libro de vita Christiana.

(2) Job 38.

hasserre denean, bere gaitz aldiac dituenean, badirudi iretsi behar duela mundua. Orduan halaco moldez iraquitzen du, non baldin bridaric ezpalu, manatuza ez-palego, lur guztia estal bailleçaque. Ordea Ieremias prophetac dioen beçala : *Posui arenam terminum mari, præceptum sempiternum quod non præteribit; commovebuntur et non poterunt, et intumescent fluctus ejus et non transibunt illud :* (1) Badu itsasoac bere chedea, bere marra, bere mugarrria eta cedarri iaquinaz, cein baita costaco sablea, harea eta legar bihia. Han hautsten da, han baratzen da, han gaitzago eli urguilluago bada ere, ematu eta sosegatu behar du. Bada itsasoari beçala ibeni derauca Jaincoac guiçonari ere, bere arauaz, bere cedarria, seiñalatu dio norraiño hel, bere chedea, bere mugarrria eta marra. Eta nahiago badu ere, eztiteque marra bartaric aitcinago iragan. Enseia ahal diteque, desira ahal deçaque, baiña alferric. Ceren guiçonac libertatea, nahi badu ongui eta nahi badu gaizqui eguiteco, içanagotic ere, ezta ez handic seguitzen, bai bekhatuac libbrequi eta bere nahiz eguiten dituela, baiña ez nahi duen beçanbat bekhatu eguin deçaqueyela, eta ez libertate hari nahi duen beçanbat, iraun araci ahal diaçayola. Ceren libertate haren gaiñeco eta nabusi da Jaincoa. Harc libertate hari eta haren iraupenari, guitten uste duenean, bortcharic eguin gabe, utz araci diaçayo, herts eta traba daraman bide gaichtoa. Asqui

(1) Jer. 5.

esten du edo sobera esten du, bere batez aitcinago. Eta hala icussico tuę iende thaillu bałcuc, neurriaren bethatceaz contu guti eguinic, abiadura handi batequin, bekhatu guehiago eguitera abiatcen, eta erdutcen direla: eta hain cinez eta deliberatuqui, non iduritcen baitçaye, ecen ia han direla, eta deusec ere, hara helteetic, ecin guibela ditçaqueyela. Ordea icussico dituę halaber, noiz eta gogoa cinezenic hartan ibenia baitaducate, eta lasterrenic baitohaci, orduan berean, edo eritasunez, edo incontruz, edo estropuz, edo heriotceac atrapatuz, bere bekhatu eguiteco gogoarequin, bidatz erditian guelditcen direla. Hala guerthatu ceican erregue Pharaoni, Israeleco semeen contra, egundaiño baiño deliberamendu handiagoarequin cihoanean, erraiten çuela: *Persequar et comprehendam, dividam spolia, implebitur anima mea, evaginabo gladium meum, interficiet eos manus mea*: (1) Erdietsico ditut, atrapatuko ditut, aspertuko natçaye, guztiac ezpataren ahotic iraganen ditut. Bada orduan berean, hunela mintço cenean, eta cihoanean, neurria betheceican, contua osatu eta complitu ceican, eta beruna beçala itsas ondarrerra eroriric bere egunac akhabatu ceitçan.

§ 2.

Itsasoco untciac, barkha handiac, anhitz daduca, carga handia iasaiten du. Erditaraiño betheagatic, it-

(1) Exod. 5.

sas gainean dago; hirur laurdeneac betheagatic ere batabilla, oraiño agueri da. Guztia betha dadinean, hondatcen eta ondorateen da, orduan estaltzen da. Geren ezta, soberaniac gainez eraguin eztiaçayonic, ezta bere neurria baiño guehiago daducayonic. Bada haur beror guerthatcen çaitu, ceure bekhatuen cargarequin, çuri ere. Eguiten ditutu hogoy bekhatu mortal, eta oraiño bici cara, iguriquitzen derañu Iaincoac. Eguiten ditutu berrogoy, eta oraiño ere utzten çaitu. Eguiten ditutu hirurhogoy; eta guztiarequin ere badu pacientzin, patratzen derauzquitzen. Eguiten ditutu lauretan hogoy, eta orduan bethatcen da neurria, orduan mucuruteen da, orduan gaiñez eguinic, untcia ondara beçala, en ere, ifernuço çolara crorteen cara.

Ordea eztut ez, hunetan erran nahi, iguriquitzen duela bethi Iaincoac, lauretan hogoy bekhatu egumar-teiño: eztut erran nahi, eztela anarteraiño neurria bethatcen, eta ez orduan ere bethatcen dela. Aiteitic nola asco baita bekhatu mortal bat infernura ioaiteco, benturaz bada cenbait, bekhatu bat beragatic ifernuço dagoenic, bekhatu batez neurria bethe duenic. Ohois batçuc, anhitz ohoinqueriaren buruan urkhatzen tuzte; eta berriz bertee batçuc, berehala lehenbicicoan dira atrapatuac. Hala guerthatcen çaye bada bekhatu anhitzequin edo gutirequin ifernura ioaiten direney ero. Batçuey iguriquitzen deraue Iaincoac Luçaro, eta bertee batçuey ez hanbat. Eta cergatic. — Den bekhatu mortalic ttipienaren ere eguitera, beldur garen amoreagatic, hartçaz neurria betha ditequeyenaz guerozio.

Eta hala erraiten dudanean lauretan hogoygarren bekhatuaz neurria bethatzen dela, orobat derraquet lehenbicicoaz, bigarrenaz edo hirurgarrenaz betha ditequeyela. Ceren nic comparacino hunetan, erran nahi dudana da, badela bekhatuetan neurri bat, badela ez aitcinago irragaiteco marra bat, eta contu bat. Eta lehenbicico bekhatuaren eguitera ere bai, baiña guztiz ere handic harat, hurrencoaren eguitera behar dugula içan heldur, ceren hartçaz, lehenaz egun eztena, neurria betha baititeque.

Eta hunetaric athera ahal deçaquegu, eta ikhas anhitz gañea. Lehenbicicoa, cinez gatxaitçala, çu eta ni ere, cordun gneure Iaungoicoari : ceren benturaz anhitz baitago orai ifernuan, gue oraiñocoan egun dugun baiño bekhatu gantiagorequin ; eta gue gueureac oraino. Iaincoarequin batean, erremedioa baititçaquegu. Halaber, bigarrena, ikhas ahal deçaquegu hunetaric, bethiere behar dugula içan heldur, eta herabe bekhatu eguitera, ceren ezpaitaquin ceñez cerratzen den contua, lehenbicico eguiten dugunaz ala bigarrenaz. Eta guztien buruañ ikhas ahal deçaqueçu, eta athera hunetaric, erhoqueria handia dela, cuc ceure buruan daramaçuna, eta erraiten-duçuna : bekhatuen utzten, eta obra onen eguiten GUERO basico carela. Ceren pentatu behar duçu, badela bekhatuetan neurri bat, contu isquin bat, eta cuc destatzen eta ordenateen duçun GUERO hartara heldu gabe, contu hura compli ditequeyela, eta neorria betha.

§ 3.

Erraiten du Aristotelec, eta harriiarraiquitzen ean
berce philosopho guztiac ere: *Omnia viventia, quo
dicuntur natura constantia, habent certum limitem
suæ quantitatis*: (1) Bicitzen diren gauça guztiee, ba
dute bere neurria bere handitasunmean, eta hai tipi
tasunean ere. Guiçona eciu dateque cigarra beçain
tipi, eta ez cigarra ere guiçona beçain handi. Ea
nola hicitzen diren gauça guztiee baitute bere handi
tasunean eta tipitasunean bere pontua eta neurria,
hala dute iraupenean ere bere dembora. Dembora ba
tetaraiño iraun ahal deçaquete, eta ez guehiago; han
dic harat guztiac dohaei beheitituaz, ahitzaz, eta bere
indarrean flacatzaz. Animalia batçuec, guehiago irau
ten dute berice batçuec baiño, eta bai çuhaitzec ere.
Ordea guztiee dute bere dembora iaquin bat, eta neurri
bat. Hala dute bada bekhatuec, eta bekhatoreec ere
bere arauaz bere neurria eta centua cenbatetaraïño
hel; eta bai dembora ere, noiz arteraiño iraun. Eta
dembora hura complituz guero, neurria bethez guero.
eztu Iaincoac guehiago iñuriquiteen. Hala emaiten da
aditcera Escriturac, erraiten duenean: (2) *Vade et in
terroga mulierem prægnantem, si quando impleverit no
vem menses suos, adhuc poterit matrix ejus retinere
partum in semelipsa?* Çoaz, eta galdeguioço emazte
içorrari, ea bederatci hillabeteac bethez guero, edu-

(1) Aristo. 2. axiomat. cap. 4. text. 41.

(2) Esdræ 4, cap. 4.

qui abal deçaqueyen haurra sabelean? ihardetsico deratzen, ezetz. Ez eta beraz Iaincoac ere, bekhatuen neurria bethez guero, ecín daducayo, bere insticiaren arauaz, bere colera aguertu gabe. Eta erraiten badu ere Esaias prophetac: *Expectat Dominus ut misereatur nostri:* (1) Iguriquitzen du Iaincoac gutxaz misericordia ixaiteço: aditeen da, iguriquitzen duela, baldin neurria bethe ezpada, dembora complitu ezpada. Hala erran eta egun ere çuen Iaincoac berac Noeren demboran, uholde handi hartçaz mundua hondatu queñean. *Impleta est terra iniuitate et ego disperdam eos cum terra:* (2) Bethe da lurra gaichtaqueriaz, murcuratu da maliciaz, ezta beraz cer guehiago igurquiric, ditçagun guztiac lurrarequin batean, gal eta honda; eta hala hondatu cituen.

Eta lurrarequin batean erraiten du: *Disperdamus eos cum terra.* Ceren lurra guelditu bacen ere, ordea Glossac dioen beçala: *Per salcedinem aquarum, ipsa terra pejorata est:* (3) Uholde hartçaz, uren gaziduraz, lurra gaistotu cen; mehalua, eta flacatua guelditu cen. Pontu hunetara ezta gaizqui heldu, San Matheo evangelistac ibentzen duen comparacion bat, (4) ceinsetçaz frogatzen baita, bekhatuetan beçala, obra onetan ere, neurria betha arteño, eta çorhi arteño, iguriquiten

(1) Isai. 38.

(2) Gen. 6.

(3) Glossa Lyrana. cap. 6. Genes.

(4) Mat. 13.

duela Iaincoac. Eta da comparacinoa: Guiçon batec erein çuen bere landan haci ona, ongi bilî garbia, baiña guero cebait nahastecaric egotzi çuen gainetik haci gaichtoa. Eta demborarequin batean hasi cireñ haci biac, ona eta gaichtoa aguertzen. Aguerlu cirensean erran cioten, bere muthilec nabusiari: *Vis imus et colligimus ea?* Iauna, çuc haci ona eta garbia erein conduen ceure landan eta alhorrean, baiña badacusagu, onarequin batean sorthu dela gaichtoa ere. Nahi duça bada goacin eta gaichto hura, athera deçagun, bil deçagun? Non: Ez, ihardesten deraue, eztut nahi: *Sinite utraque crescere usque ad messem:* iguricaue aphur bat, çaudete oraiño, luça eçaue uztaraiño; utzquitxue haci biac, ona eta gaichtoa, hazteria, handitcera, eta çorhitcera; eta guero orduan ebaquico ditutxue guztiac. Eta onac ongi bilduric eta çamaturic ailtchataloco, eta gaichtoac ere elkharganarie, sura egotcico ditutxue. Elçuen nahi çorhi arteiño, bere sasoiñera eta mugara hel arteiño, nehore utqui citçan, ez eta çorhituz guero ere gueldi citecin.

Hala eguiten du bada gure Iaincoac ere, hala onequin nola gaichtoequin iguriquiteen deraue guztiyez çorhi arteiño, bere mugara, sasoiñera, eta neurriira hel arteiño. Eta guero ordnan, onac bere loriaco altxatzen tu, eta gaichtoac seculako penetara egozten tu. Fruituac utzten ditutxu ontcera, umotcera, eta bere sasoinera heltcera: Hala utzten ditu bada Iaincoac ere onac ontasunean, eta gaichtoac gaichtasunean çorhitcera, eta neurriaren bethatcera.

§ 3.

Gure Iaungoicoac ikhussiric, iarri ceitçala gaichtaqueriari iendesac, erran çuen biholzmin handi batequin: *Tactus dolore cordis intrinsecus*, (1) ceren berac ushi etçuena, munduko bekhatuec eraguiten baitceraucaten: *Delebo hominem quem creavi à facie terræ*: Neurc egun nuen guiçona, neurc deseguinen dut, khenduko dut lurraren gaiñetic. Eta hunetatcotçat, deitu çuen Noe ceritçan guiçon bat, cein, bera çortci garren etchatier guztia, guerthatu baitcen on eta iusto; eta hari erran cioen: *Repleta est terra iniquitate*: Bethe da mundua bekhatuz eta maliciaz, gaiñez egun burran du gaichtaqueriaz. Eta hala deliberatu dut guztien uholide batez deseguitera eta Hondatcera. Ordea eman uahi derauet asti, ephe, termino eta espacio biciteco, eta penitentzia eguiteco, elun eta hogoy urthe. Eta bitarte hunetan çuc, erraiten dio Noheri, berceen abitsateco, eta ceure etchecoen salbatceco, eta halaber animamalia suerte guztietaric haciaren eta arraçaren guelditceco, egunen duen untei bat, barkha handi bat, erran den gauçaco asco handi datequeyen beçalacoa. Eta hala egun ere cuen. Eta hartan sarthu cirenac bieiric salbatu eta escapatu ciren, eta ez herterie.

Orai hemen behar da consideratu pontu bat. Untziaren eragüiteracoan, erran cerauen laincoac, iguriñico cerauela elun eta hogoy urthez. Baiña baldin kontua

(1) Gen. 6.

ongui atheratcen badugu, edireneng dugu, etceranela iguriqui ehunez baicen; ceren agueri da ecen, untcia-ren edo barkharen eguiteco manua içan çuencan, hor-tzetau ehun urthe cituela Noec, eta guero seyeten ehunetara heldu cenean, ethorri cela uholdea. Cer erran nahi du bada hune? Prometa iguriquoico cerauela ehun eta hogoy urthez, eta ez iguriqui ehunez baicen? Non dira gainearacoae? Cer murrizte da haur? Cergatic ezin bere promesa ossoqui complitea? Ihardesten du San Chrisostomoc : *Antequam implerentur anni promissi, universale introduxit excidium, et hoc fuit sacrae misericordiae maximum judicium. Nam quoniam vidit incurabiliter illos peccare, et non solum nihil ex indici-bili longanimitate sua proficere, sed et incurvadere ulcera, propterea succidit tempus, ut ne majori scilicet pena se obnoxios facerent :* (1) Eguia da, aguindu cituen urtheac complitu gabe,igorri çuen Iaincoac uholdea. Eta haur içatu cen misericordia sacratuaren sei-nale handi bat. Ceren nola ikhossi haitzen, egun oro bekhatu eguiten harì cirela, eta aitcinerat ere hala harico cirela, eta ignoruiteaz, dembora guehiago emgiteaz, probetzu baino calte guehiago heldu ceyela, bekhatuen çauriac gordintzenago, eta gaizcoatenago cirela, hohendunago eguiten cirela; urricalduric, pena gutiago ethor cequien amoreac-gatic, gutitu cerauen dembora, eta laburtu hogoy urthez, eman cerauen ephea eta promesa. Hunela ihardesten du San Crisosto-

(1) Chris. Hon. : 5 in cap. 7 Gen.

moc; eta arraçoin ona da haur: baiña ez ni narrayon gauçaren frogateeco. Hartaracotzat edireiten da bertce bat San Geronimo baithan eta ene ustez ez gaichtoa. (1) Huna cer dioen Dotor handi harc: Aguindu cerauen, iguriñico ceruela ehun eta hogoy urthez, ez ordea iguriñi chunez haicen. Ceren ehun eta hogoy urthez egun behar cituzten bekhatuac, edo egun behar etxiluztenac, chunez egun baitcituzten, chunez neurria bethe. Eta nola neurria bethez guero, ezpaitcen cer guehiago iguriñiric: balatan, nola berac lehiatu baitciren bekhatu eguitera, eta neurriaren bethaterra, deliberatu çuen Iaincoac ere hey biciaren laburtcera, eta hogoy urtheren demboraren gutitcera eta ephaitera.

Hunetaric athera ahal degaquegu, behar guenduqueyela, guehiago biciteagatic ere, bekhatu eguitetic guibelatu, eta bartan neurria bethatetic escensatu. Halatan erraiten derane Ieremias prophetac Induey: *Quare facitis malum grande hoc contra animas vestras, ut interficiat ex vobis vir et mulier?* Ceuen buruen etsaiac, Iaincoagatic egun nahi ezpaduque ere, cergatic cenun probetchuagatic, eta guehiago biciteagatic bedere, etxareto bekhatu eguitetic beguiratzen? Eztaçusaque, bekhatu eguiteaz, eta hequen contuaren compliteaz bicia laburtzen duçuela? Eta halatan bertcela hillen sineten bajño lehen, hiltzen caretela? Ceren contua complitz guero, ezpaita guehiago biciteric.

(1) Vide Hieron. de ques. Hebraicis, super huc locum.

Aguindu cerauen gure Iaungoicoac Abrahami eta haren ondokoey, emanen cerauela Iudeaco erresuma on hura. Ordea etcerauen aguindu eta berehala eman. Eta cergatic ez? Ihardesten du Iaincoac berac : *Nec dum enim completa sunt iniquitates Amorrheorum* : (1) Ezterauet emaiten berehala, ceren ezpaitira oraiño bethe eta complitu Amorreoen bekhatuac, ceinac baitaducate herri hura. Hee neurria bethia deçateean, eta kontua compli ; orduan edequico derauet hey, eta emanen Abrahami eta haren ondokoey.

Etçuen iduriz hala egui Sodomacoequin eta Gomorracoequin : hec erran eta berehala, guehiago iguriqui gabe, cerutic su batigoriric, erre cituen. Ceren ia orduotçat, neurria bethe baitçuten. Eta hunen gaiñean erraiten du San Agustinec : *Quo exemplo manifeste instruimur, singulos secundum peccatorum suorum plenitudinem consumari, et tandiū ut convertantur sustineri, quamdiū cumulum suorum, non habuerint delictorum, consummatum.* (2) Exemplu hunetçaz emaiten çaiçu aditcera, eta eracusten clarqui, bat bederari, bere bekhatuac bethe dituenean, bethatcen çaiçala bere egunac ere : dembora hartaraiño iguriqnitcecaicala, eta ez guehiago.

Eta baldin orainocoan erran ditugun gauça haue guztioe eguiac badira, nola baitira eguiac ; baldin Iaincoac deliberatus hadaduca iguriqnitceco neurria betha

(1) Genes. 15.

(2) Vide Aug. de vita Christiana.

arteinō, eta ez guehiago : certan pensatcen othe duen çuc, orainokoan ere buruan ille duen baiño bekhatu guehiago egun duen horrec? Cer daquiçn hurran lehenbicico egunen duenaz, çuc ceure neurria bekhaceno duenaz? Contua compliteen duenaz? Cer daquiçn lehenbicico egunen duen bekhatuaren beguirako dagoenz Iaincoa, çure egunen akhabatceco, eta mundutic atheratceco? Consideratceoa, eta bethi ere gozoan ednquitceco pontua da haur. Baiña çuc pontu hunez eta bertce hunelacoz ere, contu guti egninic, ceure GUKRO hartara laster eguiten duu; eta bethiere GUKRO onduco carela, eta çure neurria eztela oraiño betheco erraiten duu.

Ordea cer içanen da, çure GUKRO hura heldu gabe, çure bekhatu kontua bere kontura hel badadi? eta çure bicia ere akhaba badadi?

Consideracino haur beror, bertceric gabe, asco behar liçateque, ez guehiago guerotic guerora ibiltceco: edo bai behintçat bekhatu baten eguitera çohacinean, haren eguitetic istitceco eta guibelatceco. Ceren pensatu behar cenduque ecen, eguitera çoacin bekhatu hura dela benturaz çure azquen bekhatura, eta hariaz çuc ceure neurria betha deçaqueçula; ceren etçara segur.

Anhitz bekhatu egoin duu oraiñokoan; eta goztia-requin ere, utzen çaitu oraiño Iaincoa, iguriquiteen deratçu. Beraz esperantça ahal duqueçu, eztuçula oraiño neurria bethe. Ordea betha deçaqueçu lehenbicico egunen duenaz; beraz haren eguitetic, behar duu beguiratu.

Eta hala, diren iraganac iragan, hec ahalic eta ho-bequienar erremedia ditçagun, eta aitcinerat guehingo eguitetic ahalez beguirat gaitecin; bethiere pontu haur, neurriaren bethateeco peril haur, gogoan eduquitcen dugula; eta hiciteen garela, ez bekhatuz eta gaichta-queriaz, baiña ontasunez ota obra onez neurria bethe-ric, azquenean ceruco loria erdiets deçaquegun beçala.

IV.

IAINCOAREN ATSECABEA.

XXXIX CAPITULUA.

Nola guerotic guerora lucamendutan dabillanac eguiten dioen bidegabe Iaincoari.

ERRAITEN du San Thomas Doctor handi harc : *Si homo non peccasset Deus incarnatus non fuisset :* (1) Baldin guionac bekhaturic egin eztal, etcen Iain-coa guion eguinen. Eta agueri da ezetz, ceren guion eguinez guero, bere bicitee publicoa, bethiere bekha-toren ondoan ibiltzen cen, hequin solhastatzet, hequin iaten eta edaten çuen, hequiey eracasten çuen lakhet. Hain lakhet ecen soberania idurituric, gaizqui alpha-teen baitçuten Scriba Phariseocc, erraiten çutela : *Hic peccatores recipit et manducat cum illis :* (2) Cer-

(1) S. Th. 3. p. q. 1, art. 3.

(2) Luc. 23.

Eta hala, diren iraganac iragan, hec ahalic eta ho-bequienar erremedia ditçagun, eta aitcinerat guehingo eguitetic ahalez beguirat gaitecin; bethiere pontu haur, neurriaren bethateeco peril haur, gogoan eduquitcen dugula; eta hiciteen garela, ez bekhatuz eta gaichta-queriaz, baiña ontasunez ota obra onez neurria bethe-ric, azquenean ceruco loria erdiets deçaquegun beçala.

IV.

IAINCOAREN ATSECABEA.

XXXIX CAPITULUA.

Nola guerotic guerora lucamendutan dabillanac eguiten dioen bidegabe Iaincoari.

ERRAITEN du San Thomas Doctor handi harc : *Si homo non peccasset Deus incarnatus non fuisset :* (1) Baldin guionac bekhaturic egin eztal, etcen Iain-coa guion eguinen. Eta agueri da ezetz, ceren guion eguinez guero, bere bicitee publicoa, bethiere bekha-toren ondoan ibiltzen cen, hequin solhastatzet, hequin iaten eta edaten çuen, hequiey eracasten çuen lakhet. Hain lakhet ecen soberania idurituric, gaizqui alpha-teen baitçuten Scriba Phariseocc, erraiten çutela : *Hic peccatores recipit et manducat cum illis :* (2) Cer-

(1) S. Th. 3. p. q. 1, art. 3.

(2) Luc. 23.

da haur? soberaniac dira hanc, bekhatorequin, iende galdu, concienteia gabecoequin dabilla, hequiey agur eguiten deraue, hequin iaten du. Eta hanbat mintzo ciren ecen azquenean comparacion batçue ibeniric, ihardetsi behar içatu baitcerauen erraiten çuela: Cuec dioque ecen bekhatorequin uabillala, hequin iaten eta edaten dudala, ene iendeac hec direla: eta ougui dioque, aithortcen dot, ceren hala haita. Baiña ezteca-çuela mirets; ceren nola ehun ardi dituen arçaina, ehun hetaric bat errebelateen çaicanean, ioaiten baita, laur hogoy eta hemeretciae nteiric, errebelatuaren bilha: eta haren edireiteaz atseguinago harten haitu, bertce guztiak ikhusteaz baino. Hala iaquiçue, ecen atseguinago harten dela ceruan ere, penitentzia egniten duen bekhatore batez, lauretan hogoy eta hemeretci iusto penitenciaren premiaric eztutenez baino. Ceren hura haita ardi errebelatuaren edireitea. Hala erraiten du San Lucas Evangelistae: *Gaudium erit in celo super uno peccatore paenitentiam agente, quam super nonaginta novem justis, qui non indigent paenitentia.* (1)

Habalber, nola hamar erreal dituen emazte batec hetaric bat galtzen duenean, argua iratchequiric, iraultea baitn etche guzia: eta guero ediren duenean, alequeratzen baita, eta contateen baiteraue bere hauçoey bere sendagailla, eta erraiten eguin diatçotela bozcarioa. Hala iaquiçue ecen ceruko Ainguiruac ere alequeratzen direla bekhatore baten conbertitceaz, erreal galduaren edireiteaz emazte hura beçala.

(1) Luc. 19.

Comparacino hantzen emaiten da aditzena, handia dela gure Iaungoicoac gure salbatzeceko duen desira, eta hartan hartzen duen atseguna eta placera. Ceren erraiten baitu, contentamendu guehiago duela bekhatore baten penitenciaz, laur eta hogoy eta hemeretzi insturen iustutasunaz baino.

Segur da abantail eramaiten dioela iustuae bekhatoreari, garbiae liquitsari; eta hobe dela arropa berri osoa, cahar pedaçatua baino. Nolatan erraiten da bada guztiarequin ere, atseguinago duela Iaincoac bekhatorearen penitenciaz, instuaren iustutasunaz baino? Ihardesten du San Thomasec : *Cæteris paribus, innocentia dignior et magis dilecta : dicitur tamen plus gaudere de penitente quam de innocentie, quia plerumque penitentes cautiiores, humiliores et ferventiores resurgunt* : (1) Hanbatic hanbatean hobe da hoben gabetasuna, eta behin ere liquistu gabe egoitea, liquistu ondocon garbitasuna baino. Ordea guztiarequin ere erraiten du gure Iaincoac atseguinago duela bekhatore convertituaz, penitenciaz garbituaz eta eroriz guero iaiquidena, behinere erori eztenaz baino. Ceren comunzqui halacoa cinezago permatzen eta emplegatzzen baita; bethiere iustu içatu dena baino. Bekhaturic egun eztuena ezta deusen beldur, baina bai penitencia egutzen eta bere bekhatuen erremediatzen bari dena; hora beldur da, cinez permatzen da, beroqui manaiateen da: eta hala manaiatuz, iragaiten da anhitzetan ere, bethi-

(1) S. Tho. 1 part. q. 20, art. 4.

iustu içatu dena baino aitcinago. Hala iragan ciren Iondone Paulo bat, Magdalena bat eta hertcerie anhitz : eta egurri ciren, bethi iustu eta saindu içan ciren batue baino iustuago, eta sainduago.

Hanbatic hanbatean, *Cæteris paribus*, hobe da, arropa osoa, pedaçatua baino. Ordea halaco pedaçua, sphaindura eta barretura eman ahal daquidicaio, non guero berretura harc eta pedaçuac, arropa oso berriac baino guehiago bailuque. Hunen aranaz erraiten du San Gregorioc : *Dux in prælio, cum militem plus diligit, qui post fugam conversus fortiter hostem premuit, quam qui nunquam fugit, nec unquam fortiter fecit. Et agricola eam terram plus amat, que post spinas uberes fructus profert, quam eam quæ nunquam spinas habuit et nunquam fertilem fructum producit :* (1) Capitain batec estimatcenago du, guerlatie ihes eguin ondean, bihurturic, balentia handiac egulten dituen soldadua, behinere ihesic eguin eztuena, eta balentiaric ere egniten eztuena baino. Halaber laborrari batec ere nahiago eta meiteago du anhitz belhar gaichto içatu duen lurra, eta guero hetaric garbitu ondean, fruitu anhitz ekharteen duena, behin ere belhar gaichtoric içan eztuena eta fruituric ere emaiten eztuena baino. Hala bada gure Iaungoicoac ere du maiteago, bekhatu eguin ondean beroqui eta doblatqui obra onetan emplegatzen dena, bekhaturic eguin eztuena, eta obra onac ere hotzqui, ephelqui eta

(1) Gregor. Hom. 24. in Evang.

Iachoqui eguiten dituena baino. Eta erraiten du, maiteago duela halaco bekhatorea, hala cintqui eta fiotqui penitencia eguiten duena bertee moldezco lauretan hogoy eta hemeretci instu baino. Ceren lehen gaichto eta bekhatore cen hora, eguiten baita azquenean, penitenciarequin batean, iustuago eta sainduago, bethi instu eta saindu içatn diren hec baino.

§ 2.

Ara guehiago, maiteago eta estimatzenago du laincoac penitencia egniten duen bekhatorea, penitenciaren premiarie eztuen iustua baino : ceren perilean eli galdu-gordean ibili diren gaucen edireiteaz alsegui-nago, hartzen baitugu, bethiere segurean eta peril gabe egon direnen ikhusteaz baino.

Guerlaren ondoan estimateen da baquea : tormenta iragan denean preçateen da dembora ederra : eritasuna ioan denean,eduquitzen da ecertan osasuna. Eta cebatenaz gnerla, tormenta, eta eritasuna içan baitira handiago eta perilosago, hanbatenaz guero ondoko baquea, dembora ederra eta osasuna ere dira preçateenago, estimatezenago. Cer nahiçu guehiago, dio San Augustincc : (1) *Edendi et bibendi voluptas nulla est, nisi procedat esuriendi et sitiendi molestia. Et ebrietas quædam salsiuncula comedunt, quo fiat molestior ardor, quem cum extinguit potatio, fiat delectatio. Et institutum est, ut jam parta sponsa non tradatur statim, ne*

(1) August. lib. 8. conf. cap. 3.

vilem habeat maritus quam non suspiraverit dilatam.
 Baldin placera placer, eta atseguna atseguna içanen
 bada, behar da aitcinetic aphur bat bedere nekhatu eta
 unhatu. Iaquinan bada cer den placera, frogatu behar
 da lehenic cer den desplacera. Gaitzen berriric ezta-
 quienac, eztu ontasuna estimatecen. Loan ezta goçoric,
 logale eztenean; eta ez ian edanean ere, asea dagoe-
 nean. Eta halatan edale on batçuec bilhatcen tuzte
 bianda gaciac egarriaren pizteco; eta pizturic, edatean
 placer guehiago hartceco. Halatan ordenatu cen hal-
 haber, etcequiola espos berriari, berchala lehenbicico
 guticiamenduan edo aiphamencan bere espresa eman;
 nequez içana hobequi estima ceçan, edo fitx içana ar-
 huia etceçan.

Artçaina alegueratcenago da ardi errebelatu baten
 edireiteaz, artalde osoaren, larre onean alha dela ia-
 quiteaz baino. Aita batec atseguinago hartcen du, dem-
 hora luceaz mututuric egotu den semearen ahotic hitz
 haten ençuteaz, bertce seme guziac ederqui mintçalcen
 direla aditceaz baino. Halatan bere hacienda eta onta-
 sun partea, ian-edanean eta emaztetan gastaturic, gal-
 dua eta deseguina bihurtu cen semeari, egin cioen
 bere aitac besta guehiago, bethiere etchean bere ma-
 nuco egon ceicanari baino. Ceren etchecoa bethiere se-
 gurean ikhusten baitçuen, baina bertcea galduçat ce-
 ducana, coberatu baitçuen. (2) Hala da bada, eta hal-
 atan gure laungoicoac ere hartcen du hanbat atseguin

(2) Luc. 15.

eta placer bekhatorearen penitenciaz. Ceren galdu
guero edireiten baita, eta bai peril handitic ere ilqui-
tecn, eta escapatzen.

§ 2.

Bekhatorearen penitenciaz atseguiun handia harteen
du gure laungoicoac : eta atseguiu harteetan haur guztian
eraguiten deranea bekhatorcagana dadinca amorioac.
Eta nola Terencioe dioen beçala : *Amantium ira, amo-
ris redintegratio est* : Ciuez eta eguiaz elkar maite
dutenen arteco haserredurac eta differentiac, anhi-
tzetan ere, amorio berretgarri eta fintagarri ohi dira.
Ceren elkarrequin minçatu gabe, eta elkhargana gabe
egotu diren dembora hartan ere, elkharganalceco amo-
rioa eta desira berreteen baitçaye. Hala bada gure
Iaincoari ere, gure moldera mintçatcera, bekhatores
apartaturic dagocan bitarte hartan, berrelcen çaias,
bekhatore haren bere ganatceco duen desira eta ho-
rondatea. Eta badirudi eztuela onic bero gana deça-
queyen arteino : ceren bitarte hartan, aithera ethorri-
ric beçala, bethi deyez baitagoca ; eta deyez ere lugare
eta behin ere etsitu gabe : *Expectat Dominus ut mis-
creatur vestri*. (1) Urthe hatz, biaz eta hamarrez, atal
ondoan iguriquitzen du. Eta ala baina bekhatoreak bere
burua gor eta sor eguiten du, gueroco bere egunin bi-
dea luçatzen du.

Gauça gaizqui eguna da eta itsusia, adisquideari,
deyez dagotçunean, ez ihardestea, athean iguriqui

(1) Isai. 3.

aracitcea; eta berehala eman ahal diaçaison errepuestaren, eta egun ahal diaçaison cerbitçuaren gueroco luçalcea. Beraz cinez içanen da gañca gaizqui eguna eta itsusia, hain maite çaituen Iaincoari eta adisquideari, çure penitentzia eguiteaz eta bide onerateez hanbat atseguiñ hartzen duenari; eta bethi ere deitzen çaiuela eta çure bilha dabillala daquienñari, hain kontu geti emaitea, hanbat iguriqui aracitcea, gueroco luçatcea, ez berehala ihardestea. Badirudi ecen baldin Iaincoac, dusez ere albalu damurie, hunetçaz luqueyela.

Beraz hunelatan erran behar da handia dela luçamendutan dabillan bekhatoreas, hala ibiltze hartan eta bitarte hartan Iaincoari eguiten dioen atsecabea. Eta halako hidegaberic ez eguiteagatic ere utzleco lituzqueyela, eta guinituzqueyela luçamendusc, eta guerotic guerora ibiliceac.

V.

AINGUIRUEN ATSECABEA.

XL CAPITULUA.

Nola luçamendutan guerotic guerora dabillanac eguiten derauen atsecabe Ainguiruey.

§ 1.

ERMITES du Spiritu Sainduac : *Spes que differtur affigit animam :* (1) Luçalcen den esperantçac nekhatcon du gogoa, penatcen du arima. Beraz handia da

aracitcea; eta berehala eman ahal diaçaison errepuestaren, eta egun ahal diaçaison cerbitçuaren gueroco luçalcea. Beraz cinez içanen da gañca gaizqui eguna eta itsusia, hain maite çaituen Iaincoari eta adisquideari, çure penitentzia eguiteaz eta bide onerateez hanbat atseguiñ hartzen duenari; eta bethi ere deitzen çaiuela eta çure bilha dabillala daquienñari, hain kontu geti emaitea, hanbat iguriqui aracitcea, gueroco luçatcea, ez berehala ihardestea. Badirudi ecen baldin Iaincoac, dusez ere albalu damurie, hunetçaz luqueyela.

Beraz hunelatan erran behar da handia dela luçamendutan dabillan bekhatoreas, hala ibiltze hartan eta bitarte hartan Iaincoari eguiten dioen atsecabea. Eta halako hidegaberic ez eguiteagatic ere utzleco lituzqueyela, eta guinituzqueyela luçamendusc, eta guerotic guerora ibiliceac.

V.

AINGUIRUEN ATSECABEA.

XL CAPITULUA.

Nola luçamendutan guerotic guerora dabillanac eguiten derauen atsecabe Ainguiruey.

§ 1.

ERMITES du Spiritu Sainduac : *Spes que differtur affigit animam :* (1) Luçalcen den esperantçac nekhatcon du gogoa, penatcen du arima. Beraz handia da

halaber bere arauaz, Ainguiruey luçamendutan ihiltceaz eguiten deravegun atsecabea. Ceren desira handi hatequin gure penitentciaren eta conbertitcearen beha baitaude; eta berantceaz damu harteen baitute. Hala emaiten du aditcera San Agustinec : (1) *Quoties bene agimus gaudent Angeli, et tristantur Demonet; gaudium est enim Angelis super uno pænitentiam agente; sed Diabolo, super uno pænitentiam defrente:* Ongui eguiten dugun guziaz alegueratcen dira Ainguiruac eta tristetzen deabruac. Eta erraiten deunan Ainguiruac alegueratcen direla eta deabruac tristetzen, aditzen da ecen gueure aldetic denaz heçan batean, gue alegueratcen ditugula edo tristetzen; eta aleguera edo triste alhaliteci, gue eguiten dingun obrec aleguera eta trista litçaquetela. Geren hertze gaineracoan, Ainguiruac nola bethi lorian baitaude, ecin triste ditezque, eta ez deabruac ere aleguera, ceren hec ero bethi penatan baitira.

Erraiten du San Thomasec : (2) *Demones propter invidiam prosectum hominum impedire nituntur; et propter superbiam divinæ potestatis similitudinem usurpant, depulando sibi ministros ad hominum impugnationem, sicut et Angeli Deo ministrant, in determinatis officiis, ad hominum salutem.* Badaquigu, baduela gutaric bat bederac, Iaincoac emanic, norc bere Aingiru beguiraillea: eta Aingiru harc bertce guztien artetik

(1) Aug. in soliloq. animæ ad Deum cap. 27.

(2) S. Th. 4. part. q. 114. art. 1.

eta gainetic, eduquitcen duela bere cargoaz contu, eta desiratcen duela baren salbamendua. Eta nola Iaincoac ontasunean eguiten duena, nahi bailluque deabruac ere gaichtasunean eguin : halatan Luciferrec, deabru buruçaguiac eta capitainac, emaiten du halaber cenbait Ainguiru gaichito eta deabru, tentatceco eta bekhatu eraguiteco. Eta hala erran ahal deçaquegu eceu Ainguiru on bat begniratceco beçala, badugula halaber gaichito bat ere, bere ahalaz gure tentatceco eta gaiteco : ena Iaincoac emanic, eta gaichtoa Luciferrec igorriric.

Eta ecin erran diteque cein guerla handia duten Ainguiru hec biec, onac eta gaichtoac, gure arimaren gainean. Biac permatcen dira, biac enseiatcen dira ; eta cinquienie heriotceco orénean emplegatecen dira. Gereu orduan dira cinac eta minac ; orduan da arimaren gorabehera guztia, eta balantçaren alde batera edo bertcera erortceco pontua eta mendua. Orduan biltcen dira deabruac, eta laguntcen çaitça elkarri, erraiten dutela : *Deus dereliquit eum, persecutimi et comprehendite quia non est qui cripiat* : (1) Utzi du Iaincoac, har deçagun beraz gue, daramagun ; ceren gurea da, eta nori beraea ecia nehorc edequi diaçao. Inguratcen dute, tentatcen dute, desesperatceco pontura ekhartcen dute : eta peril da, cenbait desesperaracitcen ere baduten. Pontu hartan ethortcen çaitça arima tristeari gogora, egundaiño eguin dituen falta guztiac ; eta han-

(1) Psal. 70.

bat eta hain handise direla ikhuisiric, bihotzca hersten caica, hiltzen caica; eta iartzen da bere buruarequin gogoetan, erraitea duela: cer içanen da orai uitgar? cer bide hartuco othe dut? salbatuca othe naiz? Pentuaren latza: pausuaren gaitza: eguitecoaren handia: hersturaren hertsia etu icigarria! Cer egunen du orduan arima ici harc? Nore deituko du bere faboretsu? Nore escua emanen dio? Nor helduko, nor lagunduko caica? Nor bada? — Bere Aingoiru beguiraillea; harc orduan, adisquide onac beçala, laster egiten du, harc escuey egiten deraue; eta inguruneko etsai guziac, demonio tentatçailleac, alde batera eta bertcorda hul-khatzen tu. Eta guero erraitea dio arimari: ea arima icitura, bihotz har eçaçu, esportea qaitoci; etçaitecilla errenda, ezteçaçula gal esperantea. Ceren çure bekhatuac anhitz eta handiae badira ere, iaquiçu ecea Jaincoaren misericordia are dela handiago; eta Jaincoan nahi duela salba çatecin; eta aitecotz saltarie, çure aldetic içanen dela, eta ez Jaincoarenetic. Orduan Eliçac ere iguiten du othoitz, erraisten duela: *Ocurrete Angeli Domini, suscipientes animam ejus:* Ea ceruko Ainguiruac, Jaincoaren aitcinean çudetenac, orai da ordua; laster eguiçue, hersturatsu dagoen arima huri escua emoque, hel çaqitçate! Orduan arima harc bere barren hartan, bere obrequin, berac iharduqui behar du. Ezta ahaide adisquideric hara hiltzen: baino bai Ainguiru beguiraillea, harc eduquitzen dio on; hara dagoca aldacañ, harc eztu utzten, gorputzean dagoen bitarteau.

§ 2.

Baldin arima hura, onatasunean, fedean eta esperançan cin egonie, eta bere saltac erremediaturic, particen bada Iaincoaren garacian dagoela mandutic : norc erranen du, eein handia den orduan Ainguiru beguirailleac hartzen duen atseguma eta placera ? Ichenbicioric arima haren ondoan cebiltzan Deabruac ahalguez eta errabiaz betheac, musicateen ditu eta isernurat igortzen gordatzeera. Eta guero hartzen du arima hura, besarateen du, Iaincoaren aitcinera eramaiten du, erraiten dioela laineoari : launa huna non den çuc gomendiotan eman cenerantza arima ; manatu nendurcon beguira neçala ; beguiratu dut, sendoric eta salboric bihurteen deratut. Errecibi eçañu bada, eta emógu huni ceore loria, eta gurequin heure trabailluren golardoa.

Ordea baldin arima hura ilquitzen bada, bekhatutan dagoela. gorputzetic; baldin condenateen bada : orduan utzten du here Ainguiru beguirailleac, apartateen çica, eta ioiitearequin erraiten dio : ha gaichtoa, ene nekhagarria, ala nic gaizqui emplegatu baitut hiri quico dembora ! Amaren sabelctic itzqui hintzen pontutic, pontu huenetaraino, bethi ere iarrai qui natçain, eznaleain behin ere apartatu. Anhitz enseiu egun dinat, et-sai horretaric hire beguiratceco, eta orai daramanan bide gaichtotic hire urrunteeco. Baino alferric guztia, ceren nola baithnen libertatea, eta heure burua heure escuco, hala egun dun heure placera eta borondatea;

garaitu nann, eztun nitçaz conturic egoin : ez baiz nitçaz gobernato. Galdu dinat nie neure trabaillua, eta bai hic ere, secula fin gabecotçat, heure burua.

Baldin Ainguiru hura triste albaledi, edo ahalque, nste dut ecen arima haren galtceaz, eta etsai gaichtose daramacola ikhustea, triste litequeyela eta ahalque. Ela badirudi ahalqueturic beçala erraiten deranela bere lagun Ainguiruey, Jéremias Prophetac Babiloniaco hiriaz erran çuena : *Curavimus Babilonem et non est sanna* : (1) Arthatu dogu arima haur eta guztiequin ezt salbatu. Nic egoin dut neure aldetic eguiteco cen guztia. Galdu da arima haur, eta eztu nehore ere nic baino damuago ; herac du ordea falta. Ni sinhetsi hanndu, ezquinen eguiteco hunetan içanen : ez nic içanen nuen hunenbat damu, eta ez hunec ere hunenbat calte eta atsecabe.

Ordea cer da haur ? Nolatan galdu da arima haur ? Etçuen Jaincoac hunen salbatceagatic odol isuri, eta heriotce errecibitu ? Eta etcituen halaber eritcen ceneo sendagarriac eta erremedioac, Sacramendu sainduac, ordenatu ? Eta etceratçun çuri ere, Ainguiru saindua, beguiratceco cargua eman ? Nolatan bada galdu da ? Nolatan condenatu da ? Ihardesten du Ainguiruac : eguiac dira horioc guztioc : ene cargutan cen, eta etcen erremedio escasie ere ; ordea etçaitça deus probetchatu : ceren bataz eritasuna baitçuen handia, eta sendatceco desira ttipia ; eta berriz bertcea ceren

(1) Jérem. 51.

bere fantasiaz eta borondatez gobernatu baita, eta ez ene conseilluz.

Damu hartecceko okhasino handia emaiten çaiica Ainguiru beguirailleari, bere cargutan duena, bekhatutie ilquitceko luçamendutan dabilconeau; eta are handiagoa condenatzen çaicala dacusanean. Handia da huneletan Ainguiru beguirailleari, eta berice Ainguiru guztiey ere eguiten çayen damus eta bidegabea: ceren guztiey gure salbamendua, eta lehen baino lehen bekhatularic ilquiric ikhunstea desiratzen baitute; eta ilquiten garela dacusatenean, atseguin hartzen baitute.

Beraz huneletan, eguiteagatic Ainguiruey bai atseguin, baima damuric eta atsecaberic ez eguiteagatic ere, behar guenduque egun heretic, gueroco luçatu gabe, trabu guztiac khenduric, salbamenduko bidea hartu; eta hartan guelditzen çaicun gneure mende aphura emplegatu.

VI.

GUZTIEN BIDEGABEA.

XLI CAPITULUA.

Nola guerotic querora luçamendutan dabillanac eguiten derauen bidegabe, bere buruari, bere guristino lagunari, eta bai munduko bertze gauça guztiey ere.

§ 1.

Baldin luçaro bekhatutan egoiteaz, eta guerotic querora ibiltceaz, eguiten baderauengu bidegabe Iaincoari, eta Ainguiruey: cenbat guehiago eziogu eguiten

bere fantasiaz eta borondatez gobernatu baita, eta ez ene conseilluz.

Damu hartecceko okhasino handia emaiten çaiica Ainguiru beguirailleari, bere cargutan duena, bekhatutie ilquitceko luçamendutan dabilconeau; eta are handiagoa condenatzen çaicala dacusanean. Handia da huneletan Ainguiru beguirailleari, eta berice Ainguiru guztiey ere eguiten çayen damus eta bidegabea: ceren guztiey gure salbamendua, eta lehen baino lehen bekhatularic ilquiric ikhunstea desiratzen baitute; eta ilquiten garela dacusatenean, atseguin hartzen baitute.

Beraz huneletan, eguiteagatic Ainguiruey bai atseguin, baima damuric eta atsecaberic ez eguiteagatic ere, behar guenduque egun heretic, gueroco luçatu gabe, trabu guztiac khenduric, salbamenduko bidea hartu; eta hartan guelditzen çaicun gneure mende aphura emplegatu.

VI.

GUZTIEN BIDEGABEA.

XLI CAPITULUA.

Nola guerotic querora luçamendutan dabillanac eguiten derauen bidegabe, bere buruari, bere guristino lagunari, eta bai munduko bertze gauça guztiey ere.

§ 1.

Baldin luçaro bekhatutan egoiteaz, eta guerotic querora ibiltceaz, eguiten baderauengu bidegabe Iaincoari, eta Ainguiruey: cenbat guehiago eziogu eguiten

gueure burnari bidegshe, dainu eta calte. Ceren baldin ordnan, hala bekhatutan gabiltzanean eta gaudenean, hiltzen bagara, seculacioñat galdu eta penatu behar baicara.

Gue dugun etsairic handiena gueure burus dugu. Esteracu nehorc ero hanbat calte eta bidegabé egiten, nola gueroe egiten baitiogn gueure buruari. Gueroe gueure buruac galtzen tugu, iserunra egozten tugu. Ez tugu mhortezaz ere hanbat okhasino eta arraçoin arrencuratzeo, nola gueure burnaz; eztugu bertceri cer atchaquia emanic, eta ez cer hoben egotziric, gueureko ditugu saltac.

Eztaquit non dugun adimendua, eta ez certan pensa-teen dugun; ecea munduan ditugun bertce gauça guztia nahi dugularic diren onac; gure hicitea bera, gure conscientia, gure arima nahi baitugu den gaichto.
Quid enim est quod ris habere malum? Nihil omnino: non uxorem, non filiam, non servum, non ancillam, non villam, non tunicam, postremo non caligam; et tamen cellis habere malum vitam? Ilogo te præpone vitam tuam calligae tur. Si possent respondere bona tua quibus est plena domus tua, que habere optasti, et perdere timuisti, nonne et tibi clamarent: Sicut tu nos bona ris habere, sic et nos volumus bonum habere dominum?⁽¹⁾ Erradaçu othoi, dio san Agustinec, nabi othe cenduque deus ere gauça gaichtoric? Ez segur: eztu nahi emazle gaichtos, ez seme gaichtoa, ez

(1) Aug. serm. 12 de Verbis Domini.

cerbitçari gaichtoa, ez ahorra gaichtoa, eta ez azkenez goiti çapata gaichtoa ere. Nolatan bada nahi duçu concientzia gaichtoa? Bertee gauça guztiac onac, baina ceure horua, ceure bicilcea, ceure concientzia, ceure arima, gaichto! Baldin çare çapatac, eta etchean ceure cerbitçuço dituçon bertee gauçac mintxa albaliteci, erran liaçaiçute: Çuc nahi duçu gu garen onac: hala nahi dugu bada gue ere, cu çaren ona. Çuc nahi dituçon cerbitçari onac, hala nahi dugu bada gue ere nabusi ona. Baldin galdequin baliaçaçute cer den çuc duçun gauçaric maitena, ihardets ceneqaque çure bicia dela: ceren biciagatic munduko gauça guztiac utz baititçaquetçu. Nolatan bada bertee gauça guztiac nahi dituçularic onac, nahi duçu çue duçun gauçaric maitena, den gaichto? Ecín ediren deçaquet bertee arraçoinic, Deabruac itsutu eta lilitratu çaituela hainen; eta cu çarela yende hetaric, ceinengatic erraiten baitu Sophonias Prophetac: *Ambulaverunt circi, quia peccaverunt Domino*: (1) Itsutoac ibiltseen dira ceren bekhatnan bici baitira.

Egunetik egnecera bekhatutic ilkitceco Inçamendutan çabilitçan bitarte hartan, ceure buruaren etsai çara. Ceren ongi ahal cinatequeyena, ceure faltaz gaizki behar baitçara. Beraz orduan hala ibiltceaz, ceure buruari bidegabe eguiten dioçu. Ceren cerorrec ceure horua galteen baituçu.

(1) Soph. 1.

§ 2.

Bada halaber guerotic guerora bekhatutan egoiteaz, bidegabé eguiten dioçu ceure guiristino lagunari ere.

Batcuec erraiten dute, baldin gaichto banaiz, neutretçat naiz gaichto, eztute ene bekhatnec nehor ifernuraco, norc bereac iasanen tu. Eguia da norc bereac iasanen ditu. Ordea eztioçu ongui, etçarela ceuretçat buicea gaichto. Ceren lehenbicicoric, nola una anhitzentz baita on, hala gaichtoa ere anhitzentçat da gaichto. Bi garrena ceren ceure bicitce gaichtoaz, exemplo gaichtoa emanez, bertceri ere bekhatu eraguiteco okhasino emaiten baitioçu. Hala erraiten du san Agustinec : *Qui in conspectu populi male vivit, cum a quo attenditur quantum in illo est occidit* : (1) Bertceren aguerrian, iendec ikhusten dutela, gaizki bicitzen denac, bere aldetic denaz beçan batean, aguerrian diren hec, beha daudenac, hilteen tu, caltiar errendatzen tu. (2) Beraz ceure bekhatuaz eguiten dioçu, ceure buruaz bertceri ere calte eta bidegabé. Ceren anhitzetan ere çnre bekhatuagatic, bertceac ere gaztigalcen baititu laincoac; ez gaztigu eternalaz, baina bai temporalaz.

Finean ez guiristino lagunari berari, baina are munduko bertce creatura arraçoinaz usatzen eztuten guztiey ere, bidegabé eguiten deraueçu bekhatutan.

(1) Aug. I. de Past. cap. 4.

(2) Vide Nicol. Lyran. Deut 34 super illud : non occiduntur patres pro filiis.

çauden bitartean. Ceren Ichenbicicoric, etcheco iaunari bidegabe eguiteaz eta desohore emaiteaz, etcheco guztiac uquitcen dira, familia guztia desohoratzen da. Bada nola bekhatutak egoiteaz, Iaincoari, mundu guztico etcheco iaunari eta buruçagniari eguiten baitioen bidegabek eta emaiten desohore; eta munduko creatura guztiac, are harriac ere, etcheco iaun hunen familia eta etchatiarra baitira: hala çure bekhatutak ibiltceaz guztiac uquitcen dira; guztiec bidegabek errebitzen dute. Halaber bekhatutak egoiteaz, bidegabek eguiten deraueçu sentimendurik ezutenean creatura guztiak: ceren guztiak baitira, Erregue Davitek dioea beçala, çure cerbitçuko ordenatuak, eta çure oinen azpiko eguinak: *Omnia subjecisti sub pedibus ejus.* (1) Ordea eztuçu mereci cerbitçurik, bekhatutak çauden bitartean: orduan etçara iaten duçun oguiaren ere merecient; ceren orduan bekhatuaren cerbitçari eta azpiko baitçara, eta munduan den creaturarik eztheusena eta ttipienai baino eztheusago eta ttipiago: *Omnis qui facit peccatum servus est peccati.* (2) Eta ezta arraçoin, deusagoak eztheusagoa cerbitça deçan: eta ez ttipiagoak handiagoa bere azpiko erabil deçan.

Halaber bidegabek eguiten deraueçu munduko creatura guztiak bekhatutak egoitez: ceren guztiak, çure bekhatuacgatic gaztigatu baititu, eta gaztigatzen baititu Iaincoak: hain gaztigatzen ecen erraiten baititu Doctor

(1) Psal. 8.

(2) Joann. 8.

batec : *Sol et omnes creaturæ, propter peccatum hominis, perdiderunt septem partes suarum virtutum :* (1) Iguzpiiac, illarguise, eta munduko bertze creature guztiec, galdu çuten guionaren bekhatuagatik, here berthutearen, eta balioaren çazpigarren cathia, eta partea. Eta hala arraçoinequin errencura ahal ditesque eta guereilla iguzquia bekhatoreaz, erraiten dioela : Ni hiregatik goibeldu ninduan eta ilhondu ; cereñ orai argui banaiz ere eta clar, are lehen ninduan arguago eta clarago. Halaber abre adimendu gabe ere, arraçoinequin erran ahal diaçayote : Hiregatik gu dilubio handi hartan, Noeren demboraco uholdean, hondatu eta itho guinitnan. Bada burrac ere egin ahaldiaçao erançute : cereñ lehen garbi cena, haren-gatik elhorriz, arantzez, eta belhar gaichtoz bethe baitzen, eta bai fiscatu eta mehatu ere.

Finean, *Lapis de pariete clamabit et lignum quod inter juncturas ædificiorum est respondebit :* (2) Munduko creatura guztiec, paretetan iossirie dauden harriek ere çucen dute eta arraçoin bekhatorearen contra iaiquiteco. Eta hala erraiten ere du Spiritu Ssindusc iaiquico direla azquen egunean : *Pugnabit pro eo orbis terrarum contra insensatos.* (3)

Eta nola orai bekhatoreac guztiey egniten baiteraue guerla : hala orduan bekhatoreari ere guztiec paga-

(1) Petrus Lombard. 4. sent. dist. 48.

(2) Habac. 2.

(3) Sapi. 1.

mendu ordaina, moneda berean, bihurtuco diote; eta orai errecibitzen dituzten bidegabe handiez mendecu hartuko dute.

Beraz hunelatan halako eguitecotan ez erortzeagatik: eta haabat bidegabe, hanbati: Iaincoari, gueure baruari, Ainguiruey, guiristino lagunari, eta munduko berice creatura guztiek ere, ez eguitragatik, behar dugu ernatu, abiaturik; eta luçamendua utciriak, guero egia Behar denaren lehen baino lchen eguitera, bide onean jaritza, eta harko egoitera deliberata.

VII.

CONCIENTCIAREN ALHADURA.

XLII CAPITULUA.

Nola guerotik guerora gabiltean bitarlean, alha çaicun concientzia.

ERRAITEN du san Thomas, eta frogatzen den gauçada, gure laungoicoak ereina eta landatua dagucala gure baitan barrena, iaquin behar diren gancen inquiteko eta egun behar direnen eguiteco hacia eta landarea. Badu gutarie bat bederac bere baitan barrena, Iaincoak emanicaco ainteindari bat, guidari bat eta argui eguale bat. Eta harc eracunsten deracu cer dagocun ongi eta cer gaizqui; noiz goacin maklur eta noiz artez. Eta are guehiago, harc berac bere ahal guztiaz aitinateen, eta hulkhatzeen gaitu ongi eguitera, eta guibelateen eta hastanteen gaizqui eguitetik.

mendu ordaina, moneda berean, bihurtuco diote; eta orai errecibitzen dituzten bidegabe handiez mendecu hartuko dute.

Beraz hunelatan halako eguitecotan ez erortzeagatik: eta haabat bidegabe, hanbati: Iaincoari, gueure baruari, Ainguiruey, guiristino lagunari, eta munduko berice creatura guztiek ere, ez eguitragatik, behar dugu ernatu, abiaturik; eta luçamendua utciriak, guero egia Behar denaren lehen baino lchen eguitera, bide onean jarriera, eta harko egoitera deliberata.

VII.

CONCIENTCIAREN ALHADURA.

XLII CAPITULUA.

Nola guerotik guerora gabiltean bitarlean, alha çaicun concientzia.

ERRAITEN du san Thomas, eta frogatzen den gauçada, gure laungoicoak ereina eta landatua dagucala gure baitan barrena, iaquin behar diren gancen inquiteko eta egun behar direnen eguiteco hacia eta landarea. Badu gutarie bat bederac bere baitan barrena, Iaincoak emanicaco ainteindari bat, guidari bat eta argi egile bat. Eta harc eracunsten deracu cer dagocun ongi eta cer gaizqui; noiz goacin maklur eta noiz artez. Eta are guehiago, harc berac bere ahal guztiaz aitinateen, eta hulkhatzeen gaitu ongi eguitera, eta guibelateen eta hastanteen gaizqui eguitetic.

Barreneco aitcindari haur, edo argui-eguille haur, cein deiteen baitute Doctorec : *Synderesis*, (1) da gure concientzia, edo arraçoin naturala. Ceren eztia munduan halaco aitcindariric, guidariric, argui-eguilleric eta ez eta eracusleric, nola baita arraçoin naturala, pasionez eta hicioez uhertua eta thurbinstua eztena, eta arraçoin naturala harc dioena; naturaren arauaz, leguez eta ethorquiz daquiguna; bat bederaren barrena, conscientzia; eta conscientziaren lehenbieico mugidea, abiadura, eracuspresa eta conseillua. Hala eraiten do sau Crisostomoc : *Ab initio Deus hominem formans, legem illi naturalem incidit. Et quid tandem est lex naturalis? Conscientiam nobis expressit, et per se discibilem constituit bonorum et contrariorum scientiam. Non enim opus habemus discere quod mala est fornicatio, sed ab initio hoc scimus* : (2) Hastetic, egun çuenetic beretic guiconari eman ceraucan Jaincoac legue naturala : Eta cer da legue naturala? Bat bederaren conscientzia, ceinetan barrena baitago, bere buruzko eçagutça bat, iaquiteco cein den çucea eta cein makhur : cein den ongvi eta cein gaizqui: halaco moldez ecen ezpaita cer ibiliric frogatzen, gauça gaichtoa dela bekhatua eta gauça ona berthutea, ceren badarquivi haur gueroc ore gueure burutie, legue naturalak berac, conscientziac eracutsirie.

(1) S. Th. 3. part. 9. 79. ad 2.

(2) Chrysostom. serm. 12 ad popul. Anth. 5.

§ 4.

Hunetan da agueri maite gaituela gueure iaungoicoac. Ceren gueure baithan barrena, gucure etchean, berteetara conseillatcera ioaiteco premia gabe, emaiten baiterako behar dugun nabusia eta eracusea, cein baita concientzia. Eta halatan condenateen dira legue naturakaren arauaz biciteen eztiren lentiak.

Mercatari batuee eguiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaichtoak, lucureriazcoac, enganamenduz be-theak : eta guero ioaiten dira here cofesoretara edo berteetara, galdeguitera ea tratu hec instu direnz, egun ahal ditezqueyenz. Eta ioniten dira mengoa babe, premia gutirequin. Ceren hain da clar eztirela iustu, non baldin berteetan ibili gabe, galdeguin baliaçote berec bere concientziari, harc berac eracuts bailičaye egia. Eta handic, berec condena baillitcaquete bere burnac. Ceren bere concientzian barrena ediren bailičaque, esquiribaturie beçala, galdez dauden guztiaren errepuesta. Utei nahi badigu concientziari, bera da asco, errebelatectic beguiratececo, artez eta chuchen erabiltceco. Ceren badaqui behar dena, eta bere egui-tez guztia da onera emana. Eta san Thomasec dioen beçala, ontasunari eguiten dio besta eta begintarte, eia gaichtatasunari liscar eta beltzuri : *Synderesis dicitur instigare ad bonum, et murmurare de malo.* (1) Beraz bere concientziaren arauaz, haren buruz eta conseilluz gobernatzen eta guidatzen dena ongi da,

(1) S. Th. I. part. 79. art. 43.

aleguera da, content eta pagu da. Bainha hertzeala, bere concientziaren contra dabilana, gaizqui da, beltz, ilhun, goibel eta triste da.

Eta arraçoin equin da hala, ceren nola çangoa, besoa, edo gorputceco bertze parte bat, bere toquitic eta iunturatic ilquitzen, makhurtzen, aldaratzzen edo enhardatzzen denean, ecin sosega baititeque eta ez pausa, bere toquira eta lekhura bihur arteino : hala bere concientziari guibela emanik, bekhatutak dagoenak ere, nola behar den iunturatic eta arraçoin naturalak erracusten dioen bidetic eta ordenantzalik aldaratuak, eta ilquia baitago, ecin sosega diteque, eta ez pausa, hala dagoein. Bere bidean eta toquian dagueenez, nola baitago bekhaturik eztuenean, orduan da alegría, arrai, aise, content eta bere gogars.

§ 2.

Ezta concientzia gaichtoa bezain ganca gaichtorik eta erragarririk : hera da agoteric eta borreroric aske. Hala erraiten du san Agustinec Isincoequin mintegia dela : *Jussisti enim et sic est, ut pena sua sibi sit omnis inordinatus animus* : (1) Manatx-cendueu-eta hala da : concientzia desordenatua, bera den haren buruan rentzat pena eta gaztigu.

Ezta uharreric eta ez nholderik, lorra hala lurrutzen eta arrobatzzen duenik : ezta pipiririe cura hala deseguiten eta çuhirintzen duenik; ezta celeunic urdaia

(1) Augus. lib. 1 confes. cap. {2}.

hala bobateen eta iaten duenic; ezta cerrenic oihala hala eta hain guisa gaizqui bilhacalcen duenic; eta ez harric haraguia hala galteen eta gastaalcen duenic, nola concientzia gaichtoac eguiten baitu bere burua.

Harra da, concientzian barrena dagoen behatua; eta barrac beçala, gau eta egn, autsiquitzen du, isten du, larrutzen du. Eta hain da gose, ecen ezpaita behinere, asetzen autsiquiteetic, eta ez bere falten gogora ekhartzeetic guelditzen.

Erregue Davitec, huts egunin çnenean, anhitz ensein eta itçul-inguru egunin cuen, huts hura estali nahiz. Ordea alferretan: elcen nehorren beldur cen, Erregue cenaz gueroz; baina elçuen bere concientziac sosegatzen utzten.

Concientziac, ez Aita sainduri, ez Emperadoreri, ez Erregueri, eta ez munduan den bertee presunari, eztaçao barkha. Eta haur guztia eguiten du gure probetchuagatic, behatutan lobacar ezcaiteeingatic. Gueure aita propioac baino, maiteago gaitu gueure concientziac. Aita hatec, bere semea, behin, biastan, hiruretan edo amarretan mehatchatu duenean, ikhusten badu ezuela cençatzen eta ez emendatzen, utzten du, etsitzen du. (1) Baina ez concientziac, eztu behinere utzten, eta ez etsitzen.

Guerla handia eguiten deracu gueure concientziac, eta guerla huncaphur bat guibelatzen gaitu behatu egonitic, bertcela egun luque gureac. Hala erraiten du

(1) Vide Chrys. corcione 4. de Lazaro.

san Crisostomoc : *Conscientia increpatio sacra est anchora, non sinens nos tandem in peccatorum demergi profundum :* (1) Concientziaren erançutea eta mehatxua, aingura da, eta aingura ere saindua eta sacramenta, bekhatuen hondarrera erortcetie, eta han itholetic beguirateen gaitnena.

§ 3.

Ordea differentzia handia da concientziaren artean, anhitz doha batelic bericera. Concientzia batuek dira erne, senticor, minbera, hertsi; eta berriz hertze batue, loti, hil, laço, çabal, eta ez ansia. Capata bat duçunean, neurri, iustu, doi; ecin paira deçaqueçu barrencon den legarri ttipiena : baina çapata baquetazco, handi, çabalac, eztira hain perilos; hec badute lekhu franco, oina guti minheraturic, ez legarren baina harrizcoen ere edukitzeceo.

Bada differentzia haur heror da, concientzia onaren eta gaichtoaren artean ere : concientzia onac, iustuac, ecin paira deçaque bekhatu benial bat ere, baina gaichtoac, laçoac, eztu mortalez ere conturic eguiten. *Multi per nimias iniquitates non sentiunt peccati conscientiam :* (2) Anhitzec bekhatu soberantçaren boheretz, eztute bere concientziaren erantçuteric sentiteen. Eta haur da Spiritu Sainduac ere dioena : *Impius cum in*

(1) Chrys. ubi supra.

(2) Ambros. lib. 3. de para. cap. 5.

*profundum malorum venerit contemnit : (1) Gaichtoac
bekhatuen hosinean barreua sartuz guero, galtcen
du sentimendoa, eztu antsiaric. Piae mentis est, culnus
sentire peccati; nam qui expertes doloris sunt, non
sentunt vulneris acerbitudinem, quod est immadicabilis
agritudinis. (2) Seinale ona da, bekhatuaren cauriaren
sentitcea, eta gaichtoa ez sentitcea. Ceren sentimendua
galduz guero, oinhaceac hillez guero, eztu sendagai,
ezta sendaquiçun; eta ez midicuntçatan ibilteaz pro-
betchuric. Haor da mundu humetan bekhatoreac ahal
duqueyen miseriariac handiena, estaturic perilosena eta
egoitcarie gaichtoena, bekhatuaren ez sentitcea. Hala-
ceac concientziaren sainga guti aditzen du, lo guti
hargatic galtzen du. Ordea eztu ez hura ere alde guziz
narrio gabe; den gaichtoenari ere, noizic behin be-
dere alhatzen caica bere concientzia. Ceren san Chri-
sostomoe dioen heçala : *Neque enim in ejus potestate
satum est remittere :* (3) Nahiago badu ere eciubarkha
deçaque concientziac. Hala emaiten du aditcera san
Ambrosioc ere : *Conscientia cum non habet loquendi
usum, nescit tamen tenere silentium :* (4) Concientzia
minçatzen usatua eztelaric, eztuQUI alabaina ichilic ere
egoiten. Ceren campoan minçatzen ezpada ere, bai or-
dea minçatzen da barrenean.*

(1) Prov. 18.

(2) Ambros. in Psal. 50.

(3) Chrys. in Psal. 142.

(4) Ambros. de peen. cap. 4.

Concientzia da behin ere lohacarteen ezten cerbitzari bat, marrantatzen edo erlasten ezten predicari bat, eta bethiere ontasunera ahal beçanbat eramaiten gaituen guidari bat. Eta etçaiatu puntu batez ere aldaratzen, bethi darraieu, gorputzari itçala darraican beçala.

Eta eztago alferric, alba çaicu, saingaz, eta erançotez dagoen. Bekhatua egun baino lehen, egitemen, eta eguiñez gnero ere, erasten du, abisalceen du, akhusateen du. Eta guztiz ere bekhatua egun ondoan iaiquitzentzen da, orduan atçartzen da, orduan dira cinae eta miuac; orduan dira ezproin colperic handienac. Ceren san Chrisostomoc dioen beçala : *Sicut ebrius cum multum eiūt ingurgitat, nullum sentit a vino damnum, postea autem sentit : ita et peccatum, donec consummatur obtenebrat mentem quasi densa nubes, et ita mentem corrumpit. Deinde conscientia insurgit, et quovis accusatore mentem gravius arrodit, monstrans absurditatem peccati :* (1) Nola hordiac arnoa iresten duenean, ezpaitu sentitzen handic heldu çaicen caltea: ceren góçatasun harriz, edatean hartzen duen atseguiñac, itsutzen baitio adimendua; ordea guero hordioian daquionean, oçagutzen baitu bere falta eta desoboreta: hala bekhatoreac ere, bekhatua eguiten duenean, eztu sentitzen eta ez ikhusten handic heldu çaicen caltea, ceren hartako atseguiñac eta placera liburatzen baitu; hain liburateen ecen ezpaita orduan

(1) Chrys. Hom. 64. in cap. 42. Genes.

gaitzez othoiteen. Baino guero iragan denean bekhatorea, iaiquitceen da concientzia, eta hain cinez akhusatcen eta liscar eguiten hasten da, non iragan diren placer guztiez ahantciriak, ibentzen baitu bekhatoreak nahigabez bethea.

§ 4.

Erraiten du san Agustinec, (1) emazte gaichtoac, ithaiçurac eta kheac atheratcen duten beçala guiçona bere etchetic, atheratcen duela concientzia gaichtoac ere bekhatoreak bere sosegutic. Emazte gaichtoa, ithaiçura eta khea diren lekbuan ezta placheric, ez eta concienteia gaichtoa duena baithan ere ontasunic. Bekhatoreak sar badadi bere concientzia barrenak, berrehala hango kheac atheratcen du camporat, azpiratzen du tristurac.

Campoan etsaiac, perilac eta assalduac dituenak laster eguiten du etchera, pausatcerak, eta bere humaren seuratecerak. Ordea etchean ere etsaiac, atsecabeak, ithaiçura, khea eta emazte gaichtoa dituenak, cer egunen du? Non pausatuco du? Cer consolamendu içanen du? Campoan etsaiac, etchean guerla, non edirenak du baquea? Non? — Bere barreneko ganbaran, bere concienteian, han behar du pausatu, han behar du consolatu eta bere burua arindu eta alegueratu. Ordea baldin bere barreneko ganbara hartan ere, bere concienteian ere edirciten badu etsaia, hekbatua-

(1) Vide August. in psal. 33. et in psal. 100.

ren ithaienra, khea eta orancutea, cer egunen du
orduan? Noraco da? Sarthuagatic bere barreneco gam-
baran, bere concientzian, eztezaque pausuric ediren;
ceren han berean baitzen baitzaica bere etsaia; eta
etsairic gaichtoena, etche barrecoa. *Hostem suum
invenit, quo confugerat*: (1) Etsaiaren ihesi dabilalak,
eguiten du etsaiarequin incontru. Beraz guehien baz-
terretaric hartua da halacoa, alde guztietaric atrapatu-
da. Geren bere burna ere etsai baitu eta berac, bereganik
ecin baitaidique ihesic. Arraçoinequin erraiten du san
Agustinec : *Nullæ panæ graviores quam mala cons-
cientia, in qua cum non habetur Deus, consolatio non
invenitur*: (2) Ezta concientezia gaichtoaren egnitecoak
eta penac baino, pena handiagoric. Geren nola ezpaita
laincoa han egoiten, ezta consolamenduric ere edi-
reiten.

Eri den presunac, barrenean min duenac, ahal dai-
dique dembora aphur batez campoan eta iendartean
aleguera iduri, ordea guti hala iraun, berehala bere
barreneco gaitzac gogoetan ibenteen du, tristeteen
du. Hala tristeteen du bada bekhatutak dagoena ere,
bere concienteiae, bere barreneco critasunac. *Vides
convivium peccatoris, interroga ejus conscientiam:
nonne gravius omnibus fietet sepulchris?* (3) Ikhusten
duen bekhatutak dagoenaren gonbitoa, ianedana, ma-

(1) August. in Psal. 45.

(2) August. sent. 191.

(3) Ambros. lib. 1. offic. c. 12.

hain ugaria, baitirudi ecen han dela parabisua, eztela cer guehiago desira. Ordea baldin galdeguiten badioça, ea nola dihoacon bere barren hartan, bere concientcian, erranen doratzen gaizqui dela, nardagarri dela, sepultura quiratsac baino, quiratsago dela. *Impii quasi mare servens, quod quiescere non potest:* (1) Gaichtoac itsas iraquitua beçala dira, eztute baquieric eta ez soseguric : hequen holec, uhinec, eta tormentec hanbat badira, ecen gainez eguiten baitute. Eta badio Salomonec ere : *Præcordia fatui quasi rota carri:* (2) Gaichtoaren concientzia, eta barren aldeac, orgaren edo gurdiaaren arroda beçala dira. Gordi cargatuac hadarasa, badirudi bere carga handia ecin iasanez, arrencurateen dela : hala arrencurateen da hada bekhatorearen concientzia ere, bere bekhatuen carga eta pisutasuna ecin iasanez : harc nekhatzen du, harc çapaten du, harc bere soinuaz, habarrotsaz eta erasteaz tristetzen, eta penatzen du.

Egun batez ioan cituen Philosopho batec çapata batçuc bere etchera, prometaturic çapataguilleari, dembora gutiren barrenean pagaluco cerautçala. Eta abiaticen bere hitzean, eta ephean pagamienduaren eguiterra. Baino ençunic ecen hil cela diruac behar cituen çapataguina, bihurtu cen alegueraric bere diruequin etcherat, idurituric ecen hainbertcez quito cela ; eta eduqui cituen ceubait demboraz diruac berequin. Ordea

(1) Isaiæ c. 57.

(2) Eccli. c. 33.

bitarte hartan hain iaten eta errateen çuen bere baitan barrena bere concientiac, ecen ecin pairaluz, ioan baitzen bere diruac harturic, çapatsaguaren elchera; eta han egotzi cituen, erraiten çuela, çapataguinarequin berarequin mintço içan bailliz beçala : *Ille tibi vivit, redde quod debes* : (1) Bertce guztientzat hil bahaiz ere, oraino bici aiz enetçat. Thotcie bada, har itçac heure çapaten diruac, eta utztae niri baquea. Descargua egun arteino, etçuen utci bere concientiac sosegatcera, anarteraino bethi eman cioen gari eta nario. — Ezta menturaz egungo egunean, mundua hunein senlicor, eta ez concientziatsu.

§ 5.

Gaichtoa, bertce etsairic gabe, bere concientiac berac, bere baitan barrena, açotatzen du, autsiquñitzen du, çaurtzen du, larrutzen eta penatzen du. Iragan denean bekhatuaren placera, han da berehala concientziaren desplacera. Bekhatua, çauri hatz-galea beçala da. Hatz eguitean atseguin hartzet duçu. Ordea hatz gordin eguninic, guelditzen çaitçu ondotic errasmina. Hala guelditzen da bada, bekhatuaren placera iragan denean ere, concientziaren mina eta oinbacea. Sukhar handiarequiu çaudenean ere, atseguin hartzet duçu ur hotzaren edateaz, ordea guero edan ondoan, gaitza berreturic, içaiten duçu atseguin haren atseca-bea. Haur da fruitu ondu gaben ondorea, horzquidura, higuintça.

(1) Senec. lib. 7. de Benefic. c. 21.

Garcelean dagoenari, emōtu nahi duen beçanbat iatera eta edatera, eguiço abal daguiçun besta guztia, baina ezta hargatik ossoqui alegueratzen; ceren ezpaitaqui ceri dagocan. Alegueraquago bici da, athez athezabilian errumesa. Ceren san Chrīsostomoe dioen beçala: *Supplicij expectatio non sinit præsentium voluptatum sensum capere*: (1) Garcelean dagoena eztu ntzten gueroeo gaztiguaren heldurrae atseguin hartcera, eta ez escuen artean dituen placer aphurren goçatcera.

Urkhabera condenaturic dagoena uitzinetic penateen da, urkhabeaz orhoitzen den guztiaz urkhatzen beçala da. Hala da bada concientzia gaichtoa duena ere. Halacoa noiz eta hasten baita bere gogarenic, bere lagunequin atseguin hartzen, orduan berean orhoitzen da bere hekhatuez, orduan berean alhateen çaiica bere concienteia; halaco suertez, ecen ezpaita posible behatutak dagoenac, hala dagocino atseguindasun osorik alhal duqueyen.

Halacoac, perilic eztuenean ere, uste du peril duela. Eta hala guerthatzen da anhitzetan ere, ohoinac edo guion hilçaileac sentitzen duenean insticia, berrehala bera bere buruz, nehor orhoitzen eztela, bere concienteiae akhusaturic, ihesi itçalgaizea abiateen dela; eta handic nabarbenduric gaizqui ere helteen dela.

Gaichtoac uste du ecen hartçaz orhoitzen eztirenean ere, hartçaz mintço direla. Gaichtoa bethi da goibel, beldurti, eta gogan behartsu.

(1) Chrys. Hom. 12 in c. 7. Rom.

Gau ilhuncan bakharrie dohana, deusen perilit ez içanagatic ere, latz da, beldur da, ici eta ikhara da; hala da bada gaichtoa ere, deusen perilit ez içanagatic ere, bere concientziac akhusaturic latz, ici, ikhara eta beldur.

Urdeac, bertce abrec eguiten eztutena, oraino minie hartu gabe, uquitceaz beraz egniten du marrasca. Ceren nola ezpaitu deusere on den gauçaric, bere urdia baicen, ez illeric, ez lunaric, ez larruric, eta ez bertce gauçaric; bere içanez eta naturaz da beldur, harten dutenean, biciaren edequiteeco hartzen duten. Hala bada concientzia gaichtoa duena ere, lehenbicico aldi gaitzean, den burneo minie ttipienean, da beldur hil dadin, bicia edequi diaçoten. Ceren ezpaitu deos ere deus balio duen gauçaric, bere bicia haicen, eta hura galdez guero, penatu behar baitu.

§ 6.

Erraiten du Job guicon saindu bare : *Sonitus terroris, semper in auribus ejus, et cum pax sit, ille insidias suspicatur* : (1) Gaichtoari bethi dagoca bere beharrietan beldurtasunaren otsa, concientziaren latzsuna, eta assaldua; eta baquean denean ere usle du guerlan dela, eta orduan ere alrapalu nahiz celatun dagotçala. Haur da are mundu hunetan ere, bertce mundocoaz gainera, gaichtoaran gazligua, beldurtasuna, segurantçarie gabe, ici ibiltcea. Gaztigu hunetzaz, mehatchatu cituen, gure Jaincoac, bere man-

(1) Job. 15.

menduen hautsailleac , erraiten cerauelu : *Quod si non audieritis me, nec feceritis omnia mandata mea, fugietis nemine persequente :* (1) Baldin ençuten ezpauque , eta eae manamendu guztiac complitzen ezpaitutue , iañique ecen, nehoren peril gabe, eta nehor iarrai qui gabe, emanen dioçuela ihesari, eta ikhara handi bat egninen çaitquela. Hala eguin eeican ikhara handia Caini, bere anaia Abel hil çuenean. Abiatu cen Cain mundatze ihesi, erraiten quela : *Omnis igitur qui invenerit me occidet me :* (2) Eguin du eneac, ezta es-capatceric, ediren naçan guztiac hillen nau. Cer dioçu Cain ? Noreu çara beldur ? Nore hillen çaitu ? Ez Adanec ez Euac ; ceren horiec çure aita-amac dira , eta oraino ezta munduan bertcerie. Noren çara bada beldur ? Ez nehoren bertcerena, biotic ceure buruaren, ceure concientziaren. Ceren concienteia bera, bertce etsairic gabe, da asco, beldurtasun handiarequin era-bilteeco. Adanec bekhatu eguin çuenean , eta sentitu laincoac deitu nahi quela, ihes egnia quen, gorde cen. Eta cergatze gorde cen ? Othe ciaquien cer nahi cioen laincoac ? Bai baciaquien, dio san Agustinec. Eta non-dic ciaquien ? Bere concienteiac erranie. *Neque alium objurgatorem habebat, et testem peccatorum :* (3) Et-quin bertce lekhucoric, eta ez akhusatçaileric, bere concienteia baicen ; baina hura quen asco. Eta bala-

(1) Lev. 26

(2) Gen. 4.

(3) August. Hom. 17. in cap. 3. Genes.

tan, berac bere buruz, bere falta eçaguturic, eta hobendun cela nabarbenduric, estalgunea bilhatu quen. Hargatic erraiten du san Isidoroc : *Nunquam securus est reus animus, mens enim malœ conscientia propriis agitatur stimulis* : (1) Presuna hobenduña, faltatsua, ezta behin ere segur, ceren bere concientzia ren ezproinac bethiere colpeca hari baitçaitça. Pontu hunen guinean erraiten du san Ambrosioc : *Domini autem traditorem non invenio à judice esse damnatum. Non enim damnat eum Pilatus, non damnat populus; sed quod gravius est, se ipsum condemnat* : (2) Eztut edireiten ecen Jndas, Iannaren saltçaillea, nehorc condenatu quela, ez Pilatusc, ez herriac, eta ez bertec; baina gaichtoago baita, edireiten dut, berac bere burua condenatu quela. Ceren sententzia guztiengaineko sententzia, guztiac chitzen, eta iragaiten dituena, batbederac bere burnari, bere concienteisek bençuturic, emaiten dioena da.

Eta hunetan da agneri, eztela antsia, nehorc bertec ez iaquinagatic ere çure falta eta bekhatua, baldin cerorrec badaquicu, concientzia bera da lekhucoric asco; ezta harençat golkhoric, çokhoric, eta ez estalguneric. Ceren Senecac dioen begala : *Quid prodest recondere se et oculos hominum auresque ritare? Bona conscientia turbam adiurat, mala autem in solitudine anxia est, atque sollicita. Si honesta sunt qua-*

(1) 2 Solil. Isidor. lib.

(2) Ambro. serm. 2. in Dom.

facis, omnes sciunt; si autem turpia, quid prodest neminem, cum tu scias? Cer probetchu da gordetcea, eta ienden beguiataric eta beharriataric ihes eguitea? Conciencia onac aguerrian, eta iendartean ibili nahi du, sida da han ere. Baina gaichtoac eztu nehon ere segurantcaric edireiten, ez etchean, ez campoan, ez bakharric dagoenean, eta ez are compainiatan denean ere. Çure obrac, onac eta prestuac badira, iaquin bitcete guzliec; baina baldin gaichtoac, desohorezcoac, eta desoboragarriac badira, ezta probetchu bertcec ez iaquitea, baldin cerorrec badaquizquitceu. Cerori çara, çure conciencia da lekhucoric segurena; bertce guztiec faltatuagatic, harc ezteçaque falta, harc oneduquico du, hare akhusatuco du. Hargatic erraiten du halaber Senecac: *Nullum conscientium peccatorum tuorum magis tenueris, quam te ipsum: alium enim potes effugere, te autem nunquam; nequitia enim ipsa est sui pæna:* (2) Etçarela çure bekhatuac daquizquitenen batea ere hain beldur, nola ceure buruaren; ceren bertecataric badaidiqueceu ihes, escapa çaitezque, baina ez ceure ganic. Ceren bekhatua bera da, bere buruarençal pena eta gaztigu.

Jeb guïçon saindu harri guerhatu ceitçon calte, galtee, eta fortuna gaichito guztietaen, escapateen cenbethi ere bat, abisatceco eta berriaren ekharreeco: *Ego evasi sólus, ut nuntiarem tibi.* (3) Hala escapat-

(1) Senec. epis. 43.

(2) Senec. lib. de moribus.

(3) Job. 1.

cen da bada bekhatorea baithan ere concièntzia, eta concienteziaren mandataria eta erançulea, berri ekhartceco, abisalceco, eta erraiteco cenbat calte ethorri caican, eta cenbat ontasun galdu duen bekhatuaren eguiteaz.

§ 7.

Conciénteiac anhitz officio du, bera da alkhate, bera da lekhuco, bera da akhusatçaille, eta defendatçaille. Eta hain da fin, eta eguiati, ozen berac milla lekhuco balio baititu : *Conscientia mille testes.* (1) Hain da artez, iustu eta legal, non mundu guztiak ezpaitecaque irabaz, ez corrompi, eta ez bertee aldera itzul. Ezta dirnric, eta ez faboreric; ezta lausenguric, eta ez me-hatchurie; ezta arartecoric, eta ez adisquideric, conscientia bere egniatric makhur deçaqneyenik. Pontu hunen gainean bethi beçala ederqui erraiten du san Chrisostomo, urrezco mihi hare : *Externi judices et pecuniis corrumpuntur, et assentationibus deliniuntur, et metu simulant. At conscientiae tribunal nulli hominum novit cedere: sed quamvis dederis pecunias, quamvis mineris, quamvis aliud quodvis feceris, justam ferret sententiam, adversus peccatoris cognitiones, adeo, ut ipse quoque qui peccatum admisit, seipsum condemnet, quamvis nullus alius condemnnet :* (2) Munduko gortheac, acadoyac, eta iusticiac nahasten dira : lekhucoek ukhatcen dute, notaria irabazten da, alcatea di-

(1) Quintilianus.

(2) Chrys. concione 4 de Lazaro.

ruz itsutzen da, lausenguz, eta faborez gobernatzen da; eta handic anhiliztan ere, barrenean carela uste duçunean, campoan edireiten cara; irabaci ustea galicen duę. Bainha concientziaren gorthean, eta aca-doyan ezta halako bidegaberic eguiten. Aitxitie bertze guztiecz faltatuagatic, hobendunac berac, concienteiac berac akhusatzen du bere burua, eta bai condonatzen ere.

Campoan egun ahal ditezque, eguiaren contraco enseynac, eta frogantza falsoac; falta duenac ere ukha ahal decaque, eta erran eztuela faltaric; baiua hargatik, barren hartan, bethiere concientzia bere eguien egonen da. Minteo direnec ahal dadiqueto hnts, baina ez concienteiac; hari galdeguioču, harequin mintza caitesi, eta harrer nor garen errauen deratcu; han miraillean beçala ceure burua ikhussico duę.

Eguiteco gachto haterc hartzetan caitnenean, han da berrehala concientzia, eta egundaino egun ditatzen falta guztiez orhoitzen caitu, guziac gogora ekhartzen derauzquitçu. Eta are erraiteu deratcu, cenhait ceure bekhatugatic, hunelaco eta halacogatic, hec guziac ethorri caitzquitçula. Haia Iosephen anaiec Egiptora cirenearan, eta han eguitectan iarri cirenearan, bero bekhatuaz, bogoy urthe çuela egun çutenaz, orhoituric erran cioten elkharrir: *Merito hoc patimur, quia peccavimus in fratrem nostrum, evidentes angustias animae illius dum deprecaretur nos, et non audivimus, idcirco venit super nos ista tribulatio:* (1) Meredituric ditugu egui-

(1) Genes. 42.

teco hauc guztioe ; instu da guehiago ere paira deca-gun, cereu bekhato handia egunic, gueure anaia salduric baicaude. Gogorqui usatu guenduen baren alderacolçat, anhitz othoitx eder egnin ceracun, anhitz nigar purpilla isuri çuen, asco baitciratequeyen den bihotzic gogorenaren ere hautsteco eta beratceco : baina gureac etciren cantitu ere, etceicun urricaldu : ezquenduen entçun. Hargatic gabiltça bada orai gueroc ere assaldatnac, akhusatuac, eta atsecabeztatuac. Hunela erraiten cioten elkharrí, hunela akhusateen ci-tuen bere concienteiae. Eta guztiz ere Ruben bere anaictarie hatega eguiten cerauen erançute handi, erraiten ceranla : *Nunquid non dixi vobis, nolite peccare in puerum et non audistis me, en sanguis ejus exquiritur* : (1) Ezneratçuen nic orduan ere erran, begnira cemlutela, etceneguitela halaco bekhaturic anaia baurraren contra? Etceneçatela sal? Bainaz ez-nenduçuen ençun nahi içatu : huna non duçuen bada çuec ere orai cenen merecia, cenen ordain pagua. Bekhatu hora dela causa, huren cariaz çarrete, eta gara eguitecotan, hora heldu çaiet gueure gainera. Okhasinoa presentatu cen beçain site, iaiqui ceyen bere concienteia, etçuen saltatu, akhusatu cituen. Eta are san Chrisostomoe diocn beçala : *Ipsorum conscientia per oblatas occasionem insurrexit, momorditque illorum animos, efficiens ut nemine compellente, confiterentur sua facinora* : (2) Nehorc ere borchatu

(1) Genesis ibidem.

(2) Chrys. Conc. 4 de Lazaro.

gabe, berec bere borondatez, agueru çuten eta ai-thortu, hanhat demboraz estaliric eduqui çuten gaichtaqueria. Haur da concientziaren cargua, eta officia bertcen ahantz ordnetan orhoitzen do, demboraren buruan penatzen du, min eta oinhaze emaiten du. Eta lehiatzen çaicu, lehen baino lehen, gueroco luçamendutan ibili gabe, bide on batean iar gaitecilla. Eta are erraiten deracu ezcaituera anarteraino sosegatzeera utzice, eta hala ezcaitu utzten ere. Beraz hunelatan, concienteiac berac eguiten derauzquigun erançutesagatic, eta etchean barrena bekhatuaren kheric, ithaiçuric, eta liscarric ez içaiteagatic ere, behar dogu egun beretic, gueroco beguira egon gabe, gueure concienteiac, cer ere notha, falta, eta narrio baitugu khentcera enseiatu: eta halatan baquean, eta soseguan iarri, egon, eta pausatu.

VIII.

OBRA ONEN GALTCEA.

XLIII CAPITULUA.

Erremusina edo limosna eguireanz, eta handic sortzen den probetchuaz.

§ 4.

ERRAITEN du Spiritu Sainduac: *Ignem ardensem extinguit aqua, et eleemosyna resistit peccatis:* (1) Urac iraunguitzen du sua, eta erremusinac eguiten

(1) Eccli. 3.

gabe, berec bere borondatez, agueru çuten eta ai-thortu, hanhat demboraz estaliric eduqui çuten gaichtaqueria. Haur da concientziaren cargua, eta officia bertcen ahantz ordnetan orhoitzen do, demboraren buruan penatzen du, min eta oinhaze emaiten du. Eta lehiatzen çaicu, lehen baino lehen, gueroco luçamendutan ibili gabe, bide on batean iar gaitecilla. Eta are erraiten deracu ezcaituera anarteraino sosegatzeera utzice, eta hala ezcaitu utzten ere. Beraz hunelatan, concienteiac berac eguiten derauzquigun erançutesagatic, eta etchean barrena bekhatuaren kheric, ithaiçuric, eta liscarric ez içaiteagatic ere, behar dogu egun beretic, gueroco beguira egon gabe, gueure concienteiac, cer ere notha, falta, eta narrio baitugu khentcera enseiatu: eta halatan baquean, eta soseguan iarri, egon, eta pausatu.

VIII.

OBRA ONEN GALTCEA.

XLIII CAPITULUA.

Erremusina edo limosna eguireanz, eta handic sortzen den probetchuaz.

§ 1.

ERRAITEN du Spiritu Sainduac: *Ignem ardensem extinguit aqua, et eleemosyna resistit peccatis:* (1) Urac iraunguitzen du sua, eta erremusinac eguiten

(1) Eccli. 3.

deraue bekhatuey contra. Urac sua beçala, erremusinac iraunguitcen du bekhatua. Halaber erraiten du san Matheoc : *Beati misericordes, quoniam ipsi misericordiam consequentur* : (1) Dohatsu dira misericordiosac, ceren hec erdietsico dute misericordia. Hunen arauaz erraiten du erregue Davitec ere : *Beatus qui intelligit super egenum et pauperem; in die mala liberabit eum Dominus* : (2) Dohatsu da, beharraren, eta probearen gaiñean emplegatcen dena ; ceren hora, egun gaitzean, heriotceco orenean, begoiratuco eta libratuco du Iaincoac ? Eta badio oraiño Spiritu Sainduac : *Conclude eleemosynam in corde pauperis, et haec pro te exorabit ab omni malo* : (3) Gordeçacu erremusina probearen golkhoan, eta harc eguin en dio Iaincoari othoitx, gaitz guztieta ric beguira çaitela. Finean hanbat gauça erraiten da erremusinaz, non baitirudi ecen batbederaren salbateco eta arimaren seguratceço asco içanen dela, bertce gauçaric gabe, bihotzbera eta erremusinalari içaitea. Ceren handia baita erremusinaren indarra eta botherea.

Eguia da hala da, handia da, eta Glosac dioen beçala, san Agustinganic atheraric : *Sola misericordia comes est defunctorum* : (4) Misericordia bera da, eta ez bertceric, defunctuac compainiateen dituena, arima

(1) Matth. 5.

(2) Psal. 40.

(3) Eccli. 29.

(4) Glosa Lyrana, in cap. 29. Eccli.

ioaney laguntcen çayena ; erremusinac eduquiteen du bethiere on.

Ordea eztu ez pensatu behar, erremusinac berac, sacramendu batec beçala, *ex opere operato*, (1) bere indarrez eta botherez, bekhatua iraunguitcen, eta bar-khatcen duela. Eztu berac, hartaracotçat indarrie asco. Alde batetic duçun guztia probey emanagatic, baldin bertcetic bekhatután baçaude, eta hetan fincatcen bávara, deus guti baliatuco çaitçu ceure erremusina, eta misericordios iéaitea. Hala erraiten du Iondone Pau-loc : *Et si distrihuero in cibos pauperum omnes facultates meas, et tradidero corpus meum ita ut ardeam, charitatem autem non habuero, nihil mihi prodest* : (2) Dudan guztia probey eman badiacet ere, eta neure burua errateera utz badeçat ere, elçazquit hec guztiac deus baliatuco, baldin caritateric ezpadut. Erran nahi du : erremusinac, eta bertce obra misericordiazcoac ere, deus guti probetchatcen çaitçala bekhatután da-goenari.

Ordea guztiarequin ere anhitz, eta handiac dira, erremusinari emaiten çaitçan ohoreac, laudorioac eta abantaillac ; eta arraçoiñequin eta merecituric emai-ten çaitça. Ceren erremusinac berac, indarric asco ez-padu ere bekhatutic atheratceco, bai ordea badu athera aracitceco. Ceren badirudi ecen laincoac bere ontasunagatic, hartuko duela okhasino, misericordios dena-

(1) Vide S. Th. 22 qu. 154 ar. 2 ad. 7.

(2) Paulus, 1. Cor. 13.

ri, ceren misericordios den, misericordia eguitaco. Cure erremusinac, cure bihotz-beratasunac, beratzen eta hautsten dio Iaincoari bihotza, eta emaiten okhsino cure faborateco. Cu, misericordios izaiteaz, gaitzen cara, disposicionean iartzen, eta prestatzen Iaincoaganic misericordia erdiesteco eta errecibiteco: eta Iaincoa ere hartçaz iratçarteen eta ernalcen beçala da, çuri ongi eguitaco eta bere garaciaren emaitaco. Hunetacotçat, egoia hunen frogateco, anbitz exemplo ediren ahal diteque, baiña nic orai presenteon, eztut bat baicen ekharrico. Bonifacio, Martira, dembora batez ibili cen emazte eder noble aberats batequin galdua, eta haraguizco bekhatuan nahasia. Eta baçuen Bonifacio haren bertcerie ere anbitz bekhatu; edale cen, iocari cen, arnegari cen, halacoac ohi diren beçala. Gauça bat cuen ona: bihotzbera cen, erremusinalari cen. Alde batetic bekhatu anhitz eguiten baçuen, bertcerie probeac faboratzen cituen. Eta halatan bera ere Iaincoac faboratu çuen, bihotzean utquitu çuen, inspiracion saindu batçen, go-goeta on batçen eman cerantçan. Eta guero hequin hantean conbertitu cen: fedearen atchiquitceco eta Iaincoaren amoreacalie tormenta garratzenac iasan ciñuen, eta azquenean, Martir hil cen. Ikhnsaçu cer eguiten edo eraguiten duen erremusinac, misericordios, eta urricalmendutsu izaitear. Hain çäica eder Iaincoari urricalmendua eta beharrari ongi eguita, non berari ere handic urricalteen baitçaina ongi egnille hura; eta lehen edo guero eracosten baitio, eta emai-

ten bide onean jartceco bidea, Bonifaciori eman eta eracutsi cioen beçala.

Esportea gaitecin beraz, eta maite içan deçagun misericordios eta erremusinalari içaitea; ceren anhitz baitira, eta handiae, handic eta hartaric sortcen diren probetchuac, ontasunac eta irabaciak.

Eta bertce anhitzen artean hirur dira erremusinaren probetchu principalae. Lehenbicicoa : *Eleemosyna est meritoria gloriae et augmenti gratiae; si fiat ab homine existente in gratia, et propter Deum*: Bekhaturie gabe dagoela, Iaincoagatic egaiten den erremusinac mereciten du ceruco loria, eta berretcen eta handiteen Iaincoaren garacia. Bigarren probetchua da : *Eleemosyna est satisfactoria pro paenit peccatorum dimissorum*: Erremusinac satisfaceen eta pagatzen ditu, bekhatu barkhatuen pena temporalac, guziac edo parte bat : hemen edo purgatorioetan pagatu behar eirenac. Eta haur da Escritura sainduae erraiten duena : *Peccata tua Eleemosynis redime*. — Hirurgarena : *Eleemosyna est impetratoria*: Erremusinac anhitz ontasun erdiesten du Iaincoaganic. *Beati misericordes, quoniam ipsi misericordiam consequentur* : (1) Dohatsu dira misericordiosac, ceren hec erdietsio duele misericordia. Eta hala cure erremusinac berretcen du ceruco loria, eta handitzen Iaincoaren garacia; gutitzen du purgatorioetako pena; eta erdiesten du Iaincoaganic anhitz fabore, eta ontasun. Iaquin deca-

(1) Matth. 5.

gun ecen erremusinaguilleuri, bibotz bera, eta misericordios denari egunen caicala misericordia; eta cere emaiten baitiogu orai hemen probeari, edo bertze obra onetan emplegatzen baitugu, hura guero edierenen dugula bertze munduan.

§ 2.

Iaquin deçagun, eztioigula probeari liscarric edo erançuteric egun behar, eta ez gaizquiric erran. Baldin emaiteco gaietan bagara, edo debocinoric badugu, eman diaçogun; eta gañeracoan utz deçagun. Ceren probea, escalea, on behar da eta urricalquicun. Biluz da, orthus da, eztu aldazceco ahorraric, eta ez etçateco oheric; eztaqui othuruntza on baten berriric. Asco du bere laceria, escasia, eta miseria. Beraz etçaina halacoari liscarric, erançuteric, edo mehatxuric egnin behar. Ceren hala eguiteaz, batean ezpada bertcean, periletan iar ciñdezque huts eguiteco: eta probeareu, bere probetasunaren gainera, bere goigoan eta bihotcean çaurtua, gaizcoatua eta tristetua igortceco. Ez tut uste, galdeguinen deracula Iaincoac, ea probe onari ala gaichtoari eman diogunz, eman diogunz baicen. Daguigun ongi, eta ezteçagula sobera beha nori.

Aberatsac beçala, probeac ere Iaincoac eguinac dira. Aberatsa hain biluz-gorri sorthu cen, nola probea. Eta Iaincoac nahi içan balu, egun çoqueyen probea aberats, eta bai aberatsa ere probe. Eta hala orai ere anhitzetan hequen çorthea eta fortuna truncateen du,

probeac aberatsten, eta aberatsac probetzen baititu.

Probeac pairatuz, paciencia içanez, eta bere ongi egualez othoitz eguinez, behar du salbatu : eta bai aberatsac ere, bere onetaric probeari emanez eta partituz. Eta ongi guehiago eguiten deracu probeac guri escateceaz, eta gureganic errebitceaz, guc hari emaitzeaz eguiten diogun baiño. Ceren guc hari labore pochinch bat, cornadu bat, edo hunelaco cebait bertce gauça aphur emaiten diogu ; baiña guc handic ceruço loria irabazten dugu.

Are guehiago, probeari emaitzeaz, gueure descargua eguiten dugu. Ceren Iaincoac orai guri emaiten de rauzquigun onac, eta ontasunac, hetaric gueure maiñadaren mantenatceco, eta estatuaren eduquitceco behar duguna hartz, eta gaiñeracoac proba beharrenac baitira.

Eztu ez Iaincoac utzi proba mundu hunetan haberic eta sostenguric gabe : aberatsen gomendioan utzi tu. Eta halaten emaiten deraue aberatsey heretçat behar duten baiño guehiago, guehiagoco lura probetara parti deçaten amoreagatic. Eta handic erraiten du San Chrisostomoc: *Nam si pauperes esse permisit, etiam hoc divitium gratia factum est, ut per eleemosynam peccata possint abluere :* (1) Permititzen du Iaincoac munduan diren probeac, hez ongi egninez salba ditecin aberatsac. Eta Iaincoaren ontasuna eta liberaltasuna hain da handi, non orai çuc ditotçun on

(1) Chrys. hom. 77. in cap. 15. Joan.

horiec Iaincoarenac berarenac, eta Iaincoac emanac dituçularic, guztiarequin ere, çuc horietaric probeari emaiten dioçunean, ceuretaric emaiten baitcinio beçan bat, estimatcen baitu Iaincoac. Eta are handie bere burua çure alderacotçat çordun eracusten da; hain çordon ecen erraiten baitu Spiritu Sainduse : *Fæneratur Domino qui miseretur pauperis* : (1) Probeari emaiten dioenac, Iaincoari emaiten dio. Eta emaiten ere, nola? — *Fæneratur*, Censuan, interesean, irabacian, obliga araciric beçala, principala irabaciarequinbihurtuko dioela. Eta hemengo irabacis tipi da, ezta seguraturic ehuneco bat ere, baiña Iaincoarena handi da, guehiago da ehuneco chun baiño.

Cer nahi duçu guehiago? Probeari emaiten dioçunean Iaincoaren icenean, berari emaiten baitcinio beçanbat estimatcen du Iaincoac, hain ecertan eduquitcen du.

Eta haur ezla miretsteço, ceren orai hemen gure artean ere, ikhusten dugunean, ecen guiçon batec, gure ahaide edo adisquide batı eguiten dioela gure amoreagatic cebait ongi, guc ere lehen bicico okhasinoan errendatcen derautçagu esquerrac guiçon hari; bitartezan eztugu onic, anarteraino gueure buruac çordun dadutçagu.

Cer egninen derane bada Iaincoac, haren amoreagatic probeac faboratcen dituzteney? cer esquer, cer pagamendo emanen deraue?

(1) Prov. 19.

Iondone Martinec bere caparen erdia probeari eman cioenean, agnertu cen Iaincoa Martini, gau hartan berean, capa hartçaz estaliric, erraiten cuela sendagail-laz beçala bere Ainguerney : *Martinus hac me teste conterit* : Ikhussaque, ikhussaque, cer egun duen Martinec, cer eman deraman, nola capa hunez estali nauen. Bada Martinec capa hora probeari eman cioen eta ez Iaincoari. Ordea guztiarequin ere Iaincoac, ceren haren icenean eman cioen, erraiten du berari eman cioela.

Hilatan erranen deraue, azquen iudicioco egunean ere : escuinecoey, dobacilla seculaco loriara ; ezquerrecoey, seculaco penetara. Ceren escuinecoec, gosetu cenean, eman baitcioten iatera ; eta egarritu cenean edatera, baiña ez ezquerrecoec.

Eta iauna, galdeguinen diote orduan guztiec : noiz ediren cinitugun guc cu gosse edo egarri ? Ihardetsico deraue : probeac athera ethorri ceizquitzennean, orduan heqmen lekuan, ni nintcen han.

Eta hala probea escatzen çaitçunean, contu egniçu eeen probe hora dela Iaincoa bera, haren icenean eman ioçoçu, eta Iaincoac berari emaiten baiteinio beçan bat estimaturen du. Hala erraiten du San Crisostomoc : *Nihil nempe interest sive huic pauperi, sive ipsi Christo dederis* : (1) — Ezta antsia, ala probeari, ala Jesu Christo berari eman ; eztu batec baiño hertzeac guehiago monta eta ez balio, guztia da orabat.

(1) Chrys. hom. 89, in capite 27. Mat.

Eta are San Crisostomoc berac (aitcinetic abisaturic eztadilla nehor bargatic assalda), erraiten du: *Nemo his verbis turbetur: Non est aquale, ipsum Dominum praesentem alere, cuius praesentia vel lapidum ad se animum attraheret, et propter ejus verba dimittat, pauperes, mendicos, aegrotos alere atque curare:* (1) Ezta berdin, baiña aldez guehiago da eta merituago probeari Iaincoaren icenean emaitea, Iaincoari berari bere presunan baiño Ceren Iaincoaren ikhusteac harrizco bihotzac uqui eta bera letçaque, eta hari sokhorri emaitera ekhar; baina nequeago da, haren hitzagatic haren erranagatic pobreen, escaleen eta erien haztea eta arthatcea.

Eta halas, aldez merituago da, ceren Iaincoac manaten duen, probeari emaitea Iaincoari berari emaitea baiño.

§ 3.

Beraz hunelatan eztela behinere probearen gabe egotzteric, eta ez athean oihuz edoquitceric ere. Ceren probearen oihuec, eta anhitzetan ere berariaz bere burnaren hebain, maingu, herbal eta eri eguiteac, gure bihotzaren gogortasuna eta hotztasuna akhusatzen dute.

Go baguina emaitera prest, erne eta bolondres, ezlecaque probeac halaco pensuric egun eta ez artec bilha. Baldin probea bada maliciati, maiz bere beharrez eta gure saltaz da maliciati; hare baiño, gue

(1) Crysost. ubi supra.

batçutan hartzan falta guehiago dugu, bere bicitcearen atheratceco hanbat enseyuren eguitera behartcen baitugu. Hala erraiten du San Crisostomoc: *Nam si simulat, ex necessitate simulat et egestate, propter savitatem et inhumanitatem tuam, quae talibus personis supplicantibus ad misericordiam non flectitur.* (1)

Probeari emanen dioçuna, guti edo anhitz, emoçu berehala. Baldin doiez baçara, guti baduçu, emoçu guti: eta baldin aberats baçara, gaiñez eguna baçau-de, emoçu anhitz.

Ierusalemco temploaren eguitean, eta eguiñez guero ere, bacebillan obraren esquea: eta bacen athearen aldean ere cutcha bat, erremusinaren eduquiteco untcí bat; hartzan batbederac debocino çuenaren emaiteco: orai ere gure elicetan, crucificaren aldean, dagoen beçala.

Bada temploco cutcha, untcí edo copa hartzan, cein Indoeç deiteen baitçuten, Gazophilacum, aberatsec emaiten çuten anhitz, batac hamar bertceac hogoy, batbederac bere içanaren, abalaren eta debocinoaren arauaz. Eta hequin artean ediren cen emazte probetto bat eta harc eman citnen bi cornadu. Eta guero haren gaiñean erran çuen gure Salbatçailleac, guehiago eman çuela emazte probe harc, aberats guztiac baiño. Ceren emazte harc beretçat behar çuenetic eman bait-cuen, baiña aberatsey, emanac emanic ere, franco

(1) Chrys. hom. 57 ad populum Anthi. de elemosyna et misericordia.

guelditu baitceyen. Emaçu beraz duçunaren aranaz. Ceren harrizaz contentatzen da Iaincoa; baldin expa-duçu emaitecoric, ençu damu ceren eztucum; eta damu barequin batean, ençu borondate, baldin bat-cendu emaiteco.

Ceren Iaincoac behatzen badu ere emaitçara, ordea areago borondatera. Eztuena borondateaz complitzen du; baiña duenac, borondatearequin batean behar du complitu, eta obratu.

Eta obratu ere nola? ez edergaillu, ez banaloriaz, eta ez munduagatik, baiña Iaincoagatik. Eta halako sequeretuqui, ahalik eta ichilquienak, escuinak ematen duena (Evangilioak dioen beçala) ezquerrak iaquin ten eztuela.

Albaliz, erremusina erreccibitzen duenak ere, ezinque iaquin behar, nondic heldu çaicán ontasun hura. Halatan Iaincoac berac, azquen egunean guztiak, eure ohore handitan, mundu guztiaren aitcinean aguertuera eta erasutsico ditu. Ceren orduan guztiak iaquin eta aguertuko baitira, ontsac eta gaizqniae.

Eta ezta ez asco, esque ethortzen çaitçun probeari emaitea eta ez bertceri. Baiña, Iaincoac emanik, guehiagoren ere ahala duçunaz gueroz, behar duen informatu, galdetu, eta iaquin ea nor den herrian probe beharric, gosez denie, sabel-uzcur dabillanik, ahalquez escatcera ausarcen eztenik.

Eta guztiak buruan eduqui behar duçu kontu, badeanz probe eririk. Ceren probetasuna eta eritasuna, bi eritasun dira, eta bi probetasun.

Ilalacoac dira alde guztiz onhehar, ondicozco, eta urrikalquiçun. Hequen faboratcea da meritu handia, eta cerneo loriaren erdiesteco, eta are mundu huentan ditutçun onen ere seguratceco, berretceco eta emendatceco bide ona, çabala eta segura.

§ 3.

Batçuec uste dute, ecen probeari emaitiaz probetxu direla: eta halatan erraiten deraue esque etihortzen çazteney, Evangelioco bortz Birginec bere laguney beçala: *Né forte non sufficiat nobis et robis, ite potius ad tendentes:* (1) Coazte hortie, Iaineoa lagun dañiçuela; emaitae gutitzen tu gauçac, ezlugu gueurelçat ere sobera.

Eztute consideratzen, probeari emaitzae, ez probetzen baiña aberatsten, ez gutitzen baiña berretzen duela.

Hala emaiten du aditcera Spiritu Sainduac: *Qui dat pauperi non indigebit; qui despiciit deprecantem suslinebit penuriam:* (2) Beharrari emaillea ezta beharrean iarrico, emaille eztena azquenean behar içanen da.

Guehiago ere dio Spiritu Sainduac: *Alij dividunt propria et ditiores sunt, alii rapiunt aliena et semper sunt in egestate:* (3) Batçuee bere onac partitzen eta emaiten dituzte; eta guztiarequin ere, bethi dira

(1) Mat. 15.

(2) Prov. 28.

(3) Prov. 11.

aberats ; eta berriz bertee batçuec, nola bereac emanen dituzten, ecen bertcerenac ebatsten dituzte, eta halaric ere bethi dira errumes, noharroin, eta on-behar : baitirudi ecen hec hartuz probetzen, eta bertceac emanez aberatsten direla.

Amae haurrari dithiaren emaitea beçala da probeari emaitea ere. Ama haurrari dithiaren emaiteas esnatzen da, ez emaiteaz ançutzen da. — Halaber oraino ereitea beçala da probeari emaitea. *Eunte ibant et flebant millentes semina sua, venientes autem venient cum exultatione portantes manipulos suos :* (1) Bihica ereiten çuten, eta escumenca biltzen. Ereiten bihi bakhotchae, eta biltzen buru betheac, bolean hirur laurac cituztenac. Halaber badira urputzenac, berriaz eguinac, cimenduan edo çolan ithurria baitute. Bada gauça frogatua da, putçu hetaric uric ez atheragatic ere, eztela ura handitzenago ; eta atheragatic ere ez ttipitzenago. Ceren atherateen den beçan bat sortzen haita. Hala dira bada beharrey emailleac ere : emaiten duten beçanhat eta guehiago emaiten çaye : eta emaiten ezpadute, bihotz gogor badira, eztira hargalitzenago, probetzenago baicen. Ceren hasserretzen da Iaincoa berac emanetaric, eman nahi eziogunean.

Hala hasserretu een aberats abariciosaren contra. Ceren aberats hartçaz erraiten badu ere Evangelioac : *Induebatur purpura et byssو, et epulabatur quotidie*

splendide: (1) Beztitcen cela ongi, eta othurungetzen hobequi; ecin erran diteque ordea, bargatic ioan cela, ifernura. Cergatic bada condenatu cen? Aditzen da condenatu cela, ceren etchathera esque ethorri ceican probe gose premian cegoenari, ezpaitcioen bere mahay asetic, asetcecoric eman eta ez are elicatcecorie ere. Handic bere burua eta onac ere galdu cituen. Handic probetu cen, eta hain probetu non azquenean, bere mihiaren hecatceco eta frescatceco, ur-chorta bat ere ecin içanezeo prophetasunera ethorri baitcen.

Nola eguiten baitu galtçapen eta beheratçapen handia, probeari guibela emaiten dioenac: hala eguiten du goralçapen miragarria probe beharrari, bere beharraren estaltceco emaiten dioenac.

Eta goratçapen hura, eta handic heldu den irabacia galtzen du bihotz gogorrac, errebusina eguiteco gogoric eztuenac.

Haur da bide bat guerotic guerora ibiltcez arimanen ez galtceco, laincoaganic misericordia, argui eta garacia erdiesteco, errebusina eguitea. Bainaz ezta utzi behar gueroco, edo hil ondoan bere ondocoegz eguiteco. Ezen eguiteco gogo duenac, baldin berac bere escuz bici deino eguiten ezpadu, segur da irabaci guztia edo guehiena galtzen duela, hunen ondoko capituluau aguerico den beçala.

(1) Luc. 10.

XLIV CAPITULUA.

*Nola erremusinac eta bertsce obra on borondatezcoa
ere, cerorec ceure escuz, edo bertcerenez cerori bici
carela, ondocoetara utzi gabe, egun behar ditut-
gun.*

§ 1.

GAUCA segura da, eta batere dudaric eztuena, probetchuago eta meritnago içanen duçda, orai cerorec, bici carela, eta osasuna duçula, ceure escuz probeari emaiten dioçunaz, ecen ez guero hiltceracoan ordenantzen dioçunaz. Ordea çuc oraico eta gueroco, franco duçularic, orai ez batere, baiña guero biciaz etsim duçunean, egun gogo ditutçu obra ederrac, liberaltsun handiac.

Aberats çara, on handiac dituñ, eta badoñu bai borondate, on horietaric probetara partitceco. Ordea noiz? — Guero, hilteceracean. — Bitartean, erraiten duçu, neure onac neure, nahi ditut goçatu eta manaiatu; eztut oraiño gabetu nahi; eztut ohera gabe biluci nahi. Baiña guero neure azquen ordenuan eta testamentean, manatuco dut neure ondoko, neure onequin utcico dudan, egun ditçala ene descargu guztiac. Eta are guehiago abisatuco dut suma bat, seiñalatuco baitiot suma hura probetara parti deçala. Eta benturran purgatorioetaratzan banaiz ere (ceren gaichtoeneco kontuan guzliec purgatorioetara uste dute), berhala handic atheratececo, hunenbat mega eman araci

diatçadala, eta bertceric ere anhitz obra on ene ice-nean, ene onetaric daguiela.

Hunela dioçu eguien duçula. Çure ongi guztiac bertcec, çure ondocoec, eta ceure ez batere.

Bada ezliçateque hobe obra on horien guztien cerorrec, bici carela, ceure esuz eguitea ; eta horien bidez purgatorioetara ioan gabe egoitea, ecen ez guero haratcen çareneco erremedioen eguitea ? Preso çareneco erremedioac bilhatcen dituçu eta ez preso sartetic beguiratcecoac.

Are guehiago, erremusinen eta bertce obra onen ondocoetara ulzteaz, emaiten duçu aditcera guibeletic eta urruititic nahi duçula argui diaçaçuten. Cer cennraque, baldin gau illhunean, pausu hertsi, gaitz, perilos batean iragan behar duenac, erran baliace bere muthiley, daudela guibelat, eta guibeletic eta urruititic daguiotela argui ? Hala dira bada bere erremusina eta bertce obra onac bereec bere escuz eguiñ ahal ditçaquetelarie, bere ondotic, urruititic, eta hiliez guero, bertceren escuz, bertceri eraguiteco gogo dutenac ere. Hura da, hurran, hurran erran comuna den beçala : usoac ioan, sareac hedea.

Eta badio San Basilioc ere : *Nemo post vitam, pietatis laudem nec præmium capiet* : Eztu nehorc, hil ondo-co erremusinaz, erremusinalari içan delaco, laudorio-ric ez golardiorie içanen. Hobequi ceneidique, eta secur-quiago ioca cindezque, baldin guero, bertceren escuz eguiñ gogo duçuna, orai ceurez, ceurec ikhusten duçula eguiñ baceneça. Ceren oraño San Basilioc dioen be-

çala : *Quis exitus tui tempus nuntiabit ? Quis de mortis genere sponsor ? Quot vides repentinio, ac vi casuve extingui, qui præ doloris et spiritus angustia, ne vocem quidem emittere potuerunt ? Quot etiam febris à sensu alienos fecit ? Quid igitur expectas tempus in quo sepe rationis tuæ compos non eris.* 1) Çuc baitioçu, ecen hilceracoan, ceure on guziac, edo parte bat, probey ordenatuco derazçula, orduan ongui handiac egui-nen ditutçula : Erradaçu, nondie iaquinén duçu edo norc abisatuco çaitu, noiz edo cer moldez hillen çaren ? Nor duçu hartaco fiadore ? Cenbat ikhusten ditugu ustecabean, laburzqui, colpez edo estropuz, mintçatu ere gabe, finitceu direla ? Eta bai halaber su-kharrac uahasiric, bere testamentac hasi eta akhabatu gabe, guelditcen direla ? Cergatic bada nahi duçu çuc ere. benturaz ceure adimenduan egonen etçaren demboraco, eta astiric ere içanen eztuçuneco, ceure eguitecoa eduquì eta luçatu ?

§ 2.

Goacin aiteinago : oraino orduan, hiltceraco aitcinean adimendu, memorio eta asti hacendu ere pensatu beharçu çure orduco obra onac eta eremusinac deus guti balio duela Iaincoaren aitcinean. Ceren baitirudi ecen bortchaz dela, eta ez borondatezcoa; guztiz ere, lehen ahal ceneydiqueyelaric, berariaz anarteraino luçatu duçunean. Ceren orai ceure az-

(1) Basilius. orat. 14 de mort. et Hom. 7, in divites.

tura gaistoac eztitutu nahi, ceure onac eztitutu gutitu nahi, ecin delibera deçaquecu hartara; bada badirudi ecen guero ere, hil uste ezpacendu etceneça- queyela delibera, eta lehenecoa egon cinetequeyela.

Are guehiago herioa hurbiltzen çaitçunean, nola at-haca hertsian, eta pausu gaitzean iragan behar baituzu; eta bitarteko doloreac ere handiac baitira, orduan çure gogoac eztu indarric ceure onez contu guti egiten duçu: ceren handiagoac ahantz aracitzen baiterrauzquitu. Orduan ceure ondoceoy, eta han presentean edireiten direnay cer ere nahi baitute, eta nola behar dela ikhusico baitute, hala daguitela ulzten de-rauecu. Hain nequez eta penaz bildu cinituen onac eta onthasunac; eta hain çuhurtqui eta maitequi beguiratzen cinituenac, guero hain lachoqui, eta antsicabequi largatzen tuçu: lehen cein herti eta itchequi baiteine, guero hain franco eta liberal eguiten cara. Orduan norecer erraiten haiteratzen hura landatzen duçu: eta anhitzetan ere, cer erraiten duçun eztaquiciula, baietz erraiten duçun. Neure mendean anhitz ikhussi dut hala- coric. Eta hala badirudi ecen, orduan eguiten duçun guztia berteeec eguiten duela, eta ez çuc. Ikhusaçu bada ea cer probetchu eta merecimendu ahal duque- çun, berteeec eguiten duen onguiaz. Arraçoinequin erraiten du Spiritu Sainduac: *Ante mortem benefac amico tuo et secundum vires tuas exorrigens da pauperi*: (1) Herriotzera baiño lehen egnioçu ongi ceure adis-

(1) Ecclesi. 14.

quideari, eta duçun indarraren arauaz hedatiaço
ceure escus probeari.

Egun batez eguin cioen othoitz santa Luciac bere
amari, guero eguin gogo cuena, gueroco beguira egon
gabe, egun beretic eguin ceçala, eritasunaren eta he-
riotcearen hersturan iarri gabe; sendo celaric berac
bere escuz bere onac probey parti ciatcela. Baiña
ihardetsi cioen amac, orai usateen den beçala: Ene
alaba, iguricaço oraiño aphurbat, ni çahartu naiz.
sarri hilen naiz, eta orduan guztiac cerorri gueldituco
haitçaizquitçu, cerorrec eguiñen duçu placer duçuna.
Errepuesta haur bere amac emañ ceraucanean, lehiatu
ceican berriz alaba, erraiten cioela: *Non est admodum
gratum, ó mater, Deo munus, quod qui offert, idèò offert,
quia illius usum suprema interdicit dies:* (1) Ene ama
maitea, badirudi ecen etçaicala Iaincoari eder eta ez
placent, presunac, berac ecin goç deçaqueyen gauça-
ren emaitea eta presentatcea. *Da dum sana es, ne si
moriens dederis, invita dedisse arguaris.* Emaçu be-
raz, aina, sendo çarela, eztiañgiñten erançute, edo
erran ezteçaten, hiltceracoan baicic emaiten duçuna,
bortchaz emaiten duçula.

Arraçoin haue aditu cituenean amac, eguin cuen
alabac nahi çuen guztia: eta berehala, gueroco be-
guira egon gabe, berac bere escus partitu cituen bere
onac probetara.

Orai hemen benturaz erran deçaque cenbaitec: be-

(1) Surios die 13 decemb. in vita Stee Luciae.

raz hunelatan, eriec bere eritasunetan, eta azquen ordennetan eguiten dituzten legatec, emaitcec, ezquentcec, errebusinec eta bertce obra misericordiazcoec eztute deus balio.

Bada ordea, orducoec ere balio dute, baina leheneocoec guehiago. Hala erraiten du San Chrisostomoc : *Melius quidem fuerit, multumque afferens fiduciae, dum adhuc civis paupertati egentium succurrere. Si vero istud nolueris, vel moriendo generosum quid facias, id enim licet non multum habeat dilectionis, aliqua tamen est dilectio :* (1) Hobeago, merituago eta bihotz ezportçagarriago baçatequeyen ere, cerorrec eeure escuz bici cinela eta sendo cinela probearen faboratcea ; ordea guziarequin ere, lchen saltatu baduçu ere, eztecaçola hiltceracoan bedere falta, eguien orduan cebait liberaltasun. Ceren orduan eguiten denac ere, ez anhitz, baiña cerbait balioco du ; baduçula guti, baina cerbait oneriste, marcatcen du. Guehienic osasuna duguiño eta gueure escuz ; baiña gueiro, ondotic ere eta bertceren escuz ere, daguigun ahal daguina. Mundu haur bideazcoen ostattua da, iragaitcz gare hemen. Gure seculaco ostattua, herria eta etchea, bertce munduan da. Eta nehore bere herrira, eta bethiercco behar duen etchera igortcen ohi du aitcinetic ahal daguiena ; eta bai guero deus guelditzen baçaica, bera dohanean, berequin ere eramaiten bethi egon behar duen toquirat. Hala eguin behar

(1) Chrys. hom. 10 in cap. 21 ad Dom.

dugu hada gue ere, orai sendo gareño guebienic, baiña guero eritasunean eta hiltceracoan ere, egun Behar dugu ahal daguiguna. Igor deçagun aitcinetic, eta daramagun gueurequin ere.

Erremusinac eta bertce obra onac egun ditçagun ordu deñó, gueroco utzi gabe, guhonec bertzeren arthari eman gabe, baldin sari eternitatecoa nahi badugu; hori çuhurtceac eta gueure abaintailac galdecean du. Bainak badira premia handiagozco obrac, iusticiazcoac eta obligacionzcoac; eta guztien gaiñetic behien gueure escuz eguitarera ondoçoetara utzi gabe, gara obligatu.

XLV CAPITULUA.

Nola obra obligacionzcoac, concientziaz cor ditutuenac, ondoçoetara utzi gabe, cerorrec egun behar ditucun.

§ 4.

BALDIN obra misericordiazcoac, nola baitira pro-been faboratcea; bilucen heztitcea, gose eta egarri denari iatera eta edatera emaitza, batbederac berac bere escuz, bici dela, irabaci handiric eguitecotz, egun behar baditu: cenbatenaz berac bere escuz, ondoçoetara utzi gabe, egun behar ditu obra obligacionzcoac, iusticiazcoac, eta concientziaz cor dituenac: nola baitira ehatsien bihurtcea, corren pagatcea, erauci dituen falso testimonioen satisfatcea, eta eragun dituen calten eta gaichtaquerien erremediatces?

dugu hada gue ere, orai sendo gareño guebienic, baiña guero eritasunean eta hiltceracoan ere, egun Behar dugu ahal daguiguna. Igor deçagun aitcinetic, eta daramagun gueurequin ere.

Erremusinac eta bertce obra onac egun ditçagun ordu deñó, gueroco utzi gabe, guhonec bertzeren arthari eman gabe, baldin sari eternitatecoa nahi badugu; hori çuhurtceac eta gueure abaintailac galdecean du. Bainak badira premia handiagozco obrac, iusticiazcoac eta obligacionzcoac; eta guztien gaiñetic behien gueure escuz eguitarera ondoçoetara utzi gabe, gara obligatu.

XLV CAPITULUA.

Nola obra obligacionzcoac, concientziaz cor ditutuenac, ondoçoetara utzi gabe, cerorrec egun behar ditucun.

§ 4.

BALDIN obra misericordiazcoac, nola baitira pro-been faboratcea; bilucen heztitcea, gose eta egarri denari iatera eta edatera emaitza, batbederac berac bere escuz, bici dela, irabaci handiric eguitecotz, egun behar baditu: cenbatenaz berac bere escuz, ondoçoetara utzi gabe, egun behar ditu obra obligacionzcoac, iusticiazcoac, eta concientziaz cor dituenac: nola baitira ehatsien bihurtcea, corren pagatcea, erauci dituen falso testimonioen satisfatcea, eta eragun dituen calten eta gaichtaquerien erremediatces?

Baldin obra misericordiazcoac cerorrec ceure escuz eguiten ezpadituçu, eta ez berceri ere eraguiten, egisia da, eztu orduna merecimenduric içasen, baiña ez ordenariaz bekhatu mortalic ere eguiten. Ceren obra misericordiazcoac, hargatic deitzen dira misericordiazcoac eta ez iusticiazcoac, ceren cenbait behar ordu herstutan eta premiazcotan baicen, ezpaicara obligatu hequen egitura, Baiña obra iusticiazcoetan differentqui mintiatu behar dugu. Ceren hequen compliteera obligatu gara bekhatu mortalen penan.

Eta eztu ez pensatu behar ondoocetara ultzeaz compli detçaquetçula; ez eta ondooco hey, certçaz paga esleitoric, beresciric eta seinalaturic ultzen baderaneçu ere. Ceren nola erran comuna den beçala, otsoac ian haiteçaque ardi contaluetarie : hala çure ondoocoac ere gueldi deçaque beretçat, çuc bertcerentçat seiñalatuetarie. Eta certaco ibili behar çara seiñalatcequetan, eta bertceri cargo emanquetan? Paga eçaçu cerorrec, ceurc çor duçunaz gueroztic.

Erranen duçu, eztut ordea certçaz paga Baldin ez-padluçu, ecinar eztu legueric. Orduan etçara obligatu pagatcera, pagatceco ahala duqueçun arteiño. Ez eta etçara obligatu pagatcera, baldin hartceco duenac berac quitatzen baçaitu edo barkhatzen baderotçu. Are guehiago, hartceco duenac, ez ecin bertcez edo bortchaz, baiña bere nahiz eta borondatez, iguriquitcen deratçunean eta emaiten ephe, orduan luça deçaqueçu pagamendua ephe hartaraiño, baiña ez guehiago. Paga ahal deçaqueçularic pagatu gabe egoitea, iabearen borondatearen contra onaren edaquitcea, bekhatu da.

Eta haur hain ongi aditzen da cor iaqu'naz eta aithortuaz, nola gauça ebatsiaz, eta iehilic eramanaz. Haiñ ongi pagatu behar da hata, nola berteza.

Eta, ezta ez asco aithorraren emaitza, eta ez guero ceure ordennan eta hiltceracoan bihurtzeo eta pagatzeo gogo eta borondate itzaltea ere. Baldin ahal badeçazu, cerorrec bici carelaric eta ahalic eta fitetzena pagatu behar duen ceure corra, eta bai bihurtu ere gauça ebatsia eta gaizqui eramanua; ezta asco ondokoey cargu utztea. Hala emaiten du aditzena doctor Navarroc : *Decedentes e vita, cum possint et non restituant, sed legant in testamento non secure decedunt.* (4) Hiltceracoan, berec paga ahal deçaquetelaric, pagalcen eztutenez, baiña bere testamenteretara, ordeneretara, eta ondocoetara utzten dutenec, eztute ongi eguiten, eztira halacoac bere concientzieta mundu hunetaric segur partitzen. Guehiago dio doctor Navarroc lekhu berean : *Qui alienum injuste retinet, et scit illud se debere, si expectat donec condemnetur per justitiam, peccat mortaliter :* Gordun dela daquienac, eta iusticiaz condena deçaqueten arteño pagatu nahi eztuenac, bekhatu mortal eguiten du.

Batuec bekhatu badaritze ere gauça ebatsien pagatu gabe eduquilcea, ez ordea eztaritzeate bekhatu cor iaquinari eta aithortuari luçatcea. Erraiten dute : badaquit eta badaqui cor dudala ; aithortzen diot, eztiot ukhateen, eta badut pagatzeo gogo eta boronda-

(4) Navar, in *Manuali. de restitutio.* cap. 17, num. 69.

te. Iduritzen çaitu ecen baldin aithorra emaiten badu, eta pagatceco gogo badu hain bertcez complitzen duçula.

Baiña enganatzcen cara: ceren bataz gogoa bera ezta asco, eta ez aithorra ere. Ceren çure gogoaz eta aithorraz probetchu guti du hartceco duenac, pagamenduric eztenean. Eta berriz bertcea, sendo dela pagamendua egui ahal deçaqueyelaric, eri arteño egui nahi eztuenac, emaiten du aditcera, baldin eritasunic ezpaliz, eta eritasunac ondoreric ezpalu, contu guti leidiqueyela. Eta hala frogatzen da halacoetan: ceren eritasunetic escapatzen direnean, iduritzen çaye ecen aldi hartacotz, berriz eri arteño segur direla eta quito.

§ 2.

Nahi duçu çuc, ecen çuc egui behar cenduen descargua eta egui eztuçuna çore ondocoac egui deçan. Bada uste duçu, çure dirua edo hacienda, çuc ceure ondocoari, ceure corraren eta obligacionearen pagatceco utzten dioçuna, etçaicala çore ondoco hari ere, quri beçain on, goço eta eder idurituco? Eztuçu uste? Eztuçu pensatzen, çuc beçala, harc ere bere demboran goçatu nahico duela? Eta erranen ere bai bere baithan: Niri neure aitcineacoac utzi deraulan hacienda haur, nabasqui, gaizqui eta bide gabequi beretacotua çuen, eta guztiarequin ere etçuen satisfatu, eta ez bihurtu, bethi berequin eduqui çuen. Bada ez naiz ni, hora baiño obligatuago. Eguia da, harc, nola haren ondocoa bainaiz, manatzen nau bihur deçadala:

hala bada manatuco dut nic ere neure ondocea. Baiña bitartean ene aitcinecoac beçala, goçatu nahi dut nic ere, eta eduqui neure demboran. Ikhusaçu nola hastac bertceagana utziz, ezten deus carguric eguiten; eta nola halaber handic, eta halatan çuc ceure burna galtcen duçun, eta ceure ondocoaa ere galtceco periletan ibentcen duçun. Ceren peril baita, çuc baino guehiago eztuen harc ere descarguric eguin. Ha cenbat Meça, cenbat arimacari, cenbat descargu dagoen egui gabe, hatac bertceagana utziz, eta guztiac utziz, eta bethi gueroco utziz.

Ezta pontu hunetara gaizqui heldu Pierres Damiano daritçan doctor batec contatzen duena. (1) Dio doctor hunc ecen behin guiçon saindu batec ikuusi çuela bere espiritu, ametsetan beçala, ifernuco suaren erdian escalera bat: eta escalera haren lehen pausuan eta maillean cegoela Conde bat, iaun handi bat. Eta gero ikhussi cituela halaber cazpi Conde, ethorqui berrecoac, bata bertcearen ondoan, escalera hartzan berrean ceudecilla. Ceren bata bertcearen heredero, ondoeo, eta elkarren onen primu eta iabe içan baitzen. Eta lehenbicicoac gaizqui eta bide gabequi berretacotu çuena, eta satisfatu gabe utzi, hala bigarrenac, hirur garrenac, eta cazpi garrenac ere utzi baitzen, ezpaitzen batec ere descarguric egui; eta halatan guztiac bata bertceari cerraitçala danatu ciren.

(1) Petrus Dam. ep. 5 cap. 8; et refertur à S. Antonino 2 p. sum. cap. 1 § 5.

Hala guerthatcen da bada egungo eguncan ere iende batuen artean. Eguiten ditutu ohoinqueriac, goraturic eta borchaturic dadutçatzen bertceren onac: eta çuec, edo eztuçu casuric eguiten, edo utzten ditutu pagatu gabe ceure ondokoaren esperantçan, eta bai hare ere bertcerenean, eta hala hala bertceac ere; eta handic eta halatan, batac bertceagana utziz eta guztiee utziz, utzten dira descarguac egun gabe. Etçuen hala eguiten Zaqueo aberats harc erraiten çucnean: *Ecce dimidium bonorum meorum do pauperibus, et si aliquem defraudavi reddo quadruplum:* (1) Neur onen erdiac emaiten derautet probey, eta baldin nehor enganatu badut, bihurteen dut laur doble. Eztu erraiten, *dabo*, emanen dut, ezta gueroço mintço, presenteean erraiten du, *do*, emaiten dut. Eta baldin deus gaizqui eramaitera guerthatu baçait, hura ere neur escuz, bici naicela, eritu haiño lehen, neur ordeneretara eta ondocoetara utzi gabe, *reddo*, neur bihurteen dut. Hala borondatezco obrac nola obligacionzcoac, berac bere escuz eguiten cituen. Eta hala egun behar ditu, norc ere nahi baitu merecimendu ceruco erdietsi, eta bere concientzia segurqui seguratu.

Iracurtu içatu dut, ecen behin guiçon batec cituela birur aztore onac, eta famatuac. Eta bere azquen fi nean, hetaric bata utzi çuela, çor bat baitçuen, hare; pagatceco; bigarrena, seme bat baitçuen, harendaco

(1) Luc. 15.

eta hirurgarrena arimacari, meçatan emplegatceo. Eta guero handic site, aztore hetaric bata, ioan baitcen airaturic, eta ez guehiago bihurtu: erran çuen semeac, ioan cen aztore hura cela, haren aitac arimacari utzi çunena. Etçuen erran, berarentçat utzi çuena cela. Etçaitecilla ceure ondocoaren esperantçan, eta harc eguien duen descarguan fida. Ceren baldin cerorrec, bici çarela, ceurc arimaz orai conturie eguiten ezpaduçu; eta ceurc eguiñ duçun falta, ceurc erremediatcen ezpaduçu, ezleçaçula pensa, eztaquicula iduri, guero çure ondotic çure ondocoac, çuc cerorrec baiño hobequi eguien duela.

Guztioc nahi dugu salbatu, guztioc nahi dugu ioan parabisura, eta guztioc dugu esperantça; bainan esperantça banoa, alferra, eta iduriz probetchu gutitacos du, descarguac eguiteco dituelaric, eta berac eguiñ ahal ditçaqueyelaric, eguiñ gabe, ondocoetara ulzien dituenac.

Bat dugunean, bia nahi ditogu; bia ditugunean, hirur. Ongui edo gaizqui, çucen edo makhur, placer caicu hartcea eta berretcea, baiña gaitz, eta gaitci gutitcea, eta biburteca; hartan min hartzen da.

Bada min hartuko bada ere, bihurtu behar da, satisfatu behar da. Eta hobe da batequin eta probe coacin parabisura, hamarequin eta aberats ifernura baiño.

Eta hobe da halaber utz diaçoçun ceure umeari edo ondocoari guti eta on, ecen ez anhitz eta gaichto. Guti hec, ongui irabaci hec, descarguac eguinie, eta

nori berea errendaturic gueldituko çaitçan aphur hec sumatuco dira, berretuco dira, gurenduco dira : baiña bertce guztiec fin gaitz eguien dute : hetaric, hirurgarren belhaunecoc guti goçatuko dute.

Ikhusaçu bada, eguiçu gogoeta, ea corric edo bertceren onic, gaizqui eramanic baduçunz; eta hec obligacionzcoac baitira, eta ez borondatezcoac, hec guztien gainetic, cerorrec bici carela, ceure escuz, bertceren pesquiçan eta esperantçan utci gabe, paga etçatçu, iraungui etçatçu. Ceren halatan ceure umiac, primuac, eta ondocoac peril handi bathtaric atheraco dituço : eta cerori ere, aitcinetic descarguac eguinie, aisia handi batean eta salbamenduco bidean oraidanie, iarrico çara.

IX.

DEMBORAREN GALTCEA.

XLVI CAPITULUA.

Nola guerotic guerora ibiltceaz, gultcen duçun dembora.

§ 1.

GUEROTIC guerora çabiltça, urthe hunetan gaichto içanic, dathorquenyenean onduco eta prestutuco carela dioçu. Bada biz hala, çuc dioçun beçala, eta gogoan darabillaçun beçala guertha daquicun, eta urthe hunetan gaichto içanic, çure guero horretan, elhorquicunean, prestu çaitecin. Hori horrela baliz ere, non da

nori berea errendaturic gueldituko çaitçan aphur hec sumatuco dira, berretuco dira, gurenduco dira : baiña bertce guztiec fin gaitz eguien dute : hetaric, hirurgarren belhaunecoc guti goçatuko dute.

Ikhusaçu bada, eguiçu gogoeta, ea corric edo bertceren onic, gaizqui eramanic baduçunz; eta hec obligacionzcoac baitira, eta ez borondatezcoac, hec guztien gainetic, cerorrec bici carela, ceure escuz, bertceren pesquiçan eta esperantçan utci gabe, paga etçatçu, iraungui etçatçu. Ceren halatan ceure umiac, primuac, eta ondocoac peril handi bathtaric atheraco dituço : eta cerori ere, aitcinetic descarguac eguinie, aisia handi batean eta salbamenduco bidean oraidanie, iarrico çara.

IX.

DEMBORAREN GALTCEA.

XLVI CAPITULUA.

Nola guerotic guerora ibiltceaz, gultcen duçun dembora.

§ 1.

GUEROTIC guerora çabiltça, urthe hunetan gaichto içanic, dathorquenyenean onduco eta prestutuco carela dioçu. Bada biz hala, çuc dioçun beçala, eta gogoan darabillaçun beçala guertha daquicun, eta urthe hunetan gaichto içanic, çure guero horretan, elhorquicunean, prestu çaitecin. Hori horrela baliz ere, non da

bataz urthe hunetan egun ahal cenduqueyen irabacia, eta aitcinamendua? Ceren guiristino onec urthe batez anhitz obra on eguiten dute, eta bai meritu ere erdies-ten. Guiristino onac urthe batez aitcinateen dira, bai-na gu nola aitcinatuco çaren ecen guibeliteen cara, anhitz bekhatu eta gaichtaqneria eguiten duçula. Eta berriz bertcea, non da halaber bitartean, urthe hunetan, çure *Guero* horretara hel arteraiñocoan, galteen duçun dembora? *Fili conserva tempus*: (1) Ene seme, beguira eçañu dembora, dio Spiritu Sainduac. Aitcinean duçuño, çaquitça, ceren behin ioanez guero, ezta bishurteeric, eta ez erdiesteric. *Fronte capitata est, ac post occasio calva*: (2) Okhasinoa copetan, belarrean, aitcin-aldean, illetsu da eta cherlotsu, baiña garhaltean, garcetan, guibel-aldean, motz, soil, garbal, carsoil, eta ille gabe. Aitcinean badu nondic lot, baiña ez guibelecan. Beraz aitcinean duçuño, probet-cha çaquitça. Ceren guibeleraz guero, eztu escu-to-quiric, eta ez lotceco guirthaiñic. Bada okhasinoa be-çala da, dembora ere. Beraz hunelatan, *quodcumque potest facere manus tua instanter operare. Quia nec opus, nec ratio, nec sapientia erit apud inferos quo tu properas*: (3) Orai dembora aitcinean duçuño, eguiñu ahal daguiçuna: orai, *Instanter*, fite, presenteon. Ceren iaquin behar duçu ecen eztela guero, cuc ioan behar

(1) Eccli. 4.

(2) Ausonius.

(3) Eccli. 9.

duçun lekhu hartzan, arraçoin alegatceric, eta ez iaquin-tasunaz probechateeric içanen. Utzten badu, nola eztaquiçula, orai escuen artean duçun dembora iragaitera, eguiñ da, galdu da, ezta guehiago bihurtceric. Hargatic erraiten du Iondone Pauloc, *Dum tempus habemus operemur bonum* : (1) Dembora duguiño da-guigun ongui.

Erran beça Aristotelec nahi duena demboraz, (2) bainha gure kontuco dembora da *lehen*, *ordi* eta *guero*, gaucceen ibiltcea, iragaitea eta iragaitearequin batean, higalcea eta akhabatcea. Dembora bethi doha. *Neque, quod futurum, est meum, neque quod fuit*, dio Seneac: (3) Iragana eta ethorquiçuna eztira gureac. Ioana ioan, ethorquiçuna ethorquiçun, presentecoa da gure, eta ez bertceric.

Eta presenteco haur, hain da guti ecen erraiten baitu san Thomasec : *De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc* : (4) Demboratik eztugu deus ere, orai bat baicen, iraute aphurra, pontutsu bat, eta ez guehiago. Eguia da ordea, nola pontutsu hunec, orai hunec iuntatcen, eta iosten beçala baititu elkarrequin iragana eta ethorquiçuna, ioste hunec orhoitcen gaitu iraganaz, eta ethorquiçunaz ere esperantxa emaiten.

(1) Paulos ad Galat. 6.

(2) *Tempus est numerus, motus, secundum prius et posterius.* Aristo. 4. Phisico.

(3) Seneac, lib. 6. natural. quæstio.

(4) S. Tho. t. p. q. 66. art. 4. ad. 4. et 5.

Eta halatan orhoitce hunequin eta esperançha hunequin batean, iragana eta ethorquiçuna, presentecoarequin lothuric eta bat egunic, etçaicu presentecoa hain labur iduritzen. Ceren guztiac elkarrequin beçala, eta bat baillira beçala hartzen baititugu. Hala erraiten du Senecac : *Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio.* (1)

Ordea den beçala, eta behar den beçala dembora-ren hartcera, edireneng dugu deus guti dela, mehar dela, eta labur. Presentecoa goça deçaquegu, ethorquiçunecoa desira, eta iragana lauda edo auben eta deithora. Iraganac eztu erremedioric, hura ioan da : ethorquiçunecoa eztaquigu emanen çaicun : presente-coa hain da guti, labur eta ez deus, ecen orai ere, bigarren hitza hasi dudaneco, iragan baitateque lehenbicicoa, eta lehenbicicoaren deimbora.

Içatu da erran duenic dembora eztela deus, hariaz orhoitçapenic edo pensalceric eztenean. Eta halatan lo datçanari, etçaicala orduco dembora deus iduritzen ; eztuela s'ntitzen, ezpailliz beçala iragaiten çai-cala. Ceren orduan ezpaitsu hartan pensatzen, eta ex gogoric eduquitzen.

Urarequin ongui compara diteque dembora, ceren demborae, eta urac elkarren idurica handi baitute. Ura bethi doha, bata bertceari darraica. Iragan ait-cinn da, ethorquiçunecoa guibela dago, eta aitcinecoac aitcinean guli irauten du. Eztu nehere iragan den

(1) Senec. de brevitate vitae c. 43.

uretic hartzen, eta ez ethortceco dagoenetic ere : ait-cinecotic, iragaitean, presentean denean behar da atrapatu. Hala da bada dembora ere, bethi doha, ezta behinere guelditua, eta uraz beçala egun behar da demboraz ere : presentekoari lot çaquitça, hari probetcha çaquitça. Ceren hertcela, haice ona denean bela egun gabe guelditeen den ontzia beçala, gueldi ahal cindezque cu ere.

§ 2.

Demboratic gauça aphurra, *orai* haur dugu, eta ez bertceric. Ordea nore erranen du cenbat balio duen *orai* hunec? Iraute, iraupe, eta bitarte ttipi, aphur, labur hunec? Hanbat balio du, non baldin orai ifernuan dagoen bat eman balequio haatatzera, ea cein luqueyen nahiago bere escuko : ala mundu haur guztia bere on guzliequin, ala oren baten dembora eta bitartea? Segur da ez oren baten dembora, baiña are, beguien goiti ailtchatceco asco luqueyen bitartea ere, leben hanta leçaqueyela, nahiago luqueyela, eta bai hobeago ere, mundu guztia baiño.

Ceren dembora aphur hura. den aphurrena ere, ongi emplegatzen luela, asco bailluque anarterainoco falta guztien erremitateeco eta cernico loriaren cr-diesteco.

Erraiten da gauça bat preciatua dela, hartaric pusea ttipiac, bertcetaric handiac baiño guehiago balio due-nean; eta halatan erraiten da gauça preciatua dela urea. Beraz cinez da gauça preciatua eta baliosa dembora, ceren den gutiena bilotzezko urriquimendu bate-

quin asco baita salbamenduaren eguiteco. Eta ezperre galdeguioçu, bere azquen orenean, hain laburzqui, parabisua irabaci çuen ohoiñari, ea cer iduri çaicar, demboraz? Ea gsuça estimatcecoa eta ecertan eduquitececoa denz? Eta haren, frogatuac beçala, erranen deratzen: baietz, ecertan eduquitececoa dela, baliosa dela, eztuela munduan bere pareric.

Hain da gauça handia eta aberatsa, orai escuen artean dugun demboraren *orai* haur, ecen Purgatorioetako penac, mundu hunetako pena guztiac elkarri iratchequiric baiño, handiagoac direlaric, guztiarequin ere erraiten baitu doctor batec: *Plus valet hic in patientia dies unus, quam in Purgatorio annus:* (1) Guehiago balio du eta guehiago egiten du, orai hemen egun batez obra onetan emplegatceac, guero purgatorioetan urthe batez penatzen egoiteac baiño. Oraineko eguna balioco du orduco urthea. Hala emaiten du aditcera Ezequiel Prophetac: *Diem pro anno dedi tibi:* (2) Eman neratzen eguna urhetetçat. Erran nahi du: Eman deratzen, emaiten ere deratzen anhitz egun, hain aberatsic, baliotic, eta precio handitacoric, non hetaric batec balio baitu, eta balioco baitu urthe bat. Ceren guero urthe batez egun ditequeyena, eta egunen dena, egun baititeque orai egun batez. Eta arraçoña, ceren guero içanen eztensa orai baita: merecileceo eta ontasunean aitcinatceco ahala, indarra eta

(1) Ludolphus ex Saxonia, 1. p. cap. 20.

(2) Ezechiel, 4.

libertatea. Eta halaber ceren bi pena suerte baitira, bata da, *Pena inflictæ*: (1) hertcec emaiten dera-cuna, hertcetaric heldu çaicuna, nola baita purgatorioetaco pena, eritasun batetacoa. Bertcea da, *pena assumpta*, gueroc gueure borondatez hartcen duguna, nola baita eguiten dugun penitencia, barurtea, oraci-notan egoitea, erromerian ibiltcea. Eta pena harc, gueroc gueure borondatez hartcen dugunac, eramai-ten dio aitcinaldea bertce penari, bertcec emaiten de-racunari, patientqui errecibitua içanagatic ere. Ceren purgatorioetan dagoenac nahi luque handie libratu, eta bai criac ere sendatu.

Baiña orai gueroc gueure borondatez eguiten dugun penitencia, eta hartcen dugun pena, alde guztiz da borondatezcoa, haliosa, eta Iaincoari eder çaicana. Eta halatan hunc eramaiten deraue purgatorioetaco penari, eta eritasunecoari ere,urreac bertce diru guz-tiey eramaiten derauen abantailla.

Ceren Iaincoac behateen badu ere iragaiten dugun penara, ordea areago behateen du hartaco boronda-tera. Beraz orai pena, orai barur, cilicioa har. Ceren oraico pena ttipiac, gueroc librequi, gueure boronda-tez hartcen dugunac, guehiago halioco du, purgatio-rioetaco, edo eritasuneco pena handiac baiño. Eta hala badirudi ecen purgatorioetan daudenec, eztutela deusez ere hanbat damu eta atsecabe içanen, nola demboraren galduaz, gaizqui emplegatuaz, eta bere

(1) Vide Dionys. Chartusia. de judicio animæ cap. 15.

buruen bere borondatez aphur bat bedere ez penatuaz. Arraçoiñequin erraiten du san Chrisostomoc : *Neque intelligis omnia polius esse amittenda quam tempus : aurum amittis, potest recuperari; amissum tempus difficulter :* (!) Eztuçu aditcen, bertce gauça guztiac lehen utzi behar direla galteera dembora baiño. Ceren urea eta cilbarra cobera ditezque galduagatic, baiña ez dembora.

§ 3.

Nihil pretiosius tempore, et heu nihil eo vitius intenitur, (2) dio san Bernardoc : Ezta munduan gauça preciosagoric dembora baiño ; ordea ai, ezta egungo egunean gauça gutietsiagoric eztenstuagoric edireiten. Eztngu densez ere, hain contu guti eguiten, nola demboraz. *Quem mihi dabis qui aliquod pratum temporis ponat, qui diem estimet?* Nor emanen derautaçu, galdeguiten du Senecac, demborari precio dioenic ? Eguna mereci heçala estimatecen duenic ? Fitsaren berdin, ez deus daducagu dembora. Badirudi trabatcen gaituela ; anhitzetan ere ezpaguendu nahi guenduqueyela ; ez iaquinez certan iragan gabiltçala ; oren batean garrenean, hi garrenean baguina desiratcen dugula. Erran behar da erho garela, munduan den gauçaric aberatsena eta baliosena hain franco-qui derabillagunean. Bada ala guc eta nic ere, demboraren galtce hunetçaz, probetchatu gabe iragaitera

(1) Chrys. Hom. 57. in cap. 9. Ioan.

(2) Bernard. ad scolasticos.

utzteaz, contu hertsia eman beharco baitiogu Iain-coari.

Hirur moldez, erran ahal diteque galtzen dela dembora. Lehenbicicoa, bekhatu eguitateaz, eta bekhatutau egoiteaz. Bekhatu eguiten hari carela, eta eguiñez guero hetan çandela, iragaiten çaitçun dembora, emaen galduñet. Dembora harc eztu deus balio çuretat. Aiteitic hartan ceure arima eta arimaco on guztiac, eta communzqui gorputzecoa ere galtzen diitu, ura behera beçala egorten tuçu. Dembora hura da demboraric galduena, eta galgarriena.

Bigarrena, galtzen da dembora, gogoeta erho, bano, deus balio eztutenean batçetan egoiteaz. Gerori bakbarriac, alfer, aise, eguitecoric gabe, ongi inua eta hohequi edana çaudenean, eta guztiz ere ohean loz asseric, arduraric gabe, çauñçanean: eguiten duçu, ceure baithan barrena, milla pensu eta gogoeta, milla dorre eta gaztelu. Eguiten cara Indiano, eguiten cara ministro, eguiten cara Erregue, aberatsten cara, eguiten duçu anhitz balentia. Ethortzen çaiten ioco eder bat, irabazten duçu. Finean erabiltzen tuçu ceure gogoan, hala halira nahi cenduqueyen gauça batçuc. Eta seculan hala içanen ezpadira eta eztirela içanen badaquien ere, guztiarequin ere, hala pensatceaz beraz ere, gogoeta erho hetan egoiteaz, atseguiñ haritzen duçu. Eta bitartean eztnen consideratzen, que handic atheratzen duçun probetchua demboraren galtea dela, eta ez berteerie.

Hirurgarrena, galtzen da dembora gorputzaren pla-

ceretan ibiltceaz. Erraiten duçu, deçagun dembora iragan, gaitecin ioca, gaitecin dantça eta dosta. Eta etçaitçu gogoratecen, bitartean dembora galtzen duçula. Bada erraiten du san Bernardoc : *Omne tempus in quo de Deo non cogitas, hoc te computes perdidisse* : (1) Iaincoa baithan pensatzen eztuçula, iragan çaitçun dembora guztia, eguiçu contu galdu duçula. Hala erraiten du san Geronimoc ere : *Omne tempus in quo meliorasse non senseris, aestima perdidisse* : (2) Hobetu çarenz sentitu gabe eta cerbait ontasun egun gabe iragaiten çaitçun dembora, estima eçaçu galdu duçula. Ezta asco gaizquiric ez eguitea, ezta asco ez gaichitatcea ; baina ondu behar da, eta ongi egun behar da ; ez aiteinateea guihelateca da, ceren bitartean bertee calteric ezpada ere, dembora galtzen eta probetxatu gabe iragaiten baita.

Contu eguiçu ecen orai ditutxula berrogoy urthe. Eta eguiçu halaber contu eta gogoeta cenbat ongi eta obra on egun dituçun berrogoy urthe horietan ; eta edirenene duçu, baldin cin cinez, fintqui eta debotqui manaiatu eta emplegatu bacina, berrogoy urthe horietan egnin dituçun onguia, ontasunae eta obra on guztiac, egun cinituzqueyela urte hatez. Beraz hanelatan galdu itutxu bertee urthe guztiac, berrogoyetaric, hogoy eta hemeretciac. Cer contu emanen duçun bada urthe galdu hetçaz ? Hitz alfer guztiez emau behar da

(1) Bernar. in med. cap. 6.

(2) Hieron. ad Eustoch.

contu, cer içanen da bada hanbat dembora galduz eta alser iraganez? Arraçoinequin erraiten du Ieremias Prophetac: *Vocavit adversum me tempus*: (1) Deitu çuen ene contra dembora. Demborac berac, gue galtzen dugunac, akhusatzen gaitu, hura bera iaiquitzen da gure contra.

Omnia, mi Lucile, aliena sunt, tempus autem nostrum est, (2) dio Senecac: Bertee gauça guztiac, bertcerenac dira baino ez dembora, hura gurea da.

Orai escuen artean dugun dembora, prestatzen deracu gueure Iaungoicoac, utzten deracu gueure escuso. Eta nahi du probetcha gaquitzan, obra onetan emplega deçagun; eta hala ere escatuco çaiu oraino contu: baldin meça ençun badugu, ea ongi eta harthan pensatzen dugula ençun dugunz; baldin barurtu bagara, oracintonan egon bagara, probeari erremusina eman badiogu (hauc obra onac baitira), hautçaz guztioz escatuco çaiu kontu, ea edergaillu, munduagatic, ala Iaincoagatic eta intencione onez, banaloriaric gabek, egin ditugunz. Hala erraiten du Prophetac Davitec, Iaincoaren partez mintzo dela: *Cum accepero tempus ego justitias judicabo*: (3) Dembora neuregana decaudanean, heriotceko orenean, hain herstqui escatuco naiz contu, non obra onac ere, ea ongi, instoqui, eta behar beçala eguinac direnz examinatuco eta iuzgatuco

(1) Ieremias, tren. 1.

(2) Senec. Epis. 1.

(3) Ps. 74.

baititut. Obra onac ere baldin ongi, eta intencionne onez eguinac ezpadira, gaichtotçat emanic condemna-tuco ditu laineoac.

§ 4.

Baldin presenteco dembora haur, orai escuen artean duçuna, emplegateen ezpaduçu ongi, peril da edequi daquicun ethorquiçunecoa. Eta ala bainha haur da çure erhoqueria edo itsutasuna, uste baituçu, ceure Icheneoac gaizqui emplegatuarequin ere, aitcinerat ere orobat emanen çaiçula dembora. Baldin mercatari batoc, eman baliaço bero semeari diru sumia bat bere escuko, manai leçan, emplega leçan tratuan, eta mercatalgoan erabil leçan : eta halatan tratua ihasiric, berac bere buruz, cerbait irabaz leçan. Ordea baldin seme hare, bere aitaren eman hec guztiac, iocoan, ian edanean, eta arloterian gasta balitça, arraçoiñequin liçateque seme hura heldur, ezliaçon bere aitac aitcinarat guehiago eman eta ez fida ; eta are lehen emanac ere edequi llatçon. Hala baña, arraçoiñequin içanen çara çu ere heldur, edequi diaçaçun ceure Iaungoicoac ethorquiçuneco dembora, iragana hain gaizqui emplegatu duçunaz gueroztic. Hala Noeren demboran, ehun eta hogoy urthe biciteeco aguinduz guero, edequi cerauzten azqueneco hogoyac, ceren leheneco ehu-nac, gaizqui emplegatu baitituzten. Haur emaiten du aditeera erregue Davitec ere erraiten duenean : *Viri sanguinum et dolosi non dimidiabunt dies suos :* (1)

(1) Ps. 54.

Guicón gaichto odol isurle, guerlati, maliciati, eta enganariec, eztitzte bere eguna erdizcatu; eztira halacoac bertcela bicico eirenaren erdia bicico.

Batçnec bere gazte demborau, odola bero dutenean, bieitcen dira, Iaincoric, heriotceric, edo contu errendateceric ezpailliz beçala; libertate handian, milla behatu, malicia eta enganamendo eguiten dutela; gorputzari ahal beçanbat placer emaiten diotela. Baiña guero çahartcean, odola hotzten hasten çavenean, hasten dira halaber ethorquiçunaz orhoitzen, hil behar dutela, eta hil ondoan contu errendatu behar dutela, ohartzen, eta pensatzen. Eta handic harat, hala bere buruey ohartuz guero, itçulteen dute plama eta orria bertce aldera: eta lehen gaichto beçain eguiten dira guero on eta prestu. Halacoec, *dimidiante dies suos*, bere eguna erdizcatzen tuzte, bi erdi eguiten tuzte. Ceren erdi bata, gaztetasuna gaizqui emplegatu haçutzen ere; bertce erdia, çahartcea, ongi akhabatu baitçuten. Eta haur da azquenecotz ongi erdizcatcea, gaichtoa utziric onaren hartcea, londone Pauloc egnin cuen beçala eguitea.

Baiña berriz bertce batçuc, gaztean dira on, prestu, eta debocinotsu, eta çahartcean gaichto eta maliciatsu. Hastean on, eta akhabatcean gaichto, Indas içan cen beçala. Halacoec, *dimidiante dies suos*, erdizcatzen tuzte bere eguna, bi erdi eguiten tazte. Ceren çahartcean gaichto badira ere, gaztean on içan baitciren. Ordea hura da gaizqui, eta gaichtoqui egunen erdizcatcea, ceren onetic gaichtora aldateen baitira. Eta

hanbatic hanbatean gaichtoago eta perilosago da, çahartcean gaichto içaitea, gaztean baiño.

Baiña finean berriz bertce batçuec, *non dimidiant dies suos*: Eztitzte nehoiz ere erdizeatcen bere egunaç. Ceren hala çahartcean nola gaztean, arront baitira bat, bethiere baitira maliciaz eta gaichtaqueriaz orobat. Eta halaco hec ikhusten dutenean bere egunaç laburtu burran çaitzela, heriotcera hurbiltzen direla, contu eman behar dutela: orduan, pagatçaille gaichtoec eguiten dutena, escatuco dira ephe eta luçamendu guehiago: *In die redditionis postulabit tempus*. (1) Ordea nola iraganaz contu charra eman baituquete, eztira ençunac içanen; etçaye hequen promesey sinhesteric emanen, ezta hequen erranetan nehor guehiago fidatuco. Hala erran çuen Ainguiruac ere, Gaiñecoaz cin eguinic, etcela içanen guehiago demboraric, akhabatuco cirela gueroco guero guztiac: *Juravit per viventem in secula, quia non erit tempus*. (2)

Eguin ahal deçaquegu nahì beçanbat, edo shal beçanbat enseiu eta itçul-inguru, baiña azquenean, eçin ihesic daidiquegun demborara eta pontura herstu eta bildu beharco dugu. Hala kontateen du san Gregorioc, ecen Chrysaorio ceritan guicon gaichto batec, bere azquen orenera cenean, egun ahal citçan othoitiz guztiac egninagatic, ecin erdietsi çuela biaramuneco laçamendua: *Cœpit magnis vocibus clamare: inducas*

(1) Eccli. 29.

(2) Apoc. 10.

vel usque manè, inducias vel usque manè; sed cum clamarerit, in istis suis vocibus de habitaculo suæ carnis evulsus est. (1) Herioac tincatu çuenean, herstu ce- nean, nahi çuqueyen aphur bat luçatu, nahi çuqueyen biharamun arteraiñoco dembora irabaci; ohoitz eta oihu egun çuen: egun baten tregoaaren, ephearen es- catu cen: bihar arteraino bedere, bihar goiz arteraino bedere indaçu ephe, cioen. Baiña guztiac alferrie; oi- huz eta ohoitcez cegoela, bere egunaç akhabatu eeitz- can, arimac egun ceraucan, eta socalacotz danatu cen.

§ 4.

Beraz hunelatan, batere centeu onic baduçu, eztuçu guerotic guerora ibili behar; eztuçu aitcinerat gue- hiago demboraric galdu behar. Aitcitic lehen galdu duçuna, behar duçu orai coberatu eta erremediatu. Ordea nola edo cer moldez erremedia ahal diteque eta cobera? Ceren ioana ioan da, ezta haren bihurtcerie, eta ez escuetaratcerie. Ihardesten du san Gregorioe hitz gutiz, eta laburzqui: *Tempus redimimus, quando anteactam vitam, quam lasciviendo perdidimus, flendo reparamus:* (2) Dembora iragana reseatalcen eta gueuretacotcen dugu, noiz eta bicitce gaichto ira- gana, irriz eta placerez galdu guenduena, nigarez eta desplacerez coberateen eta erreparatcen baitugu. Erran nahi du: dembora iragana, gaizqui emplegatu guen-

(1) Greg. hom. 12. super Evang. et liber. 4. dial. cap. 38.

(2) Greg. lib. Moral. cap. 28.

duena, escuetaric ioan ceicuna erdietsten dugu, orduco placeren ordain, orai desplacer dobleac harten ditogunean, orduan egun behar guinituen onguia, eta orai egun behar ditugunac, orai eguiten ditugunean. Haur da san Thomasec ere, satisfacioneaz mint-ço dela, erraiten duena : *Quamvis homo non possit tempus præteritum recuperare, potest tamen recompensare, illud quod in præterito fecisse debuisse* : (1) Gniçonac dembora iragana ecin cobera badeçaque ere eta ez hi-hur ; ordea erremedia deçaque iraganeko falta, iraganean egun behar çuen onguia egniten duela ethorquiçunean. Baldin iraganean meja bat ençun behar bacenduen, eta ez lura ençun ; cofesa hartaco bekhatua, baina cofesa eguiazco urriquiarequin, eta guero ethorquiçunean dobla, ençun bia. Baldin iraganean egun hatz barurtu behar bacenduen, eta ez barortu ; lehenic cofesa hartaco bekhatua, eta guero ethorquiçunean dobla, barur bi egunez. Halatan dembora iragan gaizqui emplegatua, egun ahal ditequeyen moldean rescatatzen, coberatzen eta erremediatzen da. Bi orenen bidea iragaiteco duçunean, eta oren hetaric bata alferquerian, ian-edanean, eta arloterian iragan duçunean ; cer erremedio ceure bidearen mugaz eta ilhundu gabe erdiesteco ? Guerthatu çaitçun saltaren estalceco ? Cer ? — Guelditzen çaitçun oren hartan, hain cinez, eta laster abiastzen çara, non bi orenen bidea, hatz eguiten baituñu, eta halatan erremediatzen

(1) S. Th. in addition. q. 15. ar. 1. ad. 4.

eta estaltzen ceure leheneco falta eta alferqueria. Bada molde hunetan borean çuc ere ceure dembora, huneraiñocoan alferquerian eta gaichtaquerian gaizqui emplegatu duçuna, orai ontasonean doblatuz eta laster eginez behar duçu coberatu eta erdietsi. Hala erraiten da, ardiac ere arrats aldean fitetzago ianez bere goizeco guti iana erdiesten duela. Halatan mahastiaren iabeac ere, arrats aldean trabaillatzen hasi cireney eman cerauen hanbat iornal eta alacairu, nola goizetic trabaillatu cireney. (1) Ceren arratsaldean hasi cirenac, hain cinez eta gogotic hariçan ciren, non hec dembora gutiz, bertcec anhitzez beçanbat eguin baitcuten.

Bada haur beror eguin behar duçu çuc ere, bekhatuan çahartua, orai arratsaldean, çaharteean, ceure egunen akhabatcean. Orai baitacusaçun ecen ia, adinaren arauaz, heriotceco portura hurbiltecen çarela, hemengoaz eguin hurran duçula. Orai bada orai behar duçu pernatu; orai behar deraueçun escuey eragun. Orai nori berea errenda, orai etsaigoatic iltqui; orai ethorquiçunean pensa. Orai cin cinez, bihotcezo urriquimendu batequin, eta guehiago ez eguiteco borondatearequin, aitcinetic concientzia ongi iratioric eta examinaturic, osoqui, eta eguiazqui cofesa; cofesatu ondoan, leheneco okhasinoetaric aparta, ez guehiago hetara, eta ez bertce halacoetara itxul. Halatan dembora iragana; hain gauça handia eta baliosa, guerotic

(1) Matth. 20.

guerora ibilteez galdu duçuna, erremedia ahal ditequeyen moldean erremediatuco, coberatuco eta erdietsico duçu.

X.

IAINCOAREN MISERICORDIA.**XLVI CAPITULUA.**

Anhitz halio duela Iaincoaren misericordiae, eta nola behar den hartan fidatu.

§ 1.

ENRAITEN du san Thomasec : *Fiducia est spes robata, ex aliqua firma opinione :* (1) Fidancia da esperantça bat hortitztua, indarztatua, eta ustez ongi fincatua eta seguratua. Duçunean adisquide bat aberatsa, botheretsua, eta ceurre eguiteco guztietañ bethiere fin eta leyal frogatua: halacoaren hitza dirutçat hariceu duçu ; escaintcea, emaitea beçanbat çaitçu : haren promesetan, kheinuetan eta aro ayeruetan ere, fidancia handia daduçaü. Beraz hunelatan arraçoiñequin eduquico dugu gue ere fidancia handia, eta esperantça beroa, gueure Iaincoa baithan, eta haren misericordian. Ceren haren baithan edirenren ditugu areago, abantaillatuqui fidatceco, eta esperantça içaiteco, ahal diratezqueyen segurantça guztiac.

(1) S. Tho. 1. p. qu. 129. art. 6. in corpor. et ad. 3.

guerora ibilteez galdu duçuna, erremedia ahal ditequeyen moldean erremediatuco, coberatuco eta erdietsico duçu.

X.

IAINCOAREN MISERICORDIA.**XLVI CAPITULUA.**

Anhitz halio duela Iaincoaren misericordiae, eta nola behar den hartan fidatu.

§ 1.

ENRAITEN du san Thomasec : *Fiducia est spes robata, ex aliqua firma opinione :* (1) Fidancia da esperantça bat hortitztua, indarztatua, eta ustez ongi fincatua eta seguratua. Duçunean adisquide bat aberatsa, botheretsua, eta ceurre eguiteco guztietañ bethiere fin eta leyal frogatua: halacoaren hitza dirutçat hariceu duçu ; escaintcea, emaitea beçanbat çaitçu : haren promesetan, kheinuetan eta aro ayeruetan ere, fidancia handia daduçaü. Beraz hunelatan arraçoiñequin eduquico dugu gue ere fidancia handia, eta esperantça beroa, gueure Iaincoa baithan, eta haren misericordian. Ceren haren baithan edirenren ditugu areago, abantaillatuqui fidatceco, eta esperantça içaiteco, ahal diratezqueyen segurantça guztiac.

(1) S. Tho. 1. p. qu. 129. art. 6. in corpor. et ad. 3.

Lehenbicicoric, hura da gure adisquide, eta hain adisquide non ceruti lurrera iautsirie, lurrean gregatik, bere etsai guinitnelaric, bere bicia liberalqui eta bolondresqui eman baitzen. Hala erraiten du Iondone Pauloc : *Commendat Deus charitatem suam in nobis, quoniam cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est.* (1)

Halaber hura da aberats eta boheretsu. Ceren ceraua eta lurra, ceruko eta lurreco gauça guziequin, berac, berac eguinac, eta bere escuko haititu : *Domini est terra et plenitudo ejus :* (2) Eguin biteci, erraitearequin, egun citoen ; eta deseguin biteci, erraitearequin, deseguin ditçaque : *Ipse dixit et facta sunt.* (3) Ezta ibilteeric eta ez higuitceric ; ezta iranteric eta ez hasteric, haren nahia eta borondatea gabe : *In ipso enim vivimus, movemur et sumus.* (4)

Bada cintasunaz, bere hitçaren leyal eta iabe içai-teaz, ezta cererranie. *Respicite, filii, nationes hominum, et scitote quia nullus speravit in Domino et confusus est. Quis enim permansit in mandatis ejus et derelictus est? Aut quis invocavit eum, et despexit illum?* (5) Beha çaque munduko nacione eta dierria guzti-tara ; eta édiren-en duque eztela egundaiño Iauna bai-

(1) Rom. 5.

(2) Psal. 23.

(3) Psal. 32.

(4) Actor. 7.

(5) Eccli. 2.

than fidatu denic galdu; eta ez bere beharrean, behar den bidean, hura behartu duenic behar duena gabe guelditn. Halatan erraiten du erregue Davitee: *Jacta super Dominum curam tuam, et ipse te enutriet*: (1) Nahi baduçu çutçaz ongui dohan, eta ongui iltqui dadin, iben etçatçu ccure esperantça, fidantzia, eta ardura guztiac Iaincoa baithan, horen gaiñera egotz etçatçu. Ceren munduko iduriz erremedioric eztuten eguitecoey ere harc edirenena deraue eta emanen buru. Badirudi ecen hunen aditcera emaiteagatic anhitzetan ere utzten gaituela gneure Iaungoicoac hersturatan iartcera, eguitecotan sartcera, eta cerutic baicen erremedioric ecin duquegun beçalaco pontura ethorteara; lurraz, eta lurreco habe, iahe eta sabore guztiez etsituric, cerura eta cerncoetara fidantzia handirequin laster daguigun amoreagatic. Hala erraiten du san Chrisostomoc: *Quando res in maximam inciderit inopiam; tunc tu maxime spera; tunc enim Deus maximam suam ostendit potentiam: non à primordio, sed quando res fuerit plane desperata*: (2) Eguitecoac eguitecotan direnean, galdu ordean dabilçanean, orduan educaçu çuc egundaiño baiño esperantça guehiaago. Ceren orduan, eracutsico du Iaincoac, bere bothere handia: ez eguitecoaren hastean, baiña bai premiaric handienean, eta nehondic erremedioric eziela dirudienean. Ceren orduan da Iaincoaren faborcaren

(1) Psal. 54.

(2) Chrys. hom. 17.

eta laguntzaren sasoña eta puntada. Beraz orduan behar duen çuc Iaincoa baithan, eta haren misericordiau fidatu eta esperanteatu. Eta hala eguiten duçun demboran, eztu ez Iaincoac faltatzen. Aiteitic bere ontasunaren, misericordiaren eta boherearen eracustegatic, orduan lasteregoiten du, orduan hiltzen çaiçu, orduan que pensatu ere etxenduqueyen bidetic erremedio igorteen deratçu; iaquin deçaçun, bertze erremedio guztiac ahitu direnean, harenac hasten direla. Iaquin deçaçun bertze guztiec deus ecin eguinez utci çaituztenean. Iarre badaidiqueyela, eta orduan faboratzen çaituela.

Hala faboratu çuen Ionas Propheta, hirur egunez eta gaez baleac sabelean hiciric erabili çuenean. Hala faboratu eta beguiratu cituen Israëleco semeac ere itsas-bazterrean, erregue Pharaonec, alde guztietaric inguratuaç eta ecin ihesic ceidiñueten beçala, ustez hartuaç eta atrapatuuaç cedutxanean.

Hala faboratu çuen Susanna Legio çaharreco emazte prestu hura ere, falsoqui akhusatoric, harriz iocatcera ceramatenean. Finean hala faboratu çuen Daniel Propheta ere, lehoinen artetic eta boheretic osoric eta salboric athera çuencan.

Norc erran çuqueyen guion bat hirur egunez eta gaez balearen sabelean ibiliz guero, biritie leihorrera itxiko cela? Norc sinhetzi çuqueyen Israëleco semeac, itsas bazterrean, hain herstura handian cirennac, Pharaonen escuetaric itxurico cirela? Eta Pharaon bera bere bohere guztiarequin ithoric han guel-

dituco cela? Nore peusatu çuqueyen Susanna gaich-totçat condenaturic, plaçara galteco atheraz guero, hanbat ohorerequin etcherat bihurtuko cela, eta haren akhusatçailleac eta condenatçailleac, haren lekuan condenatuac eta iusticiatuac icanen cirela? Finean nori gogora citçaicaion Daniel beçalacoa, lehoin goseminduec bere menean eta atçaparren artean eduquiz guero, deseguin gabe, eta iretsi gabe utcico çutela? Hauc dira Iaincoaren miracuilluac, Iaineoac berac eguiñ ahal citçaqueyenac, eta ez bertcec. Eta eguiñ citnen iende hequen faboretan: ceren hec herstura hetan cirenean, bere esperantça guztia, fidantzia handirequin, Iaincoa baithan ibeni baitçuten. Hala ibeni gabez, Israëleco seme Egiptotic iltqui cirenataric, etciren Iosue eta Caleph baicen herri prometaluan sarthu. Ceren guztien artetic, hec biec bai, baiña ez-paitzen bertcec, Iaincoaren promesetan eta erranetan behar cen esperantça, sinhestea eta fidantzia eduki.

§ 2.

Abiatu cen egun batez Iondone Petri itsas gainean, Iesu Cristo bere nabusia gau. Eta abiatu cen bere-hala oiñez, untciric eta chalupatic edo batelic gabe, leihorrean içan bailliz beçala, fidantzia handi batequin, esperantça segur batequin, bere Iainco nabusia gana cihoanz gueroztic, haren faborearequin batean, itsasoac iasanen çuela, etcela ithoco eta ez hondatuco. Eta etcen ez enganatu: ceren fidantzia harc iraun ceraucan bitartean iasan çuen itsasoac, etcen ondors,

leihorrean beçain segurqui eta gogortqui siocateen cituen oïñac. Baiña guero haice bat iaiquiric, itsasoá handiteen eta haseretcen hasi cenean, hasi cen hala ber londone Petri ere iciteen, ikharatcen, dudatcen, esperantçaren eta fidantciaren galtzen. Eta nola baitciboan dudatuaz eta fidantciaren galduaz, hala cihoan itsasoan barrena ere sartuaz, estaliaz, eta hondatuaz: halaco moldez ecen azquenean, guztiz honda etcedin, bere nabusiac escua goiti eduquitceco eman behar iéatu baitceraucan, erraiten cioela: *Modicae fidei quare dubitasti?* (1) Ha! sede aphurreta, fidantzia gutitacoa, cergatic dudatu duc? Gergatic ezhaiz leheneco gogoan, eta sinhestean cin egotu? Fidantzia içan çuen bitartean, ongui ioan ceican, orduan iasan çuen itsasoac. Baiña fidantzia hura saltatu ceicanean, saltatu ceican itsasoari ere iasaiteco eta sostengatceco indara eta botherea. Halatan erraiten du erregue Davitec: *Qui confidunt in Domino sicut mons Sion:* (2) Iauna baithan fidatcen direnac, Siongo oibana eta mendia beçala içanen dira: hura beçain fermo, fintco, segur eta borthitz.

Beraz hunelatan anhitz balio du esperantçae, indar handia du fidantciae, hain handia ecen baitirudi aseo içanen dela fidantzia hura bera, bat bederaren, egutecotan denean, eta guztiz ere bere azquen finean, gaichtoago hada ere, salbatceco eta bide onean ibent-

(1) Matth. 14.

(2) Psalm. 124.

ceco. Ez horrelacoric. Hala iduriagatic, ezta hala, ezta fidantzia bera asco içanen. Ceren eguna da, anhitz batzua du fidantziac, indar handia du esperantçac. Ordea aditzen dela neurri, soberania gabe. Ceren soberania guztiac dira gaichto, lunen ondoko capituluau agmerico den beçala.

XLVII CAPITULUA.

*Jaincoaren misericordian fidatnric eztela penitentzia
eguitea gueroço utzi behar.*

§ 1.

ERRAITEN du san Agustinec, Jaincoaren misericordian sobera fidatzen direnez mintzo dela, erraiten dutela halacoec : (1) Misericordios da Jaincoa, bihotz-bera, amorioz eta ontasunez bethea; beraz eztuguer lehiaturic obra onen eguitera. Ceren berdin ezta deusen perilic, orobat da hihar, oro bat da guero. Abal duquegu esperantza, fidantzia, eta segurania bicitze lucea emanen deracula; eta noiz nahi den, çahartcean eta are hiltceracoan ere, gneure bekhatu guztiac barkhatuco deranzqnignla. Ceren hain gauça onae, misericordiosac, bihotz berac eta amoltsuac, ezliaquitque bertcela eguiten, ezliaquitque nehorri gaitzic emaiten.

Guregatic erutic lurrera iautsi cen; guregatic bicia eman çuen, gorputzeco odol guztia isuri çuen; eta

(1) Vide Aug. de vera et falsa poenit. cap. 4.

ceco. Ez horrelacoric. Hala iduriagatic, ezta hala, ezta fidantzia bera asco içanen. Ceren eguna da, anhitz batzua du fidantziac, indar handia du esperantçac. Ordea aditzen dela neurri, soberania gabe. Ceren soberania guztiac dira gaichto, lunen ondoko capituluau agmerico den beçala.

XLVII CAPITULUA.

*Jaincoaren misericordian fidatnric eztela penitentzia
eguitea gueroço utzi behar.*

§ 1.

ERRAITEN du san Agustinec, Jaincoaren misericordian sobera fidatzen direnez mintzo dela, erraiten dutela halacoec : (1) Misericordios da Jaincoa, bihotz-bera, amorioz eta ontasunez bethea; beraz eztuguer lehiaturic obra onen eguitera. Ceren berdin ezta deusen perilic, orobat da hihar, oro bat da guero. Abal duquegu esperantza, fidantzia, eta segurania bicitze lucea emanen deracula; eta noiz nahi den, çahartcean eta are hiltceracoan ere, gneure bekhatu guztiac barkhatuco deranzqnignla. Ceren hain gauça onae, misericordiosac, bihotz berac eta amoltsuac, ezliaquitque bertcela eguiten, ezliaquitque nehorri gaitzic emaiten.

Guregatic erutic lurrera iautsi cen; guregatic bicia eman çuen, gorputzeco odol guztia isuri çuen; eta

(1) Vide Aug. de vera et falsa poenit. cap. 4.

odol hartçaz, bere Aitaren eta gure arteco trabua eta etsaigoa khenduric, bekhatuaren çerra osoqui iusticiaren arauaz pagaturic, eta gathibutasunetic ere atheraric libertatean ibeni guinituen. Eta Iaincoac hune-laco gauçaric egun baiño lehen, legue çaharrean ere, gaichtoac berac condenatcen ciren eta ez berteerie. Beraz orai eztira gaichto guztiac ere condenatcen, edo gaichtoac errazqui ontzen dira. Ceren berteela cer differentia liçateque leheneco demboratik hunetara ? Edo cer probetelu guenduque gue, Iaincoaren mundu hunetan ibiliaz eta penatuaz ? Eta Iaincoac berac erran baçuen ere : *Multi sunt vocati, pauci vero electi :* (1) Anbitz direla deituac, baiña gutiac hautatuac : bargatic eztugn gue guiristinoc cer iciturie. Geren guiristonoric haicen ezta salbatcen, eta gutiac dira guiristinoac, guiristino eztirenen aldean. Eta hala erraiten denean anbitz direla deituac, eta gutiac hantatuac, aditzen da Lentilac, Mairuac, Turcoac, Induac, Luteric, eta mundoço bertze guztiac direla deituac : baiña gutiac, guiristinoac berac hautatuac, eta ez berteerie.

Hunela, dio san Augustinec, erraiten dutela iende suerte batñec ; baiña parteric guehienean erraiten dute gaizqui eta gaichtoqui. Minçatee molde haur gure etsai gaichtoaren buruan pensatua da, eta handic iltquis. Ceren orai, Iaungoicoac heriotcea errecibitzuz guero, errazago bada ere salbatcea eta bekhatuetaric iltquitcea lehen baiño, ordea orai ere iltqui behar

(1) Matth. 20.

da, ezta erraztasun haren esperantçan bekhatutuan egon behar.

Nola etsai gaichtoac, gure Iainçoari berari, temploaren gaiñera tentatcera eraman enenean, erran baitcioen : *Mitte te deorsum* : (1) Egotz ceçala handic bera bere burua; ceren berdin ainguiruec iasanen çutela, min harcetic beguiratuco çutela. Hala erraiten deraten çuri ere orai : egotz açon ceñre burua gogoan darabillaçun bekhatu horretan, obra eçaçu, ceñre desira compli eçaçu, etçaitçala densem ere guibela. Ceren berdin nola Iaincoa baita hain on eta misericordios, etçaitçu urriquituco, etçaitçu calteric ethorrico. Çuregatic bicia eman çuenac, hanbat pena eta trabaillo iragan çuenac, eztu ez hec guztiac alfer guertha ditecin nahico, etçaitu galtcera utcico. Egotz eçaçu beraz ceure burua, eguiçu bekhatu, fida çaiteci, etçarela deusen beldur.

Haur da deabruaren hitzontza, haren escolan iracurtua, han ereiña, eta handic banatua. Iaincoaren misericordiatic, ontasunetic, eta passione sainduaren meritutic eta baliostasunetic nahi duçu hartu okhasino eta ausartcia bekhatu eguiteco, eta bekhatutuan egoiteco! Hain da itsustasun eta itsutasun handia, eta iende galduen contua hanr, ecen gure Salbatçaillea arrenkuratu czpacen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezcoaz, arrenkuratu eta senticortu baitcen bidegabe hunetçaz, erraiten çuela : *Supra dorsum meum*

(1) Math. 4.

fabricaverunt peccatores, prolongaverunt iniquitatem suam : (1) Ene sorbalden gaiñean eguin çuten egur bekhatoreec, hau bere gaichtaqueria hedatu, luçatu eta çabaldu çuten. Erran nahi du : gaichtoec bere gaichtaquerien eguiteco, eta hetan luçaro egoiteco, harcen dituzte cimendutçat eta okhasinotçat, nic neure sorbalden gaiñean erreccibitu nituen açoteac, colpeac, penac eta oihaceac. Eta hetan fidaturic, hetan esperantçaturic eta contu equinic, berdin nic hequengatic pagalu nuela, ausartateen dira bekhatu eguitera eta bekhatutan egoitera, erraiten dutela : misericordios da Iaincoa, maite gaitu, onderiztu, bereac bere odolaz erosiac gaitu; men menera gaitecinean, ezliaçagu falta : beraz har deçaquegu escu eta licentzia cenbait bekhatuaren eguiteco. Erran behar da misericordios dela Iaincoa, hunelaco ahopaldiak, hunein itsusiac pairatzen dituenean.

§ 2.

San Basilioc bertee hitzuntza batez usatzen du, gauça hunetçaz mintxo denean, erraiten duela : *Nam et ille misericordiam cum judicio exhibet, qui in pondere, numero et mensura admittit cujusque merita et appendit :* (2) Ezadilla nehor Iaincoaren misericordian sobera fida. Cereu nola laungoicoac gure obra guztia, contuan, pisuan, eta neurrian contateen, pisat-

(1) Psal. 128.

(2) Basilius, hom. super psal. 32.

cen eta neurtecn baititu : hala bere misericordiaz ere, contuz, pisuz eta neurriz insticiaren arauaz usatzen du. *Mel invenisti comedē quod sufficit tibi, nē forte satiatus evomas illud,* (1) dio Spiritu Sainduac : ediren duçu eztia, ian ecazu bada neurri, asco duçun beçain bertce eta ez guehiago, ase-eguric, okha ezlaguiçun, ahotic bilur esteçaun.

Iusticia min da eta garratz, eta misericordia goço eta eztii. Ordea eztii hartaric, eztii içanagatic, eztii sobera ian behar ; eztia misericordiaren eztitasunean fidaturic, bekhaturic eguin behar. Ceren hala eguitas eztii sobera iatea da.

Ne dicas miseratio Dei magna est, multitudinis peccatorum meorum miserebitur : miserocordia enim et ira cito ab illo proximant : (2) Ezterraçula misericordios dela Iaincoa, eta ceure bekhatu guztiac barkhatuco derauzquitçula. Ceren misericordia eta iusticia hurbil dagotça Iaincoari eta elkarri, eta iusticiac bekhato retara daduca beguia. Misericordiaren eztitasunari behatzen dioçun beçala, behatu behar dioçu iusticiaren garratzasunari ere. Ceren Iaincoa hain da iusticiati uola misericordios. Misericordia eta iusticia berdin dira pisuan, berdin dira balantçan.

Eguia da san Thomasec dioen beçala, *Magis proprium est Deo misereri et parcere quam punire, propter ejus bonitatem infinitam, illud enim secundum se*

(1) Pro. 25.

(2) Eccli. 5.

Deo convenit, hoc autem secundum nostra peccata : (1)
Placentago eta laqueta go  aica Iaincoari misericordia,
iusticia bai o, eta bai barkhatzea ere, gaztigatcea
bai o. Eta halatan usatcen du anhitzetan ere bere mi-
sericordiaz, gue mereci gaberic, bere ontasunagatic.
beragatic; bai a ez iusticiaz eztu behin ere usatcen,
gue lehenic gueure bekhatuez hartara behartu gabe.
Ordea i aiteaz denaz be anbatean, bada Iaincoa bai-
than hanbat iusticia nola misericordia : nola aguerico
baita bertce munduan, hemengo dembora misericor-
diazco haur iragan dadinean. Hargatic erraiten du
Propheta Davitec : Misericordiam et justitiam cantabo
tibi Domine : (2) Iauna, misericordia eta iusticia can-
tatuco derauzquit ut, biac berdin, hain ongi bata
nola bertcea.

Misericordiaz soilqui eta bakharric, iusticiaz contu-
 ric eguin gabe, mintxo denac, eztaqui cer miniko den,
 eztu halacoac iusticiaren handitasuna ikhusten. Eta
 ikhusa u nola eztuen ikhusten Gue dio u misericor-
 dios dela Iaincoa, eta ongi dio u. Bai a gue Iaincoa
 misericordios dela dio un horrec, aditu behar ditut o
 aphurbat iusticiaren tornuac eta colpeac ere, hec adi-
 torie fidantzia erhoac utz dit at un amoreacgatic.

§ 3.

Iusticiaren lehenhicio colpes eta desarra i an cen

(1) S. Tho. 22. q. 21. art. 2.

(2) Psal. 10.

goitian, ceruco Ainguiruetan, Luciferren eta haren lagunen gaiñean. Ceruco Ainguiruric ederrena, abantailatuena, eta Iaincoaren adizquideric handiena, egotzi cuen iusticiac, urguillutasuneco bekhatu batengatic, secula singabecotçat, infernuco peneetara. Eta Ainguiru guztien lehena, sitcindaria eta aguintaria, egun cen Deabru, eta Deabru guztien burnçagui, guidoin eta capitain. Cen ederrena egun cen itsusienic, bere gogarena gaizquieric; onhetsiena gaitzetsienic, eta gorena beherenic. Halako suertez non Esaiaz Prophetae hain iautsapen handiaz miretsiric, galdeguiten baitio Lucifer berari: *Quomodo ecidisti Lucifer qui manè oriebaris?* (1) Nola erori cinen Lucifer? Nola erori cinen articarra, goizean goiz, oillaritean sorteen eta ilquitzen ohi cinena? Hain gora cenenndecina? Handia eta icigarria içan cen cernan iusticiac egun cuen colpe hura.

Baiña egun cuen lurrean ere bertee bat, ez bere aranaz atseguinagoa baldin erremedioric ordenato ezpalitzaica, ecin baita Adanen bekhatuari eman ceiccan goztigua. Ceruan Luciferrec herac bedere egun cuen bekhatu; eta ezta miresteko nor bere bekhatuagatic penatcea. Baiña lurrean bertceren bekhatuagatic, Adanenagatic, haren ondoko guztiac, are sortu baiño lehen, bere amaren sabelean pitzen diren pontuan, diren bekhatore eta hobenduri; eta hanbat urtheren burnan eztaquion ahantz Iaincoari bekhatu

(1) Isa. 14.

hura, nore eztu miretsico? Cer ahal dategne iusticia bortitzagoric?

Misericordios da Iaincoa, eta bere misericordia guztiarequin, beha dagoca ifernuan dagoen bat: ikhusten du, eta ikhussico du nola milla urthez eta hamar milaz penatzen den. Eta guztiarequin ere, hala ikhusiagotic ere, han bere lekuan utzten du. Etxaica batere hihotzic hautsten: etxaica batere hala dagoen onbeharra unrialtzen. Aitctic atseguin hartzen du ceren hala penatzen den, eta nahi du pena dadin, eta are handic ilquitceo esperantçaric gabe pena dadin. Gogortasunaren handia! Iusticiaren bortitza! Çue dioçu misericordios dela Iaincoa; baiña hunetan badirudi, iusticiatiago dela; eta iusticiac garhaiteen duela misericordia. Eta arraçoiñequin dirudi hala. Ceren ezpaita bertze munduan içanen gaichtoentçat misericordiaric.

Misericordios da Iaincoa, baiña erran behar da iusticiati ere badela. Ceren munduari barkhatcerca ecin deusec ere balacatu çuen eta ez amoratu, bere semearren herioteeac baicen.

Misericordios da Iaincoa, eta guztiarequin ere Noeren demboran, çortci presunez bertee guztiac, uholde batez hondatu, eta akhabatu cituen. Halaber Sodoma eta Gomorra, inguruneco bertee hiri batçequin, su bat cerutic igorriric, erre cituen. Halaber Datan eta Abiron, lurrae bere lagunequin iretsi cituen. Eta orduan hec guztiac ifernura ciren. Eta orai ere ifernuratecen dira guiristino eztirenac. Eta beldur naiz guiristinoetaric ere guehienec bide hura bera harteen

duten ; eta erraiten denean, *anhitz direla deituae eta gutiac hautatuae*, guiristinoez ere orobat aditeen den. Ceren non da guiristinoric, guiristino beçala biciteen denic ? Behar den bidean Iaincoa landateen eta cerbitateen duenic ? Haren manamendu sainduac beguiratzen dituenic ? Edo bere nahicunde gaichto baten complicitic, Iaincoagatic guiblatecen denic ? Othe da munduan bat ere halacoric ?

Bai bada cenbait, ceren Eliça ecin dateque gabe ; ordea guti. Eta halatan Escritura sainduan comparatzen dira guiristino onac, harri preciatuequin, adicera emateagatic, harri preciatu beçala, guiristino on ere guti dela, batac beçain bertceac direla gaitz edireiten. Eta nola bertce harriatarie baita preciatnetarie baiño francoago ; hala dela halaber condenatnetarie ere salbatuetarie baiño guehiago. Salomonec dioen beçala : *Stultorum infinitus est numerus* : Erhoen contua infinitu da, infinituquin auhitz condenatzen da.

Bada baldin anhitz condenateen bada, guiristinotaric ere, cergatic cu ere, guiristino içanagatic, etçara beldur içanen condenataetarie bat guertha çaitecin ? Oraiñocoau, anhitz egotzi du Iaincoae ifernura, cergatic bada etçaitu cu ere egotzico, baldin egotzi dituen hec beçala biciteen baçara ? Uste duçu çuretçat legue berri bat iarrico dela ? Uste duçu, Iaincoa han goitian, cu gabe ecin iragan ditequeyela ? Edo cu ez haratceaz bere loriatic galduco duela ? Cer burupe, cer pribilegio edo abantail duçu çuc orai, ifernuan daudenec bere demboran çuten baino guehiago , bal-

din hec beçala bicitcen baçara, ez hec beçala haratceco, edo handic escapatceco? Eta baldin Iaincoaren misericordian fidatcen baçara, eztuço usté orai ifernuan diren hec ere, bere demboran fidateen cirela? Iaquiçu ecen misericordiac instuey loria beçala, iusticiac ere gaichtoc y ifernua emaiten derauela.

§ 4.

Ceren laineoa den bihotzhera eta misericordios, ezta ez hunetaric hartz behar okhasinoric eta ez escudantciaric bekhatu guehiago eguiteco. Ceren hanr ligateque, contra-poçoinaren poçoin eguitea; Iaincoaren misericordiaz eta ontasunaz contrara usatcea haren maithateeoo behar orduan, errazquiago haren ofensatceco; eta bai misericordiaric ezten lekhuan ere oinen permateeco perilean iartrea. Badira bisera batçue, hegwi-orlethaillu batçuc, ceiñec gauçac diren baiño handiago iduri araciteen baitituzte. Eta guertha ditequeyen casua da halaco biserequin çubi batetaric iragaiten carela, çubia den baiño handiago idurituric, eta çubiric ezten lekhuan oinac emanic, eror baitcendezque çubi azpico hosinera, eta han itho eta honda. Bada ceruco loriara iragaiteeo çubia, misericordia da; eta baldin misericordiaren çubi hunetaric iragan nahi baduçu çuc, ausariquiegui, fidatuquiegui, esperantça erho baten biserac iauntsiric, eta idurituric ecen, ceren careu guiristino eta Iaincoa ere den misericordios, hargatic heragatic ere salbatcuç carela, engana ahal cindezque eta misericordiaren çubiric ezten

lekuuan, esperantzen oīnac ibenirie, iusticiaren ho-sinean eror ahal cindezqne. Ceren Iaincoaren misericordia infinituqui handia içanagatic, ezta ez aditzen, eta ez handic seguitzen handitasun harc curi bekhatu eguiteco okhasinoric eman behar deratçula. *Non sic est Deus misericors, ut sit in justus,* (1) dio san Augustinec : Ezta Iaincoa halako moldez misericordios non iusticiari bidegaberic eguin diaçon.

Badio halaber san Augustinec : *Puniamus nostra peccata si querimus misericordiam Dei. Non potest Deus misereri omnium operantium iniquitatem, quasi blandiens peccatis et non erradicans peccata :* (2) Gaztiga ditçagun gueure bekhatnac, daguigun hetçaz penitencia, baldin nahi badugn erdietsi Iaincoaren misericordia. Ceren Iaincoac ecin barkha diaçao bekhatoreari, bekhatutan dagoeiño, hetan atseguiñ harteen dueiño, hetarie apartatcera delibera arteiño. Ezta Iaincoaren misericordia hain aitcina helteen, eta ez hedatzen. Eta ez hedatze haur, gauçaren ecinquiçuncetic heldu da, eta ez misericordiaren escastasunneric. Ezta erraiten misericordios dela Iaincoa, ceren bekhatutan dabillanari, hala dabillaino, eta ilbitceco gogo dueiño, lausengatzen eta barkhatzen dioen. Ez, ez, eztitake içan misericordios, bekhatore bekhatua maite duenari, eta bekhatuan egon nahi duenari barkhatzeo ; baina erraiten da misericordios dela, ceren bere

(1) Aug. in psal. 39.

(2) Aug. in psal. 58.

bekhatuac behar den bidean utziric, behar den bidean barkhamenduaren esca elhortcen çaicenari. eta bere abala eguiten duenari ezpaitio faltatcen, eta ez barkhamenduric ukhatcen. Horra cer den eta nola den Iaincoaren misericordios içaitea.

Oh ! bekhatorea, ençuten duçuneau bihotzbera eta misericordios dela Iaincoa, atseguin hartcen duçu ; eta ençunagatic, gaitz, gogor eta iusticiati ere badela, eztuço conturic eguiten. Bada Escritura sainduan, Iaincoae aguincten dituen fabore handi, ezti, goço, misericordiazco hec, instuentçat, ongi, artez eta pres-tuqui bicitcen direnençat dira ; eta mehatchuac, kheiñadurac, iusticiaren garratzlasuna eta gaztiguac gaichtoentçat, çure eta çu beçalacoentçac. Cer erho-queria da bada haur ! Çuretçat diren mehatchuez eta gaztiguez eztagiçun conturic ; eta çuretçat eztiren misericordiazco solhasez har deçaçun atseguin ? Mi-sericordia instuey, penitentey, çu ez beçalacoey dagote. Eztuço que, bekhatutan çauderaiño, harten parteric ez ikhusquiçunie ; eztuço orduan Iaincoa misericordios dela ençunagatic, cer bozturic. Ceren orduan, iusticia bai, baiña misericordia ezta çurequin mintxo , ezta orduan çure. Aparta çaité bekhatutic, eta içanen da çure, aparta çaité bekhatutic eta içanen duçu harten parte. Baiña anarteraiño, bitartean, iusticia educaçú ceuretçat, eta ulzaçu misericordia bere bekhatutaric apartatcen direnençat. Ceren bertcela debecuan nahi dituço escuac sarthu, bertceren çucena nahi duçu ceu-retu eta goratu.

§ 5.

Erranen duçu, bethi dela on esperantça, bethi behar dela eduqui fidantzia. Eta ongui dioçu, egui da, hala da. Ordea noiz, eta nola bethi? Bekhatu egunez guero urriqui denean, baiña ez eguitaracoan.

Ezta Iaincoaren misericordian fidaturic behkaturic eguin behar. Susanna emazte saindu harc nahiago çuen, iende gaichto batçuen escuetan erori, Iaincoaren misericordiaren menean baiño : *Melius est mihi incidere in manus hominum absque peccato, quam peccare in conspectu Domini.* (1) Aldiz errege Davitec nahiago çuen, iendequin baiño, Iaincoarequin ibarduqui, nahiago cituen bere ongaitzac harequin iragan : *Melius est ut incidam in manus Domini, quam in manus hominum.* (2) Eta biec, hala Davitec nola-Susannac, ceramaten contu ona. Ceren Susanna con behkatu eguin gabea, eta Davit behkatu eguna. Eta behkatu egunez guero, Iaincoarequin behar da iharduqui, hara laster, han fida, haren misericordiatic behar da erremedio. Nola Cesarec condonatua appellatu baitcen Cesar beragana, Cesar haserretuaganic Cesar ez haserretua gana: hala behkatoreac ere behar du appellatu Iaincoaganic Iainconagana : Iainco insticiazzoaganic Iainco misericordiazeoagana. Bekhatu egunez guero, ezta bertce bideric, ezta bertce erremedio-

(1) Daniel, 13.

(2) 2 Reg. 24.

ric. Ordea nehor bekhatu egun gabea denean, nola baitzen Susanna, hobe da eguitocoen alde hunetaric eguitea : hobe da guijonequin iharduquitcea eta heta-ric ethor ahal daquidicaion calteari iguriquitcea, ez en laineoa baithan eta haren misericordian fidaturic, bekhatu eguitea.

Baiña çuc contrara eguiten duen. Cer içanen baita ere ethorquiçunaz, guero Iaincoaren misericordiara ihes eguinien baduñen ere : orai, escuen gainean, pre-sentean, eztuñu, bekhaturic ez eguiteagatic, placeric utci nahi, eta ez penaric hartu : nahiago catçaitça ethorquiçuneco peril handiari, eta gaitz bortitzari iarr, presenteko trabaillu aphurrari haiño. Eta cerc eguiten du haur? Sobera fidatzeac, ustequeriac berdin guero Iainco misericordiosac guziac barkhatuco derauzquitçula eta erremediatuco. Contuaren gaichtoa, fidantziaren erhoa!

Fidatzen çara, bekhatu eginez guerozeo calteac erremediatuco dituela Iaincoac, eta etçara fidatzen, eta ez orhoiteen, erremedia ahal ditçaqneyela halaber, bekhaturic ez eginez ethor daquidizquetçun beldur çaren atsecabeac eta eguitocoac. Behar eztenean fidatzen çara, eta ez behar denean. Behar eztenean iduritzen çaitu Iaincoaren misericordia handi, eta ez behar denean. Hamar ezcuturen behar çarenean, edo bertee premia bat eta escastasun bat duçunean, etçara fidatzen, eztuñu esperantçaric, prestuqui bicitzen çarelaric, eta bekhaturic egun gabe egoiten çarelarie, ceure premia eta escastasuna estal ahal diaçaiçula

Iaincoac. Eta hala ceure esperantça gabearequin eguiten duyu bekhatu, ebatsten duyu, eguiten duyu ohoinqueria bat. Eta eguiten duyu ohoinqueria hura esperantçaz, guero berdin Iainco misericordiosac har-khatuco deratçula hartaco bekhatua. Itsutasunaren handia! Orai Iaincoarequin adisquide çarenean, bekhaturie gabe çaudenean, oztuu esperantçarie Iaincoac çuregatir deus daidiqueyela, çure premia estal deçiqueyela; eta guero etsai çarenean eta bekhatuz bethea çaudenean, duyu fidantzia, guztiac barkhaturie, bere garacia eta loria, bain gauça handiac, baliosac eta erdiesteco gaitzac emanen derauzquitçula. Gauça errazean etçara fidateen eta bai gaitzean. Bekhatu eguiten duenarentçat daducau Iaincoa handi, cabal, franco, gori, liberal: eta bekhaturie eguin gabe, prestuqui bicitcen denrentçat, estimatcen duyu dela hertsi, mebar, escas eta abaricios. Beguiräcu, guztietañ çabiltça nahasia, errebelatua eta huts eguina.

§ 6.

Ez huts eguiteco, behar beçala esperantça eta fidantzia içaiteco, cer eguiñ behar da? Ihardesten du erregue Davitec: *Sacrificate sacrificium justitiae et sperate in Domino.* (1) Erran nahi du: Eguiçue ongi, ahalez obra onetan emplega çaitezte, eta guero orduan duçuen launa baithan esperantça. Ceren bertcelaco esperantçae deus guti balio du.

(1) Psal. 4.

Egun batez ethorri ceitçan fray Gil saindnari laun batzen bisitatcera. Eta bere bisita akhabaturic, partitceracoan erran cioten, arren ceguiola Iaineoari hetçaz othoitz. Ihardetsi cerauen fray Gilec : Aiteitic Iau-nac çuec egnioque nitçaz. Ceren nic baiño çuec sin-heste eta esperantça guehiago duçue. Ordean, nolatan ahal dateque hori horrela ? diotsate iaunec ; ceren gu gabiltça munduan barrena sarthuac, abertstasunez be-theac, atseguinez eta placerez gainez eguinac, eta cu penitencietan, obra onelan, mundocon eguitcoetaric campoan, eta guztiarequin ere dioçu sinheste eta es-perantça guehiago dugula çuc baiño ? Bai, ihardesten derane ; ceren çuec bicitcen çareten beçala, bicitcen caretelaric ere, alegueraqui deusen beldur gabe, sal-balceco esperantça eta esportçu handi batequin çahilt-cate ; baiña ni beldur naicela, ikhara diraquidala, ce-ren bekhatore baiñaz. Beraz hunelatan, çuec nic baiño esperantça eta sinheste guehiago duçue.

Ikhnsico duçu, iende thaillu batçnec, maliciaric eta enganamenduric baicen eztirenec, den saindueuac baiño buruac gorago dituztela, eta salbatceco es-pe-rantça guehiago dutela : halaco moldez, ecen ethort-cen çarenean halacoequin minçatcera, erranen baite-ratçule, eztecaquetela bere esperantça çurcarequin truca : eztaducatela nehor ere bere buruac baiño sain-duago, eta ez prestuago : nor nahi den beçain ongi Iaincoari gomendatcen çaitçala. Eta bitartean behar-rietaraiño bekhatutan barrena sarthuac daude, Itsuta-sunaren handia ! Deabruaren engamendua ! Uste bai-

tote, eta uste baituçu, bekhatutan çaudelaric, parabisua emanen çaitçula, misericordia egunen çaitçula: hori da, Iaincoaz, eta Iaincoaren misericordiaz escarniatcea: hori da esperantça esperantça gabea, fidantzia erhoa, gaiñez eguna, soberaniazkoa. Eta ezta ez hori fidantzia ere: baiña hori da, susartzia, presuncionea, nahi-erhoa, eta misericordia hiltzen den baiño aitcinago, çure desiraren hedatcea. Are guehiago, hori da Spiritu Sainduaren contra diren bekhatuetaric bat. Eta hala misericordiaren esperantçan, bekhatu eguiten duenac, eztu misericordiaric mereci. Ceren halacos, misericordiaren beraren contra baitabilla. Hala emaiten du aditcera san Basilioc, penitenciaz mintço dela: *Qui spe paenitentiae male agit, modum habet maleficentiae, et paenitentia privatus est*: (1) Penitenciaren esperantçan bekhatu eguiten duenac, eztu bide ona hartzen, eztu penitenciarie balia daquion mereci. Eta molde berean erran ahal diteque, misericordiaren esperantçan bekhatu eguiten duenaz ere, eztu hare ere misericordiaric mereci.

Nahî badugu urrial gaquitçan gueure Iaincoari, ençun gaitçan, lagun daquigun, eta eduqui deçan gutçaz misericordia, enseia gaitecin gueure aldetic, gune-re egunbidearen egoitera, bekhatuetaric apartatcera, eta manamendu sainduen beguirateera. Ceren halatan bai, baiña bertcela bertcelaco esperantça guztiac ez-tira esperantça; alfer dira, echoqueria dira,

(1) Basíl. sermo 25. de Paenitentia.

Beraz hunelstan, eztugu misericordiaren esperant-
ean bekhatoric egun behar, eta ez fidantzia hartan
penitencia egitea eta aztura gaichtoen utztea guero-
lokatu behar. Aitctic ceren Iaincoa den hain on, bi-
hotzbera eta misericordios; ceren hain maite gaituen;
ceren bekhatu egun eta berehala ezcaituen gaztigal-
cen, ceren iguriquitzen deracun; eta finean ceren
hanbat ongui eta ontasun eguiten deracun, hargatik
beragatik ere, hartarik okhasino harturik, behar guen-
duque hobequiago haren borondatearen egitera en-
seiatu; eta cerere bekhatu, eta gaichtaqueria oraiño-
coan erabili baitugu, hec guztiak utzirik, prestutasun
batan iartcera deliberatu; eta halako moldez, thailluz
eta araz aitcineral gobernatu, non azquen finean.
Iaincoaren misericordiarequin batean erdiets daçagun
guretxat adelaturik eta prestaturik dagoen bozcarioa.
ein baita ceruko loria.

XI.

IAINCOAREN IUSTICIA.

XLVIII CAPITULUA.

*Nola ifernu o penen consideratzeak behar dituen, que
rotiarrae phitztu.*

§ 1.

NOLA Iaincoac eracutsi baitzen bere botherea mun-
duaren creatcean, iaquintasuna gobernatzean, eta
misericordia erremediatcean; hala eracutsi du, era-

Beraz hunelstan, eztugu misericordiaren esperant-
ean bekhatoric egun behar, eta ez fidantzia hartan
penitencia egitea eta aztura gaichtoen utztea guero-
lokatu behar. Aitctic eren Iaincoa den hain on, bi-
hotzbera eta misericordios; eren hain maite gaituen;
eren bekhatu egun eta berehala ezcaituen gaztigal-
cen, eren iguriquitzen deracun; eta finean eren
hanbat ongui eta ontasun egiten deracun, hargatik
beragatik ere, hartarik okhasino harturik, behar guen-
duque hobequiago haren borondatearen egitera en-
seiatu; eta cerere bekhatu, eta gaichtaqueria oraiño-
coan erabili baitugu, hec guztiac utziric, prestutasun
batan iartcera deliberatu; eta halako moldez, thailluz
eta araz aitcineral gobernatu, non azquen finean.
Iaincoaren misericordiarequin batean erdiets daçagun
guretxat adelaturik eta prestaturik dagoen bozcarioa.
ein baita ceruko loria.

XI.

IAINCOAREN IUSTICIA.

XLVIII CAPITULUA.

*Nola ifernu o penen consideratzeak behar dituen, que
rotiarrae phitztu.*

§ 1.

NOLA Iaincoac eracutsi baitzen bere botherea mun-
duaren creatcean, iaquintasuna gobernatzean, eta
misericordia erremediatcean; hala eracutsi du, era-

custen du, eta eraeutsico du bere iusticia ere gaztigat-dean. Ceren baldin ezpada arraçoin gueldi dadin ber-thutea pagamendu gabe, ezta arraçoin iragan dadin bekhatoa ere gaztigu gabe. Hain ongi dagoea gaich-toari ifernua, nola onari parabisua.

Anhitz, eta handiac dira (orainokoan ere aditcerä emau den beçala) gure GUERO hunec, luçamendutan ibiltzeac, eguiten dituen damuac, eta calteac. Bainan damu guztien gaineko damua, calteric handiena, gal-garriena, eta bertece gntziac chitzen, iragaiten, eta anhantz aracitzen dituena da, egotzten baitu fin ga-bezo guerora, hondar gabeko lecera, seculaco pene-tara.

Etsaigoan çande; aztura gaichtoen gathetan çande; berceren ona goraturic çande: cein baitira hirur be-khatu suerte perilosac; eta benturaz baduñu bekhatu horietaric ilquitceco gogo eta borondate. Ordea noiz? Ez orai, ez egun, bihar, *guero*. Eta bethi *guero*, bethi bihar; horrela çandela, eritasunac har, heriotcea ethor, eta ifernurat eror.

Bada nic ecin ediren deçaquet erremedio hobeago-ric, atriaca finagoric, eta ez medicina seguragoric, *guero* hunen orairatececo, sendatceco eta erremediat-ceco: *guero* hunec beronec eguiten dituen calten consideratcea baino. Oraren autsiquia, oraren beraren illeac behar du sendatu: ifernuko sua, ifernuko suac behar du iraungui. Ezta halako erremedioric, ez *guero* ifernuratceco, nola orai ifernuratea. Guero ifernura ioan nahi eztuenac, orai behar du ioan ifernura. Orai

behar ditu bango penas, hemen, hara gabe consideratu, gogoan erabili, eta halatan handic ibes eguin, itzuri eta escapatu.

Erran comuna da, ezpatac ezpata sar aracilten duela maguinan. Amorioz, eta onez onetara ongurieguin nahi eztuenari, bortchaz eta gaztiguaren beldurrez eragrin behar caica. Ohoina cerc guibelatzen du, guibelatzen denean ebastetic? Ez ahalquecac, ez ne-horengana daducan amorioac: cerc bada? - Beldurrac. Hala laincoaganaco amorioac bekhatu eguitetic guibelatzen eztuena ere, ifernuero penen beldurrac guibelatu behar du.

Eta haur da egundainoz guero gure Iaincoac bekhatore bihotz gogorari, bere gogortasunaren hautsleko eta beratceco, ediren duen erremedio handietaric bat: mehatchatea, erraitea eta gogora ekhartcea, beguira duela, gaztigu pare gabe bat, pena handi iciparri bat harentzat prestatua eta ordenatua dagoela.

Halatan Iondone Ioannes Baptistac, ciaquienac beçala, eguin çuen pontu honetçaz, ifernuero penez, bere lehenbicico predicua, erraiten çuela: *Facite fructus dignos pænitentia. Jam enim securis ad radicem arboris posita est. Omnis arbor quæ non facit fructum bonum, excidetur et in ignem mittetur:* Beguiraut, ne, eguiçue penitencia, eta eguiçue, eguin dituçuen bekhatuen arauaz: *Fructus dignos pænitentia:* (1) Bekhatu handiaegotic penitencia handia. Ceren isquin behar

(1) Luc. 3.

duque ecen haizcora çuhaitzaren erroari kheinatua dagocala ; eta fruituric iasaiten eztuena ebaquia içanen dela eta sura egoitzia. Haur da Iondone Ioannes Baptistaren lehenbicico predicua. Haur da ethorri cenesan, berequin ekharri çuen berria. Eta berri hunequin, hunelaco gaztigus, ifernuco sua gaichtoencat ordenatua cegoela ençutearequin, hain icitu eta ikharatu ciren, ecen presenteco guzliac, are ciren gaichtoenae ere, ethorri baitceitçan galleguitera : *Quid faciemus ?* Cer egunen dugu bada ? Cer içanen da gutçaz ? Nola edo cer moldez escapatuco gara, çuc dioçun pena handi hetaric, ifernuco sutic ? Bada Iondone Ioannes Baptistae . predicari handi harc, ordunan iende hey erraiten cerauena, erraiten deratçegu guc ere orai çuey. Eguia da ez harc beçalaco saindutasunarequin, eta ez borthiztasunarequin, bai ordea harc erraiten cerauena egua bera.

Ceren harc predicateen çuen leguea, fedea eta Iain-coa, predicatcen eta esquiribateen dugu guc ere ; ezta hunetan differentiaric. Erraiten deratçegu guc ere harc beçala . beguira duquela, haizcora çuhaitçaren ondoari kheinatua dagocala ; heriotcearen sega ; onen eta gaichtoen arrontatecoo haiotça çorrotztua eta prestatura dagoela. Eta bihi onac , ceruco hihiteguian ailt-chatuco direla ; eta lastoa, gaichtoae ifernuco labeas, secula fin gabecotçat, sua datxetela egonen direla.

Haur da egua : eta haue dira, gueure laungoicoae aitcinetic eguiten derauzquigun mehatchuac, kheinadurac, eta bere predicariez emaiten derauzquigun abi-

suac, haoquin batean, ici gaitecin, ikharra gaitecin; eta ikharaturic, guero eguiuen dugula diogun ontasuna, presenteou daguigun amoreagatik.

§ 2.

Eguia da ceruco loriaren esperantçac, hango placer handi hequen consideratzeac, alegueratzen du guiris-tinoa, eta bai prestuqui biciteco desira batequin ere ibentzen. Bainaz comunzqui, hobequi uquitzen du bat-hedera, ifernuco penen beldurtasunac, ceruco loriaren esperantçac baino.

Ezcaitu pagamenduac, eta pagamenduaren esperantçac hala aiteinatzen eta alegueratzen, nola guibelatzen eta tristetzen baicaitu gaztiguac eta gaztignaren beldurtasunac. Hunen arauaz erraiten du san Chrisostomoc: *Regni non ita recordamur ut Gehenna. Timor enim promissione potentior est.* (1)

Orhoitu behar dugu parabisuaz eta hango placer handiez: baina areago ifernuaz eta hango pena ici-garriez.

Ceren nola osasunac baino, eritasunac hobequi go-goeta eraguiten baiteracu, eta bai ethorquiçunean ere pensa aracitzen: hala ifernuco eritasunac ere, hango doloren consideratzeac hobequi uqnitzen gaitu eta ait-cinguibel beha aracitzen deracu, parabisuko place-retan placerequi pensalzen egoiteac baino.

Eta haur ezta miresteko: ceren handiac, bortitzac,

(1) Chrys. Hom. 2. in epist. Paul. ad Thess. 2. cap. 1.

eta icigarriac baitira ifernuco pena hec. Hetçaz erran ahal diteque bere moldean, Londone Pauloc cernuco loriaz erran çuena : eztu egundaiño nehorc ikhusi, ez ençun, eta ez gogoan iragan, nolacoac içanen diren. Nola oney emanen çayen pagamendua içanen baita abantailatua, guztien gainecoa : hala gaichtoec içanen duten gaztigua eta pena ere, içanen da pare gabea, alde guztiz handia : hain handia ecen, nola ezpaita içanen atseguinie eta ez placeric salbatzen den batec goçatuco eztuenie : hala ezta ediren penaric eta ez atsecaberic, condenatu batec pairatu beharco eztuenie. Onec on guztiac, gaichtoec gaitz guzliac. Onac bethi ongi, gaichtoac bethi gaizqui.

Eta eguiteco huni bere cinnendutic, eta erroetaric lotceco ; eta halaber iaquiteco cer pena, eta nolacoac içanen diren ifernuco pena hec ; eta cergatice erraiten den, hec direla pena guztien gaincco penac, har deçagun gueure aitcindari san Thomas, doctor handi hura, ceren harequin hatean içanen gara ongi guidatuac, eta mintçatuco gara eguiaren arabera, chuchen eta segurqui.

§ 3.

Erraiten du san Thomasec : *Pæna damnatorum in duo genera dividuntur, quæ sunt pæna ðamni et pæna sensus. Pæna ðamni respondet acversioni à Deo, et pæna sensus conversioni ad creaturam.* (1) Erran nahi

(1) D. Thom. 1, p. 2. q. art. 4. in corpore et 22. q. 79. art. 4. ad. 4.

du : presuna batec eguiten duenean bekhatu mortal bat, bi gauça eguiten ditu : lehenbicicoa, utzten du bere Greatçaillea ; eta bi garrena hartzen du creature ; eta harturic, haren baithan ibentzen du bere gogoa. Gui-belaz itçulteen çaiica Iaincoari eta beguitarteaz creatureari. Eta nola bi gauça eguiten baititu, halatan ditu mereci ere bi pena eta gaztigu. Lehenbicicoa, mereci du utz deçan Iaincoac, egotz deçan here compainiatic, ezteçan seculan haren bekhoquiric eta bisaiaric ikuhs : utz deçan utçaillea. Eta pena haur oïteen du san Thomasec : *Pena damni. Id est, carensia divinæ visionis, carentia divinæ præsentiae* : Iaincoaren ez ikuhs-tea, haren compainiatic eta loriatic seculacolçat cam-poan eta etsaigoan desterraturic egoitea.

Eta haur da ifernuan da oenac iragaiten duen penaric handiena, eta malenconiaric malenconiagarriena. Ceren nola parabisuan dagoenari Iaincoaren ikuhustetic eta haren compainian egoitetic ethortzen baitçaitça ontasun guztiac : hala ifernuan dagoenari ere, Iaincoaz gabeturic, eta haren begui bistatic eta compainiatic desterratua egoitetic, heldu çaitça dituen calte guztiac.

Gauça bat galtzen duçunean damu hartzen duçu. Eta cenbatenaz eta galteen duçun gauça hura baita ho-beago, handiago eta baliosago, hanbatenaz harten duçu damuago, hanbatenaz sentitzenago duçu. Beraz cinez eta arraçoinquin sentitzen duçu, eta damu har-tuko, Iaincoa bera, den gauçaric hoberena, handiena, baliosena, eta çuc beharren cenduena galtzen duçunean. Calte handia da beguietako bistaz, osasunaz,

eta acienda guztiaz gabetcea : beraz cinez iaganen da calte handia, Iaincoaz beraz eguzco gure ontasunaz gabeturie iartcea.

Erregueren lehenbirico semeac, quenez eta ethor-quiz erresuma guztico iaun eta erregue heldu denac, damu har leçaque, erreguetat coroatu eta errecibitx behar duten egunean, egotz halegate desterraturic erresuma guztitic camporat : cer damu, cer despit eta atsecabe errecibitxo du beraz guiristinoac ere, cerruco erresumako herejero eta partale heldu cenae, erresuma hartan sarbu nste quen egunean, athea hersten diotela, eta camporat egoizten dutela dacusanean ?

Presuna bati ceure behar orduan, premia premiaz-coan, gauça baten esca ioaiten çatçaitçanean, damu hartzen duçu, baldin duela daquicularie, hutsic egotzen bacaitu, ezetz erraiten baderatx. Bada ceure az-quen finean heriotceco orenean, behar ordu guztien gaineco behar orduan, cer damu, cer bihotz ukhaldi errecibitxo duen; cer pena, eta atsecabe sentituco duçu, Iaincoac hutsic, behar duçuna gabe, camporat egotz çaitçanean ? *Nescio vos, etcituela eçaguticen,* berandu duçula, eztuçula erremediorie erran diaçânean ? Eta lunela erranic athea herts diaçânean ? Badirudi, lunetan pensatzeac berac ere : seculacolçat musut-huts guelditu behar duela ikhustea, nehori buruco illeac latzten derautçala. Arraçoinequin erraiten du san Chrisostomoc: *Multi hominum Gehennam tantum formidant, ego autem, gloriæ illius amissio-*

nem, Gehenna multo amariorem esse dico : (1) Batçuc ifernuaren dira beldur, eta ez bertceren ; baina niri guztien gainetic, ceruko loriaren galtea iduritcen çait dela garratz eta icigarri, guehienic ni harentçat naiz beldur.

Hunetaric aditcen da Propheta Daviten erran bat : *Ptuet super eos ignis et sulphur et spiritus procellarum pars calicis eorum : (2) Su, susfre, tormenta, eta bertceric anhitz pena emanen deraue Iaincoac condentauey : baina hec guztiac, pars calicis eorum, eztira parte bat bajen içanen, eta parteric tipiena. Ceren guztietaco handiena içanen da ceruko loriatic, Iaincoaren begui bistatic eta compainiatic, secdlacoçat campoan egoitea.*

Hemen erran deçagune cenhajte : limboan dauden haurrec, bateyatü gabe hiltzen direnec, eztute Iaincoaren beguitartea ikhusten eta ez ikhussico ere ; bethi daude eta egonen dira ceruko loriatic desterratuac. Eta guztiarequin ere doctoren errana da ezintela hec penaric içaten, eta ez tristuraric errecibitzen eta ez errecibituco ere. Nolatan dioçu beraz ecen Iaincoaren ez ikhustea, haren compainiatic campoan egoitea dela pena guztien gaineco pena ? -- Ezta gaitz ihardesten : ceren nola limboco haurrac ezpaitaunde han bere saltaz, eta ez bere bekhatuaegatik, eztu nahi Iaincoac duten hec hargatik tristuraric, penaric, eta ez atseca-

(1) Chrys. Hom. 47, ad popul. Anthio.

(2) Psal. 40.

berie. Bainan ifernuan daudenac, nola bere saltaz, maličiaz eta bere presunaz librequi egun cituzten bekhatuagatic baitaude Iaincoaren compainiatic campoan, hargatic, eta Iaincoac ere hala ordenaturic, dute tristura paregabe bat eta atsecabe guztien gaineco atsecabe bat.

Eta haur da bekhatuaren lehenbicico pena eta gaztigua, bekhatoreac içanen duena: Iaincoaren ez ikustea, haren compainiatic eta adisquidetasunetic seculatotçat campoan guelditcea.

XLVIX CAPITULUA.

Bekhaloreac ifernuan içanen duen bigarren penaz eta gaztiguaz, cein deitzen baita: pena sensus: sensuaren pena.

EGUIA da, handia da, Iaincoaren loriatic eta compainiatic campoan egoitetic, heldu den damua, eta caltea. Ordea ceren baitirudi ecen hala egonagatic ere baluqueyela bekhatoreac cerbait consolamendu edo ezlikatequeyela alde guztiz onbehar eta ez osoqui urricalquiçun, baldin nehon minic edo oinhaceric ezpalu: hartaratcotçat bekhalorearen bigarren pena eta gaztigua, bekhatoreac mereci duena eta içanen duena da: *Pæna sensus*, sensuaren pena, su eternala, akhabatuco eztena. Eta pena haur emaiten çaiica bekhatoreari ceren, Iaincoa utziric, itçuli cen creaturetarra: eta Iaincoaz eta haren manamenduez baino, mundoaz eta munduko placerez kontu guehiago egun cuen.

berie. Bainan ifernuan daudenac, nola bere saltaz, maličiaz eta bere presunaz librequi egun cituzten bekhatuagatic baitaude Iaincoaren compainiatic campoan, hargatic, eta Iaincoac ere hala ordenaturic, dute tristura paregabe bat eta atsecabe guztien gaineco atsecabe bat.

Eta haur da bekhatuaren lehenbicico pena eta gaztigua, bekhatoreac içanen duena: Iaincoaren ez ikustea, haren compainiatic eta adisquidetasunetic seculatotçat campoan guelditcea.

XLVIX CAPITULUA.

Bekhaloreac ifernuan içanen duen bigarren penaz eta gaztiguaz, cein deitzen baita: pena sensus: sensuaren pena.

EGUIA da, handia da, Iaincoaren loriatic eta compainiatic campoan egoitetic, heldu den damua, eta caltea. Ordea ceren baitirudi ecen hala egonagatic ere baluqueyela bekhatoreac cerbait consolamendu edo ezlikatequeyela alde guztiz onbehar eta ez osoqui urricalquiçun, baldin nehon minic edo oinhaceric ezpalu: hartaratcotçat bekhalorearen bigarren pena eta gaztigua, bekhatoreac mereci duena eta içanen duena da: *Pæna sensus*, sensuaren pena, su eternala, akhabatuco eztena. Eta pena haur emaiten çaiica bekhatoreari ceren, Iaincoa utziric, itçuli cen creaturetarra: eta Iaincoaz eta haren manamenduez baino, mundoaz eta munduko placerez kontu guehiago egun cuen.

Hala erraiten du san Thomasec : *Pæna sensus respondet inordinatae conversioni ad creaturam.* Pena hinez erraiten du san Matheoc : *Ite in ignem aeternum :* (4) Coazte su eternalera, akhabatuco eztenera. Halaber erraiten du san Matheoc berac : *Excidetur et in ignem mittetur :* Ebaquico da eta sura egotziko da.

Eta eztecaçula ez pensa : ifernuco su hora, hemengo su hauc beçala, içanen dela. Bainha hora, nola içanen baita Iaincoac berac pitztua eta eguna, hala içanen da hemengo suac baino beroago eta goriago ; halaco moldez ecen hemengo sua hangoarequin comparaturic pitratua beçala içanen baita. Eta haur ezta miresteco ceren are hemengo suetan ere differentzia handia da. Sufrezco sua, eta are egurrezcoa ere, beroago eta indartsuago da, lastozcoa baino. Hala içanen da bada halaber ifernuco su hora ere, hemengo suac baino beroago eta bortizago.

§ 4.

Iaincoaren iusticiac eguin du nombait, (ainhitz dotoec diote lurrean bárrena, gure azpian, lurrac duen lekhurric beherenean, centruaren aldean, lorraren hondarrean), lece handi bat, labe gorri bero bat, behin ere hotzten eta iraunguitzen eztena ; alde guztiataric hertsia, atheric eta leihoric eztuena ; condenatu guzlien eduquitceco asco handia, cein baita, eta deitzen baita **IFERNUA.**

(4) Math. 25.

Eta han, ifernu hartsan egonen dira condenatu guztiac, alde guztiataric, campotic eta barrenetic suz inguratuac, sutuac, burdin gorritua dagoen beçala. Eta guztiac elkarrequin eta su batean.

Ordea benturaz dudatuco du cenzaitec eta erranen ere bai: nolatan ahal dateque hori horrela? Nolatan ahal dauteque condenatu guztiac, elkarrequin lekhi batetan, eta su batetan? Ceren ifernuan dauden den artean bada differentia, hatac baino bertzeac bekhau guehiago du; arraçoin da beraz halaber batac baino bertzeac pena ere guehiago duen. — *Secundum mensuram delicti, erit et plagarum modus:* (1) Hobeenen arauaz, içanen da gaztigna ere: *Quantum glorificavit se et in deliciis fuit, tantum date ei tormentum et luctum:* (2) Cenbat atsegoin eta placer hartu baituen, hanbat eta hain bertze desplacer, eta atsecabe eman hequio. Beraz hunelatan eztira condenatu guztiac su batetan berdin egonen. Ceren halo haleule, guztiak berdin eta orobat luquete pena eta guztigu. — Bada ordea su batetan, guztiak berdin, eta elkarrequin egonen dira; eta hargatic bekhau guehiago duenac pena guehiago içanen du. Eta cergatic, eta nola içanen duen pena guehiago, eman ahal ditzque bi arraçoin: lehenbicicoa da san Thomasena, eta baren hitzak herac dira hauc: *Ad tertium dicendum, quod ignis ille est instrumentum dirinx justitiæ punitatis. Ins-*

(1) Deut. 25.

(2) Apoc. 28.

trumentum autem non solum agit in virtute propria et per proprium modum, sed etiam in virtute principialis agentis, et secundum quod est regulatum ab eo. Unde quamvis secundum propriam virtutem non habet quod aliquos cruciet secundum magis et minus, secundum modum praeditum, habet tamen hoc secundum quod ejus actio modificatur ex ordine divinae justitiae. (1) Erran nahi du : iferaueo su hura Iaincoaren insticiaren borreroa, açotea eta muthila da. Eta halatan su harc bere naturaleçaren arauaz hata baino bertcea erratcenago ezpadu ere, bai ordea erratcenago du Iaincoaren insticiaren mithil beçala. Ceren bere nabusiak manatcen duen beçala; bat bederaren alderacotçat, bere berotasuna, eta indarra emplegatu behar baitu. Eta halatan du erratcenago eta penatcenago bekhatu guéhiago duena. Ceren Iaincoac, su haren nabusiak hala nahi baitu.

Bigarren arraçoina : bekhatu hanitz duena eta guéhiago duena, biac daude berdin ifernuco suan. Ordea bekhatu guchiago duen harc, pena guchiago iragaiten du. Ceren hura minberago, senticorago, eta suari ibardesteco eriago, flacoago eta erbalago baita. Bi presuna daude iguzquian : eta iguzqui harc eztio batari deus senti araciten, eztio minic eguiten ? Baino bertceari berehala burua minberatcen dio, iragaiten dio, icerditan ibentcen dio. Ceren hura baita bericea baino flacoago eta senticorago. Haña da bada bekhatu

(1) S. Th. Addit. ad 3. p. q. 97. art. 5. ad. 3.

anhitz duena ere, guti duena baino minberago, senticorago eta suari ihardesteco flacoago. Eta halatan biac berdin su batetan egonagatic, ezlira biac berdin errateen eta ez penatzen : baina bathedera penatzen da bere duen saltaren, eta hobenaren arauaz.

§ 2.

Orai hemen galdeguin ahal diteque, ea ifernuan beroric baicen hotzic içanen denz? Eta bada erraiten duenic, haietz: eta nola ifernuan içanen baita bero handi bat, hala içanen dela halaber hotz handi bat, içotz, horma eta elburaren hotza baino mingaragoa; eta ifernuan daudenac aldatuco direla batetic bertcera, bero handitic hotz handira, eta hotz handitic bero handira. Baina bitartean, batetic bertcera aldateean, etçaiela penaric arindueo. Eta hunela erraiten dutenec harteen dute okhasino, hunela erraiteco, Iob guion saindu haren erran batetaric: *Ad calorem nimium transeat ab aquis nivium, et usque ad inferos peccatum illius*: (1) Bero handira iragan bedi elhur uretic, eta ifernu barrençraino haren bekhatua. Beraz badi-rudi ecen ifernuan içanen dela hotz eta bero, nr eta su.

Baina eguiteco huni ihardesteco, uita Domingo Soto, doctor handi hari iarrai qui nahi nañeaica. Eta haren errasaren eta iduriaren arauaz diot, ecen eztela ifernuan içanen elhurric, hormaric, eta ez bertce hotz

(1) Iob, 24.

suerteric. Ceren gure Salbatçailleac, ifernuaz mintzo denean, eztu behinere aiphateen elhurric, eta ez eguiten orhoitçapenic hormaz, eta ez bertoë hotz moldezel. Aitcitic erraiten deraue gaichtoey : *Ite maledicti in ignem aeternum* : (1) Qozte maradicatuac su eterinalera, akhabatuco eztenera. Ceren hotzetic berora, edo berotic hotzera aldatcecolz, aldatu behar liçateque guchiago penatceagatic. Bainha hartaracolçat ezta hotzen premiarie. Ceren bataz bortitzago baita beroa hotza baino ; eta bertcea ceren, suaz beraz emaiten baitio Iaincoac bekhatoreari, bere dagocan gaztigua. Beraz badirudi ceen alfer liçatequeyela hotza, beroa bera asco den lekluan.

Eta hala ifernuan cegoen aberats abariciosac ecin erdietsi çuen ur ehorta bat bere mihiaren heçatceco eta frescatceco. Eta bertcela ere gaitz da aditcen eta erdiesten, nola ahal dirateyen elkharrequin, edo bata bertcearen ondoan, ifernuko labe harten, hotza eta beroa, behintçat batetic berteere aldatceco pontu har-tun bedere, cerbait moldez pena arindu gabe.

Eta Iobec erraiten duenean : iragan bedi elhur uretic bero handira, ezta han Iob mintzo, ez ifernuko penez, ez han daudecinez. Bainha lekhu berean ikhus ahal ditequeyen beçala, mintzo da bekhatoreaz : eta ez edo cein bekhatorez, baina adulterioan, dagoenaz, lohquierian bici denaz. Eta hari eguiten derantça bere mehatchuac, eta egotzten derantça maradicinoac, er-

(1) Vide Dom. Soto, in. 4. sent. dist. 5 q. unica, ar. 4.

raiten duela : *Maledicta est pars ejus in terra : Maradicatus da harc lurraren gainean duen partea : Ad calorem nimium transeat ab aquis nivium :* Eguin bedi elthurra beçain hotz debocinoan, eta sua beçain bero malician ; eta hotztasun hartaric, negutic udara beçala, iragan bedi ifernuco berotasunera, eta ezta harenaino, han hel arteino baratuco : *Usque ad infernum peccatum ejus.*

Eta erraiten badu ere gure Salbatçailleac ifernuaz mintxo dela : *Ibi erit fletus et stridor dentium :* Han içanen dela nigar, eta hortz carrasc-hots. Ezta ez aditzen hortz carrasc-hots hura hotzetic heldu dela, eta ez hotzac eraguiten duela. Bainha hura eraguiten du, bataz barreneco damuac, orhoitceac nola bere faltaz dituen eguiteco hec guztiac : ere berriz bertcea, suac emaiten dioen dolore handiac. Harc gorputzeco parle guztiac ikharatcen tu, eta hortz-haguiney carrasc-hots handi hura eraguiten deraue. Eta hala ifernuan ezta elthurric, eta ez berice hotz suerteric ; bethi da bero eta su; eta su hura ezta behinere ttipitzen eta ez iraunguitzen. Eta eztu harc egurric ere behar, eta ez aitcinatçailleric. Condenatuaren arima bethi dago suan ; eta bai gorpulza ere egonen azquen iudicioko eguna iraganez guero.

§ 3.

Arimac bere penac beçala, arimaren potenciec eta botherec ere, cein baitira, adimendua, borondatea eta memoria, içanen dituzte bere pena moldeac, bere be-

reac, eta bereciac. Adimendua egosico da bere baithan barrena, hanbat pena eta hain handiac pairatu behar dituela consideratceaz : eta gogoaren bertcetara aldatceco astiric ere gabe, bethiere egonen da pena hetan pensatzen eta penateen. Borondatea ere ibilico da haserretua herra errabiatu batequin Iaincoaren contra, ceren hanbat gaitz eta pena emaiten dion. Bada memoria ere bere baithan nahasico eta nekhatuco da, bere faltaz hartara dela, eta bethi hala egon behar duela, orhoitceaz.

Eta arimac eta arimaren potenciee bezala, içanen dituzte gorputzac, eta gorpulçaren censuec ere, cein baitira bista, ençtea, usna, gustua eta uquitea, norc bere gaztigu molde bere gainezcoac. Lehenbicoric . Visus, hegvietao bista içanen da penatua, ceren ifernuco lope bartan, ezpaitu deus ikhussico : ilbun içanen baita. Eta suan egonen bada ere, eta suac bere eguitez arguitzen badu ere, ordea hadateque arguitu gabe ; edo eguraren orde içanen baita sufrea , ceinec ezpaitu argui claric eguiten, khe ilhunic eta beltzic bai- cen. Edo lekhua dela causa . içanen baita lope barrena, alde guztietaric hersia , leihoric eta atheric gabea, hats hartceco, eta arguiren edo haiceren sartceco bi- deric ere içanen eztuena.

Eguia da ordea, ez tela osoqui ere eta alde guztiz ilhun içanen ; argui osco içanen da, lanhope batean bezala, elkarren ikhusteco ; eta ikhuste hartçaz gne- hiago penatceco, eta tristetceco. Cerentristura handia errecibituko dute, noiz eta bere lagunac, ceinequin

bekhatu egunin baitutenean, eta ceinengatik galdu bait-ciren, ikhusten baitituzte bere beguien aiteinean. Hala emaiten du aditcera san Gregorioe : *Quamvis ignis ille, non luceat ad consolationem, lucet tamen ut magis torqueat* : (1) Ifernueo su hare arguitzen ezpadu ere consolatzeko, bai ordea arguitzen du, eta arguituko du, guehiago penatceko eta malenconiatceko. Ceren argui lambo harequin batean, ikhusico dute hanbat liquitsqueria, hanbat spiritu gaichto eta itsusi, hain compainia icigarria, hain su handia, ilhuna eta khet-sua ; non beguietakoista, hemen gauça ederen eta placenten ikhusteaz hanoqui loriatu cena, han gauça itsusien, ieigarrien, nardagarrien eta atsecabecorren, beguiestea dolorezqui penatuco baita.

Halaber, *Auditus*, enqutea, beharriac içanen dira penatuac, eta iarrico dira harrituac. Ceren eztute enqunen, oihuriç, nigarric, marrascaric, deihadarric, deithoraric, auhenic, eta nigarric baicen. Hango cantuac, leloac eta bozcarioac içanen dira heyagorac, ayac, hatsbeherapenac, incirinac, nigar-chopinac, eta arrencurac; bethiere arnegatcen, eta maradicatcen dutela bere buruez eta erori çaien çorthe gaichtoaz.

Halaber, *Odoratus*, Usna, sudurrac içanen dira penatuac usain gaichto batez, khirats handiaz. Ceren bataz, azquen egunean iautsico baitira, gaichtoequin batean, mundueo hatsqueria guztiac ifernura; eta berriz bertcea, ceren nola ceruco lorian daudenec

(1) Greg. li. 9. Moral.

içanen baitute usain ona : hala ifernuan daudenec içanen dute gaichtoa ; eta usain gaichto hartçaz ego-nen dira bethiere sudurrac betheac eta khirastuac.

Halaber *Gustus*, gustua, ahoco caporea içanen da penatu, bataz gosez eta egarriz ; eta bertcea, cenbait ianhari urdinduz, eta edari çurminduz ahoa betheric halute beçala. Hemengo goçatasuna , eta ian-edaneco placera, hango mintasunaz eta goço gaichtoez , gaztiga aracitzen derancate.

Halaber, *Tactus*, uquitcea, gorputz guztia içanen da penatua. Cerea ezlu nehore han, suric, kharric eta gauça liquits nardagarririric baicen uquituco.

Finean nola orai hemen sensu guztiuc eta gorputzeo parte guztiuc, hartcen baitute atseguiñ eta placer ; hala han halaber, hartuko dute guztiuc damu eta atsegabe, pena eta dolore, min eta oinhace. Han içanen da dolore guzlien eta gaitz guzlien iunta, bilgura eta batçarrea. Han içanen du danatu ondicozcoac, buruan min handia, hortz-haguinetan oiñace bortitza , bihotzean dolore errabiatua, gorputzeangota, harri, ikharra, sukhar, finean ahal diratequeyen eritasun guztiac. Hanbat gaitz eta dolore içanen du , non dolore hutsez dolore bihortueo, cobertituco eta eguinen baita.

Hemengo eritasunec eta oiñhacec ezlute comunzqui behinere gorputz guztia osoqui hartzen : batean behuetan duçu min , eta ez orduan beharrietan ; bertcean escuetan eta ez oinetan. Eta hunelatan parte batean min içanagatic, eztuç bertcean min, eztuç oinhanec osoa eta ez guztietacoa. Eta alabaina parte ha-

tetaco oinhaceac berac, haguin batetaco minac, hau penatcen eta asaldateen çaitu, non gau guztian loric egun gabe eduquitcen baitçaitu. Cer liçateque bada baldin gorputz guztian, eta gorputzeo endrecera, aurquientça, iuntura, eta parte guzietan, osoqui, berdinzi, eta hatetan oinhace bacendu, eta oinhace harquin basa bazter edo erreca batetan, guztiec utzia, baceneuntça ? Orduan cinez cinateque onbehar, ondizcozo, eta urricalquiçun. Hala da bada, eta are urricalquiçunago, ifernueo penetan dagoena. Ceren hora da osoqui guztia eta guzietan eri : hora da guzietan minez eta oinhacez gainez eguna : eztu bazterric, eztu hutsguneric, guztia da bethea. Eta ongui da hala den : ceren nola gorputz guztiaz, eta gorputzeo parte guziez osoqui bekhatu egun baitçuen, arraçoin da halaber gorputz guztiaz eta gorputzeo parte guziez osoqui paga deçan ; eta guzietan den alde guztiz penatus, gaztigatua, eta oinhaceztatua.

§ 2.

Oinhace hec, dolorezco dolore hec, emaiten çaitxa ifernuan dagoenari differentqui, egun cituen bekhatuen differentcien arauaz. Han urguillua, handinahia desohorezqui oinen azpian erabilico eta osticatuco da. Han abariciosa, diruz betheric cegoena edo egon nahici cuena, necesitate handian, monduco beharric beharena baino beharreanago iarrico da. Han sabeldarraio, golosa, lamitia, ian-edanera emana, gulura erozia, gosez eta egarri, ur chorta bat ere ecin erdietsiz,

amitus ibilico da, flacatua eta iragana iarrico da. Han arnegariac bere mihiā içanen du min bici batez bethi erreña et jana. Han emakhoia, haraguiaren lohian licindua eta hidioitzatua ibili dena, deabru icigarriee bere atçapar çorrotcez, eta suhalamen istoec ferecatu-
co, larrutu-
co, eta halacoari dagotean bertce pena molde batçuez penatuco dute.

Are guehiago, ifernuan abaríosac abariciosequin; ohoiñac ohoinequin; arnegariac arnegariequin, finean quideac quidequin, eta bere suertecoequin egonen dira, bereciac, eta parcelatuac. Hala emaiten du adit-
cera san Matheo Evangelistac: *Colligite primum zizania, et alligate ea in fasciculos ad comburendum.* (1) Bil etçatçne belhar gaichtoac, bil etçatçue multeuca, eta çamaca erratceco elkarrequin. Eta nahi baduque ia-
quin eer den hunela multeuca, eta çamaca bilduric erratcea, declarateen du san Gregorioe: *Fasciculos ad comburendum ligare, est eos qui æterno igni sunt traditi, pares cum paribus sociare, ut quos similis cutpa inquinat par etiam pœna constringat:* (2) Belhar gaichto çamac, multeuac, escumenac, edo escutatac el-
karrequin erratceco biltcea, eta lotcea, ezta bertce gançaric, ifernura behar dutenen ohoina ohoinarequin, arnegaria arnegariarequin, quidea quidearequin com-
paigniatcea eta iuntatcea baicen. Halatan bekhatu egui-
tean eta hobenean berdin içan cirenac, penan eta

(1) Mat. 13.

(2) Greg. lib. 2. Moral. cap. 47.

gaztiguan ere diren berdin, eta batean beçala bertcean ere, elkhar eduqui deçaten.

Halacoez mintço dela erraiten du Erregue Davitec : *Sicut oves in inferno positi sunt, mors depascet eos :* (4) Ardi artaldeac beçala tropelaca, eta parcelaca ifernuan egonen diro, herioac bazcatuco ditu, herioa içanen da hequen bazca, eta bai hec ere herioaren. Condenatuaren penatcea comparatcen da ardiaren belhar iatearequin. Hala dio san Gregorioc : *Depascere dicitur, quia sicut ovis depascens herbam, non eam radicibus evellit, sed ita pascit, ut manente radice iterum herba crescat, ut iterum depascatur : ita mors, semper depascit miseros, quia semper illis relinquitur vita, ut tormenta valeant sustinere :* Nola ardiac ezpaitu behin ere belharra osoqui akhabateen eta ez erroetaric atheratcen ; baina gaineco ostoa ian eta utzten haitu bethiere barreneco erroa eta çaina, berriz ere ostoa equinic, berriz hartaric ian deçaqueyen beçala : hala herioac, penac, doloreac, minac, eta oinhaceac iaten dute condenatuetaric, behin ere erroa athera gabe, bicia akhabatu gabe. Halatan bethiere bicitcen direla, bethi ere penatceco. Eta hala hequen bicitcea ezta bicitte, eta ez heriotcea heriotce. Ezta bicitte ceren ezpaitu ontasunic eta ez consolamenduric. Ezta heriotce, ceren ezpaitu akhabaleeric. Arraçoinequin erraiten da halacoagatic : *Bonum erat ei si natus non fuisset homo ille :* (2) On çuqueyen sorthu ezpaliz. Ceren san

(1) Psal. 43.

(2) Matth. 26.

Thomasec dioen beçala : *Melius est non esse, quam male esse :* (1) Hobe da ez içaitea, gaizqui içaitea baino. Hunen arauaz erraiten du Londone Ioannes Evangelistac ere : *In diebus illis desiderabunt homines mori, et mors fugiet ab eis :* (2) Egun hetan, orduan penetan daudenec desiratueco dute bere egnunen fina eta akhabantça ; hil nahico dute, herioaren bilha ibilico dira ; baina alferric, eztute ediren, ceren herioac hetaric ihes egoinen du. Halatan bethiere bicitzen dire, bethiere penatceco eta bethiere hiltceco, ceren penateea hiltcea baita.

§ 5.

Erran behar da handia dela ifernuan daudenec duten miseria eta ondicoa, orai gne hemen gutien nahi dugun gauça, cein baita heriotcea, hec han hora guehienic bilhatseen eta desiratcen dutenean ; eta ecin erdietsiz, bethiere hiltcen ari direnean seculan hil gabe.

Eta ezta miretsteco, hec han hala desiratcea : ceren bere baithan erreac, deseguinac, eta alde guztiz desconsolatuac haitaude. Campoan suac erratcen tu, eta barrenean harra alha çaye. Eta har hartçaz erraiten du Isaias Prophetac : *Vermis eorum non morietur :* (3) Hequen harra ezta hillen. Eta har hora ezta ez hemengo har hauc beçala, haraguz eguna, eta biciric

(1) S. Th. Addit. ad 3. p. q. 98. ar. 3. in corpore.

(2) Apocal. 9.

(3) Isa. 66.

dabillana. Bainha hura da concientziaren akhusamendua, autsiquia, alhadura, chimicoa, erançutea ; eta ifernuan daudenec bere baithan duten damua, urriquia, eta orhoitcea ; nola içan çuten indar, antze, ahal, escu, eta bothere, pena hetaric guztiataric escapateco ; eta nola guztiarequin ere, bere saltaz etciren escapatu, bere saltaz galdu ciren ; eta utzi çuten escuen artean içan çuten dembora, okhasinoa eta apharaillua, probetchatu gabe, iragaitera eta galtcera.

Eta hunela orhoitce hunec, akhusateen ditu larrutzen ditu, deseguiten ditu, erraiten duela hat bederac bere baithan : Ha ene galdua ! Ene çoro adiunendu ga-bea ! Certan pensatzen othe nuen nie, bici ninicen demboran, neure burua neure escuko nuenean ! Anhitzetan erran ceitan, nori berea bihur niaçola ; et-saiarequin adisquide nendilla ; iuramentu eguiteco usantxa utz neçala ; behar etceu emazteari aparta neugniola ; finean guiristino beçala laincoaren manamen-du sainduen arauaz eta ereduz mantena nendilla, eta ezperc orai naicen eguitecoan içanen niatcela. Bainha, nic, hunela erraiten ceitanean, irri eguiten nuen, ez-nuen sinhesten.

Bada orai paga deçadala ; lekhu dolorezco hunetan, hunenbat dolorequin, eta dolorezco lagunequin, mendez mende, seculacotçat gueldi nadilla. Ceren hala dut mereci. Erein dudana arraçoin da bil deçadan. Ira-baci dudana, arraçoin da goça deçadan. Eta neure dut falta, eztu bertee parteric : ecin demaiot bertceri at-chaquieric, neure neure burua galdu dut.

Hauc dira ifernuan daudenek solhasae ; hauc dira hequen arteco dolorezko hitzæ. Orhoiteen dira, nola bere saltaz hain onbehar errendatu diren ; eta orhoitee hunec bere baithan egosten tu, malenconiatcen tu. Eta haur da gau eta egun, behinere ase gabe, sosegalceratzi gabe alha çayen, eta alhaco çayen harra : probetchu gabeco urriquia, dembora ioanez guerozco damua, dolua, eta nigarra : cein baita, ifernuan daudenec duten pena handietaric bat. Ceren cer shal datueque penagarriagoric, eta bihotz erdiragarriagoric, bere buruaren secula fin gabecotçat, erremedioric gabe galdua, eta bere saltaz galdua ikhustea, eta orhoitea baino ? Ha orhoitee tristea eta penagarria ! penataric ilquitceco esperantçea gabea !

L CAPITULUA.

Infernuan daudenec eztute handic ilquitceco esperantçaric.

§ 1.

HANDIAC eta icigarriac dira ifernuko pena hec. Eta baldin oraino, pena hequen nehoiz akhabatceco, arintceco, laburtceco, edo gutitceco esperantçaric baliz ere, badirudi baliçatequeyela cenbait consolamendu. Bainat hanbat pena ! hain handiac ! eta finie ez ; eta ez finie içaiteco usteric ere : haur da gauça latza, haur da aitcin-guibel beha araciteco, eta gogoeta eraguitateco pontu icigarria ! Ceren esperantçaric eztuena,

Hauc dira ifernuan daudenek solhasae ; hauc dira hequen arteco dolorezko hitzæ. Orhoiteen dira, nola bere saltaz hain onbehar errendatu diren ; eta orhoitee hunec bere baithan egosten tu, malenconiatcen tu. Eta haur da gau eta egun, behinere ase gabe, sosegalceratzi gabe alha çayen, eta alhaco çayen harra : probetchu gabeco urriquia, dembora ioanez guerozco damua, dolua, eta nigarra : cein baita, ifernuan daudenec duten pena handietaric bat. Ceren cer shal datueque penagarriagoric, eta bihotz erdiragarriagoric, bere buruaren secula fin gabecotçat, erremedioric gabe galdua, eta bere saltaz galdua ikhustea, eta orhoitea baino ? Ha orhoitee tristea eta penagarria ! penataric ilquitceco esperantçea gabea !

L CAPITULUA.

Infernuan daudenec eztute handic ilquitceco esperantçaric.

§ 1.

HANDIAC eta icigarriac dira ifernuko pena hec. Eta baldin oraino, pena hequen nehoiz akhabatceco, arintceco, laburtceco, edo gutitceco esperantçaric baliz ere, badirudi baliçatequeyela cenbait consolamendu. Bainat hanbat pena ! hain handiac ! eta finie ez ; eta ez finie içaiteco usteric ere : haur da gauça latza, haur da aitcin-guibel beha araciteco, eta gogoeta eraguitateco pontu icigarria ! Ceren esperantçaric eztuena,

presenteco penac beçala, ethorquiçuneacoac ere penacen du; hora ere ikhusten du; hora ere presenteau beçala, eta bere gainean beçala daduca. Ceren haita qui harentçat dagoela, eta eztela akhabatnuco.

Orai hemen dolorez, eta oinhacez ingaratuca çaudenean, edireiten da cenbait bide hats hartceco eta consolatceco. Eri çarenean, ethorteen çazquitzen adisquideac ikhusteria eta hec aphur bat gaitza arintzen deratçute; midieuva bisitatceria, harc ere esportçatzen çaitu. Eta guztien gainetic bethiere bici cara gailza arinduco çaitçulaco esperantçan, eta esperantça harc consolamendu handia emaiten deratçu. Baino ifernuko eritasunean, hangò penetan, halaco moldez daude esperantçaren atheac hertsiac, eta portuac hartuac, non hala dauden dolorezcoec eta han dandenec, ezpaitute nehondican ere consolamenduren sartceco argiric ikhusten. *Clausa est ianua: Herti da halacoentçat misericordiaren athea, urricalmenduarena, arartecotatasunarena, merecimenduarena, garaciarena, finean ontasun guztiena.*

Aberats abaricia ofernuntic, errateen cegoen lekhatic, hasi ceican oihuz eta othoitcez Abrahani, erraiten cioela: Aita Abrahani, badacusaçu nola nagoen su lunetan erreia eta idor elkhortua, ençu bada nitçaz misericordia, eta egor iaçadaçu Lazaro: harc bere erhi puntaz, urean bustiric, mibian utqui naçan, aphur bat heça naçan. Esque haur eguiten deratçut, haur da ene othoitza choila, eztezadazula artçuca.

Cer esque escasagoric, edo othoitza ttipiagoric egun

ahal ciaçaión? Etxeican ausartu othoitzteria egor ciaçola pitcher bat ur, edo escu guztia urean sar ceçala, eta ez are erhi guztia ere. Bainha haren desircunde guztia cen, erhi punta urean sar ceçan, eta hartezaz mibia utqui ciaçon, placer hora egun ciaçon. Gauça aphura cen, desircunde ttipia cen. Bainha hora ere, ttipiago baceen ere, etxuen erdietsi, hain placer gutia etxeican egun; iaquin deçagun ecen hartaraz guero den placerik ttipienari, eta consolamenduric aphereñari ere atheac hertsia çaitzela.

Itsas çabalean erortzen denac, badarabiltça escuac cerbaiti lothu nahiz, hersten ditu, baina alferric. Ceren eztu limburtean eta itxurtean çaicán ur enganagarriric baicen edireiten. Hala guerthatzen çaye bada, ifernu çabal, hondar gabean erortzen direney ere. Eztute edireiten non oina fintea; eztute edireiten ceri lot; eztute edireiten guirthanic, escu-toquiric, sostenguric, ez consolatceco bideric, eta ez esperantçaric.

Bada consolamendu gabeco, fin gabeco, eta fin içai-teco esperantçaric gabeco pontu hunetan nahi nuquè iben bacinitça beguiac, huni beha baciniaçò, haur considera bacceneça; eta animalia snerte batquec, gauaz hausnaur eguiten duten beçala, çuc ere gauça hunetzaz, cenbait aldiz bedere, hausnaur eta gogoeta egun baceneça.

Eta hunetacotçat, considera eçazu, eriac gau lucean irragaiten duen trahaillua, guztiz ere eritasuna çorolza eta bortitza denean; nola iraulcatzen den; nola ore-nac contatzen dituen; cein luce iduritzen çaitçan, eta

nola arguia desiratcen duen. Bada baldin hemengo eriari, hemengo gaua, hain fitx iragaiten dena, hain luce iduritzen baçaica : cer idurituco çäica ifernuan dagoenari, bango gau luce, eterno, fin gabeko hura? Ha gau lucea! Gau beltz, ilhun, icigarria! Argui-urralcegabea, oillariteric içanen eztuena, seculan arguituco eztena eta ez akhabatuco! Cer pena, cer dolore eta ondico içanen da, arguituco ezten gau hartan, ez hemengo eriac beçala, ohe bera onean, baina labegorri beroan, suguina gogorrean seculacotçat etçatea, iraulcatcea eta egoitea? Arraçoinquin galdeguiten du Isaias Prophetac : *Quis habitabit de nobis cum igne devourante? Quis habitabit de nobis cum ardoribus sempiternis?* (1) Halaco lekuan, hain su beroan, gar eternalean nor egonen da? Nor bicico da? Norc irau-nen du? Norc içanen du sorbaldaric sostengatceco? Indarric iasaiteco? Eta pairuric, eta pacientiaric sofritceco? Orai hemen den penaric ttipienac, su iharbatec quilicalcen çaitu, asaldatzen çaitu : cer içanen da bada, suz eta kharrez, campoan eta barrenean, ariman eta gorputzean, hartua, inguratua, eta burdin gorritua beçala gorritua eta sutua çaudenean? Eta seculacotçat hala egon beharco duçunean?

Othe dugu centçeric? Othe dugu adimenduric? Ala elhëac, ametsac, edo gueçurrac othe dira hauc? Edo guri ez othe dira mintço? Guri ez othe dagozquigu, alabaina bertceri? — Fedeac erraiten deracu guri

(1) Isai. 33.

dagozquignula, guri mintxo direla, gureac, eta gurebi at direla. Eta eztirela ez elheac, ez ametsac, eta ez gueçurrae: baima eguiac, eta eguiazqui (baldin hobequi gobernatzen ezpagara) iragan beharco ditugunac direla. Elo hobequi minçatcera: behin ere iragan gabe, bethiere egoitçaz, gurequin egonen direnac, direla.

Ceren oraino, pena hec, bertee penen artean, icañena dute pena haur ere guehiago, egonen baitira bethiere estatu batetan, egoitça batetan, molde berean, bethi berde. Ezta ihartceric, ezta ttipitceric, ezta muthatceric, eta ez aldatceric. Mundu honetako gañac eztandie behin ere crozca batean: igaiten eta iausten dira; eguiten eta deseguiten dira; maiz aldateen dira. Badito itsasoac bere gora-beherac, bere mareac, eta muthantçac. Presunac, haciendac, etcheac, onac, eta eritasunac ere, eztaude behinere batetan. Ezta sukharric hain bandiric, non pontu batetara iganez guegro, ezpaita beheititcen eta ttipitcen; eta ez oinhaceric hain çorrotzie eta bortitzie, gorenera denean, ematen eta eztitcen eztenic. Finean munduko trabaillu guztiac eta eguitecoac, demborarequin batean, hantzen dira, iraunguitcen dira, ezeztatcen dira; baina ez ifernuco sua eta pena. Pena lura bera da, eta ez berticeric bethi berde dena, bethi bici dena estante batean dagoena, muthateen eztena. Hango sukharra, eta berrotasuna ezta behinere iahalteen, eta ez beheititcen, bethi dago goren pontuan, eta leheneco erreduran. Ger ahal dateque bada tormenta handiagoric eta nekhagarriagoric: bethiere leku batetan, eta molde

berean, ignitu gabe, aldatu gabe, eta muthatu gabe, harritua beçala, pena minetan gueldi egoitea baino? Munduko ianhari ric precia tuena ere, bethiere hartaric, bertcetara aldatu gabe, iaten denean, gaitzesten da, higuintzen da.

Ezin çatequeyen gure artean ianhari hobeagoric, eta ez bianda goçoagoric, Iaincoac herac Israëleco semey cerutic eman cerauena baino. Ordea ceren hartaric beretic, bertcetara aldatu gabe, bethiere iaten baitçuten, hain higuindo ceyen, non iateracoan gora-gale bat ethortzen baitceyen. Eta hala ohe on batean ere, behin ere higoitu gabe, alde batera edo bertcera itculi gabe, bethi gueldi egoitea eta etçatea ere, cer pena liçate? Norc paira leçaque? Bada baldin dembora luceaz lekhiu batean dagoena ongi badago ere penatzen eta nekhateen bada, cer içanen da pena eternalean, su fin gabecoaan dagoenaz?

§ 2.

Eztitake hemen iaquin eta ez asma ere cer den su fin gabecoa, akhabatuco eztenea; frogatzen duten ondicozcoec daquite, eta ez bertec. Baldin galdeguin baliaçote orai Iudasi: Erraçu, discipulu gaichtea, ecure nabusiaren saltçaillea, cenbat dembora du, barren horretan, ifernueo pena horietan çaudela? Ihardets leçaque: badu milla eta çortcitan ehun urthe, eta guehiago. — Eta orduan, lehenbici pena horietara cinenean, cer çor cenduen? — Pena eternala, akhabatuco eztenea. — Eta orai cer çor duçu? — Pena eter-

nala. Eta hemendic bertee milla eta cortcitua ehun urtheren buruan, cer gor içanen duçu? Oro bat orduan ere hastean beçala, pena eternala, akhabatueo errena!!!

Ezta aitcinateen, eta ez guibelatzen, bethi dago egoitza batean, erozea batean. Ezta behinere ifernuoa obligantçaren censua, eta interesa iraungoitzen, eta ez pagatzen; bethi da gor principala interesarequin.

Eta nola ifernuan dandenee hanbat pena iragaiten baitute, eta pena hetçaz terbait pagatzen dutela, edo pagatu behar Inquietela badirudi ere; eztute ordea pagatzen, edo bethi pagatzen hari dira eta bethiere dute horobat gor. Ceren nola horondate gaichtoan eta mali-eian ostinatuac, gegortuac, eta itsutuac baitande, eta iragaiten duten pena ere, ez horondatez baina bortchaz iragaiten baitute: eta pagatzeo, eta meritu erdiesteco dembora ere iragan baitçaye, ezteraua Iaincoac deusere harteen contutan. Bethiere, lehen deus iragan ezpailliz beçala, hasten çaye bere pena. Ehun milla urtheren buruan, hain urrun egonen dira pagatetic, nola lehenbicico sartu ciren eguncan eta ore-nean.

Orai bemen pena aphur batez, bihotzezko urriquimendu batez, egiazco confesione batequin erremedia ditçaqueçu ceure bekhatu guztiac; ceren orai Iaincoaren misericordiaren atheac idequiac baitaude; eta euc ere orai ceure horondatea libre baitu, eta librequi bertee aldera gaichtotic onera itçul baitecaqueçu. Baina ifernuraz guero galdu du libertateac

bere indarra; itsutu da adimendua, gogortu da borondatea, akhabatu dira arimaco feriac, herti dira misericordiaren atheac. Ainguiru gaichtoac, bekhatutan erori cirenean, guelditu ciren malician gogortuac, eta erremedioric gabe seculacot at galduac; hala guelditzen dira bada bekhatutan hiltzen direnac ere, hil ondoan seculacotçat erremediotic campoan. *Si ceciderit lignum ad Austrum aut ad Aquilonem, in quocumque loco ceciderit ibi erit:* (1) Guhaitça norat ere erortzen baita, nahiz iguzqui haicerat edo mendebalerat: escuinerat, edo ezquerrerat; erortzen den lekuan guelditzen da, ezta handic higuiteen: ez eta, behin ifernura erortzen den bekhatorea ere, ezta guehiago iaiquitzen, eta iaiquitceco esperantçarie ere etçayo guelditzen.

Baldin Ainguiru batec erran baliace Iaincoaren partez, ifernuan daudeney: Ea iende penatuac, indaue albiriste, berri on bat eman nahi deratuet. — Ha fauna erraçu cer: ceren beharrean gaudie. — Iaquin behar duenec ecen lurretic basi eta ceruraino mundu guztiac eduqui ahal deçaqueyen artho bihi contu becenbat urbez, pena horietan egon çarcetenean, ilquice caretela hortie, orduan çuen penac akhabatuco direla. — Edo erran balequie balaber, Iaincoaren partez: Iaquiue ecen itsasoco ur guztsia, eta mundocon bertee ur guztiac chinhaurri batec, urthean behin bere asea edanez, chuca, agor, hondar, eta akhaba ditganean,

(1) Eccl. 11.

akhabatuco direla quen horco penac ere. Hunela erran balequie, aleguera litezque, esportça litezque, ezloquete handic aiteina, leheneco penaren erdia. Ceren noizhainteko esperantcarequin consols baillitezque. Eta arraçoinequin consola litezque. Ceren lurrac, ehu milla millaren ere, eduqui ahal deçaqueyen artho bihi contu baino, urthe guehiago egonen baitira, eta egon beharco baitute pena hetan. Eta chinhaurri batec ere, milla urthetaric milla urthetara behin edanez, lehen agor, eluea, eta akhaba baillitzaque munduko ur guztiac, itsasoa bera harrenean dela, hequen penac akhabatuco diren baino. Ceren den gutienaz ere, bethi guttileen dena, eta ez behinere berretzen, noizbait akhabatuco da: baina ez ifernuco pena, ezla seculan akhabatuco. Ceren irautez, eta iraupez baita fin gabe, eta infinitu.

§ 3.

Gogoetan jartzen naicenean, cer içanen den ifernuco pena hartzaz, noiz akhabatuco den; eta finic ezia ikhus, akhabateeric ecin ediren, hondarric ecin erdiets: guelditzen uaiz, benutztua, errendatua,urreratua, lehertua, non nagoen eztaquindala. Ceren nola laineoac ezpaitu içanen finic, eta ez akhabateeric: hala ifernuco penec ere eztute içanen finic, eta ez akhabateeric; iraunen baitute laineoac dirauen bitartean.

Ha mundu çoroa ! Guiristino itsu, astimendu gabea ! Hemengo pena upur batez, oreu batetako minaz eta oinlazeaz haubat casu, eta contu eguiten duçuna, eguiço hañaber cerbait contu eta gogoeta fin gabeko

mende hartçaz ere; orhoit çaitsei secula, secula gabeco secula hartçaz: esperantça gabeco bethiere hartçaz; eta orhoiturie utzqnitçu luçamenduaç, guerotic gnerora ibiltceac, pensu gaichitoac eta maliciac.

Ifernuan dandenec, anhitz milla urthez pena hetanegonez guero, ikhussiric here pena iraganez e tutela batere probetehuric: considera ahal diteque, ecen bere gogoetan tristerie eta illunic, minçatuko çaitçala laineoari, eta erranen diotela: Cer da haur Lainco handia, non da core misericordia, orrialmendua, eta gupidestea? Nolatan duçu horrein bihotz gogorra, eta alçairuzcoa? Noiz arteino egonen gara hunein penatuqui; lekhu penatu hunetan? Noiz asco etsico duçu gure hunela eduquitcea? Anhitz milla urthe, anhitz mende du hemen gaudecilla. Cer içanen da bada gutçaz? Noiz ilquico gara hemendic? — Ihardetsico çaye: Ha galduac, ontasunic mereci eztuquenac, eta içanen ere eztuquenac, erremediotic campoan caretenac, galdezelcaudete cer içanen den cuetçaz: noiz ilquico caretten hortic: iguricagué oraino aphurbat, goiz urgoitu çarete; iaquin behar duçue ecen, guen penac eta doloreac oraino orai basten direla; eta hemendic bertze horrein bertze urtheren burnan ere, orobat orduan hasico direla. Gal eçaucue gal hortic ilquitceco esperantça; ceren secula fin gabecotçat hor egou behareo duçue; ezta esperantçaric ifernuan!

Erepuesta haur hunein botza, motxa eta gogorra ençun deçatenean, nore pensatuco du cer eguiñen eta erranen duten? Cer sentimendu eracutsico dutea?

Hasico dira oibuz, hasico dira deihadarrez, nigarrez, eta marrascaz : hasico dira bere ondiko handiaren dei-thorateen eta auhentzen : hasico dira bere buruen maradicatzen, beguitarten larrutzen eta alçaparcatzen. Eta gueldituco dira, alde guztiz dolatuac, citsituac, desconsolatuac, eta desestatuac, nehondian ere, erre-medioric, consolamenduric, eta esperantçaric eztuen bat guelditzen den beçala.

Eta cergatic haur hunela ? Cergatic hunenbat gaitz eta pena ? Eta cergatic fin gabe, akhabantçaric gabe, eta akhabantçaren içaiteco esperantçaric ere gabe ? Cergatic ? — Bekhatuagatic ; bekhatu mortal baten-gatic ; ceren asco da bat : bekhatu mortal, hain errazqui, laburzqui eta dembora gutitan eguiten den baten-gatic. Hain gutitan non baitirudi ecen bidegabe eguiten dioela Iaincoac bekhatoreari, buru-itçultce batez eguiten den bekhatuagatic, seculaco gaztiguaren emai-teaz. Baina ez, ez eztio bidegaberic eguiten, hunen herreneco capituluau, aguerico den beçala.

LI CAPITULUA.

Cergatic hain dembora aphurrean eta laburrean eguiten den bekhatuari, emaiten caican, hain gastigu handia, lucea, eta seculacoa.

§ 1.

Egia da, badirudi bidegabe eguiten caicala bekhatoreari, hain dembora gutitan eguiten den bekhatuagatic, banbat demborataco gaztiguaren emaitiaz. Baina

Hasico dira oibuz, hasico dira deihadarrez, nigarrez, eta marrascaz : hasico dira bere ondiko handiaren dei-thorateen eta auhentzen : hasico dira bere buruen maradicatzen, beguitarten larrutzen eta alçaparcatzen. Eta gueldituco dira, alde guztiz dolatuac, ctsituac, desconsolatuac, eta desestatuac, nehondian ere, erre-medioric, consolamenduric, eta esperantçaric eztuen bat guelditzen den beçala.

Eta cergatic haur hunela ? Cergatic hunenbat gaitz eta pena ? Eta cergatic fin gabe, akhabantçaric gabe, eta akhabantçaren içaiteco esperantçaric ere gabe ? Cergatic ? — Bekhatuagatic ; bekhatu mortal baten-gatic ; ceren asco da bat : bekhatu mortal, hain errazqui, laburzqui eta dembora gutitan eguiten den baten-gatic. Hain gutitan non baitirudi ecen bidegabe eguiten dioela Iaincoac bekhatoreari, buru-itçultce batez eguiten den bekhatuagatic, seculaco gaztiguaren emai-teaz. Baina ez, ez eztio bidegaberic eguiten, hunen herreneco capituluau, aguerico den beçala.

LI CAPITULUA.

Cergatic hain dembora aphurrean eta laburrean eguiten den bekhatuari, emaiten caican, hain gastigu handia, lucea, eta seculacoa.

§ 1.

Egia da, badirudi bidegabegi eguiten çaicala bekhatoreari, hain dembora gutitan eguiten den bekhatuagatic, banbat demborataco gaztiguaren emaitiaz. Baina

guztia ongi pensatoric, eta consideraturic, edirenēs dugu, eztela hartan hidegaberic egiten. Aiteitic insituqui eta çacen qui, den bekhatu mortalic tipienari ere, emaiten caicola seculaco pena, eta pena infinitua; ez infinitua, *intensice*, bortitztasunez; ceren halako pena cein iasan deçaque creaturac: baina infinitua, *extensice*, irautez eta iraupez, cein baita seulan akhabatuco eztena.

Eta emaiten ditu arraioñac san Thomasec bere hirurgarren parteak. Ela emaiten du lehenbikicoa. Dembora gutiz, eta laburzqui eguiten den bekhatuari, emaiten caica seculaco gaztigua: *Quia peccatum est contra Deum summum bonum, quod est infinitum*: (1) Geren bekhatua baita Iaincoaren contra, guez onaren contra, cein baita infinitu. Beraz gaztigua ere eman behar caica infinitua iraupez, ezpaittaque borthitztasunez.

Baldinurreko erregne bat betarondo oso bat emaiten dioenac gaztigu handiagoa mereci badu, edo cei bertceri emaiten dioena baino: cinez merecico du gaztigu handia, Iaincoari barri, mundu guztiko erregevari emaiten dioense: nola bekhestoreac, bere alde-ric denaz besan batean, emaiten baitio, bekhatu mortal bat eguiten duenean.

Eta hurrenacotçat, hemen ere, mundo o leguen arauaz ere, emaiten ohi caica, anhitzetan ere, dembora gutiz eguiten den saltari, ohoinqueriari heriotceari,

(1) S. Tho. Addit. ad 3. p. q. 99. art. 1.

edo bertee gaichtaqueria bati, gaztigu handia eta lucea; desterrua, galerac, eta batxutan heriotce penatua ere: urkhatcea, laurdencalcea, burnoztear.

Oraino, egua hunen frogatzeo beha diaçogun ongi, guiçonaren bekhatuagatik egun den pagamenduari, eta satisfacioneari, eta edireneng dugu, arra oinequin emaiten çaicala, dembora gutiz eguiten den bekhatuari seculaco gaztigua. Geren bekhatuaren bere hidean, eta osoqui, *ad aequalitatem justitiae*, berdinaz qui iusticiaren aranaz pagatzeo, behar içatu da, presuna infinituac, Iainco guiçon eginac paga ecyen; eta hartaraoetgat heriotce errecebbitu çuen. Halatan corra beçala, pagamendua ere içatu da infinitu.

Eta hala, orai pagamendu hartçaz, Iaincoaren pasione sainduaz probetchateen denac, erremediateen, eta pagatzeen tu bere bekhatuac. Geren babbin bekhatuac mereci badu gaztign infinitua, halaber eguiten duen pagamendua ere, cein baita pasione sainduaren meritua, eta balioa infinitu baita. Baino Iaincoaren pagamendu hartçaz, haren pasione sainduaz eta infinituaz probetchateen eztenac; eta probetchatu gubehemendic ilquitzen denac, nola çor infinituarequin ilquitzen baita, iustoqui eta arraçoinequin pairateen du eta pairatuero du, pena infinitua, finie eta akhabatceric içanen eztuena.

§ 2.

Dembora gutiz eguiten den bekhatuari emaiten çaina gaztigu lucea eta seculacoa, ceren bekhatuaren gaztigatzeo, ezta ez hain considerateen bekhatuaren egui-

tean iragaiten den dembora eta bitartea, nola consideratzen baita eta contutan hartzen bekhatoreac bekhatu eguiteco içan çuen gogoa, horondatea eta deliberamendua. Ceren bekhatua berequin duela, eta bekhatu eguiteco gogoarequin dagoela, hilteen denac, guehiago bici içan baliz, bekhatu guehiago eginen çuen. Nahi çuqueyen guehiago bici, bekhatu guehiago eguiteco. Akhabateen caica bicia, ez ordea bekhatu eguiteco gogoa eta nahi. Halacoari eta halacoey guerthateen çaye, gauaz candela arguitan, iocoan hari direney guerthateen çayena. Guelliteen dira iocotic, ceren akhabateen baitçaye candela; iraun balu candlelac, baciranen iocatzeo gogoac. Bala dira hada bekhatutak hiltzen direnac ere. Iraun araci albalerautako guehiago biciari, bekhatu guehiago eginen çuten. *Voluissent sine fine vivere, ut sine fine possent in peccatis permanere* (dio san Gregorioc): (1) Nahi çuqueten fin gabe bici, fin gabe bekhatutak egoiteco; eta halatan fin gabeko gaztigua ere emaiten çaye. Ceren oraino san Gregorioc berac dioen beçala: *Ad magnam justitiam judicantis pertinet, ut nunquam careant suppicio qui nunquam voluerunt carere peccato*: Arraçoin da, iusticiaren arauaz da, ezlitecin behinere penarie eta gaztigurie gabe egon, behinere bekhaturie gabe egotu nahi etcirenac. Eta hala arraçoin hunengatik dembora gutiz eta laburrez egniten den bekhatuari emaiten çrica seculako pena eta gaztigua: ceren be-

(1) Greg. 4. Dialog.

khatuaren eguitean, iragaiten den dembora, labur bada ere, ordea bekhatu eguiteco borondattea baita luce, eta bethioo bethi bici ahal balute.

Eta batçutan halacoeet erraiten badute ere hitcez, nahi luquetela bere bekhatuetaric ilqni, eztutela ait-cinerat, hetan egoiteco gogoric; ordea obraz contrara eracusten dute. Geren hetan daudela akhabatzen dira, eta halatan akhabatuco ezten gaztigua ere iostuqui emaiten çaye.

§ 3.

Dembora gutiz eguiten den bekhatuari emaiten çalca seculaco gaztigua, ceren san Thomasec dioen beçala : *Culpa manet in aeternum, cum culpa non possit remitti sine gratia, quam homo non potest, post mortem acquirere: nec debet pena cessare, quandiu culpa manet:* (1) Bekhatua, eta bekhatuaren culpa, hobena, eta notha guelditeen da seculacotz; ceren ecin barkha diteque, eta ez garbi bekhatua, Iaincoaren garacia gabe, eta penitencia egun gabe; eta hillez guero ezta garacia erdiesteric, eta ez penitencia eguitaric. Beraz bekhatuaren penac eta gaztiguac ere iraun behar du seculacotz. Ceren ezta arraçoin, dagoen bekhatua, dagoen gaichtotasuna, eta dagoen gaztigu gabe.

Mercatalgoa, sal-erosia fite da egun. Ordea handic harat, salduz guero, guelditzen da seculacotz, saldua saldu: eta hai erosia ere seculacotz, erosia erosi Buruan ere colpe bat emaiten derneutenean, colpea fite

(1) S. Th. ubi supra.

da egun : ordea sendatea nequez eta luçaro. Eta guero ere, sendatuz guero ere, guelditzen da comunzqui seinalea, guelditzen da marca. Hala bada bekhatuaren sal-erosia eta colpea ere fito da egun Ordea guelditzen den seinalea, marca, notha, culpa, corra eta obligacinoa, seculacotz guelditzen da. *Transit actus et remanet reatus* : Iragaiten da colpea, eta guelditzen da ondoko ondorea.

Beraz arraçoinequin, guelditzen den ondoko ondoreagotic, narrioagotic, laburzqui egiten den bekhatuari emaiten çaiica gaztigu lucea eta seculacoa.

Eta hala emaiten çaiica halaber ontasumean eta gracian, laburzqui egiten den obra onari ere, seculaco loria eta pagamendua.

LII CAPITULUA.

Cergatic Iainco misericordiosar, demboraren buruan bedere, ezterauen ifernuan dandeney barkhatzen?

§ 1.

GOGOAC emaiten deraut benturaz erranen duela cebaitec : ezlicateque hobe, Iainco misericordiosac, hain misericordios denaz gueroz, usa leçan bere misericordiaz osoqui eta complituqui ; eta azquenean barkhaliacen guztiey, guztiz ere placer duen beçanbat demboraz ifernuan eduquiz guero ; eta han, bere saltac eçagut araciric, penitentia eraginez guero ? — Eta içatu da cebait bere nahiarequin batean, hala erran

da egun : ordea sendatea nequez eta luçaro. Eta guero ere, sendatuz guero ere, guelditzen da comunzqui seinalea, guelditzen da marca. Hala bada bekhatuaren sal-erosia eta colpea ere fito da egun Ordea guelditzen den seinalea, marca, notha, culpa, corra eta obligacinoa, seculacotz guelditzen da. *Transit actus et remanet reatus* : Iragaiten da colpea, eta guelditzen da ondoko ondorea.

Beraz arraçoin equin, guelditzen den ondoko ondoreagotic, narrioagotic, laburzqui eguiten den bekhatuari emaiten çaiica gaztigu lucea eta seculacoa.

Eta hala emaiten çaiica halaber ontasumean eta gracian, laburzqui eguiten den obra onari ere, seculaco loria eta pagamendua.

LII CAPITULUA.

Cergatic Iainco misericordiosar, demboraren buruan bedere, ezterauen ifernuan dandeney barkhatzen?

§ 1.

GOGOAC emaiten deraut benturaz erranen duela cebaitec : ezliciateque hobe, Iainco misericordiosac, hain misericordios denaz gueroz, usa leçan bere misericordiaz osoqui eta complituqui ; eta azquenean barkhaliacen guztiey, guztiz ere placer duen beçanbat demboraz ifernuan eduquiz guero ; eta han, bere saltac eçagut araciric, penitentia eraginez guero ? — Eta içatu da cebait bere nahiarequin batean, hala erran

duenic; eta gaichtoec hala mabi luquete. Ordea ezta hala içanen, eta ezta arraçoin ere hala den. Ceren bataz, baldin ezpaliz seculaco ifernuric, eta ifernuren belurtasonic, eztaquit liçatequeyenz bat ere munduan onic eta presturic. Daquigularie badela ifernu bat, guztiarequin ere gara garen beçalaco; cer liçateque bada, baldin baguiniaqui eztela halacoric içanen, eta içaitecotz ere, cebait deniborataeo içanen dela eta ez seculaco? Purgatorioetacoaz consolatzen gara, handic noizbait ilquico garelaco esperantarequin; hala consola guindezque bada ifernucoaz ere.

Eta berriz bertcea, ezta iusto, ezta ongi dagoen ludas nehoiz ere cerueo loriau, londone Petri eta Paüloren, eta bertce Apostoloen compainian. Ezta iusto, ezta çucen diren gaichtoac hain ongi çorheatuac, nola onac. Ezta iusto, ezta çucen Iaincoaren contra ibili direnac, eta haren cerbitçnan emplegatu direnac, hemen baino guehiago bertce moduan ere, diren berdin. Hura ezliçateque misericordia, baina liçateque iusticia falta: eta Iaincoa baithan ecin dateque halaco faltarie, maklurric eta injusticiaric.

Ezterauca ez Iaincoac bidegaberic eguiten ifernuan dagoen condenatuari, ez nehoiz barkhatceaz; eta har-gatic, hari ez barkhatcearequin ere, misericordios da Iaincoa; ceren san Thomasec dioen beçala: *Deus quantum in ipso est miseretur omnibus. Sed quia misericordia sapientiae ordine regulatur. inde est, quod ad quosdam non se extendit, qui se misericordia fecerunt indignos, sicut demones et damnati qui sunt in*

malitia obstinati : (1) Iaincoac bere aldetic denaz beçan batean guztiey barkhatseen deraue, guztiey ednquitcen du misericordia ; ordea behar den moldean, iusticiaren arauaz, eta nebor hartaco gai eta merecient denean, eta ez herteela. Eta nola dealbruac eta presuna danatuac expaitira misericordia erdiesteco gai eta ez merecient, ceren malician eta borondate gaichtoan ostitatuac eta gogorteac baitaude ; halatan ezta Iaincoaren misericordia hetara hedatzen. Eta hequen beren saltaz ezta hetara heltzen : *Perditio tua ex te Israël* : (2) Baldin ifernuan daudenec balute bere bekhatuez behar den urriquimendurie, badeguite penitenciarie, itxul balegate here boroundatea bertze alderat, gaichtotic onera, usa leçaque bai Iaincoac hequen alderatcolçat here misericordiaz, eta barkha liatçaye bere bekhatu guztiac, orai guri penitencia eguiten dugunean, barkhatseen derauzquigun beçala.

Orai gu bideazooac gara, badaliquegu penitencia : baina ifernuan daudenec eztute halaco escurie eta ez bothereric, ecin daidiquete hec penitenciarie, nahiogo balute ere ; iragan çaye hey bere dembora, akhabatu dira hequen feriac eta astiac.

Hec han bere bekhatuez damu eta urriqui badute ore, eztute ez damu eta urriqui hura, behar beçalacoa ; eztute Iaincoagatic, eztute Iaincoa ofensatuagatic urriqui, eta ez Iaincoari çor dioten amorioagatic :

(1) S. Th. Addit. ad 3. p. q. 99, art. 2. ad. 4.

(2) Ose. 43.

baina damu eta errabia dute iragaiten dituzten penacgatic. Abre batec ere min harten duenean, eguiten du sentimendo : hala bada ifernuan daudenec ere, minagatic, iragaiten dituzten penacgatic dute sentimendu, damn eta urriqui. Bainartze gaineracoan, itsutuac, ostitatuac, gogortuac dira ; eta bere saltaric behar beçala eçagutzen eztutela, eta ecin conberti ditezqueyen beçala, malician eta borondate gaichtoan gogortuac, harrituac, eta fincaituac daude. Eta hala mundu hunetako aldia eguniz guero, ezta erremediorie ; *in inferno nulla est redemptio*. Ifernuan ezta rescatic, ezta libramenduric. Eta halatzen hanhatetan abisatzen gaitu gueure Iaungoicoac, eta bai mehatchatzentz ere, beguira dugula, orai biei gareino, gueure bekhatuac erremedia ditçagula, ceren biliez guero, eztela erremediatceco lekhurie içanen.

§ 2.

Baina oraino ecin etsituz, eta halaz balitz nahiz, erranen du aguijan cenbaitec : egua da Iaincoac hala abisateen gaitu, eta bai mehatchatzentz ere. Ordea benturaz mehatchu hec eztira mehatchu baicen içanen, hitzetan iraganen dira. Ceren hala Ionas Prophetaren demboran ere, mehatchatu çuen Iaincoac Ninibeco hiria, eta erran hondatuco quela berrogoy egunen buruan ; ordea etçuen hondatu, etçuen mehatchuaren arauaz obratu, kheinatces eguin çuen, baina ez colperic eman. Benturaz hala içanen da, ifernuko pentera seculacotçat egotzteco eguiten dituen mehatchue-

tan ere -- Bai, bai, hala içanen da, baldin Ninibeco hiri harriz ordoau beçala, gure ere ORAI penitencia egiten badugu.

Gure Iaungoieoac mehatchatu çuen Noeren demboran mundu guztia, eta erran hondatuco çuela nholde handi batez. Eta hala hondatu çuen, bere mehat hua bere mugan complitu çuen. Etcerañen Ninibecoez beçala barkhatu, ceren ezpaitzenen Ninibecoez beçala, penitenciaric egun. Eguiten denean penitencia, eztira laincoaren mehatchusez mehatchu baizen. Hala emaitzen du aditeera Ieremias Prophetac laincoaren partez:

Si pœnitentiam egerit gens illa à malo suo, agam et ego pœnitentiam super malo quod cogitavi ut facerem ei; (1) Baldin nie mehatchatu nuen iendeac eguiten badu penitencia bere bekhatuaz, egunen dut nic ere egun gogo nioen gatziguaz. Erran nahi du: baldin iemile hura, edo nor nahi den bertceric ere, guelditzen eta guibelatzen bada bekhatu eguitetic eta onera bihurteen, gueldituco eta guibelatuco naiz ni ere, mehatchatu beçala gaztigatetic. Baino nola ifernuan dandenee ezpailzenen egun hemen penitenciaric, eta han bertze munduan ecin baitaidiñete: halstan complitzen dira orai han, hemen egun ceizten mehatchuac.

Mehatchatceco pontu hunen gainean, eiderqui erraiten du san Chrisostomoc: *Vis id esse minus? Ipse dominus es facti: melior efficere, et ad minas tantum*

(1) Jerem. 18.

*progredietur. Si vero, quod absit, minas contempseris,
venies ad experientiam. Qui dilucii tempore fuerunt,
si minas timuissent, periculum non sustinuissent, et si
nos minas timuerimus, periculum non subibimus :* (1) Çuc nahi cenduque Iaincoaren mehatchuac ezliren
mehatchu baicen, bada hori çure escuan dago, dio
san Chrisostomoc; on çaiteci, hobe çaiteci, eta eztira
mehatchu baicen içanen. Bain a baldin hobetcen ezpa-
çara, baldin mehatchuez conturic egüten ezpaduçu,
ethorrico çara ceure ordu gaitzara, forogura, penaren
esperientiaz frogatcera, eta caltearen pairatcera.
Noeren demboraco iende hec probetchatu balira eguin
ceizten mehatchuez, Ninibecoac probetchatu ciren be-
çala, etciren galduco, etcyen guerthatu ceyena guer-
thatuco. Ez eta guri ere etçaien calteric ethorrico,
baldin mehatchuec icituric, orai penitencia egüten
badugu, orai onera conbertitzen bagara.

Eta hala, baldin orai çu nor baçara, Iaincoaganat
itçultcen baçara, eztira çuretçat Iaincoaren mehatchuac
mehatchu baicen içanen; ezta çuretçat ifernuric guer-
thaturen. Bain a bertcela, baldin bekhatutan çaudela,
beguia hersten baçaiçu: eguin da, arima galdu da,
ezta guero guehiago ouera conbertitceric, eta ez pe-
nitencia eguiteric.

Haur da eguiia garbia, eta Eliçac Iaincoaganic erre-
cibitua eta eracutsia. Gaineraco guztia, Iaincoac
bertce munduan, demboraren buruan, bere misericor-

(1) Chrys. Hom. 50. ad popnl. Anthio.

diaz, gaichtoen alderatcoçat usatuco duela erraitea, gogoratcea, eta uste içaitea, da erhoqueria, enganamendua, eta iende galduen desircundea, asmoa eta amets bulsa.

Beraz huelatzen, *Dum tempus habemus operemur bonum*: (1) Dembora duguino, daguigun ongi. Eta badio Isaias Prophetac ere: *Querite Dominum dum inveniri potest*: (2) Bilha ecaue Iauna ediren ahal ditequeyen demboran. Bada orat ediren ahal diteque, eta ez guero. Hala erraiten du Iaincoac herac: *Queritis me et non invenietis*: (3) Bilhatuco nançue, eta eznaçue edirenen. Gauça galdua galdu den lekuan bilhatu behar da, eta bai ediren ere. Beraz Iaincoa ere galteen den lekuan, hemen bilhatu behar da, eta ez bertee manduau. Ceren hemen galteen baita, eta ez han, eta hemen galduoric hiltzen denean, ezpaita han edireiten.

Erran comuna da, eta ongi errana da (lehen ere erran dugun beçala) eztiaçioia nehorc ere nehorri, hanbat calte eta bidegabeguin, nola norc berac bere boruari. Mundu herri guztiac ere, baldin cerorrec bideric emaiten ezpadioçu, ecin egotz çaitçaque ifernura. Baino cerorrec, bat baicen etçarelaric, cerorrec egotzten duen ceure burua.

Etçarela bada cerori cenretçat horrein etsai handia,

(1) Ad Gal. 6.

(2) Isaiae 55.

(3) Ioan 7.

urrial bequicu ceure burna. Considera itxatgu ifernuco pena handi icigarri hec; eta guztien gainetic secula fin gabe hura, behinere ez akhabatee hura: eta akhabatceco esperantçaric gabe, etsitua eta desesperatus egoite hura. Hartan pensa eçaçu, hartçaz eguien gogoeta, hasnau eti bihozqueta. Gogoeta harequin lohacar çaiteci arralsean eta bai iratçar ere goizean. Halatan apartalnuco çara eta beguiratuko ifernu eterno icigarrirat eramaiten duen bidetic; bide onean iarrico çara; eta mundu hunetako itsaso hunen tormenta goztiaic iraganic, helduco çara salbamenduko portera. Baino pensatu eta eguien behar dena ceure buruaren periletic khenteeco eta segurantçan emaiteco; eztecaçula berant, eztecaçula luçat, bihur çaiteci lehen baino lehen ceure Iaincoagana; etçabiltçala guerotic guerrora, egnetic biharera. Iaincose herac erraïten de-raçu: *Non tardes converti ad Dominum et ne differas de die in diem, subito enim veniet ira illius, et in tempore vindictae disperdet te:* [1] Ez berant azlurra gaistioen uztea, onerat itxultcea, ecen ustecabean eror didaqui-u Iaincoaren haserrea, eta uzten baduçi iellicera mendecuzco orena, orduan galdua içanen çara.

(1) Eccli. 5.

XII.

BERTHUTEAREN ERREZTASUNA.

LIII CAPITULUA.

Nola ikhussiric ifernuco bidea den gaitzago Parabisuoa baino, behar den guerotic guerora ibiltcea utzi.

§ 1.

ANHIZETAN egota naiz neure buruarequin gogoelan, eta iduriteen çait ecen gogoeta eguiteco eguitecoa dela: ea cein den gaitzago, Iaincoaren cerbitçateea ala deabruaren: parabisura ioaitea ala ifernura.

Bi presuna daunde bertce munduan, bata parabisuan eta bertce ifernuan. Bada hetarie bietaric, ceinec iragan othe çuen mundu hunetan pena, eta trabaillu guehiago? Haur nahi nuque iaquin, hunen nago galdezt, haur da ene gogoeta.

Badirudi trabaillu guehiago iragan behar duela parabisuratcen denac parabisuratceco, ifernuratcen denac ifernuratceco baino. Ceren parabisuoa bidea gaitzago baita, ifernuoa baino. Hala emaiten du aditceria Iesu-Christoc san Matheo baithan: *Angusta porta et arcta est via quæ dicit ad vitam, et pauci sunt qui inveniunt eam:* (1) Athea, athe hertsia da, eta bidea ere bide meharra, parabisurat dohana, eta gutiac dira

(1) Matth. 7.

bide hura edireiten dutenac. Erran nahi du gaitz dela ceruco lorian sartcea, eta Jaincoaren manamenduen complitcea. Ceren ezta bide bat baicen, eta bat hura ere, guztia da mehar, malkhar, buruzgora, haraguia-ren contra eta desgogara.

Eta guztien horuan, ezta bide hartan batere errebelatua behar, eta ez nehorat makhurtu ez aldaratu: manamendu guztiac behar dira complitu. Baino ifernura ioaiteco, eztira guztiac hautsi behar, asco da batetan faltatcea. Hala erraiten du Iondone Jacuec : *Quicumque totam legem servaverit, offendat autem in uno factus est omnium reus :* (1) Bertee guztiac complitugatik, batetan behaztopatzen bada, guztietan eguiten da hobenduri. Eta haur aditeen da, glosac dioen beçala, *de pena damni et non de pena sensus :* (2) Guztietan eguiten da hobenduri, ez ceren bekhatu bat baicen eztuenac hanbat pena mereci duen nola hamar dituenac, baina ceren bat baicen eztuenena ere ifernurako baita, hamar dituenena beçain ongi, ez hain barrena eta ez hanbat penarequin; ordea biac barrenean, nore bere mereciarequin eta gaztiguarequin.

Beraz gaitz içanen da parabisuan sartcea hartaracotçat manamendu guztiac complitu behar direnean, bide bat baicen ezienean, eta bat hura ere hain meharra eta gaitza denean. Eta hala Iondone Pauloc bere saindutasun guztiarequin ere, ecin bururic eginez

(1) Jacob. 2.

(2) Glosa in cap. 2. Jacobi.

beçala, erran çuen : *Infelix ego homo, quis me liberabit de corpore mortis hujus?* Ai ene ditchagabea, ene onbeharra eta urrialquiçuna, nore libratuko nau gorputz hilcor honetaric ? *Scimus enim quod lex spiritualis est, ego autem carnalis, venundatus sub lege:* (1) Ceren ni naiz haraguiz eta haraguiari emana, eta leguea, Iaincoaren manua, spiritu da. Cer ikuhsquiçun du hada spirituac haraguiarequin ? Nolatan abenituco dira biac elkarrequin ? Eguiteco handia da baur, hain handia, ecen arraçoineqnin erraiten baitu Salomonec : *Jugum grave super filios Adam, à die exitus de ventre matris eorum, usque in diem sepulturae in matrem omnium :* (2) Uztarri pisua eta carga handia darabillate soinean Adanen umec, sortzen diren egunetic heriotceraino, bere amen sabeletie ilquitzen direnetic, hobira, guzlien amagana bihur arteino. Halatan erraiten du san Matheoc : *Regnum cælorum vim patitur :* (3) Ceruco erresumari bortcha eguin behar çäica : han parterie içanen duenac, ein cinez eta bere indar guztiaz, behar du permatu. Eta badio Job sainduac ere : *Militia est vita hominis super terram :* (4) Guiristina, guiristino denac, guerlan dabilan soldaduac becanbat, trabaillu iragan behar du. Egniazco soldadutsuna da guiçonaren lurreco bicitcea. Eta Iondone

(1) Rom. 7.

(2) Excli. 40.

(3) Matth. 14.

(4) Job. 7.

Ioannes Evangelistaren errana da : *Palmae in manibus eorum :* (1) Iklussi rituela iostuen escuetan palmas, cein baiteiren palma çuhaitzaren adarrac, bictoriaren seinalesc. Eta bictoria den lekuan, aitcinetic behar da guerla, aitcinetic behar da neque eta tra-baillu. Ceren londone Pauloc dioen beçala : *Non coronaabitur, nisi qui legitime certaverit :* (2) Ezta coroa-tua içanen, eta ez bictorios gueldituco cin cinez per-matzen eta guduztatzen eztena.

Eta are baur da eguitecoia, cenbatenaz eta guiristi-no bat baita guiristinoago, cenbatenaz eta cintquiago eta fintquiago permatzen eta enseialcen baita laincoaren cerbitçatcera eta deabruari contra eguitera, han-hateusz etsaiac harmatzenago, eta tentamenduae ere berreteenago çaitça. Hala emaiten du Spiritu sain-dnac aditcera : *Fili accedens ad servitutem Dei, stamin justitia et timore, et praepara animam tuam ad temptationem :* (3) Ene seme, hasten çarenean laincoaren cerbitçatzen, çande erne, eta beldur çarela, eta presta çaité tentamenduey contra eguiteco. Ceren iaquin behar duçu ecen, orduan egundaiño baino, tentatuagoa içanen çarela. Hunen arauaz erraiten du londone Pauloc ere : *Qui pie virere volunt in Christo Jesu, persecutionem patientur :* (4) Saindu-

(1) Apocal. 7.

(2) Th. 2.

(3) Eccl. 2.

(4) 2. Ad Tim. 2.

qui eta prestuqui, Jesu-Christoc manatzen duen beçala, bici nahi dotenac içanen dira penatuac eta perseguituac. Hey erauzten çazte falseriac, hey eguiten çazte irriac eta escarnioac, finean hey eguiten derauzte munduac contra handiac.

Eta guertha baledi ere munduan centbait presuna hain sainduric, iusturic, fama handitacoric, edo dohatsuric, non ezledin nehor ausart haren baithan mihiric ibentcera, eta ez haren ohorearen uquitcera, eguaia içanen da orduan ere, londone Pauloc dioena, tentatuac eta perseguituac içanen direla iustuac. Cerren bere baithan barrena bedere, bere haraguiaaren muguidez eta desira desordenatuez, eta deabruaz ere tentatuac eta frogatuac içanen baitira.

Guerla handia dute elkarren artean berthatec eta bicioec. Urgullutasunac guerla handia eguiten dio humiltasunari; abariciac liberaltasunari; haraguia castitateari; imbibidac caritatetari; gulac abstinenziari; colerae pacientiari; naguitasunac diligentziari. Eta hunen batuarequin istu guztia dira perseguituac eta contrastatuac bere baithan barrena bedere.

Eta hala bethiere da eguaia: *Per multas tribulationes oportet intrare in regnum Dei.* (1) Anhitz tribulamen-duz, penaz, eta trabailluz behar dela ceruco erresuman sarthe. Anhitz incontru bortitz, anhitz pena eta atsecabe iragan behar du parabisuco hidean dabilu-nac.

(1) Actuum 14.

§ 2.

Ifernuko bidea daducanac, badirudi eztuela halaco atsecaberic, persecutioneric eta contraric igoiten, eztuela halaco guerluric eta eguitecoric sentitzen. Ceren bere gogoac eta haragniac diotsan beçala, bide çabalaz, bere aisiara baitabilla. Halatan erraiten du san Matthœc : *Lata porta et spatiose ria est, quæ dicit ad perditionem, et multi sunt qui intrant per eam :* (1) Athea, athe çabala, eta bidea ero bide handia eta espaciotsua da ifernurat dohana; eta anhitz ibilteen da bide hartan, eta hai atheistan ere sartzen; bada han oin hatxa franco, eta ez compainia escasie.

Eta ifernuko bidea, gaichtoec daramatena, deitzen da handia eta çabals, ceren hartan dabiltzanac, ez-paitira erreguelaz bici eta ez ordenantçaz. Ezntze hec bertce erreguerlaric, bere borondatea baicen, eztaude leguearen azpian, legnea da hequen azpico. Bidea huts equinac, errebelatuac dabiltça; eta hala dabiltzanac nondie nahi den dabiltça, hequentçat guztiac dira bide, guztiac dira çabal. Eta nola çabal baitira eta laguna ere franco baitute, placer çaye, bere errebelamendu guztiarequin ere, bide çabal hartan ibiltcea.

Placer da mihiaren, anhitz arnegu eta iuramentu eguiten duela, nahi duen beçala mintçalcera utztea. Placer da igandetan eta bertce bestetan, solhasean,

(1) Matth. 7.

ian edanean, dantetan, iocoan eta atsegün hartean, meçaz, bezperaz eta oracinoz conturic egun gabe, demboraren iragaitea. Placer da haraguiac quilitzen çaituenean, berehala ceure désiraren complitcea. Placer da bidegabe bat eguiten deratçutenean mendecatcea, ordainez ordain, moneda berean pagateea. Placer da, bere edo bertceren, escuen artean cerbait erabiltcea, eta alfer eta aise, ebatsiz içanen bada ere, egoitea. Placer da ohe onean eta garbian etçatea. Placer da ez barurtcea, ougni iatea, hobequi edatea, eta barazcari onagatice, afari hobearen ez utztea. Finean placer, placent eta atsegün da, here gogoac eta aphettuac diotsan beçala, bide çabalaz ibiltcea.

Ez ordea ezta placer eta ez atsegün, baina gaitz eta penos da, parabisuco bide meharraren eduquitcea; manamendurie hautsi gabe, bethi artez ibiltcea eta bicitcea. Gaitz da mihiaren ongui gobernatzea, limburtcetic beguiratcea, eta bertzeac çutçaz mintça líticin nahi cenduqueyen beçala, cu ere hetçaz minçatcea. Gaitz da bidegahe bat eguiten deratçutenean, barkhatcea; gaizqui erraiten deratçunari ez ihardeste, ceure escuan duçularic ez mendecatcea. Gaitz da, haraguiac tentatzen çaituenean, gaietan eta okhäsinoetan çarelaric, ceure burnuaren bortchatcea, desiraren ez complitcea. Gaitz da tratuetan eta salerosietan bethi eguiaz ibiltcea, bertcerena escuan darabillaçularic, ez cutsatcea, errolan irinic ez lotcea. Gaitz da çur baten gainean, ceure ohe ona utziric, eta larru arras cilicio bat, erdazeo guerrico bat harturic, etç-

tea eta ibiltcea. Gaitz da barurteca; ianhari ona, edari hobea eta aphetitu ere duçularic, guztien, Iaincoagatic, utztea. Finean gaitz da eta penos da munduan garelaric mundoan ezpaiguina beçala, munduaz kontric egun gabe, Iaincoaren borondateari errandaturic egoitea; haren manamenduen arauaz, haraguiz ezpaiguina beçala, bethi spiritualqui bicitcea.

Alabaina gitzago bada ere, haur da parabisura ioaiteco bidea, haur da hau sartceco athea. Beraz orai badirudi ecen cztela gaitz, galdez gauden eguitecoari ihardestea. Ceren iduriz frogatu baitugu asco clarqui, errazago eta placentago dela ifernuco bidea parabisuoa baino, parabisuoa hain gaitz denaz gueroztic.

Baina guztiarequin ere aibertcen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuco bidea errazago, plauñago eta placentago dela, ifernuoa baino. Eta ifernura ioaiten denac, pena eta trabaillu guehiago iragan behar duela, are mundu hunetan ere, ifernura ioaiteco, parabisurateen denac, parabisuratceco baino.

Eta hartaracotçat frogatzen lehenic, erraz dela parabisuco bidea, eta guero frogatuco dugu, errazago dela ifernuoa baino.

LIV CAPITULUA.

Nola parabisuco bidea den erraz.

Eguna haur, parabisuco hidea erraz dela, anhitz moldez, eta arraçoinez frogatzen ahal diteque. Lehenbiceric erraiten du londone Ioannes Evangelistae: *Man-*

tea eta ibiltcea. Gaitz da barurteca; ianhari ona, edari hobea eta aphetitu ere duçularic, guztien, Iaincoagatic, utztea. Finean gaitz da eta penos da munduan garelaric mundoan ezpaiguina beçala, munduaz kontric egun gabe, Iaincoaren borondateari errandaturic egoitea; haren manamenduen arauaz, haraguiz ezpaiguina beçala, bethi spiritualqui bicitcea.

Alabaina gitzago bada ere, haur da parabisura ioaiteco bidea, haur da hau sartceco athea. Beraz orai badirudi ecen cztela gaitz, galdez gauden eguitecoari ihardestea. Ceren iduriz frogatu baitugu asco clarqui, errazago eta placentago dela ifernuco bidea parabisuoa baino, parabisuoa hain gaitz denaz gueroztic.

Baina guztiarequin ere aibertcen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuco bidea errazago, plauñago eta placentago dela, ifernuoa baino. Eta ifernura ioaiten denac, pena eta trabaillu guehiago iragan behar duela, are mundu hunetan ere, ifernura ioaiteco, parabisurateen denac, parabisuratceco baino.

Eta hartaracotçat frogatzen lehenic, erraz dela parabisuco bidea, eta guero frogatuco dugu, errazago dela ifernuoa baino.

LIV CAPITULUA.

Nola parabisuco bidea den erraz.

Eguna haur, parabisuco hidea erraz dela, anhitz moldez, eta arraçoinez frogatzen ahal diteque. Lehenbiceric erraiten du londone Ioannes Evangelistae: *Man-*

data ejus gravia, non sunt : (1) Lainekoaren manaweo-dnac eztira pisu eta ez gaitz. Halaber erraiten du *Spiritu sainduac : Qui custodit præceptum, non experietur quidquam mali :* (2) Manua compliteen duenac eztu gaitzie frogatuco, halacoa aise eta bere gogara içanen da. Eta guztien gainetik erraiten du gure Salbatçailleac berac : *Venite ad me omnes qui laboratis et onerati estis et ego reficiam vos. Tollite jugum meum super vos, et discite à me quia milis sum et humiliis corde, et invenietis requiem animabus vestris. Jugum enim meum suave est, et onus meum leve :* (3) Catozte enegana trabaillateen çareten guztiac, eta cargaturic çaudetenac, eta nic arinduko eta aise ibenico çaituztet. Har eçaçue ene uztarria ceuen gainera, eta ikhas eçaçue eneganic, ni naicen beçala, eme eta humil içaiten ; eta edireneng duçue çuen arimentçat baque eta sosegu. *Legis difficultatibus laborantes, et peccatis seculi oneratos ad se vocat.* (4) Legue çaharreco círmoniez trabaillaturic, eta bekhaluzco eguitecoez cargaturic daudecinac, deiteen tu beregana ; eta hey erraiten deraue, leguez aldaturic, legue çahar hura utziric, eta bekhatuen cargo ere bereganic egotziric, har deçatela berteo cargo molle bat, uztarri leunago bat, cein baita legue berria, Evangelio saindua ; eta haren

(1) Joan. 5.

(2) Eccli. 8.

(3) Matth. 11.

(4) Hilarius, canon 42. in Matth.

aranaz biciteen direlaric, ikhusico dituela cen aisia handian ibenico dituzten bere buruac, cein content eta bere gogara bicico diren; eta cein placent, aisit eta erraz idurituco çayen Iaincoaren cerbitçatcea, eta haren legue sainduaren uztarriari errendatoric, manamendu sainduen bidean ibiltcea.

Iaincoac berac erraiten du, placent dela haren uztarria eta carga ere arin; beraz hala da, placent da eta arin, ceren Iaincoac ecin derraque gueçurric. Ordea nola Iaincoac erraiten baitu, haren uztarria placent dela, eta carga ere arin; hala erraiten du halaber Iaincoac berac, parabisura ioaiteco bidea, bide hertsia, meharra eta gaitza dela, eta gutic edireiten duela bide hura. Baino ifernuco bidea dela handi, çabal eta placent, eta eztela bide hartan iende esasic, badela compainia franco. Bateau emaiten du aditcera, erraz dela eta çabal parabisuco bidea eta berriz bertcean gaitz dela eta mehar. Nolatan ahal dateque bada haur hunela, erraz eta gaitz, çabal eta mehar?

§ 1.

Pontu huni ihardesteco, iaquin behar duque ecen baldin aldebatetic Iaincoaren legue sainduari berari, hain osoqui eta complituqui complitu eta beguiratu behar denari; eta bercetecic gueure haraguiari ere berari, hain gauça flacoari eta flacatcen errazari, soilqui eta bakharric beha badicegu, latz eta gaitz dela Iaincoaren cerbitçatcea, eta haren legue sainduaren beguiratcea eta complitcea. Baino baldin considera

baditçagu Iaincoaren laguntxa, ethorquiçuneco esperantxa, pagamendoaren segurantxa, gogotic eta horondatez dagoenaren indarra, eta guztien gainetic, ontasunean dabillanari Spiritu sainduac emaiten dioen indarra, berotasuna, consolamendua eta donua, ederenen dugu, ez gaitz baina erraz; ez hertsia baina çabal; ez pisu baina arin eta placent dela Iaincoaren cerbitçatcea eta haren legue sainduaren complitcea.

Gaitz da Iaincoaganaco bidea, haren manamenduen complitcea. Ordea norentçat da gaitz? Berrientçat, usatu gabeençat, naguientçat, lachoentçat, enseiatecen eztirenentçat; aitcinarat behatu gabe, ethorquiçunaz couturie egun gabe, haraguiaren arauaz bici nahi dutenentçat; eta guztien gainetic gogotic eta amorioz etaudecentçat. Ez ordea ezta latz eta ez gaitz, haraguiari guibela emanie, arraçoinaren arauaz gobernateen direnentçat, ethorquignera behatzen dutenentçat, eta gogotic eta deliberatuqui, ein cinez eta amorioz enseiatecen direnentçat. Hala emaiten du aditcera san Chrysostomoc: *Quod si onus audiendo formidas nimium alque perhorrescis, non naturae rerum hujusmodi timorem, sed ignaviae tuae totum tribue. Nam si accintus et præparatus eris, et nulla desidia effeminas, cuncta facilia ridebuntur:* (1) Baldin Iaincoaren Evangelioa eta uztarria caiga dela ençuteaz lazten eta larritzen bacara, ceure hotzasanari eta uaguitasunari etnoçu hoben eta falta, eta ez bertceri. Ceren

(1) Chrys. Hom. 3. in c. 11. Matth.

baldin gogotic, ein cinez prestaturic eta istalgaraturic, abia bacindeci eta perma, etcindezque ici eta ez ikhra, baina iduri lequidiqueçu guztia erraz, placent eta arin. Geren oraino san Chrisostomoe berac dioen beçala : *Fieri potest, quod natura est intolerabile, sit leve, si cum alacritate animi suscipiamus :* (1) Bere egitez gaitz den gauça ere, errazten da, gogotic eta alegueraqui harteen denean. Eta badio san Agustinec ere : *Omne praeceptum leve est amanti :* (2) Manamendu guztiac dira erraz amorio dnenarentçat. Den gauçaric errazena egun bedi gogo gaitzez, eta gaitz içanen da ; den gaitzena, egun bedi gogo onez eta erraz içanen da.

Halatan Ioudone Ioannes Evangelistae, amorio dutenez eta eztutenez mintxo dela, emaiten du aditeera, amorio dnteney, manamendu goztisc iduritcen çaztela manamendu bat : *Si quis diligil me, sermonem meum servabit.* (3) Baina amrioric eztuteney manamendu bat bera iduritcen çayela, anhitz manamendu : *Qui non diligil me sermones meos non servat.* Batean dio *sermonem*, eta bertcean, *sermones*. Halatan erraiten du san Agustinec ere : *Ita corpus pondere, sicut animus amore, fertur, quocumque fertur.* (4) Amorioac erabilteen du batbedera nahi duen lekhura, pisuac ba-

(1) Chrys. in cap. 16. Luc.

(2) August. sent. 22.

(3) Joan. 14.

(4) August de civitate dei. cap. 28

Iantxa erabilteen duen beçala. Guztia dago gogoan, guztia dago borondatean eta amorioan.

Manamendu guztiac amoriotic eta caritatetic hasten dira, amorioaz eta caritateaz compliteen dira, eta amoriota eta caritatera bere finera eta chedera beçala, biltseen eta bihurteen dira. Beraz ecin dateque gaitz, amorio duenarentxat, manamenduen complitcea. Cerren amorioac manamenduey bere garratzlasuna ezlitseen, mintasuna goçatcen eta gaitzlasuna errazten baiterane. Erregue Davitec nola ezpaitçuen amorio escastic, halatan Iaincoaren manamendua erraz idurituric, erraiten çuen : *In via testimoniorum tuorum delectatus sum sicut in omnibus diritiis* : (1) Gure manamenduen bidea, hain da bide atseguina eta placenta, non hartan ibiltceaz, munduko aberatsiasun guztien escuen artean erabiltceaz baino atseguinago hartu baitut. *Quam dulcia fuscibus meis eloquia tua* : Ecin derraquez cein goço eta eztí çaiquidan neure ahoan eta eztarriaren çure manuac, solhasac eta perpausac, are eztia baino ezliago edireiten tut, *super mel ori meo*.

Amorioac beroturic, egniten çuten lehenagoco sainduet, Iaincoaren cerbitçuan, hanbat balentia, halatan pairatcen çuten hanbat pena, eta trabaillu, heriotee eta martirio, dolore eta estira.

Nola Patriarca Iacobi iduritu baitceican labur eta deusguti, Raquel eder eta prestnaren erdiesteagatic, cazpi urthez haren ondoan eta cerbitçuan ibiltcea,

* (3) Psal. 118.

ceren maite baitçuen, amorio haitciaducon : *Videbantur illi pauci dies præ amoris magnitudine.* (1) Hala sainduey ere iduriteen çaye deusguti laincoagatic eguiten duten guztia, ceren gogotic baitaude, amorioa baitute handia. Halatan Apostoluec ere orduan cedut-gaten bere buruac dohatsuenic eta ciren aleguerenic, noiz eta laincoagatic desohore eta laido guehiago erre-cibitcen baitçnten : *Ibant gaudentes à conspectu concilii, quoniam digni habiti sunt pro nomine Jesu contumeliam pati.* (2) Geren nola desohore eta laido hec guztiac, borondatez eta amorioz hartcen baitcituzten, amorio harequin batean, etcituzten sentitzen, etciezten trabaillu iduriteen. Hunen arauaz erraiten du san Agustinec : *Nullo modo sunt onerosi labores amantium, sed etiam ipsi delectant, sicut venantium, aucupantium, piscantium. Nam in eo quod amatitur, aut non laboratur, aut et labor amatitur.* (3) Amorioz eta gogotic dabilçanen trabailluac, eztira trabaillu, aitcitie hetan atseguin hartcen da : ibiztariac, harrançaleae, pilotariac, nekhatcen dira, trabaillateen dira ; eta alabaina trabaillu hura guztia bestatçat hartcen dute ; ceren maite den gauçan, edo ezta nequeric, edo maite da nequea ere : edo ezta trabailluric, edo baldin bada ere, har-tan atseguin hartcen da.

Ikhusico duçu cenbat pena iragaiten duen aina ba-

(1) Genes 29.

(2) Actu. 5.

(3) August. de bono viduitatis.

tec bere haur ttipiarequin; eta guztiz ere, haurra charra, cacartua eta hazcari gaitza denean. Ezio loric eguitera utzten, gau eta egun bareu mainatzen eta errecaitatzetan, bere burna deseguinie, hari behar du. Eta guztiarequin ere ama ona hartan loriatzetan da: gauaren erdian iaiquiric, eta bere loa galduerie, haur harequin, mila erhoqueria erraiten duela, dostatzetan da, ceren maite baitu, amorio baitiaduco. Eta amorioac trabaillu guztiac arintzen, goçatzen, çaphoratezen eta ezeztatzetan baiterautxa. Hala bada gnristino onari ere, amorioac, gogotic egoileac, arintzen, errazten, goçatzen eta ahantz aratcitezan derantxa, Iaincoaren manamenduen complitcean, iragan behar diren neque eta trabaillu guzliac. Hala erraiten du san Agustinec : *Omnia sava et immanta, prorsus facilia et prope nulla efficit amor*: (1) Diren gañaric gogorrenac, molde gaitzenac eta hez gaitzenac ere, hezten, beratzen, moldatzen eta escuetaratzen tu amorioac. Ezta gañaric, amorioac hez, hauts, balaca, eta errenda ezteça queyenic. Guiçonae anhitz pena eta trabaillu pairatzetan du bihotzean duen gañagatic edo presonagatic, anhitz gan eta egun gaichto iragaiten du, harren erdiestengatic. Bainha hec guzliac, ceren amorioac baitarama deus goti sentitzen tu. Bada guiristino onac, Spiritu Sainduaren amorioaz eta garaciaz uquitic dagoenac, cenbatenaz gntiago sentituco ditu, eta errazquiago iraganen ditu, Iaincoaren cerbitxuan ahal

(1) August. de verbis Domini, 8. et serm. 42. de tempore.

diratequen trabailluac? Ceren amorio garbiac, laincoaganic heldu denac, balimba indar guehiago behar luque, eta du ere, deabruaganic heldu den amorio higuin, hats liçunac baino. Eta balatan arraçoinequin erraiten du gure laincoac haren leguearen uztarria placent dela, eta carga arin. Ceren hala baita, arin eta placent baita, gogotic dagoenarentçat, borondatez eta amorioz hartceu duenarentçat.

§ 2.

Are guehiago, placent, aisia, arin eta erraz da laincoaren cerbitçatcea, haren manamenduen complitcea; ez hastean, ez lehenbician, ceren haraguiac eta usantxa gaichtoec contra handia eguiten baitute. Baina behin usatuz guero, dastatuz guero, eta Spiritua haraguiari iaunduz guero, ezta munduan hain bianda apheritosie eta goçoric, nola baita laincoaren cerbitçatcea. Capatac iauntzi berrian hersten du, min eguiten du, baina aphur bat erabiliz guero, moldateen da, oinaren neurriira eta orcoiera ethortcen da. Oinac Iohacartua dagoenean, eta gorputza ere currondua, manai guti dute, iaiquitcera eta ibiltcera herabe dute: baina behin iaiquiz guero, eta aphur bat higuituz guero, berehalal calhuitcen, manaiucortcen eta iratçarteen dira. Halaber presuna ian-çaharrac, matxela gogortua -edo horzquitua dagoenac, eztu atseguinic hartcen iaten hastean, lehenbicico pochinean eta ahameanean: baina behin hasiz guero, handic harat iaten duena on eta goço edireiten du. Hala bada laincoaren cerbitçuan

ibili nahi dena ere, lehenbician horzqui da, currun da, hotz eta nagui da; baina enseia bedi, has bedi, eta berehala berotuero eta çalhuituero da, trebe, hithore eta entregu içanen da, aise ibilico da: eta guero eta guero aiseago, ceren ezta han asetceric eta ez higuintceric. *Augent enim spirituales deliciae desiderium in mente, dum satiant: quia quanto magis earum sapor percipitur, eo amplius cognoscitur quod avidius ameretur.* (1) Bertee iauharieec hiltcen dute aphelitua, Dio san Gregorioe, baina Iaincoaren cerbitçatceco ianhari huncer berretcenago eta piztenago du. Ceren barrenago, hobeago eta goçoago edireiten baita.

Munduco placenteiec, diren handienec ere, demborarequin unhatcen dute, bere batez aitcinago, higuintça emaiten dute. Baina Iaincoarenec, guero eta guero aphelitua pitzten eta berretcen dute. Eta handic harat, hala berretuz guero, usataz guero, atseguin da eta placent Iaincoaren bidean eta cerbitçuan ibiltcea, harren manamenduen complitcea, eta prestuqui bicitcea.

§ 3.

Are guehiago atseguin da eta placent Iaincoa ganaco bidea, harren manamenduen complitcea, complitce hartaric heldu den probetchuari eta irabaciari behatcen dioenarentçat; hartan gogoa eta beguiac ibentcen dituenarentçat. Ceren san Chrisostomoc dioen beçala: *Nulla res est tam difficilis quæ non*

(1) Greg. Hom. 36.

sicut facilis spe futurae vita: (1) Ezta hain gauça gaitzic, elhorquiñmeco bicitcearen esperantçarequin errazten eztenic. Hala erraiten du san Agustinec ere : *Omne opus leve fieri solet, cum ejus præmium cogitatur, et spes præmii solatum est laboris:* (2) Den lanie handiena ttipiteen, eta curgaric pisuena ere arintcen du, bartaric heldu den irabacian pensatceae. Pagamenduaren esperantç da, trabailluaren consolamendua. *Si vis sustinere laborem attende mercedem,* dio oraino san Agustinec : (3) Nahi baduço iraunn trabailluan, pensa eçaçu pagamenduan, eta irabacian. Den eguitecorie gaitzenari ere, gogotic lotcen çacaitç, ongi pagatua içanen çarela segur çerenean. *Condimentum cibi jejunium est; quanto aridior appetentia, tanto esca juvündior,* dio san Ambrosioc : (4) Ianhariaren iaquia barura da, eta gosea; cenbatenaz gosea handiago, hanbatenaz ianharia goyoago. Nola gosea edo aphetitua baita ianhari guztien saltsa eta iaquia : hala da nequearen eta trabailluaren consolagarria, çaphoragarria eta arintcarria, pagamendua eta pagamenduaren esperantç. Hunen aranaz erraiten du erregue Davitec ere : *Declinavi cor meum ad faciendas justifications tuas, propter retributionem:* (5) Deli-

(1) Chry. in psal. 5.

(2) August. ad Demetria. Virg. c. 28.

(3) August. in psal. 38.

(4) Ambros. de Elia et jejunio. c. 4.

(5) Psalm. 118.

beratu nuen cure manamenduen complitcera, complitetic heldu ceitan probetchuagatic. Nehorc deus uste eztuen lekhuau . herabe du, oina pisu du ; baina irabaciac oinac arin ditu.

Laborariac fruituen esperantçan, gogotic iragaiten du bere lur hunetaco nequea. Mercatariac irabaci ustez eguiten du itsasoz eta leihorrez, hain arintqui, hanbat bide, itçul-inguru eta ioan ethorri. Finean irabaciaren esperantça hunc , deusen usteac , ernatcen eta iratçarteen du mundu guztia ; hain iratçarteen , non esperantça hunequin, neguac uda, gauac egun, uriac atheri, minac goço, trabailluac nisia , eta atsecabeac ere atseguintasun eta placencia iduritzen baitzaizquigu.

Bada baldin mundu hunetaco irabaci aphur bat esperantçac, anhitzetan ere enganaturic utzten gaituenac. hain gogotic, hain arinduric , eta guti senturic , trabailla araeitzen bagaitu ; cer içanen da arraçoin , eraguin deçan ceruco loriaren esperantçac, usteac eta orhoitçapenac ? Eta cer içanen da halaber, loria haren, irabaci guztien gaineco irabaciaren ondoan dabillanaz ? hain gauça handiaren esperantçan trabaillatzen denaz ? Halacosri, barurtcea, oracinton egoitea , etsaiari barkhatcea, haraguiaren placeren utztea , eta finean obra on guztien eguitea, iduritzen çäica erraz, eta deus guti. Ceren trabaillu aphur hequengatic, seculaco loriaren, hain irabaci handiaren eta pagamendu abantaillatua ren esperantçan iartzen baita. Halatan erraiten du san Agustinec : *Cum attenderis quid accepturus sis, omnia*

erunt tibi vilia quæ pateris, nec digna aestimabis, pro quibus illud accipias : (1) Considera decaçunean cein pagamendu handia emanen çaitçon hemengo trabaillu aphurragatic, erranen duçu eztuçula, hain deus gutigatic, hanbat mereci. Ceren trabaillua baita tiipi, labur eta iragançaille eta pagameadua handi, luce eta seculaco.

Considera decaçun beraz pagamendua, eta edireneng dugu erraz Iaincoaren legue saindua.

§ 4.

Are guehiago edireneng dugu erraz eta arin Iaincoaren legue saindua, ceren legue haur uztarri baita, eta uztarria, biec iasaiten eta eramaiten baitute. Hala tan erran cerauen baratcean Nabusiak bere discipuluey : *Sustinet e hic et vigilate mecum :* (2) Iasan eçaçue orai hemen aphur bat eta çandete iratçarriric; eta ez ceroc ez, baina *mecum*, enequin, ni lagunteen naçaitçuela-rie. Hala erraiten du Iondone Pauloc ere : *Abundantius illis omnibus laboravi ; non ego autem, sed gratia Dei mecum :* (3) Ni bertee guztiac baino trabaillatuago naiz, ez ordea neror ez, *sed gratia Dei mecum*, Iaincoaren garacia enequin. Hala erran çuen halaber Iondone Pauloc berac : *Omnia possum in eo, qui me confortat :* (4) Ezta gauçaric, neure esporteañallearequin batean, eztaidiquedanic.

(1) August. in ps. 36.

(2) Matth. 25.

(3) 1. Cor. 25.

(4) Philip. 4.

Consolamendu handia da, bere trabailluctan eta eguitecoetan, lagun on baten içaitea. Beraz consola ahal gaitezque gu ere, ceren gueure eguitecoetan lesu Christo lagun baitugu. Obra oinetan  abilt anean et ara behinere bakharric,  urequin da Iaincoa, lagunteen  ait u, guidatzen  aitu. Eta halatan da Iaincoaren lege saindua erraz eta arin. Ceren Iaincoac berac guehien partes iasaiten, eta eramaiten baitu.

Iaincoaren manamendua, idien orga, chaluparen araua, untciaren belac, eta hegaztinaren hegalac be ala dira. Orga carga da, pisu da; ordea idiec, carga harequin, carga guehiago eramaiten dute; orgaren carga lagunteen  aye carga erramaiten. Arra uc, eta belac ere pisu dira, ordea hequin batean arintquiago, eta lasterugo dohaci untciac eta chalupac. Hegaztinaren hegalec ere badute bere carga eta pisutasuna; ordea carga harc, ez cargatzen, baina arintzen du hegaztina. Hala erraiten du san Agustinec : *Hec sarcina non est pondus onerati, sed alio volaturi; habent enim et aves pennarum suarum sarcinas. Et quid dicimus? Portant illas et portantur. Portant illas in terra, et portantur ab illis in caelo :* (1) Hegaztinac iasaiten tu lurrean bere hegalac, eta airean hegalec iasaiten dute hegaztina: iasaiten ditu, eta iasaiten dute. Erran bacone a: Hegaztina haur trabateen eta cargatzen dute bere hegalec; eta urrialdurie, edequi baciniat o, calte guehiago eguin cinia ao, probetchu baino. Geren ai-

(1) Aug. de Verbis Domini serm. 24.

ratzen eta begaldatzen cena, lurrean gueldi bailliteque.

Beraz carga badira ere, on dira orgac, belac, arrauac, hegalaac, eta bai Iaincoaren legue sainduaren uztarria ere. Ceren uztarri haur, carga içanagatic ere, hunequin batean hobequiago, eta aisequingo iragaiten baitira mundu hunetako trabailluac eta atsecabeac. Ceren Iaincoa bera, leguearen emaillea, leguearen beguirateen eta complitcen lagunten baitzaicu; eta hartaracolçat, uztartzen beçala baita gurequin. Eguia haur eçagoturie, erraiten cioen san Agustiuec Iaincoari, hitz gutiz eta ederqui : *Da quod jubes, et jube quod vis* : (1) Iauna emaçu manatzen duçuna, eta guero mana eçaçø nahi duçuna. Ceren indarra franco denean, eta laguna ere ona, ezta cargagatic antsia. Beraz Iaincoa bera iasaiten, lagunteen çaicunaz gueroztic, arraçoinquin erraiten da, haren uztarria placent dela, eta curga ere arina.

§ 5.

Gure legue sainduaren eta manamenduen carga arin da, eta are arintcarri da : ceren baldin alde batetaric cargateen bagaitu, bertcetic arintzen, eta bertee anhitz cargaren eta obligacionoren azpitik atheratzen baicaitu.

Galdeguiten date Theologoec, ea goc gueure bekhatuacgatic, gueure Iaincoari satisfacioneric, eta pagamenduric egnin ahal diaçaiogunz ? Eta badirudi ezetz : ceren erraiten du san Thomasec : *Satisfactio est red-*

(1) Aug. l. 10. confes. cap. 29 et 31.

ditio voluntaria aequivalentis, alias indebiti : (1) Satisfatcea da, çor eztitugun obrez, gueure escuco ditugunez, nahi badugu baicen eguitera obligatu ezcarenez, çor dugun beçanbat pagatcea eta bihurtcea. Beraz ecin egui diaçaiogu gue gueure Iaincoari pagamenduric. Ceren nola baita Iaincoa, guztiengaineko ongi eguilea, eta dugun guztia barenganic baitugu : hala dugun guztia, eta ahal daguigun guztia hari diogu çor : beraz etçaien deus guelditzen gacure escuco, ezta obra libreric, manamendu eztenic, cein deitzen haititzte Theologoec, *opera supererogationis*, obra emendailluzcoac, emanen gainecoac, gure escuco drenac, libreac, nahi badugu baicen eguitera obligatu ezcarenae. Badirudi eztela hunelaco obraric ; eta baldin ezpada, segur da ecin paga deçaquegula gueure Iaincoa, eta ez satisfa.

Baina guztiarequin ere ibardesten dute Theologoec berec, eta erraiten : alde guztiz çordun bagatçaitza ere gueure Iaungoicoari, badela guztiarequin ere anhitz obra on, nahi badugu baicen, eguitera obligatu ezcarenic, gueure escuco dugunic : nola baita orcirale guztietañ barurtcea, egun oro meça ençtea, gau erditaraino oracinton egoitea, eta hunelaco bertceric anhitz. Hauquen eguitera ezcara obligatu, nahi badugu baicen. Ceren Iaincoari alde guztiz, eta gueure ahal guztiaz çordun bagatçaitza ere : ordea Iaincoaren misericordia, eta liberaltasuna hain da handia, non

(1) S. Tho. 4. dist. sent. q. 1. ar. 1.

baldin baren manamenduaç complitcen baditugu, contentatcen baita hain bertcez, eta gaineraco bertce obra on guztiac, gueure escuco utzten baitersuzqnigu. Eta hala manamenduen emaiteaz, manamenduaç guntitu cerauzquigun, carga arindu ceracun. Ceren berteela, baldin manamenduaç eman ezpalerauzquigu, guztiac manamendu içanen baiteiren.

Beraz arraçoinequin erraiten du : *Jugum meum suave est, et onus meum leve :* ene uztarria leun, placent eta aisia da, eta ene carga ero arin : ceren hala baita. Eta are carga delaric, carga arintgarri eta gutigarri baita.

Eta hala segur da, parabisuco bidea, behar den bidean harteen duenarentzat, plau dela, erraz, placent eta atseguin.

LV CAPITULUA.

Nola parabisuco bidea den errazago ifernuoa baino.

HUNEN aitcineco capituluau, eman diren arraçoinen arauaz, agueri da Iaincoaren legue sainduaren carga, carga arina dela, eta iasaiteco erraza. Ordea carga da, eta carga denaz gueroz segur da eenbait neque eta trabaillu baduela : nola halaber ifernuoe bidea daducanac edireiten baitu cenbait atseguin eta placer. Orai da bada contua eta pontua, ea ceinec duen atseguin edo neke guehiago, parabisuco bidean, ala ifernuoa dabillanac? Eta gauça segura da, ifernuoe bidean dabillanac trabaillu guehiago duela, carga pisua-

baldin baren manamenduaç complitcen baditugu, contentatcen baita hain bertcez, eta gaineraco bertce obra on guztiac, gueure escuco utzten baitersuzqnigu. Eta hala manamenduen emaiteaz, manamenduaç guntitu cerauzquigun, carga arindu ceracun. Ceren berteela, baldin manamenduaç eman ezpalerauzquigu, guztiac manamendu içanen baiteiren.

Beraz arraçoinequin erraiten du : *Jugum meum suave est, et onus meum leve :* ene uztarria leun, placent eta aisia da, eta ene carga ero arin : ceren hala baita. Eta are carga delaric, carga arintgarri eta gutigarri baita.

Eta hala segur da, parabisuco bidea, behar den bidean harteen duenarentzat, plau dela, erraz, placent eta atseguin.

LV CAPITULUA.

Nola parabisuco bidea den errazago ifernuoa baino.

HUNEN aitcineco capituluau, eman diren arraçoinen arauaz, agueri da Iaincoaren legue sainduaren carga, carga arina dela, eta iasaiteco erraza. Ordea carga da, eta carga denaz gueroz segur da eenbait neque eta trabaillu baduela : nola halaber ifernuoe bidea daducanac edireiten baitu cenbait atseguin eta placer. Orai da bada contua eta pontua, ea ceinec duen atseguin edo neke guehiago, parabisuco bidean, ala ifernuoa dabillanac? Eta gauça segura da, ifernuoe bidean dabillanac trabaillu guehiago duela, carga pisua-

goa darabillala ; halaco moldez ecen carga hura egin iasanez erraiten haitzen Propheta Davitec : *Iniquitates meæ supergressæ sunt apud meum : et sicut onus grave gravatae sunt super me :* (1) Ene bekhatuec iragan eta gainditu dute ene burua, eta carga sortha pisu batec beçala, aurizqui eta çapatu naute naicen guztia. Eta halatan erraiten deraue Iaincoae halaco cargarequin dabiltzaney : *Venite ad me omnes qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam vos :* (2) Gatzte enegana nequacen çareten guztioe, eta cargaturie çaudetenoc, eta nic arinduko çaituztet; nic carga pisu hori edequiric, carga arinago bat emanen deratçuet. *Tollam quidem sarcinas, sed inanes à sarcinis non dimittam.* *Tollam sarcinas malas et imponam bonas :* (3) Edequico deratçuet cargo, baina carga gabe etçaituztet utzico. Edequico deratçuet cargo gaichtoa, eta emanen ona. Berthuteac, Iaincoaren cerbitçatceac baditu bere nequeac ; eta bai bekhatuac ere bere atseguinac. Bada bertuthearen neque hec atseguinago dira, bekhatuaren atseguinac baino. Hala erraiten du san Agustinec : *Dulciores sunt lachrymæ orantium quam gaudia theatrorum :* (4) Ezliago eta goçoago dira oracinton eta othoitzetan daudecinen nigarrac, comedietan, dantetan, eta munduko placeretan dabiltzanen irriac baino.

(1) Psalm. 32.

(2) Matth. 11.

(3) August. de Verbis Domini, serm. 24.

(4) August. in psal. 127.

Ikhusico duę saindutto bat çokho hateau nigarrez eta hats-beherapenez, oracintonan dagoela; eta iku-sico duę halaber oracinoz eta debocinoz conturic eguiten eztuen bat, bethiere iend'arteau, iocoan, dant-çan, eta atseguiñ harteen dabillala. Bada (orai çuri iduritueo çaitçu ezetz), baina çokhoan oracintonan da-goen harré, beroago eta aleguerago du bere baithan barrenra bere gogoa, mundo o atseguiñetan dabillanac baino. Ceren Iaincoac bere garaciaz, eta faboreaz debocintonan dagoenaren nigarrae, goçatcen eta çaporat-cen baititu; eta berac ere nigar hetan ondore on bat edireiten baitu. Halacoagatic erraiten san Agustinec: *Semper doleat, et de dolore gaudeat*: (1) Beu bethi dolore, eta doloreaz goço eta çaphore.

Ikhusten duennean presuna bat bere bekhatuen dolore hutsez, nigarrez dagoela, uste duę ecen presuna hura triste dela; baina enganatcen cara, ceren aleguera da, eta alegueraz nigar hec eguiten tu. Ceren san Ambrosioc dioen beçala: *Non solum dolor lachrymas habet, habet et lætitia lachrymas*: (2) Eztira ez nigar guztiac doloretic heldu, badira alegriançatic heldu direnac ere. Presuna iustuen hats-beherapenac, oracintonan eta penitencietan dauden den nigarrae, ale-griantçatic heldu dira. Nigar hec, arrosac dira elhorrien artean. Egur heceac eguiten du gar, eta eguiten du nigar: sua datcheca, eta ura dario. Hala bada

(1) August. de vera et falsa poenit. cap. 13. in fine.

(2) Ambrosius, de obitu fratris orat. 4.

presuna iustuac ere berthutezco obretan egiten du nigar, eta egiten du irri; badu trabaillu eta consolamendu; badu tristura eta alegriantza: campoan tristura, eta barrenean alegriantza. Eta barreneco alegriantza haren garaiteen du campoco tristura. Ceren tristura hura bere nahiz, eta borondatez, eta bere probetchutan harteen baitu, eta haren ondoan alegriantza uste baitu. Halacoagatic erraileen du Eliac ere: *In labore requies, in astu temperies, in fletu solatum*: Trabailluan pausua, beroan frescura, nigarrean consolamendua. Halaber halacoagatic erraiteen du David sainduac: *Labores manuum tuarum quia manducabis*: (1) Bere esuen trabailluac ianen dituela. Trabaillatzen denac, bere trabailluaz içaiten duen irabacia iaten ohi du, eta ez trabaillua bera. Eta alabsina erraiteen du erregue Davitec, presuna iustuac trabaillua bera ere iaten duela. Eta arraçoinquin erraiteen du hala, ceren iustuac trabaillu hartan ere, iauhari goço baten iatean beçanbat atseguin harten baitu. Guiristino onac iaten ditu mundu hunetan bere trabailluac, eta bertee munduan, trabailluaren irabaciak eta fruitnac Ceren trabaillu hetan, barurtcean, oraeinotan egoitean, eta nigar egnitean ere, epherqui iatean baino atseguinago harteen baitu. *Fuerunt mihi lachrymæ mæ panes die ac nocte*, dio Prophetac: (2) Ene gauazco, eta egunazco ognia, nigar-

(1) Psalm. 12.

(2) Psal. 41.

rac içan ciren: oguiz aselcean beçanbat atseguiñ harleen nuen, nigar eguitean. *Gaudet iniquus in pompa, gaudet martyr in catena*: (1) Gaichtoac mundueo banalorietan, pomperietan, bonbacietan, eta handitasonetan harten du atseguiñ eta placer; eta martirac, instuac, gartcelean, trabailluetan eta gathean. Eta martir harc atseguiñago harten du bere trabailluelan, eta Iaincoagatic iragaiten dituen penetan, gaichtoac mundueo placeretan baino. Ceren san Agustinec dioen beçala: *Major est suavitas mentis, quam ventris*: (2) Handiagoa da arimaren consolamendua eta bere go-gara, gorputzarena baino; adimenduaren atseguiña, sabelarena baino; eta barreneco bozcarioa, campocoa baino.

§ 1.

Nola gaichtoec, munduko atseguiñetan, dantcetan, ian-edanean, eta bertce placeretan dabiltsanec, ezpaitute barurtearen, oracinoaren, eta bertce berthuten barreneco mamia, compoco uçala baicen ikhusten, ez-paitute penitencian, eta penitenciuzko obretan estaliric dagoen göçatasuna frogatzen, uste dute ecen penitenciac eztuela batere ontasunie, atseguiñic, eta ez placeric: eta içaitecotz ere, bertce munduan içanen duela eta ez hemen. Eta nola bertce munduoa baita guero-co, erraiten dute eztutela presenteko placera, gueroco esperantęgatic utzi nahi. Eta erraiten dute bunela,

(1) August. in psal. 137.

(2) August. de verbis Domini serm. 28.

ceren baitacusate ecen berthuteac, Iaincoaren legue sainduac, campoco iduria eta figura duela itsusi, latz, eta gaitz. Eta handic campoco gaichtason hare ieitoric, utzlen dute barreneco mamia, eta harlacen dute campoco açala.

Atsegaleac eztu uste liçunqueria gabe nehor bici ahal ditequeyela. Baldin erran badiaçoü badela anhitz garbi eta chahu bici denic, eztu sinhesten, ceren ezpaita bera egoiten.

Iocari batí, arnegari batí, edale batí, dantçari batí,edo halaco bertce iende thalluey iduritcen çaye ecen hicio hetan dela placer gužtia; eta berthuteac, Iaincoaren cerbitçatceac, manameuduen complitceac, eztuela batera atseguinic ez placeric, penaric eta atsecaberic baicen. Baino enganatcen dira, eztaquitenac beçala mintçö dira. Eztute egundaiño frogatu, eztute egundaiño Iaincoa cerbitçatu, eta guero erraiten dute gaitz dela Iaincoaren cerbitçatea; dastatu eztutzen iaquia arbuiatcen dute; eztaquiten gańca condenatcen dute. Gaitz da, itsuac coloren berri iaquitea, gorri ala more den eçagutcea, hartan sentencia emaitea. Saindu guztiac frogatuz erran dute, esquiribuz eçarri dute Iaincoaren uztarria placent dela, haren legue saindua erraz dela; beraz hec, nola berac fregatuac baitira sinhetiago behar dira, batera berriric iaquin gabe, bere gogora mintçö direnac baino. Eztu egundaiño nehorc Iaincoaren legue saindua escuztatua eta frogatu, non ezpaitu milla ontasun eta laudorio legue hartçaz erran eta contatu.

Deabruac emaiten derauzte bere iendey bere atseguiñ eta placer moldeac. Cer bada, Iaincoa içanen da haina idor eta oneduqui, non utzico baititu bere adisquideac eta cerbitçariac, atseguintasun mokho bat ere gabe? Gein parte estimatecen duçu hohe, Iaincoarena ala deabruaren? Baldinba Iaincoarena? Beraz Iaincoaren atseguiñac eta placerac ere hobeagoac, eta handiagoac içanen dira deabruarenac baino.

Eta eznaiz ez mintço bertce mundukoaz, hangoaz ezta dudaric. Ceren segur da han gaichtoac içanen direla seculacotçat penatuac, eta onac golardoatuac eta lorificatuac. Baino mintço naiz mundu hunetakoaz. Eta diot ecen, are mundu hunetan ere guiristino onec, Iaincoaren partea daducatenec, atseguiñ eta placer guehiago goçatcen dutela, guiristino gaichto deabruaren partea seguitcen dutenec baino.

Eguia haur eman cerauen aditcera Iaincoac berac, hartçaz arrenguratzentz ciren iende batçuey, erraiten cerauela: *Concertimini et videbitis quid sit inter justum et impium, et inter servientem Deo et non servientem ei:* (1) Conberti çaitezte, bide onean iar çaitezte, eta ikhusico duçue cer differentia den, onaren eta gaichtoaren, Iaincoa cerbitçatzen duenaren, eta cerbitçatzen eztuenaren artean. Erran, bailleraue beçala: bertce munduko beguira egon gabe, anartearrano iguriqui gabe conbertitzen çaretzen pontuan, eçagutuco duçue onaren eta gaichtoaren arteco different-

(1) Malachio, c. 5.

cia : bataren alegriantza eta bertearen tristura ; bataren baquea eta bertearen guerla, bataren atseguna eta bertearen atsecabea , bataren arraitasuna eta bertearen goibeltasuna. Finean eçagutuko duçue eta esperientziaz frogatuco , cein handia den onen gaichtoen gainetic duten abantailla, eta nola dirren onac, are mundu honetan ere, gaichtoec nste duten haino aiseago eta bere gogarago.

Egun batez galdeguin ceraucaten Apostoluec bere nabusiari : *Ecce nos reliquimus omnia et secuti sumus te, quid ergo erit nobis?* (1) Iauna, gue utei ditugu distinguon guztiac çure amoreacgatic eta iarrai qui galçaizquilçu, cer içanen da bada gutçaz, edo guretecat ? Ihardetsi cerauen : *Amen dico vobis nemo est, qui reliquerit domum aut fratres aut sorores, aut patrem aut matrem propter me et propter Evangelium, qui non accipiet centies tantum nunc in tempore hoc, et in saeculo futuro vitam aeternam :* (2) Eguiaz erraiten deratuet , segurateen çaituztet , ecen norc ere utzico baiatu enegatic eta eue Evangelioagatic, etcheric, anaicaric, arrebaric, aitaric edo amaric, erreccibituco duela orai presenteco dembora hunetan , utzico duenetic ehun guchiago , eta guero berte munduan bicitze eternala. Ikhusaçn nola mintxo den mundu hunetako pagamenduaz , eta berte munducoaz : eta nola bataz eta berteaz differentia eguinic , erraiten duen , Iain-

(1) Marc. 10.

(2) Marc. ibidem.

coaren cerbitçatcagatic deus utzten duenari, emanen caicala, are mundu hunetan ere, utzten duenetic ehun guehiago, eta guero bertce munduan seculaco loria.

Beraz hunelatan badu Iaincoaren cerbitçateeac bertce munduoaz gainera, mundu hunetan ere cebait golardoa, cebait pagamendu, atsegün eta placer.

§ 2.

Erranen du cebaitec: nolatan ahal dateque oraino-coan erran duçuna hala? Ceren eztugu ikhusten ecen Iaincoac bere cerbitçariey, presuna iustuey, mundu hunetan horrela gauça handiric emaiten derauela, ez car-garic, ez ohoreric, ez aberatsfasunie, eta ez munduko bertce gauçaric. Aitcitie anhitzetan ere, hec dacusqui-gu direla probe, eritoqui, eta munduko arauaz onbe-har. Nola aditzen da beraz, emanen çaiela, are mundu hunetan ere, utzten dutenic ehun guehiago?—Ezta gaitz ihardesten: aditzen da, Iaincoac bere cerbitçariey, gorputzarentzat behar dutenequin, halaco donuac eta aberatslasun espiritualac emaiten derauztela, bore baithan barrena, non hec baitira ehunetan ere han-diago eta baliosago, mundu hunelako atseguin, placer eta onthasun corporal guziac elkarri iratchequiric baino.

Iaincoaren atseguiñac eta placerac, guehienic ari-man barrena dira. Eta barreneco atseguiñ hec, ga-raitzen dituzte campoco atsecabeac, eta bai gorput-zaren placerac ere. *Omnes sancti adjulantur à Deo, sed intus, ubi nemo videt,* dio san Agustinec: (1) Sain-

(1) August. in psal. 53.

du goztiac dira Iaincoz lagunduac, eta faboratuac. Ordea non? barrenean, nehorre ikhusten eztuen lekhuan.

Baldin utzten baditutu campoco placerac, gorputzarenac, emanen caizquitu barrenecoac, arimarenac; içanen baitira ehunetan, gorputzarenac baino handia-goac, eztiaogoac, eta abantaillatuagoac. Eta baldin gorputzarenac utciric, dasta bacinita arimarenac, higuin lequidisquetu berehala gorputzarenac. Handic harat, lehen on eta goço ceizquituun atseguinac eta placerac, etcinituzque ikuhi ere nahi, eta ez aiphatu. Ceren orduan halaco moldez argui lequidiquetu ceure adimendua, eta alda Icheneco gogoa, non gauça guztiec, lehen ez beçalaco colore bat, iduri bat, eta çaphore bat har bailleçaquete.

Iaincoaren cerbitçariec badirudite campotic probe, eztheus, placer gabe, hil hurranac. Ordea Iondone Pauloc dioen beçala, barrenean darabillate gorderic bicitcea eta aberastasuna, cein baita Iesu Christo : *Mortui enim estis, et vita vestra abscondita est cum Christo in Deo.* (1) Eta nola Iesu Christoc berac, baitceducan bere dibinitatea eta Iaincotasuna barrenean estalia, eta campoan baitcirudien ttipi eta probe : halaharen cerbitçariec ere, bere Iaunari iarraiquitzen çaitcalat, dirudite campoan deus guti eta triste, baina barrenean dira aleguera, eta consolamenduz betheac. *Quam magna multitudo dulcedinis tuæ, quam abs-*

(1) Ad Col. 3.

condisti timentibus te! (1) A cein handia den, Iaincoac guiristino beldur çazconentçat, gorderic eta estaliric daducan eztiltasunaren multçua! Hain da handia ecen frogatu duenac baicen ecin iaquin baiteçaque nolacoa den. Halatan erraiten du erregue Davitec : *Gustate et videte, quoniam suavis est Dominus :* (2) Dasta eçäque, frogat eçäque, ceren ezta Iaincoa dirudien beçain latz eta gaitz. Orainocoan deabruaren cerbitçuan beçala, emplega çaité hemendic aitcina Iaincoarenanean, eta orduan ikuñsico dñen, eta esperientiaz frogatuco cein goço, cein ezti, cein atseguiun eta placent den Iaincoa.

§ 3.

Nola berthuteac, prestutasunac, eta guiristino on içaiteac baitakharque berequin, bere baithan barrena, bozcario bat, alegrantxa bat, eta contentamendu handi bat : hala bekhatuac eta bekhatután ibiltzeac ere, dakharkue berequin desplacer bat, atsecabe handi bat : hain handia non baldin ifernuric czpaliz ere, ceren bekhatua bera bere baithan baita hain itsusi, eta bera bere buruarentçat hain penagarri eta gaztigu ; hargatic beragatic ere behar baiquenduque bekhatu eguitetic beguiratu. Iocari hateg, nahiz hari dadilla dostenan, eztuen batere irabazteaz probetchuric, eta ez galtzeaz calteric, guztiarequin ere atseguiun hartzen du irabazteaz eta damu galtzeaz. Ceren iraboztea, bere

(1) Psal. 3.

(2) Psal. 33.

eguitez baita placer, eta galtcea desplacer. Hala bada prestu içaiteac ere, parabisuric ezpaliz ere, badu bere baithan barrena, bcre atseguna eta placera ; eta bai gaichto içaiteac ere halaber, ifernuric ezpaliz ere, bere desplacera eta atsecabea.

Batuey iduriteen çaye ecen bekhatua goço dela, placentiaz bethea dela ; baina enganateen dira. Ceren bataz placentia hura ezta placentia, baina da enganamendu ; eta enganamendu hura ere ezta ez bekhatuarena, ezta bekhatutic sorteetan ; baina da bekhatorearena, bekhatorea beraganic eta bekhatuaren eraguille deabruaganic heldu dena. Orac bidean edireitzen duen heçur idorra, goçoqui erabiltzen du ahoan, ez ceren heçur harc duen berequin mamiric edo urunic ; baina ceren, erabili hutsez, orari berari ahotic goçoa edo odola iarieten baitçaica, eta guero odol edo ur harequin batean, heçur idor hura, on, goço eta ezti iduriteen baitçaica. Hala bada bekhatoreari ere iduritzen çrica bere bekhatu idorra, on, goço eta hece, ez ceren bekhatuac berac bere baithan duen ontasunic edo goçotasunic, baina ceren bekhatoreac baitaduca bere gogoa, bere guticia eta desira guzia bekhatu hartan ibenia ; eta desira harc emaiten baitio bekhatuari goço eta caphore.

Egun batez Israëleco iendeac hain çuen egartsu idorra eta edateco desira handi, non Iaincoae, hequen premia ikhusiric, eman baitcerauen, harri-muguer batetaric atheraric, ithur-ur fresco bat. Eta guero hartaric edan çutenean, erran çiten ; ur hura etcela

ez ura, baina ura baino hobeago; munduko arno guztia baino goçoago, eziaren pare cela: *Ut sugeret mel de petra.* (1) Eta cere eman cioen ur hari eztitasun hura? Nahiz Iaincoac eman abal cioen ur hari goço berheci bat, uste içateco da eztitasun hura emaiten cioela choilqui hequen güticiae, hequen desirac eta egartsuac; eta gaineracoan, hertce ur bat beçala cela ur hura ere. Hala bada emaiten dio bekhatuari ere bere goçotasuna, gure gogoac, gure desirac, eta deabruac. Eztu bekhatuac berac itchurapenezco, eta enganamenduzco goçotasunic baicen.

Eta deabruac bekhatuari escaintzen dioen enganamenduzco goçotasun hura ere, bortchaz emaiten dio, eta ez guionari placer egun nahiz. Baldin bertcela eragun albaleça bekhatua, ezlemaque munduan den placerik ttipiena ere. Arrantxaleac egotzten du amua urera cebait iateco eta bazcarequin, eta ez, ez arraiñaren urricariz, ez hari iatera eman nahiz, baina ceren bertcela ecin engana baiteçaque eta ez atceman. Hala bada deabruac ore emaiten dio bekhatuari cebait atseguin eta placer, cebait bazca eta goçotasun, ez eman nahiz, ez atseguin sari, baina ceren bertcela ecin engana baiteçaque bekhatorea eta ez atrapa, ifernurat eramaiteco.

Eta deabruac bekhatuari emaiten dioen enganamenduzco goçotasun harc ere, denac ere, deus guti irauten du; dastatu uste eta iraganic da, baina ondoeo

(1) Deut. 32.

penac eta atsecabeac egoiten dira. Bekhatuaren placeraz mintço dela, erraiten du Sophar Ioben adisquide harc : *Hoc scio à principio. ex quo homo positus est super terram, quod laus impiorum brevis sit, et gaudium hypocrita ad instar puncti:* (1) Munduaren hastetic huneraino, iendeac iende direnaz gueroztic, bidaquit pontu haur : gaichtoen laudorioa labur dela, eta hipocriten alegrantza are laburago, pontu bat beçala. Bekhatorea deitzen da hipocrita, ceren hypocritaren saindutasuna beçala baita bekhatorearen atseguna eta placera ere. Nola hypocritac campotic baitirudi saindu eta debot ; ordea barrenean baita gaichto eta maliciati : hala bekhatoreac ere campotic dirudi aleguera, content, atseginez eta placerez bethea, ordea barrenean triste da, goibel eta ilhun.

§ 4.

Gaichtaquerian dabillanac, guztiac ongi contatceria, segur da are mundu bunetan ere, atseguien baino, atsecabe guehiago iragaiten duela. Ohoin batec cenbat trabaillu iragan behar du, bere ohoinqueriaren eguteco ? Etsaigoan dabillanae cenbat ikhara, cenbat bihotz ukhaldi errecibitu behar du, bere etsaiaz mendecatceco ? Enganalçaille batec, cenbat pensu eta itzulinguru egun behar du, bere enganamenduaren baliatceco ? Gueçurtiac cenbat gueçur, cenbat hitz eder saldu behar du, bere gueçurraren edertztatceco, es-

(1) Job. 20.

talceco eta eguiatçat bulkhatceco? Bethiere beçala, hemen ere ederqui erraiten du san Chrisostomoc : *Quemadmodum enim deformia corpora multis artificiis et indumentis indigent, que naturae deformitatem contegant; quae autem natura pulchra sunt, ipsa per se, etsi nihil extrinsecus dereniat, resplendent: ita etiam in virtute et vicio, in veritate et mendacio, innenire possumus*: (1) Presuna ederrac, gorputza bere esenco eta ongi equina duenac, ezlu campoco edergarriren beharric, ceren bera baita bere baithan eder aseo. Bainaz itsusiak, marquetsac, behar du anhitz estalqui, anhitz apñaindura, eta hequin guztiequin ere etchean legoque ederquienic. Hala da bada berthutearen eta bicioaren, eguiaren eta gueçurraren artean ere. Eguiac, berthuteac eztu edergarriren beharric, bera da eder asco. Gueçurrac bai, harc anhitz eztalqui behar du, eta edergarri; eta halaric ere ezta behinere aseo edertzen, eta ez estaltzen. Baldin gueçurtiac bere gueçurra eguiatçat iraganen eta salduco badu, penatu behar du; batari eta bertceari cer ihardetsico dioen, aitcinetic pensatuaeduqui behar du, gogonduri on behar du, accorduan eta memorioan egon behar du: *Mendacem opportet esse memorem*; ceren erran communa da, gueçurrae çainac labur dituela.

Cer erranen dugu bada atsegaleaz, Iohian dabillanaz? Harc harteen duen atseguin hura, guztiak ongi contateera, atseguin othe da, ala atsecabe? Ikhusico

(1) Chrys. in ps. 26.

duen guicon gazte bat; eta batutuan are, gaichtoago baita, cebait czahar ere bai, ganac galduric, onac gastaturic, gorputza deseguinic, bere ohorea, eta eguinbidea guibelat utziric, emazte char bat darraicala. Eta berriz ikhusico duen halaber bertee bat, emazte kontu guti eguinic, ohorez, arrier dabillan bat. Orai bada hetarie biertarie cein othe da aiseago, eta bere gogurago? Geiñec iragaiten othe ditu gau egunac gueldiago eta malenconia gutirequinago? Ezta cer galdeguinic, ceure aithortuco duen, mundu hunetan iegatu dituçun incontru gaitz guztiac, edo behintzat guehienae, aldez edo moldez, bekhatuacgatic, iegan dituçula; eta baldin egquia erran nahi badu en, bekhatu hetan, placer baino desplacer guehiago iragan duenla. Eta hala da beren aranaz, bekhatu snerte guztietan ere.

Ezta gaichtatasuna baino, gauça trabaillutsuagoric, eta ez hartaco trabaillua baino, trabaillu galduagoric. Ceren ezta trabaillu hartarie, calteric eta desohoreric baicen, bertee fruituric biltzen. Halatan galdeguin cereauen londone Pauloe bekhatutuan ibili ciren iende batuey: *Quem fructum habuistis tunc in illis, in quibus nunc erubescitis?* (1) Cer frutu, cer irabaci, iegan cenduten orduan, orai aiphatcera ere abalque çareten bekhatu hetan?

Bekhatuaren gaztigo handietarie bat da ahalquea. Harteen duen deabrua ceure nabusi, eta ahalque cara

(1) Prov. 6.

haren mathil carela erraitera. Gaichto cara, ordea eztu nahi gaichto dei çaitçaten. Ceutx egun ducon behkatusa, eztu ceure aiphatu nahi ; desohore çaitxu hartçaz minçatcea.

Urricalquiun dira, onbehar dira gaichtoac, ceren hetçaz, hequen adisquideac ere, aguerriz ezpada ere, capapetic bedere gaizqui mintxo baitira. Baino oncez eta prestuez, guztiac, are etsaiec ere, bere bihotzetan barrena bedere, ongui erraiten dute.

Ordea guziarequin halaric ere, bere ahalque, desohore eta trabaillu guztierequin ere, nahiago dute gaichtoec contraco bidean trabaillaturic ibili, bideonean eta artezean trabaillatu gabe baino.

Anhitz gauça egun ahal diteque, Iaincoaren cerhituan, trabaillu gutirequin. Ceren cer trabaillu da, eguiaz minçatcea ? Falso testimonioric ez erauztea ? Iuramenturic ez eguitea ? Guiristino lagunari barkhatcea ? Baino bertcela eguitean, bada pena eta trabaillu ; ceren gueçurrac, falso testimonioac, iuramentuac eta etsaiez mendecateeac anhitz okhasino eta eguitoco pitzen ohi dute. Eta alabaina haur da eguitoco, nahiago dugu ifernutic ifernura ioan, ecen ez parabistic parabisura. Manamenduen compliteco eta beguiratceco eztugu nekhatu behar, ez behintxat hautsteco beçanbat ; eta halaric ere, nekhaturic eta trabaillaturic ere, nahiago dugu ifernura ioan, parabisura baino ; cer erhoqueria !

Etçuen behin, gaizqui erran saindu batec, anhitzetan ere, ifernura ioaiteco bartcen dugun trabailluaren

erdiaz, erdiets gueneçaqueyela parabisua. (1) Halaber saindu harc berac, ikhusiric, eeen nescato bat, copetaren edertecero, cherloac goiti thiraturic, penatcen cela : eta guerriaren ere lerdentceco, bortizqui hers-ten cela, erran çuen : bidegabe egunen dio laineoac nescato huni, baldin hunenbat pena eta trabaillugatic, emaiten ezpadio ifernua. Ceren nola iende batçuc penatcen eta trabaillateen baitira, parabisura ioaiteco : hala bertce batçuc, are penatrenago, eta trabaillatcenago dira ifernuaren erdiesteco.

Eta ifernuco pena hura etçae pena iduriteen, ez-tate hura sentitcen, baina bai parabisuoa, haur sentitcen dute, haur choil çiae gaitzi, hunetan fite unhatcen dira. Amorantian, ohoinquieran, iocoan, gau egnac aise eta guti sentitoric iragaiten tuçu, hartaco etçara eri, hartaco baduçu indar. Baina barurteco, oracinotan egoiteco, erien bisitateceria ioaiteco, flaco çara, eri çara, buruan min duçu. Laineoagatic, den penaric ttipiena errecribitcen duçunean, berchala arrencuratcen çara ; baina deahroagatic, gau-aireac, hotzac eta beroac ere ichil pairatcen ditu.

Ikhusico duçu emazte gaichto bat, hasten dela oihuaz, heiagoraz, deihadarrez eta atçapartaz, ceren bere senharrae, soberaniac gainez egunie, beharondoko bat eman dioen. Baina here amoranteac, here place-reco daducan guïçon gaichto batec, burua hauts badiago ere, ichil pairatcen du ; eroriric edo bertcela

(1) In vita Thomae Mori c. 21.

hartu duela, ederztatzen du. Senharraren colpe ttipiaz arrenguratzetan da emazte gaichtoa, eta ez amorantearen handiaz, contrara dabilla. Hala çabiltça bada çu ere contrara, eta arrenguratzetan çara Iaincoaren cerbitçuan iragaiten dituçun trabaillu aphurrez, barurte batez, eta ez deabruarennean pairatzen dituçun pena handiez, hec eztira deus, hec eztituçu sentitzen, ceren san Chrisostomoc dioen beçala, deabruac iasaiten laguntzen baitçaitu : *Laborant peccatores, quamvis ad-jutorio diaboli laborem non sentiant.* (1) Bainaz ethorrico da dembora deabruac laguntçaric egunen ezterecuna, eta ifernuco bidean iragaiten diren trabailluac, eta iasaiten diren cargae ere, cein handiac eta pisuac diren frogatuco duçuna. Çor bat, handiago eta pisuago bada ere, hosin handian errazqui manaiatzetan da, arintqui eta guti sentituric, alde batera eta hertcera, itçultzen eta erabiltzen da. Bainaz ur bazterrean, lehorrean, ecin higui deçaqueçu; han da agueri, han iaquiten eta frogatzetan da, cein pisu deu. Hala bada halaber bicitecearen bazterrean, akhabatcean, heriotcean, aguerico da, han iaquinen eta frogatuco da, nolacoa den bekhatua, eta bekhatuaren carga eta pisutasuna; eta cein handia deabruaren cerbitçuan, ifernuco bidean iragaiten den nequea eta trabaillua.

§ 5.

Nola Iaincoaren cerbitçatceco bidea, gogotic dagoe-narentçat, baita plauñ eta çabal, ezlunque nahi dea-

(1) Chrys. Hom. 29. t. 2.

bruac cabaltasun hari beha guiniaçon : baina cenbait mehartasun eta buruzgora ere baitu, hora nahi luque ikhus gueneçan. Eta berriz bertze aldera, nola deabruaren cerbitzatzeac baitu anhitz trabaillu, ez luque nahi deahrnac guenegnien trabaillu betçaz conturic ; baina atseguin ere cenbait baitu, hora nahi luque be-thi gueure gogoan eta beguien aitcinean eduqui gue-neçan. Hala Induac Egiptoco gathibutasunetik iltquiric, libre eta bere gogara, ceruco ianhariz asetzen cirela cebiltçanean, ceren ethorri ceyen haragui iate-co guticia bat, eta guticia hora etenten nahi beçain site complitzen, hasi ciren erraiten, bihurtu nahi çute-la Egiptora, bere leheneco gathibutasunera, ceren han porruz, tipulaz, eta baratchuriz asetzen cirela. Etqu-ten consideratzen, gathibutasun hartan iragaiten çuten bicitce nequea eta garratza, baina bai escüen artean çuten escasia aphurra, edo desira desordenatua : eta halatan bere leheneco toquira eta miseriara bi-hurtu nahi çuten. Ceren haur da deabruaren malicia, ibentzen deracu gueure beguien aitcinean bekhatuaren placera, baina ez dezplacera. Pintatzen deracu berthutearen trabaillua, baina ez irabacia eta gozoa.

Baldin berthutea eta bicioa ; eta berthutearen eta bicioaren ioan-ethorriac, onac eta gaitzac iben baguinîça bi balantçatan, eta considera behar licen mel-dean, eztut uste ediren litequeyela munduan, bekhatu leidiqueyenic.

Erranen duçu, baduela berthuteac laincoaren cerbitzatzeac cenbait pena, eta trabaillu ; eta hai bekha-

tuac eta bekhatutan ibiltzeac ere cenbait atseguien eta placer; beraz hobe dela bekhatuaren placer gutia, berthutearen nequea baino? Ez horrela corie, ceren san Agustinec dioen beçala: *Nec per latam viam diu gaudetur, nec per asperam et angustam longo tempore laboratur. Quia et isti per brevem tristitiam accipiunt vitam aeternam, et illi per parvum gaudium patientur sine fine supplicium*: (1) Berthutearen nequeac eta trabailluac labur dira, eta bai bekhatuaren atseguienac eta placerac ere. Ordea berthutearen trabaillu laburrac ondotic du loria lucea eta seculacea; eta hai bekhatuaren atseguiin aphurac ere, gaztigu handia eta fin gabecoa. Beraz hobe da berthutearen desplacera, bekhatuaren placera baino.

Nola penatan eta trabaillutan denac, baldin guero ondoan irabaci handi bat edo cargu ohorezco bat uste badu, ezpaititu pena eta trabaillu hec guztiac deus sentitzen; hala atseguienetan eta placeretan dabilianac ere, baldin placer hequen ondoan senti badu gaztigu handi bat harentçat prestatua dagoela, ezta posible, atsegui hetan atsegui osoric har ahal deçaqueyen. Aiteitic orduan atseguiña atsecabe bihurteen çasica.

Guigon batet, urkhahera daramstenean, ianhari onac eta edari hobeac içanagatic, eta urkhabeco bidea ere, bide ederra, plauna, placenta, çuhaitz berdez, itxalez eta placerez bethea ikhusiagatic, cer placer ahal duque hetan guztietan? Badirudi erraiten dioela

(1) August. serm. 55 de tempore.

halacoari san Agustinec : *Noli attendere qua iturus es sed quo iturus es :* (1) Ezteçaçula beha nondic iragan behar duçun, baina beha eçaçu nora heltu behar duçun. Eztaçocula beha urkhabeço bide ederrari, baina beha iaçoçu urkhabeari berari, baratu behar duçun lekhuari.

Hala bada çuc ere bekhatu baten eguitera coacinean, eztaçocula beha bekhatuaren eguitean hartcen duçun atseguinari, baina beha ioçoçu atseguin haren ondoco ondorcari, atseguin harc eramaiten çaituen lekhuari eta emanen deratçun atsecabeari.

Bekhatu baten eguitera dohanac considera baleça, cenbat pena eta atsecabe iragan behar duen bekhatu haren eguitean eta egui ondoan, cer goço, cer çaphore, cer atseguin eta placer har ahal liaçao bekhatuari ?

Berhuteac, Iaincoaren cerbitçatceac, prestuqui bicitceac, ondore ona du, eta cerbait trabaillu badu ere. du aphurra eta laburra : eta labur hura ere arintcen, gutitcen eta goçatcen du, ondoreco irabaciarien eta placentiaren segurantçac ; gogotic, amorioz eta horondatez egoiteac, eta guztien gainetic Iaincoaren laguntçac eta garaciac. Baina bekhatnetan eta bekhatuzco placeretan eta ohretan gauça hauc guztioe dira contrara : hetan placera da ttipi eta labur, eta ondoco desplacera handi, luce, bethico, eterno, seculaco.

Eta hala arraçoin hauc guztioe ongi consideratu-

(2) August. in psal. 36.

ric, batbedera bere balançan ibeniric, segur da parabisuco bidea errazago dela, ifernueoa baino ; eta ifernuratoen denac, pena eta trabaillo guehiago iragan behar duela ifernuratceco, ecen ez parabisuratzen denac, parabisuratceco.

Beraz hunelatan parabisutic parabisura, bicitze on baletaric hobeagora ioaiteagatic ere, behar guenduque egun beretie, gueroço beguira egon gahe, Iaincoaren legue saindua, haren uztarri emea eta carga arina, gueure gogo eta bihotz guztiaz hautatu, besarcatu, eta halatan guero urriquiric eztuquegun begala bicitza enseiatu.

XIII

BERTHUTEAC DAKHARQUEN BAQUEA.**LVI CAPITULUA.**

*Nola querotic querora cabiltran bitarfean galteen du-
cun concientzia onaren baquea eta sosegua.*

Gauça segura da, clara, eta esperientiaz ere frogatua, concientzia gaichtoaren antisiquiac antisiqui minac, liscarrac lisear garratzac, eta colpeac ere colpehortitzac direla : eta halako concientzia duenac, hala dueino, placentzia osoric eztuqueyela. Baino gauça clara eta frogatua da halaber, concientzia onaren baquea eta sosegua, gauça goçoak eta placenta dela ; eta nola mundu humetako ifernua baita concientzia gaichtoa, hala dela halaber, mundu humetako parabisua, concientzia ona.

ric, batbedera bere balançan ibeniric, segur da parabisuco bidea errazago dela, ifernueoa baino ; eta ifernuratoen denac, pena eta trabaillo guehiago iragan behar duela ifernuratceco, ecen ez parabisuratcen denac, parabisuratceco.

Beraz hunelatan parabisutic parabisura, bicitce on baletaric hobeagora ioaiteagatic ere, behar guenduque egun beretie, gueroço beguira egon gahe, Iaincoaren legue saindua, haren uztarri emea eta carga arina, gueure gogo eta bihotz guztiaz hantatu, besarcatu, eta halatan guero urriquiric eztuquegun begala bicitcea enseiatu.

XIII

BERTHUTEAC DAKHARQUEN BAQUEA.

LVI CAPITULUA.

*Nola querotic querora cabiltran bitarfean galteen du-
cun concientzia onaren baquea eta sosegua.*

Gauça segura da, clara, eta esperientiaz ere frogatua, concientzia gaichtoaren antisiquiac antisiqui minac, liscarrac lisear garratzac, eta colpeac ere colpehortitzac direla : eta halako concientzia duenac, hala dueino, placentzia osoric eztuqueyela. Baino gauça clara eta frogatua da halaber, concientzia onaren baquea eta sosegua, gauça goçoa eta placenta dela ; eta nola mundu humetako ifernua baita concientzia gaichtoa, hala dela halaber, mundu humetako parabisua, concientzia ona.

*Ad spirituale gaudium hodierna die, fratres charissimi, intendo vos invitare: quod quidem gaudium non operatur divitiarum copia, non fallax mundi gloria, non prolis fecunditas, non corporis sanitas, sed tantum conscientiae puritas: (1) Placer espiritualera, arimaco alegriantçara conbidatu nahi çaituztet egungo egunean, neure anaia maitear, dio san Agustinec: eta alegriantçea haur eztu ez eguiten, eta ez emaiten aberatstasunac, ez mundo oshoreac, ez seme alabaldun içaiteac, eta ez gorputzeco osasunac ere. Cerc eguiten du bada? Concientziaren garbitasunac, behakuric gabe egoiteac. Harc ekharicen du eguiazco alegriantçea, harc oinhace guztiataric sendateen du arima, eta harc camporat ere atheratcen du barren hartaco harra eta tristura. Ceren san Ambrosioc dioen beçala: *Sicut in opere malo est tristitia, ita et in emendatione gaudium*: (2) Nola obra gaichtoa edireiten baita tristura eta maleconia, hala onean, onera emanean, eta emandatcean, edireiten da alegriantçea eta bozcarioa. *Vis numquam esse tristis? Bene vive; secura mens tristitiam leviter sustinet; bona vita gaudium semper habet*: (3) Nahi duçu ez bchin ere içan triste? Çaren prestu, ençu concientzia ona; concientzia onac arintqui iasaiten du, deus guti sentitzen du campotic heldu çaicán tristura: bicitce onac bethi du*

(1) August. ad frat. in cremo serm.

(2) Ambr. c. 2. in epistol. ad. Rom.

(3) Isid. l. 1. Sel.

berequin arraitasuna, irri nahia eta placentia. Hargatic erraiten çuen Londone Pauloc, etebebillala behin ere triste; triste beçala bai, baina bethi aleguera : *Quasi tristes, semper audem gaudentes.* (1) Londone Pauloc anhitz trabaillu eta atsecabe içaiten çuen, ceinec tristetceco okhasino emaiten haitcioten ; baina hec guztiac, concientzia onaren alegriantçac eta arraitasunac, iguzquiac lanhoa beçala, haiçateen eta barraiatcen cerautçan.

§ 1.

Gaichtoac queçurrez dira aleguera, eta eguiaz triste; eta onac bertce aldera, eguiaz aleguera, eta queçurrez triste. Chuchen eta eguiaz minçatcera, onec dute alegriantçaren icena eta içana, eta gaichtoec icena eta ez içana.

Cure atseguin eta placer guztien mintceco eta goço gaitzeco, asco da concientzia gaichtoa ; eta bai atsecaben eta desplaceren góçatceco eta çaporatceco ere concientzia ona. *Namque si ibi vulnus non sit, sanumque sit illud quod conscientia vocatur, ubicumque alibi passus fuerit tribulationes, illuc configiet et ibi inveniet Deum,* dio san Agustince : (2) Guiçonac tristetua, atsecabeztatua eta eguitecoz bethea dabillanca, baldin bere barren hartan çauriric ezpadu, bere concientzia sendo badu, hara laster egniten du, han laincoa edireiten du, eta han harequin batean bere burua consolatzen du.

(1) 2. Cor. 6.

(2) Aug. in psalm. 45.

Curguinac çura lantzen eta aphaientzen duenean, aurquituagatic gainaldea, açalari datchecana arraçatua eta pipiztatua, eztu hargatic antsiarie, baldin bihotza, barren aldea on eta fin edireten badio. Guiçonaren açala eta gain aldean, gorputza da ; barrena eta mamia da concientzia, eta hura on bada, ezta gaineracosz antsiarie, eta ez cer kontu egunie, ceren barren hora baita principala.

Hunen arauaz erraiten du san Ambrosiac : *Et ideo non secundum forensem abundantiam estimandam esse beatitudinem singulorum, sed secundum interiorum conscientiam :* (1) Ezta ez erran behar nehor dela bere gogara, campoco bere gogaragatic : aberatstasunagatic, inn edanagatic, eta ez bertze franquiagatic. Bainan orduan erran behar da bathedera dela ongi, eta bere gogara, eta atseguinac eta placerae ere direla osoac eta complituac, noiz eta barren aldeas, concienteia baita ongi, sendo, garbi eta narrio gabe. *Non contristabis justum quidquid ei acciderit, impii autem implebuntur iniquitate,* dio Spiritu Sainduac : (2) Cer nahi den guertha daquiola, eztecaque deusec ere iustua trista, baina gaichtioac betheco dira gaichtaqueriaz eta eguitateoz. Hunen arauaz erraiten du Elijac ere : *Nulla nocebit ei adversitas, si nulla dominetur ei iniquitas :* Eztio batere guertha daquion eguitatecoc calteric egunen, batere bekhaturie eztue-

(1) Ambr. lit. 1. officio. c. 45.

(2) Prover. 12.

nari. Ceure bekhatuec eta apetitu desordenatuec eguiten deratute guerla eta calte, hec tristetzen caituzte. Khen etsun hec, eta içanen cara aleguera; khen etsun hec, eta bicico cara baquez eta ceure gogara. Hala erraiten du erregue Davitec: *Pax multa diligentibus legem tuam*: (1) Baque handia du concientzia onac, laincoaren legue sainduari darraicanac. Eta badio san Ambrosioc ere: *Quid est juste vivere, nisi cum tranquilitate vivere?* (2) Ger da iustuñi biciteea, baquean eta soseguan biciteea baicen? Erran oahi du concientzia onaren icaitea, eta baquean eta soseguan egoitea, guztia dela bat. Ceren iustuac campoan guerlac eta eguitecoac içanagatik, barrenean bethi du baquea; berequin du halacoac, mundu hunetan erdiets ahal ditequeyen loria eta placentzia. Halacoac eztu antsiaric munduko erran-merranaegatik. Falso testimonio bat, contrario bat erauzten diotenean, eta batec eta bertzeac abotan gaichtoqui darahillatela ikhasten duencaz, laster egiten du bere concienteista: eta nola ezpaitu han dioten salturic edireiten, hartçaz consolatzen da, hartçaz esporçatzen eta berotzen da. Arraçoinequin erraiten du san Ambrosioc: *Bene sibi conscientia falsis non debet moveri, nec estimare plus ponderis esse in alieno convitio, quam in suo testimonio?* (3) Faltaric eztuela daquien presunac, ezta hertceren gaizqui er-

(1) Psalm. 118

(2) Ambros. lib. 10. epis. 28.

(3) Ambros. lib. 1. officior. cap. 5.

raiteaz casuric eguin behar, eta ez pensatu ere bertceren guecurrac indar guehiago duela, beraren eguiac baino. Hunen arauaz erraiten du san Gregorioc ere : *In omne quod agimus vel extra de nobis agitur, recurrere ad mentis arcana debemus. Et si omnes vituperentur, liber tamen est quem conscientia non accusat. Quia si omnes laudent, liber esse non potest, si hunc conscientia accusat :* (1) Egniten ditugun gauça guzlietan, edo gutcaz eguiten eta erraiten direnetan, concientziaren barreneco sequeretura eguin behar dugu laster, eta hartçaz, haren lekhucotasunaz, harc barren hartan dioenaz eguin contu, eta ez iendearen erasteaz, eta ongi edo gaizqui mintçatceaz. Ceren san Agustinec dioen beçala : *Nec malam conscientiam satnat præconium laudantis; nec bonam vulnerat convitantis opprobrium :* (2) Concientzia gaichtoa eta eria eztu ontcen ez sendatzen nehoron laudorioac ; eta ez ona eta sendoa ere gaichtateen, eta ez eritcen, gaizqui erraiteac ; hargatic bat bedera, dena içanen da.

§ 2.

Bai ordea, dioen, damu harteen dut, iendec eue baithan ezteuaren erruiteaz, eta bai batçutan denaren ere aguericeaz eta banatceaz. — Sinbesten dut damu harteen duçula, baina pacientzia behar duçu. Ceren hertceren miliac ecin eduqui ditçaqueñu, hec eztande çure escuan. Utzquitxu hec, gaichtoac baitira ; eta iende

(1) Greg. epist. 2.

(2) August. lib. 3. contra Perili. Donatistom.

onen eta prestuen erranaz, eta ceure concientiaz eguiçu contu. Ceren san Bernardo dioen beçala : *Omnino sufficit adversus os loquentium iniqua, opinio bonorum cum testimonio conscientiae* : (1) Asco da mihi gaichtoen contraco, iende onen alderat fama onean egoitea, concientzia onaren lekhucotasunarequin.

Deusec ere eztu hala sendatzen ez arintzen, iende gaichtoec gutçaz gaizqui erraiten dutela ençuteaz, hartzen dugun damua, nola egniten baitu ikhusteac eta iaquiteac eztingula hobenic; eta iende prestuec eta ohoratu ec zlutela uste eta ez sinhesten gutçaz halacoric.

Baldin iende prestuec erraiten badute gutçaz ongi, eta concientziac ez akhusatzen, eguiçu loa lacho, eztuçula antisiaric charrec edo galduec gaizqui erranagaric. Aitetic atseguin bartceco duçu, ceren hartan da agueri etçarela hec beçala. Eguia haur erdietsi çuen ongi Antitenes Philosophoac. (2) Ceren haren ençun çuenean ecen iende gaichto batçuc haren laudorioz cendecilla, erran çuen tristura handi batequin : « Ha « Iaincoac, cer eguiñ othe dut nic ? Certan saltatu othe « dut ? Beldur naiz cerbaitetan huts eguiñ dudan, eta « lehendanic gaichtatu naicen. Ceren iende gaichto « batçuc, lehen nitçaz gaizqui erraiten çutenec, er- « raiten omen dute orai ongi. Gein baita seiñale

(1) Bernar. super cantica.

(2) Laert. lib. 6. cap. 2.

« gaichtoa, ceren halacoez ez ohi date erraiten ongi-
« ric gaichtoez eta gaichtaqueriez baicen. »

Hunela mintzatu cen Philosopho hura, gaichtoen condicinoa eçaguturic. Bende beraz hec diren beçalacoric, ez hetarat bururic itxul, ez hey beha, ez hetçaz conturic eguin. Ceure concientziarequin educaçu, harquin conseilla eta consola gaiteci. Hala eguiten cuen londone Pauloc, erraiten çuenean : *Gloria nostra hoc est, testimonium conscientiae nostrae :* (1) Haur da mundu hunetako gure loria eta parabisua, conscientziaren akhusamenduric gabe egoitea, barren harthan saltaric ez edireitea. Erran baillu beçala : batçuen loria eta contentamendua da, aberats içaites; errenta handien erdiestea; handieqnin seguitcea; iocoan, ian edanean, emaztetan eta munduko bertee placeretan demboraren iragaitea, baina ez gurea. Guc eziugu hantçaz conturic eguiten, barrenekoaz, conscientziaoz contentatzen gara. Hunen arauaz erraiten du san Ambrosioc ere : *Propositum piæ mentis mercedem non expedit, sed pro mercede habet boni faci conscientiam et justi operis effectum :* (2) Conscientzia ona, bere ongi eguinaz, bere haithan barrena edireiten duen pagamenduaz contentatzen da, hora daritza asco, eztu bertceric biñhatzen, eta ez desiratzen. Ceren, san Ambrosio berac dioen beçala : *Quis enim puritate et simplicitate pectoris dulcior fructus? Quis cibis suavior*

(1) B. Paul. 2. Cor. 2.

(2) Ambros. lib. 2. de Abraham, c. 2.

quam is, quem animus bene sibi conscient, et mens innocentis epulatur? (1) Cer fruito da, conscientia onaren garbitasuna eta simpletasuna baino eztiorie? Cer ianhari, densem eztuela faltaric daquienac iaten duena baino goçoagoric. *Nihil simplici corde felicius: quia qui innocentiam erga alios exhibet, nihil est quod pati ab aliis formidet; habet enim quasi arcem firmissimam simplicitatem suam; nec suspectus est pati, quod se fecisse non meminit:* (2) Ezta conscientia simplea, plauna eta maliciagabea baino, gauza dohatsuagoric, dio san Gregorio; maliciagabe, simplequi, gogoan gaitzic eztagudala dabillana, ezta densem beldur; iduriteen çalica halakoari ecen bere simpletasuna eta intencione ona, duela gazteluric eta dorrieric usco; eta berac bertceri eguiten ezlioena, ezta beldur berari ere berteece daguiaten. *At contra mens prava semper est in laboribus, quia aut molitur mala quo inferat, aut metuit ne haec sibi ab aliis inferantur:* (3) Conscientia gaichtoa, maliciatia eta fede gaichtoz dabillana, bethi da nequez eta trabailloz; bethi da gogan behartsu, iduricor, guibel heldurti eta sosegugabe; ceren nola bera baita gaichto, uste du ecen bertceac ere hala direlia; nola bera hari baita gaichtaqueria pensatzen eta eguiten, heldur da berari ero hain bertce daguioten, moneda berean paga deçaten.

(1) Ambros. in psal. 35.

(2) Gregor. lib. 2. Moral. cap. 2.

(3) Greg. ubi supra.

§ 3.

Galdeguin ceraucaten egunbatez Bias Philosophoari, ea othe cenz munduan deus, deusen beldur etcenic? Eta ihardetsi çuen baietz, eta hura cela concientzia ona. Concientzia onac eztu deusen beldurric, eta ez bere baithan ikhararic. Halatan galdeguin ceranen gure Salbatçailleac ere bere etsaiey, Scriba Pharisœoy, deusen beldur gabe ausartzia handi batequin : *Quis ex vobis arguet me de peccato?* (1) Ceinec çuentaric egunen deraut niri bekhatuz erançute? Norc edireneng duene baithan saltaric? Norc erranen du nic badudala bekhaturic? Galdez nagotçue? Deus bidaquicue erraque? — Cer dioçu Iaungoicoa? Cer hari çara? Nolatan eguiten deraueçu galde hori ceure etsaiey? Çutçaz gaizqui erraiteco okhasino bilha dabiltçaney? Nola elçara beldur ahalque gabe daquizquitçun, eta eztena badela errau diaçacuten? — Nola ezten beldur? Ezpaitu deusetan ere saltaric. Concientzia baitu ona eta garbia. Ilarc esportçatzen, berrotcon eta segurantça segur batequin deusen beldur gabe ibenteen du. — Nahi duçu egon deusen beldur gabe? Çaren prestu, ençu concientzia ona. Çaren concientzia onarequin, ez etsairen, ez igortciriaren, ez ozpinaren, ez uren, ez suren, ez incontruren, ez fortunaren, eta ez munduan den bertee perilen ere, elçara beldur içanen.

(1) Ioann. cap. 8.

Concientzia gaichtoaç perilic eztueñean ere, uste du peril duela: baina onac peril duenean ere, bere burua segur daduca, esportu du, esperantça du ordunañ ere; bertce guztiec etsituagastic, eztu berac etsilcen. Susanna legue çaharreco emazte prestu hura, bere senharraz bertcerequin içan cela falsoqui akhusatric, harriz iocatcera ceramatenean, galduçat ceducan mundu guztiac. Ordea berac esperantça handia çuen Iaincoa baithan: *Erat cor ejus fiduciam habens in Domino.* (1) Ceren nola ezpailquen hobenic, bere hoben gabeac, bere concientiac, berotcen, consolatcen eta esperantçatcen çuen. Eta hala miraculuzqui falseria aguertric escapatu cen. *Si cor nostrum non reprehenderit nos, fiduciam habemus ad Dominum,* dio londone Ioannes Ebangelistae: (2) Baldiu gueure concientiac akhusatcen ezpagaitu, esperantça dugu, eta fidantzia Iaincoa baithan.

Eta handic londone Pauloc ere Thimoteo bere discipuluari esquiribatu cioen cartan, ibeni çuen esperantçaren lekhuan, concientzia ona. Aditcera cinaiteagalic, concientzia onaren içaitea eta esperantça ere içaitea, guzia dela bat. *Ille enim sperat qui habet bonam conscientiam:* (3) Ceren concientzia ona duenac, du esperantça ere.

Eta nola, concienteia gaichtoa duenac ez othe du

(1) Daniel. 3.

(2) 1. Ioannis, cap. 5.

(3) August. in psal. 31.

esperantçarie? — Bai baduque esperantça, ez ordea esperantça egiazcoa, ez esperantça bicia eta fina. Esperantça banoa, alfserra eta hillaztu du baluacoac. Ceren uola baitira bi sede molde, bata bicia eta bertcea hillaztu; hala dira balaber bi esperantça. Bekhatutako dagoenaren esperantça, esperantça fauna, hillaztu eta probetxu gutitacoa da.

Concientzia gaichtoac hotzten, eztheusten eta ultzen du gogoa; baina onae, berotzen, balentzen, esportatzen, ausartzen eta esperantçatzan. Guiçon batzueure mende guztian, etsaigoa edoqui dioçunean; eta guerthatu çaitzan ocasino guztietañ, ahal dagnicun gaizqui eta contra guztia egun diaçunean, cer esperantça abal duqueñ guero harén baithan, harén beharlicen eta menerateen çarenean? Arraçoinez ez anhitz. Eta nehore erranagatik ere: eztaçula hargatikantsia, guiçon ona dela, gomenda çaquitañ, behar deçaçula; eta eñ hari gaizqui egunagatik, bare, har-tara guti behaturik, egunien deratçula curi ongi: eztuñ sinhestea. Ceren zeure concientziac guibelatzen baitçaitu, bare gogoa hotzten eta hiltzen baiteratzen. Baina bertee guiçon batzuek amorio edoqui diaçunean eta okhasino guztietañ haren alde eta fabore eracutsi çarenean, baduñ esperantça, cerorri ere lura, harén behartzen çarenean, heldnco eta langunduko çaitçula. Eta nehore erranagatik ere ezetz, etçaitçula lagunduko, eztuñ sinhesten. Ceren barengana daducañ amorioac eta egun derautçatzen cerbitzuec emaiten baiteratçute esportzen eta esperantça.

Bada haur guerthatcen çaiica concientziari ere Iain-coarequin : concienteia onac esportu du , esperantza handi du, baina gaichtoac guti, edo ez batere. Eta ezta miresteko ez içaitea ere esperantza finic eta deus batlo duenic , ceren ezpaitu berac ere aitcinetic , Iain-coaren alderacotçat hala obratu, eta ez cracutsi.

§ 4.

Guiristino, guiristino denac, batean ezpada bertceau, noizic behin bedere , antemaiten du bere concientzia , bisitatzen du bere arima : eta bekhatsu dagoenean, iduriteen çaiica ilhunbean dagoela, eta coropillo bat, edo çama pisu bat, barren hartau baduela. Baina bekhaturie gahe denean, arrai,clar, eta libre edirciten du bere borua.

Ongui cafesaturic etcherat bihurteen çarenean, iduriteen çaitçu, carga sortha bat, çama pisu bat gainetic utzi duenla; arindu, consolatu eta alegueratu çarela. Eta arraçoinequin iduritzen çaitçu hala, ceren cer da munduan consolamendu handiagoric, eta bihotz esportea eta ailtchagarriagoric, ikhustea baino eztuela deusen ere perilic , eztuela cofesa beharric , eta ez bere concientzia harric? Halacoac eztu ansiaric ; eta eztu içaiteco ere, berehala laburzqui, guehiago cofesatu gabe hilagatic ere. Ceren prestatua baitago, segur baitago, bekhatu mortalie gabe baitago. Aise da , alleghera da, baque handian da halacoa.

Cer ahal dateque bada munduan halaco ontasunie edo parabisuric, nola baita concientzia ona, esperantza

handiz bethea, heldurtasun gabea, eta eguiazco alegrantzaren iabea?

Bertce munduko parabisuaz, ceruco loriaz, contu guti eguitea itsutasun handia da, eta baterc federic dotenen artean gauça mirestecoa. Baino aldez are itsutasun handiagoa, eta gauça mirestecoagoa da, mundo hunetaco parabisuaz, cein baita concientzia ona, hain contu guti eguitea. Ceren bertce munduko parabisua, eztugu oraino ikhusten bedere, eta ez goçatzen, baina mundu hunetacoa, concientzia onaren baquea eta sosegua, noizic behin, bekhaturie gabe gaudenean bedere, ikhusten, dastatzen eta frogatzetan dugu. Eta guztiarequin ere ontasun haur, bertereic anhitz beçala, galtcera utzten dugu.

Bada berthuteac, prestuqui hiciteeac, bertce pagamenduric eta golardoaric ezpalu ere, concientzia onaren baquea eta sosegua baicen ere, hargatic beragatic behar guenduque, lehen baino lehen, guerotic gueorra ibili gabe, egunetic biharrera luçatu gabe, orai bereon, concientzia onaren, ontasun handi hunen erdiestera enseiatu eta lehiatu. Hunelatan gutaric bat bederari erran ahal lequidiqueyon beçala : *Si dormieris non timebis, quiesces et suavis erit somnus tuus :* (1) Lo çautçanean, etçara beldur içanen, pausatuco duen, eta lo goçoa eguinene duen.

(1) Prov. 3.

AZQUENTÇA.

I. BEHAR DELA COFESATU.

LVII CAPITULUA.

BALDIN Escritura saindna ongi iracur eta considera badeçagu, edireneng dugu eztela egundaino nehor salbatu, eta ez salbatuco ere, aldez edo moldez cofesatu gabe.

Egundairoz, legue guzietan eta mende guzietan, usatu da eta usatzen da cofesatzea. Differentqui ordea, ez berdin. Legue naturaleco cofesatzea, oraico cofesatzearen itxala beçala cen. Legue naturalean asco cen hihotzezko urriquimendu balequin, eta batbederari bere gogoac bere baithan barrena ciotsan, campoco cebait seinalerequin, begui ailtchatze batequin edo belhauricatz hatequin, laincoari berari cofesatza eta barkhamendu escatzea.

Deitu çuen lainco launae Adan, eta galdeguin çuen ea non cen? *Vocavit Dominus Deus Adam, et dixit: ubi es?* Eta galdeguite hora elçuen ez egun iaquin gabez, baina halatan bere behatua eçagut ceçan, eta eçaguturie cofesa ceçan amoreacgatic. Eta ceren ez-paitzen behar cen bidean cofesatuz, baina desenu-satu eta ederztatu nahi içatu baitzen, erraiten çuela ecen bere emazteac eraguin ceraucala; halatan guehiago gaztigu, guehiago calte eta damu merecitu eta errecibitu çuen. Molde berean edireiten da galdeguin

cioela Caini ere, bere anaia Abel hil  uenean : *Ubi est Abel frater tuus?* Non da  ure anaia Abel? Eta cer-gatic galdequin ceraucan hunela? Bere bekhatua go-gora ce an, eta gogorarie cofesa ce angatic. Eta ceren ezpait uen cofesatu, baina ukhatu bait uen, halatan hain onbelhar eta urricalqui un egun cen, eta mun-dusn herratua eta desterratna i iliric, azquenean con-denatu cen. Bada Adan eta Cain ere legue naturalean ciren; iendeac bere naturale aren arauaz, esquiri-buzco guidarie eta eracusleric gabe, biciteen ciren demboran.

Ordea ceren naturale ac berac ere, eracunsten baitu, behar dela arra oinaren arauaz bici, gaizqui egitea utziric, Iaincoarequin eduqui, eta hari bere faltac ai-thortu; halatan eteen legue naturalean ere, corbait moldez, gogoz eta bihotzez bedere cofesatu gabe, ne-hor salbatzen. Eguia da, etcen oraino ordusn cofesat-ceco cirimonia seinalaturic. Hala erraiten du san Thomasec : *Sicut in statu legis naturae, homines nulla lege exterius data sed solo interiori instinctu movebantur ad Deum cotendum, ita etiam ex interiori instinctu determinabatur eis, quibus rebus sensibilius ad Deum cultum ueterantur.* (1) Asco cen barrencko urriquimen-dua, eta urriquimendu haren, batbederari bere bai-than iduriteen ce an, campoco ceinhait seinalerequin aguertcea eta significatcea. Etcen oraino orduan bertce cofesatce molderic, eta ez erremedio ezquiribuz e ar-riric eta ibeniric.

(1) S. Thomas.

Baina guero, mundua aphur bat aitecinago iragan cenean, legue naturaletic iltquiric legue esquiribatura, Moiscren demborara heldu cenean, hasi cen usatcen bertce cofesatce molde bat. Etcen ia orduan asco, batbederac bere barreneco damuaren eta dolo-rearen, placer quen seinalearequin, campoan aguertcea. Bainan behar quen barreneco dolore hora eta urriquimendua, cenbait offerendaz eta sacrificioz, eta ez ez ceinetçaz nahi cen, baina hartaco esquiribuz ordenaturic ceudecinez declaratu eta eman aditeera. Baciren legue çahar esquiribatuau Aphezac edo Sacerdoteac, eta temploco cargudunac. Eta presuna batec bekhatu hat eguiten çenean, behar quen bekhatu huragatic, urriquimendu batequin, eta guehiago ez eguiteco borondatearequin, Aphez hequen aitecinean eginin cenbait offerenda eta sacrificio, eta hartan eman aditeera bekhatore cela. Hala manatcen cen Lebiticoaren capitulu batuetan. Eta are hetan seinalatcen ciren, bekhatuey cegozten offerendac eta sacrificioac. (1)

Etcen oraino orduan, orai den beçala, nehori bere gainqui bere bekhatuen cofesatceco manuric, eta ez nola, noiz eta cenbat eguiñituen erraileco premiaric. Asco cen orduan urriquimendu batequin, legueac manatcen cituen offerenden eta sacrificioen eguitea: hora cen, orduco cofesatce moldea. Erregue Davit, atsegaleac lehenic eta guero urguiluac itsuturic, hain icigarrico bekhatuetara erori cenean: bertcaren emaztea-

(1) Vide Levit. cap. 3, 4, 5 et 6.

gana hurbildu çenean, eta bekhatu haren estalceagatic, guion prestu bat hil araci çuenean, erraiten du Glosac, haren gainean: *Ex verecundia enim non aperiebat peccata sua, faciendo pro eis sacrificia in lege praecepta, que pro variis peccatis varie imponuntur*: (1) Erregue Davitec ahalquez, eta bere buruaren ez nabarbenteeagatic, uitzen cituen egun gabe, haren bekhatuengat ordenaturic ceuden sacrificioac. Eta etcituen behin ere egun, Natan propheta mehatchatceria eta erançute eguitera ethor cequidacion arteino. Baino bai orduan, ahalquea beneturic, egun cituen behar ciren offerendac eta sacrificio guztiac, nigar, auhen, dolu eta urriqui minequin; eta guero hequin batean erdietsi çuen barkhamendu. Ceren orduan ere, legue çahar esquiribatu ere, egun behar ciren, bekhatuen erremediatceco ordenaturic ceuden offerendac eta sacrificioac; eta hura cen, orduco cofesatce moldea.

§ 4.

Orai legue berrian, Evangelio saindua declaratuz guero, usatcen da guiristinoen artean, bertce cofesatce molde bat, apheçaren aitcinean eguiten dena; legue naturalecoa eta esquiribatucoa baino seguragoa, indartsuago eta baliosagoa. Ceren hitz batez erraitera, oraico cofesatcean, obrateen baitu Iesu Christo launaren heriotceac eta pasioneac. Bekhatua cofesat-

(1) Glossa Lyrana, in psal. 31.

cen duçunean, eta apheçac absolhacinoa emaiten de-
ratçunean, han da berehala Iesu Christoren pasioneco
meritua eta balioa; han da berehala haren garacia
eta faborea, eta harequin batean bekhatuaren barkha-
mendua. Hala erran du Salbaçailleac berac, bere
Aphezey minteo ceia: *Quorum remiseritis peccata
remittuntur eis:* (1) Cœc barkhatuco dituçueney bar-
khatuac içanen dira bekhatuac. Horra Iaincoaren be-
raren hitza eta aguincta.

Bi arraçoim eman ahal ditezque principalqui, fro-
gateceo oraico cofesatceac indar guehiago duela, legue
çaharrecoac baino. Lehenbicicoa, ceren oraico cofe-
satceac, legue çaharrecoac etçuena, badu bere bai-
than barrena indar, garacia emaiteco. Legue çaharre-
co cofesatceac, eta orduco bertce sacramenduec etçu-
ten bercc bere indarrez eta berthutez garaciari emai-
ten; baina emaiten çuten garacia, emaiten çuten, er-
recibitzen ciñuenac çuen disposicionaren, debociona-
ren eta gaitasunaren aranaz: *Sacramenta veteris legis
conferebant gratiam ex opere operantis.* Nola esporta-
cen baitiren errecibitceco, hala errecibitzen çuten.
Baina oraico cofesatceac eta sacramentuec emaiten
dute gure disposicionari eta prestaiceari dagocan ga-
racia eta faborea; eta are guehiago, sacramenduec
berc bere baithan duten indarretic errepabitzen du-
te; eta errecibitzen dugu parte hura, baldin gueroc
gucire aldetik, traburic ibantzen ezpadugu: *Sacra-*

(1) Ioannis, 20.

menta novæ legis conferunt gratiam ex opere operato.

Bigarren arraçoina eman abal diteque, frogatceco, oraico cofesatceac indar guehiago duela legue çaharrecoac baino. Ceren orduco cofesatcean, baldin erdietsico bacen barkhamenduric, behar cen dolore hic bat, bihotzezeo urriquimendu bat Iaincoa osensatua-gatic, eta harenganaco amorioagatic içana eta hartua, cein deitcen baita *contritio*, contritionea, urriquimendu handia, bihotz phorrosatua. Baina oraico cofesatcean asco da, apheçaren absolbacinoarequin batean, contritioneaz bertce dolore molde bat, parabisuço loriaren galtceco, edo ifernuko penetara ioaiteco bel-durtasunetic heldu dena, cein deitcen baita *Attritio*, Atritionea : *Ex attrito per Sacramentum fit contritus.* Asco da oraico cofesatcean uste içaitea baduela contritionea, ceren ezpadu ere atritionea baicen, complitzen du sacramendnac bitartean den falta eta escastasuna : cein baita consideratceco pontua, eta salbatceco fabore handia. Hain handia ecen arraçoinequin galdeguiten baitu Ieremias Prophetae : *Nunquid resina non est in Galaud? Aut medicus non est ibi? Quare igitur non est obducta cicatrix filie populi mei?* (1) Cer da haur? Ez othe da arrochinariç edo atriacariç Galaadeco hirian, edo milieuriç han berean? Nolantan bada ene herrico alabaren çauria eza sendatu? Erran nahi du : guristino herrian, arinaco eritasunaren sendatceco hain erremedio handia eta midicina

(1) Ier. 8.

esenara den lekhuan, cein baita cofesionea; eta halaber hanbat barber eta midicu, cein baitira cofesorae: nolatan guztiarequin ere edireiten da hanbat cauri eta eritasun? hanbat bekhatu eta gaichtaquearia? eta nolatan eztira fitetzago sendateen? urthe guztian, eta batetan guehiago ere, bekhatuaren eritasunean, ustelduac eta khirastuac baitande? Ihardesten du Glosac: *Populus nolebat audire medicum, nec ejus recipere medicinam*: (1) Eztira sendatcen, ceren ezpaitira enseiatcen; ezpaitira midicuagana conseillatcera, eta midicinaren errecibitcera ioiten. Erran nahi du, ezpaitira behar beçala cofesatcen, eta ez cofesoragana hurbiltzen.

Arimaco eritasunetic sendatceco erremedioa da cofesatcea. Untzia galduz guero, cer erremedio içanen du marinelaç salbatceco? çur pusca bati lotcea, thaula baten eido ohol baten atrapateea, eta harequin batean, hari dachecala, ieri costaren irabastea. *Penitentia est secunda post naufragium tabula*. Untzia galdu ondoan atrapateen den thanta haren pare da, bekhatutan erori eta galtecerat dohanarentçat, cofesatcea. Si penitentiam non egeritis omnes simul peribitis, dio san Lucas Ebangelistae: (2) Baldin egoiten czpaduñue penitencia, guztioc fin gaitz elkarrequin egunien duñue. Bada penitenciaren partetaric bat da cofesatcea, beroz ez fin gaitz eguitecotz, behar da ongui cofesatu.

(1) Glossa. Lyr. in cap. 8. Ierem.

(2) Luc. 13.

Bekhatua da arimaren çauria eta handitsua. Eta handitsua irazten denean eta camporat lehertcen, esperantza da sendatuco dela. Baino barrenean guelditzen denean eta gogortzen, perilos da. Hala içanen da bada halaber perilos, cofesatu gabe barrenean guelditzen eta gogortzen den bekhatua ere. Halatan galdeguiten du, eta ihardesten ere bai, san Gregorioe : *Quid est peccatorum confessio, nisi quædam vulneris ruptio? Et confitendo peccata quid facimus, nisi malum quod intus latebat aperimus?* (1) Cer da bekhatuen cofesatcea, çauriaren edo handitsuaren lehertcea baicen ? Eta cer eguiten dugu bekhatuaren cofesatceaz, barrenean estaliric cegoen gaitzaren, eta eritasunaren aguertcea baicen ?

Bekhalutan eroriz guero, lehenbicico erremedioa, cofesatcea da. Ceren ecin dateque contricioneric, eta ez behar den bertee urriquimenduric, cofesatu gabe : edo, ecin cofesa ditequeyenean, cofesatceco boronda-tea gabe. Hala erraiten du san Agustinec : *Initium operum bonorum, confessio est operum malorum :* (2) Obra onen hastea, obra gaichtoen cofesatcea da.

§ 2.

Obra onen hastea baldin bada obra gaichtoen cofesatcea, cofesatce haur nola edo cer moldez egoin behar othe da ? Galdeguiocu Jeremias Prophetari, ceren

(1) Greg. Hom. de divite et Lazaro.

(2) August. Tract. 32. in Ioan.

harc Ierusalem eco hiriaren gainean egun cituen nigarren, Auhenen, eta dolamenen bigarren capituluau, eracusten du, erraiten duela : *Effunde cor tuum sicut aquam in conspectu Domini* : (1) Isur eçaçu ceure bihotza, ura beçala, Iaincoaren aitcinean. Erran nahi du, lehen egunen urriquimenduarequin, eta guéhiago ez egunteco borondatearequin, Iaincoac here lekhuan, bere orde ibeniric daducan cofesoraren aitcinean, cofesa, egotz, asen, eta isur ditçatçula, egun, erran eta pensatu dituçun bekhatu guztiac. Eztu erraiten, isur ditçatçula ceure bekhatuac olio a beçala, eztia beçala, edo arnoa beçala. — Nola bada ? *Sicut aquam*, ura beçala. Ceren ezta ianhariaric, eta ez edariric ura beçain garbiqui, eta osoqui hutsten, isurtzen, eta chutcatzen denic. Eztia hutsten duçunean, edo olio, guelditzen çäica bethiere untciari cenbait hondar edo cutsu. Arnoa hutsten duçunean ere, ahal guztsia chutcatuagatic, guelditzen da usaina bedere. Bainan uretic ezta guelditzen cutsuric, eta ez usainic. Alde guztsiz hutsten, chutcatzen eta garbitzen da. Hala bada gue ere gneure bekhatuac cofesatzen ditugunean, behar dugu gneure gogoa eta bihotza, intencione gaichto guztiataric, alde guztsiz hutstu, chutcatu, garbitu; eta halatan, ura egotu den untzia beçala, batere hondarriic, cutsuric, eta bekhatuaren usainic eta urrinic gabe guelditu.

Ordea hunela cofesatze haur, cenbatetan egun be-

(1) Thren. 2.

har othe da? Asco othe da gueroco luçaturic, urthean behin cofesatcea?

Nola cofesatceco manamendu haur, Iaincoac berac emana baita, complitu behar da, noiz içanen baita ere, noizhait. Eta hala heriotceco orenean; edo dacu-sagunean, uitzen badugu escuen artean dugun okbasinaoa iragaitera, ezcaitezqueyela benturaz seculan cofesa: orduan Iaincoaren manuaren complitceagatic ere, behar dngu cofesatu. Ordea ceren baitirudi, ecen cofesatceco manamendu haur gure Iaincoac eman çueñean, içan çuela intencione eta borondate, cofesa guindecin cebait aldiz, heriotceco perilean ezquineznean ere, ceren cofesatectic auhitz ontasun sorteen baita: halatan Eliçac eduqui du bethiere pontu hunez contu; eta ordenatu du differentqui, demboren differentcien arauaz, noiz eta conbatetan behar dugun, heriotceco pontuan edo perilean ez egonagatic ere, cofesatu.

Lehenago Apostoluen demboran, eta Apostoluen ondoko lehen mendetan, hain cen debocinoa handi eta bero, ecen egunoro Gorputz Saindua erreccibitzen baitutenean, eta hartaracotçat bekhaturie çutenac egunoro halaber cofesatzen baitciren. Ordea nola guero ondoan, debocinoa hotzten hasi baitzen, manatu çuen Fabiano aita Sainduac, maizago içanen ezpacen ere, urthean hiruretan, Bazcoz, Mendecostez eta Eguberriz cofesaturic, Gorputz Saindua errecebi gueneçala. Eta azquenean hain hotztu, edo iraungui cen debocinoa, non Innocentio icen hunetaco hirurgarren aita Sain-

duac manatu behar içatu baitzen, urthean behin bedere cofesa guindecilla, eta errecibi Gorputz Saindua, Bazco gariçumacoz. Eta hala orsi, heriotceco perilic ez içanagatic ere, obligatu gara urthean behin cofesateera. Eta urthean behin cofesatze haur, eguiten ohi da comunzqui, Bazco gariçumacoz, ceren orduan errecibitu behar baita Gorputz Saindua, eta Gorputz Saindua errecibituko dnenac, baldin badubekhaturic, lehenic behar baitu cofesatu.

Ordea nor içanenda, urthean behin baicen cofesatuco eztena? Urthe batez osoqui, bere concientzia bisitatua gabe, eta nola daducan auteman gabe, pairatuco duena?

Erranen duen: Eliçac eznau manatzen urthean behin baicen cofesa nadilla, eta ni eguiten naiz urthean behin; beraz eznaiz gaitz erraiteco, guehiagotan ez eguiñagatic ere. — Bada ordea gaitz erraiteco çara: ceren egnia da, etçaitu Eliçac manatzen guehiagotan, ordea etçaitu debecateen ere. Aitcitie nahi luque guehiagotan eguiñ bacindeci. Eta halatan erraiten du. *Saltem semel in anno*: Urthean behin bedere. *Bedere* erraiten du, aditcera emaiteagatic, nahi luquen yela guehiagotan ere eguiñ bacindeci. Ceren anhitz eta handiac baitira maiz cofesatetic heldu diren probetchuac eta irabaciak, eta bai halaber gutitan egutetic sorteen diren damuac eta calteac ore: hurreneco capituluau aguerico den beçala.

LVIII CAPITULUA.

Maiz cofesatceaz, eta handic heldu den probetchuaz.

NOLA anhitz presuna baita, cofesatcera herabe dueñe, nagui eta loti denic, halacoen iratçartceco, nahi nuque capitulu hunetan eman cenbait arraçoin, eta erateutsi cenbat probetchu dakharqueyen maiz cofesatceac, eta cenbat calte gutitan eguiteac; hec consideraturic batbedera maiz cofesatcera, eta bere eguinbidea-ren eguitera erna dōdin amoreagatic.

Lehenbicico arraçoina, maiz behar da cofesatu, ceren cofesatceac emaiten dio bekhatutan dagoenari, bere bekhatuen barkhamendua, garaciari eztuenari garacia; eta garacia duenari eta saindu denari berretcen dio eta handiteen bere leheneco garacia eta saindutasuna.

Ordea erranen du hemen cenbaitec: nelatan ahal dateque hori horrela? Nolatan cofesatceac berret ahal deçaque eta handi leheneco garacia eta saindutasuna? Ceren cofesatcera heldu dena bekhatutu dago, ceren hala ezpalego, ezluque cer cofesaturic. Beraz etçuen lehen garaciari eta ez saindutasunie; eta baldin ezpaquen, erran ahal diteque, cofesatceac ematen dioela garacia, baina eciñ erran diteque berretcen dioela. — Bada ordea erran diteque berretcen dioela, eta erran ongi eta eguiazqui, ceren anhitz ethorteen da cofesatcera, bekhatu mortalik gabe, eta bekhatu mortalik eztuena laincoaren garacian dago. Anhitz presuna

prestu, anhitz iende debot eta saindu edireiten da munduan, eta hec maiz cofesatcen dira. Ceren bekhatu mortalic ez içanagatic ere, badute cebait benial, eta benialac asco dira cofesatceco. Eta nola benialac asco baitira, eta baitacusate ecen cofesatceac traburic ez-tenean, iratchequitcen dioela bethiere cebait gradu leheneco garacisri, halatan berretura hura eta benialen ere barkhamendua erdietsi nahiz, cofesatcen dira hain maiz. Eta ongi eguiten dute hala eguiteaz, ceren hain da gauça handia, eta estimatceoa cofesatceaz erdiesten den garacia, edo garaciaren berretura, non hartaric den graduric ttipienac ere, mundu guztiac baino guehiago balio haitu; eta bertce munduan, hemendic garacia guehiago eramaiten duenari, loria guehiago emanen baitzaica. Beraz maiz behar da cofesatu.

Bigarren arraçoina: arc guehiago maiz behar da cofesatu, ceren maiz cofesatceac, arintcen, gutitcen, eta laburtcen du purgatorioetako pena, eta pena hetan egon behar den dembora. Cofesatcen denari, cofesatcen den guztiaz, ongi cofesatcen bada, barkhatcen caica, eta guliteen bere çor duen penatic parte bat. Eta hain maiz cofesa ahal diteque, eta hain-ongui, non guzia pagaturic, hartecodun ere guertha baititeque, lehenagoco saindu handi maiz cofesatcen ciren hec guerthatu ciren beçala.

Purgatorioetako penen bortitztasuna consideratzen duenac, eta han iragan behar diren pena hec, maiz cofesatceaz, arintcen direla daquienae, nola eztu,

akhusaluco bere naguitasuna, eta eguiten den baino maizago cofesatuco? Ceren mundu hunetaco pena guztiac elkarri iratchequiric ere, eztira deus, purgatorioetan den penarie ttipienarequin comparaturic. Beraz maiz behar da cofesatu, eta cofesatceaz, pena hequen iraungnitcera eta gutitcera enseiatu.

Hirurgarren arraçoina: are guchiago maiz behar da cofesatu, ceren maiz cofesatceen haserretcen du deabrua, eta are erhoturic eta çoraturic beçala, cer hari den eta cer egun eztaquielo, ibentzen du.

Bekhatuac cofesatu gabe dembora luceaz bere baithan barrena gorderic eta estaliric dadutçana baithan esen handia du deabruac, nabusi da harentçat. Baino egun eta berehala aguerteren eta cofesatcen dituenari, heldur çaina, gogan behar çaina, etçaina behinere fida.

Ikhusten duçunean ecen presuna bat dela erasle handi, minçatçaille, ahaçabal, hitzmitzti, elhaberriti, eta salhati, eztioçu halacoari sequereturic fidatzen. Ceren Spiritu Sainduac dioen beçala: *Qui denudat arcana amici, fidem perdit*: (1) Adisquidearen sequereturac biluzten, aguerteren eta salhatzen dituenac galtzen du haren baithan ahal duqueyen sinhestea, eztu mereci nehor fida daquion. Hala bada deabruac ere, dacusanean ecen, eraguiten derauzquitçun bekhatuac, ichil eta sequeretu eduqui bacinitça nabi bailluque, çuc berehala camporateen ditutçula, cofe-

(1) Eccli. 27.

sorari erraiten eta aguertcen derautçalçula, galteen du çure baithan çuen sinhestea eta fidantzia. Ikhussiric ecen haren iduriz bitzmitzti eta salhati çarela, utzten çaitu; etçaitu handic sitcina banbatetan tentatzen, eta ez bekhatu eguitera narratalcen. Ceren berdin baitacusa eztuela probetchuric; haren eguiten duen guztia çuc berehala cofesoraren aitcinean deseguiten duçula.

Gutitan cofesatcen direnac dira deabruaren goga-racoac, hec dira haren cerbitcari cinac eta leyalac, hec dira haren secretariac, haren bekhatu sequeretua, sequeretu, dembora luceaz eduqnitzen dituztenac.

Bada halaco nabusi gaichtoaren secretari eta cerbitcari ez içaiteagatic, hari damu eguiteagatic, eta gure baithan ahal dñqneyen fidantzia ere galduric, utz gaitçangatic, behar da lehen baino lehen, behar da maiz cofesatu.

Laurgarren arraçoina: are guehiago, behar da maiz cofesatu. Ceren maiz cofesatcen dena baithan eztira bekhatuac hala gogorteen eta ez fincatzen, eztira hala erroztatzen, eta ez hain barrena sartzen.

Erranen duen: iende batçuc cofesatzen dira maiz, eta bai halaber maiz here leheneco bekhatuetara bihurtzen; eror eta iaipiñi dabiltxa; garbitu beçain fitx liquidisten dira. Cer probetchu da bada halaco cofesatceaz, iaiquitceaz, eta garbitceaz? — Cer probetchu den? Bada bai probetchu. Ceren baldin maiz erorteen badira, halaber maiz iaiquitzen dira; baldin maiz eguiten badu ere bekhatu, halaber maiz erremediatzen

dute. Eta erremediatu duten bitarte hartan, iaiquiac eta garbituac daudenean dei ditçaque Iaincoac, hil di-tezque orduan, eta bai halaber halatan salba ere. Eta hala batean cror, eta bertcean iaiqui dahillanac, peril badu ere galtecoo, ez ordea hanbat nola bethiere ero-riric datçanac.

Egnia da ordea, cofesateen çarenean behar duçu ez berriz bihurtceco borondatearequin cofesatu. Bainan hala cofesaturic ere, çure libertatea eta flacotasuna dela causa, bekhatu eguitera berriz bihurteen bacara ere, behar duçu halaber, berriz cofesatcera bihurtu. Geren halatan etçara hala bekhatutän gogortuco, eta ez ezansiatuco.

Maiz biluzten, eta erabiltzen den ezpata prest da, manucor da. Bainan gutitan dabillana, çokhoan datçana, herdoilteen da, maguinarequin iosten beçala da, gakhoaz dagoela erraiten da. Halaco moldez non guero beharteen çarenean, ecin athersaz çabilçala, etsaiac çutçaz nahi duena eguin baiteçaque. Hala guerthatzen çaiica bada dembora luceaz cofesatu gabe, bekhatutän herdoildna, eta gogortua dagoenari ere. Ethortzen çaiica eritasuna, hurbilteen çaiica heriotcea, bateen da etsaiarequin, eta guero nola ezpaitago usatua, eta ez prestatua, prestatzen den bitartean eguiten du etsaiac hartçaz nahi duena.

Erraiten du erregue Propheta Davitec : *Et meditatus sum nocte cum corde meo, et exercitabar, ei scopebam spiritum meum :* (1) Gauaz eguiten nituen neure

(1) Psalm. 76.

burnarequin neure gogoetac eta contuac, eta guero isatsaz iragaiten nuen neure concientzia. Bada nola isatsaz maiz iragaiten den etchea, erraz baita garbitzen, ceren harc fitsmits eta liquidsqueria guti baitu; baina urthean behin baicen garbitzen eztene, neque baita eta gaitz, ceren harc herrautsa eta amaraua lodi baitu: hala molde berean, maiz cofesatzen dena erraz beçala, gutitan eguiten dena ere da neque eta gaitz. Ceren hari dembora lucean, anhitz liquidsqueria eta bekhatu lotzen baitzaica. Beraz maiz behar da garbitu, maiz behar da cofesatu.

Bortzgarren arraçoina: are guehiago, maiz behar da cofesatu. Ceren bekhaturic gabe ceneundenean, egun cinituen obra onac, cein baitciren obra biciac, eta guero bekhatu eguiteaz hildu eta iraungui beçala cierenac, cofesatceaz pitzen, eta coberatzen baitira.

Eta punto hunen hobequi aditeeco, iaquin behar duen ecen, laur obra molde, laur obra suerte edireiten direla, orai gure contuco ongui heldu direnac.

Lehenbicicoac dira, *opera viva*, obra biciac: bekhaturic gabe ceneundenean egun cinituen obrac onac. Bigarrenac dira, *opera mortifera*, obra hiltzaileac, arima hiltzen eta erhaiten dutenac, cein baitira bekhatu mortalac. Hirurgarrenac dira, *opera mortificata*, obra hilduac, hildumatuac, lobacartuac. Ceren bekhatu mortal bat eguiten duçuneau, guelditzen dira, lehen bekhaturic gabe ceneundenean, egun cinituen obra on guztiac hilduac, hebainduac, eta cenuco loriara ceramaten bidetic, eta abiaduratic guibe-

latuac eta trabatuac. Bada obra hildu, hebaindu, lo-hacartu eta trabatu hec libratcen, pitzten, iratçartcen eta erraberritcen dira cofesatceaz. Ceren cofesatceac khentceu baitu, hequin aitcinean cegoen trabaia, cein baita bekhatua.

Laurgarren obrac dira, *opera mortua*, obra hillac. Eta hauc dira bekhatu mortalean çaudela egiten ditu-şun obra onac. Bekhatutau çaudenean barurtecen cara, oracintonan egoiten cara, erromerian ibiltcen cara, beharren alderacotçat misericordios guerthatcen cara, eta anhitz hertce obra misericordiazcotan emplegatcen cara. Eta hauc guztioc, bere egitez eta içanez, obra onac dira. Ordea nola presuna hillac ecin baitaidique obra biciric, eta en orduan ceure ariman hillia baitaude, halatan çure orduco obra on hec ere dira hillac, eta ceruco deus guti balió dutenac; hec on içaten ahal dira ceure comberticeco garaciaren Iaincoaganic erdiesteco; ordea hec eztute seculan içanen ceruan golardoric. Eta hala urricalquięn da bekhatorea, bere alfer trabailluagatic erc; bekhatutau dagocnean, anhitz obra on egiten dueluric, ceren bekhatutau dagoela egiten dituen, ezpaitçaitça casi deus baliatzen. Cofesa bedi beraz batbedera, bekhatua egun duen beçain site; ceren bertcela, bekhatutau dagoeino egiten dituen obra on guziac galtsen tu; eta are, lehenecoac ere, bekhaturic gabe cegoenean egunin ci-tuenac ere, hildiac eta trabatuac eduquiteen ditu.

Ordea benturaz errauen du orai hemen cenbaitec; beraz halatan, bekhatutau nagoenean, eztut cer barur-

turic, oracintonan egonic, eta ez bertee obra onetan ere cer emplegaturie; ceren berdin, orduco obra on hec ezpaitute orduan deus balio? — Bada ordea, orduan ere cerbait balio dute, eta on da bekhatutan çaudenean ere ongui eguitea, eta obra onetan emplegatcea. Ceren eguiña da, orduco obra on hec eztute ceruko loriaren erdiesteco deus balio, eztute hartara-
 colçat berec indarrie; eta bala hequengatic, baldin
 orduan hil bacindeci, ifernura cindoazque. Bai ordea
 balio dute, bertee anhitz gauçatuko. Balio dute mun-
 duco on temporalen erdiesteco; garaciaren hidean eta
 disposicionean iartceco; bekhatu gotiago eguiteco; eta
 usantxa onaren ere hartceco. Eta haur da san Thoma-
 sec erraiten duena: *Opera extra charitatem facta, ex
 condigno nullius boni meritoria sunt, ex congruo
 vero alicuius meritoria dici possunt. Quia decet divi-
 nam bonitatem, ut ubicumque dispositionem invenit,
 perfectionem adjiciat. Et secundum hoc opera ista
 ad triplex bonum valent, scilicet ad consecutionem
 temporalium, ad dispositionem ad gratiam, et assue-
 factiōnem honorum operum.* (1) Bekhatoreac bekha-
 tutan dagoenean, eguiten dituen obra onec, balio ez-
 padute ere deus ceruko loriaren erdiesteco; eta obra
 on hequengatic, bekhatore bare Iaincoaren aldera-
 colçat buruperic ecin baduque ere; ceren ohra on
 hec bere baithan hillae baitira, ezpaitira deusen me-
 recient; ordea badirudi eeen Iaincoac, bere onatasu-

(1) S. Th. in additionib. q. 44. ar. 4.

nagatic, hetaric okhasino hartecoco duela, hala obra onetan dabillanari, behatore içanagatic ere, ongi eguiteco, escuaren emaiteco, eta bide onera heltececo escaz çäicanaren complitceco. Ceren behatorea bera ere orduan hartara disposatzen eta enseiateen baita.

Beraz nola nahi den dela, behatutan içanagatic ere, eguiçu ongi, eztitiatçula hargatic ceure obligacinoac eta debocinoac utz. Ceren utzten eztitutçun demboran, eztu bekhatua berritzen, eta bethiere cerbait baliatzen çoizquitçu. Ez ordea, cofesaturic eguiten baiteinitu beçanbat; eta hala hobe da bethiere ahalic eta gutiema behatutan egoitea, eta maiz cofesatcea.

Seigarren arraçoina: are guehiago, behar da maiz cofesatu, ceren urthean behin baicen cofesateen ezte-nac, badirudi bortchaz eguiten dela, eta halacoaren cofesatceac deus guti balio duela.

Comunzqui behatorea, behatu eguin berrian, beldurago, senticorago eta antsatsuago da, handic urthe baten edo biaren buruan baino. Behatu bat eguiten duçunean, albaliz oren berean behar cendu-que cofesatu. Ceren baldin luçatzen badu, ahantz-teco periletan iartzen cara; eta ahantztea ahantzte de-larie, bertceric ere cenbait lothuço çaitçu. Hala errai-tzen du san Gregorio: *Peccatum quod mox per paenitentiam non diluitur, suo pondere aliud trahit*: (1) Bekhatuac, ezpada berehala penitenciaz garbitzen,

(1) Gregor. de pœnitentia non differenda.

bere pisuaz eta indarraz bertce bat thiratcen du eta ekhartcen.

Galdeguin bociniao dembora lucea duela orí den presuna batí, ea nolatan ezten sendatcen? Eta ibardets baliaçaçú, midicina bat hartu nahi gabez, eta midicuagana ioan nahi gabez eztela sendatcen; mirets ceneçaque, eta arraçoinequin erran ciniaçao, erhoa dela. Hala da bada erhoa, cofesora gana, arimaco midicua gana, ioan nahi gabez, urthe guztian, hain dembora lucean, gariçumaraíno, arimaco eritasunarequin dagoena ere. Buruco min hateg, sukhar hateg edo bertce eritasun hateg hartzen caituenean, berehala, lehen baino lehen erremedio bilhatzen duçu, midicuric hoherena deitzen duçu. Cergatic bada gorputceco eritasunagatic eguiten duçana, eztuçu arinacoagatic eguiñen?

Corrac dituenac, baldin prestu bada, atseguin harten du hequen pagatceaz, eta ahalic eta fitetzena pagatzen tu. Bada bekhatuac dira corrac; eta halatua eguiten diogu egun guztiaz Iaincoari othoitza, barkha diatçagula, *dimitte nobis debita nostra*. Bada nola here nabusiari contuac ongi eman nahi derautzan muthila, ezpaita urthearen bururaino, contuac ikhussi gabe eta here nabusiarequin mintçatu gabe, egoiten: hala gue ere baldin gueure arimaco contuac eman nahi baditugu ongi eta corrac pagatu, eztugu urthe guztian, gariçumaraíno, cofesatu gabe egón behar. Ceren cofesalcea da Iaincoarequin mintçatcea, contuen eguitea eta pagatceco bidean iartea. Eta çuc erranagaic ga-

riéuman cofesatueo çarela, orduan contuac egunen eta corrae pagatuco ditutçula, engana abal cindezque. Ceren cer daquię iraunen duçunz gariçumaraíno ? Iaincoae, prometatcen deratçen ceure bekhatuen bar-khamendua ongi cofesateen çarenean, noiz nahi den dela, gariçumaren simean bada ere. Ez ordea ezteratzen prometatcen eta ez segurantçaric emaiten, igoriquico deratçula gariçumaraíno.

Gança ieigarria da, eta erhoqueria guztien gaineko erhoqueria, bekhatu mortalean dagoela, gauaren iragaitera benturaitza. Ceren anhitz ioaiten baita arratsean sendoric oherat, eta guero ezpaita goizean, biciric iaiquiteen. *Qui amat periculum, in illo peribit :* (1) Perilean ibili nahi dena, perilean galduco da. Beraz segurean iocatzeceo, ez urthearen bururaino bekhatutan egon, ez hetan sosega, lehen baino lehen, sitzeta maiz cofesa.

Finean çazpigarren arraçoina : maiz behar da cofesatu, ceren maiz cofesatceaz, berreac bertee direla, aisia handi bat emanen diozu ceure buruari. Guitan cofesateen denari, gaitei çaiica cofesatcea, ahalque da halacoa, beldur da, herstura handitan edireiten da. Halacoac egunetik egunera, gariçumaren hastetic akhabatcera, akhabatctic bazeo çaharrera, azquen ephera luçatzen du, eta batçutan ephe hura ere iragaitera utzten du. Eta hala guerthatzen çaiica halacoari eritzen denean ere : orduan ere loçatzen du ; noiz beharco

(1) Eccl. 3.

duen, laineoac eracutsico dioela, oraino bihotz on duela, aphur bat utz deçatela erraiten du. Eta guero hala dabillala, maiz guerthatseen dema, cofesatu gabe finatcen da.

Gutitan orraztacen denac, lehenbikico orratza al-dian, orracea nequez iragaiten du, min harteen du. Ceren illeac nahasiac eta içnrtuac baitande. Bainaz maiz orraztacen denac eztu traburie edireiten, eztn minic harteen, hura aisequi orraztateen da buruan : hala orraztateen da bada halaber aisequi bere ariman, urthean laur edo bortzetan edo maizago cofesatcen dena ere ; guztiez orhoiteen da, guztiez akhusatcen da, eztn traburie edireiten, eta ez minic harteen.

Ençutea bera presuna bat maiz cofesatcen dela, aseko da, prestu dela erraiteco ; eta bai halaber gutitan cofesatcen dela inquitea, eztela sobera guiristino on sinhesteco.

Bada nore ere bere arimaz contu ona eman nahi baitu, eta bere bekhatu iraganez, backhamendu erdiesiric, aitincerat guehiago egun gabe egoiteco indar hartz, maiz cofesa bedi ; guerotic guerora, egunetik biharera luçatu gabe, urtheco besta buruetan bedere, Isincoarequin mintea bedi, contutan iar bedi. Ceren halatan emanen du orai presenteon contu ona, eta guero azquen finean erdietsico du, bere arimaren salbamendua.

II. BEHAR DELA ONIRAUN.

LIX CAPITULUA.

*Nola oraidan ic behar dugun, gueroco beguira egon gabe,
ontasunean irautera eta perseberatcera enseiatu.*

BEHINERAK makhurtu gabe, sailketserat aldaratu gabe, bide onari eta arthezari bethi ongi eta chuchen iarrainquitcea; berthutean, prestutasunean eta obra onetan fineraino eta finean, bethi cin eta finco egoitea eta irautea, deitzen da guehien herriek eta hitzuntzetan, perseberatea.

Eta perseberatce haur, berthutean eta onatasunean fineraino eta finean irauten haur, da Iaincoaren donua eta emaitza: Iaincoa beraganie baileen, bertcetariecien datequeyena. Hala erraiten du Concilioa: *Munus perseverantiae aliunde haberis non potest, nisi ab eo qui potens est cum qui stat, statuere ut perseveranter stet: et cum qui cadit, restituere.* (1) Eta arragoina emaiten du san Thomasec: *Perseverantia indiget non solum dono habitualis gratiae, sed etiam gratuito Dei auxilio, conservantis hominem usque ad finem vitae. Quia liberum arbitrium de se est flexibile.* (2) Nola guionaren borondatea, alde batera eta bertcera itzulteko cibil baita eta libre: borondate libre

(1) Tridentin. sessione 6, cap. 13.

(2) S. Thom, 1. part. q. 137. art. 4.

hunec, contraco aldera itzuli gabe, eta harat erori gabe egoiteco, behar du Iaincoaren garaciaren eta faborearen habea eta sostengua; eta holatan perseberatceco indarra eta donua. Hala emaiten du aditcera san Agustinec: *Firmissime tenendum est, neminem etiam baptismatis gratia renovatum idoneum esse ad superandas diaboli insidias, et ad vincendas carnis concupiscentias, nisi per quotidianum adjutorium Dei, perseverantiam bona conversationis acceperit:* (1) Fint-qui eta duda gabe sinhesten dugu, eta sinhetsi behar da, eztela nehor ere asco sendo eta ez boheretsu, deabruaren enganamenduen eta haraguiaren guticien garaitceco, egn guzliaz Iaincoa bera lagunduz, perseberantziaren donua erreccibitzen duela baicen.

Etsaiac: mundua, deabrua eta haraguia bortitz; naturaleña flaco, borondatea onera eta gaichtora libre, bietara erortoqui, eta haraguiaren arauaz gaichtora erortoquiago. Ezta beraz iranteric eta ez fermo eta ein egoiteric, Iaincoac berac edukitzen eta sostengatzen gaituela baicen.

§ 4.

Bi perseberatce molde, bi iraute suerte erran ahal diteque edireiten direla gure artean. Bata da cenbait demboratakoa; cenbait demboraz onatasunean iraunez guero eta bekhaturic egun gabe egonez guero, azken fincan edo finera hurbiltcean saltatzen duena.

(1) August. lib. de Ecclesiae dogmat. cap. 25.

Hura da lapitzaren gainean creiten den hacia beçala, sorteen da ongui, baina nola ezpaitu erroric eguiten, sile ihartzen da. Hala dira bada iende thaillu batęc ere, hasten dira ongui, ordea eztira aitcinatzen; den traburic tipienean behaztopa; canabera beçala, malgu eta plega; camaleona beçan batetan muda; finean firmetasunic ez, hoberenean falta. Erregue Salomonec hala egun cuen: ongui hasi, eta ez iraun; ludesec ere hala egun cuen, ongui hasi, ordea ez perseberatu, gaizqui finitu.

Edireiten da bipera daritçan sierpe bat gaichtoa eta poçointsua. Eta hartçaz erraiten du Plinioe, (1) egotzten duela neguan bere poçoina eta Iurrean barrena ehortzten duela; baina guero udan poçoin berriarequin, are lehena baino gaichtoagoarequin aguertzen dela. Hala dirudi bada eguiten duela, eritasunean, gariçuman, edo cenbait hersturan eta eguitecotan denean, bekhatutic apartaizcen denac ere. Senda arteino, gariçumaren edo hersturaren negua iragan arteino, poçoina utzten du. Baina guero uda dathornean, senda dadinean, gariçuma iragan denean, finean bere gogara iar dadinean, herriz bere poçoina hartezen du, bere leheneco bekhatura bihurtceu da. Haur da bihurgune gaichtoa, dembora gutiz ontasunean irautea eta perseberatcea: eta guztia ongvi kontakera, deus guti balio duena.

Bi garren iraute eta perseberatce moldea da, az-

(1) Plin. de naturali hist. I. 8. c. 39.

quen-sinera inoco; lehen cer içan baita ere, hasiz guero, onatasunean, prestutasunean eta herbutean perseberatcea, irautea eta hartan akhabatcea.

San Agustinec eztu conturic eguiten, aitcineco perseberantziaz eta irauteaz, finera baino lehen, edo finean berean, fina finatu gabe, finateen denaz. *Potius habuit perseverantiam unius anni fidelis, et quantum infra excogitari potest, si donec moritur fideliter vixit; quam multorum annorum, si exiguum ante mortem à fidei stabilitate defecit :* (1) Azquen urthean, heriotceco aiteinean dembora aphur batez ongi bicitzen denac, eta guero hilteen denean behkaturic gabe guerthatcon denac, erran ahal diteque duela behar den perseberantzia eta firmetasuna, eta ez aitcinetic anhitz urthez ongi eta prestuqui bici içan denac, baldin hilteeracoan edo hilteen denean saltatzen badu.

Aaron sacerdote handiaren beztidurac, behereco bazterrean inguru cituen mingrana pintatuac. Mingranac, bertee fruituec eztutena, badu coroa iduri bat. Bada coroa hura nahi quen Iaincoac eman cequion sacerdotearen beztidurari, ez hastean eta ez erdian, baina basterrean, oinetan, akhabatcean. Geren akhabatceari dagoca coroa eta ez hasteari.

Galdeguin ceraucaten egun batez Diogenes Philoso pho handi hari, ea cergatic hain çahartuz guero etçuen pausateen? Etçuen estudiatcetic eta iracureetic guelditzen? Eta ihardetsi quen: thema batean gainean,

(1) Aug. 1. 2. de dono persev. c. 1.

garaicarrean, laster egüiten duenac, eztu chedera eta marrara hurbildu hurran denean, ezansiatu behar eta ez baratu. Aiticitic orduan behar du permatuago, eta emplegatuago, bartaraz guero, garaitia bertcec eraman eztiaçon, eta anarterainoco trabaillua ere gal ezteçan. Hala bada nic ere, dio Diogenec, orai chedera, bicitearen bazterrera, eta adinaren finera hurbildu naicenean, eztut guelditu behar eta ez ezantsiatu. Baino orai behar dut lasterago abiatu, fintquiago permatu eta dembora hobequiago emplegatu. Ceren berteela benturaz thema gal neçaque, leheneco laster egninaz eta esudiatuz eznuque probetchurie. Haur da Iondone Pauloc ere erraiten duena : *Sic currite ut comprehendatis* : Egüiñe laster, atrapa deçaqueñuen beçala, garaitia içan deçaqueñuen beçala.

Eta hunela laster egnite eta atrapatzear haur, fineraido eta fineau, azquen pontuan eta partitcean behkaturic gabe guerthatze haur, erraiten du san Agustinec dela Iaincoaren donua eta emaitza, Iaincoaren liberaltasuna : eta nori emanen çäican eta nori ez, Iaincoa beraganic baice-i ecin iauquin ditequeyena.

Beraz beldur garela behar dugu bici, behatuqui ibili; eta gueure indarrean baino, Iaincoaren faborean fidatzenago garela, humiltasun handi batequin othoit cetan iarri, nahi gaituen sostengatu, erorcertic begirata, eta behkaturic gabe gauden batez, heregana deitu eta thiratu. Ceren onatasunean azquen fineraido irante haur, nehorc ere bere buruz ecin mereci deçaqueyen donua bada ere, ordea guztiarequin ere, egün

behar du batbederac bere aldetic ahal daguiena, mereci ahal bailleçaque beçala. Ceren gure othoitz guztien ençutera eta complitcera obligateen ezpada ere Iaincoa, ordea gaineracoan prestic dago, ahal aegui-ten duenari heltceco, iabelceco eta escuaren emaitzeco. Hala emaiten du aditcera erregue Davitec : *Prope est Dominus omnibus invocantibus eum, omnibus invocantibus eum in veritate :* (1) Hurbil dagote Iaincoa cinez eta eguiaz gomendatzen eta fabore escatzen çaizeon guztiey. Eta nahi du esca gaquitçan, eta are lehia gaquitçan eta lehenbicico ezean eta errefusean ezteçagun etsi ; baina athal ondean dogoen escalea beçala, erfierts arteino, gauden buthoituac.

Eta orobat da, noiz nahi den, gauaren erdian ere escatcea. Ceren Iaincoa baithan ezta, ez-orenio, eta ez aldarte gaitzic, munduco iendetan ohi den beçala. Haren baithan muga guztiac eta oren guztiac dira bat, bethi da nehor ongui ethorria. Beraz hunelatzen cintqui eta fintqui, maiz etsi lehiatuqui, behar gatçaitza azquen fineco iranpenaren eta perseberatceco donna-ren escatu : eta hunetan gueure ahal guztiaz permatu, eta bulharca iarri. Ceren azquen fineco perseberantzia da gakhoa, hura da gorabehera-guztia, bartan dago garaitia eta bictoria. Hura gabe leheneco obra onec deus guti balio dute. Ceren iraganac iragan, azquen finean nolako garen behatzen du Iaincoac : eta ordnan edireiten gaituen arauaz, emaiten deracu seculaco corthea, ona edo gaichtoa.

(1) Psal. 144.

Eta onatasunean iraute haur, perseherateca oraidanie behar da hartu eta edoqui eta ez gueroço esperantçan uizi, eta largatu. Ceren azquen fineco aitcin- etan irauten eta perseberatzen duenac, perseberatzen ohi du comunzqai, azquen finean berean ere.

§ 2.

Ordea ezcaitu ez icitu behar azquen finerainoco, bicinee labur hunetaco trabaillu aphur batec; hartaz ceruco loria, hain gauça handia, erdiesten denaz gue- roztic. Ceren Iondone Pauloc dioen beçala : *Nou sunt condignae passiones hujus temporis ad futuram gloriām quae revelabitur in nolis* : (1) Hemengo neque trabaillu guziac, guehiago balira ere, eztira ceruco loriaren erdiesteco merecient, eztira aseo, eztira deus harequin comparaturic. Beraz hunelatan eztugu bici gareinoco trabaillu aphur haur sobera etsi behar. Aitcitic desiratu behar guenduque licen handiago, eta iraun leçan guehingo. Hala desirateen çuten lehenagoço saindoec ; eta halatan desira hura hala içanez eman ceranci Iaincoac hain loria handia. Halaco batez mintco dela erraiten Spirito Sainduae : *Consummatus in brevi explicat tempora multa* : (2) Dembora gutiz bici içan bacen ere, guti hartan eguiñ çuen anhitz. Ceren hartan içan baitçuen aitcinerat ere ongi egui- teco gogo eta borondate, eta borondate barequin hil baitcen. Hala erraiten da halaber gaichtoez ere, dem-

(1) Paul. ad. Rom. 8.

(2) Sapientia. c. 4.

bora gutiz egun çutela anhitz; eta dembora gutiz eta laburrez egun cituzten bekhatuagatik, emaiten çaiela gaztigu lucea eta seculacoa. Ceren demboran içan hacificren ere labur, ordea bekhatu egniteko gogoan, borondatean eta desiran içan baitciren luce.

Bada nola gaichtoec baitute gogo eta borondate, aitcinerat ere bere gaichtaquerietan egoiteko eta bieitceko: hala onec dute hñaber onatasunean aitcina iragaiteko, eta hartan fineraíno, eta finean irauteko eta perseberateceko.

Eta ezta ez, ez deusgatik, munduac, deabruac edo haragoiac contra aphur bat egunagatik, utzi behar perseberatcea eta aitcinera iragaitea, ezta hargatik guibelat bihurtu behar.

Itsasoan dabiltçanac, tormentac hartuagatik, contraco haiceac ioagatik, eztira berehala errendatzen, eta ez bihotz hilduac eta etsituae iartzen; eztira portuan sar arteino lachatzen, eta ez ezansiateen; anarteraino bethi on daducate, bethi enseiatzen eta permateen dira. Hala behar dugu bada gue ere permatu, eta parabisueto bidean iaiquiteen çaiqnigun tormentac eta contrac bençeturic, hango portuan sartzen enseiatu, eti ez anarteraino errendatu, eta ez amainatu. Ezlugu elminioac beçala egun beha, elteaurraren iateko desiros deluric, campoco açalaren hautsieko nequeagatik utzten baitu barreneco mamia dastatu gabe.

Guiristino lura, ezta ez berehala lehenbicico okhasingoan eta tentamenduan erorizten: ezta lehenbicico

incontruan behaztopatzen, eta ez icitzen. Aiteitic orduan daffendatceco eta ihardesteko, pitztenago, permaticenago eta fincatcenago da.

Su tipia, candela argua, haice gutic iraunguitzen du; baina su handia, ikhatzobia, haice handiarequin handitcenago eta sendotcenago da; hala bada debocino tipia, ez-baieco gogoa, eta intencion flacoa ere, edo cein tentamendurequin, okhasino gutirequin, haice aphur batequin, iraunguitzen da. Baina debocino handia, intencion fina, berthutean erroac egunie dagoena, okhasino handiequin, haice nahasiequin, eta tentamenduequin fintcenago eta handitcenago da.

Ordea erraiten denean ecen azquen fineraíno eztirela guiristino onac, eta finac haratzen, çabartzen ez guelditzen: ezta ez aditzen lehenbicico hastetic akhabatceraino, gaztetic çahartceraino, behinere eta nehoiz ere bekhaturic egun gabe, egoiten direla. Ceren Salomonec dioen beçala: *Septies cadit justus:* (1) Iustua ere çazpitán erorico da, cenbait bekhatu beniatetan bedere beaztopaturen da. Baina aditzen da ecen bekhatu bat eguiten duenean, hartaric berehala, hartzan guti pausatutrie, ilquitzen dela, eta iltquiric azquen finean bekhaturie gabe guerthatzen dela; Salomonec berac erraiten duen beçala: *Septies cadit justus, et resurgit:* Erorico da justua, erorico da çazpitán; bai ordea çazpitán ere berriz iaiquico, eta ez eroria egonen.

1) Prov. 24.

Batçuec harcen dute gogo eta borondate, cebait demboraz bedere, bekhaturic egun gabe egoiteco. Ceren hain da bekhatura pisu, itsusi eta icigarri, non uste baitut, ecen eziela nehor ere, gaichtoago bada ere, bere gaichtaqueriac unhatcen eztuenic, eta bertee bicitce molde bat lotcea desiratzen eztuenie. Ordea batere eta nehoiz ere bekhaturic egun gabe egoiteco gogo deliberatua, perseberatzeo firmetasuna, gueroco utzten dute.

Badu gure GUERO hunc hemen ere bere etchale-khua, eta ostatua. Bada baldin içanen bala firmetasunac GUERO; behar da perseberatcer, eta firme egoitera enseiatu ORAI. Aitcineko obra onac dira ondoko fin onaren eta perseberantziaren bidea eta seinalea. Iaiqui eta eror dabillanaren bicitcea, bicitce perilosa da; guztiz ere baldin eroriric dembora guehiago eguiten badu, iaiquiric baino.

Aguian aste batez edo biaz, egoiten çara bekhaturic egun gabe; baina urthe batez, eta hamarrez bekhutan. Badaquien gaichtaquerian pensatzen, irauten, eta perseberatzen; baina ez onatasunean. Eta badio san Agustinec, ecen hunela bekhututan egoiteac, eta perseberatzeac, hasserretzenago duela laincoa, bekhatu eguiteac berac baino: *Non enim qui peccaverit, sed qui in peccatis perseveraverit, odibilis et abominabilis erit Deo.* (1)

(1) August. serm. 58. de tempo.

§ 3.

Ebaquitzen dñçunean çubaitz bat, eta berriz hartaric ert-umesc edo adarrac sorteen, direncan agueri da etcenduela osoqui eta ondotie ebaqui, guelditu cela cenbait erro eta çain.

Halaber çauria ere behin sendatuteat utciz guero, herehala gaizcoatzen denean, badirudi guelditu cela cenbait cutsu, cenbait narrio, etcela ongi sendatu. Hala bada behin bekhatutaric sendatuz guero, herehala eritzen eta hictara bilburteen denean, badirudi guelditu cela cenbait erro, cenbait bekhatuaren oneiritze; etcela ongi sendatu ez garbitu, etxuela apartatcerca cinqui deliberatu.

Eguia da ordea, ongi garbitu eta sendatuagatic ere, guertha daquidicayo berriz liquitstera, critcera eta bekhatu egutera. Ceren bekhatuaren erroa eta cimendua, libertatearequin bekhaturako pendura.

Baina guztiarequin ere, behin eror eta berriz iaiqui ibilteea, seinale gaichtoa da, eta azquenecotz galgarri. *Unus adficans et unus destruens, quid prodest illis nisi labor :* (1) Batec egun, eta batec deseguin, cer probetchu, trabaillua baicen? Bada halaber cer probetchu da, behin iaiquitceaz, baldin berriz erortzen bada, eta eroriric dagoela eta datçala guelditzen bada? Cer probetchu da bide luceari lotceaz, gogo duen lekhura helicen ezpada? Ger probetchu, unteiac bethe-

(1) Eccli. 34.

ric, eta cargaturie bela ongi eguiteaz, baldin portura baino lehen edo portuan galtzen bada? Cer probetxu etchearen hasteaz, akhabatzen ezpada? Ezta asco ongi hastea, akhabatu behar da. Iudas ongi hasi zen, baina gaizqui akhabato. Loten emaztea ere Ainsniruaren manuaren complitzen ongi hasi zen, Sodomitic iltzui zen, ordea guibelat behatceaz galdu zen, hargatze gatz bihurtu zen. Eta gatz bihurtze huen gainean erraiten du Glosac : *Sal est condimentum ciborum : et ideo uxor Lot respiciens retro, versa est in statuam salis, quia punitio ejus dat condimentum sapientiae penitentibus, ne ad pristina peccata revertantur :* (1) Gatzac du indar eta berthute, ianhariey gozo eta caphore emaiteco, eta bai aitcinerat ere iraun aracitceco. Eta halatan guibelat behatceaz, gatz bihurtu zen; hari eman ceican goztiguaz cuhurt gaiten eta ikhas dezagun eztugula guibelat behatu behar, eta ez lehen utzi ditugun bekhatuetarat bihurtu. Halatan erraiten deracu Iaincoac berac : *Memento uxoris Lot :* (2) Orhoit gaitecilla Loten emazteaz, ontxa gaitecilla haren baithan, hari guerthato ceicana, guertha eztagunigun; eta haren gatz hariaz gacituri begala, ontsau iraun dezagun eta bekhaturat itxultcetio eta bekhatutau nstelcetio beguira gaitecin.

§ 4.

Ezta guibelat behatu behar, ceren hala behatceaz

(1) Lyranus in cap. 9. Genesis.

(2) Luc. 17.

peril da gaizqui hel çaiten. Iluna exemplo bat edo elhe bat, elkhar hil nahi çoten batçuen artean guerthatua. Hasi eiren bi guiçon ezpata colpeca ; eta batac, maliciosago baitcen, erran cioen hertceari : Hola, hola, bihoa hortic çure guibelean dagoen guiçon hori, eznaiz ni biaren contra hari. Orduan ustez ecen egniaz mintço cen, behatu çuen guibelat, eta bitarte hartan, eman cioen bere bethea, eman cioen çafadarraco bat, hil çuen. Hala eguiten derane bada deabruac ere, guibelat, leheneco bicitee gaichtorat behatcen duteney etabihurteen direney.

Nemo mittens manum ad aratrum et respiciens retro, aptus est regno Dei : (1) goldeari escua eçarri ondoan guibelat behatcen duena, ezta ceruko erresumaren erdiesteco gai ez on, dio gure Iaincoac. *Arator respiciens retro, facil sulcum tortuosum aut inutilem :* sic accipiens melioris vita flatum, et habens affectum redeundi ad pristinum statum, ineptus est regno Dei adipiscendo : (2) Golde-nabarretan, tur lantcen eta aphaintcen, guibelat beha dagoela hari denac, hildoa makhur eguiuen du, ezta hura goldelari ona.

Badira lan batçuc, eta obra batçuc, aitcinerat guibelerat, saihetserat, edo norat nahi den beha dagoela eguinagatic ezpaita antsia, nola baita iatea, edatea, mintçatcea. Bainha badira berriz bertee batçuc, nola baitira esquiribatcea, pintatcea, iostea, golde-nabar-

(1) Luc. 9.

(2) Lyran. in cap. 9. Luc.

ren eta arben ere haritcea, ezpaitira ongi egüten, bethi contu eduquitcen dela, eta aiteinerat arthez behatzen dela baicen. Hala da bada ceruko erresuma ere: baldin erdietsico bada, arthez ibili behar da, aitxina ioan behar da, ezta guibelat, leheneco bekhatuetarat behatu behar eta ez bihurtu. Ceren bihurtcecotz, probetchu guti da, lehen egun den guztiaz.

Erhoa da, behin garceletik itxuriz guero, berriz bihurtu nahi dena, eta bai behin bide batetan arrobatu dutenean, berriz handic iragan nahi dena ere. Hala-coac, animalia adimenduric eztuenac baino, adimendu gutiago du. Ceren animaliac, bere adimendu gabearequin ere, eztira lehen gaizqui heldu diren lekhura berriz bihurtzen, baina bai bekhatorea bihurtzen da. Hunen gainean erraiten du londone Petric: *Melius enim erat illi, non cognoscere viam justitiae, quam post cognitionem retrorsum converti*: (1) Ilobe eñueyen eguiatzco bidea iaquin gabe egon, iaqninez guero guibelat bihurtu baino. Hala emaiten du aditceras lesu Christoc herac ere: *Novissima autem ejus erunt pejora prioribus*: (2) Behin deabrua spiritualqui edo corporalqui bereganic atheraz guero, bere saltaz berriz sarteera utzten duena, gaizquingo da orduan bigarren hartzan, lehenbicicoan baino; perilosago da azquen hutsa, lehena baino: azquenac lehena ahantzen du. Hunen arauaz abisatu euen paralítico

(1) 2. Petri. 2.

(2) Lue. 11.

sendatua ere, bere sendatçailleac : *Ecce sanus factus es, jam noli peccare, ne tibi deterius aliquid contingat* : (1) Badacusaçu sendatu çarela, beguirea bada berriz eriteclic, cerbait are lehen baino gaizquiago guertha eztaquicun. Ceren gaichito da eritasuna, baina gaichitoago berretura : gaichito da çauria, baina gaichitoago gaizcoadura. Gaichito da cofesatu gabe egoitea, baina aldez gaichitoago cofesatu ditutçun bekhatuetara bihurteea. Bigarren bihurte eta erortee hura gaiteingo çaiica Iaincoari lehenhizicoa baino.

Ezagutçagabelasun handia da eta ingrat igaitea, Iaincoari, cofesatcean eta handie campoan, ceure orainoetan eta ohoitzetan, hanbat promes eginez guero, eta hequin hatean ceure bekhatuen barkhamendua, eta berteeric ere anhiltz garacia, fabore eta ontasun erdietsiz guero, promesac hautsiric, berriz leheneco maina gaichtoetara bihurteea ; hanbat obligacion, esquer gaichtoaz pagatcea.

§ 5.

Hain da handi, eta itsusi bigarren bekhatua, behin barkhatuz guero berriz eguiten dena, non harc bere ingratasonaz, leheneco bekhatu barkhatuac ere bihurteen beçala baititu. (2) Eta ezta miretsceco, ceren bigarren bihurtee harc, leheneco bekhatu barkhatnac ere erraberriteen, gogora ekharteen eta pitzen beçala baititu. Eta hala guionen iusticiae ere behin açotatua, bigarren atrapaduran, bortitzquiago gaztigatzen du.

(1) Joan. 5.

(2) Vide S. Tho. 3. q. 88. art. 2. in corp.

Behin utzi çuen bekhatura berriz bihurtzen dena, comparecen du Spiritu Sainduae, bere okha egoina iaten duen orarequin : *Sicut canis qui revertitur ad vomitum, sic imprudens qui iterat stultitium suam :* (1) Eta londone Petric are guehiago, comparecen du halacoa, lohira hidioztatcera bihurtzen den urdearequin : *Canis reversus ad vomitum, et sus lota in volutabro luti.* (2) Hain da gauça batsa, liquitsa, quiratsa, higuiña eta nardagarria, or baten bere okha eguinaren, eta ahotic egotziaren berriz iretsten ikhustea, non baldin Spiritu Sainduac berac, usatu ezpalu comparacion hunez, ezpainintzen ni aitphatcera ere ausartuko. Baino erraiten du Spiritu Sainduac, derragun guc ere behin bekhatura cofesatu, ahotic egotzi, eta berriz hartara bihurtcea, bere okha eguinaren beraren irestea begala dela. Ceren okha lura cein licun eta urde den, are baita liçunago, eta urdeago bekhatusa.

Beraz hunelatan ezta leheneco bekhautetara bihurtu behar, eta ez behin garbituz guero berriz liquitstu ere. Aiteitic daguigun, eta deragun esposac begala : *Lavi pedes meos, quomodo inquinabo illos ? Expoliavi me tunica mea, quomodo induar illa ?* (3) Oinac garbitu ditut, nola bada liquitstuco ditut ? Athorra cikhina erauntzi dut, nola bada iauntzico dut ?

Cofesatu ondoan, munduae, deabrusac edo hara-

(1) Prov. 26.

(2) 2. Petri. 2.

(3) Cantic. cont. 5.

guiac berriz bekhatu eguitera, eta leheneco estatuau, egoitçan, etçauntçan eta toquian iarteara akhometatcen çaituztenean, ibardetsi behar duen: nolatan ahal daidipnet nic hori? Garbitu ditut neure oinac, nola bada liquistueo ditut? Eranntzi dut behin athonra lohia, nola bada bernez iaunteico dut? Biluci naiz behin aztura gaichto guztiataric, nola bada bernez beztituico naiz? Utzi ditut behin, nola bada bernez hartuico ditut? Edo bernez hartecolz, certaco utzi behar nitnen? *Si paenitens es, noli facere; si faris, certe paenitens non es*, dio san Agustinec: (1) Baldin baçara penitent, baldin lehen eguinaz damu baduén, eztaguiçula guehiago; coren baldin eguiten baduén, agueri da etçarela penitent, eztagiçula lehenaz damu.

Differentzia handia da salbatzen direnen eta salbatzen eztirenaren artean: eta differentzia haur, eztago ez guztia bekhatu eguitean edo ez eguitean. Geren salbatzen direnetaric, batçuec eguin çuten noizhait bedere bekhatu; londone Petric, londone Pauloc, Magdalena, eta bai hertze anhitzec ere. Baino differentzia dago, behin edo bernez bekhatu eguitera guerthatuagatik, hequen fite utzteam, eta behin utziz guero ez hetara bernez bihurteean. Hala edireiten da, lehenagoco sainduac, cebait bekhatutan erori baciren ere, fite iaiqui cirela; eta behin iaiquiz guero, etcirela guehiago erori, eta ez bere leheneco bekhatuetara eta ez bertetara bihurtu. Hala eguin behar dogu bada

(1) August. lib. de vera et falsa pen.

guc ere. *Qui secutus es peccantem, sequere patitentem.* (1) Baldin orainocoan iarriqui bagatzaizte saindu cembaiti bekhatu eguitean, iarriqui behar gatzaizte halaber bekhatuen utztean, eta behin utziz guero, ez herriz hetara bihurtcean.

Fineraino, eta finean perseberateen duena, içanenda salbatua eta ongi cortheatum: *Qui autem perseveraverit usque in finem, hic salvus erit.* (2) Bertce guztiac deus guti dira, azquen finac darama coroa, akhabateean cantsteen da loria.

Beraz fin hari, eta akhabateeco loria hari beguia eduquiric, hareraino eta han behar dugu, egun heretic, GUEROCO beguira egon gabe, bekhaturic gabe, ontasunean egoitera enseiatu; hartaracotçat ORAI guerocó utzi gabe gueure bekhatuac urriquimendu handi batequin cofesatu eta utzi, eta aitcinerat guehiago eguitetic beguiratu. Ceren halatan erdietsico dugu orai perseberantciaren donna, eta guero, azquen finean, arimen salbamendua, seculaco loria. Hala biz.

AMEN.

(1) Sanctus Ambr. ad Theod.

(2) Math. 10.

1. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

2. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

3. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

4. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

5. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

6. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

7. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

8. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

9. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

10. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

11. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

12. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

13. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

14. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

15. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

16. *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.* - *W. C. G. & Co., Inc.*

BILHAPIDEA.

LEHEN PARTEA.

GUEROTIARRAC.

I ALFERRA.

| | Orri- aldetar egitarren capituluak. | Edizione guerreco capituluak. |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------|-------------------------------------|
| I CAP. Nola berteeac bertee direla, alferqueriari ihes eguiteagatik ere, behar den trañaillatu... . | 4 | I |
| II CAP. Cembat calte eguiten duen alferqueriac eta nola bandic sorteen den guerotic guerora ibiltcea..... . | 16 | II |
| III CAP. Nola alferrari nahicunde hutsetan, eta desircunde choiletan iragaiten çayon dembora. | 24 | III |

II GAZTEA.

| | | |
|--------------------------------------------------------------|----|------|
| IV CAP. Gaztelieç cahartcera penitencia luçateen duenaz... . | 33 | MIII |
|--------------------------------------------------------------|----|------|

III ÇAHARRA.

| | | |
|-------------------------------------------------------------|----|-----|
| V CAP. Cahartcean ere penitenciarieteguiten eztuenaz..... . | 46 | XIV |
|-------------------------------------------------------------|----|-----|

IV HILTICERA DOIHANA.

| | | |
|-----------------------------------------------------------------|----|----|
| VI CAP. Heriotceco oreueraiño bekhatutian egon gogo duenaz... . | 56 | XV |
|-----------------------------------------------------------------|----|----|

Ori-
ginea. Edizione
paharreco
capitulac.

V ARNEGARIA.

| | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|-----|
| VII CAP. Iuramentuaz eta Iuramentu eguiteco usantçaz, eta nota behar den lehen baino lehen usantza hora utzi..... | 78 | XIX |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|-----|

VI ASERRECORRA ETA HERRATSUA.

| | | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|-------|
| VIII CAP. Cembaletalte eguiten duen co- lerae eta etsaigoa; eta nota behar den lehen baino lehen etsaigoatik ilqui | 96 | XX |
| IX CAP. Coleraren iraungnitceco lehen- bicico erremedioia da bat be- derae, bere condicino haser- recorra eçaguturie, hari be- guiaren eduquitea? | 110 | XXI |
| X CAP. Coleraren iraungnitceco bigar- ren erremedioia: dirasquien eltecarri eguiten çaicana, co- lerari ere eguitea..... | 114 | XXII |
| XI CAP. Coleraren iraungnitceco hirur- garren erremedioia: ez or- duan lehiatcea, colera iragan arteino pausatea, | 122 | XXIII |
| XII CAP. Coleraren iraungnitceco laur- garren erremedioia: conside- rateea, etsaiek eguiten de- rauzquiguten bidegab ac lain- coaren gaztiguac direla..... | 127 | XXIV |
| XIII CAP. Coleraren iraungnitceco hortz- garten erremedioia: conside- rateea cer moldez dagoen cure etsaiak, baserre denean. | 132 | XXV |
| XIV CAP. Coleraren iraungnitceco sci- garren erremedioia: ez bilhat- cea cer dioten gutçaz iendec. | 134 | XXVI |

Ori-
ziden. Edicio
etxarreco
capitalas.

| | | | |
|------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|--------|
| XV CAP. | Coloraren iraunguitceco, gaineraco bertce erremedioac, laburzqui ecarriac | 137 | XXVII |
| XVI CAP. | Cergatic behar diogun gueure etsaiari barkhatu eta amorio eduqui. Lehenbikico arraçoina: cereo laincoac manatzen baitu..... | 143 | XXVIII |
| XVII CAP. | Bigarren arraçoina, cergatic behar dingun gueure etsaiari barkhatu: cereo mendecatcea beretçat beguireteen baitu laincoac..... | 152 | XXIX |
| XVIII CAP. | Hirurgarren arraçoina, eta oracotz azquena: barkhatu behar diogula gueure etsaiari laincoac guri barkha diaçagun amorenaegadic..... | 155 | XXX |

VII ATSEGALEA.

| | | | |
|-----------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|--------|
| XIX CAP. | Gembat calte eguiten duen haraguiaren bekhatime..... | 160 | XXXI |
| XX CAP. | Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen bigarren eta hirurgarren calteaz; eztucla den ahaikoarie hurconaz ere couturic eguiten, eta ez hartaco iuramenturic compitseen..... | 169 | XXXII |
| XXI CAP. | Haraguiaren amorio desordenantuac eguiten duen lanngarren calteaz: amoltsu, eta haquezen cirenac, eguiten baihitu eruel eta guerlati.. | 172 | XXXIII |
| XXII CAP. | Haraguiaren amorio desordenantuac eguiten duen bortzgarren calteaz: soseguric eta pausuric gabe ibentzeaz.... | 176 | XXXIV |

| | | Ori- aldeaz | Edicioe guarreco en pitiluac. |
|-------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|-------------------------------------|
| XXIII CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco, eta handie heldu di- ren salten erremediatecco lehenbieico erremedioa eta bidea : Oracinoa | 180 | XXXV |
| XXIV CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco, bigarren erreme- dioa : hartaco gogoetey le- khuric ez emaitza | 183 | XXXVI |
| XXV CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco, hirurgaren erre- medioa : borondatearen de- liberamendua | 186 | XXXVII |
| XXVI CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco laurgaren erreme- dioa : ez alfer egoitea | 192 | XXXVIII |
| XXVII CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco bortzgarren erreme- dioa : consideratcea cein tti- pia, eta laburra den hartaco placera | 196 | XXXIX |
| XXVIII CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco seigarren erreme- dioa : hartaco placerae cein ondore gaichtoa bere ondotic utzten duen consideratea... | 204 | XL |
| XXIX CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco çazpigarren erreme- dioa : bortz censuez, eta le- henbieioric begoiez contu eduquitcea | 204 | XLI |
| XXX CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco cortcigarren erreme- dioa : nhibaz contu eduquit- era | 208 | XLII |
| XXXI CAP. | Haraguiaren bekhatutic begui- ratceco bederateigarren erre- | | |

Orie-
aldea. Edicioe
zaharrean
capitulume.

| | | | |
|------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----|-------|
| | mediao : sabelari ex sobera emaitea | 216 | XLIII |
| XXXII CAP. | Haraguaren bekhatutic begui- ralceco , lehenen guineraco erremedioac | 222 | XLIV |

BIGARREN PARTEA.

GUEROTIARREN PITZGARRIAC.

I. GUEROA EZTA GUEUREA.

| | | | |
|-------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----|----|
| XXXIII CAP. | Nola extugun guerooco sega- rantzarie | 231 | IV |
| XXXIV CAP. | Nola guerooco benturaren ben- turau benturaturic , galteen garen | 243 | V |

II. GUEROAGO NEQUEZAGO.

| | | | |
|-------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----|------|
| XXXV CAP. | Nola den gueroago gaitzago bekhatutic ilquitcea | 252 | VI |
| XXXVI CAP. | Nola guerotic guerora ibiltceaz coberateez den usantea gaichtoa | 260 | VII |
| XXXVII CAP. | Nola usantea gaichtoae gogor- een , eta ezantsiateen duen bekhatorca | 270 | VIII |

III. BEKIATUEN NEURRIA.

| | | | |
|--------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|----|
| XXXVIII CAP. | Nola guerotic guerora gabila- cala betha ditequeyen bekha- tu en neurria , eta osa contua .. | 283 | IX |
|--------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|----|

Ori
aldia, Edicio
gaztareko
capitulua,

IV. IAINCOAREN ATSECABEA.

- XXXIX CAP.** Nola guerotic guerora luçamendutan dabilianac eguiten dioen bidegabe iaincuari.... 298 LIII

V. AINGUIRUEN ATSECABEA.

- XL. CAP.** Nola luçamendutan guerotic guerora dabilianac eguiten derauen atsecabe Ainguiruey. 305 LIV

VI. GUZTIEN BIDEGABEA.

- XLI CAP.** Nola guerotic guerora luçamendutan dabilianac eguiten derauen bidegaiet, bere burruari, bere guiristino lagunari, eta hai munduko hertze gauza guztiey ere..... 311 LV

VII. CONCIENTCIAREN ALIADURA.

- XLII CAP.** Nola guerotic guerora gabiltzan bitartean, alha caicun concientzia..... 317 XLV

VIII. OBRA ONEN GALTCEA.

- XLIII CAP.** Erremusina edo limosna egiteaz, eta handic sortzen den probetchuaz..... 337 XVI

- XLIV CAP.** Nola erremusinac eta hertze obra on borondatzeoac ere, cerorec ceure escuz, edo bertcerenez cerori hici carela, ondoçoetara utzi gabe, egun behar ditucon..... 332 XVII

- XLV CAP.** Nola obra obligacionozeoac, concientziaz gor dituticunac, ondoçoetara utzi gabe, cerorec egun behar ditucon..... 338 XVIII



BILHAPIDEA

OBRA SOCIAL

COLABORACIONES DE BILBAO

559

Edicion
calunreco
capitulacion.

IX. DEMBORAREN GALTCEA.

- XLVI CAP.** Nola guerotic guerora ibiltceaz,
galtcen duçon dembora 365

xii

X. IAINCOAREN MISERICORDIA.

- XLVI Bis. CAP.** Anhitz balio duela Iaincoaren misericordiac, eta nola behar den hartan fidatu.... 382

x

- XLVII CAP.** Iaincoaren misericordian fidaturic eztela penitencia eguitatea guerooco utzi behar.... 388

xi

XI. IAINCOAREN IUSTICIA.

- XLVIII CAP.** Nola ifernuco penen consideratzeac buhar dituen guerotiarrac phitztu..... 403

LVI

- XLIX CAP.** Behatoresac ifernuan içanen duen bigarren penaz eta gatziguaz, cein deitzen baita : pena sensus, sensuaren pena. 414

LVII

- L CAP.** Infernuau daudenec eztute handie ilquitceco esperantcarie..... 429

LVIII

- L1 CAP.** Cergatic hain dembora aphurrean eta laburrean eguiten den bekhatuari, emaiten cai-can hain gastigu handia , lucea, eta seculakoa..... 439

LIX

- LII CAP.** Cergatic Iainco misericordiosac, demboraren burnan bedere , ezterauen ifernuan daudeney barkhatzen? . . . 444

LX

XII. BERTHUTEAREN ERREZTASUNA.

- LIII CAP.** Nola ikhussiric ifernuco bidea den gaitzago Parabisuoa baino , behar den guerotic guerora ibiltcea utzi..... 452

XLVIII

Ori-
aldean: Ediciose
guharreoa
capituluak.

| | | |
|---------------------------------------------------------------|-----|------|
| LIV CAP. Nola parabisueo bidea den erraz..... | 439 | XLIX |
| LV CAP. Nola parabisuea bidea den erazago ifernuoa baino..... | 475 | I |

XIII. BERTHUTEAC DAKHARQUEN BAQUEA.

| | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|------|
| LVI CAP. Nola guerotic guerora çabilit- çan bitartean galiceen ducon concientzia onaren baquea eta sosegua..... | 497 | XLVI |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|------|

AZQUENTZA.

I. BEHAR DELA COFESATU.

| | | |
|----------------------------------------------------------------------|-----|-----|
| LVII CAP. Cofesatzearen premiaz..... | 511 | LI |
| LVIII CAP. Maiz cofesatzeaz, eta handic heldu den probetxuaz..... | 523 | LII |

II. BEHAR DELA ONIRAUEN EDO PERSEKURATE.

| | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|-------|
| LIX CAP. Nola orajilanie behar dugun, gueroeo begiura egon gabe, ontasunean irautera eta per- seberatcera enseiatu..... | 534 | XLVII |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|-------|

(Chochenean LX garren capi-
tula liteque, ceren XLVI
garrena, biertan, huts egui-
nie, egarria içan baita.)

AKHABANTZA.

